


Aupa batasuna!

Eman ta zabal zazu..



H e n r i D u h a u

Aupa batasuna !

Liburu ale andana bat gelditzen da oraino zuen gomendio. Eskuratu nahi lukeenak deitu behar du beherean dagoen helbiderat.

Il reste encore un certain nombre de livres à votre disposition. Pour en recevoir veuillez prendre contact à l'adresse ci-dessous.

© Henri DUHAU
“Mariatorena”
48, Karrika nagusia
64310 Senpere

Marrazkilariak : Pantchika ARANA eta haren alaba Yohanna DELGADO.

Inprimatzailea : Imprimerie du Labourd 8, Agustin Chaho kaia. Baiona

Dépôt légal : 1^{er} trimestre 2000.

AURKIBIDEA

Aurkibidea	1
Aurkibide alfabetikoa	6
Aipatu gai nagusien taula.....	8
Aipatu pertsonen zerrenda	10

FR 3 Pays Basque edo Euskal Herriko Irrati Etxetik egin hitzaldiak

1980-09-17	Euskararen alde jokatu	13
09-24	Haragi garbia noizko ? // “ Ereileak ”	14
10-01	Lapurarren Biltzarra // Belgikanoak ere pilotan // EDB	15
10-08	Baiona eta Iruñea elkarrekin lanean	16
10-15	Ondarea zaindu eta landu	17
10-22	Euskal Dantzarien Biltzarra // Senpereko ikastola	18
10-29	Zuberoak bizi behar du // Euskara ikasi // Uztaritzen	19
11-05	Zer lantegi mota gure gazteentzat ?	20
11-12	Euskara eskoletan zabaldu // Laxalt gora Ameriketara	21
11-19	Japones langileak // Folklore : hitz errespetagarria	22
11-26	Laborariak kexu // Txistularien aldizkaria	23
12-03	San Frantses Jatsu eta Xabierkoa	24
12-10	Hegoaldeko berri // Eskualdun Gazteria.....	25
12-17	Euskal Departamendu bat // Etxaberen alde.....	26
12-24	Polonian esperantza piztu // Irisarrin, Beskoitzen	27
12-31	“ Denek ” “GFA” “Korrika” // Euskal afaria	28
01-07	Gogo berritzailea pizteko.....	29
1981-01-14	“ Le Tournoi des 5 Nations ” // Uztaritzen iratzartzen ari	30
01-21	Ingurumenaz axolatu gehiago.....	31
01-28	Euskal laborari gazteak eredu // Sarako ikastola	32
	Berriz mintzatzeko baimenik ez ukan	33

Enbata astekari politikoarentzat egin artikuluak

1981-10-01	Euskal Herriaren berreuskalduntzea	36
10-15	Zatitzaleei ihardukitzeko bil gaitzen.....	37
11-07	Eusko Jaurkitzatik laguntza dator	38
11-26	Euskal Herriaren aldi noiz ?	39
12-24	Poloniarrekin bat	40
1982-02-04	Haritz bizkaitarra // Herritarki	41
02-25	Hitzemanak eta bertzeak.....	42
03-11	Emazteen eta abertzaleen borroka // Gora dantzariak !	43
05-06	Eskola libroak eta gu // Larrainen, Eiheralarren eta Senperen	44
05-13	Duela urtea // Mundiala	45
06-03	Batasun gehiago // Karlos Garaikoetxea // Ikastolak	46
06-24	Mitterrand eta Thatcher	47
07-15	Gauden erne // Mundialaz	48
08-05	Herri bakoitzari bere tokia // Jack Lang	49
08-26	Agur eta ohore	50

09-16	Egia irakats dezagun.....	51
10-07	Noiz arte ?.....	52
10-28	Eztabaidatu bai, elkar jan ez ! // Herritarki	53
11-18	Gizarte dohakabea	54
12-30	Iraultzak ez gaitzan iraul.....	55
1983-01-20	Kaledonia Berria, Korsika eta Euskadi // Herrietako hauteskundeak	56
02-10	Lehen beharrak azken	57
03-03	Herria zutik	58
03-24	Bidegurutze.....	59
04-14	Ikurrina goratu	60
05-05	Euskal elkarteak herri-zutabe	61
05-26	“ Gora gazteak ! ”	62
06-16	Gizarte harremanak // Gernika	63
07-07	Gure helburu sanoak // Euskara gai denetz	64
07-28	Turismoaz gu ere	65
08-18	Errexkeriari gogor egin.....	66
09-08	Urpetik.....	67
09-29	Gure ordezkariak noizko ?.....	68
10-20	Ez bururik gal	69
11-10	Zurkaitz bizia	70
12-22	Zer Eguberriak.....	71
1984-02-02	Herri-semeak // Euskal kultura elkarten biltzarra	72
04-05	Jakin behar dugu.....	73
04-26	Ez da beharra bezalakorik.....	74
05-17	Ez da zorion osorik	75
06-07	Libertatearen izenean // Are Senpere !	76
06-28	Gogortu ala zabaldu ?	77
07-19	Iheslariekin bat // Europazaleak	78
08-08	Nahasketa izigarria	79
09-06	Norat goaz ?	80
10-11	Irrintzi eta txalapartak.....	81
11-01	Mintzaira berritu.....	82
11-22	Itxaropen eta oinarri bila	83
12-13	Arrasateko izarrari jarraiki	84
1985-01-04	Gure kasu berezia	85
01-24	Euskadi euskalduna	86
02-14	Zaharrak berri // Seaska // Kaledonia Berria // Juquin, Garaikoetxea.....	87
03-28	Euskadi baitan sinetsi	88
04-18	Buru bezainbat aburu.....	89
05-09	Reagan-i ez, euskarari bai ! // Euskararen Eguna	90
05-30	“ Hitzak ederrak dituzu baina... ”	91
06-20	Populutasuna eta arrazakeria	92
07-11	Ihardukitzearen iraunbideak // Saltegi desagertze	93
08-01	“ Allande Oihenart ” en ildotik.....	94
09-12	Irabazi nahi badugu	95
10-03	Herriak ez du barkatuko // Kaledonia Berria // “ Desbideratzeak ”	96
11-14	Bide hertsia // Azaroaren hamaika	97

12-05	Batasun gogoa zabaldu	98
12-26	Eguberri goxoagoak noizko ? // Kabiliako berbereak // P. Broussain.....	99
1986-01-16	Bide guziak aztertu	100
02-06	Herri-zurgatzaileak // Gaskoiak eta gaskoiera	101
02-27	Hauteskundeak // Sokoa	102
03-20	Boz-ondo // NATOri eza	103
05-15	Gorabeherak.....	104
06-05	Berri on zenbait	105
06-26	“ Alai eta kementsu ”	106
07-17	Iratzar gazteak !	107
08-07	Denak Baionarat larunbatean	108
09-18	Ezin maita eta ezin hastia	109
10-09	Ausartzia izpi bat.....	110
10-30	Bai baketiarak gara gu.....	111
11-13	Poeta bai, eroa ez !.....	112
12-12	Behaztopatu dira azkenean	113
1987-01-01	Argigune eta itzalgune.....	114
02-12	Mende berri, bide berri.....	115
03-05	Urak bezala // Hau justiziaren osasuna !	116
03-26	Gaitzetik ona sortzen ?	117
04-16	Ikurrinaren Eguna	118
05-28	Dantzari Eguna	119
06-18	Ohargarriena HBren gorakada.....	120
07-09	Minak ugari.....	121
07-30	Demokraziaren mugak // Jokin Apalategi	122
08-20	Oreka bila	123
09-08	Eztabaidagai // Belokeko Komentuari.....	124
10-01	Nolabait atera beharko.....	125
10-22	Orain ihardetsi nola ?	126
11-12	Esperantzaren ikurrina	127
12-03	Euskaldungoa lehen ezar // Senpere herri gaitza	128
1988-01-14	Umezurtz.....	129
02-04	Ongi kudeatua // Enbata: astekari berezia	130
02-25	Ilunpetan izartxo	131
03-17	Beti aurrera	132
04-07	Aberri Eguna genian.....	133
04-24	Boz-ondo gogoetagarriak.....	134
05-19	Gizarte aldaketak	135
06-09	Goiti ari.....	136
06-30	Sara maitagarria.....	137
07-21	Gogoetatxo batzuk.....	138
08-11	Basamortu ala oihan ? // “ Agosti Xaho ”	139
09-22	Bozka abertzale !	140
10-13	Botereak usteltzen du	141
11-03	Ez da goizegi !	142
11-24	Ernal indarra	143
12-15	Gaixo armeniarak	144

1989-01-05	Euskara maitez.....	145
01-26	Eguneroko eskandalak	146
02-16	Euskara hilzorian	147
03-09	Abertzaletasuna plazaratua.....	148
03-30	Alderdi egunak	149
04-20	Komunikazio eta heldutasun	150
05-11	Izigarrikeria // Elebitasuna	151
06-01	Ondorioen zain	152
06-22	“ Ametsa lagun nazak... ”	153
08-03	Hazparneko biltzarrerat	154
08-24	Ekialdetik eki ?	155
09-14	Hobearen nahikundez	156
10-05	Iharduki nolabait.....	157
10-26	Aldaketa giroa.....	158
11-16	Berlin-etik Bidasoa-rat	159
12-07	Xingilika	160
12-28	“ Libertatea ! ”	161
1990-01-18	Korapiloa osorik	162
02-08	Tinka hortzak !.....	163
03-01	Odolaren margoak	164
04-12	Egiazko hobendunak.....	165
05-03	Betiko eztabaidak	166
05-24	Juduak bai, Juduak ez // Ipar Buru Batzar	167
06-05	Norat doa gure gizartea ? // Gure iritzi soila	168
06-14	Euskararen hautua // Norat goaz ?.....	169
07-26	“ Abadia Ürrüstoi ” // Jean Louis Caussade	170
08-16	Egoera kezkaigarria	171
1996-01-11	Handia bezain maltzurra.....	172
02-08	Garaian garaikoa.....	173
03-07	Aupa Elkarri !	174
04-04	Etsaia gizentzeko partez	175
05-02	Lana denentzat.....	176
05-30	Galindo preso.....	177
06-27	Isilarazi nahi gintuzkete.....	178
09-19	Ohiturak eztabaidan.....	179
10-16	Rufino Jauregi ohoratua	180
11-14	Bi anaiak	181
12-12	Euskaldunak lanean ari.....	182
1997-01-16	Bego gizona bere herrian.....	183
02-13	Zinez deitoragarria.....	184
03-13	Fruitu harjoa	185
04-10	Euskara eta Iparralde	186
05-08	Ideiak eta gizonak	187
06-05	Argiak eta itzalak.....	188
07-03	Gizarte ohitura berriez.....	189
08-28	Kristau gazteen biltzarra.....	190
09-25	Erramuna Bazterretxekoari.....	191

10-23	ELAren harroaldi bikaina	192
11-20	Emaizta itxaropentsuak.....	193
12-18	Lurrari zor dizkiogunak	194
1998-01-15	Ezin onartuzkoa	195
02-12	Goazen beti aitzina	196
03-12	Hautetsi abertzalea Bordelen ?	197
04-09	Bide berri bila	198
05-07	Iraultza isilaren aldia ?.....	199
06-04	Ama beraren umeak.....	200
07-02	Bide onean sartu gara	201
07-30	Buruz jokatzeko ordua.....	202
08-13	Apokalipsia liburutik ?	203
09-24	Udazkenean udaberri	204
10-22	Pinochet harrapatua	205
11-19	Euskaldunak bildu lehenik.....	206
12-17	Aro berriko lanak.....	207
1999-01-14	Euskararen oihartzun batzuk	208
02-11	Euskal Departamenduari bai !	210
03-11	“ Zubien ” beharra	211
04-08	Dirua nagusi bakar.....	212
05-06	Kosovoko gerla harrigarria.....	213
06-03	Hodei guzien gainetik.....	214
07-01	Garbiketa linguistikoa	215

Herria astekarian agertu batzuk

1968-06-20	Lur berri, gogo berri	216
1980-06-12	Dantzari Eguna	218
1991-05-16	Jean Hiriart-Urruty zena gogoan	220

Denetarik

Dokumentu bat	222
Manex Erdozaincy Etcharten gutun bat	223
Lan eta lan ? Hortzak izerdi !	224
Hiztegitxoa	226
Jean-Louis DAVANTen hitza.....	230

Aurkibide alfabetikoa

“ Abadia Ürrüstoi ”	170	ELAren harroaldi bikaina	192
Aberri Eguna genian	133	Elebitasuna	151
Abertzaleatasuna plazaratua	148	Emaizta itxaropentsuak	193
“ Agosti Xaho ”	139	Emazteen eta abertzaleen borroka	43
Agur eta ohore !	50	Enbata: astekari berezia	130
“ Alai eta kementsu ”	106	“ Ereileak ”	14
Aldaketa giroa	158	Ernal indarra	143
Alderdi egunak	149	Erramuna Bazterretxeoari	191
Alderdi handiez kanpo	87	Errexkeriari gogor egin	66
“ Allande Oihenart ” en ildotik	94	Eskola libroak eta gu	44
Ama beraren umeak	200	Esperantzaren ikurrina	127
“ Ametsa lagun nezak ”	153	Etsaia gizentzeko partez	175
Apokalipsia liburutik ?	203	Etxaberen alde	26
Argiak eta itzalak	188	Europazaleak	78
Argigune eta itzalgune	114	Euskadi baitan sinetsi	88
Aro berriko lanak	207	Euskadi euskalduna	86
Are Senpere !	76	Euskal afaria	28
Arrasateko izarrari jarraiki	84	Euskal Dantzarien Biltzarra	15, 18
Aupa Elkarri !	174	Euskal Departamendu bat	26
Ausartzia izpi bat	110	Euskal Departamenduari bai !	210
Azaroaren hamaika	97	Euskal elkarteak herri-zutabe	61
Bai baketirrak gara gu	111	Euskal Herriaren aldi noiz ?	39
Baiona eta Iruñea elkarrekin lanean	16	Euskal Herriaren berreuskalduntzea	36
Basamortu ala oihan ?	139	Euskal kultura elkarte biltzarra	72
Batasun gehiago	46	Euskal laborari gazteak eredu	32
Batasun gogoa zabaldu	98	Eskualdun Gazteria	25
Bego gizona bere herrian	183	Euskaldunak bildu lehenik	206
Behaztopatu dira azkenean	113	Euskaldunak lanean ari	182
Belgikanoak ere pilotan	15	Euskaldungoa lehen ezar	128
Belokeko komentuari	124	Euskara eskoletan zabaldu	21
Berlin-etik Bidasoa-rat	159	Euskara eta Iparralde	186
Berri on zenbait	105	Euskara gai denetz	64
Berriz mintzatzeko baimenik ez ukan	33	Euskara hiltzorian	147
Beti aurrera	132	Euskara ikasi	19
Betiko eztabaidak	166	Euskara maitez	145
Bi anaiak	181	Euskararen alde jokatu	13
Bide berri bila	198	Euskararen Eguna	90
Bide guziak aztertu	100	Euskararen hautua	169
Bide hertsia	97	Euskararen oihartzun batzuk	208
Bide onean sartu gara	201	Eusko Jaurlaritzatik laguntza dator	38
Bidegurutze	59	Ez bururik gal	69
Botereak usteltzen du	141	Ez da beharra bezalakorik	74
Bozka abertzale	140	Ez da goizegi !	142
Boz-ondo	103	Ez da zorion osorik	75
Boz-ondo gogoetagarriak	134	Ezin maita eta ezin hastia	109
Buru bezainbat aburu	89	Ezin onartuzkoa	195
Buruz jokatzeko ordua	202	Eztabaidagai	124
Dantzari Eguna	119, 218	Eztabaidatu bai, elkar jan ez	53
Demokraziaren mugak	122	Folklore: hitz errespetagarria	22
Denak Baionarat larunbatean	108	Fruitu harjoa	185
“ Denek ” “ Korrika ” “ GFA ”	28	Gaitzetik ona sortzen ?	117
Dirua nagusi bakar	212	Gaixo armeniarak	144
Dokumentu bat	222	Galindo preso	177
Duela urtea	45	Garaian garaikoa	173
Egia irakats dezagun	51	Garbiketa linguistikoa	215
Egiazko hobendunak	165	Gauden erne	48
Egoera kezkagarria	167	Gaskoiak eta gaskoiera	101
Eguberri goxoagoak noizko ?	99	Gernika	63
Eguneroko eskandalak	146	Gizarte aldaketak	135
Ekialdetik eki ?	155	Gizarte dohakabea	54

Gizarte harremanak.....	63	Laborariak kexu.....	23
Gizarte ohitura berriez	189	Lan eta lan ? Hortzak izerdi !	224
Goazen beti aitzina	196	Lana denentzat	176
Gogo berritzailea pizteko.....	29	Lapurarren Biltzarra	15
Gogoetatxo batzuk.....	138	Larrainen, Eiheralarren, Senperen	44
Gogortu ala zabaldu ?	77	Laxalt gora Ameriketan	21
Gora dantzariak !	43	“ Le Tournoi des 5 Nations ”	30
Gora gazteak !	62	Lehen beharrak azken	57
Gorabeherak	104	“ Libertatea ! ”	161
Goiti ari	136	Libertatearen izenean	76
Gure helburu sanoak.....	64	Lur berri, gogo berri.....	216
Gure iritzi soila.....	169	Lurrari zor dizkiogunak.....	194
Gure kasu berezia.....	85	Manex Erdozaincy Etcharten gutun bat	223
Gure ordezkariak noizko ?	68	Mende berri, bide berri	115
Handia bezain maltzurra	172	Minak ugari.....	121
Haragi garbia noizko ?	14	Mintzaira berritu	82
Haritz bizkaitarra	41	Mitterrand eta Thatcher	47
Hau justiziaren osasuna !.....	116	Mundiala.....	45, 48
Hauteskundeak	102	Nahasketa izigarria.....	79
Hautetsi abertzalea Bordelen ?	197	NATOri eza	103
Hazparneko biltzarrerat	154	Noiz arte ?.....	52
Hegoaldeko berri	25	Nolabait atera beharko	125
Herri bakoitzari bere tokia	49	Norat doa gure gizartea ?	168
Herri-semeak	72	Norat goaz ?	80
Herri-zurgatzaileak.....	101	Odolaren margoak	164
Herria zutik	58	Ohargarriena HBren gorakada	120
Herritarki.....	41, 53	Ohiturak eztabaidan	179
Herriak ez du barkatuko.....	96	Ondarea zaindu eta landu	17
Herrietako hauteskundeak.....	56	Ondorioen zain	152
“ Hitzak ederrak dituzu baina ”	91	Ongi kudeatua	130
Hitzemanak eta bertzeak	42	Orain ihardetsi nola ?	126
Hobearen nahikundez	156	Oreka bila	123
Hodei guzien gainetik	214	Pinochet harrapatua	205
Ideiak eta gizonak.....	187	Poeta bai, eroa ez !	112
Iharduki nolabait.....	157	Polonian esperantza piztu.....	27
Ihardukitzearen iraunbideak.....	93	Poloniarrekin bat	40
Iheslariekin bat.....	78	Populutasuna eta arrazakeria	92
Ingurumenaz axolatu gehiago	31	Reagan-i ez, euskarari bai	90
Ikastolak, Seaska	46, 87	Rufino Jauregi ohoratua.....	180
Ikurrinaren Eguna	118	Saihesbideak	96
Ikurrina goratu.....	60	Saltegi desagertze.....	93
Ilunpetan izartxo	131	San Frantses Jatsu eta Xabierkoa.....	24
Ipar Buru Batzar.....	167	Sara maitagarria	137
Irabazi nahi badugu	95	Sarako ikastola	32
Iratzar gazteak !	107	Senpere herri gaitza	128
Iraultza isilaren aldia ?	199	Senpereko ikastola	18
Iraultzak ez gaitzan iraul.....	55	Tinka hortzak !.....	163
Irisarrin, Beskoitzen.....	27	Turismoaz gu ere.....	65
Irrintzi eta txalapartak	81	Txistularien aldizkaria	23
Isilarazi nahi gintuzkete.....	178	Udazkenean udaberri.....	204
Itxaropen eta oinarri bila.....	83	Umezurtz	129
Izigarrikeria.....	151	Urak bezala.....	116
Jakin behar dugu.....	73	Urpetik.....	67
Japones langileak.....	22	Uztaritzen iratzartzen ari	30
Jean Hiriart-Urruty zena gogoan.....	220	Xingilika	160
Juduak bai, juduak ez	167	Zaharrak berri	87
Kabiliako berberekak.....	99	Zatitzaleei ihardukitzeko bil gaitzezen.....	37
Kaledonia Berria	56, 87, 96	Zer Eguberriak.....	71
Komunikazio eta heldutasun	150	Zer lantegi mota gazteentzat ?	20
Korapiloa osorik.....	162	Zinez deitoragarria	184
Korsika.....	56, 96	Zuberoak bizi behar du !	19
Kosovoko gerla harrigarria	213	Zubien beharra.....	211
Kristau gazteen biltzarra.....	190	Zurkaitz bizia	70

Aipatu gai nagusian taula

ASKATASUN, BURUJABETASUN, INSTITUZIO

HERRI ESKUBIDE: 13, 15-16, 18, 20-21, 25, 27, 28, 34, 40-42, 44-45, 49-50, 52-54, 56-58, 60, 64-66, 69-71, 73-74, 78, 80, 83-91, 93, 99, 101, 103, 111, 116, 118, 120, 124, 127, 134, 143-144, 158, 161, 169, 172-175, 178, 181, 183, 190, 192, 199-200, 204, 210.
Aberri Egunak 34, 35, 75, 90, 118, 133, 134, 149, 165, 166, 181.
Estatutua 25, 38, 86, 89, 116, 131, 157, 192, 200.
Eusko Jaurlaritza 21, 38, 39, 63, 86, 89, 157, 215.
Hauteskundeak 21, 28, 34, 36, 41-45, 52-53, 56, 58-60, 63, 67-68, 72, 75, 78, 85, 102-103, 106, 114-116, 120, 122, 130, 134-136, 138-140, 143, 148, 174-175, 177, 187, 188, 193, 196-198, 200-201, 204, 205, 207.

FRANTZIA, FRANTSESAK, PARIS: 115 aldiz.
ESPAINIA, ESPAINOLAK, MADRIL: 58 aldiz.

EUSKAL DEPARTAMENDUA: 26, 37, 46, 47, 68, 73, 76, 77, 85, 87, 100, 118, 138, 172, 181, 182, 187, 204, 207, 209, 210.

ABERTZALEEN ARTEKO BATASUNA: 16, 26, 37-38, 46, 48, 53, 56, 59-61, 64, 73, 77, 83, 90, 95, 98-100, 103, 105, 108, 111, 114-115, 126-127, 130, 133, 139, 143, 149, 153, 159, 165-166, 173-174, 181, 187, 191-192, 195-198, 200-202, 204, 206, 214, 225.

ALDERDI POLITIKO ETA ERAKUNDE:

Aintzina 166.
Abertzaleen Batasuna (AB) 195, 196, 197.
Berdeak, ekologistak 104, 134, 153.
CDS zentristak 46, 58.
Euskadi Ta Askatasuna (ETA) 39, 40, 70, 71, 92, 95, 104, 120, 126, 130, 133, 141, 157, 169, 174, 177, 195, 197, 200, 204.
Euskadiko Ezkerra (EE) 74, 106, 115, 120, 130.
Euskal Batasuna (EB) 105, 108.
Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS) 103, 126, 166.
Euskal Mugimendu Abertzalea (EMA) 102, 103, 105.
Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) 39, 58, 70, 74, 81, 85, 88, 89, 99, 103, 106, 115, 116, 120, 130, 131, 157, 167, 170, 174, 192, 196, 197, 200, 201, 204.
Eusko Alkartasuna (EA) 105, 115, 120, 130, 192, 196, 201.
GAL 78, 79, 92, 99, 105, 122, 172, 177, 200, 205.
Goiz Argi 103, 105, 131.
FN, eskuin muturra 63, 77, 95, 102, 107, 122, 124, 134, 160, 168, 178, 188, 196.
FLNKS 96, 151.
Herri Batasuna (HB) 53, 70, 74, 99, 105, 106, 115, 116, 120, 149, 153, 157, 174, 183, 192, 195, 201, 202.
Herri Taldeak 34, 58, 126, 166.
Herriaren Alde 175, 178.
Herritarki 41, 53, 58, 59.
Iparretarrak (IK) 73, 79, 121, 131, 133, 152.
IRA 71, 100.

Izan 33, 126, 225.

IU Ezker Batua 201, 204.

Komunistak 27, 45, 77, 84, 102, 107, 122, 135, 144, 153, 155, 160, 162, 163, 164, 188, 194, 199, 200, 221.

Partidu Popularra (PP) 174, 177, 198, 205, 214.

Patxa, Oldartzen, IEGA 166.

PS frantses sozialistak 36, 52, 56, 71, 72, 76, 77, 78, 85, 87, 99, 100, 105, 136, 153, 168, 172, 188.

PSOE 52, 70, 81, 86, 89, 106, 116, 118, 120, 153, 157, 178, 201, 205, 214.

RPR, gaulistak 40, 45, 58, 65, 85, 87, 99, 102, 122, 188, 192, 199.

Sinn Fein 187.

HERRI ETA HERRIALDE:

Aljeria 48, 81, 82, 98, 99, 108, 110, 122, 141, 144, 172, 192, 201, 210.

Armenia 54, 144, 162.

Alsazia 198, 211.

Biarnoa 15, 16, 37, 68, 87, 101, 200.

Bretainia 37, 40, 55, 60, 66, 184, 198, 211.

Eskozia 45, 187, 191.

Estonia 144.

Flandria 80, 89, 182, 184, 195.

Ipar Irlanda 19, 170, 173, 187, 200.

Israel 49, 70, 89, 117, 121, 167, 171, 173, 176, 202.

Kabilia 99, 141, 197, 201.

Kaledonia Berria 56, 85, 87, 96, 124, 134, 151, 172.

Katalunia 55, 184, 195, 198, 199, 215.

Korsika 43, 56, 70, 81, 134, 162, 213.

Kurdistan 171.

Martinika 89, 124, 188.

Mendebaldeko Zahara 80, 141.

Okzitania 55, 198, 215.

Palestina 49, 70, 167, 171, 173.

Québec 80, 85, 86, 169, 173.

Vietnam 90, 99, 164, 213.

Hegoalde 17, 25, 63, 67, 73, 74, 99, 115, 127, 132, 139, 151, 153, 173, 184, 186, 204, 207, 210, 214, 218.

Nafarroa 15, 16, 18, 24, 25, 38, 53, 75, 86, 98, 106, 120, 149, 179, 181, 200, 204.

Iparraldea (artikulu gehienetan aipatzen da).

Zuberoa 18, 19, 37, 76, 86, 94, 98, 119, 170, 179, 182, 209, 218.

Beskoitze 25, 27, 117, 180, 189, 191, 212, 216. **Otxalde taldea** 27, 32, 182.

Senpere 15, 17, 18, 31, 34, 39, 41, 44, 59, 65, 75, 76, 94, 96, 104, 116, 123, 128, 131, 136, 150, 162, 168, 182, 206, 208, 212, 216, 223.

Errugbilariak (SPUC) 76

Gure Herria (Senpereko talde politikoa) 208.

Oxtikenea (kultura taldea) 182.

Senpereko ikastola 18.

Senpereko Gure Lurrak 35, 208, 216, 222.

Zirikolatx (Senpereko Dantzari Taldea) 35

EUSKARA, EUSKALDUNGOA: 13-16, 19, 21, 25, 28, 33-36, 39, 42-47, 51, 57-58, 61-62, 64, 69-70, 72, 74, 76-77, 83, 85-88, 90, 92-99, 101, 104, 113-114, 117-118, 121, 145, 147, 154, 165, 172, 178, 182, 184, 186, 189, 191, 195, 197, 198, 204, 207-209, 211.
AEK, Korrika 28, 36, 57, 145, 150, 151, 169, 209.
A(h)uñamendi 219.
Antzerkilariak 55, 73, 129, 143.
Bertsolariak 18, 27, 73, 129, 150.
Deiadar 198.
Eguzki Lore 182.
Ereileak 14.
Errobi 211.
Euskal Dantzarien Biltzarra 15, 18, 34, 38, 43, 45, 61, 73, 74, 75, 83, 119, 150, 181, 218, 225.
Euskal Hitz 163.
Euskal Idazleen Biltzarra (Sara) 74.
Euskal Konfederazioa 184.
Euskal kultura elkarteak 38, 43, 61, 72, 128.
Euskal Kultur Erakundea 165.
Euskal Kultur Etxea 165.
Euskaltzaindia 13, 19, 62, 74, 76, 77, 117, 129, 138, 186, 191.
Euskaltzaleen Biltzarra 83, 90.
Euskararen Eguna 90.
Euskaria 159.
Garaztarrak 142.
Haurren Eguna 150.
Hautetsi abertzaleak 108, 149, 150, 152, 197, 210.
Herri Urrats 75, 104, 150, 168.
Hitza Hitz 47, 58.
Ikas 19, 21, 95.
Ikas-Bi 128, 151.
Iruñeko Gambera Abesbatza 16.
Kukumiku 211.
Lapurtarren Biltzarra 15.
Nafarroaren Eguna 15, 75, 150, 181.
Orreaga, Orria 94.
Pastoralak 46, 55, 76, 139, 170, 179.
Pizkundea 72, 77, 128, 151.
Seaska, ikastolak 15, 16, 18, 19, 21, 28, 30, 32, 35, 42, 43, 46, 48, 53, 57, 58, 59, 64, 71, 74, 75, 77, 79, 83, 87, 95, 98, 99, 100, 104, 109, 124, 125, 163, 169, 172, 181, 182, 207, 209.
Tobera Mustrak 94.
Udaleku 207.

KAZETAK, IRRATI-TELEBISTAK :

Ager 114.
Ateka 101.
Egin 33, 74, 114, 202.
Ekaina 223.
Ekaitza 114, 175.
Enbata 33, 36, 43, 50, 60, 71, 75, 77, 83, 86, 89, 93, 98, 101, 103, 104, 107, 112, 114, 126, 127, 145, 166, 175, 179, 184, 185, 189, 199, 202, 223, 225.
Escualduna 95, 117.
Euskaldunon Egunkaria 179, 182.
FR3 Pays Basque 13, 34,
Gure Herria (Etudes Basques) 129.

Gure Irratia 39, 75, 131, 170.
Herria 34, 83, 90, 116, 117, 154, 211, 220.
Herriz Herri 107.
La Semaine du Pays Basque 187.
Maiatz 206.
Radio Adour Navarre 33.
Sud Ouest 34, 37, 104, 136, 150, 157, 210, 215.
TF1 / A2 71, 105, 108, 110, 124, 125. **ORTF** 199.

EKONOMIA: 20, 22, 28, 77, 79, 80, 82, 84, 93, 101, 113, 125, 132, 152, 155, 158, 164, 172, 176, 183, 185, 187, 193, 203, 208, 212, 215, 220.
Copelec 20.
Denek 28, 93.
Hemen, Herrikoa, 58, 80, 112, 114, 131, 132, 133, 146, 163.
Ongi Heldu Euskal Herrian 166.
Sokoa 102, 112, 114, 131.
Merkataritza, saltegi 20, 26, 37, 81, 86, 93, 101, 112, 123, 128, 172, 176, 193, 203, 208, 209, 212.
Turismoa 20, 26, 64, 66, 75, 79, 104, 107, 123.
Laborantza 14, 16, 19, 20, 23, 28, 32, 52, 58, 60, 65, 66, 75, 88, 95, 96, 101, 104, 123, 139, 176, 180, 182, 193, 212, 216. **Berria** 143. **Lur Berri** 132, 216.
Lurra GFA 28, 32, 150. **Sica Esnea** 20.

SOZIALA, SINDIKATUAK: 20, 32, 40, 82, 152, 160, 166, 176, 183, 185, 203, 212. **CGT** 40, 77.
Euskal Laborarien Batasuna (ELB) 121, 182, 193.
Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) 192, 195, 201.
Langile Abertzaleen Batasuna (LAB) 201.
Ofizialeak 193.
Solidarnosc 40, 44, 155.

GIZARTEA: 14, 22, 30, 63, 66, 67, 69, 87, 88, 91, 92, 95, 110, 113, 115, 116, 128, 135, 142, 145, 158, 166, 168, 179, 187, 189, 207, 215, 216.
Ahaideak 164.
Amnesty International 78.
Borroka armatua 13, 48, 66, 70, 71, 89, 103, 104, 114, 121, 130, 136, 173, 181, 195, 207.
Elkarri 174, 195, 201.
ESAIT 201.
Eskualdun Gazteria (MRJC) 25, 32, 161, 190, 220.
Giristino solas 16, 24, 25, 32, 41, 46, 81, 110, 113, 115, 117, 129, 135, 142, 158, 160-164, 190, 200, 220.
Giza Eskubideak 28, 64, 71, 79, 91, 99, 118, 124, 126, 138, 141, 144, 176, 190, 207, 213.
Hezkuntza Nazionala 29, 33, 44, 47, 57, 87, 100, 109, 128.
Iheslariak, presoak 72, 73, 78, 79, 80, 100, 105, 108, 109, 111, 112, 114, 116, 120, 121, 126, 138, 164, 181, 189, 195, 202, 204, 205, 207, 209, 215.
Ingurumena 31, 139, 146, 194, 203, 204, 208.
Kirolak 30, 45, 48, 76.
Manifestazioak 16, 26, 39, 78, 99, 113, 114, 130, 132, 144, 152, 162, 175, 189, 198, 201, 207, 210.
Ohiturak 14, 16, 22, 23, 45, 61, 74, 179.
Ondarea 17, 137.
Pilota 15, 29, 53, 57, 59, 60, 76, 131, 157.
SIADeco 147, 163.

Aipatu pertsonen zerrenda

- Abeberry** (Jakes) 127, 121, 131, 167, 178, 197, 198, 225.
Abeberry (Koko) 131.
Abeberry (Maurice) 131.
Achiary (Beñat) 18.
Agirre (Jose Antonio) 89.
Ajuriaguerra (Isabel) 75.
Albistur (Pantxo) 32.
Albizu (Daniela) 101.
Alfaro (Gexan) 13, 34.
Alkhat (Ernest) 18, 27.
Amatiño (Luis Aranberri) 117.
Angevin (Pantxo) 132.
Aniotzbehere (Jean) 182.
Arana (Sabino) 74, 99, 66, 87, 99, 190.
Ardanza (Jose Antonio) 157, 158, 169, 176, 177, 198.
Arrosagaray 27.
Arzallus (Xabier) 58.
Atutxa (Juan Maria) 177.
Apalategi (Jokin) 19, 122.
Aurnague (Jakes) 175.
Azkue (Resurrección M^a) 99.
“Axular” (P. Agerre) 16, 137.
Barnetche (Maite) 34.
Berhocoirigoin (Michel) 198.
Barbier (Jean) 17, 206.
Bedachagar (J M) 27, 139.
Beizteguy (Jose Manuel) 92.
Belokeko Aita Abadea 124.
Betelu (Pierre) 119.
Bidart (aita-semeak) 131.
Bidart (Filipe) 164.
Blot medikua 14.
Bortheyrou (Jakes) 178.
Brave (Martxel) eta
Bessonart (Jean Noel) 19.
Broussain (Pierre) 99.
Burucoa (Michel) 127.
Camblong (Ramuntxo) 34, 153.
Cami (Charles) 65, 131.
Caussade (Jean Louis) 170.
Chaho (Agustin) 19, 139.
Charritton (Piarres) 33, 75, 77, 99, 133, 136, 117, 166.
Coscarat (Xan) 33.
Coumet (Jacques) 58.
Darraidou (André) 180.
Dassance (Bernard) 34.
Dassance (Louis) 30, 166.
Davant (JL) 27, 167, 170, 223.
Delicetche (Etienne) 22.
Destrade (Jean-Pierre) 72, 76, 136, 172.
Dirassar (Jean-Baptiste) 34, 104.
Dospital (Peio) 76.
Duboscq (Frantz) 157.
Duhalde (Andde) 19.
Duhau (Paxkal) “ semetto ” 57.
Duhau (Piarres) “ aita zena ” 22.
Duhau (Xane) “ amari ” 195.
Erdozaincy-Etchart (M) 223.
Errecart (Jean) 47, 99, 139, 172, 216, 224, 225.
Erremundeguy (Panpi) 75.
Esponde (Txomin) 18, 27.
Etchegaray (Roger) Kardinala “ ezpeletar... ” 198.
Etchehandy (Marcel) 142.
Etchepare (Jean) 77, 81.
Etcheverry (Ernest) 33.
Etcheverry (Jakes) 34.
Etcheverry (Louis) 117.
Etxabe (Juan Jose) 26.
Etxamendi (Eñaut) 19, 119.
Etxart (Niko) 211.
Etxebeltz (Beñat Amestoy) 40.
Etxebeste (ama-semeak) 131.
Etxepare (Bernard) 148, 211.
Eyherabide (Jean Cyprien) 212.
Garaikoetxea (Karlos) 25, 80, 87, 106.
Garat (Dominique) eta
Garat (Dominique Joseph) 55.
Gouyon (Paul) Apezpikua 152.
Goyhenetche (Eugène) 30, 167.
Goyhenetche (M) 83, 101, 140.
Grenet (Henri) 58, 219.
Grenet (Jean) 136, 181, 204.
Haran (Ximun) 167.
Haritschelhar (Jean) 99, 142, 145, 186.
Herran Kanbokoia 180.
Heguy (Maddi) 121.
Hiriart-Urruty (Jean) 95.
Hiriart-Urruty (Jean) Bikario Orokorra 198, 220.
Idiart (Roger) 41, 127, 129.
Idigoras (Jon) 174.
Inchauspe (M) 102, 167, 181.
Irabola (Matxin) 206.
Iruretagoyena (Claude) 211.
Iturbe (Txomin) 58, 116.
Jauregui (Rufino) 180.
Jorajuria (Paul) 116.
Knörr (Gorka) 30.
Labayen (Erramun) 120.
Labéguerie (Michel) 68, 98, 152, 166, 197, 198, 225.
Lafitte (Piarres) 30, 62, 64, 83, 97, 117, 137.
Lafourcade (Batista) “ aitatxi zena ” 97.
Lahargou (Jean) 154.
“Laka” (Jean Louis Harignordoquy) 27.
Lakuntza (Xabier) 16.
Lamassoure (A) 136, 180, 184.
Landart (Daniel) 33, 143.
Larralde (Madalena) 129.
Larran (Henri) 25.
Larre (Emile) 145.
Larre (Koxe) 175.
Lasa (Josean) 177.
Lassallette (Raphaël) 136.
Larzabal (Piarres) 50, 55, 62, 81, 127, 129, 131.
“Lazkao Txiki” bertsolaria 27.
Legasse (Marc) 162.
Leizarraga (Joanes) 117.
Lekuona (Mixel) 127.
Leralu (Claudine) 128.
Lichau (Isabelle) 128.
Linaza (Tomas) 81.
Luberriaga (A) 123, 131, 165.
Maitia (Frantxua) 126.
Maitia (Jean Louis) 152.
Manterola (Xabier) 58, 63.
Marie (Bernard) 91, 102.
“Matalas” (Bernard Goyhenetche) 19, 94.
Mendiboure (Xan) 96.
Mendisco (Bernard) 154.
Minaberry (Marie-Jeanne) 30.
Mirande (Jon) 189.
Molères (Pierre) Jaun Apezpikua 111, 121, 142.
Moleres Senperekkoa 206.
Monzon (T) 41, 46, 129, 131.
Mouesca (Gabi) 205.
Narbaiz (Piarres) 34, 198.
Noblia (Patxi) 82, 102, 112, 131.
Oihenart (Arnaud) 94.
Oñaederra (“ Kattu ”) 71.
Ospital (Maryse) 180.
Ospital (René) 132, 189.
“Otxalde” bertsolaria 189.
“Otxobi” (Jules Moulier) 17.

- Pikabea** (Jose Ignazio) 93.
Pitrau (Jean) 19.
Robles-Arangiz (M) 41, 180.
Robles-Arangiz familia 132.
Sagardia (Jose Martin) 28.
Saint-Martin (Jacques) 26.
Salaberry (Etienne) 34, 139, 145, 211.
San Frantses Xabierkoa 25.
San Ignazio Loiolakoa 24.
Sarrionaindia (Joseba) 93.
Setien Jose M“ (Gotzaina) 142.
Tafernaberry (Pilli) 119.
“Txillardegí” (JLAE) 129.
Ugalde (Martin) 117.
Uhalde (Peio) 99.
Urbeltz (Juan Antonio) 211.
Viala (Albert) 26.
Villasante (Luis) 117.
Viscaya (Markos) 99.
“Xalbador” (Fernando Aire) 191, 214.
“Xanpun ” (Manuel Sein) 27.
Ybarnegaray (Jean) 99, 197.
“Yoyes” M” D. Gonzalez) 109.
Zabala (Josi) 177.
Zabaltza (Mikel) 99.
-
- Arafat** (Yasser) 70.
Arpaillange 138.
Aznar (J Ma) 174, 177, 202, 205.
Badinter (Robert) 172.
Barbie (Klaus) 121.
Barre (Raymond) 124.
Barrere 56.
Barrionuevo 99, 105.
Bayrou (Francois) 184.
Ben Barka 39.
Benhazir Buto 164.
Bérégovoy (Pierre) 146.
Bigéard 45, 52.
Blair (Tony) 187.
Boumediene (Houari) 53.
Briane (Jean) 184.
Brejev (Léonid) 155.
Broussard 56.
Camara (Don Helder) 164.
Cardoso (Don Jose) 164.
Castro (Fidel) 164.
Ceausescu 132, 161.
Chamorro (Violeta) 164.
Che Guevara (Ernesto) 197.
Chevènement (JP) 47, 95, 215.
Chirac (J) 52, 111, 124, 130, 134,135,183,184,189,215.
Choucq (Yami) 109.
Cori Aquino 164.
De Gaulle (Charles) 40, 45, 81, 99,192,199,141, 210.
Debatisse 221.
Decaux (Alain) 65.
Delaunay (Gabriel) 146.
Delors (Jacques) 159.
Devaquet 113.
Désir (Harlem) 124, 168.
Fabius (Laurent) 92, 135.
Ferry (Jules) 124.
Franco 41, 54, 71, 90, 157, 189, 192, 198, 205.
Galindo (Rodriguez) 177.
Gandhi (“ Mahatma ”) 93.
Garzon (Baltasar) 205.
Gérard (Bernard) 34.
Giresse (Alain) 99.
Giscard d’Estaing (Valérie) 26, 33, 52, 58, 116, 153.
Goldwater 90.
Gonzalez (Felipe) 174, 177.
Gorbachev (Mikhail) 144, 155, 56, 159.
Gravier 85.
Guigou (Elisabeth) 210.
Guillebaud (J ean-Claude) 215.
Halimi (Gisele) 108.
Héraud (Guy) 59.
Hernu (Charles) 146.
Hitler (Adolf) 28, 67, 91, 122, 159, 161, 192.
Hugo (Victor) 215.
Hussein (Saddam) 171, 213.
Joan Paulo II.a 24, 90, 160, 164, 211.
Jolivet (Guy) 34.
Jonhson 90.
Jospin (Lionel) 188, 206.
Joxe (Louis) 147, 163.
Juan Carlos I.a 93.
Juquin (Pierre) 87, 134.
Kadhafi 109.
Khomeiny (Ayatollah) 80, 171.
Lafleur (Jacques) 151.
La Fontaine 149.
Le Pen (J-M) 122, 123, 124, 134
Le Pensec 72, 76.
Lagaillarde 122.
Lang (Jack) 49, 163.
Langlois (Denis) 108.
Laxalt (Paul) 21.
Legrand epailea 131.
Luther King (Martin) 90.
Lustiger kardinala 110.
Luis XIV.a 19.
Marchais (Georges) 52.
Marx (Karl) 123.
Mauroy (Pierre) 42.
Marcellin (Raymond) 77.
Marie-Jeanne (Alfred) 188.
Martin errektorea 87.
Maurras (Charles) 215.
Mermoz (Jean) 214.
Milosevic (Slovodan) 213.
Mitterrand (Danielle) 158.
Mitterrand (Francois) 41, 45, 47,58, 59, 77, 81,87, 93,102, 124, 130, 134, 144, 160, 162, 172,188,192,210.
Napoléon I.a 26, 110, 122.
Napoléon III.a 122.
Noirot-Cosson 26.
Ortega (Daniel) 164.
Papon (Maurice) 192.
Pasqua (Charles) 105, 111, 200.
Pétain 40, 185, 192.
Peyronne (Georges) 210.
Pinochet (Augusto) 205.
Pompidou (Georges) 122.
Poujade 185.
Reagan (Ronald) 90, 164.
Rocard (Michel) 151.
Rocheteau (Dominique) 98.
Roudy (Yvette) 158.
Royal (Ségolene) 198.
Sagan (Francoise) 108.
Salan (Raoul) 122.
Santa Teresa Avilakoa 24.
Siméoni (Max) 153.
Suarez (Adolfo) 25.
Saint-Exupéry (Antoine de) 214
Sands (Boby) 47, 170.
Stalin 132,160,161,192.
Stirbois anderea 160.
Thatcher (M) 47, 187, 205.
Tejero 52, 71, 157.
Tjibaou (J ean-Marie) 151.
Toubon (Jacques) 184.
Vianney (J can-Marie) 110.
Walesa (Lech) 27, 144, 151, 159
Wellington 194.
Wilson (James Harold) 81.
Zakharov 144.

Eskerrak :

- Bizian sustatu nauten guziei, bereziki Euskaldun Gazteriari ;
- Etxekoei : lehen ala orain, zer egingen nuen haien laguntzarik gabe ?
- Jainkoari.

Barka diezadatela :

- Alor batzuk jorratzean aitzurraren behargabekoez hunkiak izan liratekeenek ;
- Nigandik bertzerik esperantza zutenek.

OHARRA.

“FR3 Pays Basque” edo “Euskal Herriko irrati etxetik”, orotarar 20 emanaldi zabaldu nituen, astean bat. Emanaldi horiek ez ziren “zuzenekoak”, baina beti aitzinetik zintan grabatuak goizeko 10ak irian, gero hedatuak izateko eguerdiko kazetan.

Liburutan paratzeko titulu bat eman behar ukan diet mamiaren ezaugarri.

Ez ninduten segitzera utzi, ordea ! Eta Paristik etorri zen debekuaz xehetasun batzuk datoz azken emanaldiari datxezkiola, 33. orrialdean.

Euskararen alde jokatu

1980-09-17

Euskaldun entzuleak egun on ! Euskal irratilari batzuek galdeginik, hona non lan berri honi lotu behar dudan, ezin bertzela eginez Gexan Lantzirik utzi saila, nolabait aitzina eramateko. Diot nolabait, zeren euskaltzain urgazle edo laguntzaile, euskalari bikain horren ordaintzea lan nekea baita, kasik lotsagarria enetzat beti... Ez duguia Gexan Alfaro, Urepele Lantzirikoa Iparralde honetako idazle eta hiztun hoberenetarik bat ? Euskararen sakontzeaz, barnatik ikasteaz, gain-gainetik arduratua eta axolatua. Bertzalde euskara batuaren sustatzaile suharra ere da. Hor ere badugu nahiko eztabaida euskaldun batzuen artean ; badirudi, gazteek bereziki, onaltzen dutela euskara berdin baten beharra : lehenik irakaskuntzarako, hurrek hizkuntza bertsuan eta hizkuntza bertsua ikas dezaten. Gure inguruetako ikastegietan erabiliak diren erdal hizkuntzak osoki batuak dira.

Eta gero zazpi lurraldeetako euskaldunek, gero eta gehiago elkar ikusten eta gurutzatzen baitira, behar beharrezkoa dugu, harreman sakon batzuk ukaitekotz, elkar ongi ulertzea mintzaira bakun baten bidez : Baionatik Iruñerat eta Mauletik Bilborat. Etxeetan, herrietan, mintza bedi tokian tokiko moldean ; erdara ere, karriketan, aho mihitan erabiltzen dena ez da baitezpada irakurtzen edo eskolan ikasten dugun hura bera. Euskalki guzien ikastea ezinezkoa denaz gero, indar bat egin beharko dugu, denek, urraska, euskara batuaz ere jabetzeko eta bide horretan, Gexan Lantziriren ikaslea eta jarraikitzailea naiz.

Argi eta bultza biezagute, Gexanek eta bertze Euskaltzaindikoek, sail eder hori, aspaldiko ametsa baita euskara batua. Ordu da beraz, gorputz bat har dezan, behin !

Horiek hola, euskara zertan dugun galdeginen du entzule batek. Ene ustez, euskararen omena eta errespetua azkarki goitituz joan dira azken urte hauetan. Baina, euskaltzaleek etengabe daramaten lanarengatik, mintzatzen dutenen lerroa luzatuz ala laburtuz doakigu ote ? Ene iduriko, lantokietan eta ikastegietan, euskara behar-beharrezkoa izanen ez deno, ez da egiazko aitzinamendurik izanen. Euskal Herriak beregaintasun izpi bat ukanen ez dueno ahul geldituko da euskara. Baina beregain izan ondoan ere, herri ttiki guziek bezalaxe bere mintzaira beharko du zaindu eta beraz euskaldunek atzarririk egon beharko dugu. Estatu handiak —eta gure ingurukoak halakoak dira— ez dira ttikiagoen laguntzerat ekarriak, izatekotz haien lehertzerat eta irensterat ! Handi-mandien isuri edo jaidura itotzaile, menperatzaile horri ihardukitzeko, borroka luze batean beharko dugu denek sartu eta iraun.

Ez da lotsatu behar, gizonak badu, hein batean bederen, borrokatzen ikastearen beharra, gizontzeko. Jadanik egiten du anitz sailetan eta bereziki bere laneko kideekin bere zuzenen zaintzeko ; halaber geure nortasun edo izatearen alderako borroka ere onartu behar dugu. Ez ote du egun guzietako borroka baten eskasiak sortzen ezinbertzezko borroka, erran nahi dut borroka armatua ? Gerla ere batzuetan ? Gauden beraz xutik, herriaren eta herritarren alde ; kemen eta iraupenekin berma gaitzen, geure indarrek dirauteno adinaren eta ahalen araberrako sailetan.

Entzule maiteak honetan uzten zaituztegu. Zorionak guziei eta gero arte !

Haragi garbia noizko ?

1980-09-24

Euskaldun entzuleak egun on ! Gaia frango minbera hautatu dugu egungo. Iduritu baitzaigu gertakari honek merezi zuela aipaldi bat guregandik ere : xahal edo aratxe haragiaren arazo edo problema zertan dugu ? Sekulako harrabotsak badarabiltzate, Paristik, kontsumitzaileen batasunak bere oihu samina bota zuenaz geroztik ; delako oihua hauxe zen : “Xahalkirik ez beza nehork eros, haragi hori hormona horiekin egina baita” ! Jakin dugunez, dei hau biziki entzuna izan da eta toki batzuetan, hirietan bereziki, xahalki saltzeak erditaratu dira, ez baita guti ! Haragi saltzaileek, jasan dute beraz lehenik uztarra eta gero aratxe hazkuntza egiten dutenen aldia etorriko da non ez den jadanik etorria.

Iduritu zaigunez eta gaingiroki aipatzeko, dirua dugu naski hemen ere makur guziaren iturburua... Nonbaitik ere ! Lehenik bereizi behar ditugu bi hazkuntza mota : bata, etxaldeetan egiten dena eta hemendik ateratzen den xahala edo aratxea ona da.

Bigarren hazkuntza mota bat bada, Euskal Herrian oraino biziki guti hedatua, industrialki edo “*batterie*” gisan egiten dena. Xahal sortu berriak erosten dituzte laborari etxeetan eta gero “*implant*” edo xarto bat egiten diote xahalaria eta hola, janari berarekin 7 edo 8 kilo gehiago irabaziko ditu. Horretan dago, hain zuzen, hazkuntza mota honetan egiten den mozkina. Bertzela, xarto hori gabe, ez lezakete naski, deusik irabaz ! Hornona horiek gaiztoak direnez gure osasun edo osagarriarentzat segurtamenik ez dugu. Onik deusik ez dutela hori haatik gauza segura da ! Gainerat, erremedio edo sendagailuen arazoa ez da xahaletan gelditzen, baina behietan ere bada eta naski gehiago oraino ardietan...

Laborariek lanak dituzte bizitzen ; badu urteak beren jiteak edo mozkinak ez zaizkiela langileen arabera emendatzen eta denen buru horra non muturreko bat gaitza ematen dietela ! Jadanik baitzen langileria eta laborarien artean halako elkar ezin aditu bat... ez genuen bertze beharrik ! Baina gobernari edo agintariek zer egiten dute bada hoztasun horren ttikitze edo ezeztatzeko ? Deus guti, non ez duten bereizgo hori nahitarat bizirik atxikitzen... Aratxeen edo xahalen hormona artifizial horiek badakigu non egiten diren eta hori legeak gain-gainetik debekatzen duen aldiak ! Ezin sinetsia baita ! Baina horra, irin saltzaile etxe handi batzuek, mozkin ederrak altxatzen dituzte, hazkuntza mota hau dena haien menpean baitago !

Gertakari hauek bizimolde berri bati buruz abiaraz bagintzate ez litzateke debaldetan gaurko eztabaida hau. Zein lirateke bada bizi mota hobe batetarat eraman gintzaketen bideak ? Laborariak marea aldiak dei egiten diotenean, galdatu behar lioke artamendatzen dizkion sendagailuen on-gaitzak zein diren, geroaz, haragi edo esne hura edanaren duenaz oroitzuz. Indar handia bezain salbarria egin lezake hor, ene ustez. Bertzetik xahalki erosleak behar litzuzke hautatu haragi saltzaile onak. Hauek ezagutzen ahal baitute, jakin baitezakete, beren haragia ona den ala ez. Janari ona nahi bada, haatik, dudarik gabe, beharko da gehixago ordaindu, ez da mirakulurik ! Halere, holaxe susta liteke gizarte berri bat, denentzat hobe, gauza onari, kalitatezkoari buruz itzulia eta ez ausarkitasunaren ondotik dabilena bakarrik !

“Ereileak” deitu batasun berriak apailatu duen astea, badoa beti aitzina gai aberatsenez hornitua, bete-betea. Gaurko hitzaldia Blot mediku eta jakintsuak eginen digu aipatuz euskaldunen bizimolde eta ohitura batzuk historia aurreko eta ondokoak. “Norat joan jakiteko, nondik gatozen jakin behar” dela dio errankizunak. Mundu berri honek baikarabiltza batzuetan haizeak hosto eiharra daraman bezala ez ote da on sentitzea, noiztenka gure erroak non diren, zein barna ditugun, guk, euskaldunek, herri zahar honek ? Baina horra, ez dugu ezagutzen geure historia. Zorigaitzez eskolatan ez baitigute holakorik irakatsi. Gaur badugu zerbaiten ikasteko parada, ateraldi goxo bat eginez gainerat Milafrangaraino. Beraz ez huts egin ! Entzule maiteak, gero arte !

Lapurtarren Biltzarra

1980-10-01

Euskaldun entzuleak egun on ! Datorren igandean dugu beraz, urriak 5, Lapurtarren elkarretaratzea Uztaritzen. Iaz ospatu zen lehen aldikotz eta arrakasta gaitza ukan zuen, bertzeak bertze eta ongi oroit baldin banaiz, 700 bat bazkaltiar bederen bildu baitzituen. Aurten, bigarren aldiarentzat, antolatzaileen karra ez da batere ttikitu. Iaz bezala, goizean, Lapurdiko herri batzuek erakutsiko dituzte karro batzuk zeinek hobeki apaindurik, beren herriko gai bat azaltzen dutela. Karro hauen artean dantzari talde andana bat, kantari eta soinulariak ere ibiliko dira... Eguerditan bazkaria. Arratsaldean kantariak dozena bat bederen, dantzari eta bertze...

Besta eder baten mentura beraz, mozkin guziak ikastolaren alde doazelarik. Lapurtarrak gomit dira lehenik —hauek baitute eguna apailatzen— baina erran gabe doa bertze lurraldeetakoak berdin-berdina gomit direla. Nafarroaren Egunak ere ez du mugarik ezagutzen. Lapurdik ere elkarretara bitza euskal anai-arrebak ! Lurralde honek, Frantziako Iraultza aitzin, bazeukan beregaintasun handia. Lapurtarrek, berek egin lekeen eta ohituren arabera, beren egun guzietako beharrak eta harat-honatak, xehe eta larri, beren artean antolatzen zituzten, erregeari honenbertzeko bat eman ondoan.

Besta honek oroitarazi nahi luke, naski, noizbait lapurtarrek berreskuratu behar genituzkeela geure aferen kudeatzeko eskubideak. Ez lehengo haiek berak, haiek orduko biziki onak baldin baziren ere —gaurko bizitza anras desberdina baitugu— baina gaurko beharren araberako zerbait. Goazen beraz Uztaritzerat lehengo lapurtarren gogo azkarra berpizterat !

Belgikanoak ere pilotan. Joan den aste guzian eta aste honetan ere, beraz 15 egun gure artean direla Hainaut-ik etorri ikusliar berezi batzuk. Hainaut hori Belgikan da, Pikardiako eremuetan zuzenago errateko. Pikardia ere Euskal Herria bezala zatiturik dago Frantzia eta Belgikaren artean. Lurralde honek ere, gureak bezala, bere hizkuntza eta ohiturak badauzka eta ohitura horietan pilota joko bat berezia. Ikusliar-kirolari hauen nahia zen joko horren erakustea hemen eta jokatu dira zenbait tokitan eta bereziki Senperen. Pilota xehe batekin aritzen dira kasik iduri bailuke golf-ekoa eta eskua gerizatzeko ahurrean daukate halako eskularru bat eta harekin biltzen eta igortzen dute pilota, plaza alde batetik bertzerat, luzean bezala, poxi bat.

Uste dute Erromanoetarik heldu zaiela joko hori, euskaldunek geurea, horietarik datorkigula uste dugun bezala. Ez dute haatik euskaldunek eman dioten zabaltasunik eman Pikardian ! Pixka hat ohargarri da halere, nola bi tokitan bizi izan den pilota jokoa elkarretarik horren urrun zirelarik ! Nahiko zuketene gure jokoetarik ere ikasi baina ez baita hain errex : pilota kausitzen zuten ederki baina eskuak... Xisteraz ere entseatu dira baina... Izatekotz palantxan pixka bat trebatu dira.

Ez dira haatik bakarrik pilotan ari izan : ikuska ere badabiltza mendi, merkatu, Euskal Erakustoki eta abar. Zinez hemengo jendearekin nahi dute gurutzatu : funtsean xoratuak daude euskaldunek egin dieten ongi etorriaz, nehon ukan duten beroena diotenez ! Hobe hola eta guk geure goraintziak Hainaut eta Pikardiari !

Euskal Dantzarien Biltzarrak aldizkari bat ateratzen du bizpahiru hilabetetarik. 13garren zenbakia atera berri du eta salgai da Zabala baitan, Baionan. Bertze aitzineko 12 zenbakiak ere, gehienak bederen, kausi ditzakezue hor berean edo oraino Txarranbel-enean, Donibane Lohizunen. Gure ohitura zaharrez ari da aldizkari hau ; dantza eta soinu zaharrak —oraino idatzia ez direnak eta beraz galtzeko irriskuan direnak— bildu nahi ditu. Bertzalde anitz xehetasun kausi daiteke ezagutuago diren dantza batzuez, hauen ikasteko behar diren eskema eta argazki guziekin. EDB bezala, 7 lurraldeei irekirik dago aldizkari hau eta hiru hizkuntzak badarabiltza : euskara, frantsesa eta espainola.

Baiona eta Iruñea elkarrekin lanean

1080-10-08

Euskaldun entzuleak egun on ! Iruñea eta Baionaren birazkatzea bultzatu nahiz, kargudunen mailatik herri osoaren egintza bihurtarazi beharrez, lan aste bat ospatzen da Baionan, datorren urtean errefera Iruñean eginen delako asmoarekin. Karia horretarat, atzo arratsean, Iruñeko Ganbera Abesbatza Baionako antzoki nagusian ikusi ahal ukan dugu.

Xoragarria zinez ! 9 gizon, 9 emazte : bakoitzak boz bana. Boz lantuak, neurtuak, heziak osoki. Talde hoberik ba ote da ? Apal aire bezala hasten dira, gero beti azkartuz, ozenduz doaz, eta azkenean “Agur Jaunak” bururatzeko entzule guziek xutik aditu eta txalotu duguna. Gaur arratsaldean 5 orenetan futbolariak igurikatzen ditugu eta ez edozein Osasuna taldekoak baizik ! Hauek Espainiako talde hoberenen lerroan daude eta Baionako batzuekin ariko dira ; denen jeinu eta ahalak gozatzen ahalko ditugu. Sartzea urrik. Arratsean berriz Euskal Erakustokian hitzaldi - hizketa mahai inguruan Jean Harischelhar Jauna buru, Baionak eta Iruñeak historian zehar ukan dituzten harremanak aipatzeko ; E. Goyhenetche, denek ezagutzen duguna eta J. Jimeno entzuten ditugu ; Idoate jauna, Nafarroako artxibazaina ere hor izanen da. Sartzea urrik.

Holako jakintsunen entzutea eta hauekin solastatzea biziki interesgarri da. Liburuetan asko gauza ikas daiteke segur baina liburua berenaz hotza da, zenbait aldiz luzea, batzuetan aspergarria ere doi bat. Hitzaldi hauek aldiz beroagoak dira eta berotasun horrek badu bere balioa, bere indarra. Goren ditugu, holako saila abiatu dutenak, Iruñearrek eta Baionesek elkar hobeki ezagut dezaten lehenik eta gero elkar laguntzeko. Ez baitira hala-holaka xutik ematen holako apailketa handiak ! Ahal ukanez gero eta bakoitzari gustatzen zaizkigun saioetan parte har dezagun ez bakarrik Baionesek, baina zertako ez ingurukoek ere...

Euskal historia ikertzean, Nafarroaren alderako atxikimendua laster sortzen zaigu : lurralde (erresuma ?) hau gabe nola eraiki Euskadi ? Oraino ere ukan duen ospe handiaren hatzak, herrestoak, hor dauzka, bertzeak bertze delako foruak, 13garren mendean idatziak burujabetasun osoa galdu zuenean, eta gorabehera askorekin, begiratuak izan direnak. Lehen, anitzek uste ukan dugu geure lehengo arbasoak arruntak zirela. Hainbertze jakintza berri sartu da kanpotik, irratik, kazeta eta bereziki erdal eskolaren bitartez, non sinestekotan baiken geure euskaldungoa lehengo laborari, artzain eta arrantzaleentzat on zela bakarrik ! Eta hain zuzen, nafartar batek, Axular euskal idazle ezagutuenak, salatzen digu euskara ez baldin bada bere inguruko hizkuntzak bezain trebe, euskarak ez duela hor hobetik baina bai euskaldunek !

Hori idatzi zuenean ez dut uste Sarako, bere parrokiako, kristauei mintzo zenik —haiek osoki euskararen erabiltzaileak baitzirakeen— izatekotz ez ote zituen gogoan Nafarroako Errege eta aitzindari batzuk euskara guti edo batere lagundu ez dutenak ? Atzokoak atzoko, gaur Nafarroan badugu olde edo mugimendu bat azkarra euskararen alde, bai eta Euskadiren alde erran nahi baita bertze lurraldeekilako batasunaren alde. Euskararen alderako egintzetan aipa ditzagun ikastolak karraskan zabaltzen ari direnak eta iaz egin zuten manifestazio handia, 20.000 bildu baitziren ziotela edo oihukatzen zutela “Euskara nafar hizkuntza”.

Abertzaleek lan gaitza daramate : alderdi politikoez elkar adituz, beren berezitasunak ukatu gabe. Alderdien batasun hori behar beharrezkoa litzateke Euskadin eta azpimarratzea merezi du. Gogo hori heda baledi euskal lur guzian ? Dena den Baionaren eta Iruñearen birazkatze horrek, onik baizik ez dezake ekar Iparralde guziari.

Ez dezaket bada utz aipatu gabe bihar arratsean, gaita soinuaz, hitzaldi bat ukanen dugula MJC Balichon-eko gazte etxean Xabier Lakuntza adiskidearekin. Iruñear gazte hau, honen anaia eta bertze lagun batzuk, langile baliosak ditugu soinu berezi horren alde. Balioko du horien entzutea eta solastatzea. Sartzea urrik.

Ondarea zaindu eta landu

1980-10-15

Euskaldun entzuleak egun on ! Aurten dugu beraz “*l’Année du Patrimoine*” deitzen dutena. Joan den asteko Herria kazetan ere aipatzen da “Arbasoek utzi daukutena” tituluarekin ; kultura idatziari buruz ari dira hor, hau baita, batere dudarik gabe, arbasoetarik daukagun aberastasun baliosenatarik. Ene ustez ez ditugu haatik bereizi behar batetik hizkuntzalari, idazle, bertsolari, musikariak utzi digutena eta bertzetik euskaldunek beren eskuz eta hainbat maitasunekin moldatu dituzten lurak, etxeak, altzariak, laneko tresnak, jostalekuak, ahantzi gabe gure eliza guziz ederrak.

Egiaz ez dut uste bereizten ahal ditugunik. Eskuz lanean ari denak bere burutik eta bere bihotzetik darionaren arabera lan egiten du eta beraz, nahitaez, kulturarekin zer-ikusi handia dute gure arbasoen eskulan mota guziek. Ez naiz Hegoaldeaz ariko, Iparralde honetan baitugu guhaurek, nahiko grina geure ontasunen zaintzeari buruz. Lehenik lurra, zeren ez den herririk lurrik gabe bizitzen ahal luzaz eta euskal lurra ez duguia karraskan saltzen ari ? Kostaldean bereziki eremu osoak dirudun batzuen eskuetan ditugu jadanik eta geroago eta barnago arrotzak sartzen ari zaizkigu.

Ez da haatik gaurko gaitza ! 1926an Barbier Senpereko erretore zenaren “Piarres” liburuan irakur daiteke aitzin solas bat zinez ohargarria, Otxobi apez eta euskaltzale handiak idatzia. Hona zer zioen hitzez hitz : “*Ez ote duzue ikusten Eskual Herria egunetik egunerat ttipitzen ari zaikula. Eskualdunagoak orai arte iraun badu bazterretako erauntsi eta zalaparta guziengatik, dohain berezi batzueri esker iraun duela ? Eta dohain horiek, fede, ohidura, josteta, etxe, oiha eta zur, guziak oro ahulduz, erhaustuz, ezeztatuz doatzila ? Zenbat jauregi itsas bazterrean, zenbat oiha mendi mazeletan, nolako eremuak Lapurdin bereziki arrotzen eskuko direnak...*” eta hola hola beretik jarraitzen du gure Otxobi-k.

Eta gaur gutarterat itzul baledi zer erran lezake ? 50 urteren buruan arazoa ez baita antolatu makurtu baizik ! Hiri horietan arrotzen sartzea aspaldikoa da, baina gaur baserriak ere gaitz berak jotzen ari ditu. Ikus baleza Urruña bezalako herri bat Paristarren bigarren egoitza bilakatzen ari... Eta Senpere jadanik erdaldunez betea eta gainerat lakuan lotizamendu erraldoi baten egiten ari ! Hots, kanpotarra trumilka sartzen ari zaigu eta herritar gazteek atzerrirat joan behar lanketa... Ez dea hau, zinez, egoera deitoragarria ? Nork ez dezake konpreni euskaldunen haserrea eta jazartzea ?

Euskal Herrian bagenu arrotzen euskalduntzeko ahala, pixka bat bederen... Baina urrun gara, biziki urrun horretarik. Guhaurk, euskaldun egoteko behar genituzkeenak ere eskas ditugu... Hola segituz kanpotarrek irentsiko gaituzte, bigarren “Côte d’Azur” bat eginez atsedean edo pausarako eta non-nahiko, urruneko jendearen meneko izanen gara... Badugu hor bi gogoetaren gaia, zeren, itxaropena nehoiz galdu gabe, gogor egin behar baitugu eta geure ontasun guziak begiratu eta zendako ez joritu, lehenik herria eta gazteria lagunduz lanbide berriak sortzen, hemen berean, sorterrian, euskararen indartzea ahantzi gabe !

Euskal Dantzarien Biltzarra

1980-10-22

Euskaldun entzuleak egun on ! Ez dugu oraino aipatua Euskal Dantzarien Biltzarrak egin berri duen Batzar Nagusia Baionan urri honen 12an. Zazpi lurraldeetan hedaturik dago EDB eta mugaren gainez gain batasun bakar bat egiten du, bortz ordezkariak elkartuz : Hegoaldeko lau lurraldeek ordezkariak bedera eta guk hemen, bertze bat Iparralde guziarentzat. Batasun honen lanetarik bat da dantza eta soinu zaharren, galtzeko, ezeztatzeko irriskuan direnen biltzea.

Badira nehork uste baino gehiago naski, urratsak, dantza osoak ez badira ere, jende zahar batzuek dakizkitenak frangotan ez baitute pentsatzen baliorik ukan dezaketela ere ! Guri dagokigu, beraz, zerbait dakiketenen ondotik ibiltzea eta magnetoskopoaren bidez grabatzea. Dantza asko hola osatuak izan dira eta gaur zabaldurik daude Euskal Herri guzian eta ez edozein : “Baztan”, “Axuri Beltxa”, eta abar. Dei egiten diegu hemendik bilketa horretan lagun gaitzaketenei ; sar bitez harremanetan EDBko talde edo zuzendariekin.

Baina EDBren lanik aipatuena da dudarik gabe Dantzari Eguna, Iruñekoaren eta Bilbokoaren ondotik, aurtun Baionan egin dena ekainaren lehenean. Hau izan da gainerat egundaino egin izan den Dantzari Egunik ederrena : 142 talde, 4.200 dantzari ! Euskal Herri osoa hor zen. Eta oraino talde horiek denak ez dira arratsaldeko ikusgarri nagusian sartu. Talde batzuk baitira, beren herriko edo tokiko dantzak baizik ez dakizkitenak, eta ez dira gero txarrenak ! Hala nola Otsagiko talde famatua horietarik dugu ; hauek goizean Arberatzen dantzatu zuten —talde guziek han edo hemen egin zuten bezalaxe— baina arratsaldean, Nafarroako dantzetan ez zuten parte hartu, Erribera eskualdekoak baitziren hauek !

Bertalde Dantzari Egun horren kontuak ere eman dira Baionako Batzar Nagusian. Diru sartzeak orotarot 140 mila franko. Garraioa edo autobusen saria 120 mila libera, 142 taldeei banatua izan zaiena. Gainerakoak afixa eta idazkaritzako lanentzat. Beraz bildu den diru guzia holaxe partikatu izan da ; “zilorik” ez da gelditu nehon : antolatzaileek beldur hori baitzuten ! Datorren urteko Dantzari Eguna Gasteizen finkatua da, uztailaren 26an ; Arabako hiri nagusiaren aldi beraz. Herriko besten egitarauan sartu dute.

Bertalde Iparraldeko Ordezkariak hauxe adierazi du bere txostenean : urte bakoitz eta azken 8 urte hauetan lurralde bat hautatzen duela horko dantza eta ohiturak ikasteko baina ere lurralde horrekin ezagutzak egiteko. Puntu hau garrantzi handikoa dauka, dantzaren bitartez — eta sail hau dagoelarik euskal kulturaren alorrean zutabe gotor bat — gazteek Hegoaldeko anaia-arrebekin ezagutzak egin ditzaten ! Mugaren bi aldeetarik gazteen elkartzeko ba ote da dantza baino ekai hoberik ? Gora beraz EDBak hasi eta aitzina daraman saila ; segi beza beretik, ahanzi gabe haatik, Iparraldea deitzen denean hiru lurralde badirela, ttikiak nahi dut, Hegoaldeko konparatzen baditugu, baina hiru halere, zein bere nortasunarekin. Eta Zuberoa bezalako lurralde batek ez ote luke merezi Dantzari Eguna bat hor ospa dadin ? eta Nafarroa Behereak bertze hainbertze, zergatik ez ?

Senpereko ikastolak urte guziz apailatzen duen afaria dugu igande honetan. Duela 9 urte ireki zen ikastola hau herriaren eta parrokiaren laguntza mikorik gabe. Geroztik “urak egin du bide”... Zenbait urte jadanik herriko gela batean egoitza finkatua duela ; gainerat herriko etxeak diruz laguntzen du (aurten 6 mila franko) Seaskari ematen dizkiolarik bertalde 2 mila franko lehen mailaren sustatzeko. Urtekal, 70 mila franko bederen behar dira ikastola baten biziarazteko. Diru biltzeaz gainerat, badu haatik afari honek, bertze helburu bat ere : urtean behin, Senpereko Ikastola sustatzen duten guzien biltzea, tinko-tinkoa, su beraren inguruan.

Beraz urtero bezala, Bonnet hotelean iraganen da. Irun hiriko trikitilariak hor kausituko dira. Beñat Axiari kantaria, Alkhat eta Esponde bertsolariak ere bai. Senpertarrak gomit dira, baina ikastolek ez dute herrien arteko mugarik ezagutzen, beraz zu ere euskalduna, gomit zara eta denei ongi etorri dizuet antolatzaileen partez !

Zuberoak bizi behar du !

1980-1049

Zuberotarrek apailatu duten Euskal Astea aitzina doa, herriz herri, arrakasta polita daukala. Gaur arratsean Atharratzeko zinemategian abertzalegoa aipatuko da. Bi “manex” hartu dituzte horretarako. Hautu hori gauza ohargarria zaigu “etxean” bazeukatelarik nahiko abertzale. Horrek berak erakusten digu zuberotarrak ez direla batzuetan erran den bezain bakarkariak eta beren gogo ernearekin badakitela bertze euskaldunekin lan egiten.

Gaur abertzalegoaz hitzegiteko ez zezaketen bi gizon hauek baino hoberik hauta : bata, Jokin Apalategi, filosofia eta soziologia jakintzetan tituluduna eta hain zuzen Euskal Herriko abertzalegoaz idatzi duena liburu bat, gaitzeko arrakasta daukana. Hiru mintzairetan berdin ona : euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Bertzea, Eñaut Etxamendi, olerkari eta kantari ezaguna badabil herriaren maitasuna dariola. Duela 17 urte irakasle lana parte utzirik, irakasten zuen gaietarik zerbait berak obratu nahi ukan zuen eta karraskan, bere eskuz, baratzezaingoari lotu zen, lotu, jarraiki eta jarraitzen ! Horrela bizipide berri bat ezagutaraziz gazte askori.

Zuberotarrei ez zaie urriketuko holako bi gizon kartsurekin solastaturik, hauen jakinduria gozaturik eta abertzalegoak gaur egun Zuberoari eskaintzen dizkion bideak aipatu eta eztabaidaturik. Denak biziki atxikiak gara Zuberoari eta hartaz oroitzean haxe gogoratzen zaigu lehenik : jendetza erditaratu zaiola denbora laburrez eta gaur 15 mila bizitzailerekin gelditzen zaigula bakarrik holako nortasuna eta kemena zeuzkan lurraldea. Mendiko bizi dorpeak, lantegien xuhurtzeak, beharko, mereziko zuketena laguntzarik ezak honetaratute. Gainerat erregeen denboretan, eta orobat errepublika garaietan, Paris ez da hainbat axolatu probintziez bai ordea bere nagusigoa eta jaurgoa emendatzeaz.

Historian zehar zuberotarrek ukan dituzte beren zuzenen eta ohituren zaintzaileak. Oroit zenbaiten izenez : Matalas, Luis XIV.ari jazarri zitzaiona ; Oihenart eta Chaho politika gizon eta idazleak eta gutarik hurbilago sobera gazterik joan zitzaigun Jean Pitrau laborari eta menditarren sustatzaile bai eta sindakalari bikaina. Holako aitzindariak ez ditu uste gabetarik sortzen gure Zuberoak ; holako gizonen emateko sustraia behar da eta sustraia herria da. Zuberotar lurraldeak bizi nahi du, bizi behar du !

Euskara ikasi. Ikas eta Euskaltzaindiak gomitatzen dituzte euskara sakondu, barnatik ikasi nahi luketen guziak, Euskal Erakustokian eginen den bilkura batetarat. Erabakiko dira hor urte guzia iraunen duten ikastaldien egunak eta tenoreak. Euskal gramatikaz bertzalde, kurtso horietan irakasten dira gai asko : historia, literatura, eta abar. Urte hondarrean, nahi bada, erdiets daiteke Euskaltzaindiaren irakasle titulua. Ikastaldi horien arrakasta beti emendatuz doa, irekirik baitaude euskara landu nahi duten guziei. Bilkura hori beraz, Euskal Erakustokian (Musée Basque) gaur asteazkena, arratsaldeko 6ak eta erditan.

Uztaritzen antolatzen dute Kantaldi - Erromeria handi bat ikastolaren alde, ortziralean, urriaren 3ln. Arratseko 9tan kantariak hasiko dira Brave eta Bessonart, Basaran taldea, Andde Duhalde eta denen osatzeko Uztaritzeko Txarranga. Sartzea 15 libera.

Zer lantegi mota gure gazteentzat ?

1980-11-05

Frango denbora hotxak ditugu eta berotzeko balitz bezala, lanaz eta lanbideez bi gogoeta xume egin nahi genituzke hau baitugu buru hauste handien iturburua ; Euskal Herrian bizi-bizirik dagoen arazoa, non nahi irakur ditzakegun aldarrikapenek azaltzen digutena : “Lana Herrian”, “Herrian bizi”, “Lana herritarrei, ez kanpotarrei” eta abar. Ez da gaurko gaitza ez eta ere Euskal Herriarena bakarrik ! Mendebaleko herrialde guziak joak dira guti edo aski, eta aski gehiago guti baino, azken hamar urte hauetan bereziki. Euskal Herrian haatik biziki aspaldiagokoa da lanik ez dugula geure gazte guzientzat.

Laborari etxaldeetan, halaber saltegi eta ofiziale etxeetan, batek hartzen bazuen etxeko segida gauza ederra baina familia handi asko izanik, bertze haurrideak lanketa joan behar norabait : mende honen hastapenean Hego Ameriketarat ; geroxago berriz Ipar Ameriketarat. Bertzalde, Pariserat, Bordelerat zenbat eta zenbat ! Gaurkoan ez bada ere lehen bezainbat joaten, haur gutiago sortzen delakotz dateke eta halere anitz badoa oraino ere. Mende batez holako odol hustea jasanik, gure herriak zenbat gehiago ez du sentitzen gaurko gazteen urruntzea ?

Bai, lehen baino min gehiago egiten digu, ez gaizkiago direlakotz —lehendanik langileen bizitza hobetu baita langileek berek eraman duten eta beti daramaten borrokaren bidez— baina gaur herritik urruntze hori, nahi ukan gabe, ezin onartua zaigu zeren-eta ikusten baitugu gizona ilargirat heltzeko on, bertzalde milioika miliarrak xahutzen gerlako muntaduretan eta bere herrian bizi nahi duenak ezin beti lanik aurki ! Kontuaren gaineko —eta arras deitoragarria zaigu— hasten baldin bazara lantegi zerbait muntatu edo erakarri beharrez hona non laguntzeko ordezkari enegua eta oztopoak jalgitzen dizkizuten, turismoaz bertzerik ez baitute onartu nahi.

Eta gero Administrazioa ere beti hor gainean, papereria erauntsia batekin aspergarri baita azkenean ! Alta langileek, euskal politikariek eta Elizak ere, diote, bakoitzak bere herrian kausitu behar lukeela bizipide bat, ahalaz gizona gizonago egiten lagunduko duena. Eta gazteak nola dabilta ? Gehienek, kasik denek, sorlekutik hurbil bizi nahi lukete. Asko zernahiri lotzen dira, batzuetan formazio eskas batekin, nolabait herrian egoteko asmoz egun batez zerbait hobe kausituko dutelakoan. Bertze batzuk aldiz etxean daude lanean hasi gabe, tituluz orhatuak, hemen presenta, harat idatz ; handik esperantza, hemendik eza... Euskal politikaz arduratzen direnek beren egun guzietako kezka badaukate hor ! Larri-larria hiru ikus molde agertzen zaizkigu :

—Batzuek diote ez dela fitsik egin behar lanpide berrien sortzeko : gure herria ez dela oraino aski errekan sartua ; galtzeko zorian datekeenean, orduan asaldatuko dela eta iraultza gotor bat egiten ahalko dela denak zuzenduko dituen. (...)

—Beltze batzuek diote sarraraz ditzagun edozein lantegi mota, kapitalixtenak izanik ere berdin, gazteria finkatzeagatik, geroan ere, eskuratuko ahal ditu honek bere zuzenak eta zendako ez lantegia bera ere...

—Hirugarren andana batek berriz dio : lantegiak bai, baina guhaurek eginak kooperatiba edo partzuergoaren bitartez, erran nahi baita euskaldunentzat eginak lehen lehenik, beren izate eta jeinuaren arabera erabiliak, zeinetan euskal gogoa bizi-bizirik bailegoke, zeinetan langileek berek beren lantegiaren harat-honatak eta gorabeherak jakin bailitzakete, beren zuzendarien hautatzeko eskubidea izaterainokoan.

Hirugarren bide hori ez da ametsetakoa lantegia ; Hegoaldean, Arrasate inguruan, sistema hori ederki hedatua da eta bere uza ederra ja ematen du, 15.000 langilek gozatzen dutena ! Arrosan, berriki abiatu den “Denek” deitua ere holakoetarik dugu ; “Copelec” Milafrangakoa eta “SICA esnea” ere kooperatiba modukoak dira. Badirudi euskaldungoaren axola euskaldunek berek eraikitzen eta berek darabiltzaten lantegi ttiki eta kooperatiba horietan biziko dela hobekienik.

Euskara eskoletarat zabaldu

1980-11-12

Ardura aipatzen da gaurko euskal irrati eta kazetetan euskararen irakaskuntza ; lehentasuna maiz emana izan zaio ikastolari eta zuzen zaigu. Baina ez dugu aiantzi behar euskara sartzen ari dela eta sartu behar duela bertze eskola libro eta laikoetan ere. IKAS bezalako batasun batek zer lan goresgarria ez du egiten helburu horrekin ! Segur Frantziako legeak orenak xuhur dituela euskararentzat ; baina ez dea bada ahalke egingarri oren xume horiek ere ez ditugula osoki baliatzen ? Lehen mailan, eman dezagun, hiru oren aste guziet egiten ahal dira euskaraz, ez da anitz, ez da nehondik ere aski, baina hastapen batentzat ez litzateke hain gaizki.

Noren falta da legeak onartzen duena ere ez bada egintzetan sartzen ? Frantsesa eskoletan sakatu zigutelarik, Paristik etorri zitzaizkigun manua eta irakaslea. Baina Parisek, betidanik zapaldu duen euskara horri gaur bizipide bat eman ote diezaioke ? Ez dakit... Bide segurena da ene ustez, hor ere, guhaurk, erran nahi baita lehen-lehenik burasoei, elkarretaraturik eta behar den larderia guziarekin, galdatzea gure haurrei, legeak onartzen duen neurrian bederen, euskara irakatsia izan dadin !

Badakit beti burasoei deika ari garela hemendik eta handik. Ez dukegu eskapurik, geure haurren altxatzeaz arta handiena hartu beharko dugu atzo bezala gaur eta biharkoan ere. Gainerat eta agian nehoi gaitzituko ez zaiolakoan dei baten egiterat menturatzen gara irakasleei ere. Zuek ere, irakasleak, elkarretara zaitezte aipatzeko, ikusteko nola irakats dezakezuen euskara zuen eskoletan legeak ematen dizkizuen mugetan egonez eta hola denek batera buraso, irakasle eta euskaltzaleek, eskola buruzagiak bultza ditzagun beren egitekoaren betetzerat.

LAXALT gora Ameriketan. Ipar Ameriketan hobeki errateko Estatu Batuetan hauteskundeak zituzten, bertzeak bertze beren lehendakariaren hautatzeko ; mundu guzia, nahitaez, so egon da haitada gaitza izanik eta azken mementoraino nehorik ez zekielakotz nor zen lehen aterako. Azkenean eskuin-eskuindar bat iragan zaie eta airez aire ! Aitzinekoaren politika sobera motela edo biguna zitzaielakotz dudarik ez da. Baina gertatzen da ere, Reagan buruzagi berriaren inguruan kausitzen dugula Laxalt euskal izeneko bat. Jadanik badira gure artean harro-harro egin direnak ikusiz beren odoleko bat munduko gizon boteretsuenetarik den horren ondoan jarria...

Laxalt jaunaren burasoak, bertze asko eta asko bezala —joan den astean baikenioen— bizi nahiz joanak ziratekeen hemendik. Ez dut entzun bertzeak baino gehiagoko zerbait bazutenik ; beraz erran dezakegu, zangoa hausteko irriskurik hartu gabe, geure artean badirela jaun horren kalipu bereko gizonak. Eta Euskal Herria beregain balitz, balituzkeela agintariak non-nahi agertzeko on liratekeenak. Baina horra beti bezala ondoan duguna ez dakigu preziazten, urruneko haiek, haiek ditugu haiek gizonak ! Ez, ez dut uste gizon eskasian garenik ; geuregaintasun eta askatasun pixka bat dugu eskas Euskal Herrian !

Iparralde honetan abertzaleek ez dute oraino, Hegoaldean bezala, herriko gehiengoaren konfiantza lortua ; baina etorriko da hori ere egun batez... Parisko politika-jokoek ez dute gehiago hemen lehengo arrakasta eta Parisi buruz begiak zurituri egoteko ordez, emeki emeki, geure aferak guhaurk eskuetan hartu nahiko ditugu. Euskal Herriaz arta hartzeko euskalduna baino hoberik izan daiteke ?

Japones langileak

1930-11-19

Duela 30 bat urte, Beskoitzen herriko kontseiluan, ene aita zena ari zen galde eta galde, ura eta elektrika ezarri behar zirela, bideak ere egin eta holako. Orduko auzapezak, Etienne Delicetche zenak, ihardespén hau egin zion behin : “Mutikoa ez dik balio lan horietan bururik haustea, berdin laster txinoak gainean ditiagu !” Ateraldi hori zenbait aldiz entzuna diot aita zenari ! Egia da Txinaren indartzeak, txinatarren betiko beldur hura emendatu zuela. Gai horrekin filma bat ere egin izan da. Baina horra non txinatarren partez japonesak etortzen zaizkigun... Ez gerlako tresnekin gure desegiterat, ez eta ere bat-batean trumilka baina emeki-emeki eta segurki : puskateria elementia batekin bazter guziak betetzen ari dizkigute.

Gerla galdurik bentzutuak zirela uste genuen, alemanak bezala funtsean ; tirozkako gerla galdu baldin bazuten bertze gerla mota bat ez dira galtzekotan : gerla ekonomikoa. Frantses erosleek, eta euskaldunek berdin, ez dugu geure berehalako ona baizik bilatzen, ez dakigu urruntxago behatzen : berdin ona da eta doi bat merkeago, beraz eros dezagun. Herenegun telebistan ikusi dugu nola horretaratu diren japonesak ; nolako sakrifizio eta pairamenak onartzen dituzten beren gorputz eta adimenduen hezteko denetan lehen ateratzeagatik...

Haurretik hasirik zeingehiagoka etengabe batean bizi dira, aldebat zein lehenka. Ni segurik okazaturik uzten naute holako bizimoldeek. Bizkitartean alde edo ez alde, hautatzen ahal duguia ?

Bi bide ikus nitzake bata bertzea bezain nekeak. Lehena, aurka edo kontra egitea japonés puskarik ez erosiz batere. Baina, gaizo ni, nork segituko ninduke ? Bigarrena, alderantziz haiek bezala lan egitea. Ez dut haatik ikusten hemen holako laneko karra lukeen anitzik... Muga berririk ere ez omen dela eraiki bahar. Beraz iharduki behar dugu ala utzi hola-hola, Delicetche xaharraren gisa, partida aitzinetik galdua balitz bezala edo oraino historiak, denborarekin, denak berriz beren ozketan ezarriko dituelakoan ? Ene ustez eta halere hortzez eta haginez lotu behar dugu geure herrian industrigintza indartzeko, baitu beharra ! Bere indar guziez bermatzen denari ez ote zaio zeruaren laguntza ere hitzeman ?

Folkorea : hitz errespetagarria. Ikus dezagun orain nahi baduzue nola folklore hitza, zangopilaturik, ezdeustaturik darabilkiguten erdaldunek eta hauen eraginez, euskaldun batzuek ere. Egun hauetan, japonesak hor ditugu ez bakarrik gauza saltzaile bezala —oixtian genioena— baina ere gizarte ikertzaile bezala. Dirudienez, euskaldunak hobeki ezagutu nahiz badabiltza. Baina nola jakin gure maitez datozen ala gu ongi ezaguturik gure beharren araberrako tresnak asmatzeagatik ?

Dena dela —eta horretako hasia bainintzen— gure ohiturak eta bizimoldeak ikertu nahi zituztela, folklorerik ez haatik erakuts hauei, zioen kazeta batek, folklorea balio gabeko gauza balitz bezala. Hauxe da ahapaldia ! Folklorista koskor naizenaz gero ez dezaket onets holakorik ! Frantsesek, denek baino gehiago, folklore hitzari bere erran nahi guzia kendu diote. Ez gara harritzen ! Frantziak ohiko folklorea frango murriztua du eta oilar honek ez du usaiarik bertzeren aberastasunen goresteko !

Folklore hitzak erran nahi du “jakintza herritarra” (folk = herri ; lore = jakintza). Herriaren ohitura guziak besarkatzen ditu atzokoak bistan da eta gaurkoak ere irauten badute. Folklore hitz ingeles hori, nahiko aberatsa da ; erabil dezagun otoi, merezi duen errespetuarekin : populu ttikien berezitasunen etsai direnek mendratu nahi gaituzte alde guzietarik. Ez gaitezen beraz horien zepoetan eror !

Laborariak kexu

1980-11-26

Laborariak kexu ditugu : beren jiteak edo mozkinak apaldu zaizkiela ehunarentzat 6ez ! Gauza jakina da ere laborari handien eta ttikien artean izigarriko diferentziak badirela eta beraz irabaziak %6ez beheititu baldin badira bana-bertze batetik, eta bertzetik entzuten dugularik hazkuntza saila dela bortizkien hunkia, errexxi asma dezakegu Euskal Herriko etxalde ttiki batzuetan zer kolpea jasaten duten berriz ere ! Ez dute lehena alabaina... Zorigaitzez, “etxekotuak” dirateke beheititze horiekin ! Aurtengoa haatik aitzineko urteetakoa baino handiagoa da. Gehienbat petrolioaren kariotzetik dator, omen, hala zioen laborantzako ministroak, batere durduzatu gabe oraino, dakigularik, bizkitartean, gobernuak berak dituela ederki bere diru kutxak betetzen erregai horien kariotzetik. Gobernuak eta, ez dezagun ahantz, petrolioak garraiatzen duten konpania guziz boteretsuek.

Nik uste agintari larri horiek ez duten axola handirik laborariez, hauen sindikaten beldurrik ez baitute edo biziki guti eta laborariet nekez adierazten baitituzte beren arrangurak : elkarretarik barreiatuak dira, orotar guti dira, laneko molde desberdinak mendietan eta zelaietan eta ekintza gogor zerbait muntatzen badute, hala nola lursagar, baratzeakari edo fruitu bide horietan botatzen badute beren haserrearen erakusteko, normahi hasiko zaizu “Zer domaiia hola gauzen hondatzea ! Ez zutena Afrikan goserik daudenei bederen igortzen ahal horrenbertze gostarik bildu uzta ?”

Aldiz EDFak greba egiten duenean ez da hainbertze ageri zer galtze ikaragarriak eginarazten dituen beren lanerako elektrizitatea behar dutenei eta futxo grebarik gabe deusik ezin erdiets eta erdietsiak ere ezin begira ! Nor harrituko da gogorkeria zabalduz baldin badoa ? Gogorkeriaren sortarazleak ez ote dira gure agintari edo gobernu gizonak berak eta merkatari zigante batzuen jokabide tristeak, gaur ardi esneak ematen digun etsenplua lekuko ? Roquefort ez dirudi gogorki kexu denik laborarien egoeraz, bai ordea berak dirua nasai irabazteaz. Hala segitzeak kalte handia egin diezaguke : artzainen eta laborarien kopurua oraino ttikituko bailitzateke eta mendialdeak bereziki, jadanik jendez sobera hustuak baitira ! Laborari eta artzain, altxa burua, Euskal Lurra zuen beharretan baitago !

Txistularien aldizkaria aste honetan eskuratu dugu. Hau ere, bertze asko bezala, luzaz erdi lo egonik, azken urte hauetan karraskan berriz lotu da bere sailari. Aldi honetakoak xehetasun asko dakar musika eta txistu tresnari doazkienak bistan da, baina ere begi berri batez ikusten dira gauzak, txistua jotzen lasterrago ikasteko, soinuaren kalitatea hondatu gabe haatik ! Erditsua euskaraz idatzia, zati teknikoak ere berdin horrela azaltzeko beldurrik gabe. Bertzalde Donostiako Aurrezki Kutxak atera du ere gai horietaz liburu bat ikasgaiez hornitua ; txistuarekin trebatzeko ez baitugu tresna hoberik ezagutzen. Huts edo akats bat badauka halere : ez da nehon salgai, Aurrezki Kutxak zerbitzatzen ditueni eskainia baitzaie bakarrik. Dena den, atsegin handia dugu ikustea gure txistua —batzuek nahiago ukanagatik txirula— beti gazte dagoela izanik ere gaur ezagutzen den soinu tresnarik zaharrena naski ! Euskaldunek ba ote dakite, gutienez 10.000 urte badauzkala eta beharbada 30.000 !

San Frantses Jatsu eta Xabierkoa

1980-12-03

Egun abendoaren 3a, San Frantses-en besta. Ausartzia baita enegandik saindu handi horren aipatzea, agian entzule jakintsuagoek barkatuko didatelakoan hasten naiz ez bainezakeen utz karia hau iragaiterat zeren-eta, datorren urtean, Aita Saindua bera ere etortzekoa baitugu Frantses eta Ignazioaren sorterrietarat. Duela 15 bat urte Narbaitz Jaun Kalonjeak atera zigun liburu bat gaitza, San Frantsesen biziak. Frantses, euskalduna zen, izen horrek zenbait aldiz, ez jakinean, nahasketa sor badezake ere. Nafartarra zen osoki : aitaren aldetik Baxenabarreko Jatsutik ateraita. Amaren aldetik berriz Azpilkuetan zeuzkan erroak. Burasoak, haatik, Xabierko Jauregian familiatu ziren. Aita Nafarroako gizon argituenetarik zuen erregeri hurbil bizi zena ; erreinuaren zerbitzari leial eta zintzoa. Frantses, sei haurrideetarik azkena, sortu zen 1506an, hain zuzen garai hartan Nafarroako Erreina espainiarrek menperatzen ari zutelarik.

Iruña eroriko da 152lean, Frantses gazteak 15 urte zituelarik. Haren anaiak bermatuko dira hiria zaintzen eta mendekioz Xabierko eta Azpilkuetako jauregiak hondatuko ere dizkiete. Buraso eta haurrideak giristino kartsuak zituzkeen. Frantses, diotenaz, mutiko ernea, zalua, bizia, eta zainarta zen ; landaz landa ardien ondotik ibiltzeko ez zen lotsa. Gazterik eskolatu zuketan : espainola eta frantsesa poxi bat irakatsi. Euskara aldiz amaren altzoan ikasia zukeela erran dezakegu, ordu haietan, Iruñetik haratago ere, euskaraz ari baitziren. Aitoren seme izanagatik, Frantses ttikia ez bide zuten guriki altxatu : ez baitziren dirudun handietarik. Apezteko bidea goizik hartu zuen eta 19 urtetan Pariserat doa, Santa Barbara deritzon ikastetxerat. Orduko unibersitate guziak giristinoak ziren, baina, Parisko karriketan ibiliko delarik, Frantses gazteak ikusiko du denetarik eta berak aitortuko du geroxago ez baldin bada lizunkerian erori eritasunen beldurrez dela garbi egon ! Ikus dezakegu, hor sainduak ere nondik iraganak diren eta Frantses bezalako gazte suharrak, gizona behaztoparaz dezaketan lekuak hurbildanik ezagutu dituela.

Baina Frantses apezgaiak, bertze euskaldun bat ezagutuko du Parisen bere bizi guzia bertzelakatu behar ziona : Ignazio Loiolakoa. Hura ere aitoren semea baina jadanik saindu gogoetetan sartua. Ordukotz aitoren seme itxurak galduxeak baitzituzkeen, izatekotz eskalea baitzirudikeen. Maingua gainerat, Iruñeko guduan kolpatua, hain xuxen Frantses-en anaien kontra, oixtian genioena, haatik geroztik osoki konbertitua eta Jainkoaz eta haurrideez bakarrik axolatua. Frantses Xabierkoak, aitoren seme jeinua oraino azkar zeukanak, ez zuen gizon erromes horri jarraitzeko gogorik. Baina Ignaziok, ezti-eztia, bilduko du eta laster biak elkar iduriak eta ezin bereiziak izanen dira, bertze lagun batzuekin sortuko baitute “Jesuiten Lagundia”.

Lehen agintzak edo botuak Parisen egingen dituzte ; gero abiatuko dira Lur Sainduetarat joan beharrez ; baina Italian gelditu beharko dute urrunago joateko ahal eskasez. Frantses, *Venise* hirian ordenatua izanen da, 1537an, 31 urtetan. Laster Aita Sainduak eta Ignaziok igorriko dute Indietarat misionest. Hori zen hori, Frantses apez berriaren ametsa eta nahia : misiolari joatea ! Handik goiti, dozena bat urte iraunen du doi-doia, Kristoren mezulari suhar baino suharrago, jo harat, jo honat, ezin egon batek hartua ukan balu bezala. Denbora horretan kurrituko ditu kilometroak ehun milaka (gehienak urez) bizpahiru katixima egingen, milaka eta milaka bataiatuko Indietan, Moluketan, Uhartetan, Japonian eta Txinan sartu beharrez zoalarik hilen da, bere misionest lanak etendua, bere azken otoitzak euskaraz ahoskatzen zituela.

Gorputza berez kontserbatuko da eta Goa deitu hirian dago. Beso bat haatik isilka bezala moztu zioten eta Erromarat ekarri, Ignaziori hurbil daukatela. Mirakuilu asko egin duke ; bat segurik berak aipatua Ignaziori gutun batean ; eta hil ondoan, 6 urteren buruko, Elizak dohatsuen lerroan ezarri zuen eta handik laster sainduen alkian, 1627an, Ignazio eta Teresa Avilakoa saindu jarri zituzten egun berean. San Frantses, Nafarroako patroiz izendatu zuten 162lan eta azkenik, 1927az geroztik, misio guzien patroiz ere da. Horra San Frantses Jatsu eta Xabierkoaren bizitzaren ddasta ttiki bat ; laburraren laburrez edo jakitate eskasez, makurrik erran banu, gure saindu handiari, apalik, barkamena eskatzen diot.

Hegoaldeko berri

1980-12-10

Adolfo Suarez, Espainiako lehen ministroa, hego Euskal Herrian dabilkigu egun hauetan. Ez dakigu oraino, xuxen, zer ekarriko dion gure herriari bisita honen karietarat. Ordu litzateke Estatutuaren bitartez, euskaldunek lortu dituzten eskubideak papereriatik iragan daitezen ekintza zehatz batzuetarat. Jadanik urte bat baino gehiago Estatutua bozkaturik dela, diputatuak hautatuak eta Jaurilaritza edo gobernua izendatua, Karlos Garaikoetxea daukala Lehendakari. Bizkitartean, horiek guziak legezkoak izanagatik, Espainiako gobernuak biziki hurriki eta nekez itzultzen dizkio euskal gobernuari, Estatutu horren arabera zuzenez etorri behar litzazkiokeen botereak ekonomiaren antolatzeko eta nekezago oraino euskal polizia baten xutik emateko.

Estatutu hori, gibel-asmorik gabe Madrilek errespetatzen balu, ez luke iduri hain txarra, batzuek diotenaz bederen eta urrats bat bezala hartzen badugu segurik askatasun handiago bati buruz joateko. Baina gauza handi bat eskas du, behintzat, euskaldun gehienek ustez eta da : Nafarroa ez daukala bere baitan. Eta hori ezin onartuzkoa da euskaldun batentzat. “Urraska joan behar dela urrun joateko” dio errankizun zaharrak ; baina euskaldunik epelenak ere aspertzen hasiak dira ikusiz beti eta beti gibelatuak direla horrenbertze lan, gudu, eta borrokaren bitartez aspaldian merezituak lituzketen eskubide eta aitzinamenduak.

Gertatzen dena da, zorigaitzez, badirela boterea eskuetan daukatenak, maiz indarkeriaz bildua, nehondik ere, neherekin banatu gabe atxiki nahi luketenak. Euskaldun batzuk aspertuak, bertzeak asaldatuak, noiz ikusiko ditugu Espainiako herrialde guziak beren zuzenetan sartuak, Euskal Herria askatua eta denak Europako populuen batasunean partzuer ? Hola ez ote ginateke, batzuk eta bertzeak, denak irabazdun ? Ez ote da haizu, eta beharrezko, Eguberri buruz, maitasunezko gogoeta batzuen egitea ?

Euskaldun Gazteriak berriki atera digu, denek ezagutzen dugun egutegi edo kalendriera, bere eguneroko hosto bereziarekin, merkatu, ilargi aldaketa, fedez eta ekonomiaz argitasun andana bat dauka usaian bezala. Euskal egutegi zaharrenetarik dateke eta betidanik arrakasta handia ukan du : 6 edo 8.000 saltzerainokoan urtekal ! Lehen, kasik dena, Euskaldun Gazteriaren omonierek egiten zuten eta ez zuen erakusten gazte elkarte baten egutegia zenik, nahiz irri-solas, atsoitz edo errankizun ederrenez betea izan !

Euskaldun Gazteria (= JAC lehenik, MRJC gero) baserrietan eta kanpainetan bizi diren gazteen mugimendu katolikoa dugu. Haatik kalendrier hau, gazte hauen amets, lan, min eta itxaropenez mintzo baldin bazaigu gehienbat, ohargarri da, hiri horietan ere, gero ta gehiago, euskal familietan sartzen ari dela. Aurtengoa arta berezi batekin egina dutela erran daiteke. 20 frankotan non-nahi salgai, apez-etxe, zenbait saltegi, liburutegi edo oraino Euskaldun Gazteriaren bulegoan, Maulen, 7, *Place de la Liberté*. Beltzalde aitortzen dut atsegin genukeela, gazte horiek, irrati honetarik aipatzen ahal balizkigute, noiztenka bederen, beren lanak. Gogotik entzun genitzake eta geure laguntza xumea eskaintzen diegu.

Otoitz bat eginen dugu arratsalde honetan : Beskoitzen, Henri Larran aita familiako gazte baten ehorzketak baitira. Duela bizpahiru urte, herriko kontseiluan, gora-gora mintzatua zen euskararen irakaskuntzaren alde, zioela “Euskal Herrian denek euskaraz jakin eta hitz egin behar genukeela”. Hori ere, herriak jakin zezan beharrezkoa zela iduritu zaigu. Eta bertzerik ezinean, gure doluminik bizienak bederen doazkiola familia guziari.

Euskal Departamendu bat

1980-12-17

Joan den aste hondarrean, Noirot-Cosson Jaun prefetak bere iritziak eta erabakiak agertu dizkigu, prentsaurreko baten bidez. Bertzeak bertze erran du garbiki “Centrale Nucléaire” horietarik bat eskualde hauetan nonbait ezarriko dutela. Zioenez, tokia ez dute oraino aldebat finkatua ; hor ere ukanen dugu hamaika gogoetaren gaia ! Alabaina, ez baikenuen beharragorik... Bertzalde Hendaiaiko gertakarien ondotik polizia indarrak emendatuko dituztela ; baina lelo hori aspaldian ezagutzen dugu.

Ni segurik, gehienbat harritu nauena da nola, berriz ere, gure prefetak enan duen Euskal Departamendurik ez dugula ukanen, arrazoirik batere eman gabe ! Frantses demokraziaren bitxikeria bertzenaz : guk herri gizonak hautatu eta gero ikusten dugu egiazko boterea batere hautatu ez dugun norbaitek daukala ! Baionarat ekarriko dizkigute omen, Paueko Administraritzaren ordezkari gehienak, baina garbiki ageri da departamendurik, “Pays Basque” izenekorik ez digutela eman nahi !

Badakit departamendu batek ez dituela gure behar guziak sosegatzen ahal urrundik ere, baina departamendu batean bizi behar duguno ez ote ginateke hain ongi Iparraldeko hiru lurraldeak bil litzakeen batean ? Biarneseke, beren aldetik, berena ederki antola lezaketelarik ? Departamendu berri horren xedea sustatzen dutenatarik ditugu Viala Arrangoitzeko auzapeza eta oraino Saint Martin Industria eta Merkataritza Ganberako presidentea. Gizon hauek ez dira normahi, ez dira burubero batzuk, baizik gizon langile bezain argiak bihirik baldin bada ! Eta ari ginen zuhurtzia ttikienak galdatzen lukeena, gainerat bai Biarnoaren bai Euskal Herriaren nortasunaren onetan litzatekeena, beharbada noizpait erdietsiko genuela onez onean, azken urte hauetan departamendu berriak sortu baitira galdaketa gutiagorekin...

Bizkitarean prefetaren ezak ez gintuen harritu beharko, baldin eta gogoan atxiki bagenu, Frantzia departamendukatu zutelarik, bertzeak bertze, eskualde batzuetako berezitasunen ezeztatzeko asmoarekin ere jokatu zirela ; hemen, gure kasuan, elkarrekin ezarritz bere-ber bizi nahiko zutenak eta han, adibidez, Nantes hiria Britainiatik bereiziz. Hola, ardi marrakariak bezala, denak errexkiago menean atxikiko gintuztelakoan !

Eskualdeen suntsitze hori, erregeek hasia, Frantziako Iraultzak eta Napoleonek finkatua ez da beraz oraino bururatua. Eta uste genuen gauzak aldatzerat zoazela. Giscard bera ere ez ote zitzaigun izana, dena ele eder, Arantsusin... Baina obrarik ez baita : deus, deus, deus ez baita nehondik ageri ! Hainbertze aipaldi ukan zuen “Xarta” hura ere non dago ? Bidea, geure bidea, geroago eta garbiago agertzen zaigu : ekonomiaren azkartzeko agintari larri horiek ez digute deusik hitzematen turismoaz bertzerik. Are gutiago naski euskal kulturaren laguntzeko ; ez du balio beraz gauza handirik igurikatzea alde horretarik : guhaurk, geure izerdiaz eta geure borrokaz lortuko ditugunek eta haiek bakarrik ekarriko dizkiote gure herriari bere izate bereziaren begiratzeko behar dituenak : lehenik itxaropena eta nahikundea, gero batasuna eta batasunarekin batean indarra oztopo eta enegu guzien garaitzeko ! Ez loakar, ez lotsa : kartsuki egin lanak bere uza emanen baitu goiz edo berant... Prefetak nahi duena erranik ere...

Etxaberen aldeko manifestazio batetarat gomituak gara sarri arratsaldeko 6 orenetan, Baionan. 26 egun jan gabe dagoela egina zaion zuzengabekeria salatzen. 7garren aldia da hola jokatzeko delako gosegreba baten bidez eta Etxabe ezagutzen dutenek badakite bururaino, bere bizia emaiteraino joanen dela. Goazen Etxaberen laguntzerat, nehork bezain ongi Euskal Herriaren pizkundea eta bizinahia seinalatzen baititu.

Polonian esperantza piztu

1980-12-23

Eguberri bezpera honetan ez zitekeela edozein gaiez hitzegin, berri on bila ari izan naiz beraz. Baztertu ditut Galiziako bozak autonomiari buruz deus argigarririk ez baitut hor kausitu. Lur Berri, Donapaleuko kooperatibak egin duen biltzar nagusia ere baztertu dut, berri zinez gaiztorik ez badu ateratu ere, hobeak izan zitezkeela aitortu beharrean gaudelakotz. Are gutiago, Euskal Herrian eta Biarnoan uholdeek egin desmasiak ez genitzakeen bada, nehondik ere, berri onen lerroan ezar ! Halere, denen artetik berri on batzuk ere jalgi zaizkigu : Etxabek bere gose greba utzi duela, galdatzen zituenak erdietsi dituelakotz. Goresmenak bidaltzen dizkiogu bihotzez. “Gure Herria” deitu aldizkaria berriz ateratzerat doakigutela omen ; berri txalogarria zinez hau ere.

Baina Eguberri esperantzaren sortzaile guziz maitagarria dugunaz gero, oraino itxaropentsuagoko zerbaiten ondotik tematu naiz. Eta “Herria” astekarian aurkitu ditut, hain zuzen “Esperantza” tituluarekin, Jean Louis Davant-en bertsu alaigarri batzuk, Lech Walesa polones bikainaren goresteko idatziak ! Polonia urrun dela ? Baina gaurko komunikabideek ez ote gaituzte hurbiltzen Poloniari eta halaber edozein herrialderi ? Polonia komunista deitzen dugun sistema batean bizi da azkeneko gerlaz geroztik. Nik ez dut gauza handirik ezagutzen marxismoaz eta komunismoaz. Baina aitortzen dut maiz urrikari ukan ditudala komunisten menpean bizi diren jendalde batzuk zeren iduritzen baitzitzaidan beti kapitalismoaren azpian bizi garenek gauzak aldatuko direlako esperantza hura bederen ez dugula galtzen.

Aldiz, Albanian, Txekoslovakian, Hungarian edo Errusian ikusiz nola lehertuak, gazituak diren aldiro askatasun zerbaiten bila abiatzen direnak, aitor dut etsitzekoa ere ematen zidatela gehienetan ! Polonian ere duela hamar bat urte zafatu, sarraskitu zituzten tiroz buruaren altxatzerat ausartatu zirenak. Poloniako herria haatik ez zuten hezi, izatekotz xutiarazi ! Langileriak geroztik izigarriko lana egin baitu isilka edo erdi isilka eta azkenik agerian, irrisku handienak hartuz ! Elizak ere anitz lagundu ditu polonesak beren nortasunaren eta itxaropenaren begiratzen.

Lech Walesa bezalako gizon miresgarriak azaltzen direnean, erran dezakegu, herri osoak daraman borrokaren eta lanaren fruituak direla agertzen. Lech Walesa-ren indarra herri guziaren fede eta nahikundean finkaturik eta oinarriturik dago ! Ez dakigu polonesek piztu diguten esperantza bururaino joanen denetz ; erdietsi dituzten askatasunak garrantzi handikoak dira, hain handiak non ez baitezakegu erran errusok holakorik onartuko duten luzaz... Ene ustez zernahi gertaturik ere, komunista herrialdeen askatasunean ere esperantza ukaitea haizu izanen zaigu hemendik goiti. Eta gaur egun, munduko sistema bortitzenak doi bat aldatzen ahal direla sinesten baldin badugu, iduritzen zait, Betelemen sortu Jainko-Semeak bake eta zorionez betetzen ahalko dituela, mundu honen hobetzeari lehiatzen direnen bihotzak !

Bururatzeko gogo berarekin, bihar, Eguberri eguna, arratsalde goxo bat iragaiten ahalko dugu, han edo hemen. Irisarrin, bertsolariak dituzte : Xanpun, Esponde, Alkhat, Arrosagarai, Laka, Lazkao-Txiki. Beskoitzean berriz kantariak : Otxalde taldea eta Bedaxagar zuberotar famatua, Mirande-Zartantxu bikotea ere bai. Bakoitzak hauta beza bere gogoaren arabera eta guk hemendik Eguberri on eta zoriontsu bat entzule guziei !

“Denek” “Korrika” “G.F.A.”

1980-12-31

Gertatzen da niri dagokidala urteko euskarazko azken emanaldi hau hedatzea ; lan honetan hasi berri-berria naizelakotz —doi-doia 4 hilabete— bazen ba segur horretarako ni baino trebeagorik eta merezimendu gehiago zuenik euskal irrati honetan ! Gatozen halere, ohiturari jarraikiz, iragan urteko gertakari batzuei behako baten ematerat. Mugaz honaindiko berri onen lerroan ezarri ditut : ekonomia alorrean, “Denek” Arrosako kooperatibaren irekitzea eta GFA ⁽¹⁾ deitu elkartearen sortzea, denek dakigun bezala laborari gazteen laguntzeko etxalde batean jartzen baitezpada lurraren jabe izan gabe, lurra dagoela partzuer erosia eta laborariaren lan-tresna bihurtua.

Berri on bat euskal kulturaren alorretik ere : gau-eskolen elkarreak aitzinerat egin duen jauzia. Aspaldiko saila da segur baina aurrean oldar berri bat hartu du, bere egiturak finkatuz eta Hegoaldeko lankideekin lokarriak tinkatuz, bereziki “Korrika” deitu ibilaldiak erakutsi digun bezala. Eta berri onez ari gareno, eman dezagun behakoa bat Hegoaldeari ere zeren-eta berri ona baitugu, ene ustez beti, hiru lurraldeek, azkenean, erdietsi dituzten Kontzertu Ekonomikoak bai eta naski euskal polizia baten hastapena. Ahantzi gabe, joan den udaberriko hauteskundeetan abertzaleak nagusitu zirela eta orain lortu dituztenak, bozaldi honen irabaztearen ondorioak direla. Horiek guztiak ontzat har ditzakegu ; gutiz ez utz, nik segurik ez baitut sinesterik denak batean, antolatuko dituen gau eder hartan !

Berri hitsak ere hor ditugu : atzoko gertakariak garbiki erakusten digu zertan garen hemen gaindi ⁽²⁾. Nahi bezain hitsa izanagatik, eta zinez hala da, ez dut uste euskal gazteriarren karra epelduko duenik : herria maitez eta honen askatzeko daraman borrokaren helburua ona eta goresgarria baita. Aldiz espainolen helburua bertzerik da : armaz eta Hitler-en laguntzarekin menperatu zuten euskal populua hola-hola azpian atxikitzea ! Helburu hau ez da goresgarria, osoki deitoragarria baizik. Eta halaxe deitoratzen dute populu aske edo libro guziek, Giza Eskubideek bai eta Elizak ere bere gutunetan.

Bortizkeria guztiak zaku berean ezartzen dituztenei, edozein bake mota onartzen dutenei, holakoei jarraitzen bagina zabal-zabala diktaturari bidea berriz ireki geniezaioke ! Ez, ez dugu utzi behar geure burua nolanahika erabiltzerat ; zuzengabekeriak salatu behar ditugu eta gizona lagundu gizonago izaten, bere geroaz eta bere lagunen geroaz axolatzen. Hau da naski elkarrekin bermatuz egin dezakegun lanetan ederrenetarik. Bide bakarra dateke ez badugu nahi bortizkeria nagusitzea.

⁽¹⁾ Groupement Foncier Agricole

⁽²⁾ Bezperan José Martin Sagardia Miarrizten eraila zuten.

Euskal afaria. Ikastola batzuek gomitatzen gaituzte antolatua duten afarian parte-hartzerat, gaur arratsean, Kanboko herriko kantinan. Ehun frankotan nahiko oturuntza ederra eskaintzen digute. Ez dakit tokirik gelditzen den, baina erran behar dugu biziki gustatzen zaigula holako xedea : urteberriko afaria, euskalduna eta euskaldunen gomendio. Gainerat prezio horretan biziki urrun gara 400 edo 500 franko berritako, jasan ahala baino gehiagoko janaldi haietarik ! Alabaina hainbertze jende gosetean daudelarik munduan zehar ! Dena dela, etxean edo lagunekin arrats goxo baten iragaitea gutiziatzen dizuegu eta Urteberri on !

Gogo berritzailea pizteko

1981-01-07

Irakaskuntza dugu gai zabala eta zaila ; denbora berean garrantzia handia daukana. Alabaina, gaurko irakaskuntzak moldatzen ditu biharko gizon eta emazteak. Ez dugu geure emanaldi labur honetan nehondik ere gai horren itzuli osoa egiten ahal. Gaingiroki begirada bat eman ez galdera batzuk egin ditzakegu haatik. Bakantza hauetan, eta karrikan bizi naizelakotz, ikusten nituen haur eta gazte batzuk, jo ezker, jo eskuin ez jakinez denbora non eta nola iragan. Nehork uste baino gehiago baitira enoatzen direnak atseden egunetan !

Baina gazteek ez baldin badakite denboraren baliatzen, nehon sosegurik ez badute, galdera hau etorri zait gogorat : irakaskuntzak alde batetik eta bertzetik horrenbertze batasunek haurrez eta gaztez arta hartzen dutenak, uzten ote diote haurrari edo gazteari iniziatiba pertsonal baten ukaiteko tokirik ? Bakoitzak bere bizitzaren kudeatzen ikasteko ahalik ? Eskola egunak ikastaldiz mukuru beteak dira eta asteazkena datorrenean batzuk deus egin gabe baldin badaude ere, bertze batzuk badabiltza, berdin bizpahiru sailetan : dela kirol zerbait, dantza, musika, pilota eta nik dakita zertan oraino ! Eta askotan nago ez ote ditugun geure haurrak eta gazteak jakitatez eta ekintzez asetzen, alde guzietarik, sar-ahala sakatuz, landu behar litzatekeen onerako iniziatiba hazi hura nolazpait pizten laguntzeko orde...

Ez ditut maila berean hobendun ezarriko eskola eta gazte arta hartzen duten hainbertze batasun : hauek ahal dutena egiten baitute gehienek. Ez, eskola da aldatu beharra, iduritzen baitzaigu, dugun irakaskuntzak —ez naiz ikastolez mintzo, bertze eskolak ditut gogoan— ez duela gaztea biharko bizitzari apailatzen, funtzionari izateko ez bada... Bertze estatu batzuen aldean, Frantziako irakaskuntza ez da biziki berritu eta beti memoriaari edo oroimenari dei egiten dio, heldutasunerat eraman behar duten bertze iniziatiba indarrak lo utziz. Bizkitartean, gauzak nahi baditugu berritu, herriak goza ditzan, zientzia, teknologia, eta informatikak egin aitzinamenduak, gizon eta emazte argituak beharko ditugu, baina oroz gainetik engaiatuak eta deliberatuak, tokian tokiko gisa jokatuak direnak, erro zaharrak begiratzuz, uzkurtsunik gabe aitzinerat joaten lagunduko gaituztenak.

Ez dut uste, Frantziako irakaskuntza azken puntu honetaz biziki grinatzen denik : frantses guzien berdintzea izan baita beti honen helburu lehena, hala ez direnak ere sinetsaraziz, ebanjeliotik ateratuak izan balira bezala ! Zer egin dezakegu bada, pedagogia edo heziketa horren aldatzeko, sakatu nahi diguten Parisko eredu edo modela soilari, bakarrari, ihardukitzeko ? Eskolak goizik haurren eta gazteen gogoak ireki ditzan zientzia eta teknika berrien munduari, baina ere hauen on eta gaitzei ? Pitzarazteko haur eta gazte bakoitzean dagoen iniziatiba indarra erran nahi baita, bere baitarik eta bere lagunekin zerbait onen asmatzeko eta obratzeko gutizia ? Nola irakats bakoitzari bere buruaren jabe izaten ingurumenaren petzero ez izateko osoki ?

Betidanik izan dira aitzindariak eta jarraikitzaileak. Baina gu, euskaldunak, ez ote gara sobera aldiz segitzaile izan eta batzuetan gehiago dena, gure herrian berean, arrotzak aitzindari eta gu haien mutil ? Nolaz horretaratu da gure herria, duela berrehun urte oraino edozein eskualde bezain jakintsua eta aitzinatua zelarik ? Pitz bekigu geure lehengo nortasuna, gaurko beharrei ihardesteko laguntzailerik hoberena baitukegu !

“Le Tournoi des 5 Nations”

1981-01-14

Larunbatean dugu beraz, “*Tournoi des 5 Nations*” delakoaren lehen jokaldia. Anitzek segitzen dituzte haitada horiek; guk ere, geure gazte denboran, biziki maite genituen: lagunekin aritzen ginen orenak eztabaidan, iduri kasik samurtuko ginela honen edo haren gainetik! Jokolari bakoitzaren izen, adin, neurri, denetaz jakitsu ginen geure ustez! Telebista aitzineko denboretakoa: entzutearen eta irakurtzearen bortxaz, jokoarekin eta jokolariekin etxekotuak bezala genbiltzan: errugbian batere ez ari izanak eta behin ere geure begiz jokaldi bat ikusi gabeak izanagatik!

Kazetaritza zabaltzen ari zen garai hartan, eta guk, denak berri, denak eder, hurrupaka hartzen genituen bereziki maila horretako match edo partidak: ikaragarriko garrantzia hartzen zuten gure bizitzan. Laborantzan, ez zen ohiturarik lana uzteko irratian zerbait bazelarik. Alta, baserrietan ere horretaratu ginen emeki-emeki eta transistorerik ez izanez lana utzirik sukaldetat gindoazen entzuteko! Bazen gero hori zerbait: behin ere ikusi, behin ere jokatu ez genuen jokoa entzuteko, lana uztea! Gaztea errexki konprenitzen da, baina adinekoetan ere baitziren gu bezalakoak...

Geroztik aitor dut errugbirako tirria ttikitu zaidala bereziki telebistan ere berdin, ukumiloka hasi zirenetik. Nahiko joko gogorra izanik ere, maila horretarat heldua den jokolariak bere buruaren jabe egon behar luke, horrenbertze ikusliarren errespetuz bederen! Telebista abiatu berrian ez zen itsuskeria handiegirik erakusten. Baina geroztik zer ez dugu ikusi eta ikusten!

Bortz nazio horien zeingehiagoka hau baino argiagorik baduguia erakusteko Nazioa eta Estatua bi gauza direla? Britainia Handiak ongi bereizten ditu ez baditu errespetatzen ere: ikus Ipar Irlandan oraino daraman zapalkuntza higuingarria! Dena den, Frantzian ere bada edo balitzateke nazio andana bat, eskolan ez badigute holakorik salatu ere. Hainbertzetaraino gauza hori gorde nahi ukan dute, non Afrikan ere “*Nos ancêtres les Gaulois*” irakasten baitzieten moro eta beltzei...

Egiaren gordetze horrek makur handiak egin ditu eta oraino ere eginarazten. Nazioa zer den ez da errex mugatzea bi hitzez, baina denek badakigu euskaldunek nazio bat egiten dugula eta nazioaren beharra senditzen dugula. Gizona ez baita, bakartasunean bizitzeko egina, jende saldo meta baten erdian, zenbaki soil bilakatuta. Ez, lehenik gizonak hehar du etxeko goxotasuna baina ez da oraino aski: herri batean partialier delako sendimendua beharrezkoa zaio. Nazioaren eremuetan bizi den herriak edo populuak du zainduko, gerizatuko gizonaren behar handienetarik bat: bere kultura, erran nahi baita, mintzatzeko, pentsatzeko eta bizitzeko moldeak eta euskaldunena (euskaldunen kultura) non-nahikoa bezain baliosa da!

Uztaritzen iratzartzen ari. Ikastolaren alde, uztariztarrek gomitatzen gaituzte, datorren larunbatean apailatzen duten pesta eder batetarat. Gaur egun ikusiz uztariztar gazte batzuen karra euskal kulturari buruz, beti gogoratzen zait Lafitte Jaun Kalonjearen ateraldi bat duela 20 bat urte entzuna bilkura batean: “Euskaldukoa hiltzen ari da Uztaritzen”. Egia zirudien, kenduz gero Goyhenetche eta Dassance jaunak eta Minaberry anderea. Baina irriño batekin bota zuen hori Lafittek eta irriño hura beti gogoan daukat eta iduritzen zait erran nahi zuela esperantza atxikitzen zuela halere eta guk ere atxiki behar genuela eta beti lanari jarraiki.

Hona beraz euskaltzale gazte horiek eskaintzen diguten egitaraua: rezital handi bat hasteko Gorka Knorr, arabar kantariarekin. Eta gero kantaldia eta bururatzeko Erromeria tokiko txarangarekin. Beraz ez ahantz, helduden larunbatean 9ak eta erditan Bilgunen.

Ingurumenaz axolatu gehiago

1981-01-21

Denbora euritsuak ditugu ; Errobi eta Urdazuri ibaien inguruan asko jende kezkatu dabil. Azkaine eta Senpereko ibar edo haranetan, bereziki, kexu-kexua gabiltza ; azken urte hauetan urak noiznahi ateratzen baitzaizkigu, batzuetan laborantzako lurak larrutuz, lantu berriak direnean ; abere zenbait ere itorik izan da. Baina ura ez da horretan gelditzen : etxeetan ere sartzen da eta erraten dute ehun bat bizitegi bederen hunkituak direla guti edo aski. Ezagutzen ez duenak ez dezake sinetsu zer gauza higuina den uholde edo zoperna ura etxe barneetan. Zer lanak diren garbitzen lehenik eta gero zer usain tzarra eta zer hezetasuna uzten dituen urez hantuak egon diren zokoetan.

Zerk egiten du bada uren goititze hori horren maiz ? Aspaldi du jendea toki hauetan kokaturik dagoela eta ardura aipatzen baitugu geure arbasoen zuhurtzia, ez dugu sinesten ahal horrenbertze etxe — eta zenbait ez nolanahikoak gainerat !— eraiki zituztela noiznahi urpean gertatzeko irriskuarekin. Jendearen oroitean oraino 30 edo 50 urtetarik gertatzen ziren holakoak. Lehen baino euri gehiago egiten duela ? Neke da horren onartzea. Gure iduriko, azken hamarkada hauetan bereziki, geure bazterrak aldatu ditugu, lurrarekin jostetan ari izan gara, zer-nahi lan mota eginez, non-nahi, kasurik aski egin gabe : bakoitzak egin du nahi zuena kasik, geroaz eta bertzetaz axolatu gabe. Dirudienez lan batzuk onak gertatu baldin badira uren arazoari buruz halabehar soilaz izan da !

Jendeen aho-mihitan lehen hobenduna dateke Donibane Lohizunen Urdazuriko auzotegia denboraz hainbertze ur irensten ahal zukeena. Gero, anitz luberri egin da, hesi eta zuhaitz asko ateratu eta beraz gain horietarikako urak biziki lasterrago jausten dira. Denen buru INRA deitu ikerketarako erakundea jarri zaigu urak ateratzen diren eremuetan, 7 hektarea lur hartuz bere arraintegi eta muntadurentzat, eta uretarik gerizatzeko inguruz inguru ezponda edo lurrezko pezoin bat eraiki du ! Beraz horrek ere uren hedalekua tikit du eta isurbidea hertsitu nahitaez ! Zer egin behar litzateke bada kinka txar honetarik ateratzeko ? Jendea kexatzen hasia baita eta bakoitza bere alde gerizatu nahiz abiatua. Hala jarraikiz geroago eta makurrako joan gintezke... Bizpahiru sendagailu mota aipatuko ditugu ; hoberik daukanak lehenbailehen argi gaitzala.

Lehenik garbi-garbia atxiki behar liratekeela urbide eta arroila guziak bereziki Urdazuri ibaiaren bi aldeetan Sara eta Dantzarineatik Donibaneraino. Gero urak jalgitzen diren eremuetan etxegintza debekatu edo bederen azken beltzean baizik ez onartu. Hirugarrenekorik, lantzen ahal ez diren, laborantzako on ez diren aldapa eta patarretan arbolak landatu uraren jaustea emekitzeagatik. Sara, Azkaine eta Senpereko herriek elkarrekin bultza balezate zuhaiztatze sail hori gerorako ere onik baizik ez luke egiten ahal. Hots, luberri egin den bezainbat oihan landatzea, zuhurtzia litzateke.

Baina horrenbertze gauzek elkarri hurbiltzen dituen Sara, Azkaine eta Senpere nola uztartuko dira lan horiei buruz : Sara Ezpeletako kantonamenduan dago, Azkaine Donibane Lohizunekoan eta Senpere Uztaritzekoari datzekiolarik ! Hau da hau zinez itxurarik gabeko zatikatzea ! Nork salatzen du egoera hau ? Hiru herri hauek, hiru kantonamendutan barreiatuak atxikitzeak ekartzen digukeen kaltea, nork erakutsiko du garbiki ?

Dena den, jasaten dugun zorigaitz honek ohartaraz bagintza, gu eta gu baino goragotik ari direnak, lurraren birmoldatzeko ez dela nolanahika jokatu behar ? Batzuen okerkeriak, orduan denentzat argigarri bilaka litezke...

Euskal laborari gazteak eredu

1981-01-28

Laborari gazteak, laborantzatik bizin nahi luketen gazteak, aurkitzen ditugu Euskal Herrian araberan bertze eskualdeetan baino gehixago. Frantses ikerketa batek salatzen digu nola hemen dela kanpaina gutienik hustu azken hamar urte hauetan. Erran nahi da, hemen ere laborari kopurua ttikitu dela baina hor gaindi baino gutixago. “Behere horiei”, gure zaharrak bezala mintzatzeko, behatzen badiegu alta etxalde ttikiagoak ditugu, ordoki baino patar gehiago, eta hazkuntzari emanak honek baitu, bertzeak bertze, denbora gutiena uzten, gaur hain modan ditugun, atsedean aldietarako.

Hain zuzen baliatzen naiz salatzeke, nola goiz honetan ikusi ditudan artzain batzuk, merkaturik ez izanez maingueriarengatik, beren bildotsak ezin salduz ari. Badakizue zer preziotan ? 11 franko kiloko, eta hoberenentzat oraino ! Prezio horrek ez du izen bat baizik merezi : desohore egingarria ! Noiz ikusiko dugu zuzentasun izpi bat haragiaren merkatu ahalke egingari horretan ?

Goazen berriz geure harirat : Frantziako bertze eskualdeek baino hobeki iharduki badugu geure xoko honetan ene ustez honengatik da : euskal gazteriak berak bertze nehon egin den baino fermukiago naski, garrasiatu eta adierazi duelakotz : Herrian bizi nahi dugu ! Abertzaleek sortui dei horrek inarrosi ditu gogoak, atzarrarazi, eta berotu ere herriaren alde, eta gazteen alde, bermatzerat. Euskal Herriko laborantzak kausitzen dituen oztopo handienetarik bat da : lurraren prezioa. Denetan kario eta kostaldean karioago... Lurra merkatuaren prezioan erosiz, karioegia da laborantzarako. Hektarea milioi andana bat estimatuz gero nork ordaindu ditzake bere haurrideak, edo eros etxalde bat laborarien salgaien prezioak ikusita ?

Beren lana errexteko eta uzten emendatzeko, laborariak indar ikaragarria egin dute, gazteenak akuilatzaile, behar ere ! Muntatu dituzte kooperatiba, CUMA, GAEC, eta holako bertze asko erakunde. Azkenik GFA delakoa. Horiek guziak beren geroa eskuetan hartu nahiz zuzen den bezala, denbora berean teknika berriez jabetuz. Bide horretan, laborantzak bertze ofizio edo bizipide guziek baino aitzinatze handiagoa egin du azken 20 urte hauetan.

Aitzinamendu eta aldaketa guzietan bezala arazo berriak sortzen dira eta laborari gazteek elkarrekin aipatu behar dituzte. Egoera berri horiei ohartzeko giristino mugimenduak ez dira azkenak. Euskal Herriko JAC deitua arduratzen da gain-gainetik gai horietaz ; azkeneko 50 urte hauetan, abiatzetik hunat beraz, beti bide berrien ikertzaile, irekitzaile eta erakusle. Bere lanak eraman ditu gazteak argituz, laborariak bere lanean finkatuz eta giristinoak bere fedean. Haatik gaurko JACa, ongi ulertu baldin badut, bide erakusle baino gogoeta eginarazle agertu nahi luke eta bilkura-hizketa andana bat antolatzen du laborari gazteen artean gehienbat.

Lehen mahai ingurua, datorren urtarrilaren 30ean, arratseko 8ak eta erditan, Hazparden *Foyer Rural* “Jastea” deituan. Bigarren bilkura ondoko ortziralean, otsailak 6, lurrik gabe edo lur gutirekin egin daitezkeen hazkuntzak aipatzeko, baratzezaingo eta bertze. Hirugarren arratsa Donapaleun produzitzaileen eta erosleen arteko harreman batzuk sustatzeko. Geroxago Garazi Baigorriin, lanean partzuer, baina zer baldintza bete behar den ikusiz irauteko bide horretan. Azken bilkura Senperen : zer turismo mota gure herrietan ? Laborantza eta bertze lanbide baten ukaiteaz zer pentsa ? Guk, geure aldetik pentsatzen dugu gogoeta hauetaz agian zerbait argitaratuko digutela gazte horiek...

Sarako ikastolaren alde antolatua den arratserat gomit zarete. Urtarrilaren 31n, Omordia VVF delakoan ; kantaldi bat gaitza Otxalde taldearekin, Pantxo Albistur eta ere Sarako taldea. Ez dugu ahanzi behar bertze bi saratar ariko direla kantu zaharretan : hain ederrak baititugu ! Ez genituzke ahanzi behar elkarrekin kantatzeko parada xuhurtzen bazaigu ere ! Xede hau biziki ona zaigu, beraz ! Arratsa bururatuko da Uztaritzeke txarrangaren dantza aireekin eta ahotik ezin utzizko taloak janez. Denak larunbatean goazen Sarako herri maitagarri horretarat !

Berriz mintzatzeko baimenik ez ukan

Ez da errex bere buruaz edo berari gertatuez hitzegitea : gertakaria aipatzean bere buruaren edertzea irriskatzen baita oharkabea ! Eta espantulariak ez ditugu batere maite Euskal Herrian... Halere Baionako irrati horretarik ene baztertzeak anitz harrabots eginik bere denboran, xuxen eta makur, bertze zenbait argitasun ekarri eta denez bilduma bat egin beharrean kausitzen nintzela iduritu zait. Egiak ere, isilik egonez, nola egin dezake bere bidea ?

Aitzineko hostoetan (13. orrialdetik 32rat) irakurri dituzun hogei hitzaldi horiek, emanak nituen, oharpen onik baizik ez nuela biltzen, eta hona non bat-batean, otsailak 2 (1981) astelehena, Baionako irrati etxetik telefonatzen didaten, baizik eta gizon batzuk asaldatuak zebiltzala ene emanaldien ondorioz : behin Hezkuntza Nazionalaz ikuspen garratzegiak emanak, gero Giscard ere xixtatua sobera eta nik dakita zer oraino ! Pariseraio joana zela afera, eta Parisen handienetaraio !

Zenbait eneguren ukaiteak ez ninduen batere harritzen : ene aitzinekoek baitzuten holako bat ikusirik... Harrigarria haxe zen : aferak hartua zuen hedadura ! Ez nuela horrenbertzerik asmatzen ere, ez da errateko baizik : bezperan igandea, "Komunikabideen eguna" elizkizunetan, irrati lanaren garrantziaz eta datxekion erantzukizunaz gogoetariaziak gintuen predikariak, eta herriaren alde nehoiz baino kartsukiago bermatu behar nuelako xedearekin jalgia nintzen !

Etixerakoan, gurutzatu nuen Ernest Etcheverry adiskidea, Jakesen anaia, erraten zidala : "Heure emanaldiak ez dituk erdizka apailatzen". Ihardetsi nion domaia zela Jakesek bere saila utzirik irratian ; askotan baitiot, irrati batean sail anitzentzat behar litzatekeela toki : erran nahi baita abertzale bezala mintzo direnentzat eta berdin edozein gai darabiltenentzat, euskara ahal bezain onean eta zintzoki ari diren ber.

Asteartean berriz **Guy Jolivet** Baionako zuzendariak telefonatzen dit bezperan aipatuak zizkidaten arrangurak errepikatzeko. Ene mintzaldien kopiak berehala behar zituztela, bazkaltzerat ere uste nuen ez nindutela uzten ! Oren bata, fotokopialari bat nolabait harrapaturik igorria zidaten mutilari eman nizkion. Segidan frantseserat itzuli zituzten berek ene ikusteko manerarik galdatu gabe. Arratsaldean berean, zuzendariak jakinarazi zidan, emanaldi batzuk ongi baziren ere, bertze gehienetan biziki urrunegi joana nintzela eta beraz hobe nuela biharamunean ez joanik, usaiako hitzaldia ematerat, bazterrak jabaldu arte bederen.

Alabaina sekulako zalapartak zituzten Baionan. Bazuketen norbait, nonbaitik (Paristik, Bordeletik ?) etorria bere menekoak bipilki zerabiltzanak. Izitzen hasi ere bainintzen azkenean, ene emanaldiak —denak zintan grabatuak nituenak— gordetzerainokoan : baldin egun batez neure burua debekatu behar banuen, erran ez nuenik bederen ez zezaten ene gain eman !

Asteak joaki ziren eta deusik ez ageri. Baionako zuzendariak beti lelo bera : "Igurikatu behar zela oraino"... Ez bainintzen ordea neholaz ere "igurikatzeko" horrekin ados izaten ahal, azkenean erran zidan Bordeleko zuzendaria deitu nezan nahi banuen, hura zela ene aferaz okupatzen. Halaxe egin nuen edo bederen entseatu, ez dakit zenbat aldiz, zeren Bordeleko zuzendariak, batean hau, bertzean hura, beti ezin heldua baitzuen telefonoraino ! Bulegozainak bururatzen zuen : "Bihar berriz deitu ezazu, beharbada kausituko duzu". Aspertua, gutun bat idatzi nion martxoaren 5ean. Bertze bi emanaldi ere idatzi nituen ; baina guziak debaldetan : berriz mintzatzeko baimenik ez baitut behin ere ukan.

Menturaz afera auzitegiatarat eramaten ahalko zen (Prud'hommes), baina ez neukan astirik auziaz arta hartzeko : sobera lan eta kargu baineraman bertzalde ere. Asteazkenean berean, otsailak 5, ni ez entzunik laster zabaldu zen berria eta lagunak telefonaka hasi zitzaizkidan : **Radio Adour Navarre, Xan Coscarat, Piarres Charritton, Daniel Landart, Enbata** eta **Egin** kazetak, **IZAN** erakundea. Denak sokorri eta laguntza eskainka zetozkidan ; kexu izigarria senti zitekeen denen baitan egina zitzaidan eta ene bitartez euskaldungoari egina zitzaion bidegabekeriak.

Kazetetan ere asko lerro agertu zen ; luzeegi bailitzateke denen hemen argitaratzea, hona, nor, non eta noiz mintzatu zen :

- * 1981-02-19 Enbata "Berri laburrak" (Daniel Muger)
- * 1981-03-26 Enbata "FR3 Liberté d'expression" (elkarrizketa)
- * 1981-04-11 Aberri Eguna (Herri Taldeak, mintzaldia)
- * 1981-05-08 Sud Ouest "Les difficultés de s'exprimer" (Ricard, kazetaria)
- * 1981-05-28 Herria "Le Pays Basque, pays mal aimé" (Etienne Salaberry)
- * 1981-06-04 Enbata "La proposition de loi Louis Le Pen" (Le Pen)
- * 1983-03-24 Enbata "Le changement se fait attendre" (elkarrizketa)

Irratiko buruzagiengandik, ihardespenez ez zuten ukan bihibatek. Bernard Gérard suprefetak bakarrik, 1981eko otsailaren 13an egin zuen prentsurrekoan, Etienne Salaberryren galdera bati ihardesteko, hauxe erran zuen *"On peut envisager plus de 5 minutes, mais on court le risque de les voir monopolisées par les gens qui ont les positions les plus extrémistes"*. Nortaz ari ote zen ? Aitzakia ederra ! Holaxe, demokrazia liberalak eta aitzinatutak (...) agertu zituen aldi bat gehiago bere mugak eta erakutsi garbiki populu ttikien eskubideen alderako aiherkundea.

Gauza txarrenak ere bere alderdi ona izaki : bidenabar jakin nituen entzule jarraikiengandik, isilarazi ez banindute, berdin nehoiz jakinen ez nituenak. Baina bildu ahozko lekukotasun horiek ez ditut agertuko hemen : sobera onak dira enetzat. Beude hola-hola bihotz xokoan iraganeko eta etorkizunerako min guzien eztigarri.

Goazen orain funtsari dagokion oharpen baten azaltzerat. Afera honetan ez zen "denbora laburregiaren" arazoa baina "edukiarena". Arazo garrantzizkoa ! Nahi badugu pizkunderik ikusi, abertzaleek behar dute Euskal Herriaren egoera entzunarazteko ahala ukan. Eta horretarako borts minuta on hobe dateke aise bi oren ahul baino. Jakin behar da haatik "borts minuta onen" egiteak batzuetan hiruzpalau orenen lana galda dezakeela. Bertalde profesionalak lagun ditzakete anitz gure sailak baina aitzindarigoa ez da haien eginkizuna hautetsi euskaltzaleena baizik.

Baina funtserat-eta, zer gertatu zen bada ? Lehenik erran behar da Baionako irrati horrek bazuela gaitzeko arrakasta : ongi oroitu baldin banaiz, 80.000 edo 100.000 entzule ! Ez zen orduan "irrati librerik" eta oihartzun handiaren jabe zen. Egun oroz borts minuta euskaraz ematen zituen eta hola egin du hamar bat urtez. Astelehenetan, **Beñat Dassance** mintzatzen zen ; asteartetan, **Ramuntxo Camblong** ; asteazkenetan, **Gexan Alfaro** "Lantziri"(hamar bat urtez) eta gero ni (lau hilabetez) ; ortzegunetan, **Jakes Etcheverry** ; ortziraletan, **Janbattitt Dirassar** ; larunbatetan, **Piarres Narbaitz** Jaun kalonj ea.

Euskal Dantzarien Biltzarraren izenean askotan mintzatua nintzen irrati horretan eta **Maite Barnetche**-k ahal guziaz egin zituen ene biltzeko : ez bainuen joan nahi ! Galdatu nion edukiaren aldetik ea mugarik bazenetz-edo. Zer erran nuen : **"Ez eta ez"** ihardetsi zidan **"Ez da mugarik, edozein gai erabil daiteke eta nahi duzunarekin munta dezakezu zeure emanaldia 5 minuta horiek errespetatuz: gero"**. Bigarren emanaldian berean, adibidez, kazetari nagusiari berari erran nion gaia frango delikatua nuela (ikus : "Haragi garbia noizko ?"). Ez zuen nahi ukan itzulpenik ere egin niezaion : **"Si c'est la vérité il faut le dire"**.

Laugarren emanaldiarentzat berriz (ikus "Baiona eta Iruñea elkarrekin lanean") 8 minuta betetzen ditut ohartu gabe. Moztu behar zela erran zidaten baina goraki zehaztuz : **"Ce n'est pas de la censure mais un monologue de 8 minutes c'est trop long pour notre journal"**.

Banekien, bistan dena, *"Renseignements Généraux"* delakoez barrandatuak ginela eta are gehiago Errepublikako presidentearen hauteskundeak hurbiltzarekin ! Funtsean zelatari haietarik batto bazen, ageri-agerian, Baionako irratietxean berean ! Denborarekin denak jakiten baitira, prefeta kritikatu nuen emanaldi hura izan zen bazterrak kexarazten hasi zituena (1980-12-17). Maite, ohartua zatekeen, "urrunegi" joaki nintzela baina ez zezakeen deusik erran, hain goraki errana baitzidan libertate guzia baneukala !

Halere, bizpalau emanaldi egin ondoan galdatu nion “ongi zirenetz” eta ihardetsi zidan : “Untsa da, untsa da”. Ez nuen deusik ulertu orduan, gero bai haatik, bigarren “untsa da” horrek lehena hausten zukeela ! Baina, bertan, ez nintzen deuseri ohartu. Maiteri anitz sofriarazi zioten afera hunen ondorioz, hura baitzen euskarazko sailaren arduraduna. Ohargarriena da, Guy Jolivet bera ere Bordeleko irati eta telebistako aurkezle izana zela, baztertua eta Baionarat izendatua izan aitzin !

Zertako eman zidaten askatasun osoa edukiari doakionez ? Ni, bizkitartean, gaztedanik euskal militantea nintzen : Aberri Egun guzietan izana 1964ko az geroztik (1963ko lehen hartan soldadu nintzen). Bertzalde borroka gogorretan ibilia nintzen Senpereko ikastolaren sortzeko eta Zirikolatz dantzari taldea beregain jarri zenean, eta oraino gogorrangoetan nenbilen Senpereko Gure Lurrak elkartearentzat herriko etxearen kontra auzitan ! Galdatu nindutenek ene bizia ez zuketela aski ezagutzen ? Oroitu behar da gai minbera horiek ez zirela biziki aipatzen prentsa “ofizialetan”. Ez dut bertze esplikaziorik ikusten.

Bertzetik, zertako botereak kanporatu ninduen ? “Urrunegi” joan nintzelakotz bistan da, Frantziako irati publiko batean nor berak bere burua zentsuratu behar bailuke. Baina hori nik ez nezakeen nehondik ere onar. Jadanik 5 minuta labur euskararentzat eta gainerat guhaurk geure burua zentsuratu behar bagenuen zer geldituko zen ? Baina ene ustez bada ere arrazoi gorde bat hauteman ahal dudana denborarekin eta da : **euskal indarren bateratzaile agertu nahi ukan dudala beti eta geroztik ene uste fermua da batasuntzaleen beldur handia dutela Parisko boteredunek.**

Henri Duhau

“Berri laburrak...”

(Enbata 1981-02-19, Daniel Muger)

Ez, ez dizute deus aipatu... Ez Guy Jolivetek frantsesez, ez Marie-Pierrek euskaraz. Eta bizkitartean, azken bi aste hauetan, Baionako “Radio Cote Basque” deitu etxe famatuan zerbait gertatu da. Hamar urtez karraskan eta hain sakonki ari izan ondoan, Gexan Lantzirik bere saila utzi berria zuen. Ordain, Henri Duhau jarria zen. Eta denak pozik geunden ikusiz gure senpertarrak zer euskara maritsuan erabiltzen eta barnatzen zituen hautatu gai biziak.

Baina horra, etxe horren legea, euskarazko gaiak axaletik trenkatuz, gainez gain, erdizka, dena hautsi-mautsi, edo berdin nolana hika aipatzea izanez, pentsa beraz Henri Duhau bezalako bat ez zela luzaz hor onartzeko pirua.... Eta beraz, jaun zuzendariak jakinarazi dio ez zuela gehiago bere saila eramaten ahalko... Hots, kanpoa zuela.

Eta hor euskaraz mintzatzen diren andere, kalonje eta jaun hizlari trebeek nola hartuko dute berria ? Zer egingogo dute ? Geroak erranen. Nahiz denboraz ere horrelatsuko kasuak izan diren bai Rldiart, DLandart eta berdin beste batzuekin...

Gure aldetik etengabe errepikatuko dugu “*censure*”, “*autocensure*”, ez, eskerrik asko ! Nbiz eraikiko ditugu bada egiazko eta gure gureak izanen diren euskal irati telebista etxeak ?

“Le Pays Basque, pays mal aimé”

(Herria 1981-05-28, Etienne Salaberry)

Nous sommes une brochette d'une dizaine de journalistes à écouter les doléances de Basques brimés à cause d'une basquitude non pas dissimulée, mais au contraire affichée. (...) FR3 Pays Basque se trouve sur la sellette. Henri Duhau est l'un des écotiers les plus appréciés des auditeurs de langue basque. Mais il expose comment le problème du département basque relève des élus du peuple et non pas du bon vouloir de ce fonctionnaire qu'est le préfet.

Sans être remercié, il remercie tout de même. On ne l'appelle plus. Quand donc, nous Basques, nous dresserons-nous pour résister au sectarisme, à l'arbitraire, aux rebuffades, aux lettres de cachet ?

OHARRA 2000.

“FR3, Euskal Herriko irrati etxean” asteen behin hitzegiten nuen. Gero, berek galdeginik, hasi nintzen Enbatarentzat sar-hitzaren idazten, hogueietik, bakar batzuetan lagunekin aldia trukatzuz haatik.

Gai politikoak hain eztabaidagarriak izanik ere Enbatak argitaratu ditu proposatu dizkiodan artikuluguziak. Eskuzabaltasun horrengatik baina ere, eta areago, aspaldiko urteetan Euskal Herriaren eta herritarren alde sekulako lana daraman astekari politikoak eskerrik beroenak hartze ditu.

Euskal Herriaren berreuskalduntzea

1981-10-01

Joan den egunean, euskal batasunen ordezkari eta euskaltzale andana bat bildu gara Baionan, Frantzian ezkerre boterean jarriz gero, elkarrekin ikusteko egoera berri honek sortu itxaropena nola behar genukeen finkatu lege iraunkor batzuen bidez. Jakina, sozialistek udaberriko hauteskundeak kariatat asko hitzeman zigutela, bertzeak bertze, geure hizkuntza eta kultura sustatzeko.

Xehetasunak bertze batzuek ere emanen dituzte ; guk, geure aldetik bizpahiru oharpen eta galdera batzuk gogoratu zaizkigu. Gure ustez bilkura biziki ona izan da : lehenik, etorri behar zutenak, gehienak hor baitziren eta gero elkarriketa aberatsa izan baita hizlarien artean, “boketa xuritze” soberakinik gabe. Denak taldeka jarririk, lanari lotu gara urriaren 24ko, batzuen eta bertzeen eskaerak legegai bilakartzeko gisan ezartzeagatik. Haatik iduritzen zaigu lehenik adierazi behar genukeela geure helburua, urruna segur baina azaldu behar duguna : Iparraldean elebitasun egiazko batetarat heltzea, erran nahi baita Euskal Herriaren berreuskalduntzea. Gizaldi edo belaunaldi bat beharko dela edo gehiago ? Badaiteke. Ez ote litzateke on halere helburu hori oraindik argi eta garbi adieraztea ?

Bertzalde eskuindarrek eta erdikoek Xarta delakoa zokoratuz, hitza jan dute. Gaurko agintariek gauza bera edo bertsua egin baliezagute, errexi asma dezakegu zer ondorio deitoragarriak izaten ahal genituzkeen hemen gaindi. Alabaina nehork ez du pentsatu behar puruxka bat askiko denik euskara frantsesaren maila berean ezartzeko, eskolan, lantegietan, irrati, telebista, kazetetan, Administrazioan, eta abar. Bizkitartean hori dugu behar eta hori da gure nahikundea.

Horretaratzeko bideak, epeak eta urratsak jarri behar direla dudarik ez da, ez baikenuke jasanarazi behar, geure artean dauden erdaldunei, frantses estatuak guhauri jasanarazten digun zapalkuntza. (Azken berrien arabera ez dugu, haatik, irriskurik ere !) Adineko jendearen euskalduntzea bakoitzaren nahiaren arabera egin liteke ; baina gazte eta haurtzaroko irakaskuntzari buruz bertze biderik hartu beharko litzateke euskara irakatsia izan dadin denetan eta denei, Euskal Herriko eskola eta ikastegietan. Haren edo honen gain utz baledi gure hizkuntzaren ikastea edo ez ikastea nehoiz ez gintezke geure xedeetarat hel. Ez ote da zuzen, hemen, denek euskara jakin dezagun ? Ez ote da hor bakerako bidea ?

Hau ere : zeinek gehiago irabaz eta xahu, hots dirua nagusitzat daukan gizarte honek utz dezakea euskarari bizitzeko tokirik ? Bertzela erran, euskaldungoa indartzeko ez ote da beharrezkoa gaurko gizartearen balore batzuk berrikusiak izan daitezen, kulturak har dezan orain arte izan ez duen garrantzia ?

Euskaltzaleek geure lana egin behar dugula nahi dut ; baina gaur egun, aldakuntzaren eskua sozialistek daukate.

Zatitzaileei ihardukitzeko bil gaitezen

1981-10-15

Bretainian kexu dira : Nantes hiria, jatorriz bretoa mila urte honetan bederen, Bretainiatik bereiz baitaukate gaizki egin departamendukatze baten ondorioz. Gu, euskaldunak, biarnesekin loturik ezarri gintuzten, geure nortasun bereziengatik bereber egon beharko ginenak. Han, zuhaitzaren aldaxka bat moztu zuten eta hemen alderantziz bi adar —hizkuntzaz eta kulturaz urrunduak aspaldian— elkarri estekatu zituzten.

Jokabide horrekin, han ala hemen, herrialdearen osotasunaz axolarik gabe jokatu ziren. Orduko helburua baitzen beren kriterioen arabera departamendu batzuk muntatzea, probintziaren gobernatzeko Paristik, hiri nagusiaren boterea finkatuz sail garrantzitsu guzietan : armada, ekonomia, politika, irakaskuntza eta abar.

Eta hori guzia alegia deus ez : alabaina, duela berrehun urte egin zatikatze horrek, jende xeheari ez zion, orduan, min handiegirik egin, bere egun guzietako bizitzan ez zuen hainbat hunkitu edo bederen ez aski jazarkunde herrikoi baten sortzeko. Horra nola, Parisko jaunttoek, azpijoko ikaragarri baten bidez, zatikatze eta bertze, herrialdeen nortasunen suntsitzeari lehiatu diren.

Gure departamenduan biarnesak ere loakarraraziak zituzten : haiek gehiengoa izanez, eta gu euskaldunak haien petzero, ez zirela hain gaizki ateratzen sinetsarazia zioten ! Halere berezitasun bat azpimarra daiteke hemen : Baionan utzi zizkigutela diozesia bai eta ere Industria eta Merkataritza Ganbera ; honi, haatik, Zuberoa kendu zioten eta Paueko etxeari lotu ! Hauexek dira bada zatitzaile tematuak ! Oraino ere, Sud-Ouest kazetak bai eta ere Euskal Herriko Irratia deitzen den batek, guti gorabehera, beti bide horretarik jarraitzen dute... ⁽¹⁾

Noiz arte atxikiko digute Zuberoa Paueri loturik arrazoirik gabe ?

Aldakuntza giro honetan, elkarretara gaitezen lehenago gaizki egituratuak xuxentzeko, hots, Euskal Departamendu bat eskuratzeko lehenbailehen geure hiru lurraldeentzat. Ez haatik edozein departamendu, “*région*” edo eskualdearen botereak ere lituzkeena baizik ! Etxeko berriak hederen ongi jakin ditzagun. Hori litzateke gutien bat, zeren bertze laguntzarik ere hartze baikenuke, kultura eta ekonomia mailetan.

Halarik ere, bereziki azken bi mendeetan, egin dizkiguten desmasia guziak ez dira nehoiz ordainduak izaten ahalko...

⁽¹⁾ Oharra 2000. Erran gabe doa bi komunikabide horien baitan euskararen alde jokatzen diren edo ziren langile eta hizlariak ez genituela neholara ere hobendun ezartzen.

Eusko Jaurlaritzatik laguntza dator

1981-11-01

Bazuen zenbait hilabete Euskal Dantzarien Biltzarra Gasteizen zebilela, bertze asko elkarte bezala, bere beharren aipatzeko hor dagoen euskal gobernu edo Jaurlaritzari ; eta hona non joan den astean finkatu dituzten, 198leko urtearentzat, Kultura Sailak EDBri ekartzen dizkion laguntzak.

Laguntza horiek hitzemanak zitzaizkion eta galdegin guziak erdietsi baldin baditu, emaitza zuzena zaigu Jaurlaritzarengandik eta EDBk ongi merezitua, bereziki azken hamar urte hauetan zazpi lurraldeetan, eskuz-esku daraman lan jarraikiarengatik.

Ez gara hasiko gaur Jaurlaritza horren on-gaitzen edo indar-ahulezien eztabaidatzen ; ikusi nahi genukeena hauxe litzateke bakarrik : Iparraldeko euskal kultura elkarteek, honaindiko EDB barne, goستن dugun lan baten bidez, Parisko gobernutik zerbait erdietsi nahiz ari diren une berean, euskal gobernu batek ohituragintzaren beharrak ongi ikusten eta laguntzen badakiela bere ahal mugatuen arabera ; ahal mugatuak diogu, Estatutuaren beraren aldetik segur baina ere, kasu honetan behintzat, hiru lurraldeetarik datorkion dirutik bertze laurak ere laguntzen baititu !

Alabaina, EDB baitan ez dira bereizten Iparraldea eta Hegoaldea are gutiago Nafarroa ! Xehetasunetan sartu gabe, hona zertan datzan laguntza hori. Parte bat dirutan dator (Iparralderat 50.000 franko inguru) eta gaineratekoa honako sail hauek zehazki sustatzeko zazpi lurraldeetan :

—EDBk argitaratzen duen “Dantzariak” aldizkaria ;

—Azterketa eta dantza irakaskuntzarako tresneria ;

—Jauntzi eta materialen egiteko kooperatiba baten sortzeko ; dantzari taldeek behar dituzten guziak aurki ditzaten hor erdi preziotan eta oso egokiak gainerat.

—EDBren zerbitzuko izanen den lan tokiaren antolatzeko.

Ez dugu egintza nahitaez mugatu horren aitzinean ahoa zabalik egoteko asmo izpirik ; dakusagun halere, EDB eta bertze asko elkartek mugaren gainez gain daramatzaten lanek, ondorio onik badakartela eta egun batez, Pariseren eta Paueren menetik ateratzeko bidea horrenbertzez argitzen digutela.

Euskal Herriaren aldi noiz ?

1981-11-26

Azken egun hauetan burrunba handitan gauzkate “De Broglie” aferaren inguruan. Lehentxago SAC ⁽¹⁾ sobera famatuaren jokabide arruntak salatzen hasiak zitzaizkigun. Ben Barka-ren kasua ere aipu dute : dirudienez honen auziaren berriz egiterat doaz. Eta oldarra ez da horretan geldituko : batak beitzea erakartzen duelakotz eta halako garbiketari buruz goazke non botere berri honek izanen baitu zerbaiten beharra giderrak fermu atxikitzeko !

Eta gure aldia noiz etorriko da ? Bagenuke guk ere zuzentasunezko argiketa parrastaño bat egiteko, Senpereko lakutik hasirik, Victoria Surf eta bertze. Ez gara segur mendekioa leriokoen “xuriketaren” gose, baina egiak ez ote du berea galdatzen ? Orokorkiago, noiz ezarriko da argitan Euskal Herriari hain aspaldidanik egina zaion egoera deitoragarria ? Erditik moztua eta gainerat horrenbertze irain, desjabetze, baliatze, sarraski, gezur, agintza huts, handiena dagoelarik naski berrehun urtez jasan duen gaztez huste negar egingarria.

Alta bada frantses telebista oso erdirakoi hori ere ez dago gure laguntzerat abiatu ! Euskaldunak bortizki jazar daitezela eta horra non dukezun eguerdi eta arrats, gainea ; are hobeki beren artean aharran badabiltza, hala nola EAJ eta honen lagunek “bakearen alde” bultzatu zutelarik manifestazioa ETari ostiko bat eman beharrez, telebista han zenuen, zaude lasai ! Aldiz Eusko Jaurlaritza horrek berak biltzen dituelarik berrehun mila lagun Madrilgo gobemuari ozenki adierazteko eskuratuak dituen zuzenak ez dituela porroskatzerat uztekoak eta horra non “gure” telebista gogor eta mutu ! Ez du lehen aldia hola dabilela...

Bagaude asko, gaur, ez ote den telebista frantsesa (ez dut ezagutzen Espainiakoa, baina berdintsua dateke) abertzaleen etsairik higuinena, maltzurrena delakotz gure gaitzak aipa nasaiki eta urrats onak isilik utz... Bide horretarik jarraitzen badu kalte handiak ekarriko lizkiguke. Zer atsegina beraz ikustea Iparraldeko euskaldun batzuk euskarazko herri irrati baten apailatzen ari ⁽²⁾. Lagundu behar ditugu oztopo guzien garaitzen.

Hola jokatz gure ustekizuna da jauntto batzuk, atzerritar ala bertako, ez direla gutaz orain arte bezain errexki baliatuko, eta emeki bada emeki herriak bere geroa osoki eskuetan hartuko duela.

⁽¹⁾ Service Action Civique (...)

⁽²⁾ Gure Irratiaren sortzea.

Poloniarrekin bat

1981-11-24

Egun garratzak poloniarrentzat. Asko, holako zerbaiten beldurrez geunden ja zenbait hilabete honetan. Ari ginen haatik ea sobietarrek izanen zutenetz kopeta, mundu guziaren aitzinean eta langileriaren izenean, Polonian sartzeko eta bazter guziak menperaturik ezartzeko Hungarian eta Txekoslovakian bezala. Gutxi edo aski abildu dira aldi honetan : Poloniar batzuei eginarazten diete lan tzarra ! Halere ez dute anitzik enganatuko “hartz handiaren” itzal beldurgarria nabari baitago gertakari hauen muinean. Eta beharbada hitz hauek irakurtuko dituzuenengan, poloniar armadak burutziarik ezin eginez, sobietarrak sartuak izanen dira Polonian !

Joan den asteko gure Etxebeltzek zioskun Espainiaren (eta beraz Euskadiren) aldi noiz ? Galdera gogoetagarria eta ez funsgabea ! Baina gaur Hegoaldeaz kezkatzen baldin bagara gehienbat ez genuke ahantzi behar Frantzia aldean berdin-berdina gerta lekigukeela. Zer diot, gaur arte behintzat, Frantziak daraman politika Britainia, Euskal Herria, Okzitania eta bertzei buruz ez dea egiazki inperialista, demokrazia izenez jantzia ? Beregaintasun zerbaiten bezperan baleude herrialde zapaldu hauek segur ez litzatekeela faxista eskasik Frantziako eremuetan, orroaz bailebilzke “*La France Une et Indivisible* !” Alabaina deszentralizazioa bera ere ez dute jasaten ahal begietako zikina baino gehiago !

Gure oroimena doi bat atzarraraziz so egin dezagun eskuin aldean : Pétain ez da hain aspaldikoa eta De Gaulle bera ere doi-doiak egin zuen ez baitzen diktadore bilakatu ! Orain arte prefetak zertsu ziren ? Eta horrenbertze jende edozein lan mota egiteko prest direnak diru truke ? Ezker aldean ez da hobeki : CGTa langileriaren zaindari bipila, berak dioenez, non dabil gaur komunismoaren mutil, langileak espetxetan abandonaturik ? Eta bakezaleak (*Les pacifistes*) nortzuk ditugu ? Ez denek baina gehienek nahiago lukete Errusiar bilakatu ezinez eta beren burua irriskatu...

Biziaz gozatu, hori bai gaurko gizartearena ! Arrazoiekin gisa batez baina zer bizi mota ? Horretan dago guzia ! Zernahi lan mota eginez, bizi irabazi behar dela eta, gure nortasunaz axolarik batere gabe, are gutiago bertzerenaz ? Zuzengabekeria utziz hola-hola bere bidean, guhaur hunkiak ez gareno bederen ?

Ez ikusiarena eta ez adituarena eginez faxismoa laguntzen dugu nolabait eta, zorigaitzez, holaxe bizi direnak trumilka daude Frantzian ere ! Beharrik, berekoikeri eta zurikeri guziengatik altxatzen ari dira uhin batzuk Poloniar langileak lagundu beharrez eta horrek gogo argitzen digu. Batzuek diote “Solidarnosc” urrunegi joan dela. Espainian ere diote ETAk sobera kitzikatzen dituela bazterrak. Munduko langilen ihardespina handiago eta faxistak (eskuinekoak ala ezkerrekoak) lotsatuago leudeke...

Gertatzen dena da bi erakunde hauen jokabideak ez baina helburuetan badela berdintasunik : herria askatzea, batak erruso eta bertzeak espainol baliatzaile eta inperialistetarik ! Dakusagunez, lan gogorra bihirik baldin bada !

Goibeltasun guzien artetik Betelemeko izarrak dizuela Eguberri on !

Haritz bizkaitarra

1982-02-04

Nekez kausi liteke zendu zaigun Manu Robles-ek baino haritz izena merezituago lukeenik. Bizkaiko diputatu izana, ELA sindikatuaren sotzaileetarik eta luzaz zuzendari egona ere bai. Baina Francoren erasoaldiak kendu zuen “haritza” bere lurretik. Mugaz honaindirat iragan behar ukan zuelarik, Beskoitzen birlandatu zen haritza bere familia ederra altxatzeko. Hemen ere Euskadi da ! Lur idorra haatik eta azkenik egina izan zaion idorkeria ez da ttikiena izan : bere bizi guzian, Euskal Herria, langileak eta kristauak lagundu ondoan, hona non hain ongi zihoakion ikurrinaz biluzten duten, elizarat bere azken itzulia egiterakoan !

Askotan, frantses bandera badabilelarik lasai hor berean, zer behar da pentsatu, izen baten ematea ere neke zaigun egitate horretaz ? Beharrik kanpoan gelditu ikurrina, nabari zen barnean ; Roger Idiart apezaren inguruan meza eman dutenek ez dute duda-mudarik utzi eta gure barneko mina doi bat eztitu digute.

Duela urte bat ere bertze haritz bat erori zitzaigun ; gipuzkoarra baina ezaguna 7 lurraldeetan : Telesforo de Monzon. Ez ziren, biak, denetan iritzi bereko baina bataak nola beltzeak, hautatuak zituzten bideetan zihoazelarik, eman zezaketen hoberena guretzat, herriarentzat eman dute. Franco-k jasanarazi duen berrogei urteko gau etsigarri hartan zehar hauen bien asmoak ez dira kordokatu, hedatu baizik, bereziki Iparralde honetan. Hauxe da bada zorigaitzaren alderdi ‘ona’ baina ere iraupenaren eta sineste handi batetarik bakarrik jalgi daitekeen indarren fruitua.

Gure doluminik bizienak Robles Arangiz familia guziari.

“Herritarki”. Olde berri bat sortzen ari zaigu, herrietako hauteskundeei buruz euskaltzale eta abertzale andana bat lehiarazten dituela. Herriko bizia antolatu beharko duten herri gizon eta emazteen hautatzeko denborak hurbiltzen ari zaizkigun honetan, behar beharrezkoa zen holako sailari aski goiz lot gintezen. Jadanik herriko gorabeherak hunkitzen gaituzte denak eta hemendik aitzina ez gutiago, datozkigun lege berriek botere gehixago utziko dietelarik herriko hautetsiei.

Deiturik “Herritarki” lehen urratsetan beretan agertu dituzte xede onak. Segur badugula zerbaiten beharra joan den astean Senperen ikusi dugunaren ondotik : POS delakoaren agerraldia zen herriko etxean. Nola ez aipa hor ikusi bidegabekeriak : mapa edo plan batzuk, lupa batekin ere ezin irakurriak edo Peitxenbordaren sailkapen ezin sinetsia ? Eta nola egon deitoratu gabe komisari ikertzaile hura, erdaldun hutsa baitzen, baitezpada euskalduna izan behar lukeelarik ? Bizkitartean hola izaten da kalastra berritze edo lur elkarretaratze gehienetan ere.

Aseak gara molde horietaz, badelakotz asko jende, adin batetakoak bereziki, erdara arrotz dutenak eta arrotzago oraino mapa galgarri horietan ibili behar delarik... Herri gizon bat izan balitz bederen denen laguntzeko ez zen deusik izanen... POS eta bertzeak beharrezkoak dira : egin bitez ordea, jendearen eta bereziki eskola gabeen errespetu osoan, eta gainerat Euskal Herrian garela ahantzi gabe !

Hitzemanak eta bertzeak

1982-02-04

Egun hauek oroigarriak dira euskararen egoeraz eta etorkizunaz kezkatu-rik gabiltzanentzat. Aroa edo eguraldia ez hoberena izanagatik ere, Latché-rako ibilaldiak hartu du behar zuen indarra eta bi gauza erakutsi ditu behintzat. Lehena : ez dugula barkatuko Mitterrand lehendakari-gaiak hitzemanak eskuratu arte batetik eta bertzetik hitzeman horietarik zerbait ez bazaigu laster heltzen haserreak gaina hartzen ahalko lukeela, ez bakarrik euskaldun jauzkorren baitan baina gogo baketsuagoenetan ere !

Bigarrena : hitzema-
k ez direla askiko elebitasun egiazko batetarat heltzeko. Frantses estatuan eta bereziki irakaskuntzan frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra. Bigarren lerroan datoz atzerritar hizkuntzak, ingelesa, gaztelania, eta abar. Hirugarrenik eta azken herronkan, urrun, herrestan, “lekuko” mintzairak, euskara eta bertzeak. Hain zuzen gure nahikundea da, Euskal Herrian euskara izan dadin hizkuntza ofiziala, frantsesa bezala eta honek dauzkan errextasun guziekin. Bada bertze gauza bat ere baitezpada eskuratu behar duguna eta hura da euskara ez dadin bakarrik irakatsia izan — nahiz hori ere zerbait den— baina bilaka dadin edozein gairen irakasteko hizkuntza ahal-
duna.

Azken aste hauetan, Seaskak daraman borroka ohargarria izan da bereziki eskaera premiatsu hori adierazi baitu irakaskuntzan zerbait erantzukizun daukaten guziei behe-
reko mailatik hasirik gainekoetaraino. Ihardetsi diote : arazo politikoa dela. Dudarik gabe hala dela ! Mendeetan zehar eginikako politikaren aurkakoa hain zuzen ! Hainberze ohitura eta ikuspegiren aldaketa galdutako lukeena... Hots, bada hor egiazko iraultza baten gaia. Duela berrehun urteko Frantziako Iraultzak populu ttikien eskubideak hondarra suntsitu zituen jende bakoitzarenak emendatu beharrez. Gaur galdatzen dugun hobekuntza da populu ttikien eskubideak, gaurkoturik, behar ditugula, norberarenek ere hobetzearen beharra baluketelarik denbora berean...

Egiazko ametsak direla horiek ? Ez nehondik ere ! Zuzentasuna litzateke bakarrik, eta ez faborea. Joan den astean, Tunisian, Pierre Mauroy ministro lehenak palestinarez mintzo zelarik zioen goraki populu guziei beren buruen gobernatzeko ahala zor zaiela. Hitzean hartzen dugu : palestinarrak bezala populu bat baikara ; herrialde batek populu izena merezi baldin badu, gureak merezi baitu !

Dena den gaurko agintari-
ek, luzaz botere nagusitik baztertuak egonaren boltxaz, gure arazo batzuk konprenitu dituzte edo bederen konprenitzen hasi. Zerbait eskuratzekotz orain da denbora : Parisen boteredun jartzeak berekin dakarren mutzidurak hauteskunde aurreko agintza onak suntsitu aitzin !

Badugu parada ederra, datorren larunbatean, Baionan, bizi nahi duen herri bat garela erakusteko. Aupa guziak Baionarat !

Emazteen eta abertzaleen borroka

1982-03-11

Maiz konparatzen ditugu emazteen borroka eta abertzaleek daramaguna. Joan den larunbatean, telebistan, emazteen egoeraz antolatutako emanaldi batean, andere batek ateratu du : “Nik ahal guziak egiten ditut emazteen alde, gure zuzenak behar ditugu adierazi eta errespetarazi ; gizonen mailarat heldu behar dugu baina horretarako ez dugu MLFaren beharrik zeren hor, beren artean ere, ez baitute elkar aditzen, ekintza batzuekin bazter guziak nahasten baitituzte, guhaurez ahalkarazterainokoan”.

Adiskide abertzalea, emazu “emazte”-en lekuan Euskal Herria eta “gizon”-en ordeztatu eza Frantzia edo Espainia, eta gero MLFaren ordeztatu sar Enbata ; ea orain ez ote duzun jadanik holatsuko zerbait entzunik ? Nik uste baietz. Hala-hala zioten zenbaitek Senperen ere : “Ez dugu hemen ikastola beharrik, geure herriko ama eskoletan euskara irakats dezakegu”. Baina hara, eskola horietan euskara pixka bat sartu da ikastola sortu denetik eta ez lehenago !

Ez gara hasiko MLFaren okerrak jorratzen, haiek geure hutsak ager ez diezazkiguten ; ez eta ere geure buruaz espantuka emazteen egoeraz ari garelarik ; halere onar dezakegu Berberea herrialdeetarik abiatuz, Korsikan gaindi eta Euskal Herriraino helduz, herrialde ttiki hauetan emazteari leku handia ematen ziotela ; eta alderantziz herrialde ttiki hauen menperatzaileetan dugula kausitzen hain zuzen emazteen gibelago atxikitzeko gogo hori.

Haatik, Euskal Herrian denak hobekienetik doazela alde horretarik ez dugu erranen, zeren populu menperatu guzietan gertatzen den bezala menperatzaileen jarraitzaileak ateratzen baitira laster... berdin menperatzaileak baino areago bilakatzen ere direnak ! Baina hau ez da gure falta, kutsua hemen gaindi xertatu dutenena baizik !

Iduritzen zaigu gogo menperatzaile hori gizonek sortu kultura gordin batek garraiatzen duela, bata bertzea baino gehiago delako sinestean oinanuturik dagoela, hots indarrezko kontu bat dela, emaztea zapaltzen duena lehenik eta populu ttikiak bide beretik ! Kultura higuigarri horren aurka oraino luzaz borrokatu beharko dugu emazteek eta abertzaleek !

Gora dantzariak ! Joan den ortziralean Suprefeturan, bildu dira euskal dantzarien ordezkariak frantses Kultura Ministeritzako batzuekin. Gauza bat erran daiteke bederen : gure beharrek eta Parisko jokabideek ez dutela aise elkar kausitzen ! Egia da dantzariak, Euskal Herriaren berreuskalduntzea eskatuz beren sailaren finkatzeko ongi bezain urrun begiratzen badakitela ; Parisen aldiz nahiago bide luketelarik, laster-lastera egin litekeen sail bat burutu. Hauteskunde garrantzitsu batzuetarako probetxugarri gerta lekiekeen zerbait berdin : “harri batez bi xori” !

Errexki ulertzen dugu jokabide hori baina guk ez dezakegu nehondik ere geure geroa frantses hauteskundearen gorabeheren menturan utzi ! Guk ondorio iraunkorrak litzuketen laguntzak behar ditugu. Talde profesional bat biziki ongi litzateke, baina lehentasuna euskal kultura elkarte biltzarrek galdatu duenari ematen diogu.

Anartean dantzariak, bertze kultura sailekin batera egin lana ohoratu dute, sail horiek guziak elkarretarik ezin bereiziak direla adieraziz. Sail hauek dantzarien lanarentzat gauza bera baldin balerrate, loriaturik geundeke !

Eskola libroak eta gu

1982-05-06

Datorren larunbatean, eskola libroak karrikarat jaisten zaizkigu beren kezka larriak adierazteko. Eskuindar batzuk badabiltza heia goraka : jendea xutiarazten dute eskola libroen aldeko borroka dela-eta, aitzakia ederra baitute ahal guzien egiteko borroka hori itzul dadin indar berritzaileen kontra.

Bakoitzak bere iritzi, guk geurea. Batzuek aski dute norbait zerbaiten alde ikustea berak kontra jartzeko. Gu ez gara bide horretarik ibilki. Hala nola, Solidarnosc Poloniakoaren alde agertu ginen haste hastetik eta horretan gauden errotik, Reagan bat alde izan edo ez izan. Halaber, batzuek harrigarri kausituko baldin badute ere, eskola libroek bizi behar dutela daukagu, bederen hiru arrazoi handirengatik :

— bakoitzari utz dakion bere haurrak eskolatzerakoan, hautu baten egiteko ahala ;

— zeingehiagoka edo lehiaketa salbaitarat erori gabe, zergatik ez utz eskola publikoa eta pribatua, zeinek hobeki joka daitezen ikaslearen onetan ?

— hezkuntzak ez ote luke izan behar anitza edo plurala, hori gabe ez bailegoke demokraziarik sail honetan, ez bertzeetan ?

Hau guzia printzipioz beraz ; zeren euskal irakaskuntzaren aldetik eskola libroa laikoa bezain tristea agertzen baitzaigu, zenbaiten ustez, zerbait hobe egin zezakeelarik, izenak dioen bezain libroa baldin bada segurik.

Bertzalde frantses Hezkuntza Nazionala, jadanik hoin erdirakoia eta herri kulturen urkatzailea dena, bakarrik uzteak izitzen gaitu. Aldiz pluraltasuna onar baledi ez ote genuke xantza gehiago bertze ikuspen baten ere onarrarazteko : populu ttikien eskubideak ezagut litzakeen eskola bat hain zuzen, publikoaren nola pribatuaren gerizan euskarazko irakaskuntza zabalduko lukeena ?

Datozen egunak, garrantzi handikoak dituzkegu galdera horiei buruz. Ikus xehetasunak zenbaki honetan Parisko Ministeritzatik datorren ordezkartza ez nolanahikoaz. Laster ageriko bide da, beraz, frantses hauteskundeon ondotik, horiek guziek agonia lotsagarri baten luzamenaz bertzerik ekar dezaketenez euskarari.

Larrainen, Eiheralarren eta Senperen borroka gogorak dituzte lur batzuen jabetasuna ezin finkatuz. Hiru kasu desberdin, baina hiruretan auziaren iturburu berbera : aspalditik eta bereziki Frantziako Iraultzaz geroztik, beren lurren baliatzeko zeuzkaten ohituren errespeturik gabe, gain behera sakatu dizkigutela lege berri batzuk. Holaxe, ‘lege zaharren’ eta lege berrien arteko nahasketa ikaragarri bat sortu da, saltsaren ontzeko politika gorabeherak ere badutelarik zerikusia, han, hor eta hemen ere.

Hiru herri horietan dauden eztabaida luze bezain indar higitzaileek ongi seinatzen dute Euskal Herriaren zorigaitza : jasaten dugun errespetu eskasaren ondoriozko “handitsuak” dira hirurak.

Duela urtea

1982-05-13

Eskuina 23 urtez botere osoaren jabe egon da Parisen (azken urteetan zentrista zenbait lagun), 23 urte beraz, batzuetan doi-doietarik bazen ere, ezkerak galtzen zituela hauteskunde garrantzitsuenak : iduriko baitzuen santa sekulan botere nagusirat ez zela helduko ! Konstituzioa ere, gisa hartarat asmatua zuten De Gaulle-k eta haren lagunek : bi eskualde edo alderdi handi sustatuz, horietarik batetarat komunistak hertsatuz, eta holaxe hauek izanen ziren alderdia beldurgarri bihurtuz, beti ezkerria bentzutua izateko gisan.

Iziazazleak, hala nola Bigeard jenerala : ezkerria iragaiten baldin bazen sasi-gudian sartuko zela errana zuen ! Zer espantuak bertzalde : konstituzio gaitza genuela, sekulako demokrazia eta aitzinamenduak gozatzen genituela hari esker eta abar. Golkoan aldiz zeukatelarik : “Hauteskunde sistema honekin ezkerria ez duk nehoiz botererat helduko”.

Mitterrand-ek ez zuen konstituzio hori bozkatu, botere sobera ematen zuelakotz presidenteari : eta gaur, horrek, berari ezin preziazuzko indarrak ematen dizkio bere politikaren kudeatzeko ! (Ez da lehen aldia, historian zehar, agintarien botere soberakina zorrozki salatu ondoan, bera botererat heldu-eta jaidura beretan erortzen dela...) Bertze asko erabaki onen artean, maiatzaren 10ak ekarri duen berrikuntzarik hoberena “alternantzia” ohituretan sartzea dateke. Ez ote zen hori demokraziaren seinale beharrezkoenatarik bat ?

Ezkerria nolabait iraun du ; irabazi duenean haatik ez zen osasunik hoberenean, urrun da ! Gehiago dena, beharbada hartako du irabazi... Guretzat deus argigarriak ba ote da hor ? Bai eta ez. Iraupenaren aldetik bai. Baina bertzela ez. Ez baitugu aiantzi behar, ezkerria Estatua prest-presta zuela ; hauteskunde irabaztea aski (...). Guk aldiz denak egitekoak ditugu : gure eremua finkatzekoa, euskarazko irakaskuntza nahi baina euskara ez osoki egokitua, zein pedagogiaren bidez ; askatasuna denek eskatzen baina hartarako urratsak desberdinki ikusten.

Bizkitartean, herriak gauza zehatzak edo konkretuak maite ditu. Puntu horietan eta bertze askotan ez baldin bagara hein bat bederen xehetasunetan sartzen, beldurtzeko da euskal populuak ez digula gehiengorik emanen. Bertzela erran, ez duela eskukoa utziko, aski zehazki ezagutzen ez duen zerbaiten menturan.

Eztabaidak badaude euskaldunen artean baina funtsezko arrazoinamendu guti plazaratzen dela daukagu, hain zuzen, jendeak, ez iduririk ere, igurikatzen dituen puntu zehatz horietaz. Elkarren aburu-gurutatzak akuilatu behar genuke. Egia da jasaten dugun zapalkuntzak, ihardespen gogorra eskaturik, elkarrentzat ere gogortzen gaituela. Halere azken 20 eta zenbait urte horietan gertatu aitzinamenduak sustagarri, elkarri hurbiltze horri buruz joan behar dugu. Batzuk ‘hatsa hartzeko’ gelditu badira ere, ikus gero eta gehiago herriaren alde bermatzen direnak, berriki arte, nehork edo gutik, ezagutzen ez zuten aberria laguntzeko. Ez dira horiek guziak gutiestekoak gero !

Mundiala. Anartean ederrak pairatu beharko ditugu txapelketa horien karietarat ere. Espainiako ekipan 16 hautatuatarik 10 Euskal Herriatik ateratzen dira ! Euskal futbolariak ez dirateke nehoiz holako aldian izan ! Zer Euskadiko ekiparen gaia... A ! zer parada geure nortasun eta ahalen erakusteko hutsegina duguna berriz ere. Gure bihotz mina handia da ikusten ditugularik batetik ingelesak eta bertzetik eskoziarrak, ipar-irlandarrak eta galesak mundial horretan berean parte hartzen ; galesak ez badira ere azken haitadaraino heldu.

Euskadiko ekipa datorren mundialeko ? Agian bai. EDBk ere beharbada orduan, jokolariei, auresku bat gogotik eskainiko lieke...

Batasun gehiago

1982-06-03

Erdiko edo zentroko alderdiek lanak dituzte irauten : UCDk Espainian, CDSk Frantzian. Hemen, Iparraldean ere bazen erdiko alderdia baina Errecart senataria itzaliz gero erdikoak eskuinerat lerratu zitzaizkigun, zentroak alde bat edo bertzea hautatu behar duelarik, gehienetan egiten duen bezalaxe. Zenbait abertzale baitzegoen hor ere : batzuk urrundu ziren orduan, eskuin alde hori batere ez gustukoa izanik.

Egia da Euskal Herrian ere non-nahi bezainbat edo gehiago bierarteko bideak ez ditugula maite ; pastoraletan hori ikasi dugu beti ; xuri-gorrien arteko liskarretan ere bai halatsu, ahantzi gabe luzaz iraun duen kristauen erakaspenean, zeinak errexki bereizten baitzituen “onak” eta “gaiztoak” !

Zenbaitek uste dute erdiko bide hori eroso dela eta errexki “gizon ahulen” bidea deitzen dute. Bizkitartean izan daitekeen biderik zailena da. Eskuinetik eta ezkerretik gaitzetsia, politika saltsa guzien ohantzetzat hartua, batean ezker bertzean eskuin, nehork ez ditu ikusten ahal holakoak, diotelarik : politikan ez ote da aski bi alderdi handi izatea, ezkerria eta eskuina ? Arazo politikoak ez baitira ordea kirol partida batean bezain sinpleki presentatzen !

Dena den, frantses eta espainol estatuetan josta bitez nahi badute ezkerrekoak, eskuinekoak eta erdikoak. Baina guk, politika joko horietan, geure indarren higitzeko dretxorik ba ote dugu jadanik denen beharra izaki eta ? De Monzonek zioen : “Etxe zimenduak (oinarriak) ezin finkatuz ari denak ganbera zer kolorez tindatuko duen ote du kezka nagusia ?” Hastetikako abertzaleen auzietarik dugu hori : batzuentzat sozialaren arrangura bigarren mailarat uztea langilea beti azken eta izorraturik atxikiko duen bidea da.

Baina, borroka nazionalaren premia onartzeko eta horrengatik batasun izpi baten egiteko ez baldin bagara on, izorratua gerta litekeena Euskal Herri osoa balitz langileak barne ? Euskal Departamenduaren kasuan ez ote da jadanik usnatzen holako zerbaiten abiapena ?

Ikastolak. Joan den igandean ospatu dute beren eguna ; Paristik berririk ez heldu-eta, burasoak ekintza gogorrako batzuetarat abian zaizkigu. Egundaino bezainbat edo gehiago geure laguntza guzia ekarri behar diegu : euskaldungoaren berpiztean ikastola baitago gaur denen aitzindari !

Mitterrand eta Thatcher

1982-06-24

Azken denbora hauetan eskuz esku dabilzkigu Britainia Handiko lehen ministroa eta frantsesen lehendakaria. Malouines uharteetako arazoa dela-eta elkarri hurbildu dira eskuindarra eta ezkertiarra. Ez gara harritu : bata nola bertzea, eskuindar eta ezkertiar izan aitzin inperio baten buru baitira ! Batari nola bertzeari inperioak urtu zaizkie baina halere inperio diraute oraino biek eta atzo Britainia Handiari gertatu zaiona, bihar Frantziari ere gerta dakioke, gisa baterat edo bertzerat, munduan zehar oraino menperaturik dauzkan herrialdeetan.

Baina guk badugu Malouines bertzerik, hurbilago, zeinetan iduri bailuke Mitterrand Thatcher-en bide beretik abian dela. Idazten dugunean geure gose grebalariak 21garren egunean ditugu. Horiek egiten dutenaren aipatzeko hitzak labur eta murrizt ditugu : lau gizon gaztek, batzuk aita familiakoak, holako borondatea eta gogortasuna erakustea zerbait bada. Baigorriko gertakarien ondotik abertzaleak ziriko piltzarra bezala erabili gintuzten : non dira gaur horien miresteko ? Alabaina egitate txarraren gaitzesteko on denak jokabide txalogarria ez ote luke goretsi behar ?

Atzo etorri zaigu euskaldun gazte bat, ez abertzalea, dakigunez bederen, eta karraskan hasi zaigu gose grebalariez : hauen osasunaz, Parisko botere soraioaz, eta abar. Horrek ez ote du erran nahi ekintza gogor baina garbi horrek nehork uste duen baino gehiago hunki duela euskalduna ? Beharbada ez da egundaino izan gose grebarik hau baino hobeki onartua izan denik. Badirudi “hitza hitz” zerbait dagoela oraino Euskal Herrian.

Thatcher bortitzak (hiltzerat utzi zituen Bobby Sands eta bertze hamar irlandes abertzale gazte, presondegietan estatutu politikoa erdietsi nahiz gosegreban zeudenak). Baina Thatcher-ek ez du nehoiz, nehoi deus hitzeman. Errana egin du. Mitterrand hobendunago zaigu : hitzeman baitu zerbait, eta zerbait baino gehiago eta gaur agintzak ez baititu burutzen. Gazte hauei zerbait gerta balekie nehork ezin jakin herriaren kexua noraino joan litekeen. “*Elections, pièges à cons*” ahapaldiak, zenbait aldiz entzunak, eta askok parte baizik egiazat geneukanak, beretu behar ote gaitu osoki ? Demokrazia eri dugula erran dezakegu, biziki eri, herrialde tikienganako jokabideetan.

Bertzalde zenbat enplegu ez litzuke sortuko euskal irakaskuntza sano baten apailatzeak eta departamendu berri baten eraikitzeak, ez bailirateke gutiz uztekoak gaurko egoeran, gobernua bera ere ari delarik aho beteka langabezia behar dugula bentzutu ! Arazo guziak ez direla bi sail horiekin antolatuko ? Egia handia. Baina hastea ere ez ote litzateke zerbait ? Beraz zergatik horrenbeltze oztopo gure bideetan ?

Gure iritziz, eskolez eta Hezkuntza Nazionalaz ari garenean ez genuke ahanzi behar “bunker” bati buru goazela : ez da holako Bastillarik ! Ehun urte eta gehiago, etengabe, ari direla saka frantsesa eta frantseskeria, herri ttikien hizkuntzak eta kulturak aldiz utziz bazterrerat. Ba ote da munduan Estaturik bere mintzaira horren gora daukanik, batere durduzatu gabe, bertze guziak baino gorago ezartzen duela ? Bertzalde, ez da segur beti botere politikoak duela nagusigoa Frantzian. Administrazioen indarra izigarria da : dorpea eta hurria, osoki erdirakoa, gauzen luzarazteko eta trabatzeko ez baitu parerik !

Atzo eguerditan, Jean-Pierre Chevènement ministroak garbiki erran digu telebistan, frantsesak lanak dituela ingelesari ihardukitzen, biziki grinatuak dabiltzala horretaz. Pentsa beraz gure mintzaira ttikien geroaz zer axola duketen... Guk nahi dugu euskarak Euskal Herrian ukan dezan frantsesaren maila bera. Zorigaitzez eskaera horri ihardestea frantses mintzairaren apaltze bat bezala daukate zenbaitek. Frantzian, erregek, nekez onartzen bere boterearen partekatzea hartarat hertsaturik ez dagoeno...

Gauden erne

1982-07-15

Seaskak eskuratu du zazpi hilabetez etengabeko borroka bat eramanez, bere eskolen bizirik atxikitzekoa. Zerbait da ; anitz da ; hastapen bat behar delakotz... Baina ez da aski, urrun da ! Orain gelditzen da, lehen lehenik, paperean finkatu direnen zehazki egintzetarantz jautsaraztea. Lan garrantzi handikoa. Alabaina “gure demokraziek” ohitura txarrak dituzte : lehenik paperean ahal bezain guti onets eta gero egintzetarantz deneko, bulego bulego, administratza batetik bertzerat ibilirik, purruxka bat baizik ez da heltzen gutaraino. Beha Hegoaldean, nahiz bertze maila batean, LOAPA eta bertze...

Gainerat papereko guziak gutaraturik ere doi-doia uda honen pasatzekoa genuke naski. Gure beharrak hain dira handiak eta presatuak non larrazkenean berriz borrokarako bidea hartu beharko baitugu. Gure beharrak ez direlako sosegatuak jakina, batetik, baina gehiago dena hitzeman guziak ez baitaizkigu helduak oraino... Bada beraz lotkia ; eskuratuak sustatzen gaituzte jarraituz, oharrarazten ere gaituztela Parisek ez duela kornadurik igorriko non ez dugun guhauren borroka biltzen. Hori garbi dago bederen.

Bide horretan denen beharra badela errepikatzea balio ote du ? Ez dugu galdetzen ekintza guzien onestea ; baina nork daki herriarentzat zein den ekintzarik emankorrena ? Batek dio otoitzak salbatuko duela Euskal Herria. Bertze batek borroka armatuaren alde dela diosku. Bertze batek oraino, borroka bai nahi bezainbat baina bortizkeriarik ez.

Moralaren aldetik errex da jukatzea eta kondenatzea ere ; baina herriaren izenean egitea zailago da. Historiak hertsatzen gaitu geure iritzietan xume izaterat. Herria gure aburuetarik at dabil ; ahurrean ez da kokatzen. Herrigintzan bada toki...

Mundialaz ari ginela duela zenbait aste hemen berean genioen Euskal Herriko ekipa bat hor zein eder izanen litzagukeen. Nola ez aitor gaur Mundial hau ez zaigula hain ona agertu asko aldetarik. Egun astelehena, Italian zergak emendatu balituzte %10ez nehor ohartuko ere ez omen litzateke !!! Txapelketaren eramateak ahantzarazi omen dizkio Italiari bere eguneroko kezka eta arrangurak... Kirola, lo-belar ? “Aratxe” ongi zainduen abusagailu ?

Bertzalderat itzuliz ikusten dugu ere estatu ttikiek badutela hor handi batzuei mazelako polit batzuen emateko parada : Adibidez, Aljeriak Mendebaleko Alemaniari ; gerta zitekeelarik ere Poloniak Errusiari eta Argentinak Britainia Handiari ematea... Baina horiek guziak ez ote dira kirol gogo sano hartarik frango urrun ibilki ?

erri bakoitzari bere tokia

1982-08-05

Ez da errex zer bait ulertzea Ekialde Hurbilean geltatzen denaz. Duela guti iduriko zukeen palestinar iheslaririk hunkitzen baldin bazenuen (bereziki arabea ez den batek) mundu arabe guziak bizkarrerat jauzi eginen zizula... Eta horra gaur, hain zuzen mundu arabe guziak ezin ikusia duen Israel jazartzen den deblauki iheslari horiei, Estatu mugak gaindikatzuz, bazter guziak xirtxikatuz Libano dohakabea, sarraskituz gizon eta emazte hobetik gabeak ; eta arabeak, dena ekonomiazko intzira-mintzira, etzanak dirudite !

Hainbat eta hainbat gustatu izan zaizkigu israeldarren lan batzuk, ekonomia mailan nola hebrearraren berpiztean. Baina gure begiruneak, jadanik aspaldi epeltzen ari zenak, ukaldi bat ederra hartu du gaur, iraungi ez bada... Populu bat ez dela armaz suntsitzen ahal, Juduek hori ez badakite nork dakike ? Armenia ere ez zuten suntsitu, ez dituzte suntsituko palestinar iheslariak ere ! Ezin onetsiak zaizkigu beraz gaurko juduen jokabideak. Baina nor edo zer da hobendun ?

Nik hauxe ikusiko nuke (bertzerik ere badateke) : juduei estatu bat jarri zitzaielarik, tokiko bereko arabeak lagundu beharko zirela bertze hainbertze eraikitzen ; nazionalismo mailan juduak baino gibelago baitziren. Gaizki egin antolamenduen ondorioak jasaten dituzkete gaur. Antolaketa onak hobetzen dirateke denborarekin ; gaizki eginak gehienak usteltzen... Eus-kal Herrian ere, bere eskubideak berriz lortzeko bidean doalarik, euskaldun izan nahi ez luketen tokia aipatu beharko litzateke oraindik. Gero ikusiko dela ? Behin bederen gudu bera daramagula batzuek eta bertzeek eta egunean egunekoarekin aski eta abar ? Holako arrazoinamenduek bihar berdin iratzartze latzak ekar liezazkigukete...

Jack Lang-ek mintzaldi bat gaitza egin du Mexikon, Ipar Ameriketarik mundu guzirat hedatzen ari den “kulturari” jazarri bezala zaio ; agian ez da berantegi ! Dena den, ederki egin du, ez baikenuke denek amerikanizatu nahi eta soilik diruan murgildurik dabilen kultura horrek hotz baino hotzago uzten baikaitu. Bertzalde, zer erokeria litzatekeena mundu guziak eredu edo modelo bakar batean barnean sartu behar balu !

Bizpahiru oharpen sonu dizkit gertakari horrek : mintzaldiak ez direla askiko kultura berdintzaile, lehertzaile horretarik begiratzeko... Ea bada ez ote den Frantzian berean gisa horretako arrangurarik herrialde batzuetan Parisko eredu puxantari iharduki nahiz altxatzen denik ?

Hirugarren oharpena, aitzinekoari datxekio : Parisek ez beza egin, berari egitea nahi ez duenik. Bertzela errateko, kultura bakun murriz horretarat ez lerratze molde hoberena litzatekeela egiazko kultura erroto baten jabe diren herrialdeei laguntza guzia ekartzea beren nortasuna zaintzen sustatzeko. Eta ez orain arte egin den bezala frantses kultura bat saka Paristik, herrialde bakoitzari berea apalduz. Jack Lang-ek baluke bere ate aitzinaren garbitzen hasteko parada... Bertzeentzat aritzea errexago baita !

“Agur eta ohore !”

1982-08-26

Joan den asteko kazetan agertu da beraz Aita Larzabal-i eskainiko diogun omenaldiaren berria. Ez du segur lehen hartan berean onartu ; bazuen eta jadanik holako bat errefusaturik. Baina Enbatari ezetza nola eman zezakeen, bera izan zelarik honen sortzaileetarik bai eta ere geroztik honen laguntzaile sutsuenetarik ?

Baina holako omenaldia zertarako, galda dezake norbaitek, dioelarik omenaldiz omenaldi ez ote dugunetz guhaurk notabilismoa lauzkatzen. Hain xuen, hemen berean, Aita Larzabalek berak ardura gaitzetsi duen jaidura : lagun artean eta paltzuergoan egin lanak hobesten baitzituen beti.

Bizkitartean omenaldi honen xedea hedatu delarik berehala denek biziki ontsa atzeman dute eta gainerat halako zorion bat, jakin arau, bakoitzak agertzerat utzi du, hain aspalditik bere herriaren zerbitzari izan den (eta dagoen) borrokalariarekin egun baten iragaiteko xantza eskuratu ukan balu bezala.

Horrek haxe segurik adierazi nahi digukeela daukat : zenbatetaraino dugun egiazko aitzindarien beharra beti eta beti bide irekitzaile eta itzain, aurrera doazen haien ; azkenean bakoitza inarrosiz, lehiarazten gaituztela geure kulturaz eta nortasunaz arta hartzerat, herriaren alde xutitzerat, utzirik leunkeriak eta faltsukeriak.

Hainbertze lan egin eta abertzale gogoia zabaldu duenaren inguruan izanen da jende buruilaren 26an. Euskal Herri bateratu eta euskaldunaren alde bermatzen direnak hor izanen gara ez notabilismoa laguntzeko... notabilismorik-eza itxuratzen duenari bihotzaren erditik ‘Agur eta ohore’ errateko baizik !

Egia irakats dezagun

1982-09-16

Joan den astean galdatau didate neure iritzia ibiltarien lanari buruz. Larri-larria hauxe ihardetsi diet : ibiltariek ahal dutena egiten dutela, haien lana ez dela batere errexha, oztopo gaitzak dituztela, hala nola klase berean aurkitzen dituztelakotz, nahas-mahas, euskara mintzatzen dutenak, euskara ulertzen baina mintzatzen ez dutenak eta euskararik batere ez dakitenak. Bertzalde, herri batetik bertzerat ibiltzea, harrera desberdinak, herri bakoitzeko euskalkiaren errespetatzea eta abar, horiek oro gainditu behar dituzte.

Horrenbertze oztoporen aitzinean dagoenak, irakats orduak xuhur dituelarik gainerat, garbiki diogu on bezainbat kalte ere egin dezakeela ez bada hortzez eta haginez lotzen lanari, maitasun handi bat dariola euskararen alderat.

Guk nahi genuke, hurrei irakats ledin, mintzaira zaharrena eta bereziena baino lehen, badirela mintzaira zapalduak eta zapaltzaileak. Erakuts dezagun ere euskara ikasi behar dela gure mintzaira delakotz betidanik gure arbasoek mintzatu dutena, baina Estatu erdaldunek menperaturik daukatena, gure nortasuna ehoz, holaxe azpian errexkiago atxikitzeko. Ohar gaitezen ere Euskal Herrian berean jauntto eta kargudun askok ahantzi dutela euskara, gutietsi ez dutenean ! Gure mintzaira ez ikasiz geure burua eta geure herria ditugu ukatzen, bertzeren meneko egotea onartuz.

Horretarako ez du balio mintzaldi handirik apailatzea, hobe da han-hemenka hizño batzuk sartzea, hurrekin (eta bertzeekin berdin) hitzaldi laburrenak baitira hoberenak, adinaren arabera solasak erabiliz gero. Politikan sartzea gerta litekeela ? Guretzat horien guzien adieraztea egiaren irakastea da eta bertzerik ez.

Gure eskoletan ez badaiteke egirik aipa, zertan gaude ? Euskararen egoeraz jakin gabean denak nola onar ditzake gure mintzairaren ikasteak dakartzan zailtasun batzuk ? Euskarak jasan duen zapalkuntza ezagutzen ez deno ez ote da irriskua haurrak azkarrenaren alderdia hartzea adin horretan errexki gertatzen ohi den bezala ?

Segur izanen ditugula gutartean ariko direnak egia guziak ez direla on errateko, gaizki ulertzea ere gerta litekeela eta ez dela politikarik sartu behar bereziki eskolan eta holako. Ba ote dugu ordea hauturik ? Gero eta gehiago euskaldunek erdara ere dakitenaz gero, euskaraz mintzatzea areago irakastea, ez ote da jokabide politiko bat, askotan indar handia eskatzen duena bertzalde ? Ahantzi gabe euskararen uztea ere politika molde bat izan daitekeela anitzez makurragoa. Bertzela erran, ez gaitezen sobera grina politika den ala ez : derragun egia, beldurrik gabe, hurrek eta bereziki gazteek ulertuko dute, bertze ikasgaiak bezalaxe... egun edo bihar !

Ibiltariak ez dira askiko Euskal Herriaren berreuskalduntzeko, baina eskuetan ditugun ttanttoak baliatu behar ditugu, bihirik galtzerat utzi gabe eta zerbait hobe eskuratu artean ibiltariak lagundu behar ditugu beren sailaren ahal bezain ongi eramaten.

Noiz arte ?

1982-10-07

Espainian bazterrak doi bat airean dituzte berriz ere, armadako buruzagi batzuek beren buruak erakutsirik mantsotuak zirela uste zutenei.

Gerla aitzinean zioten Espainia “gorria” nahiago zutela ezinez eta “puskatua”. Estakuru ederra ; herrialdekatzearen abiadura Tejerok haustea ez zitzaiekeen aski haatik, gaurkoak, dirudienez, sozialisten gibelarazteko asmoz dabilzanaz gero. Beraz argi dago : atzo herrialdekatzeari ez, gaur sozialistei ez. Gehiago dena, aitzinetik hauteskundeak nahia ukatuz, zer-nolakoak diren agertu dute. Gezur hedatzaleei mozturroak edo maskak erortzen ari zaizkie. Hauek nahi dutena da demokrazia den gutia ere ahalaz uzkaile, gutienez sudurretik atxiki ; denak Espainia handiaren eta handikien zerbitzari jarrazazi...

Zer irriskatzen dute ? Deus ez. Tejerok ukaldiaren helburu osoa hutsegin bazuen ere, LOAPA sortarazi zuen : esku batez herrialdeei emanak bertzeaz kentzeko. Ez da guti. Gisa guziz Tejerok ukan duen zigorrak ez zituen lotsarazten ahal gaurkoak : baldin PSOEtik ez bagenuen deusik igurikatzen ere Euskadirentzat, espetxean egonaldi goxo baten alderat sozialisten nagusigotik baztertzea lortuko balute ez litzateke hain txarra ! Gerokoak gero... Mandil horiek noiz arte jostatuko dira gure bizien eta eskubideen bizkar ?

Eta gu Iparraldean aitzinatuago ote gara ? Gaixo gu... Iduri eta inperialismoak ez daukan itxura bat baino gehiago. Hegoaldeko lurraldeek, Kataluniak eta abar, erdietsi dutenaren erdia eskuratzeko bezperan bagina entzun genezake politik Giscard, Chirac, Marchais, Bigeard eta bertzeengandik !

Jatorriz artzain laborari garenaz gero gehienak, Iparraldean bederen, Frantzia alde honetan dugun libertatea konpara genezake behi esnedun batek daukanari. Harat eta honat badabilke eta zenbait marruma (oihu, irrintzi) bota dezake. Baina umeen geroa (haurren eskolatzeko manera) ez dezake hauta. Jabeak eman bazka (kultura, irakaskuntza) irents dezala emanez arabera esne gozoa (lan egin, bertzeren atsedendiak antola) baina handik goiti, jabeak finkatu hesiak ez bitza gaindika (burujabetasunik eska) laster adanak moztuko bailizkiokete !

Herrialdeei egina zaien libertatea ez ote da holatsukoa ? Hots, eman, bai nahi bezainbat (zerga eta abar) baina hartzeak, haiek, ez aipatzea hobe ! Ez gara anarkistak, baizik holaxe nabaritzen zaigu geure demokrazia. Ez ahal da nehor uste duenik hemengoak Espainiakoa baino hobe denik : populuen eskubideei dagokienez, han baino aise gibelago baikara...

Eztabaidatu bai, elkar jan ez !

1982-10-28

Bazen gaia ausarki aste honetan : Seaskaren biltzar nagusia, 80 mila “terrorista” fitxatuak Franceschi-k dioskunaz, gure pilotarien fleita Mexikon. Espainiako hauteskundeak ere hor ditugu bada. Lerro hauek agertzean bozkatzeko eguna dateke. Ez da hauteskunderik garrantzi gabekorik, politikan sartua denarentzat. Zalantzarik gabe, gaurkoek ere, Espainia eta ez gutiago Euskadiren geroa handizki hunkiko dutela uste dugu.

Nahiz holako bat baduen ikusirik gure herri zaharrrak, urte zailak daramatzagula ezin uka : gehienbat lehen baino biziki lasterrago aldatzen direlaketz gauzak, gogoak, lan moldeak, jokabideak eta abar. Eta beraz hainbatez arta gehiago eskatzen duketelaketz gure urratsek probetxugarriak gerta dakizkigun eta ez kaltekorak.

Urte zailak eta garrantzak diogu, hainbertze fruitu eman duen arbolarentzat, lurrerat aurtiki nahi ukan baitute, indarrez edo balakatuz, noiz nola, horrela ontasunak hobeki xurgatuko zizkiotelakoan. Ez da harritzeko, erroak erdi airean ezarri dizkioten arbolari fruituak murritzuko eta kirestu baldin bazaizkio : aski gogor jazarri denetz, hori geroak erranen.

Oraino ‘arbola’ saiez inguratua dakusagu eta fruitu mehar zenbaiten mentura agertu bezain laster, euskaldun batzuk ere abiatu dira, saiekin zein lehenka, zerbait dastatu beharrez. Baina ez ote zen goixko ? Ez ote dira beren buruaz axolatu ‘arbolaren’ geroaz baino gehiago ?

Guretzat Herri Batasunak duke hobekienik erakusten zer egin arbolaren osasunarentzat. Lehenik eta bat geroa pozoindaturik lukeen arbola erdibiturik (Nafarroa gabekorik) ez onartu. Gero inguruko sareak desegin, aire handirat jalgi, nahi duen herrialdearekin eskuz esku edo partzuer jartzeko, borondatezko eta berdintasunezko harremanen bidez, oihan baketsu bat eraikitzeke. Bertzeak ere ados liratekeela holako xedeekin ? Gure ustea da mendeek eta mendeek eragina, Madrilekin goxoan jarritz, luzaroan izorratuko gaituela, beti egin duen bezala, eta nekez ematen dizkiguten bihikek ez duketela nehoiz mulkorik osatuko ! Ez dela sobera galdatu behar ? Nork du ahanzten Hegoaldeak Espainiako konstituzioa ez duela bozkatu ? Bazela hor gertakari bat garrantzi ikaragarria zukeena eta gure ustez ez dena, urrundik ere, aski baliatu, batzuen eta bertzeen buruzkinkeriengatik...

Iritzi desberdin eta eztabaida guziengatik ez dezagun ahantz Madril dela gure makurren iturburu nagusia eta aspaldikoena (Hegoaldeaz ari baikara hemen). Oroz gainetik gogoan atxiki dezagun arbola zaharrari kanpotik egin sakiak sendatuko zaizkiola hobeki, euskaldunek beren artean ausikika ariz barnean eragin litzaketen zauriak baino ! Ez badugu eztabaidatzen ikasten, Boumediene ttiki bat sortuko dugu denak heziko gaituena...

Herritarki. Euskal borroka asko bidetarik badabilke. Jokabide desberdinak onartu behar ditugu, sanoki eztabaidatuak diren ber. Abertzale batzuk, Baionan, udal hauteskundeetarako apailatzen ari zaizkigu. Ongi deritzogu. Euskal Mugimenduak ez ote du %10 bederen biltzen ahal, puntu minimo batzuetan baturik presentatzen baldin bada ?

Ikurrina histuko dela hautsi-mautsietan ? Irrisku hori badagoela onartu behar dugu eta aitortu ere agerian : zergatik ez ? Baina irriskurik ez dagoenean, gizonari konfiantza izpirik egiten ez zaion tokian, demokraziarik ba ote da oraino ? Eskuak garbiegi atxiki nahiz, eskurik edo eraginik gabe ez genuke gelditu behar... Guri izanen da Baionako herriko etxean agian sartuko diren abertzaleen sustatzea. Guk lagunduko ditugunaren arabera ibiliko direla iduritzen zaigu.

Gizarte dohakabea

1982-11-18

Badakigu ez dela gizarte akats gabekorik, baina ez ote da haizu eta beharrezko ere bere baitan gauzkan gizartearen kritika egitea, eskasak eta gaitzak azaltzea, beharrez salatzea ? Onak ere hor direla eta haiek errexki ahanzten ditugula, ohartaraz lezake bertze batek. Balitzateke zer erran horretaz ere. Gizarte hau bitxia dela zinez ohartzeko ez dugu etsenplu eskasik : harrabotsa handiago eta eragina gehiago, zalapartarik gabe deusik ezin adieraz, horra gure gizartearen ezaugarri bat !

Armenia non den ere ez genuen jakinen desterratuen seme batzuk ez balira jazarri bortizki. Beharbada ikusiko genuen bai doi-doia bizpahiru lerro liburu lodi baten xoko batean, zerbaixka : historiagileek luma labor baitute galdu dutenez ari direlarik ! Beharrik jazarri dira armeniarrek bertzela menperatzaile eta botere goseek pentsatzen ahalko zuten populu bat suntsi zitekeela armen bidez, indarkeriaz. Ohartze hori telebistaren indar ikaragarriari esker egin da; hau baita jendearen hunkitzeko tresna azkarrena, kazetaritza guziaren artean. Hona beraz telebistak ere bere alderdi ona badaukala...

“Espata altxatzen duena, espataz hilen da”, horra irakatsi digutena. Baina nork du lehenik eskua altxatu armeniarrek ala turkiarrek ? Burgosko auzia izan da azken hamarraldi hauetan Euskal Herriko gertakaririk garrantzitsuena. Orduan zen zabaldu mundu guzian ahanzten ari zen Euskal Herriaren eta hango langileriaren oihua. Batzuek nahiko zuketzen borrokari horiek, diktaturaren aurkariak izan balira bakarrik. Gure inguruetan jendea kontent zen kasik 40 urtez Francoren aztapar zitaletan ahantziak zituenei nolabait bere atxikimendua erakustez. Baina hara, Franco joan da, demokrazia izpi bat etorri, baina borroka beti bizi, bereziki herri eskubide guziak ez direlaketz onartuak.

Ageri da hor garbiki Burgosko borrokaren erroak ez direla oraino ezeztatuak. Badela hor herri bat bere zanpatzaileari nehoiz amore eman ez diona. Burgosko haitadaren fruituak dirateke gaur gozatzen ditugun aitzinamenduak ere. Hots, erran nahi dugu gogoak loeriatik iratzarrarazteko, lehenik behar duela eskaerak funtsezkoa izan eta gero ele ederrak ez direla aski, akuilu zorrotza erabili behar dela : zorrotz dabilzanak berak direla, egun edo bihar pairatzaile. Hezkuntza sailean haur bat erasiatzen edo zigortzen denean, ez da atseginez egiten, minez baizik, bertzerik ezinean bere eginbidea nolabait betetzeko. Gerta daiteke herriak ere ez beti ulertzea bera baino urrats bat(zuk) aitzinago doazenak. Ez ote da halere axaleko errefusa ? Eta ziztatzaileak arbitatuak baldin badira ere gogoen iratzartzea ez ote da beti egiten ari nolabait ?

Bertzalde debate sano baten beharra nabari da, gure artean : gogoen argitzeko, hazteko, berotzeko. Noiz ikusiko ditugu abertzaleak sail horretan sartzen ahal bezain gizonki ? Gaur hainbertze gai aipatzen da mahai inguruetan orain arte tabu edo hunkiezinak zirenak. Euskal politika geldituko ote da sail bakarra elkar ezin jasanaren herronkatik ezin jalgia ? Ala behar da burutan eman gurea bezalako herri zapaldu batean ez dela denborarik galdu behar elasturietan, irabaztea dela soilik konta eta gainerakoak geroxago etorriko direla ?

Iraultzak ez gaitzan iraul

1982-12-30

Frantziako Iraultzaren berrehungarren urte muga hurbiltzen ari zaigu. Parisen, jadanik hasiak dira ikaragarriko ospakizunak apailatu beharrez. Populuek bizitzeko eta irauteko, fier izateko arrazoiak edo aitzakiak behar dituzte baitezpada. Britainia Handian erregetzarentzat duten atxikimenduaren gisarat frantsesek ere Frantziako Iraultzaren gogoia daukate jainkotzat ! Kritika baten egiterat ere ez zaitezke has zeure burua erregetiartzat pasarazi gabe !

Zenbait denboraz ederrik jasan beharko dute gure begi-beharriek. Ez ditugu nehoiz gorde Iraultza horrek ekarri zituen aitzinamendu batzuk. Baina horiekin ahoa zabalik egonen ote gara gu, euskaldunak, garai horretan zituztelarik hain zuzen gure Biltzarren azken botereak kalitu ? Jadanik erregeek menperatuak gintuztela ? Hala da. Baina ezin ukatua da ere Frantziako Iraultzak eta Napoleonen lege berriek hondarra suntsitu (nahi ukan) zituztela gure ohitura eta lekuko biltzarren botere guztiak. Datozen ospakizun denboretan bermatu beharko dugu, euskaldunek, eginahalako argi guzia egiten nahasmendu ikaragarri haiek egin zizkiguten desmasiez.

Bada asko erranik, halere anitz gelditzen oraino ilunpean eta iduritzen zaigu egia bere bidea egiten laguntzeko parada bat gaitza badugula hor. Gehiago dena parada bat nehondik ere hutsegín behar ez duguna ! Hobe oraino bertze herrialde zapalduekin elkarretaratzen bagina : Bretoin, Katalan, Okzitano eta abar. Berrehun urteren buruan, herri menperatuen egia kanporat pixka bat atera baledi, Parisko burrunba itogarriak doi bat neurrian atxikitzeke, zer gauza !

Berrehun urte diraugula, lehenagokoak bertzalde... Baldin estatu txarrean bagara ere, bizi eta bizi nahi ! Bazuen zerbait onik ere gure herriak ! Ez ahal dugu amore emanen orain ! Ager daitezkeen artikulu, liburu eta ikerketa guzien artetik balitzateke gai ederrik pastoral batzuentzat ere Garat anaiekin edo hainbertze desterratze, lapurketa eta laidoren inguruan. Antzerki lan batzuen sustraia ere halaber. Piarres Larzabalen “Sarako Lorea”-k, guti edo aski gaurkoturik, ukan lezake bere tokia. Ez dugu nehor izendatuko, pastoral eta antzerki idazten ari diren suharrenak denek ezagutzen baititugu. Agian izanen dute zerbaiten muntatzeko denbora eta ahala. Bertze molderik ere izan daitekeela, bistan da.

Dena den, baitezpadakoa zaigu ihardukitzea eta zerbaiten antolatzen hastea oraindanik, apailatzen ari diguten erauntsiak ez gaitzan ito. Ez ahantz 1789ko Iraultza haren mitoa bake bidez (?) hedatu dela gehienbat eta bide horiek, guretzat, indarkako bideak baino enganakorragoak gertatu direla. Bertzela erran egunero errepikatuek eragin gehiago dukete gure baitan bat-bateko armen indarrak baino. Hegoaldeko anaia askok nekez ulertzen dute berrehun urte honetan “gozatzen” dugun egoera sasi-liberal horren liluragarritasuna. Urteberri on eta zoriontsu bat deneri !

Kaledonia Berria, Korsika eta Euskadi

1983-01-20

Azken aste hauetan frantses inperioak inarrosaldi bat hartzen du eta ez bide dira gauzak horretan geldituko ! Guzien artean gu gara, Iparraldean, mantsoenak naski : Barrere famatuaren ahapaldia gezurtatzerainkoan ! Ez, gauzak ez dira horretan geldituko : herrialde menperatuen eskubideak goiz edo berant onartu beharko ditu frantses oilar handinahiak ! Ez dira haatik bat- batean ahantziko, frantsesen geriza dohatsu haren pean gertatu diren hainbertze zapalketa, lapurketa, jendez huste, haietaz baliatze eta humiliatzeak ! Gehiago dena, ongi egin nahiz ari zirelarik omen, batzuetan (...)

Korsikan ikusten dugu egoera berri bat : egin makurren zuzentzeari buruzko entsegua, Estatutu berezi baten bidez. Ikusten ere haatik zein nekea den bide hori. Bertzeak bertze, ez ote da okaztagarri Broussard bezalako baten igortzea gudarien garaitzerat denbora berean jakiten dugularik, hain zuzen delako gudarien borrokaren ondorioz, Korsikaren geroaz arduratu beharra den Batzar egitura berria neholako laguntzarik gabe dagoela, dirurik eta aterberik gabe, aiduru ! Eta ez dira ahalkatzen ere ! Boz denboran dena espantu eta haiek iragan bezain laster herrestan utzi ditu, ezkerreko gobernuak ere, abiatuak zituen aldakuntzak, deszentralizazio soilari doazkionak izanik ere. Egia erran guhaurk ere uste genuen Korsikaren botere berriak bide onez zebiltzala Paristik uharte horretarat. Urrun ginen ! Nork ukatuko du gaur “oroitarazleen” beharra ? Artetik errateko, deitoratzen dugularik holakoetan gizonak aberetu behar ukaitea aditua izateko...

Gure ustez gauzak zalu argituz doazkiguke. Sozialistek hitzemanetarik zerbait guk ere eskuratuko dugula pentsa daiteke. Ageriko. Baina gero laster ikusiko dugu hitzeman guziak jaitsiz ere ez dugula horiekin gure herria berreuskaldunduko, gure ekonomia piztuko, gure mendiak biziaraziko, barnealdean jendez hustea geldituko, desjabetzea ezeztatuko. Halere sozialisten esperientzia ez genuke hutsegin behar ; eta hobe ahal bezain urrun eraman baledi. Eskuinaren mugak ongi frogatu ondoan biziki interesgarri litzateke alabaina ikustea ezkerak zer ekar diezagukeen hoberenetik, noraino joan daitekeen harekin.

Boteretik bazter egonaren bortxaz sozialistak ohartu ziren azkenean herrialdeei, aldakuntza batzuk eskaintzerainokoan. Ez baikin hola usatuak alderdi handi horiengandik ! Gaur esperientzia goizegi hilaurtu batek berdina bertze alderdi batekin dena berriz has litekeelako ustea sortzen ahal luke gutartean. Alta, Paristik zerbaiten erdiesteko denbora hoberik nork du ikusten ?

Horra zertako daukagun, bide hori entseatzekotz orain dela garaia. Esperientzia dela eta ez dugu haatik guk akuilua borda xokoan utziko. Bigarren haitada oraindantik bultzatu behar baitugu. Ez da errexagoa izanen. Gai honi dagokionez frantses konstituzioaren mugak laster hunkiak baitira. Gero, gure artean ere doi-doioko kultura aitzinamenduak erakar dezakeen nagidura beharko baita zirikatu.

Herrietako hauteskunde hauetan ere beraz abertzaleek berriz ere jokabide desberdinak dituzkegu : batzuk kanpotik, bertzeak barnetik. Ez ahal ditu horrek ahantzaziko gure helburu berdinak. Bata bertzeari finka bagintez, harria harriaren gainean bezala Euskadi eraikitzeko ?

Lehen beharrak azken

1983-02-10

Aste honetakoa : zirika aireño batekin 13 urteko semeak aitari : “Behazu hemen aita, ikusiko duzu ez dela Frantzian mintzaira bat baizik...” Liburu eder batetarik ari da semetto, “*Géographie Universelle*” deritzona. Eta xuxen irakurria du, honelaxe baitakar : “France, langue : le français”. Semearen kitzika sumatua baitu, aitak ihardesten dio : “Ikus dezagun zer dioen Espainiaz ?” “*Espagne, langues : espagnol, catalan, basque, galicien*”. Harriturik gelditzen da semetto, hitzik ezin atera. Aitak ere aski lan duela bere gogoaren menperatzen eta hobe menperaturik, nori mendekatuko da ? Bertze erresuma batzuen itzulia ere egiten dute, Italia, Belgika, Autrixia : bi, hiru, lau, sei mintzaiteraino batzuetan ; Frantzian bat !

Zenbait orenen azalpen lana irabazi du hor aitak. Alabaina biziki zail da adieraztea gure haur eta gaztetxoei libertate indibiduala handia delarik Frantzian (gure presoek haatik ez dakit horrenbertze erran lezaketen...) nola herrialdeen askatasunei buruz inguruko guziak baino gibelatuago gauden. Hots, nola libertate indibiduala eman diguten herri nortasuna ukatuz eta haren ahantzarazteko. Zer ilarra ! Gertatuko dena da : inguruko Estatuek aitzinduko gaituztela delako libertate indibidualaren mailan gu haietarik beti bezain urrun garelarik herri eskubideei dagokienez. Denetan lehen izan nahi lukeen Frantzia handiosa, ez ote da jadanik azkenetan ?

Liburu eder hartan ba ote da gezurrik funtserat eta ? Egia hutsari baldin bagagozkio bai, “*langue officielle*” ezarri beharko baitzuten. Ez ordea ikusten badugu Frantziak mintzaira bat duela bakarrik ezagutzen behar den bezala : frantsesa. Gertakari xume horrek erakutsi dio aitari, nolabait, euskaldunek daramatzagun lan guziak ez direla oraino Pariseren nagusigoaren hunkitzerat ere heldu. Eta zertan daude argitzailerik batere ez duten haurrak ? Liburuaren indarra ikusi dugu ; telebistaz edo eskolaz doblezka erran genezake. Haurrak itzulkor dira, guti aski dute alde izateko, nola kontra jartzeko. Hori dela-eta haurren hezkuntzaren gainean biziki minbera gaude. Haietaz errexki balia baitaiteke : ez gara gu horretan euskaldungoarekin...

Eta ederrena ere aditu behar genuen berrikitan eskolen buruzagi batengandik : “Euskara euskaldunen afera dela eta ez eskolarena !” Hau ñabardura harrigarria, eskola delarik mintzaira baten atxikitze eta garatzeko tresna baitezpadakoa ! Halaber antzara ferratzerat igortzen ditugu etxean hau eta hura egin behar dela aholkuz ari zaizkigunak. Gaurko egoeran, euskarari buruz buraso bakar batzuek baizik ez dezakete bete eskolaren hutsa. Bertzeek eskola osa dezakete, ez ordain. Haurrak baditu bi nagusi handi : telebista eta eskola. Hauek geure alde bihurtuko ez dituguno partida galtzeko irriskuan dagoke.

Euskara ez da aita-amek jendanea eginez goiz arrats salbatuko, nahiz etxean ere indar baten egitea behar-beharrezkoa den. Ez, euskarak behar du bere baitarik gozo-gozoa jalgi gure haurren ahotik eta holaxe datekeenean eta orduan bakarrik, erraten ahalko dugu euskara salbatzeko bideetan dabilkigula. Ez dira burasoak izan euskararen galtzean lehen hobendunak baina bai eskola eta telebista. Lot bitez orain egin kaltearen ordaintzen !

Euskal kulturaren aldi noiz beraz ? Azken urte hauetan gaitzeko indarrak egin dira kirol muntaduren alde : dela futbol zelaia, dela pilotako ezker pareta estaliak. Anitz milioi xahutu da hor, agian gure gazteriaren probetxurako. Noiz arte ariko gara bada lehen beharrak — euskara eta euskal kultura — azken utziz, horiek izan behar luketelarik denetan aitzindari ? Noiz gure ikastolek ukanen dituzte merezi eta behar lituzketen muntadurak, gau eskolek halaber ? Herriko bozak datoz ; parada ederra eta ezin hutsegina abertzaleentzat gure herriaren beharrik premiatsuenak zein diren adierazteko.

Herria xutik

1983-03-03

Ahoan bilorik gabe aitortuko dugu kezkatuak geundela ezkerre boterean jartzearekin abertzaleak ez ote zirenez jabalduko 7 urterentzat, Mitterrandek hitzemanak epe horretan betetzekoak direla eta. Seaska izan zen, 'Hitza Hitz'-ek bezala, adierazi zuena ez genuela ez loakartu behar hitzemanak dutxulutik bezala jaitziko zirelakoan. Ordutik, nehoiz eraman duen mobilizaziorik handiena eraman du Seaskak, hitzemanak batetik eta bertzetik elebitasunerat heltzeko gure beharrak oroitaraziz. Gose greba gogor batek lagundu zuen mugimendua zerbaiten erdiesten ; parte bat, haatik, gaur ezin eskuratuz dagoena. Ikus joan den ortziralekoa.

Hona berriz Herrikoaren afera ezin sinetsia : Hegoaldetik dirua honat sartzerat ez utzi nahi, diru hori hain beharrezkoak ditugun lanbideen sortzeko delarik alta ! Eta gero bazterrek kexatu direlarik suprefetura aurrean bilkura bat finkatzerainokoa, ordu berean telegrama-telefonoak alde guzietarik baimena, xehetasun batzuk ikusiz gero. Holako astokeriek solas ederren eta egintzen arteko leizea erakusten dute eta kentzen diote politikari gelditzen zaion ohore hondarra. Politika ez da nehoiz sana izan ; eta gaurko manerek ez diote fama hobetuko... Bereziki holako jokabideek ezkerre desohoratzen dute Giscard-en moldeekin pareka baitaiteke : "Denek"-en afera iduri du alabaina !

Eta Paris beti berdin ziria sar eta sar. Antenne 2-k ziopen 500 manifestari zirela Txomin-en alde Baionan 1.800 ginelarik ! AFP badute berrikerari, ez gaude zilotik ateraturik ! Beharrik, Seaskarentzat, Herrikoarentzat, Txomin eta Xabier-en alde xutituz, herriak erakutsi du populu hau ez dutela gehiago balakatuko, ez eskuinak ez ezkerak : asea dela Parisko jukutriez eta Madrilekin daramaten tratuez.

Borroka luze honetan urrats bat bezala dirateke herri hauteskunde hauek. Emeki bada emeki abertzale saldo polita lotu da lanari, herriko etxeetan sartu beharrez. Denak guri so daude zertarat helduko ote garen. Herriarkiren inguruan indar goresgarria egiten ari da ; halaber Herri Taldeak ere, bereber Baigorri eta ezkerrearekin uztarturik Hiriburun, bide beretik dabiltza. Urruñan ere xutitu dira. Hastapen batentzat ez da hain gaizki.

Bai gauzak aldatzen ari dira. Ikus Laborantza Ganberako bozetan ere euskal zerrendak bildu duen boz andana ! Hain kontserbadorea geneukan laborari munduarentzat ez da batere itsusia. Senperen, RPRaren zerrendak ikurrin kolorezko bat dakar bere egitarauan ! Hazparneko Detchart Coumetiarrak, bere burua kasik abertzaletzat zeukan Gure Irratiak antolatu mahai inguru batean ! Eta Arzalluz EAJkoa ere Greneten listako CDSkoen alde mintzarazi dute...

Ez da dudarik errekupeziak lotsagabe bat daramatela eskuindarrek. Ez dugu onartu behar geure ikurrina eta abertzaletasuna nolanahika erabiliak izan daitezkeen beren erran nahiez moteldurik edo husturik. Halere gaude ez ote denetz erraten ahal hainbat hobe ikurrina denetan ikusten baldin bada. Hainbat hobe abertzale izenak ez badu nehor izitzen. Bide beretik ez ote dira etorriko, noizbait bederen, non-nahi euskaraz egiten baita ; non-nahi Hegoaldekoekin gurutzatuko baita ? Hainbat hobe, ez ote, atzo debekatua, gaitzetsia eta madarikatua zena gaur normaltzat baldin badaukate ?

Lehenik laidoztatu gaitzeta eta orain gure lana ebasten digutela ? Hala da : zorigaitzez ereileak ez dira beti uztaren biltzaileak eta hori gogorra da edozein militanterentzat. Baina ikusi behar dena da : herria irabazle jalgitzen den ala ez. Abertzaleek askatasuneraino eraman behar dugu geure borroka. Orduan, langile zintzoen egintzak zuzenki ezagutuak izanen dira (eta "beharbada" erran behar oraino...) Abertzale, ez sumindu, bide zaila hautatua dugu. Atxiki dezagun buruzagitza egiazko herri aitzindari agertuz. Duela 20 urte kasik ezinezkoak iduri zutenak, ikastola, kooperatiba eta abar, gaur hurriki bada hurriki sortzen ari dira gure lurrian. Eta segida ere jarraikiko da.

Bidegurutze

1983-03-24

Euskal Herrian gutiak dira herrietako hauteskunde hauen ondotik beren iritziak argitaratu dituztenak. Gehientsuak isilik daude. Denen buru gobernu berri baten aiduru ere egon behar, ez argi miresgarri zerbait hortik igurikatzen dugulakotz, ez ; baizik, nahi ala ez, Frantziaren gorabeherak hunkitzen gaituztelakotz eta beraz ikusi nahi genukeelakotz nor eta zer dukegun aurrean hemendik goiti.

Dena den, abertzaleek hauteskunde esperientzia zerbait bildua dukegu engoitirik : 1967an hasirik diputatu bozekin, kontseilari jeneralenak gero eta azkenik herriko etxeetakoak. Frantziako Lehendakartzarako ere geure aburuen azaltzaile izan den Guy Héraud lagundu genuen, bigarren itzulian zenbaitek Mitterrand-en alde bozkatu aitzin.

Baina guzia harturik ere argi handirik ez ageri. Isilik egon beraz ? “Ez erran gogoan dukan guzia” irakasten ziguten geure arbasoek. Nola isilik egon, ordea, mintzatzea galdatau zaigularik ? Zer, tripako mina utz eta saihetsetik jo, zeharka ? Hori ez da gure usaia.

Boz hauen ondotik iduri luke euskaldunek ez gaituztela nahi lan zailenentzat baizik, hala nola, kooperatiba eta lanbideak sortzeko, sindikatu berriak muntatzeko, irrati eta kazetako bultzatzeko edo oraino ikastolak eraikitzeke eta xutik atxikitzeke ! Ez ditugu ahanzten, bistan dena, elizkizun eder eta folklora biltzar zoragarri haiek ere eskatzen dituzten lanak...

Baina datozela hauteskundeak, erran nahi baita gehienengandik onartuak diren lan horiei bertze indarrak eman liezaieketen paradak, eta horra non herriaren laguntzaile suharrenak “mahai azpirat erori purruxkekin” egon behar duten ! Egia latza zertako isildu ? Euskaldunen falta dela ? Segur Herritarkiren saihetsetan ez direla denak hura bezain sanoki jokatu eta berdin haren mendratzaileak, gure pazientzia etendu nahiz dabilzanak ere izan direla. Agian ez gaituztela haurrideen arteko aharrabide galgarri haietarat lerraraziko...

Baina hori guzia ez ote da, oro har, ahurtaraño bat bozen afera ? Arrazoiak ez ote ditugu urrunago eta barnago bilatu behar, boz hauen lehen itzulia bederen indar berritzaileen aurkako uhaina ez ote den izan ? Egin dituen pettoekin, azen ontzeko, gauza ageria da ezkerria ‘zaldi txarra’ genuela aurten. Horrengatik, ez da dena ‘zaldiaren’ falta : eskuinaldean ere gure bozak errekuiperatu nahi izan dituztenek irabazi bezainbat galdu baitute naski lan horretan. Hots, labur biltzeko eta salbuespen bakar batzuk kenduz gero, euskaltasuna gordeago eta hobekiago heltzen zinen aurten !

Berantetsia dugularik ikustea errekuiperazio jokoetan ari izan direnek zer egingen duten bertzaldian. Jarraikiko gatzazkie. Gisa guziz ez ote litzateke on aztertzea artoski hauteskunde horiek guziak Zer izan diren abertzalegoarentzat ?

Bidegurutze honetan norat abia ? Pilota lurra jorik goiti abiatzen den bezala xutitu behar baitugu eta bidea segitu. Baina zein bide ? Iraganeko erakaspenak haztatuz, gure iritzi apalez, bakoitzak bide garbiagoko bat hartu beharko luke : edo aktibismoa, bakerik utzi gabe gure zuzenak oroitaraziz ; edo hauteskunde bidea. Orain arte, noiz batatik noiz bertzetik genbiltzan, iduri baitzuen elkar lagun zezaketela. Hala gertatuko ere zen beharbada, batean nola bertzean jende berak edo bertsuak aurkitu ez balira...

Gaur dirudienez, bakoitzak bide horietarik bat hartu behar luke, garbiki. Ez da irrisku gabeko bihurgunea. Ba ote dugu hauturik ordea, baldin eta egun batez aburu guzietako euskaldunen gehiengoa bildurik gorapenik ikusi nahi badugu geure herriarentzat ?

Ikurrina goratu

1983-04-14

Duela hiru aste genioen aurtengo herrietako hauteskundeetan euskaldungoa gordeago eta hobeki ateratzen zela. Geure iritzia eman genuen usaian bezala. Halere zenbaitek gaizki hartu omen dute gure ateraldia. Ez zen bada hor gaitzitzekorik. Goazen ikus : zer da gure kultura ? Gure euskaldungoaren alderako atxikimendua lehen lehenik ; eta euskaldungoari zer toki ematen diote hemen gaindi ? Azkena ! Jakina, gizartean lanbideari datxezkion arazoak direla kezka nagusiak. Hurbildanik datozkie atsedenaldi eta kirolei dagozkienak eta beraz azken azkenik eta gainerat, ukaldi berean, mugimendu herrizaleari hegala moztu nahi badizkiote, orduan gure politikariak oroitzen dira euskaldungoaz...

Gizarteari hurbilago eta hautetsi izatea errexago denaz gero, kultura apaindura soiltzat daukan gizartean eta gainerat gure abertzalegoa kulturari hain josia delakotz, gertatu direnak gertatzea ez da harritzeko. Eta abertzale kazetari batek nola isilik utz zezakeen begien aitzinean ikusten zuena ? Beha Britainiari ere : halako iratzartzea eginik laborantza mailan lehenik eta gero herri mailan, gaur ez da gehiago gauza handirik ageri. Ekonomia (Paristik ?) lagundu zioten aski dudarik gabe non gure bretoin sutsuak jabaldu baitituzkete. Alta badakigu beren kultura eta mintzairarentzat ez dutela behar denik erdietsi. Agian ez dutela bere bretoi kultura bizipidearen truke galtzerat utziko !

Egia da, beharrik, munduan zehar gure borroka bertsuari lotzen zaizkionak emendatzen ari direla eta horrek gaituela indartzen. Gure sustatzaile hoberenak Hegoaldeko anai-arrebak dituzkegu, nahi duenak nahi duena enanik ere, okerrak okertegi, borroka goresgarri bat daramate hor bai kultura mailan bai politika mailan. Baina bidearen zailtasuna ez dugu neholara ere gorde behar herriari ; nahi bezain dorpea izanik ere egia beti zor diogu, amari bezala. Badu zerbait ikusirik gure herri gaixoak aspaldiko mendeetan, bakarren sarraski eta zapalkuntzak jasanik ! Ez du balio hari ele alferrik erabiltzea.

Bakoitzak geure egiaren zatiñoa gizonki azalduz, herriaren indar guziei dei egin nahi diegu : egia indar pizgarri baita. Baina euskaldunen arteko ezinikusiek errausten gaituzte. Denek herria maite baina bakoitzak berea baizik ez aditu nahi. Horri ohar bagintez, norkeriaz basurdeak bezala ibiltzeko partez... Basurdea ihizi azkarra da, baina tiro batez aurtiki daiteke azkarrena ere. Segur pilotari, bertsolari, indar jokolari, kantari, dantzari, euskalari, politikari edo ekonomialari kementsuak eder zaizkigula. Parisko telebistak ere hein horretaraino onartzen gaitu. Baina, ederra edertegi, gaude ez ote genukeen beharrezko xinaurrietan eskola zerbait haltzea furfuria handiak utzirik...

Mendebaldeko zibilizazioak bazter guziak beretzen ari ditu. Komunikabideek gogoak aberasten bezainbat “oro berdindurik” ezartzen ari dituzte, bakoitzaren herri erroak ahulduz. Uholde horri ihardukitzeko —alabaina gizonak zuhaitzak bezain beharrezkoak ditu erroak— gure nahia litzateke, izurrite horrek gure gizaldian egiten duen kalteari oharturik, mundu guzia “blue-jean”-ez beztitu aitzin, gazteak eta gogoz gazte daudenak xuti balitez, jazartzeko, berandu gabe.

Gizarte irenslea ere gurea. Zenbat gazte eta adineko suhar, halako sinesteaz eta esperantzaz geure bihotzak bete zituztenak, non dira gaur izar horiek ? Zenbaitek, kargu ttiki edo handitan lan egiten dute, zuhurtzia handiz badabiltza. Baina denbora batez bizitzeko zoriona eta itxaropena sortu zizkigutenak jabaldu, bertzelakatu dira. Bakar batzuk dira ihardukitzen dutenak. Betidanik gizartea borondate azkarrenen irenslea izan da : adinak eta borrokek gizona higatzen dute eta pindarra kentzen diote azkenean.

Orduan gaztei dagokie ikurrina berriz goratzea. Datorren igandean Itsasun, Enbatak 20 urte ospatzean, parada ederra dukegu...

Euskal elkarteak herri-zutabe

1983-05-05

Denak harritu dira jakitearekin nolako jokabidea hartu duten kontseilu jeneraleko buruek euskal kultura elkarteen biltzarrari buruz. Harrigarria da garrantziaren aldetik ; ez da haatik gauza berria, baitugu jadanik holako bat ikusirik. Adibidez, duela 10 urte, Euskal Dantzarien Biltzarra, karraskan goiti ari zelarik, behartu zuten “*Groupement Départemental des Associations de Folklore*” batean sartzerat dirurik hunkitzekotan.

Sekulako gatazkak sortu ziren, baina azkenean biarnesekilako ezkontza onartu behar ukan ; eta gaur ere hortik iragan behar, bai EDBk, bai eta ere euskal dantzari talde bakoitzak laguntzarik erdiestekotan Departamendutik. Haste hartan GDAFaren elkarretaratzeetan ere parte hartu behar zen. Anitzek ez dute zangorik sartu ere nehoiz : aitzakia atzeman eta jo aitzina ! Hots, orduko helburua zen EDB ahultzea. Baina Hegoaldeko anaia-arrebekin lokarriak tinkaturik haize basa utzi zen pasatzerat, mihimenak bezala eginez, ezinbertzez. Gaur egoera aldatu da ; euskal elkarteak ugaltu dira, azkartu eta bereziki elkarretaratu. Badute gaur bertze indarririk. Hain zuzen elkartasun hori ez ote da osoki ohargarria azkeneko urte hauetan, Seaska eta Euskara aitzindaritzat harturik, badoakigularik ?

Erran gabe doa euskal elkarteek erne egon beharko dutela, zeren eta eztabaida horiek sobera irauten badute (eta iraunarazleak ongi ordainduak dira) Biltzar horren osasuna zalantzan ezar baitezakete. Ez ote da hori Departamenduko kargudun batzuen nahikundea ?

Uste dugu eta beti errepikatzen, beharbada zenbaitentzat soberaxko, gure etsaiek duten beldur bakarra dela, puntu minimo batzuetan bat jarririk gure herria xutik ikustea. Duela 10 urteko eztabaida haietan dantzari batzuk, etsaiak eskaini diru-gradu zepoetarat erori ziren, Euskal Dantza zatiturik eta guti edo aski zauriturik gelditu baitzen, gaur guziak delako Biltzarrean aurkitzen badira ere.

Holako zatiketarik ez dugu berriz ikusi nahi. Gaurko Biltzarra izan bedi sakratua. Zazpi eginahalak egin ditzagun elkarrekin aitzinerat joateko xehetasun guzietan ez denak osoki bat izanik ere. Diru purruxka bat eskainiko digute : ez gaitzala engana ! Biltzarraren kordokatzea baitute bilatzen batzuek gure kulturaz eta herriaz axola mikorik ez duten horiek.

Gaur Biltzarrean denek nahi dute barne izan. Nahi ala ez errespetu eta laguntza zor diote denek eta bereziki Departamenduko agintariek. Egiatzko herriaren ordezkari, indar handia, beharbada partaide batzuei iduritzen zaien baino handiagoa, nabari da hortik. Ez da harritzeko beraz kultura mailan ere gure nahasterat entseatzen badira. Guri dago behar den bezala ihardestea. Horrenbertzez, eta argi izan bedi, ez dugu erran nahi “*Conseil Culturel*” delakoan parte hartu behar ez denik —elkaiteak aski handi dira erabakitze— guk dioguna da, sartzekotan denek sartu edo nehork ez.

Ari gara beti Paris dela makur guzien hobenduna eta hala da, nahiz, laguntza funtsezkorik ez bada ageri ere, herrialdeen alderako mespretxua eztitu zaion bertzalderako solasak erabiltzerainokoan. Naski, egia dena da : ez dukeela Parisek gehiago kezkatzerik ; “umeak” egin baititu denetan : mendez mende bazterrak ongi hezirik, tokian berean badu orain lauzkatzaile ! Zerbait gostarik bidean eman duen tresna higuina, aldapa pusaka igan ondoan, gainbehera bereber abiatua balitz bezala...

Egiatzki Paristik ez badute sustatzen, holako tresna “oro berdintzailea” laster errekarat uzkailiko dugu. Zernahi gisaz, noizbait, uzkaili behar dugu !

“Gora gazteak !”

1983-05-26

Horra nolako hitzekin bururatu duen bere hitzaldia Aita Piarres Lafitte euskaltzainak astelehenean eskainia izan zaion omenaldian. Egun horren xehetasunak dituzke zue urruntxago kazeta honetan berean. Goazen gu karia horrek sortu dizkigun gogoetatxoak egiterat, lehenik ohartarazirik —ohargarria baitzaigu— Aita Piarres Larzabalek ere joan den irailean eskaini genion omenaldian erran nahi bertsuko solasez amaitu zuela bere hizñoa : “Aupa gazteak !”

Gatozen bada Uztaritzerat. Lafittek hainbertze sail landu ondoan, agertzerat utzi diguke mintzaldi horretan bere isuri nagusia : ikerketa sailerakoa. Denek gogoan dukegu 1968an Arantzazuko bilkura garrantzizko hartan gure euskaltzale eta euskalari jakintsuak bota zuen auhena. Menturaz ikertzaile guti bere inguruan eta euskara finkatzerakoan, erantzukizunaren zama sendi zukeela, nork ez du errexki onetsiko ? Bertzalde, Iparraldeaz ari zela, beti erraten zuen iker alor guzia lantzekoa genuela ! Holako gramatika ondu duenarengandik, harrigarria... Baina holakoen errateko ez da nehoiz lotsa izan Lafitte : gure lanerat sustatzea baitzuketen helburu.

Gazterian esperantzarik ezartzen baldin badu gaur, azken urte hauetan gazte batzuek egin dituzten ikerlanak ez bide dira gutirentzat kontutan hartzekoak. Baina guk politikari bezala sartu behar ote dugu euskararen barneko kezka eta arazo horietan ? Hori ez ote da jakintsu eta teknikarien arteko eginkizuna ? Politikak ez ote ditu gauzak nahasten eta jakina euskarak ez duela horren beharrik... Gure ustez ez da euskal politikaririk, izen hori merezi ukaitekotz, euskararen gorabeheraz axolatu gabe egon daitekeenik. Mila aldiz errana dugu eta erranen ere oraino geure mintzaira dugula ontasun guziz baliosa, gure galdaketa guzien muina, herri honen nortasun ageria ! Nola gaudeke beraz euskararen barne bilakaeraz arduratu gabe ?

Gaurko iritziak, larri-larria bederen, bi andanatan eman genitzake, ausartzia ez balitz guregandik. Lehenean : bilatu, bildu, ikertu, aberastasun guziak rnetatu, gero haiekin mintzaira jori bat plazaratzeko. Iritzi horren ikurra eta gailurra dukegu aipatzen diguten “Atlas Linguistikoa” bere 300.000 hitzekin !

Bigarren andanan leudeke haxe diotenak : bada jadanik altxor polita bildua eta dugun uztarekin arau batzuk finka ditzagun lehenbailehen, bederen morfologia, deklinabidea, aditza, H-ren erabilera, hitz elkartzeak, bokale juntatzeak, ahoskera batzuk eta holako, batasunari buruz joateko urraska bada urraska, oroz gainetik irakaskuntza lanaren laguntzeko premiaz oroiturik ; Euskaltzaindia legokeelarik beti azken hitzaren jabe.

Gure kazetak ateak zabalik dauzka eta gogotik toki bat eman genezake hemen beren iritziak gurutzatu nahi lituzketenei. Hots, gure nahia litzateke euskararen arazoak eta euskalariak ezagutaraztea, ikertzaileen mundua irekitzea doi bat. Gai minberek ez gintuzkete lotsatu behar. Aburu desberdinek, gizonki azalduak baldin badira, ez diote euskarari kalterik egingen. Gure uste xumez gaurko elkarriketarik eza baino txarragorik ez dateke ; isiltasun batzuk biziki dorpeak zaizkigu : sobera dakitenen aho josia oroitarazten baitigute. Adituak ez badira mintzatzen, deusik ez dakitenak hasiko zaizkigu, tar tar tar !

Edozein gai aipatzen da gaur jendaurrean. Euskararen geroaz ere hitzegitea behar beharrezkotzat daukagu ikerlana sustatzeko eta langile berriak sortzeko. Iduritzen zaigu bere hizkuntzalariak eta hauen iritziak ezagutu nahi lituzkeela gure herriak. Ez da deus ere zuzenagorik. Gero eta gehiago eskolatuak baditugu geure inguruetan. Lanerat deitu behar ditugu : bada non zer egin...

Gizarte harremanak

1983-06-16

Polizia kexu dugu Parisen; bere lana litzatekeelarik ordena publikoa, bazterrak ederki nahasiz badabil! Agertzen du hor, gure ustez, bere baitan daukan jaidura: botere azkar baten nahia. Botere azkar hori eskuin muturrean edo ezker muturrean aurkitzen da usaian, eta egia da bakoitzaren nortasuna osoki errespetatu nahi lukeen demokraziarekin, polizia bat, beti nekez akomodatzeko dela... Lehen lehenik, hemen gairik, bere hezkuntzaren oinarria delakotz eskumakila izaten ikastea, obedituz isil eta bat, ulertzerat entseatu gabe. Zerbait ulertu nahi ukaitea baitateke, polizia nola armadarentzat, ahuleziaren hastapena (...)

Hogeita zenbait urtez eskuindarrek hezi polizia ez bide da orain errexi jartzen ahal ezkertiarrekin. Ikus Espainian ere nola dabilzan. Hemen hunkitzen dugu ordea bertze puntu bat poliziaren kasua baino zabalagoa: oso zaila eta korapilotsua den gizartearen antolaketa; zuzenkiago errateko botere politikoaren eta Administrazioaren arteko loturak.

Frantziar, teorikoki bederen, botere politikoa aldatzen denean ez da nehoen aldatze beharrik Administrazioan. Estatu Batuetan aldiz bai. Hemen, Administrazioak politikaren arabera jokatu behar du, atzo egin duena gaur berdin ukatuz edo arrunt bertzelako gauzak sustengatuz. Ordea, Administrazioak haizea bezain itzulkor eta malgu izan behar badu, nola itxaron harengandik, gizonen hurbiltzerik, tresna hotz baten lanaz bertzerik?

Bakarretan entzuna dugu, Frantziar duela munduko administrazioerik hoberena: guhaurk geure burua jokatzen ahal bagenu bezala! Politikaren eta Administrazioaren arteko ez du nehorik gauza handirik eztabaidatzen, ez eskuinean, ez ezkerrean. Indar ikaragarri bat bada hor, politika batzuetan mende atxiki dezakeena, botere politikoaren gomendio egon behar lukeelarik alta leialki.

Bertze batek erran diezaguke: gaurko Administrazioa moderatzaile bat bezala izan daitekeela politika aldakuntza handiegia apur bat eztezeko edo. Hain zuzen, gure ustez, horrek dioke kentzen politikari serioitasuna: hitzemanak ezin bideratua edo motelduta baizik. Ez da harritzeko hautagai batzuek zernahi hitzematen badute...

Politika batek, hauteskunderen onartua delarik, ez luke neholako oztoporik aurkitu behar, ontsalaz, burutzeak eta ez zaigu bidezkoa administrazio indartsu batek herrestan atxiki ditzan herritarrek hautatu gizonen erabakiak. Gure hizñoaz bertze lanik mereziko luke gai honek. Zertako ez eztabaidatu sanoki, Administrazioa izan dadin ez berrikuntzen alderat uzkur edo beretzat dretxo gozoen begirale, baina erabaki politikoen zerbitzari zintzoa?

Gernika. Euskal militante bat Xabier Manterola, epaitzen duten aste berean frantses telebista emanaldi arraro baten zabaltzerat doakigu. Aurkezle Alain Decaux Frantses Akademiakoa eta historiazale jakintsua. Jadanik askotan errana dugu frantses gehienek, ez dakitela gauza handirik beren historiaz are gutiago beren ingurukoena! Burgosko auziak zuen oroitarazi, kasik jakinarazi erran genezake, Hegoaldean ere euskaldunak badirela!

Gaur arratseko emanaldiak, bertzeak bertze, azaldu behar luke Gernika suntsitu zutenean bazela hor Eusko Jaurlaritzak bat xutik, demokratikoki botererat heldua, beregain zeuzkanak ekonomia, polizia, armada, moneta eta abar. Zenbat odol isuri behar izan da, argi pixka bat entzun aitzin gure menperatzaileen ahotik? Artoski segituko dugu emanaldia: egiaz ari bada batek baino gehiagok begiak ireki behar lituzke eta guk txalotuko genuke, behingoa!

Gure helburu sanoak 1983-07-07

Azken denbora hauetan, Iparraldean bederen, iduri luke batzuetan frantsesen hegalean etnia edo leinu maila landuz joan nahi genukeela soilki eta euskaldun zenbaiten eskakizunek bide horretarik ginderamazketela daukagu. Baina abertzaleen helburua leinu baten zuzenak eskuratzeko ote da bakarrik? Egia da hori bera ere gerta balekiguke zerbait litzatekeela (?). Baina kultura desberdinetakoak elkarrekin bakean biziaraztea, biziki gauza nekea da, bereziki, maiz gertatzen den bezala, kultura horietatik bat bertzea baino indartsuago edo faboratuago delarik eta aldebat elkar « torratuz » bizi behar badute. Eta ez digute ez frantsesek ez espainolek elkar onartzen erakutsi: haiek berena sakatu eta bertzerena zapaldu egin baitute!

Etnia bezala bizitzekotz behar gintuzkete denak toki berean metatu, indianoak Ameriketara bezala. Indianoek - deitoratzen dugularik eginga zaien zortea - guk ez bezalako « abantailarik » bazuketen izate berezien gerizagarri diratekeenak: larruz, sinestez, bizimoldez, hots arrazaz desberdinak ziren zuriekin. Gu aldiz, mendebaldeko zibilizazioan sartuak gara. Euskaraz komunikatzean ere zenbatek ez ditugu erdararen itzulpenak egiten, hain baikara hartaz kutsatuak! (Kasu haatik, ihardukitzerakoan, garbizalekerian ez eror...)

Dena den, guk geure helburu sanoak aldarrikatu behar ditugu geure inguruetan. Gizonek elkarri hurbilduz joan behar dute baina herri kulturak errespetatuz. Gu, herri bat gara eta herri bezala bizi nahi dugu. Hemen Euskal Herria da eta horrengatik euskal kulturari lehentasuna zor zaio. Horretarako, abertzale indar politikoak bildurik, burujabetasuna eskuratu behar dugu etxean nagusi sartzeko: lur hau egundainotik euskal lurra baita eta ez baitugu onartzen ahal, geure etxean, bertzeek leinu arrotz eta bitxi, turisten abusagailu bihurtu gaitzaten. Ez litzukete frantsesek gure eskubideak ezagutu behar; guri, euskaldunei litzateke, geure arterat jinikako erdaldunen zuzenak errespetatzea!

Euskara edozein lanetarako gai denetz? Maiz entzuten den galdera. Baietz dudarik gabe; izatekotz edozein gai euskaraz aipatzeko eta ulertzeko on direnak ditugu xuhur geure artean. Halere, Aita Lafittek berak ere aitortzen du, hitz berri eta batasun faltaz alor batzuen euskaraz lantzea neke zaigula. Nekeziak ikastolen biltzarretan ere ikusi ukan ditugu. Ez da hor batere ahalketzekorik: ez baita mintzairarik lan guzietarako trebe denik, lehenik ez bada hizkuntza hori ofiziala, erran nahi baita orotan irakatsia, ageri publikoetan erabilia, lantegietan beharrezkoa, Akademia ofizial batez zuzendua. Urrun gara, orizu, Iparralde honetan!

Egia da batzuek ez dutela behar den indarrik egiten gure mintzaira ikasteko. Baina euskararen ahultasuna ez da horiengandik heldu gure ohiko zapaltzaileen jokabidetik baizik! Euskararen eskasiez guhaur garela hobendun? Gure ustez ez gara lehen hobendunak, eta parte batentzat hala bagina ere politikoki heldu ez garelakotz dateke. Ezagutzen ditugun hizkuntza gotor guziak botere politikoaren indarrez bultzatuak izan dira. Guk ere, nolabait, horretaratu beharko dugu. Araberako indar politikorik gabe akuilatzaile eta zaindari, gure kultura, ekonomia eta herria, artzainik gabeko ardiak bezala baileudeke: otsoaren meneko...

Turismoaz gu ere

1983-07-28

Uda minean izaki eta, goazen bada sasoi honi dagokion arazo handiaz - turismoaz - hitzegiterat; errexago baitzaigu, bertzei bezala, oharpentxoak egitea hain beharrezkoak genituzkeen ikerketa sakonagoko haietarik bat ontzea baino. Iparraldean, abertzaleak, haste hastetik jazarri gara Parisen eta Bordelen egin zituzten hautuen aurka: boteretsu horiek nahi baitzuten gure eskualdea udaleku soil bilakarazi. Eta gaur egun, atzo bezala, iritzi ber-bereko gaude: ekonomia mailan turismo soil lauzkatzen duen politikari aiher.

Halere, borroka horretan, badira jokabide batzuk ulergaitzak direnak. Hala nola Senperen, Cami auzapez zena izan da turismoa Euskal Herri barnealderat hedatu dutenetan ausartenetarik; gutiak baitira hark bezainbat publizitate egin dutenak Parisen, Monte Carlon, Suitzan eta abarren gaindi ibiliz lehenik eta gero laku famatu hura eraikiz. Lakuarentzat, oroitarazi behar dugu, laborariei lurak ebatsiz eta lekuko jendeak beren artean nahasiz: batzuk xoratuak horrenbertze mainatzale-erosle ikusiz eta bertzeak auzitegietan, herrestan, gaulisten pean zegoen justiziaren dastatzen! Bizkitartean abertzaleak - bakar batzuek kanpo - ez dira biziki kexatu (are gutiago oldartu) turismo oldea Euskal Herri barnerat sartzen azkarki lagundu behar zuen ekintza horien aurrean. Gure ustez huts handia izan baita.

Dena den, Parisek ederki ikusia zuen turismoaren jokoa: igor ditzagun langileak ere pausaleku horietarat; hauei, alabaina, ez diezaieke langile euskaldunak beltzuri egin. Ez ote dira klase berekoak, lanean urte guzia ari izan ondoan atsedean gozo baten merezidun eta beharretan? Harri batez bi xori: langileria abusatu eta euskaldunak morroi atxiki. Denbora berean aberatsen turismo usteltzaile haren gaitzestea baino biziki zailago zaigularik gaurko turismoaren borrokatzea, sozialagoa delakotz.

Alta bada makurrak ez doaz ttikituz eta kazeta honetan berean maiz aipatzen ditugu. Eta abantailak? Dudarik gabe badirela: alabaina estatu gehienak - ttiki ala handi - munduan zehar turismoa sustatu nahiz badabiltza, dirutza sartze handiak dakarzkiela eta. Zer dugu bada guk kontra izateko? Soberakina, beti soberakin dela eta turismoa on baino kaltekorrago zaigula geure etxean nagusi izanen ez gareno; geure afera guziak eskuetan hartuak ukanen ez dituguno. Nola adieraz ordea gaur kaltekor zaiguna bihar berdin probetxugarri gerta lekigukeela? Alta, horra hor, zail bada zail, gostarik gusta, ulertarazi behar dukeguna.

Aburu asko entzun daiteke turismoaz. Kontradikzio eta nekezia guziak ez ditugu nehoiz osoki ezeztatuko. Gizatasun ukatze mota frango bada gisa bat edo bertze. Eta gaur, alkohol saltzen edo gerlako tresnak eginez bizi direnak (heren mundu dohakabeari saltzeko...) hobendunago zaizkigu, nolabait, turismotik zerbait ateratzen duen partikularra edo kultura elkarteak baino. Horrek ez du erran nahi, nehondik ere, gure itotzeko gogoarekin sustatzen duten turismo hori kritikatu behar ez dugunik!

Denik ere, ezin ulertuz dabilen zenbait euskaldun zintzorengatik, itxura gehixago ematen ahal genukeela beharbada daramagun borroka horri. Nahi ukanik ere turismoari (halaber airez datozkigun irratitelebistei) nola ateak hets, guhauri hor gaindi ibiltzea hainbertze gustatzen zaigunean? Kurubilkaturik paratzea ezin asmatuzkoa zaigu. Bigarren Albania baten altxatzeko gogorik nork duke gaur? Aldiz asmatu eta burutu behar duguna baitezpada: burujabetasuna ahalik eta zabalena.

Errexkeriari gogor egin

1983-08-18

Hemen berean egun hogeai aipatu genuen gaia aitzinaxago eraman beharrez, bagatoz turismorat, gaur ere: honen aurkako kanpaina ez baita agortzekotan. Nonbaitik hasteko, badirudi, gogor jokatzek zerbait ekarriko duen: ororen mihitan ez bada, gogoetan bederen hasnauketa ederrik eginarazten baitute bazterretan egun hauetako gertakariak. Aldi bat gehiago ohartzen garelarik, nola den (indarkeriaren bidez) atzartzen, loak hartzerat eta begiak hesterat beti ekarria den gizartea. Deitoratzen ahal da; ukatu, nekez.

Nola lerratu da bada ipar Euskal Herria turismorat, lerratu baldin balda segurik, zeren bere ekonomiaren %15a baizik ez badugu turismotik biltzen ez baitaiteke erran turismoari osoki emanak garenik ere? Lerratu bada, errexkeriaz dateke. Eskualde honek aurpegi ederra eta aire-ur-mendi sanoak izaki, jendea berez abiatu da hemen gaindi eta uso pasaiek uso ihizia sortu zuten bezalaxe (konparaketa haizu baldin bazaigu bederen) turistek sortu dute turismoa. Diru pizar baten irabazteko parada ikusirik karraskan lotu ziren euskaldunak ere aitzinean zutenari berekin ekar zitzakeen gaitzez kezkatu gabe. Herri-gizon batzuk gero - errexenaren alde haiek ere - ildo berean sartu ziren.

Hegoaldean berriz industria indartu zuten duela mendetsu bat, haiek ere alderdi onak ikusirik bakarrik. Etorkinak ihaurre sartu baitzitzazkien orde! Hori dela-eta sortu zen, parte, hain zuzen, abertzale mugimendua Sabino Arana gogo inarrosle handiarekin.

Gure ustez, xortaka-xortaka urak harria higitzen duen bezalaxe, halaber gu ere egun guzietako telebista-eskola-kazetek erdalduntzen gaituzkete, bi hilabetez etorritako erauntsi zalapartatsuek baino gehiago. Behin, bretoiek frantses telebistaren haga hedatzailea erroz gora bota zuten eta ekintza horren funtsa ulertua izan zela daukagu. Aldiz udako erauntsia bortitzak ez ote du berez ere halako ihardukitze zerbait sortarazten bakoitzaren baitan, kolpe batetarik sendatu nahi denean bezalatsu? Alabaina, sasoiarentzat, uda eta udatarrak daude enegu eta lan dorpe guzien oroigarri, lehenbailehen ahanztekoak.

Ekonomia aldetik ere herri langileak ez du sinesten, gure ustez, turismoaren mendratzea askiko denik gure ekonomia indartzeko. Ez du sinesten gehiago industriak ez duela, hark ere, bere gaitzik. Aise ohartzen da errexago zaigula turismoaren alde txarrak salatzea, industrian, zerbitzuetan edo laborantzan lanbideak nola sortu erakustea baino.

Guri dago beraz, berriz ere, lan gogorraren egitea, errexenerako bideak utzirik: industriaren aldeko giroa azkartuz, ahalaz kooperatiben bidez lan-postuak sortuz eta erakutsiz mende honetan industria zerbait gabe ez gaitzkeela urrun joan, ez geure askatasunerako bidean, ez eta geroan ere.

Eta gero ahapaldi errexetan ez hikatu (nihaurentzat ari naiz lehenik) egia ahalik eta osoena zabaldu eta ez bakarrik honen alderdi bat: ona, industriad ari garelarik eta txarra turismoa aipatzean. Gure herria ez da gehiago deus jakin gabea. Beraz, arrazoinamendu landuagoak erabil ditzagun bertzela, beharri batetik sar eta bertzetik atera, horra zer gertatuko zaien gure erranei... Abertzale izena merezitzekotan, neke bada neke, herriari gure xedeak sakondurik agertu beharko dizkiogu, errexkeriari gogor eginez.

Urpetik...

1983-09-09

Zakur soraioa, hezaldi baten ondotik, burua saiheska altxatzerat menturatzen den bezalatsu gatozkizue gu ere; ez baitira ttikiak izan uholde hauetan pairatu ditugunak. Hegoaldetik bertzalde, euskal anai-arreben auhena heltzen zaigularik azen ontzeko. Halere denetan, betiko baliatzaile ustel zenbait gorabehera, gizatasun handiz behardunak artatuak dira eta minak jasanak duintasun handiz. Asko jadanik beren ohiko lanetan lotuak dira: ezbeharra lehenbailehen ahortzi nahiz balitz bezala... Alabaina ez daiteke beti zorigaitza murtzatuz bizi.

Iparraldean lege berri bat estreinatzerat goaz: gisa horretako destorbuentzat ezarria izan den asurantz berria, 1982ko uztailaren 13an ezkertiarrek bozkatua. Lehen, ez zen gisa horretako makurrentzat den gutieneko asurantzarik eta Hegoaldean ere gaur ez dute deus gerizarik. Hemen salatu behar dugu, eskuindar batzuek ez dutela gogo handirik erakusten lege berri horren aipatzeko aholku bila doazkienei. Alderdikeriak ez du mugarik...

Ez dakigu lege berri trebatu gabe eta ongi ezagutzen ez dugun horrek nola lagunduko gaituen eta batzuek erdi galduak dirudite asuratzailerik ausart batzuen aurrean. Ez litzateke naski alferretan izanen lege berri horren ezagutarazteko bilkurak egin balitez, gero beharrez elkarretartzeko gure zuzenak defendatzeagatik. Horretarako ere laguntza eskeiz gabiltza; guhauenean hunkiak garenak, aitzindari izan behar genuke. Baina badugu hainbertze egiteko... Presatuena beraz, lege berri horretaz baliatzea ahalik eta osokienik.

Geroari buruz zer egin? Aldi honetako uholdea, naski, egundaino ezagutu den handienetarik zatekeen. Baina ez ahortz arinagoko frango jasaten ditugula noiznahi eta zenbait urtetarik tarro batzuk ez baitira batere goxoak! Hots, bat-bateko uholde izigarrien aurka deus guti egin ez daitekeelakoan ez litzateke egon behar zerbait antolatzerat entseatu gabe uholde ttikiagoetarik bederen apur bat geritzeko. Uholdeen aurrean Erdi Aroko ekipamenduekin baikaude! Holandan itsasoa ere urrundu dute...

Eman dezagun herriko hauteskundeetan, departamenduko ala legebiltzarrerakoetan, nor aipatzen ditu gai horiek? Hitzik ere ez, nehork, Hitler-ez baino gehiago! Berriz uholderik (eta Hitler-ik) etortzen ahal ez balitz bezala gabiltza. Hobeki erran hiltzeaz bezalatsu oroitzen gara uholdeaz: bihar, etzi, edo noizbait badakigu etorriko dela; zertako egon, ordea, gauza ilun hori gogoan bizi guzia hondatzeko ere?

Goazen serio. Gaur hauxe nahi genuke adierazi: uholde ttiki horietaz bederen axolatzea baitezpadako deritzogula. Alabaina ez baita errana beti eskualde hauek « zone sinistrée » ekarriko dituztela eta beraz asurantzek estaliko gaituztela. Bertzalde uholde ttikien hondamenak ezitzen ikasten baldin badugu handiagoak etorriko direnean, muntadura hauek, ez bide dira kaltegarri izanen! Anitz lan egingarriak dirateke; denen aho-mihitan direnak aipatzeko: patarren zuhaiztatzea, ur-bideen garbitzea, ur-bilgailu edo arrastagailu bereziak eraikitzea, etxegintza debekatzea uholde irriskua dagoen eremuetan, uren goititzearen berri eman liezaguketen tresneriak, nor berak etxean egin behar litzukeenak eta abar.

Dei egiten dugu arazo horietaz zerbait aholku edo laguntza ekar diezaguketen herritar ala atzerritar guzietan: denen beharra baitugu, bereziki Hegoaldean. Ez da hau gaurko egoerak sortu oihu mindulina: betidanik herrialdeen arteko elkartasuna aldarrikatu dugu. Nahi dugun azkatasunak ez du elkartasuna ukatzen, borondatezko bilakaratzen bakarrik. Gaur bertzeen beharretan gaude. Ez gara ahalke eskatzeko: Euskal Herriak bere anaitasuna aspaldian eskainia baitu herrialde orori.

Gure ordezkariak noizko ?

1983-09-29

Hona beraz senatarien bozak ere iragan zaizkigula departamendu biritxi honetan. Mixel Labéguerie zena behin, mintzaldi ozen batean, biarnesen eta euskaldunen alde mintzatzerat lehiatu zen Luxembourg deitu senatarien jauregian, haiek eta gu Frantziako populu berezien leerroan ezartzen gintuela. Mintzaldi biziki aberatsa baina ondorio gutikoa izanen dena. Bertze indarrak ukanen zukeen holako mintzaldi giharritsuak, soilik, euskaldunen ordezkari batena izan bazen batetik eta bertzetik gazteria abertzale bat gibeletik ukan izan balu! Biarnesek, beren aldetik, bertze hainbertze egitea oso egokia eta beharrezkoa zaigularik, erran gabe doa.

Biarnoan bi senatari eta guk bat, jende araberan ez da gauza handirik erraten ahal. Guk biga eta haiek bat, luzaz gertatu den bezala, ez zen zuzenago. Begiak irekiko ote dituzte zenbaitek? Gaur, jasan gaitzagoak zaizkigu Euskal Departamendu baten alderako batzuen ezazolkeria, bertzeen hoztasuna, aipatu gabe bistan dena etsaien aihergo maltzurra.

Politika mailan berriz norat goaz? Batzuk bertzeen ondotik, herriko etxeetako eta departamenduko kontseilarien ala diputatu-senatarien hauteskundeetan, beti eskuindarrak - gutiz edo anitzez - irabazdun ateratzen dira. Halako tresna ongi urineztatu bat bezala agertzen zaigu hor, iduri bailuke datozen diputatu bozak ere horiek berek eraman behar lituzketela airez aire!

Eta ezkerria, horien guzien gatik, beti aitzina doa, fitsik ez balitz bezala (edo kasik) artetan honi edo hari begiradatxo bat eta jo beretik! Hitzemanak, nolabait bideratu beharrez bere ohiko bozkatzailleetarik ez sobera galtzeko ote? Badu jokabide honek bere alderdi ona: eman hitzari jarraitzea politikan ez da gauza egun guzietakoa. Baina nola ez baitira 6 urte askiko - ez hurbiltzekorik ere - ezkertiar xedeen burutzeko, gerta daiteke, hauek kanporat joan behar ukaitea beren ahal guziak erakutsi gabe; utzirik, bertzalde, zangoazpitan, jendeen liluratzeko eragin lege batzuk, gaur burutuak edo burutzen ari direnak. Gauza bat hunkitzen dugu hor demokraziaren edo zehazkiago hauteskundeen alde okerra: ezkerrek iragaitekotan, behartua izan da zernahi hitzematerat eta orain nehondik ezin denak obra...

Halere, ikusiak ikusi, ukanen dukegu ezkerren nahikundeen berri zerbait 6 urteak iragan orduko. Eta hortik joko politikoaren sanotze bat ere ez ote daiteke itxaron, erran nahi dugu, boz denboretako hitzemandeak ez ote dira neurtuagoak izanen hemendik aitzina? Jendeen liluratzeko, jendeen enganatzeko da: ez litzateke beraz urrats ttikia horretaratzen bagina. Denen buru ez ahal dituzte obratu gabe utziko guri hitzemanak bakarrik! Irriskua bada; gaur heltzen zaizkigunak agindu loreen usainak baizik ez baitira...

Pauen eta Parisen hola segitzen badute, deabrua izanik ere, ez ote dira euskal ordezkariak berak ere ohartuko, azkenean, beti izorratuak direla eta euskaldunak haiekin! Deusik igurikatzen ez genuen hauteskunde hauetarik landa sentimendu hori bederen haz baledi, ez litzateke beharbada txarra...

Ez bururik gal !

1983-10-20

Geroago eta maizago errepikatzen digute modernizatu behar direla laneko moldeak. Informatikari, automatismoari, robotikari buruz joan behar dela; hori dela aterabide bakarra, bide horretan sartu nahiko ez lukeen buruzkin ergela, bihar, bertzeren meneko legokeela, jadanik holako zerbait gertatzen zaigula japonesen aurrean eta abar. Lanbideak kentzen dituela robotak? Ez kexa, lehen batean beharbada, baina gero ez, ez ote dira roboten egiteko robotak ere martxan eman behar? Eta horretarako gizonak dira formatu behar, formazioa denen gakoa, horri buruz indar guzietan jo behar eta abar. Ordea, zer oihartzun dukete holako solasek, Iparraldean, industria guti eta direnak ere doi-doia bizi direlarik?

Atomiko indarraz ere halaber dioskute: hau da gaurko indargai modernoa, merkeena, garbiena, ez baitezpada bertzeak baino lanjerosagoa eta gainerat petrolio fornitzailen menetik aterako gaituena. Bi gai biziki desberdinak beharbada, baina biek ez ote dizkigute gogoeta bertsuak jauzarazten: beti eta gehiago, beti eta urrunago, noiz arte horrela? Adibidez, gure euskararen bizinahiak zer oihartzun duke mundu zabalaren neurrietarik hedatzen direlarik gaurko arazoak? Espainiako telebistan ingelesa irakasten hasiak dira...

Erraten digute ere: « *Beha japoniari, begiratzeko dituzten bere ohiturak eta erroak nornahik bezainbat; puntu horretan hain minbera zaretzen euskaldunak ez duzue beraz kezkatzerik. Bata eta bertzea (modernismoa eta ohiko kultura) ez dira elkarren etsai. Gizona, goazen aitzinka!* »

Guk, hau guziari, gerla generitzoke. Gerla ekonomikoa, kulturala edo zibilizazio gerla... Nahi duzuen bezala, baina gerla halere eta gerla guziak bezala bere irabazdun eta galtzaileekilakoa dateke; aski da heren eta laurden munduari begiratzeko! Badirudi helmugarik gabeko, geroago eta zaluagoko lasterkaldi baterat deitzen gaituztela eta denak lasterkada horretan sartzen bagara, egundainokotan zenbaitek, lauhazkarazi nahiko gaituztela erasanez, bizia borroka bat dela, zeingehiagoka bat, deus ez dezakegula horren aurka eta abar.

Gizonen eta herrien artean zuzentasun gehiagoren beharra nork ez du sentitzen bertzenaz ere kazeta honen irakurleetan? Bide hauek ordea, zuzentasun gehiagoren erakarle dira ala batzuek bertzei jadanik hartua duten abantzuaren handiarazle? Gu bezalako herri zapalduak, bereber xutik joaten ez ikasiak, buru egin ote dezake, lurraren suntsitzeko indarra dutenen artean? Ez gendake geure burua atzerakoi herdoildu batentzat pasarazi nahi, baina nola gaudeke salatu gabe begien bistakoa: gaurko aitzinamendu gehienak akuilatzean, gizarte aberatsak beren aitzindariagoaz hartuago direla herri gibelatuen lauzkatzeaz baino!

Nahiz anitzek ez duten gauza horiei pentsatu nahi ere - gutarik goregiak edo hunki ezinak diruditelakotz - handizki grinatzen hasiak direnen lerroa luzatuz doa. Zein da gure ametsa? Gizon bakoitzak (herri bakoitzak) bere geroaz erabakitzeko ahalik eta parterik handiena eskuetan ukaitea. Eta horri datxekiola, gizon guzien (herri guzien) artean borondatezko elkartasunik tinkoena lortzea. Amets horiek ez ahal dira gaur buru-buztanik gabekoak?

Dakusagun beraz, gaurko lehiaketek, amets horietarik hurbiltzen ala urruntzen gaituzten. Hala nola atomiko indarrak ez dakigu batere ea Frantziaren burujabetasuna laguntzen duen ala ote den estakuru bat ederra jadanik gure gainean duten nagusigoa hobeki finkatzeko? Hala hala Lemoizko muntadurak, modernismo dirdiratsuenaz estalirik sakatu nahi izan zizkigutenean, euskaldunen laguntzeko ote zen ala gehiago gure sudurretik erabiltzeko? Zeingehiagoka etengarri eta burtzoragarri horien erdian, burujabetasun mikorik ez dugunek, nola ihardukitzen ahalko dugu, burujabe diren batzuek ere lanak dituztelarik?

Ez dezagun halarik ere bururik gal; goazen geureari. Erran zaharrak dio « geroa ez dela gurea ». Gaurko handi-mandi eroak ere, ez ahal dira betiko!

Zurkaitz bizia

1983-11-10

Berriz ere egun lazgarriak Ekialde Hurbilean: Tyr-eko sarraskia, Turkiako lurrikara, eta naski gu gehienik hunkitzen gaituena palestinarren arteko gudu oiesa. Lerroxa hauek idaztean ez dakigu nola bururatuko den baina beldurtzeko da palestinar herria ez dela azkarrago aterako anaien arteko gudu beltz horien ondotik. Ezagutzen ditugu OLParen helburuetan dauden soberakin batzuk, hala nola Israel estatuaren suntsitzea. Bertzaldean, berdin gaitzesgarri zaigularik «Israel Handiaren» ametsa, alabaina toki horretan berean betidanik bizi izan diren arabeek beren lurrik ez daukatelarik! Gaur entzun daiteke Yasser Arafat-ek astokeria handia egin duela Beirut-etik lekuak hustea onartuz. Derragutela bada zer egin zezakeen bertzerik Israelen eraso guziz gogorraren aurrean, anaia arabeak, denak, isil-isila zeudelarik alabaina?

Gaur hobeki ulertzen da Yasser Arafat-en ezeztatzeko, indargabetzeko hartua izan den bidea: lehenik utzi Israel kasik nahi duenaren egiterat eta gero gerla galtzaileen artean beti izaten diren barne zauritu herraz beteak itzularazi beren ohiko aitzindariaren kontra: «*Zorigaitz galtzaileari!*» Baina hori guzia zertako, luzaz Yasser Arafat-ek ez ote ditu behar diren laguntzak izan estatu arabeengandik? Badirudi kario ordaintzerat doala osoki bere buruaren jabe izan nahi zuelako ausartzia sana. Bertzalde badaiteke ere gero eta gutiago onesten duten inguru haietako estatu arabeek Yasser Arafat-en olde herrizale bezain iraultzailea, izanagatik ere moderatuagoa gaur - itxuraz bederen - lehenago zen baino.

Gauza bat azpimarra dezakegu bana bertze, hau da: herrialde koxkor euli baten kemenik ez dutenei burujabetasuna uzten zaiela heintto batean; horretarat heltzea handiago izan eta nekeago delarik. Korsika uhartearen beregaintasuna, Frantzia askok, sondaketa batek zioenez, onartzen bezala dute. Aldiz badea nehor Okzitaniaren burujabetasuna ikusiko lukeenik bere 31 departamenduekin? Balitekea alderdi politikorik -gubernurik aipatu gabe- hori susta lezakeenik? Hots, Euskal Herria ttikiegia dela bere gain jartzeko zioskutenean arrazoiak leherregin du. Arazoa litzateke estatuaren eremu nagusia funski hunkitzen duzun ala ez; abertzaleen bideek bertzerik ere kutsa lezaketan eta horrela joanez estatuak zenbatez murriztuko liratekeen.

Ekialdean bazterrak irakitan baldin badira, mugaz bertzaldean ere ez dago bada zerua arindurik. PSOE kargutan jartzearekin ba omen ziren uste zutenak gauzak hobeki zihoazkeela guretzat. PSOE eta EAJ ez ote dira elkarrekin ibiliak luzaz Francoren garaian? Aldiz UCD ez zena frankismoaren ondorea? UCDk autonomia zerbait utzi duenean ez ote zitekeen zerbait hoberik ere igurika PSOErengandik? Baina hara, ez litzateke ahantzi behar PSOE ez dela egundaino euskaltzalea izan. Ez hain aspaldi alderdi horren buruzagi batek euskaraz mintzatu behar zuela zioen bati, «faxista» bat zela ihardetsi zion sudurrerat!

Holako hedadurakoei zer eska dakieke? Gaur denen begiak irekitzen ari dira itsuek ere ikusteraino PSOE, UCD baino ere makurrago dabilkigula. Urraska urraska, gero eta garbikiago ageri dena da euskaldunek indar zerbait daukagula eta ez dezakegula guhauren baitan baizik konta. Madrilgo nola Parisko agintariengandik ukan ditugun guziak, edo direla beren buruen edertzeko, gantzutzeko edo direla daramagun borrokaren jabaltzeko. Beharbada anarkista usain zerbait kausituko diote iritzi horri. Baina ez dugu bertzerik erraten ahal gaurkoan.

Azken denbora hauetako zirtzilkeria guzien ondotik eta EAJ makila bi buruetarik ezin atxikiz ari den bitartean, biziki gustatu zaigu Herri Batasunaren larunbateko ihardespina; gogorra bezain argia, gure herriari laketa zaion bezalakoa. Jende andana ederra bildu du Bilbon. ETAren jokabide ezinago bortitzak eta ez irrisku gabeak, batzuetan durduzaturik uzten bagaitu ere, Herri Batasuna dago itxaropenaren zurkaitz bizia.

Zer Eguberriak...

1983-12-22

Eguberri-urtatsak gainean genituela-eta, hatsa-hartze goxo baten egiterat gindoazen urte iraganari behako bat emanez denbora berean. Aurten ere hain zuzen ospatu baitugu Enbata mugimenduaren sortzearen hogeigarren urte betetzea, bazen zer erran, non gogoetatu. Ondikotz berriak hor ditugu, berri bezain latz eta inarrosle.

Thatcher andereak baitzioen IRAk ez zuela Eguberririk errespetatu, guk baditugu hemen, **geure etxean**, Euskal Herri askatu bat onartu nahi ez dutenak, giza-eskubide premiazkoenak ukatu nahi lizkiguketenak, eta ez baitira batere Eguberriez oroitu euskal gudari bat, Oiñaederra, odol hotzean tirokatu dutenean. Eta ez dute ez poliziari deitu horiek, IRAk bezala, errateko aitzinetik zerbait pasatuko zela Kayetenean! Handiena ez da hori: berriz gibelerat itzuliko direnean, ageri-agerian ez bada - Larretxearen kasuan bezala - ez dira mehatxatuak izanen are gutiago atxilotuak baina bai saristatuak eta ohoratuak handizki « Espania Handiaren » alde egin duten balentriagatik!

Gure artean ere zenbaitek erranen dute: bilatu ditek: hor dik! Ezagutzen dugu musika. Zorigaitzez larrua egiten hasia dugu, baitakigu ongi ETArek borrokak diraueno, holatsu izanen dela. Baina euskaldunen helburuak zuzenak dira eta espaniarrenak aldiz okerrak! Francok armaz hartu zuen Euskadi eta azpian eman. Haren ondokoek aztapar lehertzailea dengutieneko bat altxatu badute ere beti gure buruen gainean daukate berriz zapatzeko prest. Euskaldunek ez dute holako egoerarik onartzen ahal nehondik ere ez eta onartu behar ere.

Ez gara norberaren askatasunaz hain kexu; sail horretan zerbaixka utzi digute, beharbada gehixago ere ezagut liezagukete berdin. Ez, nehola ere utzi nahi ez digutena da askatasun nazionala horrengatik dira zernahitarako prest. Moralistek erresistentziazko edo ezinbertzeko borroka armatua frango aise kondenatzen dute. Nolaz ez dute bada are gehiago kondenatzen estatu bat, botere guziak eskuan ukanagatik, bere legez kanpoko bideetarik dabilelarik gustuan? Ageriko laster frantses gobernari handiek nola ihardetsiko duten; ea ukanen duten aski bertute beren lagun sozialisten larderiatzeko ez bada, amultsukiegi bederen ez besarkatzeko...

Herri semeak

1984-02-02

Egun grinatsuak oraino ere: euskaldun batzuk goserik, beren osasun eta etorkizunak kolokan ezartzeraino, eginak zaizkien, eginak zaizkigun zuzengabekeriak salatu beharrez. Hau izigarria dugu: suntsitu nahi ote gaituzte hondarra? Batzuk Pariserat desterratuak eta bertzeak deabruetan barna besogainka botaiak! Hauexek dira estatu legezko baten manerak! Egin ote du gobernu ezkertiar honek, boterean jarritz gero, okerkeria handiagorik? Hastetik beldur ginen sozialisten kontra eskuindarren aurka baino nekezago ibiliko ginela. Hegoaldean ere kezka bertsuak ukanak dituzte. Ez luzarako. Han ala hemen, ezkertiar horien bideak ezagutzen ditugu orain, eta argi eta garbi ageri da geure geroa guhaurk eraiki beharko dugula, bertze herrialde askatasun bila dabiltzanen adiskidetasun hutsa lagun.

Frantzian (eta naski Espainian ere) sekulako arazo ekonomiko eta sozialak ditugu eta beraz ez da dudarik gutaz bertze arrangurarik baduketela. Bertzalde, Paris eta Madrilentzat gure egia eta zuzentasun gose horiek ezin adituzkoak dira, soberakinak. Beren ustekeria hoberenak kolokan ezartzen baitizkie. Ez baita atsegingarri agintarientzat ez eta ere gizartearentzat, eskutik lerrakor liratekeen politika aldaketa batzuetan sartzea, gainerat bertze hainbertze berrikuntza - zientzia eta teknologia mailetan bereziki - datozkizularik burutik behera.

Beraz duela zenbait hamarkada bideari lotu zen euskal pizkundea hor dabil beti alha. Ez ditzagun barnegi har bakoitzaren laneko moldeak: egun heiagoraka Euskal Herriaren alde dabilena, bihar berdin hortxe dukezu arazo pertsonalen azpian ezindurik edo lanez itoa. Herriaren berreuskalduntzea, nor-berarena baino anitzez hurriagoa da. Erdal pleguak ez zizkiguten hala-holaka sarrarazi gero! Gaur, ez da harritzeko epe bat behar bada plegu tzar horien desegiteko. Guziengatik beti aurrera goaz eta herriak gaur militante suharrak sortzen ditu. Ordainez, hauek atxikiko dukete gizartea atzarririk.

Betidanik izan dira gogorrenen zorrozki jorratzaileak; lau murru hotzen erdian gose-greba baten egitea ez da nornahiri emana. Haiei buruz ukan ditzakegun arrangura guziak gairiditurik daude. Gaztearen bihotza biluzik agertzen baita. Bertzalde ez ote dira xutitzen ari den herri honen seme batetik eta bertzetik jasaiten dugun zapalketaren ondorio? Arrazoirik aski bada hor gure sustengu osoa ekartzeko.

Euskal kultura elkarteak bildu dira urtarrilaren 14an Baionan. Gu ere han ginen aspaldiko partez. Urtetik urterat, gertakari berrien aurrean, ihardespen egokiak bilatu behar. Gaurko biltzarra berriz ere lanetan da. Destrade diputatuak legegai berri bat antolatuxea du elkarteei parte eman gabe. Gaitzitzekoa bada horretan berean, aipatu gabe Le Pensec legegai ezaguna - abertzale askoren bozak ezkerri erakarri zizkiona - bide berez zokoratu digutela. Hauteskunde aitzin legegai batzuk eta hauteskundeetarik lekora bertze legegai batzuk ahulagoko puntu zenbaitekin! Urdail hera ona dugu euskaldunek baina ez neurririk gabea halere! Baratxe!

Hori moldearen aldetik. Funtsaren aldetik zer erran Destrade-ren legegai horretaz? Batzuek eskasa edo arrunt eskasa dela diote. Guri haxe iduritzen: badakigu aspaldian frantses sozialistek ez dutela gure beharren arabera legerik eraikiko. Ikusi behar litzatekeena da ea legegai horrek gure kulturari urrats bat aitzinerat eginaraz diezaiokenez, jadanik gogoan dugun bigarren urrats harentzat neholaz ere oztopagarri izan gabe. Gure ustez lege horrek aitzinamenduei irekia egon behar luke eta ez ate-gakatuz inguratua. Pausu edo maila batzuk garbiki azal diezazkigutela. Ordutik eta ordutik bakarrik, maila apalagoak ere onartzen ahalko dira, hoberako zuriak haietan finka daitezkeen ber.

Jakin behar dugu

1984-04-05

Balio ote du gordetzea azken denbora dorpe hauetan, lehenbiziko xistean, ez dugula argi handirik ikusten geure bideetan? Iparraldean segurik, ezkerak bere hitza janik, pegeseria batzuk baizik ez zaizkigu heltzen; guzia ere 81eko garaitzaren oldarraren oldarrez; oro har olo baino aise makila gehiago! Bertzalde, gure moderatu eta iraultzaileen artean leize ederra baitzen, egundainokotan gaur, gogorrenak ere beren artean gatazkan daude IKren jokabidea dela eta.

Alta bada lano horien guzien gibelean bilatuz, barnaxago joanez, gure borrokaren eramateko hatsa kausitu behar dugu. Pariseko botereak bere hitza jan du Lorrena eskualdeko ikaztegi eta burdintegiei buruz. Ezinbertzez naski. Baina Euskal Departamenduak, adibidez, ez du deus ezinezkorik, osoki egingarria baita. Zertako beraz beti luzapenak? Edo zerbaiten beldur dira edo gutaz trufatzen dira. Bata ala bertzea den jakin behar dugu!

Ikusi behar dena da (eta agian ez du hau nehork makiavelismotzat hartuko) jasaten ditugun zauri guziengatik - hiltze, ontzi tirokatze eta abar - gure herriaren izatea eta haren bizinahia zenbat aldiz ez dituzten aipatzen, telebistan berean, bortxatuak baitira doi bat xehetasun ematerat. Mapa edo karta batzuk lekuko, gure 7 lurraldeak erakusten dituzte hainbat garbiki; oroit telebistaren indarraz! Bistan da « arima sainduek » zalaparta horien ondorioz egin aipamenak ez dauzkatela gure herriaren omen onaren hedatzaile; sekulako fama txarra biltzen ari omen dugu, « gaixo Euskal Herria » diotela! Guk aldiz ez dugu baitezpada ikuspen bera. Bai arrantzaleen, bai gure gudarien tirokatzeek edo iheslarien urruntzeek, oinaze horiek guziek, beltzuri baino begirune gehiago sortzen dutela bazterretan iduritzen zaigu.

Goitirik, aldebat finkaturik dateke, gure inguruetan nola frantses iritzian, badela hemen Euskal Herri bat muga estatal batez erdibiturik. Aipamen horiek egin duten jakinaraztea guziz garrantzizkoa da. Hori dela-eta, diogu beraz, iduri ezean, aitzinerat egin dugula azken hilabete hauetan, ondorioak ez badira berehalako ere. Nola ez ikus kultura taldeek ere gure artean daramaten lana: antzerkilariek bereziki, baina ere bertsolariek, dantzariak eta abar.

Laster talde politikoen eta bertzeek beren esperientzia « multxokariak » egintxeak dituzkete. Ez dugu esperientzia edo entsegu horietarik bihirik gaitzesten, kritikatzeko bakarrik ezinbertzean. Egundainotik gizonek maite ukan dute bide berrien ikertzea, bidea laburtu nahiz gehienbat. Guk diogu, Iparraldean, ez genukeela geure borroka Hegoaldean kopiatu behar. Gogoan atxiki behar dugu bereziki haien eta gure artean den desberdintasunetarik bat: kopuruz eta indarrez aise gutiago garelako; « urik gabe ito » beldurrez, bereiz dabilzan multxoek, eta denek, noiz ulertuko dugu, batasunik ez badaiteke oraino, behar orduan elkarretaratzeaz bederen axolatzea honenbertzez, beharrago zaigukeela?

Ez da beharra bezalakorik

1984-04-26

Aberri Egunaren ospakizunak iragan dira eguraldirik ederrena lagun. Ospakizunak diogu alabaina hainbat tokitan ibili baikara: EAJ Bilbon eta bertze zenbait hiritan; HB Iruñean; EE, Gernikan; Iparraldekoak, Donibane Lohizunen. Gertakari oso berezirik ez dugu entzun. Mintzaldiak zenbait aldiz baino egokiagoak iduritu zaizkigu Aberri Egun batentzat. Alabaina Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena ez lirateke nahasi behar. Hegoaldean hauteskundeak eta Iparraldean berriz mobilizapen luze batek, badirudi doi bat murriztu dituztela gure lerroak, hurbiletik behatuz gero. Hala ere, orotan, aski garbiki erakutsi ahal izan da herri honen planta bai eta ere berpizteko bideetan gabiltzala.

Sarako Eguna. Euskal Idazleen lehen biltzarraz onik baizik ez dezakegu erran: idazleak han ziren, ehun bat hurbil, ikusle-erosleei ongi etorri berezia egiteko; hunkigarria ere baitzen idazle ospetsu batzuen kaustzea han nornahiren gomendio. « Omordia »rat heltzean gogoratu zaigu Iparraldean egin zen ikastolen lehen besta Arrangoitzen 1970ean. Orduan ere denak alde jarri ziren: tokia, eguna eta abar. Holako biltzar bat, lehen aldikotz bultzatzean, kezka nagusia da: nola itzulikatuko diren guziak... Arrangoitzen gertatu zena atzo Saran errepikatu da, denak errotik alde jarriak zirelaketz. Nahikunde bizi bat nabari zelaketz bertalde edozeinen baitarik: lortu, erreusitu nahiarena. Zorionak guziei!

Holako egun batzuek idazle berriak sortu edo bederen sustatu behar lituzkete. Euskarazko idazleek badugu oraino zerbait eskas, bereziki geroaz arduratuak baldin bagara, erran nahi dugu: euskara idatziaren batasuna. Horri buruz baitezpadako saila daramate Euskaltzaindiaren gerizapean. Badirudi hala ere, kasu batzuetan, euskara batuaren erabiltzea gogorregia edo zailegia gertatzea. Eta orduan zein gure euskalkietarat joan behar dugu, irakurleari edo entzuleari kaustzeko.

Bizkaitarrek beren euskalki berezia bateratzen ari dute. Ikus Egin 18-04-1984. Guk ere Iparraldean ez ote genuke holako zerbait egiten ahal? Nafar-lapurta batua eta zuberotar batua? Ala saltsa nahastea baizik ez litzateke? Badakigu bateratzeak libertate poxi bati edo aberastasun batzuei berdin, uko egitea eskatuko duela. Artetik errateko, bizkaitarrek duela 10 bat urte, beren dantza ederrak, asko gisetarat ematen zirenak, normalizatu zituzten. Jakizue ez zela korapilorik gabeko lana izan! Bizkaitarren lehia eta gogortasunak gaina izan zuen halere: %95ek onartu ere eta dantza horiek zer indarra ez zuten hartu ordutik beren lurraldean bertan eta Euskal Herri osoan!

Halaber, euskara batuaren sustatzaile azkarrenak ere, gipuzkoarrek berek diotenez, bizkaitarrak izan dira. Lurraldeko euskalkiaren bateratzaile lehenak ere beraz: bizkaitarrak. Dantzen normalizatzaile kartsuenak: bizkaitarrak. Abertzalegoaren pizlea nongotarra zen erratea ere ez du balio. Zer zorak lurralde horri!

Euskal idazleek eskas dutena ere, jakina: irakurlego nasaia bat. Horri buruz ere Sarako eguna bezalakoak gaitzak dira irakurtzeko gutizia pizteko beharra etorri artean. Alabaina ez da beharra bezalakorik. Beharra sortzea: hauxe da saila...

Ez da zorion osorik

1984-05-17

Herri Urrats ospatzen genuela, hantxe doi-doia solasean gelditurik Gure Irratia-ko langile batekin, hona non senpertar abertzale lagun bat (1) etortzen zaidan baizik eta baitezpada jakinarazi beharko zirela - bildurik zegoen jendea - Senpereko lakuko lurretan gertatu diren desjabetze ahalke egingarriak. Adiskideari ihardetsi diot zerbaiten egiteko xederik ez zitzaigula faltatu, baina euskaldunek badiugula erakunde batzuk hain beharrezkoak, halako lana egiten dutenak, diru eta laguntza behar gorrian direnak non ez baita errex kritikari lotzea, behar orduan ere! Eta Seaska, instituzio horietarik dugu.

Gainerat, lehen aldikotz holako biltzarre bat antolatzen zela - parte itsurat nahitez - eguraldi hitsaren mentura azkenerat, nahiko grinak zeuden beraz eta ez zirudien bidezko arazoen gehitzea, bazterren sumintzeko irriskuagatik. Besta biharamunean mintzatzea erabakia genuen eta hartarat abian gara.

Apur bat lehentxago, bertze lagun batek (2) hauxe errana zidan: « *Hemen gaur egiten duguna Bizkaiko Ibilaldia bihar, Lemoizko nukleartegian egin baledi bezalatsu duk...* » Hala da, sinbolo batzuk gogor borrokatu ditugu abertzaleek: Lemoiz Hegoaldean, turismo soberakina Iparraldean; eta jakina Senpereko lakua eta haren eraikitzailea turismoaren hedatzaile bikainak izan direla Euskal Herri barnealderat. Lakuaren inguruan, laborariei lur ebaste, kanpotarren sarrarazte, arrotzei lur saltze, hots, joan den udan turismoaren aurka egin kanpaina hartan salatu ziren gaitz guzien bilduma ez ote da hor? (Ikus Enbataren sar-hitzak, euskarazkoa 28-07-1983; erdarazkoa 01-12-1983).

Bertze lagun batek berriz (3) haratxago erran zidan: « *Ez ote ditugu berreskuratu behar ebatsi dizkigutenak?* » Egia handia, hori ere. Guzia da jakitea ea nola hartuko duten euskaldunek gure « beila »: gure gustuko turismo on baten abiadura bezala? Ala orain arte hor gertatu okerkeria guzien ahanzgarri, xurigarri eta bide berez laborarien borroka guzien ukapen bezala? Ala beren baitan eginen dute diruak ez duela usainik « gure » iritzien zerbitzari den ber?

Senpertar gutisko ibili omen da: baigorriarrak Nafarroaren Egunean, saratarrak liburu azokan eta makearrak Dantzari Ttikin bezalatsu, beti zerbait izateko? Duela bi urte Senpereko elkarteek eskuz-esku afixa bat egin genuen; ahal bezainbat gure herriaren ezaugarri izan zedin osagaiez ari ginela - jauregi, eliza, zubi, etxe, xistera eta abar - norbaitek atera zuen « *lakua ez ote genuke afixa horretan sartu behar?* » Aho batez, ihardetsi zitzaion **ezetz**, duda-muda izpirik gabe. Eta delako afixa lakurik gabe dabil.

Atzo senpertar guti baldin bazen lakuko inguruetan, hortik darion usain tzarra kontutan hartzekoa dateke. Hasteko lurren borroka horretan sartuak direnek - uste baitzuten abertzaleak berekin zituztela - haiek ez dituzkegu ikusirik geure artean! Ez baitezakete deus konpreni... Artikulu honen idazlea haietarik da baina ez da arras iritzi bereko; Senpereko ikastolaren sortzaileetarik batek baitzukeen hor non goza ere. Baitaki ontsa tokia biziki egokia zela (nahiz bertzerik bazatekeen); herri-gizon zenbait ere aski irekiak holako sail bati eta abar. Hogei urtez horko samatsa ketan ikusirik, bere baitan ari zen: « *ongarria ustelago eta loreak joriago!* » Goazen beraz aitzina, igandeko egunak markatu baitu Senpere eta Iparralde osoa; berotzen, suspertzen zuela abertzale olde guzia!

(1) Panpi Erremundeguy (2) Piarres Charritton (3) Isabel Ajuriaguerra

Libertatearen izenean...

1984-06-07

Nezkez uka daiteke Jean-Pierre Destrade eta sozialista zenbaitek zer bait egin nahi luketela Frantziak pean dauzkan mintzaira eta kulturei buruz. Gibel-asmoak? Politikak diraueno gibel-asmoek iraunen dukete. Ez, guk ezin onartuzkoa daukaguna zera da: Le Pensec legeaia zokoratzea briu-brau eta bertze bat eraikitzea! Haur mukuzu bati aitzineko gosaria ken balekio bezala: « *ogi hori onegia duk hiretzat, horra artoa!* » Ez dugu gaur aipatuko Euskal Departamenduaren kasua; joan den astean ukan duzue argirik gai horretaz. Goazen gaur legezede berriaz, oharpen handi bat jauzarazten baitu.

Frantsesa **bortxaka** irakatsi ziguten eta beti **bortxatua** zara mintzaira horren ikasterat. Euskararentzat aldiz, lehenik debekatu eta itsuski mendraturik, gehiengo zabal batetarik gutiengo baten mintzaira bilakarazirik, deusetan ez beharrezko bihurturik, hona non erraten dizuten: burasok nahi badute... irakaslerik baldin bada... nahi duenari irakatsia izanen zaio! A! zer gauza ederrak egiten diren bertzenaz libertatearen izenean! Ikusten dugu hor, nehon ikustekotz, zer zuzengabekeria jasaten dugun...

Legeak ez omen dira askiko gure euskaldungoa aitzinarazteko. Hala ere horretarik hasi behar da, gero ahalak eskuratzeko. Guretzat lehen legea litzateke euskara mintzaira ofizial bezala onartua ikustea Frantzian, frantsesarekin batera. Bigarrena horri datxekio: Euskal Akademia edo Euskaltzaindia ofizialki ezagutua izatea, Hegoaldean den bezala. « Erreparazio Historikoa » aipatzen baitute, balukete hor hasteko aukera ederra!

Are Senpere! Besta polita igande arratsean, Senperen, hirugarren mailako txapelketa irabazi duten errugbilariei egin zaien ongi-etorriaren inguruan. Herrietako bizitza, bizitza komunitario hura ahulduz doakigula auhenez gaude askotan. Herri-bizitza da alabaina ideia desberdinek egiten duten biltzarra edo besta. Kideen artean elkarretaratzea eta lan egitea beharrezko baldin bada ere ez du horrek « herria » deitzea merezi, delako kideak herriaren laguntzaile hoberenak izanik ere.

Kideen biltzarrak emendatuz doazkigu, herri guziarenak xuhurtuz doazelarik. Geroago eta gehiago bakoitza geure munduan murgilduz gabilta. Pilotak, dantzak, maskaradak herri ttikietako jende gehientsua bil zezaketen. Oraino ere pastoralak Zuberoan herri guzia biltzen du. Baina gaur bertze kirolak ditugu, naski, jende elkarretarazle hoberenak: Hegoaldean futbolaren gisa hemen ere errugbia ari zaigu herrikoitzen (Peio Dospitalen etsenplua ez bide da gutiestekoa). Badirudi gorago helduago eta euskaldunago azaltzen direla gure ekipoak! Ez gara samurtuko.

Egia da askok ez dutela hain gogoko errugbia, bortitzegia daukatelakoan. Baina bizian hainbertze hertsadura (bortizkeria ez denean) isilik jasan behar dira, barnea « zimurtzen » dizutela. Zimurdura horiek nolabait desegin behar dira eta kirolak gaitzak dira horretarako. Errugbia azkar dagoen herrietan ez ote da gaiztakeria gutixago karriketan? Aingeru gizarterik ez dateke. Lehenago ere asko gisetarat jariatzen ziren barneko ezinbertzeak ez baitziren beti molde hobeekin!

Doazela beraz kirolak beren egiteko soziala ere betez. Euskal giroa sar dadila hor xobinismorat lerratu gabe. Kasu haatik: soberakina beti soberakin! Kirolak gerta daitezke jendearen loakarrarazle eta plazaratu behar diren arazoen ahanzarazle. Ez arbuia beraz bide politikoak! Ez politika goxoagoa delakoan (bide dorpeagorik ba ote da?) baitezpada hartaz arduratu behar dugulakoan baizik, gure onetan!

Gogortu ala zabaldu ?

1984-06-28

Euskal kulturaren mugimendu bat badugula gauza nabaria da. Bere lana egiten du: egun guzietakoa eta bere eskakizunen adierazten badaki. Bizitasun horren seinaleak aste hondar honetan ikusi ditugu: ortziralean Piarres Charrittonek aurkeztu du argitaratua duen liburua: geure idazle nagusitzat daukagun Jean Etchepare medikuaren idazlanen lehen tomoa. Larunbatean, « Pizkundea »ren manifestazioa. Igandean Euskaltzaindiaren biltzarra Milafrangan. Baina politikoek ez dugu utzi behar talde kulturalen gain geure borroka...

Azkeneko hauteskundeen ondotik ikusi dugu garbiki fenomeno bat: komunisten boterean edo botereari hurbil jartzeak eskuin muturrekoen lehiak hazten dituela. Frantsesek garbiki errana zuten: sozialistak boterean bai, komunistak ez. Mitterrand-ek hartu ditu komunistak ere gobernuan CGTa balakatzegatik, dudarik ez da. Ondorioek ez dute ordea luzatu! Ikusten dugula zein hertsiki elkarri jarraitzen diren iritzi politikoak bata berteza erakarrit; bata berteza hazten balu bezala.

Ez dugu ipar Euskal Herria Frantziarekin konparatu behar. Hau estatu formatua baita; gurea aldiz lekutan da! Diferentzia hori atxiki dezagun gogoan. Halere zenbait erakaspen ez ote da hor? Teorikoki bederen eta agian ez dugula goregitik begiratzen, haxe ikus dezakegu: lehenik zegoela beraz gaur eskuina deitzen duguna. Naturelezaren umea bere arruntan. Honen izenean zernahi gauza egin izan da; baina azkarra azkartzen du, menekoen bizkar. Horrela sortzen diren zuzengabekeriek dute sortu ezker, hain zuzen. Eskuinarekin, ezkerak baduke non lot, bertze « zangoak hutsean » ditu nolabait errateko.

Ezkerak ez duke berez bizitzetik zeren eta eskuinari lepoa moztan dionean berak hartzen baititu laster eskuinaren « urak ». Baina eskuindarrek lehen ematen dute mozkin. Hainbertze gostako den euskaldungoaren berpiztea nola sar eskuindar programa batean? Sail guzien bi mintzairatan bultzatzea alabaina ez doake nehola ere bat mozkinzaletasunarekin. Euskara ere mozkinaren alde lihoakeela urrun behatuz gero? Nola jakin, ordea, gaurko gizarte aldaketak ikusiz?

Ezker abertzalea azkartzeko ere iduri luke eskuin abertzale baten beharra gurekeela. Haxe da beraz gure ezinbertzea Iparraldean: ezkerak nahi badu hazi eta iraun eskuina behar eta eskuinak bere burua agertzen hasi orduko ezkerrekoek xehakatzen dute! Eta erdikoak? Haien oraino zailago baizik ez dateke: erdibideak ez ote du eskatzen eskuinean talde bat eta ezkerrean bertze bat?

Ikusten dugu Enbata mugimendua debekatu zutenean zer kaltea egin zigten. Ezkerak segitu zuen, bainan bertzeek? Ez ote zen bertzenaz ere biziki goizegi bakoitza bere alde abiatzeko? Ez ote zen zerbait egiten ahalko, eskuz-esku, herri honetan gehiengorat heldu arte? Handik lekora bereiz gintezkeen eta oraino kasu eginez; erran nahi dugu eskubide nazionalen alde elkarrekin borrokatzeko prest egonez. Bazekiketen bai Marcellin eta bertzeek zer ari ziren. Ez gara biziki erneak izan.

Delako Enbataren gogo hura ez da haatik suntsitu, bereziki kazeta honek segitu duen lanari esker eta zintzurra larrutu arte errepikatuko dugu: Euskal Mugimendua gogortu baino nahiago gurekeela lehenik finkatu: hala nola Seaska lagunduz hortzez eta haginez hitzemanak zaizkionen eskuratzen. Eta gero zabaldu hiru ardatz nagusiren inguruan elkartuz:

- kulturarentzat, bertze guzien artetik ikastolen premia ezagutzen dutenak;
- ekonomiarentzat, bertze guzien artetik, kooperatiben sistema hobesten dutenak;
- instituzioentzat, oso eskasa badirudi ere, Euskal Departamendu bat galdatzen dutenak.

Iheslariekin bat

1984-07-19

Euskaldun iheslariei buruz frantsesen jokabidea aldatu da, baina makurrerat, uztail honen seian. Orain arte ere alta ez zen bada hainbatekoa delako jokabidea, alabaina iheslariak lekutuak ziren Frantzia behere horietarat non ez ziren Panama-n trabes igorriak! Denbora berean bertze andana bat GALEkoek garbitzen zituztela, itxura guzien arabera, frantsesek emanikako xehetasun batzuen laguntzarekin. Gaur, frantsesak, bortiztuz doaz beren bide lotsagarrian: estradizio batzuen apailatzen hasiak baitira!

Nola behar dugu hau ulertu: sozialistak - Mitterrand buru - hor dabilta erakutsi nahiz libertatearen eta giza-eskubideen zaintzaile porrokatuak direla (ikus erreferendumaren iniziatiba) eta gero espaniarren aztaparretan ematerat abian dira, jakinki eta - Amnesty International-ek berak garbiki erranik - torturatuak direla han, kasu horretan atxilotzen dituztenak! Bada hor zerbait joaki ez denik! Ez, ez dugu eginen alegia ez jakinarena baitakigu ontsa zer gertatu den: Paris eta Madril berriz ere akomodatu direla euskaldunei ostiko baten emateko. Ondikotz, ez baita lehen aldia!

Gaur hartu behar dugu egoera berri honen neurria eta araberako ihardespena xutik ezarri, denborarik galdu gabe. Hazparneko bilkura ederrean erabaki izan den bezala: herrika, eskualdeka edo auzoen artean bil gaitzen ikusteko nola bermatu behar dugun. Iheslariak ere, beren aldetik, ager bitzate beren arrangurak eta minak larunbatean hasi duten bezala. Hazparnen baginen « kolore » guzietako abertzaleak. Iheslarien aterbetzaileek badakikegu ez dela xitxuketan aritzeko garaia; ez dugula baitezpada haien ideia guziekin ados izate beharrik geure laguntza ekartzeko. Iheslariak dira guretzat, askatasunerako bidean Euskal Herriko gazteriak daraman borroka biziaren seinaleak. Hori nahikoa izan bekigu.

Ikusi behar dugu hala ere, Hegoaldean gu baino indartsuago eta gogorrago direlaketz (Madril bera inarrosterainokoan) iheslarien gerizatzeak Iparraldeko giroa gogortzen duela, eta beraz bide hori ez doala joan den aste batez hemen berean gomendatzen genuen « zabaltze » haren alde. Ordea, ahal denetik jo behar dugu; nahi genukeen haren aipatzea beharrezko dagoelarik. Gaur ez bide da deus iheslarien laguntzea baino premiatsuagorik.

Europazaleak. Aste honetarik harat, Frantziatik Alemaniarat (eta alderantziz) iragan daiteke mugan gelditu gabe. Zer bidea egin dena 30 urtez! Doi-doia 39-45eko gerla bururatua zela gizon kartsu batzuk hasi ziren karraskan, bake bidez, Europa eraiki beharrez. Odoleraino alemanen herra sartua baitzen, askok ezinezkoa zeukaten haiekin baketzea, are ezinagokoa adiskidetzea! Alemanek, guri buruz, sentimendu ber-berak zituztelarik. Hots europazale zuhur batzuek orduan zabaldu utopia edo amets hura gaur burutzen ari da. Haiek estatuen batasuna bilatu zuten. Guri dago urrunago begiratzea: Herrialdeen Europa sustatzea. Estatuen adiskidetzen arizan direnak « baketiarrak » deitzen dituzte. Herrialdeak askatu eta elkarretaratu nahiz ari direnek ez ote dute izen eder hori bera merezi?

Nahasketa izigarria

1984-08-08

Berriz ere bazterrak samin ditugu Iparraldean, turismoa eta iheslariak direla eta. Zenbait herritan saltsa izigarria muntatu dute denak nahasiz eta zaku berean sartuz: iheslariak, lekuko abertzaleak, ikastolak, IK, ezkertiarak, euskaltzaleak eta... errota zilatzaileak! Mehatxu gordinen pean ezarri gaituzte guziak: errainak hautsi nahi lizkigukete! Duela hogeit bat urte turismoa azkarki emendatu zen hemen gainti, jendea trumilka baitzetorren hilabete osoarentzat ez bazen hogeit egunentzat bederen, bereziki uztail-abuztuetan. Herritarra iziturik etxean atxikiz, hamaiketarik iluntxeraino! Zenbaitek, beren egoitzak alokatu eta berak hantxe selauruan kasik. Kanpoan berriz, urrunetik ere, entzun zitekeen autoen burrunba etengabea, lazarri ere baitzen azkenean holako eraso, hantxe uzkuriturik ginduzkana larrazkenaren zain berriz elkarretartzeko geure artean.

Zernahi sail akuilatu da ordutik; batzuk frango onak euskaldungoari lotuak. Bertzeak ergelagoak, putakeriari zorrik ez dutenak omen. (Jende hiltzeko tresna egiten ari direnek ofizio ohoragarriagoa dutea?) Turismoaren emendatzearekin batera bigarren egoitzen oldeak ere jo gintuen, hau beti hari jarraitzen baitzaio, iduri ezean hark bezainbat edo gehiago arazo erakarrit. Abertzale mugimendua, orduan pizten ari zena, sutan jarri zen; hala segituz alabaina gure euskaldungoak ez zuen luzamena baizik.

Abertzaleen laguntzaile objektiboa izan zen krisia ekonomikoa eta bakantzen zatikatze hura. Holaxe turismo oste hura, argaldu zen laster. Hamabortz edo zortzi egunentzat etorritz erregularragoko eta kudeagarriagoko zerbatekin ginen 81eko uda etorri zitzaigunean; gaitzeko sasoina izan baitzen egundainokotan: langileriak eskuratu emendazioak arraiki xahutu baitzituen! Irriak sartuak ziren aldiz 82an eta 83an zinkurinak hasiak. 84koa bagenekien biziki txarra izanen zela. Lehenik GAL delakoaren hilketak Paristar kazetek nasaiki hedatu baitzituzten. Eta gero eraginkorrena: langabezia edo lanaren xuhurtzea, geroaren beldurra.

Aipatu nahasketa haren lagungarri egia da zoritxarrez gertatu dela Hegoaldean ere auto eta kamioi erretzen arizan direla arrantzaleen gatazka zorrotz hartan eta orain estradizioak gibelarazi beharrez. Baina nola ulertaraz -konprenitu nahi ez duenari bertzenaz ere -Hegoaldean, Frantziari direla jazartzen eta ez turismoari? Dela arrantzaleen eztabaidan, dela GALen sarrasketan gaur eroturik dabilen jende diruzaleak beti euskal abertzaleak dauzka makur guzien hobendun, diotelarik: « *Daudela geldirik eta ez ditu nehork nardatuko!* » (?) Turismoak, ez da ahortzi behar, zenbait bizitzekoa dakarrela, eta haienez hori dagoela lehen eta ez gure euskaldungoaren geroa. Hots, merkatua lehen ezartzen dute. Eta gero « bakoitza bereari lot bekio »: jakina, denbora nekeak ez dira elkartasun sustatzaile.

Erran dezagun hemen ere arrangura handiak direla geroari buruz, bertzetan bezala. Turismoaren inguruan zerbaiten egiterat entseatu diren batzuk hor daude ez jakin nola ordaindu beren maileguak. Ikusten dugu kexaldi handi baten jauzarazteko gaia bazela hor nasaiki errota zilatzaileak beren egintza guziz ondoriotsua gertatuko den horri lotu direnean. Haserreak bertan denak gaintitu ditu: zirikatzearen bortxaz soka hautsi da. Gaur ez dakigu nola bururatuko den auzia. Hala nola Urkide-ren erretzea biziki gogoetagarria zaigu.

Deitoragarriena dateke **denen nahastea**, hainbertze delarik gure artean errota zilatze horiek gaitzesten ditugunak. Haatik, ez badugu nahi haiek gu nahas gaitzaten, guk ere onartu beharko dugu kexu diren horietan badirela jende onak, turismoari fidatu direnak eta gaur enganaturik daudenak. Herriarentzat nahi EZ duguna adierazia zatekeen; nahi gure hura bide erditan dugularik. Jadanik errana genuen, hemen berean, itxura gehixago eman beharko zela turismoaren kontrako borroka horri. Gure herria ez bada mintzaldi ederrez euskaldunduko are gutiago egingen da eskuan duen ogitik kentzen bazaio ordainik eman gabe.

Galernak derauntso; bizi garelako marka gisa batez. Egintza emankor batzuez bagenihardetso?

Norat goaz ?

1984-09-06

Ez dugu arrangura eskasik aste honetan. Halere iheslarien egoera dateke denetarik kezkarriena, bereziki estradizio mehatxupean, gose eta egarri greban daudenena. Harrigarria da bertzenaz nola Paue-ko epaileek ez duten onartu jaukituen politikotasuna; leporatuak zaizkien egintzek berek eta Garaikoetxea Lehendakariaren erranek ere hori garbiki erakusten zutelarik alta! Harrigarria ere, nahiko froga ukanagatik, Paue-ko jujeek nola ez duten nehoiz aipatu Espainian torturarik badenetz ere! Ai estatal justizia garratza, pekoek jasan behar dutena! Indartsuek beti arrazoa; menperatuak isilik egoteko dretxoak eta leher-egitekoa. A! Bani Sadr edo Ayatollah Khomeiny izan balira gure iheslariak, bertze itxurarik luketela gaur!

Horrenbertze gertakarik ez digute eperik aski uzten bertze galdera bati buruz gogoetatzeko: zer nahi dugun xuxen Euskal Herriarentzat. Egunean egunekoari ihardesten diogu eta lanik aski! Eiki bada baitezpada sakondu behar genituzke geure bideak axaletik ibiltzeko orde. Burujabetasuna eskatzen dugunean eginahalako guzia galdatzeko ari garela iduri luke batzuetan, huts ala kausi. Halaber sozialismoa oihukatzean; bizkitartean Paris edo Madrilgo ereduak ez zaizkigu onak, are gutiago Europa ekialdekoak; zein beraz?

Nehor lorietan badago ipar Euskal Herrian, eskuin eta ezker muturrekoak dirateke; badukete orain non elkar ausiki. Itsuski hordagoka lotuak zaizkigu, Korsikan bezala. Hango egoera ez da haatik hain gutiziagarria. Korsikar herrizaleen kopuruak, moderatu eta erradikalak bildurik ere, horrenbertze zalapartaren buruan, ez badu %10eko hori doi-doiatarik baizik gainditzen, ez baitira beren xedeetarat heldurik! Bertzalde han ez dute abertzaleek eraiki lantegirik, etsaiatarik zaintzea eskatzen duenik...

Denbora ilunak ditugu zinez. Estatu handiek sekulako merkatuak darabiltzate herrialde ttikien bizkar! Artetik errateko zertan dago ote Mendebaldeko Zaharako herrialde gaizoa frantses, marokiar eta bertzeen tratuen erdian? Zertan dira ere Frantziak menean dauzkan herrialdeak? Nola ihardesten diote erdal erauntsiari? Beharrik hor ditugu argitzaile flandriarren bideak: gu bezala kulturak ditu bakarrik bereizten ingurukoengandik. Québec-ekoen borrokak ere anitz erakuts liezaguke; nahiz han erlejo arrazo batzuk ere badauzkaten kanadarrekin. Gure ustez, bi herrialde horien urratsak ikertu behar genituzke gu baino aitzinatuago direlaketz.

Batzuek uste dute iraultza giro bat sortaraz daitekeela: ez omen da bertze biderik. Moderatuagoko batzuen urratsak eragotziz badabiltza horien xede epelegiek nehorat ez ginderamazketelaketz. Gure ustez bada denbora bat jazartzeko baina ere noiztenka baratzen jakin behar litzateke ikusteko ea arbola inarrositik fruiturik jautsi ote duen. Haatik, lurrik hunki gabe xirtxikatzen badira delako fruituak ustel litezkeelakoan, ez gaude erreximenta dastaturik! Populu guztiek badute beren baitako zuhurtzia berezia, gordea batzuetan. Geure herria maite baldin badugu haren kezka gordeenak ere hautemanen ditugu. Gure helburuak onak direla sinesten badugu nolabait frogatuko eta onarraraziko ahal ditugu!

Guziaren zailtzeko ekonomiaren krisia ikaragarria; zer izerdiak lantegi xumeenaren eraikitzeke ere! Ohore bide horretan bermatzen direnei: **Hemen, Lana, Herrikoa, Kooperatibak** eta abar. Ez ditugu aski laguntzen. Sail horiek guziz garrantzizkoak dira abertzalegoarentzat (ezker muturrekoak utz ditzagun beren ametsekin). Hautetsien eta kargudunen higiaraztea, beharrezkoa da baina ez hor gelditzekotan. Defentsa ez da aski: geure geroa eraiki behar dugu doi-doia egiten hasia dugun bezala. Lanean buruz joka gaitezen, geure buruen jabe garela erakutsiz bertzalde. Iheslari anai-arrebak, horrenbertze ustelkeriren erdian iltzea bezain zuzen jarraitzen dute, hortzak tinkatuz, hoberena gogoan: badakite zer nahi duten eta araberrako jokabideari datxezkio, gostarik gusta. Zer erakaspena!

Irrintzi eta txalapartak

1984-10-11

Sozialistek eman izorraldiaren ondotik hortxe gaude erdi zozotuak bezala ez jakin norat berriz abia. Zernahiri prest geunden; horrenbertzeri ez haatik! Gizartea gaiztatzen ari dela dio kazetari adiskide batek, kexu-kexua. Hala baldin bada gaur erran dezakegu goraki buruzagietarik dela gaiztatzen ari. Badaiteke ondorioz, jende xehea ere ez den hobetzen ari: errespetu soberakinetik eskaserat doala derasate zenbaitek segurik; irakasleek beren ikasleak beti eta nekezago moldatzen; apez zenbaitek ere giristinoak ez direla lehenago bezain bil errexak; komertsantak arrangura, erosleak gero eta nardagarriagoak kausitzen; nagusiak ere negarrez, langileen bihurrikeriaz; eskribauak kezkatuak holako ausartziak eta askatasun egarriak ikusiz; burasoek ere alta badute zer erran beren hurrekin burutziarik ezin eginez. Hots, aitatxiren denborak egin du!

Ez dakigu kazetari langile horri zer gertatu zaion. Kazetaritza izan daitekeen lan zailenetarik da. Lanbide horretarik bizi behar duenak Euskal Herrian ez dauka aulki goxo bat aurkiturik. Sekulan baino gehiago kazetariei begira gaude, jendeen iritzia argi edo nahas baitezakete. Horiek guziak badakizki aspaldian bada. Euskal Herrian erantzukizun zerbait dutenek ez dute enoatzerik. Hori ere zerbait da. Hoberik ezean horrekin kontentatu beharko...

Hemen berean Aita Larzabalek zenbait aldiz errepikatua du, gizartea - arrainaren pare - burutik hasten dela usteltzen. Sozialisten jokabide izenik gabeak kolpatzen du bertutea eta hautetsigoa luzarako desohoratu dute. Eginbide zorrotza, alabaina, hautetsiarena: gorago izan eta zailagoa dena gainerat, aitortzen dugu. Lehendakariak behar du gidatu sudurretik erabili gabe; manatu bortxatu gabe; kudeatu sobera maneiatu gabe; larderia atxiki mehatxatu gabe. Eta bereziki hitzekoa izan... Hots, errespetua merezitu.

Sozialistak ere beraz, bertze askoren ondotik, traidoreen herronkan sartu dira. Badugu holako bat ikusirik: De Gaulle-k zer egin zuen Aljeria uztean? Wilson laboristak langileen aldekoak (?) jarri zituen lege batzuk Britainia Handian greben mugatzeko! Ikus langile batzuen egoera « langilieriaren izenean » gobernatzen duten « demokrazia » zenbaitetan. Ikus PSOE bere lehenagoko EAJ adiskideari buruz. Ikus Destrade abertzaleen bozekin iragan dena, eta abar. Azkenean jendea okaztatua bada ez da hor harritzekorik. Alderantzizkoa litzateke lotsagarri!

Guk diogu errespetua merezitzen dela. Funtsean denak ohartuak dira demokraziari ostiko bat ederra eman izan zaiola hor eta zuzengabekeria bat egina Euskal Herriari. Egitate hori txalotu dutenetan ere badira frango arras ongi ikusi dutenak, ez baitira fierregi, jazarkunde baten beldurrean daudela. Iduri luke, Euskal Herriko gehiengoak, mafia batek isiltasunean daukala! Zenbat dira hautetsi eta kargudun estradizioak zinez salatu dituztenak? Ala, ba ote dira izorratze onak? (Adibidez De Gaulle-k egin zuena Aljerian; bada hor gogoetatzekoa...) Bertzalde zenbat gazte - horrek baitigu min egiten - isilik daudenak lana gal edo ez kausi beldurrez. Mintzatu direnen merezimendua handia da.

Etsaiek, beretik segitzeko gogoak dutela dirudi: Tomas Linaza bahitu digute eta Mitterrand heldu Baionarat oñoñak sakelan bistan da: trufa baino musika handiago! Egina zaigun laidoaren itzala hodeiak bezala zabaltzen ari da. Irrintzi eta txalapartak sumatzen ditugu mendi tontorretik. Ez da aiduru egoteko ordua: goiti joatekoa baizik. Ez da irriskurik gabeko ibilaldia mendi xut horri lotzea. Alta bada, nolabait, noizbait, ikurrina gailurrean finkatu behar dugu.

Mintzaira berritu

1984-11-01

Berrikitan, Herrikoa-ren kanpainaren karietarat, Patxi Noblia-k kontu interesgarri batzuk salatzen zizkigun. Larri larria, ipar Euskal Herrian larogeita hamar mila familia badaude eta horietarik: hogeita hamar milek irabazten dute, urtekal, 100.000 eta 200.000 libera arte horretan. Bertze hamar milek irabazten dutelarik 200.000 eta 800.000 libera arte horretan.

Xifre horiek oharpen bat bederen merezi dute: Iparraldeko jendetzearen parte handi bat, erditsua nonbait han, ongi bizi dela; gutienetik, ez dela gabezia. Abertzaleek maiz aipu ditugu behartsuak, gazteak, langabeak, bizitegi gabeak, iheslariak eta abar. Zuzen da. Baina horrela ez ote da ere adierazten minoria ttiki bat aiseria handitan bizi dela, egia dena, bertze guziak gabezia gorrian liratekeelarik, ez baita arras egia! Heren munduan, hala da: gosetea karraskan emendatzen ari baita batzuk aberasten direnean. Baina hemen ez gara oraino arras horretan.

Duela 20 bat urte mundua hoberat zihoala iduri zuen. Gaur berriz herri aberatsen eta erromesen arteko leizea emendatzen ari dela diogu. Gehiago dena ez dugu ikusten gaurko tresna berrien bidez nola xuxenduko diren gauzak. Ez baitugu uste tresneria askiko denik, **berez**, gosetea bentzutzeko, zuzentasuna hedatzeko. Gaur erran nahi duguna da ipar Euskal Herriko jendearen erditsuak bizimaila ona duela; nahiz, zenbaitek lanean azkarki ariz! Eta doi bateko ontsazia duten horiei buruz ere joan behar genukeela gehiago abertzaleek, zabaldu behar baitugu mugimendua, elkartasuna sustatuz gehiengorat heltzeko. Gure borroka lehenik kulturala delakotz, bilduko ahal ditugu gureganat erdi mailako jendeak! Xuxenez lanaren ondotik dabilen pertsona baino errexkiago etorri behar lukete: lanbila dabilena, kulturaz baino kezkatuago baita bizipidearen segurtatzeaz...

Lana duena aldiz, bere behar ordu larrienak doi bat sosegatu ondoan itzul daiteke kulturari buruz. Bistan da nahiago genukeela bertzerik, denak euskaldun hatsarekin bizi, goiz arrats! Hobe oraino abertzalegoa denen esperantza handia balitz! Dakusagun, ez garela oraino horretaratuak, bidean baizik. Onar dezagun, behingoan, bizi profesionalaren aldean bertze bizi kulturalagoko bat ukan dezakegula etxean, lan arte eta pausuko egunetan, nahiz eta helburua bertzerik izan.

Klase borroka aipatzen dutenek ezartzen dituzte alde batetik manatzaile jabe handiak eta bertzetik manatuak eta deus guti dutenak. Gaur, Euskal Herrian, bierarteko klasea kasik gehiengoa datekeena ikusiz, bertze sailkapen bat datorkigu bururat, jendeen sailkatzea guziz higuin dugun arren, bakoitzean denetarik baitago. Gehiengo bat, bere geroaz arduratzen dena bakarrik eta hor bada frangantzian bizi denik, bada ere langile soilik. Bigarren andanan daude beren sudurra baino haratzago begiratzen dakitenak; batzuen eta bertzeen arteko maila urrunegiak hurbildu nahi lituzketenak. Hemen dauzkagu ongi irabazten duten zenbait eta langile soil parrasta bat.

Egia da Iparraldeko bospasei ehun abertzalek, Hegoaldeko indarrari finkatuz, bazter guziak berei so atxiki dituztela estradizioen karietarat; ez baita beharbada horrenbertzerik hemen behin ere ikusi. Iparraldekotzat ez da gaizki. Kartsuki bermatu behar dugu aitzina. Baina ontsazia doi bat gozatzen duten horiei ez dugu erran behar Aljeriako fellah haien kasuan garela, ekonomikoki bederen. **Mintzaira berritu** behar genukeela dirudi. Jende xehea bera ere, bujess-tiki moldeak hartu nahiz dabil. Ez ditugu utzi behar loerian kokatzerat. Horiek guziak gabe nola eraiki gure herria?

Itxaropen eta oinarri bila

1984-11-22

Joan den larunbatean, Euskaltzaleen Biltzarrak bere urteko Eguna ospatu du Gerezietan. Harekin batera « Herria » kazetak ere bere 40garren urteburua markatu nahi ukan du. « Biez bat » eginik, besta bat ezinago goxoa izan da, urruntxago eginen ditugun oharpentxo guziengatik. Euskaltzaleen Biltzarra eta Herria kazeta elkarri arras hurbil dabilta gizonen eta ideologiaz, nahiz bakoitzak bere nortasuna eta historio luze bezain aberatsa badaukan. Euskaltzaleen Biltzarra, hemengo batasunetan zaharrena da eta haren historia ikertzen ari digu Manex Goihenetxek. Ez da oraingoa « Herria » ere; ez ote da « Eskualduna »ren ondorea? Gerla ondoko haustura eta orduan Piarres Lafittek eman zion berrialdia batere ukatu gabe. Egia da haatik Herria beti apezen eskuetan egon dela; Euskaltzaleen Biltzarrak aldiz, aspaldian lehendakari laikoak dituelarik. Baina hori ez da beharbada oinarrizko desberdintasuna.

Sekulako erasoak jasan dituzte biek abertzaleengandik (bereziki Euskaltzaleen Biltzarrak) mantsokiegi zebiltzalakotz! Zahar gazteen arteko eztabaida? Hor ere bidearen erdia ez du nehork egin nahi ukan: zaharrak berean tematu dira, gazteak berriz gogortzen zirelarik eta bere-ber abiatzen. Holaxe, batzuk eta bertzeak, bide puska bat eginik bakoitzak bere alde, iduri luke leize haren gainetik zubixka batzuk ezarri nahiz ari direla. Mutur saltsari, bortzekoak nagusitzen ari zaizkiola. Herriaren aldeko guzien beharra dugu eta gure kezka hau da: ezkerrean eta eskuinean egiten den lanaren bilduma nola egin? Lan horien guzien meta, nehork uste duen baino handiagoa eta aberatsagoa dena, herriak ikus dezan?

Gerezietako egunean halako esperantza eskas bat bezala hauteman dugu. Agertzen direnak ez dira lotsatuak eta beren sailei jarraikitzeotan direla argi eta garbi ageri da. Beharrik! 1955ean ere Euskaltzaleen Biltzarra ospatu zen Lekornen eta ordukotz hasiak ziren, aldizka, solas baikor eta ezkorrak (biziaren idurirat?). Aurten erran da haurretan euskara ahulduz doala eta ere 1955ean lekondar guziek baldin bazekiten euskaraz, gaur ez daitekeela horrenbertzerik erran! Bi soinu latz horien ondotik ez ote zen agertzen ahalko, adibidez, bigarren mailako ikastoletako batzuk, bihar baxoa euskaraz iragaiterat doazenak? Zertako ez aipa ere Kanbon bigarren mailak lortu dituen ondorio guziz goresgarriak, Bordeleko Errektoreak berak laudatutakoak?

Enbatan egia maite dugu; garratza denean ere agertu behar dela daukagu. Ordea - eta adiskideki diogu - Seaskakoak lehenago ere Euskaltzaleen Biltzarrean mintzatu baitira, hodei beltzen ondotik ez ote zen hor irrintzi polit baten botatzeko aukerarik? Damurik, ez baititugu entzun ikastolen arazoak baizik egundainokotan! (Garraioaz). Eiki bada dantzari haiek ere ez zutena atzematen ahal txistulari bat, Bizkaiko Dantzari Dantza akordeoiaz emateko partez? Harrigarria zaigu; zenbaitentzat segurik ezin onetsia. Euskal Dantzarien Biltzarrean ez dugu behin ere holakorik ikusi eta ez agian ikusiko ere.

Oharpen handi bat egin nahi genuke hemen. Dantzari guzien batasuna aipu da; pausu zenbait ere jartzen hasiak dira. Hobe segur. Baina kasu egin behar dugu zer ari garen. Sozialistak ere ari zaizkigu sorkuntza sustatu behar dela; errotik alde hor ere baina kasu iritzi horiek ez dituzte airerat botatzen... Guk diogu gaur eta askatasun bidean gabiltzalarik (eta ez askatasunerat helduak): ohitura mailan gure ekintza hoberenak eta indartsuenak diratekeela gure ohiko dantzak EDBk gomendatzen dituen bezala, beren jatortasun osoan emanak direlarik. Ez nahas otoi sorkuntza eta ohituragintza. Halaber hizkuntza mailan: jendeak bere-berea daukan euskara hura eraginkorrago dateke euskara berriegia baino. Kreatzioa bai, baina jadanik ditugunen biltzearen eta ikastearen orde ez! Horien gainerat bakarrik. Geure herrian ez ditugu oraino geure erroak aski ezagutzen. Haiei lotu behar dugu gaur lehen lehenik.

Arrasateko izarrari jarraiki

1984-12-13

Aterabiderik, behingoan bederen, ikusten ez diogun krisia edo aldakuntza denbora batean sartuak gara. Ezkerrekoek ala eskuinekoek gehienik aipatzen duketen sendabidea modernizatzea dateke; bereziki informatika, robotika eta holako tresna berrien bidez. Garbiki ez badigute aitortzen ere japonesezko erreduari jarraiki nahi litzaizkioke. Modernizazio hori bidean da. Gaurkoan hasteko lehen ondorioak beti berak ditu: langile gutiagorekin lan bera egin, erran nahi baita langile asko lanik gabe uzten dituela. Holaxe, pirka pirka, hauen lerroa itsuski luzatzen ari da, oste ikaragarri bat hortxe ari da muntatzen, ikaratzekoa ematen dizula. Aberats berriak ezagutzen genituen; hona orain erromes berriak: hau izena!

Iparraldeko hiri gotorretan 2.000 eta zenbait jadanik kondatuak dituzte. Espantu, furruria eta aurkikuntza miresgarri guzien ondotik haxe dugu beraz fruitu kiretsa. Nolaz horretaratu gara? Geure historia luzeak ez gintuena bada argitzen ahal bide zakar horietarik berriz ere pasarazi gabe? Gehenik, jende xeheak, haxe ikusten duke larri-larria: eskuina boterean denean, haren trabatzerat entseatzen dela ezkerre. Hauteskondeen alderdi higuina alabaina zu iragaitekotz bertzearen kontuak ahal bezain txarrak izatea hobe. Gaur beraz alderantziz gertatzen da: eskuina bere ahal guziez ari da ezkerre nola eragotziko duen, ez baitu barkatuko naski erreka zola joaraziko dion arte!

Joko politiko triste horren ondorioak langileriak pekatu behar ditu lehenik eta gero haien inguruan bizi direnek heldu baita, gutiz gehienek, zeinek gehiago, zeinek gutiago. Orroaz sumatzen ditugu zenbaitzuk: « *Ez da hori joko politikoaren falta, kapitalismoarena baizik!* » Ez da dena gezurra eta errexi onar genezake ez bagenu, bide berez, ontzat hartzen sistema komunista, hura baita - jakina - kapitalismoaren alternatiba munduan zehar. Ez ditugu ukatuko komunistek egin dituzten lan batzuk, hala nola Txinan gosetearen bentsutzea, auzoan (Indian) gabezia gorriak non-nahi dirauelarik. Baina Txinan eta Errusian nolako sistemaren azpian daude? Zertan diren ere nork daki xuxen? Halere harrigarriena ez ote da gosetearen garaitzeko bederen (eta ez da guti) gai geneukan sistema komunista hori Mozambikan eta Etiopian, adibidez, ez daitekeela hel denen behar den bezala hazterat? Badaiteke ez ditugun aski ezagutzen herrialde horiek jokatzeke; hala ere bistakoa ezin ukatua da.

Zer nahi dela aspaldikoa da gure sinestea: ez kapitalismo hutsa ez eta komunismo estatal hura ez zaizkigu on geure herriarentzat. **Autogestioa** hobeki doakigukeela daukagu bai historiaren erakaspenei begiratuz bai gaurko gazteen gogoa ikusi ondoan. Euskal borrokarentzat ez da izan zitekeen girorik hoberena gaurkoa. Gure helburuek ausartzia izpi bat eskatzen dute eta krisia garaiak ez dira ausartziarako lehenak. Begira diezaiegun behere horietako gazte zenbaiti, ez ote dira arrunt mantsotuak, izituak, uzurtuak, lanik kausituko ez dutelako beldurrez? Urrun dela 1968ko frangantzia denboretako iraultza hura! Aipatzen ere ote du norbaitek oraino?

Baina ere krisia denbora honek erakutsi diezaguke, denak estatutik edo bertzerengandik igurikatzeko orde, hoberena dukegula guhaurk geure geroa eskuetan hartzea, gostarik gosta. Ekonomia mailan, kooperatiben mugimenduari jarraitzen zaizkio honaindiko gazte erneenak. Batzuek diote autogestioak ez dezakeela iraun ingurumen kapitalista batean. Ez dakigu bada: Arrasaten, duela zenbait urte jaiki zen izarrak dirdiratzeko du ederki... Bertzalde, itzal gabeko sistematan ez baitugu sinesterik izar horri jarraitzeaz baino bide hoberik ez dugu ikusten, nehon eta nehoiz baino atzarriago dagoen gure gazteriantzat.

Gure kasu berezia

1985-01-04

Urte berrian sartuak gara. Zaharra bere on eta txarrez mukuru beterik joan egin zaigu. Askotan errana dugu bihurgune batean gaudela; beti egia dateke. Errankizunak dio: « *Egiak kantoia zorrotz du* ». Hala da: egiak min egiten du. Abertzaleen egiek ere min egiten dute eta nehoiz baino gaizkiago ikusiak gara baina halere euskal arazoa urratsez urrats beti aitzina doake. Deskolonizatzea eta autodeterminazioa goiz arrats aipu dizkigute, Kaledoniarentzat bai eta ere ipar Euskal Herriarentzat! Bi oharpentxo egin nahi genituzke gai horietaz, soilik geure xedeen aitzinaraztea dugularik gogoan.

Zenbat aldiz ez dugu errepikatua nehor ez dela egia osoaren jabe, bakoitza egia zati batekin gabiltzala. Gehiago dena segurtasuna handiago eta egiaren zatia tikiago. Bertzalde, egia garbiegiak bertze muturrean ukan dezake aurkaria, aurkiak ifrentzua duen bezala, berdin egia hura ere. Gure egia zati horren zabaltzeko ez da bide bat baizik: bertzeen ideiak ere entzutea, ulertzerat entseatzea. Bertzeak kontutan hartuago eta zabalago gabiltza. Irriskua haxe litzatekeelarik: sobera bertzeari hurbiltzean, gure berezitasuna galtzea...

Guk uste dugu bertzeari hurbiltzea bezain beharrezkoa dugula guharen iritziak sakontzea. Gure eskaerak egiaren edo egia zatiaren pare dira. Baina nahi badugu eraginkorrak izan daitezen ez ote lukete eskaera horiek izan behar lehenik ahalezkoak edo bederen jendeak ahalezkotzat edo egingarritzat leuzkakeenak? Denbora berean etsaiari lotkia ken geniezaiokeelarik...

Kaledonia egiazko kolonia bat dela ez dago hor dudarik. Nornahik onar dezake hori. Euskal Herria ere hala da gisa batez, baina kasu ideia hori atxiki nahi badugu, onartu beharko dugu Frantzia gehientsua Pariseren kolonia bat dela. Ordea, Frantzia egiazko inperioa da ala estatu erdirakoi osoki zentralizatu bat? (Ikus, bertzeak bertze, Gravier jaunaren liburua: « *Paris et le désert français* ») Eta beraz gure kasuan kolonia kontzeptu hori osoki xuxena ote da? Ez dakigukea errexkiegi ihardets gaur Pariseren kolonia baldin bagara bihar berdin Lixantzu Bilboren edo Baionaren kolonia izan litekeela eta non litzatekeen hor probetxua? Ez ote genuke hobe geure herriaren kasu berezia hobeki aztertzea, geure solasak ahal bezain argiak eta gure goerari xuxen doazkionak azaltzeko, konpareketa landugabeak baztertuz?

Alta autodeterminazioak ere sekulako gogoetak sortzen dizkigu. Iparraldean segurik (nahiz irrisku limarrik ere ez dugun) hitzean har bagintzate ederki izorratuak baikinake! Eta Hegoaldean ere alta gaur proposa balekie, EAJko « marroak buruka » ari diren honetan... Konstituzioari EZ erratea baino zailago bailitzateke, dena aldatzen ahal lukeen « *Euskadi bere gain nahi dut* » bozkatzea. Ikus Québec-en.

Duela bizpalau urte abertzaleen artean aipatu zen behar zela referendum baten bidez galdatu Euskal Departamendu bat euskararen estatutu batekin. Ezetz ozen batez ihardetsi zen euskararen zalantzan emateari: herri baten oinarritzko eskubideak ez baitira hautesgarriak, ezin alienatuzkoak baizik. Baina nola egin autodeterminaziotik pasatu gabe? Arazoa litzateke nork lukeen hor bozkatzeko eskubidea: euskaldunek bakarrik boza eman lezaketela, kanakiarrek gaur nahi luketen bezala? Baina gu nola bereizi, izenetik? Mintzairatik? Sorlekutik? Bizilekutik? Lanbidetik? Norbaitek irri egin dezake gure solasari, urrunegi begiratzen dugulakotz. Gure kezka bakarra da gure kasu berezia ahal bezain barna lantzea herri iritzia hunkitzeko gisan.

Euskadi euskalduna

1985-01-24

« *Gizonak gizona balio du* » dio euskal errankizunak. Baina historian zehar ikusten dugu egundainotik uste izan dela gizonak gizona menperatu behar zuela berak bizitzekotan! Ildo horretarik herri batzuek bertze herri batzuen menpean atxikitzeke lehia. Amets hutsa ote da aldarrikatzea, ez bertzea lehertuz, baina bertzearen laguntzarekin baizik ez gaitezkeela bizi?

Elkar laguntzearen beharra ukan dugu maiz Euskal Herrian ere: dela eurite, uholde, elurte; ahantzi gabe 1967ko lurrikara, Zuberoan bereziki. Holako kasuetan agertzen dira batetik baliatzaile piltzar batzuk merkataritza desohoratzen dutenak eta bertzetik erosle kaskar batzuk, dena pretentzio herrietako saltegi ttikietan bertze orduz zangorik ere sartzen ez dutenak! Halere, gure ustez, elkartasunezko urratsak anitzez nagusitzen dira kinka gaizto horietan; zenbat eskukaldi eta laguntza ez da egiten elkarri? Kasik iduri luke, holakoetan, ametsetan baizik lortzen ez den laguntasunezko gizarte hartan garela: denek ahal duten guzia egin nahi elkarren sustengatzeko! Noiz ohartuko gara destorbu batek joa dela gure Euskal Herria ere aspaldiko urteetan eta arabera auzolana eskatuko lukeela?

Zenbaitek hala erranik ere, ez da Enbata kritika antzuetan laketzen; isilik egoten ere badaki, onak dauzkanen agertzeko ez delarik ahalke eskuinetik badatozkio ere. Hala nola Eusko Jaurlaritzaz; aipatu izan ditugu, bertzeak bertze, Iparralderaino hedatu dituen kultura laguntza preziazgarriak. Zitzako batzuk ere igorri dizkiogula, hala da, beharrezko geneukalarik. Geure lana egin behar dugu, geure sailari jarraiki: lausengari eta ferekatzaileak, ez kexa haientzat, izanen da haietarik nahikoa! Baina egia da askotan isilik egotea hautatu dugula; kontutan harturik bereziki gobernatzea dela maiz ahal denaren egitea eta ez nahi litzatekeenaren.

Gaur, haatik, ezin isilik egonak hartu gaitu. Haste hastetik salatua genuen, Estatutuaren botere eskasa baino gehiago Nafarroaren barne ez izatea eta barne ez izatea baino gehiago oraino barne izateko egin ez diren ahaleginak. Guziengatik, iduri zuen, Eusko Jaurlaritza Gasteizen jarritz eta nafar bat ezarritz buru, Nafarroarekilako zubi guziak ez zirela hautsiak. Oi iratzartze dorpea! Ilun ikusten dugu geroa. Hainbertzetan goretsi dugun bizkaitarren kemenak gaur izitzen gaitu: bizkaikeria bilakatu behar balitz zer zorigaitza! PSOErekin egiten ari diren akordioa gibelka doan urrats bat dela daukagu. Egun hauetako sondaia batek alderdi abertzaleak goiti eta espainolistak beheiti doazela dioskunean, ez ote da biderik txarrena hautatu?

Artetik errateko, Québec-etik ere, bada, berri hitsak ditugu: nazionalistak zatitu dira bi andanatan, hauetarik batek burujabetasunaren bilatzeari uko egiten diola. Deskolonizatze eta askatasun borroka, horra hor berehala agortuko ez diren gai batzuk. Gu, horien bihotz bihotzean aurkituko gara luzaz, guzien artean dugula arazo berezia bezain zaila geure mintzairaren arazoa. Eusko Jaurlaritza berria PSOErekin uztartzean legegintzaldi baterako kezkatsu egon gaitezke euskararentzat: PSOE betitik errotik antieuskalduna izan baita.

Erromanoek hasi zuten gure menperatzea, ihardukitze bat sortuz, ondorioz Nafarroako erresuma eraikiko duena. Baina errege nafarrek euskararen amodiorik erakutsi dutea? Aise geroago Zuberoako eta Lapurdiko Biltzar famatuek berek ere zenbat lagundu dute euskara? Horrengatik, are ohargarriago bilakatzen zaigu, mendez mende, gure herriko jendeak, ezin esplikatuzko kalipu miresgarri batekin, begiratu duen euskalduntasuna. Azkenean ez ote da hor gure funtsezko sustrai guzia? Halere jakin dezagun ihardukitzea ez dela askiko eta egiazko euskal botererik gabe ez dugula luzaz irauten ahalko euskaldun.

Zaharrek berri

1985-02-14

Baionatik Pauerauko autobidea finkatuxea dateke azkenean! Kazetari batek segidan: « *Departamenduaren batasuna begiratua da!* » Harritzeko da, haatik, beti gauza beren errepikatzerat behartzen gaituztela. Oraino ere sinetsarazi nahi ligukete Euskal Departamenduzaleek Pauerekilako harremanak moztu nahi genituzkeela! Zer ilarra, zer erokeria; negar egingarri ez denetz... Biarnesak gure ahaide hurbilak ditugu; beren nortasun eta kulturaren jabe dira; elkar lagundu behar dugu, baina bakoitza bere etxean nagusi dagoela, horra!

Bertze batzuek berriz, berrikitan, atera digute zer ekar lezakeen departamendu berriak, baldin eta hautesiak betiko berak badira... Guk diogu, euskaldun gazte askok ez dutela gogo mikorik Pauerat abiatzeko euskaldunen dretxoan zaintzerat, han beti minoria bat baizik ez baikara izanen. Bertze karrik baluketelarik auzi guzia hemen balitz Baionan. Eta behingoa hautetsi guti atera baledi ere gutartetik, hitz dizuegu aldaketa ederrik ikus genezakeela geure ohiko hautetsien aho-mihi eta urratsetan, biziki hurbilagotik segituko baikenituzke, aipatuz eta zabalduz egin beharreko guziak, dinamika bat sortuz horrela.

Seaska diru arazo larrietan dabilkigu berriz ere. Martin errektoreak laudatu badu ere horko irakaskuntza, Hezkuntza Nazionalak ez omen ditu oraino eskuratuak Mitterrand-ek hitzemanak... Guk, Iparraldean, zerbait atxiki behar baldin badugu xutik, gostarik gosta, Seaska da. Agian diru laguntza baten lortzeak, ez ahal ditu zenbait buraso laxatuko batetik eta bertzetik lerraraziko ustekeriarat: hainbertze diru kinka larri baduelakotz Seaskak gainditurik beti horrela izanen dela! Egoera ekonomiko latza izanagatik alde guzietarik, beharko dugu Seaska zaindu.

Kaledonia Berrian independentisten eta kaldoxen arteko tira-birak hurbiletik segitzen ditugu. Indarrez berdintsu dirateke; ez da ageri norat itzulikatuko den errota datozen hilabeteetan. Indarren oreka hori ohargarria da, zeren, guk ere Iparraldean (ala Hegoaldean ere?) egoera bertsuak ikus baikenitzake noizbait. Gogoetagarria beraz. Desberdintasun asko bada gure kasuaren eta Kaledoniakoaren artean. Bertzeak bertze, uhartetasuna eta egoera ekonomiko oso koloniala han. Baina han 130 urtetako kolonialismoa dute bakarrik (...)

Haizu izan bekigu pentsatzea, haatik, lur ebaste eta menperatze guzien artetik zerbait aitzinamendu ere eraman duketela frantsesek uharte urrun hartarat: jakintza, medikuntza, teknika eta abar. Eta herrialde ttiki izateak, handiagoko baten babes (?) eskatzen dukeelakotz ez ote da hortik heldu kanakiar batzuen uzkurtasuna burujabetasunari buruz? Iparraldeko uzkurtasuna berriz dator estatu bati josiak garela aspalditik eta barnean kasik urtuak gauzkala, eta bertzetik, adinekoek bereziki, ez dutela espainol kutsurik ikusi nahi ere. Hots, Hegoaldekoen « azala » espainolegia zaieke; eta « barnea » euskaldunegia. (...)

Alderdi handietarik kanpo salbamenik ez. Hala dirudi segurik, Pierre Juquin edo Karlos Garaikoetxea ikusten direlarik. Batak ala bertzeak ez ote lukete bada aski arrazoi eta kemen alderdi berri baten eraikitze? Batak ala bertzeak ikasi dukete azken denbora hauetan hola bereizi direnak - ezkerreko gaulistak, Sabinozaleak eta abar - zein nekez dabilztan. Alta ez da dudarik bereizi diren horiek ez zutela nortasun eskasik. Gero eta gehiago alderdi handiei buruz itzultzen da jendea eta alderdi ttikientzat etorkizun murrizta dakusagu. Demokrazia irabazle aterako den, hori haatik nork erran dezake?

Euskadi baitan sinetsi

1985-03-28

Oroit gara geure sorterrian, duela 30 bat urte, bagenuela Xarlo Xuxu deitu gizagaizo bat, egiazko gaizoa. Igandetako mezarat heldu zen bere eskalapoi handiekin; haren elizan sartzea ez baitzen oharkabean iragaiten! Zenbaitek kitzikatzen bazuten ere, maitatua zen eta nehoiz mezan ez ikustea gertatzen bazen segur etxean baten batek ohartaraziko zuela: « *To, Xarlo Xuxu ez diagu ikusi mezan!* » Orain aldiz frangotan auzokoa zer ari den ere ez da kasurik egiten. Halere, gure gizartea doi bat endurtua zela ezin uka: kanpotikako erasoek horretaratua baitzuten bertze edozein gizarte langiletsu bezalaxe. Bere bizimoldeari artoski jarraikiz zebilen; jokabide tinko eta gogor horretan finkatzen zuela bere biziraupena.

Gizarte hertsiegia, salatua batzuetan, hartzen genituela lekuko, Euskal Herritik urrundu batzuek egiten zituzten balentriak Ameriketan edo, herrian egon baziren eginen ez zituztenak. Gizarte dorpea ere beharbada, baina bakoitzari bere tokia ematen ziona! Bakoitzari bere eremu hartan murgiltzea aski zitzaionlarik gehienetan (salbuespen batzuk kausiturik ere, guk ukatuko ez ditugunak!). Gizarte ahal bezalakoa beharbada baina bere norabidea zeukana!

Bi galerna motek jo dute, botere babesle baten faltaz herabeturik zegoen herria, bere ohitura garrantzizkoenak zapartaraziz. Aldaketa materialak lehenik: Erdi Aroko edo halatsuko moldeekin bizi zen arrantzale-artzain-laborari gizarte batek « irentsi » behar ukan ditu hainbertze teknika berri, laneko eta bizitzeko moldeak itzulipurdikatzen zizkiola! Eta ez da aherentzi behar orain atean joka ari zaigun informatika liluragarria (?). Pentsamoldeez are gehiago erran genezake: guziz ondoriotsuak izan baitira! Telebista, auto, telefono, ezkondu gabe bizitze, apezgo uzte, udatiarren uholde eta abar. Horiek guziak 40 urte barne ez ote da zernahi? Ba ote da harritzekorik, bere hari hain atxikia zegoen gizarteak iduri baldin badu gaur ekaitzak eta belatxak desbideratu uso pasaia, etsaiaren saretarat zuzen zuzena doan hura?

Eta horien guzien gainerat hona non piztu nahi dugun abertzalegoa (Iparraldeaz ari gara). Parisek izorratzen gaituela? Zoaz zu norbaiti erraterat bere adiskidetzat daukanak izorratzen duela, gezurti batentzat hartuko zaitu lehenik eta gero egiaztatu ondoan ere ez dizu berehalakoan aitorturik egia zenlotsola! Ez ote zaigu holako zerbait gertatzen abertzaleei, guhaurk egiten ditugun belatx-lan batzuk laguntzaile?

Minen pean dugula geure herria, ezin uka. Delako hertsikeria hura, halarik ere, argi izan bedi, neurri batekoa izan dela, zeren gure arbasoek jakin baitute, mendeetan zehar, gizarteari egokitzen. Bertzela, munduan gaindi ikus ditzakegun populu baztertu, ñaurtu eta narriotsu bat ginatekeen gaur! Eta orain holako inarrosaldia jasaten duen herriarentzat sendagailuak zeintzuk genituzke? Berreuskalduntzea eta sozialismoa. Zein euskalduntze: euskara soilak beteko ote ditu ohitura batzuen xirtxikatzeak egin ziloak? Eta gogoetagarriagoa dena: zein sozialismo? Denen hausterat abian litzatekeen gazte sutsuarentzat arazorik ez dateke. Gutiago mintzo den baina gehiago dakien helduarentzat galdera kezkagarria hori egundainokotan.

Etsaiaren tema biguina gainerat, azen ontzeko. Joan den larunbatean egin duena lekuko, muga iragaiterat ez dietelarik utzi EAJkoei. Aitzineko astean, Euskal Kultur Etxean frantses nazioaren (?) hedadurako bat ezarri behar zela hor buru: hau bada zerbait! Eta orain berriz, geure hilak ere ez ditugula ohoratzen ahal nahi bezala! Nola ateratu behar dugun bada? Lehen lehenik sinetsiz Euskadi baitan. Sinesteko, arrazoiak behar dira objektiboak eta subjektiboak. Haien sortzen, lantzen, eta finkatzen jarraitu behar dugu.

Buru bezainbat aburu

1985-04-18

Urez haraindian Frantses inperioak menpean dauzkan populuak, beren artean elkartu nahiz badabiltza: kanakiar, martinikar eta bertze, Parisen jarririk biltokia. Biziki interesgarri litzateke jakitea ea « Frantzian » berean menperaturik dauden herrialdeak gomiatu dituzten. Adibidez, kanakiarrekin bat gaude baina haiek gurekin zertan dira? Hark edo honek erran diezagukeenaz bertzalde, kanakiarrentzat haraindian egia dena honaindian ere hala ote da beti? Badirudi haatik « Frantziakoek », guhaurk ere geure artean zerbait egin behar genukeela, bertze indarrak har baikenezake.

Flandriar senatari batek atera digu aitzin horretan: « *Guk ez dugu borroka armatuaren beharrik, gehiengo badugu eta* ». Maioria ukanez gero ez bada borroka armatu beharrik, zer arraio ari dira bada Hegoaldean? Ez ote dute han gehiengo nasaia Espainiako konstituzioa bozkatu ez dutenaz gero, mila aldiz errepikatua? Ala Estatutua eta EAJk PSOErekin hitzarmena finkatuz gero ez da gehiago abertzale gehiengorik? To, euskaldun, okzitaniar, katalan eta bertze abertzaleen xedeak gehiengorat heldu arte borroka armatuak iraun behar badu, demontrea, ez gaituk buruan! Dudarik ez da Frantzia eta Espainia ez direla Belgika! Estradituen auziak oroitaraziko digu ongisko, baldin ahanzterat bagindoazen... Halere ahapaldi horretan badateke bi gogoetaren gaia.

Polita atera digu bertze lagun batek ere joan den astean Enbatan: « *Duela bizpahiru aste Eusko Jaurlaritza lurra baino beherago ezarri duzue eta gero hauek Agirreren omendatzerat zihoazela muga eragotzi dituztelarik, haien defentsa hartu duzue; ez zarete logikoak: loriatu beharko zenuketen! Gehiago dena, pasatu balira, haiekin Eusko Gudariak abestuko zenuten hantxe Lehendakari zenaren inguruan bat eginik.* » Aspaldi du holakoak entzuten ditugula. Ihardespentzat hauxe erran genezake: ezagutu dugu familia euskaldun bat, ahaidekian, nortasun eskasik ez zuena, 14 haurride, denak bata bertzea bezainbat, eleketari nasaia, gogorak ere batzuetan. Zenbait aldiz elkarren artean sekulako eztabaidak zituzten, iduri elkar jan behar zutela... Baina kanpotik sar zezala norbaitek haien artean sudurrik, atetik sartu bazen, leihotik jalgitzea ere gerta zekiokkeen!

EAJn abertzale asko badela ez dugu nehoiz ukatu; horrengatik haiei ostiko bat ematen zaienean euskaldunei ematen dietela uste ukan dugu beti. Abertzale batzuen eta bertzeen arteko gatazkak **gure** arteko aferak dira lehenik eta gutarteko edozeini Espainiak eta Frantziak eman ditzaketen muturrekoez ez dugu neholara ere atsegin hartzerik, alderdikari huts ez bagara bederen.

Bizitza zalapartatsu batean bagabiltza, jo ezker, jo eskuin. Batean zorientsu, bertzean (maizago) bihotz minez. Beti eta beti borrokaren erdian aurkitzen gara. Askatasunerako lanek indar guziak daramazkigute. Batzuk aitzinean eta bertze batzuk, ordea, gibelaxago, haien beharra ez baitu nehork ere ukatzen. Eta preseski gibleko haiek ez ditugu aski aipatzen. Bizkitartean aipagarriak dira aita eta ama familiako eta bertze guziak, zein bere sailetan ari direla: herriko bizi, hizkuntza edo kultura, ekonomia eta politika... Zorigaitzez, kazeta guziena da - eta gurearena ez gutiago - geure « munduko » gertakari edo gizon emazte atrebituenak ditugula beti lumapean. Noiz mintzaraziko ditugu isilago lanean ari zaizkigunak? Nola bilduko haien lekukotasunak? Horrenbertze merezi bailukete eta haien ezagutzea edozein hitzaldi bezain suspergarri bailitzateke ororentzat.

Reagani ez, euskarari bai !

1985- 05- 09

Ongi atera omen da Reagan presidentea, ez 7 estatu aberatsenen biltzarretik - ez gara horretaz mintzatuko gaur - baina Bitburg-eko beilatik! Gure irakurleek badakikete Bitburg-eko hilarrietan izan dela Reagan, hilarri horietan hain zuzen dautzalarik 50 bat Waffen SS gudari guziz fama txarreko haietarik. Jakintza eskasez hartu omen du erabaki hori, batzuen erranetan. Baina gaizkika eta erasiaka bertan lotu diren guziengatik, bere hartan jarraitu du hala ere; bere hitzari ohore egiteko bakarrik ala...?

Estatu Batuek hedadura izigarria daukate: kausi dezakezu hor demokrata kartsurik (Martin Luther King, adibidez) baina ere Ku-Klux-Klan eta bertze Goldwater batzuk ere. Azken hau Reagan-en alderdi berekoa zen, « errepublikanoa » eta Johnson-en kontra aurkeztu zelarik presidentegai garbiki erran zuen azkeneko gerla mundialean amerikanoek hobeki egingen zuketela Hitler lagundu izan balute... Ikusi eta beti ikusten baitugu nolako erregimenak lagundu eta laguntzen dituzten Estatu Batuek (Franco, Hego Vietnam-eko gobernu hura, Txilen eta abar.) sobera nekatu gabe pentsa dezakegu Reagan-en delako urratsa ez zela beharbada zenbaitek erran duten bezain jakintza eskasarengatik...

Ez, ipar amerikarren parte handi bat zernahitarako prest dago bere nagusigoa finkatzeagatik. Jaurgo edo nagusigo hori zertan datzan? Gehien gehienik diruan oinarritzen da. Estatu Batuetako « demokrazia » errexki deitu baikenetzake « dirukrazia ». Egiazki hala baita. Kapitalismoaren ispilu garbi bezain arrunta. Dirua jaun eta jabe, guzien funtsa, hastapena eta bururapena. Reagan-ek, SSen hilarrietan egin duen beilak ez gaitu harritu. Harritzen direnak errealitatea ikusi nahi ez dutenak dira. Iduri dukete hiritar bazkaltiar batzuk bildoskia jan eta murtxa, baina bildotsa begien aitzinean artzainari hiltzen ikus baliezaiote sabelak nahasiak lituzketenak! Dena den, Reagan-ek ez du gehiago naski, arras nahi duen guzia egiten; prentsa indartsu harek atxikitzen baitu neurri batean.

Euskararen Eguna ospatu dute Hegoaldean, maiatz honen 3an. Ez dugu jakin zergatik Iparraldeak ez duen parte hartu. Harritzeko da; zeren-eta ekintza bat baldin bada 7 euskal lurraldeek batean sustatu behar luketena - Aberri Eguna bezainbat - Euskararen Eguna dateke! Lokarri bat baldin badago denen artean, euskara da eta denen batasunerako bidean ez dukegu lokarri hoberik. Gainerat, Euskal Herriak euskararik gabe ez du funtsik. Orain, Euskararen Eguna ospatzea eztabaidagarria izan daiteke: urte guziak euskaraz izan behar lukeelakotz... Amets egitea beharrezkoa da; berdin beharrezkoa, ordea, urrats zehatz batzuk ematea ere, ametsa galdu gabe.

Holako egunek, aukera bat eskain dezakete bazterren higiarazteko, euskararen alderako ausartzia bat pizteko. Kanpainaren eraginak hunki litzake, batetik herria bera eta bertzetik instituzio publikoak. Orain arteko udako Euskararen Egunak ere baduke bere tokia, atzerritarren argitzeko baizik ez balitz ere; gure mintzaira-kulturen bizinahiaren adierazle, nor-nahiri, legokeelarik. Baina lekuko jendearen hunkitzeko, uda betea ez dateke unerik egokiena.

Eta hori guzia noren ardurapean galdatuko duzue? Ausartuko gara izendatzerat gure ustez gisenak liratekeenak: buru, Euskaltzaleen Biltzarra eta oihartzunlari, Herria kazeta. Iparraldeko egoera ikusiz ez dakusagu zuzendari hoberik; ez baitateke euskal elkarterik ez eta erakunderik horiei beren laguntza uka liezaiekeenik, bereziki egitaraua elkarrekin eraikiz gero.

« Hitzak ederrak dituzu baina... »

1985-05-30

Parisen lege berri batzuk eraikitzen ari dituzte, bertzeak bertze, sexu diskriminazioak ezeztatu nahiz. Ez hain aspaldi, telebistan ere, kanpaina bat bultzatu zuten emakumeak edozein lani buruz abia ahal zitezen. Giza eskubideak bai eta ere bertze asko lege holaxe sortu dituzte: **deneri** dretxo edo eskubide berak ezagut dakizkien. Hori guzia demokrazia lortu nahiz. Gaurdanik beraz, emazteki batek, haurdun izanik ere, galdatzen badu ikatz meatzetarat jaustea, ez dakioke errefusa, bertzela hainbat gaizto zureztat, auzitegiatarat zinderamazke berdin!

Halaber, lege berak dira frantses ekarriak diren guzientzat eta frantses bat Frantziaren edozein lurraldeatarat doake eta han diputatu presenta. Eta hori askotan gertatu da. Ikus itsasaldean Bernard Marie diputatu jarri zelarik. (Zer ezagutzen ote zuen orduan Euskal Herriaz?) Eta bagindoaz Afrikarat, goseteak suntsitzen ari dituen eskualdeatarat geure solasa argitzeko edo? Bagindoazkie geure « demokraziaren » lege ederrekin ea zer aurpegi egin liezaguketen, aurpegi baten ukaiteko kemenik baldin badute oraino?

Ez, demokrazia ez da aski, libertatea ez da aski, xede horien obratzeko, burutzeko **ahalik** ez bada ematen. Areago, hitz eta lege eder horiek ahulenaren izorratzaile ederrak bihur daitezke elkarrekin ezartzen badira azkarrek eta ahulak (otsoa eta bildotsa, azeria eta oiloa...) Horrenbertzez ez ahal du nehork uste lege horien kontra garenik; agian! Dioguna da, demokrazia gaitza dela, jadanik bere buruaren zaintzeko on den gizakiarentzat; guziz kiretsa izan daitekeelarik, adibidez jende ahuldu edo osoki alienaturik denarentzat. Lapurtua, humiliatua edo ezindua den afrikarrak zer esker duke gure lege ederrentzat barne hutsak baldin badira?

Emazteak ere ez daitezela engana. Jende askoren artean emaztetasunaz ez dute axola handirik: harekin etzan, hori bai eiki; eta gero? Ba « *aski dun antisorgailua hartzea edo hilaurtzea; hots, antola hadi nahi dunan bezala: baditun horretarako behar diren guziak ez?* » Alabaina, jende xeheak gaizki ikasten ditu gauzak edo hobeki erran, demagogia hutsez, gaizki azaltzen dizkiote. Hala nola, haur botatzea halako gauza errex eta ondoriorik ez lukeen zerbait balitz bezala aurkezten da. Zenbat ezkontza ere ez dira egin frantziar eta, adibidez, ipar afrikarren artean; iduri-eta gizona beti gizon bat den, emaztea halaber, erlijio, ohitura eta kulturek eragin mikorik ez balute bezala senar-emazte bizian... Biharamun latz frango izan da eta izanen, berdintasun faltsu eta gaizki azalduen ondorioz.

Gehiago oraino, akusatzen ditugu, Frantzia aspaldian eta Espainia zenbat urte hauetan, maltzurki baiterasate herri eskubideek, libertate indibiduala eragozten dutela! Biek elkar osatzen ez balute bezala! Hitzak ederrak dituzte baina gogo berte nonbait... Guretzat gizon guziak, nola herrialdeak, ez dira berdinak, nolabait errateko. Gizona eta emaztea ez dira, soilik, ar eta eme. Herrialde bakoitzeko gizakiak baditu bere jeinu, jite, hizkuntza, ohitura bereziak. Hots nortasun propio bat.

Zerk bereizi dituen batzuk bertzeetarik horrenbertze? Historia luze luze batek eta desberdintasun horietaz kontu atxiki behar da gizatasunik baldin badugu bederen. Kultura berezitasuna bera ukatzeak sekulako desmasiak erakar ditzake, gorputz eta gogo osasunak hunkitzeraino handizki. Estatuen beren kaltetan azkenean. Guretzat, gizon, emazte ala herrialde bakoitza errespetagarri dira (zenbaiten moldeez zer erran izanik ere). Estatuen eta munduan zehar zerbait eragin duketenen laguntza eta geriza zehatza merezi dute.

Populutasuna eta arrazakeria

1985-06-20

Hiru ehun mila lagun bildu omen dira Parisen arrazakeria salatzeko. Hori ikustean, euskalduna pozten da nehor bezainbat; baina ere, halako korapilo bat bezala gelditzen zaio xoko batean: euskal abertzaleak estraditu zituztelarik zenbat ziren higitu zirenak haien alde? Handik eta hemendik asko mintzatu baziren ere, jendeketarik higiaraztea bederen ez baitzuten lortu. Hegoaldeko Jose Manuel Martinez Beiztegui ere babes politikoaren eskatzerat etorri da Baionarat eta zakur errabiatua bezala gibelerat bidali dute. Denek badakigu nor den Beiztegui: Fabius ministro lehenak kriminel odoltzale handi bat bezala aurkeztua telebistaz, estradizioak justifikatzeko eta gero Madrilek, frogarik ez zela, libro utzia...

Artetik errateko Parisek eta Madrilek ez ote zuten elkar aditzen ahal, utzi gabe Fabius zernahiren erraterat geroxago, hain zuzen frogarik ezean, libratu beharko dutenaz? Antola bitez! Baina Fabiusek holako gauza finkatu gabeak adieraztea ez ote da arrazakeria bezain gaitzesgarria? Bere eremuetarik kanpo gertatua, hango ala hemengo justiziek epaitzekoa, nolaz hark goraki kondena zezakeen? Alta bada, jendea ez da biziki kexatu, hor gaindi, ezin onetsizko egitate horren aurrean... Horra zergatik Concorde plazako batzarrak halako ximiko bat egiten digun. Neholako dudarik gabe, arrazakeria gaitzesten dugu: baina arrazakeriaren kontra heia goraka ari diren buru horiek axaleko laguntzarik ere ekarriko digutea? Bai zera! Ez ote dute, alderantziz, arrazakeria kutsu bat kausitzen gure abertzale borrokari? Baina guhaurk ere, zer egiten dugu populutasuna eta arrazakeria bereizten laguntzeko? Ez gaudea maitasuna aipatu gabe, beldurrez-eta pornografian eror?

Ez da beraz harritzeko bereziki Paris aldeko jendea ezazol badago Euskal Herriaren egoerari buruz. Frantsesek beren erroak galtzen ari dituzte karraskan: aita hemengoa, ama hangoa, aitatxiak eta amatxiak Jainkoak daki nongoak: nola nahi duzue populutasunak iraun diezaie, areago bertzerenaz kezka daitezen? Frantzian baziren alabaina gaitzeko nortasuna zeukaten herrialdeak, baina frantses boterea zer lehiarekin ez da denen barreatzerat eta nahasterat entseatzen! Parisko manatariek kudeatzen baitute aspaldian mugimendu hori, libertateaz aho beteka bazter guziak burtzoratuz.

Ziburuko gertakari deitoragarria arrazakeriatzat har balezate bederen... Gaizo ijitoak, ez duzue xantzarik zuek ere, abertzaleen orde z hil baitzaituztete! Buhame bezala bota bazintuzteten, Frantzia guzia hor zenuketen laguntzaz! Eta Svahn Paue-ko jujeak zer dio arrazakeriaz? Harritzen gara nolaz ez duen garbiki erraten « *igor itzazue hemendik desberdin horiek guziak eta arrazakeriarik ez dateke gehiago* ». Alabaina ez zioena berrikitan: ETA bara dadila eta GAL geldituko da?

Zer dugu bada frantsesen adiskidantza lortzetik funski trabatzen gaituena? Iduritzen zaigu honelatsuko zerbait erran nahi liguketela: « *Euskaldunak, frantses hizkuntza eta kulturaren jabe zarete, gure bizimaila eta dretxo berak dituzue, zertako bada holako zalapartak ala gu baino gehiago izan nahi duzue, aments, bi kulturekin?* » Bertze hau ere, bada, suma daiteke: « *Biharko mintzaira ingelesa dateke, edozein lan eta borrokarako gai dago halaber zientzia, ekonomia ala politikarako. Zer itxura du zuen buruzkinkeriak, aberatsa baina gaurkotzen lanak dituen euskara horren alde? Ohitura mailako euskara goxo bat, paso; baina hizkuntza moderno baten mailarat heltzeko nahikunde hori ez dea gehiegia?* »

Egun guzietz galdera horiei ihardetsi nahiz gabilta. Doi bat jakitate eta zuhurtasun pikor bat duen edozeinek badakike, gure populutasuna unibertsoaren zati aberasgarri bat dela. Eta ulertu behar lukete ere gure hizkuntza-kulturek ez dutela etorkizunik ingurukoen heintsurat helduz baizik.

Ihardukitzearen iraunbideak

1985-07-11

Duela hogei egun idatzi editorialak zenbait zurrumurru sortu omen ditu. Halere ez da nehor menturatu bi lerroren idazterat; damurik! Gizonki eta euskaraz idatzia izanez gero argitaratuko baikenuen atseginekin. Alabaina kazeta hau ez da prediku alki bat, ideien eztabaidatzeko toki bat baizik eta editorialak bertze artikuluen kasu berean daude. Hain zuzen, gure helburu nagusietarik bat da, ideia, xede, eta iritzien gurutzatzen laguntzea. Polemikan ez dugu laguntzaile beharrik; debatean aldiz batzuetan ez zaigu balio aritzea, zorigaitzez; zeren-eta holaxe uzten baititugu gure arteko desberdintasunak handitzerat eta gero, utzi eta utzi, egun batez denak xehakatu nahi!

Enbata astekari hau ortzegunarekin plazaratzen da. Artikulu gehienak, igande edo astelehenean eta berantenaz asteartarekin eginak dira; askotan tarrapataka beraz eta hala ere bat-batekotasun horri biziki atxikiak gaude, nahiz, holaxe egiten ditugun pettoen uztarrak ere hor diren irensteko... Beraz hau da gure lanaren zailtasun bat: freskotasuna begiratu nahi, astelehenetan eta zenbait aldiz asteartetan gertatu gauzak ere aipatuz; denbora berean gai sakonak ere hunkitu bederen nahi ditugularik, neholaz ere ez baitira baztertzeoak, gaurko gizartea gero eta gehiago axaletik badabil ere, urruntxago behatzeaz aski axolatu gabe.

Media horien bidez munduko gertakari larrienak mirets edo gaitzets ditzakegu; baina nola sakondu, hain aberasgarri izan litezkeen berriketa horiek? (Aste honetako berririk hoberena, guretat bederen, Sarrionaindia eta Pikabearen eskapatzea: iufi! Erdiz erdi Juan Carlos eta Mitterrand, gure bizkar, akomodatzen ari zitzaizkigunean!) Axalak eta mamiak utzirik, euskal arazoak bi alde ere dauzkala erran dezakegu iceberg-aren gisa: bata ageria eta bertzea gordea. Maizenik ageriago horretaz ari gara, jakin behar genukeelarik, geure sustraiak gordeago hartan kausitzen direla, haiek gauzkatela uretik kanpo, ito gabe. Ez, ez gara aski arduratzen zati garrantzitsu hartaz.

Egun zailak ditugu aitzinean. Frantses gobernuak ez digu purruxkeriarik baizik ematen. Xinaurriak neguari apailatzen diren bezalaxe guk ere horrelaxe egin beharko dugu, egun hobeetan esperantzaz. Orain arte bildu esperientziak agian argituko dizkigu geure ihardukitze luzearen iraunbideak! Gure herriak egundainotik erakutsi duen gogortasunaren gainerat, begira dezakegu kanpoan erabili izan diren jokabide desberdinei; adibidez, duela zenbait hamarkada Gandhi handiak nola askatu zuen bere herria? Edo oraino juduak nola heldu ziren 1948an burujabetasuneraino? Irabazi dutenen baitan zerbait ikastea on da. Ea, uda honetan hor gaindi ibiliko zaizkigun gazteek ideia freskorik ekartzen diguten?

Saltegi desagertze. Bordalen, duela 15 bat urte, ba omen ziren oraino 30 drogista; gaur ez da horietarik 3 baizik iraun ahal ukan duenik! Hots horretan norat goaz? Ez dea hori zinez lotsagarria? Ofiziale ttikientzat berdin; zer egin beharko dute: jendeari guzia egina prest saltzen dute « grandes surfaces » deitzen dituzten horietan eta gero, herritarrentzat hondarkinak: depanatzeak! Gure eskualdeko lantegi ttikiek ere nola iraunen dute? Lehen, enpresa ttikiak, eremu poxi batean bizi zitezkeen; gaurkoek, Frantziaren laurdena edo erdia, berdin osoa, kurritu behar dute zerbaitetarat heltzekotan. Bihar Europa eta mundu guzia?

« Allande Oihenart »en ildotik

1985-08-01

Zuberotarrek erakutsi digute, berriz ere, beren atxikimendu berezia pastoralarentzat; ez gara arranguratuko: zer oren goxoak ez ditugu iragan Müskildin! Iguzki samin batek xikildu behar gintuela, geure gisako gerizagailuekin joanak ginen, beroak beroari, gure nahikundearen frogatzekoa baitzen! Baina, oro har, iguzkia laster eztitu eta izan daitekeen arorik gisena atera zitzaigun pastorala sakonduz zihoakigun denbora berean; borondate ona sariztatu nahi izan balitz bezala... Hainbat gaizto, beroak lotsatu dituenentzat!

Arras ongi apailatua zuten pastorala; ederkiago baizik ez du plazaratu bere gogoia. Jokolariak gaitzak kausitu ditugu, jauntziak eta kantuarak zein ederrago; dantzariak ere arras onak. Matalasen zatia beharbada luzeskoa, berak bere pastorala baduelakoan? Haren aipatzea, haatik, Oihenarten ondoan, guziz egokia dagoelarik. Ez dugu segituko zorri mian, ez baitugu gogorik; utziko diegu tokia geure saihetsetakoei: garbizaleak batetik, berrizaleak bertzetik. Guk dioguna hau da bakarrik: igandean ikusi ez duzenek, abuztuaren 11an berriz emanen dutela Müskildin bertan eta harat joatea baino urrats hoberik nekez egin dezakezuela, egun horretan.

Gaurko gizarteak, jaunpan garabiltzalarik, herrixka batek holako indarra egitea ez ote da zerbait? Ez ote da hau euskal « mirakuilu » haietarik bat? Urte oroz, ihauterietan maskarada eta udan pastorala emanez, zuberotarrekin badugu zer ikas. Lapurtar baxenabartarrei nagusi ditugu naski, nahiz, hemen bertze sail batzuetan hobekixago lotuak garela dirudien. Gu, hatsantuak? « Orreaga » Azkainen, « Orria » Donibane Garazin, « Tobera Mustrak » Baigorri, ez ziren bada arrakastarik gabe gelditu! Senperen, adibidez, 1609ko « sorginen » sarraski hartaz ez ote litzateke zerbait eder eraikitzen ahal gaurko tresnek ekar liezazkiguketen laguntzak baliatuz ximenki? Erratea, egitea baino errexago dela badakigu; baina nehork ez badu aipatzen nola egingen du ideiak bide?

Eta hantxe pastoralari begira (gogoetatzeko artea ere baitukezu) emazte gazte batek berriki atera zigunaz hausnauketan geunden: « *Aita abertzalea dut, nik ere, neure burua hala daukat. Euskara ikasten ari naiz eta maite dut biziki, baina frantsesa nire ama hizkuntza izan delakotz euskarari lehen tokia ezin emanez ari naiz* » Badakigu hizkuntza baten ikasteak, adibidez ingelesak, ez zaituela osoki ingelesten, nahiz ezagutzeak adiskidantza lagun dezakeen. Zer ihardets, beraz, geure emazteki grinatuari? Hauxe beharbada: bide onean dela; segi dezala beretik. Makurrago dabilta euskara ama hizkuntza dutenak eta hartaz axolarik gabe bizi direnak! Beharbada beren kultura ez dutelakotz aski barnatik ezagutzen, ez baitute, menturaz, behar den argitasunik ukan behin ere.

Gaur haatik bakoitza bere gustuko sail bati, lot dakioke. Denek ezagutzen ditugun horietan, bada leku! Eta ez bada aski hor, gutiago aipatzen diren batzuetan sar gaitzke: ikerketa eta bilketa lanetan. Dela argazki biltze, herriko historiaren inguruan, ohiturak, errankizun, euskalki, kantu zahar, hots, mugarik gabeko alorra dugu hau. Hola jokatzuz harri gintezke euskaldungoaren maitasuna emendatzen ez balitzaigu... (gaurko egoeran bide hoberik ikusten duenak argi gaitzala). Garbiki erran nahi genuke halere, nehor ez dadin lotsa, elkarte baten beharra balitzatekeela « herri oroitmena » deitu genezakeen sail horren akuilatzeke.

Eta hona non solasak eramaten gaituen berriz Allande Oihenartenganat: alabaina, lehenetarik izana da hau historigintzan eta bereziki erran zaharren biltzaileetan. Ezagut dezagun hobeki, gero jarraiki gakizkion, geure ahale araber. Ozenki oroitarazirik, mila esker Müskildi!

Irabazi nahi badugu

1985-09-12

Jean Hiriart-Urruty « zaharrak » honela idazten zuen Eskualduna kazetan (1894-08-03): «*Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu, zoin hertsu eta neke bilakatzen ari den gutartean bizitzea. Ez da langilearentzat irabazbide onik. Laboraria bereziki beheiti doa, nahi eta ez; batzu lerraka emeki, bertzeak lasterka; batzu oinez, bertzeak zaldiz, bainan oro, edo gehienak azkenean beheiti. Eskual-herriko etxalderik ederrenak eta zaharrenak zorren pean leherturik. Lur-langileak baino are gaizkiago direla diote bertze asko, hala nola harginak, zurginak, zapatainak. Bertzetakorik aipatu gabe, zoazi Hazparnerat. Han dire omen egun hautan zinak eta minak. Alde batetik lan eskasa, bertzetik zorrek eta zergek beti jaten ari ».*

«*Ez dakit zure gogoaren berri; bainan garbiki erraiten dautzut: gehiago harritzen naiz, nere baitan gogoetan nagolarik, ea nola dirauten oraiko etxek? Egizu so ongi; jendea nola bizi den etxean, eta nola dabilan etxetik ateratzen denean? Hazta-zkitzu eta jasta begiz oraiko janari-edariak, untziak, untzitegiak; oraiko apaindurak eta xingolak, eta girgileriak. Ikus azu etxe hura eta hango edergailuak, haurren jostatzeko zaldi-ta karrosetarik haste. Erraten dautzut harrituko zirela. Nondik zuketan jende horiek hoinbertze sos eta diru ez-deuskerian eta behar-gabeko gauzetan xahutzeko? Non dire lehenagoko galtzerdi zaharrak, urte gorritz edo bederen zilar xuriz mukurru beteak? Non dire urte onetako irabaziak? Haizeak eremanak aspaldi. Ez da gehiago etxe-altxagarririk deus. Deus ez da iraunkorrik»*

Badaiteke gure idazle handiak bazukeen, militante guziek bezala, gauzen doi bat iluntzeko usaia, gogoak jo eta inarrosi beharrez. Zertako ordea berrargitaratu holako zati luzea? Bakioitzak ikus dezan hor, lehenago ere, zer hersturak ikusi dituen gure herriak eta beraz nehor lotsa ez dadin gaurko gure borroka idorrean. Gainerat ohargarri ez ote da gauza ber-berak erran genitzakeela gaur! Arranguren lerroa luzatuz: Seaska-k, kontratu iraunkorrik ezin erdiets; Ikas-i, kontseilu jeneralak bere dirulaguntza azkarki ttikitu; euskararen tokia ez batere segurtatua Chevènement-en lege berrian, eskola libreak, (laikoek noiz?) prentsaurreko batean garbiki salatu duten bezala; ETA-Madril negoziaketak ezin abiatuz ari direla, eta abar.

Abertzaleen berriak frangotto ilunak dira eta gazteek bereziki ez lukete pentsatu behar gure herriak gaur arte ez duela deus dorperik jasan. Egia da hor egoera ekonomikoaz ari zela gure idazle famatua; nahiz, hizkuntzaz ere hasten zelarik haren lumak ez zuen samintasun eskasik... Egia da ere, ez gaudela osoki bat geure idazle zorrotzarekin, artikulua berean dioskularik geure zuhurtzia eskasiatik heldu direla gaitz horiek guziak. Zuhurtzia eskasa, bai eiki, baina nor edo zer da hobendun lehena? Demokrazia kapitalista, duela 91 urte beharbada ez bazen orain bezain garbi ageri ere.

Sistema horrek alabaina nahiko libertate uzten dizu, petentakeriarako ere, hartarat pusatzen ez zaituenean! Kasu haatik sudurra sartzen baduzu gai serioagoetan: herri edo langileen eskubide, irakaskuntza, estatu muga eta bertze, gauza minbera horiek, gure « sistemak » ez ditu gu bezalakoen eskuetan uzten gero! ENAtik eta bertze zenbait eskola handitarik jalgientzat dira. Haiek badakite, guk baino hobeki (...) zeren beharra dugun eta zenbat. Haiek badakite ere - irakasten baitzaie - jendeak eta herrialdeak nola sokatik atxiki; noiz soka labur, noiz poxi bat laxa, gero berriz tinka...

Gaur bezainbat tinkatze ez da haatik aspaldian ikusi: langileak arras deskuratuak dira; ez baitute gehiago deusetan sinesterik. Politikari eta nagusi handiek sekulan ez bezalako erabaki ausartak hartzen dituzte haien bizkar, kanporat emanez milaka, egunetik biharrerat, modernizazio eta nik dakita zer dela eta. Ezkerrak, egun guzietz eskuindartuz gehixago, dena eskuinerat lerrarazten du. Eskuin muturraren ideiak ere hedatzen ari dira non-nahi, berdin jende xehe eta gazteetan ere, gehiago dena! Guziengatik ez dugu lotsatu behar; hori baitute bilatzen eta itxaroten aspaldian zenbaitek. Nehoiz baino gaurkoagoa dugu jokabide zaharra: gogor egin eta atxiki! Bigarren urrats bat ere eskatuko luke haatik: elkarri hurbiltzea. Ez baikaudeke beti defentsan mende mende egin dugun bezala, nahiz hura ere zerbait den. Indarturik, oldartu ere beharko dugu noizbait, egiazki, irabazi nahi badugu egun batez...

Herriak ez du barkatuko !

1985-10-03

Azken denbora hauetan eta Baionako gertakari lotsagarrien ondotik, oihu batzuk entzuten dira haserre ezin atxikiaren azalgarri. Oihu horietarik bat « *Herriak ez du barkatuko!* » Batzuek honela itzultzen dute hori: « *Le peuple ne pardonnera pas!* » eta itzulpen hori ez zaigu nahikoa: lapurtar baxenabartar gehienentzat bederen. Hitzez hitz xuxen da, baina datiborik ez duenaz gero, horren erran-nahia dateke: « *Le peuple ne cèdera pas* ». Oihu guziz egokia ikusten denez bazter guzietarat hedatzen ahal genukeena. Lehengo « *kexaldi sainduen* » edo « *no pasaran!* » famatuen pare, eguneroko lelo bihur dezakeguna...

Baionako hilketak beraz euskal zauri guzia ireki du berriz zabal zabala. Erantzun guzietan miresgarriena: hiltzaileen ondotik, esku hutsik, abiatu direnen kuraia ezin sinetsia. Parisen bortxatzaile koxkor batzuei lotzeko ere ez omen da nehor izaten. Hemen gaiztagin armatu beldurgarrienei jazarri dira. Ez da lehen aldia. Izenik ez badezakegu heda, abertzaleen agurra eta eskerrik biziena bederen doazkiela hemendik. Herriak ez du ahantziko!

Kaledonia Berrian independentistek %40 bildu dute. Ez da batere gaizki, FLNKS herritarren artean bere xedeak zabaltzen segitzen ahalko du. Ikus dezakeguna da han frantses botereak gaitzeko laguntza ekartzen diela independistei eta Frantzian berean aldez, bertako gutiengoei, ez duela arabarakorik egiten. Eta euskaldunei bezain aihor non dago? Nola ulertu kanpoan beti beren burua edertu nahi izana eta barnean alderantziz egitea? Frantses jakobinoen urguilu zozoa: « *Kanpoan uso, etxean otso!* »

Beren **saihesbideekin** zer eztabaidak! Senpererotzat ere aipu dute. Horien beharraz aritzeko, hartuko dugu oinarri joan den astean irratiz, Xan Mendiboure laborari gazteak erran diguna: « *Aholku bat eman behar banu, erran nezake hobe dela lehenik abereen arraza hobetzea eta gero egitea heia (barruki) berri eta bertze muntadurak; holaxe aitzinetik ikusiz etorriko diren mozkinak araberako gastuen egiteko* ». Eta gauza ber-bera erran genezake saihesbide eta muntadura batzuen egileei.

Ez aspaldi ari ginen lantegi-zelaiak behar genituela; iduri-eta kasik haiek askiko zirela lanbideen sortzeko onddoak bezala! Halaber autobideak behar zirela garraio lana errexteko. Itsasaldean 4 izarretako hotel bat ere eraiki beharra omen dute nagusieriak aurki dezan etzanbide egokirik. Guk aldiz diogu « Arrasate » sortu dela holakorik gabe; « Denek » ere bai eta bertze zenbait. Saihesbideak atsegingarri dira denbora miko baten irabazteko; baina ez dute horiek aberastasun egiazkorik sortzen. Kalte ekartzen izatekotz huts eginarazten dituzten herri ttikiei. Bada etsenplu frango departamendu honetan berean.

Duela bizpalau urte, Donibane Lohizunen, ari ziren gatazkan lantegizelai batean supermerkatu horietarik bat eraiki nahi zutelakotz, 14 enpleguren sortzeko espantuekin. Eroak alabaina: ez zutena bada ikusten bertze horrenbertze enplegu suntsitzen zituztela (menturaz anitz gehiago) bertze nonbait! Ez zekitena bada supermerkatuek sortu aberastasun gehienak bertze norabait eramaten dituztela! Artifizialki lantegien sortzeak ere balio duenez, gogoetaturik gaude; abiatu orduko andarka dabilta batetik eta bertzetik zernahi gostatzen dira herriari.

Kultura ala ekonomia behar den lagundu lehenik? Horra hor eztabaida. Luzarat bederen erran dezakegu kulturak duela bizia piztuko eskualde batean. Gizartearen kudeatzea ez da gauza errexa; adibidez, badakigu jendeak nola eskatzen duen gero eta toki gehiago beretzat eta nola denbora berean ez duen onik multzoka metaturik baizik! Zoaz hondartza horietarat udan, ikusiko duzu! Jendeak jendea erakartzen du, husten ari direnak beti hustuz doazela non ez den botere politiko berezi baten indarraz lagundua bertzalderat. Baina botere politiko hori ez duguno goazen kasu eginez. Ez dezagun egiten dugun baino gehiago desegin.

Bide hertsia

1985-11-14

Aita Lafittek, estimu eta maitasun ezin handiagotan daukagunak, duela hamar bat urte kazetariei atera zien honelatsuko zerbait (erdaraz irakurri genuen): « *Ez dakit zertako, eman dezagun Baxenabarreko leku batzuetan, kasik euskara perfeta darabiltenek ere, nolaz ez duten funts eta estimu gehiago beren hizkuntzarentzat, bereziki beren haurrei irakasteko* ». Badakigu zer zatekeen Aita Lafitteren gogo: gure oharraraztea higiarazteko. Baina jende xeheak hauxe ihardesten ahalko zion ere: « *Intelektual baten solasak direla horiek!* ». Alabaina, berriki arte euskara zer zen Iparraldeko jende gehienentzat, %80entzat? Oroz gainetik, bizipide neke baten seinalea, gutienez egoera zail bati loturik zegoen zerbait, aitzinamenduetarako ez beharrezkoa. Eta denbora berean nork zuen bizipide hobe, errexagoa, erradazue? Frantsesa ongi zekitenek.

Gainerat, luzaz euskaltzale eta abertzale handietan gutiz gehienak ziren edo jakintsun edo apez edo etxeko seme on. Gehienetan, jende xeheak bitxi eta kontserbadoretzat zeuzkan. Funtsean, horren herrestoak baditugu oraino ere frango. Jende xehearen arrangura: nola biziko den, nola aterako. Lehen hola bazen, gaur ere berdintsu dateke. Hots erdara guti dakien euskaldunari euskaraz bizi behar duela erraten zaionean, ez du onartzen, bereziki aholkua datorrelarik bertze hizkuntza pare bat edo gehiago ongi dakizkienarengandik. Laido bat zaio.

Moderno batzuek berriz diote 2,3, edo 4 hizkuntza ikasi behar direla. Non ikusten da ordea populu oso bat horrenbertze hizkuntzaren jabe? Zer erran nahi dugun hor? Ez dezakegula erran jendeari euskara ikasiz gero bertze hizkuntzak, frantsesa, espainola edo/eta ingelesa airez aire eskuratuko dituela, gehiago eta errexago balitz bezala! Ez dezakegu bada utz, are gutiago, euskara bazterrerat gure izatea uka baikenezake horrela. Eta hori jende xeheak ez du beti ikusten ez eta sentitzen ere. Hor eskolatuak eta ikasiak aise lehenago ohartzen dira. Nola behar dute ordea bertzei erakutsi berek ongi ulertua dutena? Bide hertsia dakusagu...

Azaroaren hamaika idazten dugunean eta aste honetako gertakari handienek ere ez gaituzte baztertzen ahal egun honek sentiarazten dizkigunetarik. Bistan da aitatxi zena heldu zaigula gogorat. Gerla egina zuen bertze hainbertzek bezala; handizki kolpatua izana, obus ezpal bat ister alde batetik sarturik, odol hustear zen. Lagunek ukan zuten ordenu garratza infernu gorriaren pareko erauntsien erdian: « *Zoazte gizon haren bila; hiltzen bazaituztete, ordezkatuak izanen zarete* ». Bildu zuten aitatxi eta laster aterbetu. Kasik han berean operatu zuten, loakartu gabe: bertzaldetik isterra zilatatu eta obus ezkarda handik kendu! Sei hilabete eritegietan, gero etxean; sendatu zen eta... berriz gerlarat joan! Eta bizirik itzuli!

Bi ahapaldi ehun aldiz errepikatu dituenak. Lehen: gerla ondoan egin zuten beila handi bat Lurderat; apez kartsu batekin ari ziren otoitz eta prediku saindu-irudi herdoilak jana zuen baten aitzinean. Azkenean, euskaldun gerlari ohi batek bota zion: « *Gizona ez duzuia bada ikusten indarrak joanak dituela!* » Bertzaldi batez berriz galdata zuen lagun bati zer erran nahi zuen frantses hitz batek; ihardetsi zion: « *A! gaizo Batista ehaiz eskolan ibili...* » Irri karkaila handi batez inguratzen zituen holako historioak. Hala ere hainbertzetan errepikatzen bazituen, garrantzitsutzat zeuzkala ez da dudarik. Funtsean ez ote dira hor nabaritzen gerla horrek erakarriko dituen aldaketen hazia bezala?

Orduan askok egin zituzten hiru urte soldadutza eta lau urte gerla, egundaino izan zen gudurik bortitzena jasan, holakorik ikusi behar zutela ere ez baitzezaketzen sinets! Denbora luze horretan, bertze eskualdeetako jendeekin gurutzatu ziren; frantses hizkuntza ikasi ere beren seme zenbaitek frangotan ikasiko duten baino hobeki... Geroa frantsesez zetorrela iduritu zitzaien. Eta hortik lekora euskaldungo-abertzalegoak lantzea anitzez zaildu egin zen Iparraldean.

Batasun gogoa zabaldu

1985-12-05

Herrialdeetan. Nafarroan zela loratu batasun gogoa, diosku Labeguerie-ren kanta miresgarriak. Batasun hori, « Zazpiak Bat » egitea, dago beti gure helburua, urruna nahitez, baina ez hain utopikoa. Franco-ren garaia, alde horretarik, ahantzixek dira. Europa egiten ari zaigu bere on eta gaitzekin eta, xuxenez, Hegoaldeko anaiekin 20 bat urte barne, sekulako harremanen, izateko aukera dukegu. Harreman horien zabaltzen jokatu behar dugu, elkar ezagutzeak sustatuz, beti eta barnago eramanez.

Horretarako biderik hoberena ez da arazoen edo diferentzien gordetzea, aipatu gabe uztea. Hegoaldekoen eta gure artean dauden egoera eta bertze desberdintasunak xeheki ezagutu behar ditugu, eta horietaz kontu atxikiz ibili. Egiaren aitortzeko, hemen berean ere badugu zer egin, adibidez, itsasaldeak eta Zuberoak elkar ezagutzeko. Ez gutiago Hegoaldean, Nafarroak eta bertze hirurek (edo alderantziz) badute non zer egin elkarri hurbiltzeko. Helburua, guzien bateratzea da, ez denen berdintzea. Bere nortasuna atxiki behar du lurralde bakoitzak, ez bertzerengandik « berezia » agertzeagatik, are gutiago bertzeak baino gehiago izateko; baina berezitasun horiek elkarren aberasgarri direlaketz.

Euskararentzat. Euskara batua lagundu behar dugu. Euskara baturik gabe ez du gure hizkuntzak etorkizunik. Euskadirentzat hitzegitean edo idaztean, ahalik eta gehienak ulertzeko gisan jokatu behar dugu; elkar osoki ulertzerik ez dagoela badakigularik arras ongi alfabetatzerik gabe. Dena den, pozten gara, ikusiz euskara batuari, gazteek, bereziki, egiten dioten ongi etorriaz. Horiek hola ez ditugu arbuatzen - Jainkoak begira gaitzala! - euskalkiak. Aitzikik, landu behar ditugu haiek ere; ikasi eta ikertu. Bereziki, bakoitzak bere herrikoa. Alabaina, etxean edo herrian lekuan lekuko gisa mintzatu behar genuke. Familian are gehiago ama-hizkuntza erabilgarri dago batere zalantzarik gabe. Bertzela jokatzeko erokeria litzateke...

Bi mintzaira beraz: etxekoa eta Euskadikoa? Mintzaira bera da euskara, ñabardura askorekin egia da. Baina uste duzuia Euskal Herrikoa dela bakarrik? Ez eta irriskurik ere. Frantzia segurik, frantsesa izanagatik, ofiziala, irakatsia denetan, beharrezkoa, bateratua aspaldi handian, halere argotez ihaurre daramate etxeko eta lagunarteko hizkera; literatura klasikoan aldiz, edo eskola handietan hizkera hori baztertuta delarik. Guk, emeki emeki etxeko eta bizi publikoko hizkera « hurbilduz » joan beharko dugu. Ahantzi behar ez dena ere da, gure etsaiek estakuru bila dabiltzanean, euskara batua hau dela eta hura dela, aurpegiat bota behar zaiela: « *Ez duzue batua lagundu nahi, lagunt ezazue beraz herrian mintzatzen dena!* »

Politikan. Hemen gogo berezia agertzen du Enbatak; abertzale guzien batasunik ttikiena ere lortzea ezinezkoa baitaukate bertze batzuek: irri egiten dute kasik! Irri edo hobeki erran trufa horiek hunkitzen gaituzte baina ez geure bidetik zeharkarazten. Ehun etsenplu eman izan dira batasun horren baitezpadakotasuna sentiarazteko. Guk ere hartuko dugu batto; Frantziako futbol ekipoa kausitzen ditugu, bertzeak bertze, Giresse Bordelekoa eta Rocheteau PSGkoa; joan den ortziralean hil eta herio elkarren kontra ari izan dira eta bihar hantxe dituzkegu Frantziako taldean, ikusleekin batera, frantses himnoaren pean oilo-larru eginak! Frantsesek egiten dutena guk ere egitea, ez litzateke miletan beharragoa oraino?

Zorigaitzez, euskaldunen gehiengoa axolagabea agertzen da. Funtsean, Frantzia ere, gehiengoa guziz ezazola da bere kulturari buruz. Moda batek taloa bezala itzulikaraz dezake jendea! Baina hartzen badugu Seaskaren kasua: abertzale guziek, ezkerreko ala eskuineko, denek sustengatzen dute errotik, haren jokabide guziak ez beti onarturik ere. Sustengu orokor hori izan ez balu uzte duzue iraunen zuela orain arte eta azken negoziaketa luzeetan hitzemanen zizkiotela hitzemanak izan zaizkion guziak? Euskal Herriko mugimendu politikoa, kulturari josia dago; hartan oinarritzen da bertze deusetan baino gehiago. Eta beraz, kulturari hain hurbil dabilen politikari lotzean ez dezakegula elkar adi nola onets daiteke?

Eguberri goxoagoak noizko ?

1985-12-26

Mikel Zabaltza hil digute. Izan zedin EAJkoa ala HBkoa berdina da guretzat: euskaldun jator bat Espainiak garbitua. Duela bi urte, Eguberrian, erail zuten Oñaederra Baionan, GALekoen «balentriei» holaxe hasiera emanaz. Iaz, 24an, Peio Uhalde adiskidea galtzen genuen istripuz. Eguberri goxoagoak noizko? Aldi honetan, Espainol poliziaren aberekeria aski nabaria izanik, gaitzeko manifestazioak antolatu dituzte, ihardespenez.

Mikel Zabaltzaren heriotza ez da nahi debaldetako izan. Jadanik Madrilen Markos Vizcaya EAJko senatariak galdera zorrotzak egin dizkio Barrionuevo Barne ministroari; eta honek azkenean atara, bi ikuspegi daudela gertakari horri buruz: bata, guardia zibilarena, bertzea terroristena ! (...) Arraioa, terrorista frango bagaituk bazterretan! Karia horretarat EAJ eta HB elkarri hurbildu dira; biek batera, eskatzen diete Europako elkarte humanitario eta giza eskubideez arta dutenei etor daitezen argitasun guzia egiteagatik afera garrantzitsu honetaz. Bide ona hartu dute; biziki ona. Jarraitzen balitzaizkio bide horri...

Kabiliako berberek. Bagenekien aspaldian arazo handi batzuk gaintitzekoak zituela Aljeriako estatu burujabe gazteak: bertzeak bertze, berberea deitu populu zaharrarena. Berberek ere, gure gisa, arabeen eraginpean dira aspaldiko denboretan, gu frantsesen edo espainiarren eraginpean garen bezalaxe. Eta hona beraz Kabilia ere iratzartzen ari dela, bere nortasun hainbertzetan ukatuaren ondotik. Herrialde horrek sekulako partea hartu zuen Aljeriaren askapenerako guduetan. Eta orain hori dira, dirudienek, kultura arabea nagusitzen ari. Hegoaldeko anaiek ere parte hartu zuten Frantziaren libratzeko guduetan, « Pointe du Grave »n, De Gaulle-k berak laudatu baitzituen erranez: « *Frantziak ez zuela ahantziko haien laguntza* »...

Aljerian alderdi bakunaren pean daude. Guk, ez dugu segurki alderdi eskasik, baina inperioak beti inperio daude eta guziz ahanzkorak dira beren pekoei hitzemanak atxiki behar direlarik. Gutaz baliatzeko eta gure xurgatzeko onak dira; laguntzeko aldiz... badakigu! Aljeriako, ala Vietnam-eko, askatasun borrokak miretsiak izan dira munduan zehar. Amerikarrek ala frantsesek sekulakoak pairarazi zituzten populu dohakabe horiei. Hain itsuski jokatu ziren non ateratzeko sortu behar izan baitzituzten, batean ala bertzean, ihardukitze herrikoiak segur, baina zein idorrek! Pozoiaren aurka pozoia behar! Hots, batean ala bertzean indarrean dauden botere bortitzak ez ote dira frantses inperialismoak sortaraziak? Ez da aski erratea frantsesen boterea joana dela, gaurko egoeran frantsesek hobetik ez dutela errateko...

Pierre Broussain. Abenduaren 18an, Euskal Erakustokian eta Jean Haritschelhar denen gidari, Piarres Charritton-ek aurkeztu digu bere herritarraz egin duen lan bikaina: Pierre Broussain, « Sa Contribution aux Études Basques ». Tesia Bordelen iraganik CNRSaren laguntzarekin gaur argitaraturik da. Ezin sinetsia zaigu kasik Hazparneko auzapez eta departamenduko kontseilari horren bizia: euskal kulturaren alde egin duen lana guziz garrantzitsua baita. Bertzeak bertze, biziki jakingarri izan zaigu Azkue handiaren hiztegia ere haren diru laguntzari esker argitaratu zela...

Bertzalde, Sabino Aranaren adiskidea, bizkaiera ikasterainokoan eta denbora berean euskara batuaren sustatzaile! Urteak joan dira haatik ideia hori bideratuko den arte. Sabinoren lagun ageria baldin bazen nolaz isildu ahal izan dira horien xedeak Iparralde honetan, Hegoaldean hedatzen zirelarik aldiz karraskan? Badirudi 1914-1918 gerlaren ondotik Iparraldean, maiteago ukan ditugula frantsesiar oilar handiak (Jean Ybarnegaray...) ezenez-eta oilo errule jarraikiak... (Pierre Broussain bat edo hari eite atzematen diogun Jean Errecart)

Bide guziak aztertu

1986-01-16

Hauxe dugu beraz egoera berezia: Seaskak Hezkuntza Nazionalarekin horrenbertze hilabetez, horrenbertze bilkura, eztabaida eta gogoeta egin ondoan, hona hitzarmen guzia lurrean dugula! Batzuek erranen dute pentsatzekoa zela, noizbait gertatzekoa, egun edo bihar. Bistan da hitzarmen horri buruz su eta ke ari izan diren gure lagun kementsuek ere bazekitela, adibidez, boterea aldatuz gero Frantzian, gisa horretako hitzarmen bat laster desegina izaten ahal zela; egiazko lege bat eraikia izanen ez deno. Nahiz, legeak ere, - bereziki hezkuntzari doazkionak - laster berritzen dituzten: garrantzi ikaragarria baitauka Hezkuntza Nazionalak Frantzian: munduko enpresarik handiena kopuruz (Txinako armadaz kanpo?) Armaden Ministeritzarekin estatuak zuzenean kudeatu sailik garrantzitsuenak dudarik gabe.

Hezkuntza Nazionalak du, jakina, finkatzen frantsestasuna haurren gogo malguetan. Eskola frantsesak du irakatsi nazioa deitzen dutena; gerlek, odolean eta pairamenetan, areago errotuko dutena. Abertzaleek maizago gogoan ukan bageneza Frantses batasun horren mitoa zein azkarra den! Erran behar haatik gaurko gazteek biziki axola gutiago dutela gauza horietaz, bizkitartean. Europako batasunari esker pentsamoldeak anitzez aldatu dira, bereziki alemanekin baketuz gero. Bertzetik ikusi behar dugu Espainia ere European sartzen ari zaigula eta aukera ezin hobia dukegula abertzale xedeen hedatzeko. Azken batean, badirudi naturalki, horri buruz goazela...

Dena den, gaur Seaskaren egoerak kezkatzen gaitu oroz gainetik. Dena berriz haste eta beti berriz haste! Orain artean, larri-larria, hiru iritzi azaldu dira. Lehena: hitzarmen bat, ahalik eta hoberena, Hezkuntza Nazionalarekin egin nahi luketenena. Bigarrena, eskola pribatuaren bidea har lezaketen taldearena, ez nahikoa izanik, baina geure helburuetarik baztertu gabe, behin behineko bide baten egiten lagun gintzakeelakoan. Hirugarrena - eta barkatu bertzerik baldin bada - muga eta ideologia guzien gainetik euskal irakaskuntzaren proiektu bat elkarrekin eraman nahiko luketenena 7 lurraldeetan, konfederakunde baten bidez.

Lehen aukera ikusten dugu zertan den. Iduritzen zaigu bigarren bide horrek ere merezi lukeela behako on bat eta ez bada hor aterabiderik, hor dukegu beti hirugarren bidea. Iparraldean, geure zergetan, irakaskuntza partea pagatzen dugu estatuari. Ez ote da normala zerbait itzul diezagun, geure sakelatik berriz euskal irakaskuntza pagatzen segitu aitzin? Jakinki-eta zenbat gostatzen den irakaskuntza funtsezko bat eta dugun egoera ekonomiko tristearekin bertzetik. Zalantzarik gabe, deneri irekirik legokeen eskola bat behar dugu. Ezinezkoa ote da eskola pribatuarekin? Gure nahia litzateke bide guzien aztertzea hautu ahalik eta hoberena egin ahal dezagun. Geure orrialdeak iritzi horien gomendio dauzkagu beti bezala.

Zer pentsa orain ezkerraren jokabideaz? Eskuinaren gain eman nahi luke hobea guzia. Aski badakigu gaur, goraki errateko ezkerak egiazki nahi ukan balu zerbait egin, egiten zuela, bertze zenbait kasutan erakutsi ukan duen bezala. Bagenuen jadanik zerbait ikusirik: hala nola iheslariei buruz edo oraino Euskal Departamenduari dagokionez. Orokorki, egundainotik, ezkerre eskuina bezain antieuskalduna izan da, Administrazioa hunkitzen duen guzia bereziki. Azken mementoko ele ederrei sobera fidatu gara. Zer nahi duzu, gosek hiltzen ari dena zerbaiti lotzen, alabaina...

Abertzale zenbaitek ezkertasuna aitzinean emanik guti edo aski sinetsi dute sozialistekilako harreman horietan. Gaur haatik, hondar ilusioak bertan behera erori zaizkie. Sozialistek emanak eskuindarrenak baino gehiago badira ere, gu zatitu eta gure arteko eztabaidak sumindu dituzte. Saltza ederra! Halere ez da debaldetako izanen esperientzia hau, erakaspenez betea baita! Nohoiz baino gorago diogu, bakoitzaren ikuspegiak errespetatuz, puntu larrien eta beharrenean inguruan elkarri hurbilduz joan behar dugula.

Herri xurgatzaileak

1986-02-06

Zer gizarteri buruz ari gara? Gaurkoa, gizarte doi bat gerizatua bihurtua zitzaigun lanbideari dagokionez. Lehengo kapitalismo salbaia hura pixka bat jabaldua zen hainbertze eta hainbertze borrokaren gustuz. Langileek eta bereziki funtzionarioek, baina bertzeek ere lanaren ukaiteko mentura zer bait bagenukeen. Ez dakigu nola hautsiko duten funtzionarioen lan segurtasuna baina ikusten duguna da bertze guzientzat lanaren ukaiteko segurtasun izpirik ez lukeen gizarte baterat eraman nahi gaituztela. Zeingehiagoka jokatu; ez da bertzerik aipu: azkarrenak irents dezala ttikia eta jo aitzina bertze handiagoko batek irentsi artean...

Enpresak euliak bezala erortzen dira egunetik biharrerat. Komertzio ttikirik ez aipa, hola segituz, zenbait urte barne ez da bihirik geldituko gure herrietan! Begira « Leclerc » famatua Urruñan jarri zaiguna. Agurtzen dugun Daniela Albizu andere abertzalearen ezaz kanpo, bertze herri gizon guziek onartu dute holako tresna herri xurgatzailea! Konkurrentzia behar omen da. Baina herri gizonek ez luketea jakin behar konkurrentzia neurri batzuetan atxiki behar litzatekeela? Oilarra joka bedi oilarrarekin; baina oilarra izanik ere azeriari ahorat ematea, hori ez da konkurrentzia sarraski bat baizik!

Nahi genituzke, ori, ikusi bertzerentzat konkurrentzia horren errexki gomendatzen dutenak, berei eman baliezaiete dastatzerat; adibidez, Urruñako errugbi ekipoari igandero Baionako ekipa nagusia! Hori, zeingehiagoka deituko lukete? Ergelak alabaina... Hona beraz Leclerc egunero kazetetan; bere izena agertzea aski jendea biltzeko. Handik legez kanpoko ekintzak, hemendik publizitate ihaurri. Horrela segituz prezioetik - soilki - joanen dira denak. Gizatasunak ez baitu irabaziko... Baina zertako kexa: jendeaz holako arta goxoa duten merkatariek, langabezia hedatzen badute ere, azken egoitzarat bederen erdi prezioetan eramanen ahal gaituzte!

Gaskoiak eta **gaskoieraz** hitzaldi « labur eta on » baten entzuteko aukera ukan dugu Manex Goihenetxeren eskutik, joan den ortziralean. Historia ikerle honek berrikitan argitarazi du liburu gotor bat « *For et Coutumes de Basse-Navarre* » izenburuarekin (ikus Enbataren 899. zenbakia) zeinetan erakusten baitzaigu gaskoiera izan dela luzaz Euskal Herrian erabili den hizkuntza ofiziala. Doazela gure oharpentxoak ere, frangotan gaskoien aipatzeko dugun herabea hautsiz. Gaskoiera, biarnesera eta okzitaniararen arteko ñabarduretan ez gara sartuko hemen; hauek guziak « gaskoi » hizpean nahasten baititugu maiz. Hitz hau, funtsean, « kaskoin » bihurtzen da askotan; ez baitu beti erran-nahi amultsuena...

Gaur gaskoiera euskara bezain edo berdin euskara baino hitsago dabil. Frantsesak itotzen ari du hura ere. Haatik Iparraldean frantsesak gaskoiera zapaldu ez balu, gaskoierak irentsiko zukeen euskara... hala dirudi! Gaskoierak izigarriko omena zuen euskaldunen artean ere; zoko guzietan sartzen ari zen! Gazte asko bazihoan mutil « linguaia » ikasteko baizik ez bazen ere, Landesetarat edo Biarnorat. Haien eta hemengoen artean harreman frango eta zenbat ezkontza! Azpimaratu behar da: gaskoi hitzak eta gaskoiak sartu zaizkigula sekulakoak baina jakin dugula ere haietarik anitzen irensten eta euskalduntzen... Halere aitortu behar gaskoiera beti eta beti zabaltzen ari zela euskararen kaltetan eta beraz « jatear » gaituela diogunean, bistakoa baizik ez dela.

Gaskoiera merkatar handien hizkera zen eta horiek ez ziren biziki maitatuak; bereziki abere tratulari indartsu eta lotsagabe haiek, laborariek ederki baliatuz handizki aberastu baitira. Alde horretarik beraz, erran dezakegu, frantsesa baino higuinago genuela gaskoia. Gaskoien nagusigoa gauza ageria zen: frantsesena aldiz anitez gordeagoa zelarik: ez baikintzaizkion ohartzen ere!

Gaur gaskoizale zenbaitek BAB horretan ez dute onik gure bideen trabatzen baizik; berriki Ateka aldizkariak bipilki azaldu digun bezalaxe. Gaskoi horien errabia zertarik datorren? Ihardespena ez da errexka. Gaskoi batzuen herrak ez digu ahantzarazi behar, ordea, gaskoizale egiazkoak; beren hizkuntza galtzerat utzi nahi ez luketenak. Ez dut uste haiekin izanen dugun arazo handiegirik, adibidez, bakoitzaren lurraldeaz erabakitzerakoan.

Hauteskundeak

1986-02-27

Astelehenean ireki da beraz ofizialki frantses hauteskundeetarako kanpaina. Nor ohartu da zerbaiti? Aspaldi du alabaina, beharriak tutatuak ditugula batzuen eta bertzeen berba eta elasturiez. Demokraziaren kermeza: hauteskundeak! Egiatzko ahala baino ilusio bat ematen diona hautesleari. Hala ere sistema hau ez dugu sobera gutietsiko horretarat heltzeko batzuek egin dituzten indar eta isuri duten odolaren errespetuz... Aurtengo auzi handia dugu presidente ezkertiarra nola akomoda litekeen diputatuen gehiengoa eskuindarra balitz datorren martxoaren 16etik harat: nola elkar-hartuko eta boterea nola banatuko luketen elkarren artean...

Holako egoerak gertatzen ahalko ziren lehenago ere; funtsean 1967an bi diputatuz nagusitu zen gaulisten alderdia. Denak oroit dira nola Euskal Herriak eman zituen delako bi diputatuak: Bernard Marie eta Michel Inchauspe. Baina garai haietan elkar-hartzerik ez zen aipatzen ere sobera urrun baitzebiltzan elkarrengandik. Zertako, ordea, horrenbertze harrabots aurten gai horretaz onartzeko partez frantses konstituzioa arrunt bitxia dela eta diputatu hauteskunde gehienetan arazo ber berarekin gerta gaitezkeela diputatuak bortz urterentzat eta presidentea zazpirentzat hautetsiak izanen direno?

Saltsatik ateratzeko ez da konstituzioaren aldatzea baizik. Ez da ENAtik ateratua izatearen beharrik horren ikusteko. Ordea, Frantzian ez dira gauzak funski aitzinatzen krisien bidez baizik. Konstituzioa aldatzen ahalko zuen Mitterrandek; zertako ez du egin? Errexki egin zezakeen, haste hastetik aihar egona zitzaion-eta! Hain gauza nekea eta kasik ezinezkoa ote da presidentea bost urterentzat lehenik hautestea - hura denaz geroz guzien ardatza - eta gero, jarraian, hilabete pare baten buruan, terminoan izan ala disoluzio baten ondorioz, diputatuak hauta berdin bost urterentzat haiek ere? Gaurko egoera ez da ona; De Gaullek eragina zuen, bi andanatan ezarri nahiz frantsesak, komunistak aurkituko ziren alderdiak beti galduko zuelakoan. Ordea, nahasketa eragiten du, eskuina eta ezkerraren arteko aldeak ilaunduz!

Eta zertan gara gu euskaldunak zalaparta horien guzien erdian? Ahantzixek ez ote? « Boz urte, gezur urte » zioten lehen. Baina gertatu zaio ezkerrari zernahi hitzimatea eta arras guti burutzea; hitzemanaren alderantzizkoa egin ez duelarik, nahitarat edo ez. Ondorioz, aitor dezagun, nehork ez duela aurten gauza handirik hitzematzen botererat heltzeko esperantza dutenek, ez frantsesei eta are gutiago euskaldunei! Gisa batez hobe: boz denboretako liluratzailiek desmasia sobera egin baitute orain arte.

Hitzemaileak ditugu beraz, muturretakoak komunistak eta Fronte Nazionalekoak. Gisa guziz, ez hor ez bertzetan, euskaldunentzat ez da deusik, ez Departamendurik, ez Xartarik, ez deabru fritsik. Hitzematea ere ez zaie balio gehiago! Oraino badutela astia zerbaiten eskaintzeko boz egun arte honetan? Ez ahal da euskaldunik azken azken mementoko elasturi bati fidatuko denik? Etsitzekoa balitzateke orduan...

Beharrik euskaldunak xutitu dira ori! Baina zer baldintza txarretan ez dute lan egin behar? Gure eremuak baino anitzez urrunago hedatzen diren eskualde eta departamenduen erdian urtuko baitituzte ondorioak. Bistan da jakinen dugula geure eremuetan geure konduen egiten; hala ere ez da hau « ahal dena » baizik eta ez nehondik ere « behar » genukeena. Eta erran gabe doa ezin onetsia zaigula astelehenean jakin duguna: polizia EMAkoen ondotik dabilela zenbait afixa gaizki ezarrirengatik. Deitoragarria, bertzeak, kasik nahi dutena eginik ere, ez baitituzte batere erasiatzen...

Ortziralean goxatuko gara poxi bat bederen **Sokoa** enpresaren biltzar nagusian; lantegia Patxi Noblia-ren buruzagitzapean, urtetik urterat, mozkin hobeak emanez doakigu. Zorionak zuzendaritza guziari, langile guziei, eta etsenplua heda dadila...

Boz-ondo

1986-03-20

Hauteskundeak iragan zaizkigu; Euskal Herriko emaitzez, xehetasun asko aurkituko duzue zenbaki honetan. Ez beharbada nahi bezainbat, zeren bozkatzeko sistema berriak (proportzionalak) anitz luzatu egin baitu emaitzen bilketa eta bide berez hauen azterketa. Larri-larria erran dezakegu EMak aurten, EHASEk 1978an eta Enbatak 1967an, bildu zuten portzentaia bertsua eskuratu duela. Baina erran behar dena da Enbatak ezker-eskuinak biltzen zituela, EHAS ezkertiar hutsa agertzen zelarik eta EMA ezkertiar baina ere, gehiago dena, borroka armatuari begirunez betea dagoelarik. Beraz eta ikusten dugunez, Euskal Mugimendua geroago eta gogorkiago ibili da bere lan eta xedeetan bai eta hauteskundeei begira ere.

Mugimendua zabaldu nahiko genukeenak ez gara, behingoan bederen, geure xedeetarat heldu. Damurik, hauteskundeak izan ohi baitira, bertzeak bertze, alderdi politikoen eragina kontatzeko une bat bezala. Ez goazke, alabaina, beti eta gehiago gogortuz emaitzak maila berean dagozkigularik! Atxiki bai, baina hori ez da aski. Aurrerabidea « batasuna » ote da, hainbertzetan guhaurk hemendik beretik aldarrikatua eta geure ahal guzietz bilatu duguna? Iritzi ezberdinekin egin nahi dugun batasuna geroago eta nekezago ikusten dute askok bide hori: hauteskunde kanpainak berak borroka armatuplean iragan behar baditugu segurik.

Badirudi hiru andanatan jartzerat goazela emeki emeki:

- gogorrenak, borroka armatuari beti eta azkarrago lotuz jokatu gogo dutenak;
- helburuak bertsuak izanarren, borroka armaturik gabe hobeki hel gintezkeela daukagunak;
- helbide eta helburu moderatuagoekin Goiz Argi-ren inguruan higitzen hasiak direnak.

Iduriz arras ongi litzateke: euskaldunek aurki bailezakete hor nahiko hautua. Baina gerta litekeen arazoa: zatiketak sakontzea, artifizialki elkarrengandik bereizi beharrez; jendeak gehienetan denak « zaku berean » sartzen gaituelarik. Ahantzi gabe emaitzak, orokorki emendatuko balira ere, hirutan zatitzeak, aulki baten eskuratzeko zaildu egingen lukeela. Alabaina, « proportzional » sistema honek iraun egin behar balu, abertzaleek - batean jokatzeko gero - hautetsi batzuk ukaitea ez bailitzateke osoki ezinezkoa...

NATOr eza. Hitz bat, Hegoaldean, erakunde horri buruz eman duten iritziaz. Behin eta berriz Hegoaldekoek erakutsi digute Euskal Herria ez dela Espainia. Zenbait emaitza harrigarriak dira; hala nola Gipuzkoan orokorki edo oraino lurralde horretako herriska batzuetan bizpahiru « si » bakarrik bertze guziak « no »!

Badakigu « no » guziak ez direla amerikarren etsaiak, ez eta naski NATOrenak ere (?) Itxuraz, euskaldunek berriz ere erran nahi ukan diete, lehen lehenik Madrilgo agintariei beren « eza ». Nahiko garbia izan da gainerat. EAJko zenbaiten ohiko dudamudengatik eta horietarik zenbaiten « baia » rekin. Konstituzioa onartu ez zutenean bezain garbiki erran dute aldi honetan ere beren ezetza Espainiari eta beregain izateko nahikundea erakutsi, demokratikoki, mundu guziari! Itxaropentsu ager gaitezke.

Gorabeherak

1986-05-15

Frantzian harritu dira bazterrak jakin dutelarik hodei irradiatuak iragan zaizkigula buruen gainetik, gustuan geure eguneroko lanetan ari ginelarik; hain xuxen iguzki berritan, hainbertze eguraldi txarren ondotik. « *Ikusten ez duen begiak ez dik negarrik egiten* » aditzen genuen haurtzaroan; gure gobernariak ere hala halaxe pentsatu dukete: iguzkia berriz heldu-eta domaiatzatekeela garen « haurrei » eguna hondatzea! Irakasle batzuek halere sumatua zuten zerbait; bertze herrialde guzietan hunkiak baldin baziren, gu ere - guti edo aski - hunkiak ginatzekeela. Ikasleei holako zerbait azaldurik, izitu ere egin baitira haur batzuk eta ez guti!

Orain « Berdeek » beren iritziak zabal ditzakete arrakasta gehiagoren ukaiteko menturarekin. Izanen dute non zer egin! Arrunt loakartuak ditugu bazterrak, eskuinean ez da harritzeko baina ezkerrean ere. Frantzian biziki ahul dabil nuklearraren aurkako mugimendua. Nukleartegiak sortu dituzte onddoak bezala eta toki banaka batzuetan salbu ez da izan lekuan lekuko jazartzeaz bertzerik; ikusten dugularik alta gaur, hurbilenak badira ere lehenik hunkiak **denak** joak izan gaitezkeela: gainez gain - hodeiek ez baitute mugarik ezagutzen - bertze erresumetako istripuen ondorioak guhaurenak bezain kaltekorrak gerta baitakizkiguke!

Eta gogorat datorkigu « Lemoiz » halako jendeketaren erdian jarri nahi ukan zutena, baina Euskal Herriak eta ETArekin borroka armatuak hantxe daukatena agor eta hilaurre! Borroka hori gogorra izan zen; ekintza batzuk alde gehienetarik gaitzetsiak izan ziren. Mintza zakizkigute bada gaur moralista handiak, mintza! Ala mihia galdua duzue? A! zein errex den ekintza batzuen kondenatzea; errexe! Ez izi hala ere irakurle, ez baikara borroka armatuaz eldarniotan sartuko; ez da gure usaia. Borroka armatua gure kontzientziaren gurutzeta baita: tortura bat bezala daramagun oinazea.

Ez gara ere nuklear indargaizaleak izan behin ere (ikus bertzeak bertze Enbata 792. zenbakia) bereziki, arabeen menetik askatzean frantsesen, espainolen edo amerikarren menperat eramaten gaituelakotz. Bertzalde, orain arte ez ginen halaxe axolatzen irriskuz, ikusiz gaurko munduak irriskua non-nahi daukala. Hainbertze errepikatua ziguten ere irrisku hori izan daitekeen ttikiena zela, Ameriketako istripu hartaz kanpo ez genuen bertze adibiderik. Gaurdanik, irriskua hor dugu argi eta garbi. Bertzeen gainerat ez digu geure nuklearzaletasuna emendatuko...

Agurtu behar dugu Janbattit Dirassar-en hitza joan den asteleheneko Sud Ouest-ean. Herri Urrats bezalako egun batetarat heltzetik jendea mugan oztopatzea, jasangaitza da alabaina; areago Espainia Europan sartu den urte honetan! Baina ez ote du aspaldi Espainiak gure herriari « arta » bereziak ekartzen dizkiola? Horra beraz bi gertakari erakusten dutenak nolako « demokrazien » gerizian dagoen Euskal Herria: batean atxikitzen dute jendea jakin gabe, haur mukuzu batzuk bezala, eta bertzean oztopatzen dute izan daitekeen elkarretaratzerik herritarrena.

Artetik errateko, herritarrago ere izan litekeelarik laborariei ebatsi lur horietarik urruntxago ibil bagintez. Euskara lehertua dela denek badakigu; baina ez da arrazoi bat bertze batzuek jasan eta jasaten dutenaren gainetik iragaiteko... Jadanik entzuten baikenuen, turismoari esker sortu zirela euskal elkarte asko, hona non, egundainokotan, ez garen gai turismoaren tenplo honetaz bertzerik atzemateko geure biltzar zoragarriarentzat! Historiak irri-trufa ederrez estaltzen gaitu guziak... Hegoaldean Lemoizen aurka, Iparraldean turismoaren kontra, horra hor bi borroka guziz sinbolikoak. Baina, haien guduaren ondorioak gaur nolabait gozatzen ditugun une berean, goraxago genioena, geurearen ondorioak hantxe daude, turismoaren bultzatzeko eginga eta beti egiten ari duten putzuaren zolan...

Berri on zenbait

1986-06-05

Baldes gizon dohakabea urrikari dugu baina euskaldunen hiltzailea betiko zigorraz gazitua, gertakari handia dela daukagu. Segidan erran dezagun ere, gizon triste hori eskumakila bat baizik ez dela bulego ederretan jende « ohoragarrienen » itxurarekin dabiltzanek manatua eta ordaindua. Ez da txarra halere; beharbada hemendik aitzina, hiltzaileak nekezago atzemanen dituzte beren lan okaztagarrietarako!

Zer gertatu da bada bat-batean? Lehen lehenik gaiztagina harrapatzea; ez da egun guziez gertatuko alabaina harrapatzeko nahia eta ahala duen abertzalea, hantxe, xuxen behar den unean eta behar den kalipuearekin! Gehiago dena, esku-huts izaki-eta gaiztaginari armak ez kurritzea! Hori zoria! Eskerrak Goikoari! Bertzalde zerbait bitxi edo berri usnatua genuen Antenne2 telebista frantsesak apirilaren 10ean emanaldi famatu hura zabaldu zuenean. Kazetarien kuraiaz bertzerik ere hauteman zitekeen: emanaldi horren antolaketak hasiak ziren eskuina boterean sartu aitzin, baina ez zena bide onean aspaldian?

Eta hona non TF1, bertze gateak, erakusten digun berriz bertze emanaldi bat joan den maiatzaren 29an. Ez bazen aitzinekoa bezain ona ere, gaurko egoera zaila, bi aldeetan, hainbat ongi azaldu duela iduritzen zaigu. Ez baikinerekin usatuak horrenbertzerekin ere. Guzien gaineko, egundainokotan, joan den egunean Pasqua barne ministroak atera duena: estatu batek ordaintzen dituela hiltzaileak... Bada zerbait gero! O! badakigu « *gatu horrek baduela bertze buztanik* » eta Pasqua ez dela euskaldunez kexu eta nahiago ukan dukeela ostiko bat eman sozialistei izan zitezen Espainiako ala Frantziako. Dena den erran du, eta Paue-ko epaileek kontu atxiki dute dudarik gabe (*).

Horra hor beraz, berri onak kasik burrustan eta... beti heldu: Herri Batasuna ere legeztatu dute - azkenean!- Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Emak sakelan, to, Barrionuevo! Alderdi batentzat abantaila handia da legeztatua izatea, bere lana anitzez errexten baitio. Goizegi baldin bada ere errateko, horra hor oraino negoziaketak edo abiapenak bederen, hinki-hanka, baina beti alha. Tentsioek diraute, baina hodei ustel hura doi bat arindu dela dirudi. Ez da, bada, txarrena, asteko berrietan, orain aipatzerat goazena: Iparraldeko garrantzi handikoa baita Euskal Batasunaren sortzea. Hona beraz, ofizialki - Goiz Argi eta EMAn ondotik - askotan aipagarri izan den Iparraldeko Euskal Mugimenduaren hirugarren tendentzia plazaratzen zaigula; tarrapata eta harrabots gehiegirik gabe, bere bidea eginik.

Aspaldiko xedea, gizon eta emazte formatuak elkartzea. Asko dira hor, euskal gizarte eta politika alorretan trebatuak. « Bihotza sutan » izanagatik « burua fresko begiratu » behar dela dakitenak, bereziki politikan! Igurikatzen dugularik biltzar nagusia xehetasun gehiagoren ukaiteko, badirudi, Iparraldeko abertzale eta euskaltzale anitz bil ditzakeela. Ordu zen hainbertze bereber zebiltzanek aurki zezaten biltzeko aukera batasun baten gerizan. Jadanik Abertzaleen (guzien ?) Biltzarrari pentsatzen dugu... baina, baratxe! Goazen urratsean. Hiru Euskal tendentziak betantsu abiatuak, bakoitzak landu egin bitza lehenik bere xedek.

(*) Ministroaren ahapaldi horrek ez du nehor enganutzen haren gogoa baita iheslarien lekutzea. Harentzat denak terroristak baitira; ezagutzen dugu aitzakia. Baina ez dugu azken hitza emana. Hasi kanpainarekin batean gure ihardespak bakarrik da: « Iheslari bat, etxe bat! » Hots iheslariak Euskal Herrian eta kito!

« Alai eta kementsu ! »

1986-06-26

Ez ditugu oraino ezagutzen joan den igandeko hauteskunderen ondorio guziak; luze ateratzen dituzte ez baitira mugaz honaindian bezain trebatuak sail horretan... Halere has gaitzke zenbait oharpen egiten. Lehenik jende gutiago izan dela boz ematen: igandekari bozkatzeak, Mundiala, eguzki zoragarri hura eta abar, guziek eragin dukete beherakada hori. Noren kaltetan? Zaila da ihardestea; dirudienez, usaian segurik, boterean daudenen adiskide epelduak edo hozten hasiak, dira holakoetan bozik eman gabe egoten direnak beren samurgoaren erakusteko. Beraz PSOEk eta EAJk dukete jasan gehienbat abstentzioaren ondorioa. Ez gara beraz hautesleen kopurutik ariko; alderdi bakoitzak eskuratu dituen portzentaiak adierazgarriagoak baitauzkagu.

Abertzaleak nola atera diren? EAJ doi bat gibelerat denetan eta lurrerat Nafarroan. Nor da harrituko? Lurralde horretako kideekin izan duen jokabidea ikusita; alderdi bortitzenetan ezagutzen ditugun bazterteen parekoa izan baita. Garaikoetxearekin izan duen jokabidea ezin ulertua zatekeen bozkatzailerik soilarengandik. EE arras ongi jalgi da hauteskunde hauetarik. Beheiti zihoakeela... ez ez, goiti goiti izatekotz eta Bizkaian, adibidez, kasik bi puntuz eskuan ditugun xehetasunen arabera. Eta Herri Batasuna? Gorapen gaitza egin du. Igargarria bazen ere aspaldian, oso nabaria izan da: 2 hautetsietarik 5etarat igan zaigunaz gero. Lorpen loriagarriena: Nafarroako hautetsia! Itzal bat beti behar-eta; Araba; ez baitu han lortu hautetsirik, nahiz ez den batere gaizki ibili bozkatzailerik kopuruari dagokionez.

Oro har, urrats ederra beraz HBrentzat; guziz ohargarria delarik Mahai Nazionaleko eta buru-kideen zorian neurrietan atxikia joan den igande arratsean ikusi den bezala. Hala zapalduarik den alderdi batentzat, holako emaitzak lortzen direnean « neurria atxikitzearen » arazoa baitago. Aspaldi du batzuen kemenak harritzen gaituela; alta bada aitortu behar dugu joan den igande arratseko alaitasun neurtu hura ere biziki gustatu zaigula. Zer duintasuna! « Alai eta kementsu » doalarik, herri honek holako gogo eta ahalak erakustea bada zerbait...

Eta zer ikusten dugu espainiarren aldetik? Alderantzizkoa; betiko mespretxua eta herra. kazetari batek euskal alderdien portzentaiak estatu mailan urturik azaltzen dizkigu: %0,9 edo %1,2 eta holako petentakeriekin! Frantses telebistatik ez aipa; lotsagarriak izan dira gehienetan. Gudari erromantikoak maite dituzte baina Jainkoak begira zerbaiterik hartzeko bideak hartzen badituzte edo/eta areago emaitza handiak eskuratzen, orduan, izitzen dira, naziak eta oro aipatzerainokoa! Ipurdia lastoz?

Dena den gorapen nabaria da, egiazki, euskaldunentzat igandekoa. Estatutua ez zaio aski EAJko jende abertzaleenari eta zati hori, HBri buruz abiatzea gauza ona zaigu. Areago hobea kanpotik etorritakoak, haiek ere, biltzen ahal balitu geroago eta gehiago, ederki hasia den bezala. Hor baitago, dudarik ez, gure arazo handienetarik bat. HB ez da Madrilerat joanen. Ederki egiten du: funtsean nolaz lihoake, han, Espainiako konstituzioari eta banderari leialtasuna zin egin behar bailukete hautetsi berriek. Ezinezkoa da.

Aldiz, Gasteizko Legebiltzarrerat joanen direnez? Eztabaidatu zuten sakonki ez hain aspaldi. Ez joatea nagusitu zen. Geure iritzi xumea ekarri nahi genuke hemen. Hauteskunderen parte hartuz gero eta Euskal Herrian izaki, hautetsien erdian borroka jarraitzea bidezkoagoa dela daukagu mutur egotea baino. Hartu sailaren segitzeko eta aitzinarazteko parada bat ez ote liteke izan Gasteizko legebiltzarra? Ageriko. Negoziaketak jarraitzeko giroa beti lagunduko dutela igandeko emaitzek uste dugu. Agian bai.

Iratzar gazteak !

1986-07-17

Joan den asteen, Herriz Herri astekariak argitaratu ditu ikerketa guziz interesgarri baten ondorioak. Ikerketa hori « Association d'Etudes et d'Information en Milieu Rural » deitu elkarteak burutua du, 16 eta 21 urte arteko 200 bat gazteren iritziak bilduz. Ez dugu ikerketa guzia azalduko, bakarrik hartu ditugu lau galdera, ohargarrienak iduritu zaizkigulakotz:

1°) Quelle sera votre attitude face à la société? Je m'y sentirai bien parce qu'elle me convient: 19%; Je m'y adapterai parce qu'il le faut bien: 56%; J'essaierai de la changer: 20%; Je la rejeterai: 5%.

2°) Pour obtenir mon premier emploi: Je suis prêt à quitter le Pays Basque: 49% ; Je chercherai à compléter ma formation (stage...): 24%; Je ferai n'importe quel boulot pour rester: 16%; Je n'aurai pas de problèmes: 7%; Sans réponse: 4%.

3°) Quels sont, selon vous, les secteurs de l'économie porteurs d'avenir au Pays Basque? (Ordre d'importance) 1. Tourisme; 2. Commerce et Artisanat; 3. Technologies nouvelles; 4. Agriculture et Pêche; 5. Industrie.

4°) Votre avenir personnel est-il lié à l'avenir de votre région? Non, je suis citoyen du monde et mon avenir dépend de moi-même: 41%. Un peu, car l'évolution de la société conditionne mon avenir: 36%. Beaucoup, l'avenir du Pays Basque est très important pour moi: 17%. Sans réponse: 6%.

Aspaldi du holatsukoak sumatuak genituela geure inguruetan (Ikus bertzeak bertze Enbata 1984-12-13koa) Euskal Herriz kanpokoentzat segur ginen gogo epel hori karraskan zabaltzen ari zela. Baina uste genuen herriari atxikimendu gehiago eta gizartearen aldatzeko borondate argiagoko bat bazela Euskal Herriko gazteen artean. Zifreak ere baziren alta hori erakusten zutenak. Dударик ez da, « ainara batek ez duela udaberririk egiten ». Ez dela sobera ilundu behar halere? Begira ezazu ordea, turismoa datekeela bihar lanpostu sortzaileena, 25 urtez erakutsi nahi ukan dugunaren alderantzizkoa diote! Begiak irekitzeko ordua dukegu: geure gazteria ingurukoen iduria bilakatzen ari baitzaigu. %20 baten ihardesprenak gustatzen zaizkigu: ez da aski adin horretakoengandik...

1939ko gerla aitzinean eskuin muturrekoak ziren orduko gazte asko ziotela: komunista, erradikal edo framazon horiek ustelak dira; Frantzia, familia eta erlijioa errekarat badaramazkigute eta abar. Gero berriz, abertzaleak etorri gara berdin extremistak. Frantzia lurra baino beheiago ezarri askotan. Zertako gara honen osoak, alde baterat edo arras bertzerat baizik ez dugu onik, nehoiz neurriak aurkitzeko gai ez bagina bezala? Baina politikan ba ote da erdibiderik urrun daramanik? Horra hor galdera.

1968ko iraultza iragan zen; ondorio askorekin, baina gaur orduan baino makurrago gabilta sozial mailan bereziki. Ordea, gizarte aldakuntza gotor batek izitzen baditu gure gazteak norat goazke? Maiz erraten baitugu gazteak heldu direla gure ondotik, haiek eginen guk egin ez ditugunak eta abar, erraten ahalko duguia hemendik aitzina ere? Segur heldu direla gazteak baina gu baino urrunago joanen ala gibelago geldituko direnak? Guk, geure aitak baino urrunago joan nahi ukan dugu, seme guziek (?) bezala. Baina guk ireki nahi ukan ditugun bideak ez dute ukan espero genuen bezainbat arrakasta eta gaurko gazteetan bierarteko bide mottel bati buruzko abiapena hauteman daiteke ikerketa horren ondorioetan. Bizkitartean, gazteek beren ikuspegi garbiegiaz bazterren inarrotea guziz normala litzaiguke; nolabait erran, urrunegi doazenak ere nahiago ditugu adinik gabe jabalduak baino!

Betidanik izan dira euskaldun sinestunak, ideal batentzat beren bizia emateraino joan direnak; azkenak ote gaurkoak? Gazteak, emaguzue bertze ihardesprenik ere, bertzela xahu gara!

Denak Baionarat larunbatean

1986-08-07

Aste honetan oraino iheslariak ditugu gai nagusi, soil ez errateko. Ohartzen ari dira bazterrak - behere horietan ere emeki emeki - gertakari zinez deitoragarriak bizi ditugula hemen gairi: frantses botereak bere legez axolatu gabe, espaniar poliziaren eskuetarat iheslariak ematen baititu justiziatik iragan gabe. Banazkako bidaltze hori ederki asmatua du Frantziak: gure borondatea nahi luke horrela higitu, jendea ase, azkenean gure kontra itzularazteko. Uda hautatuz gainerat, jakinki turismazaleen eta abertzaleen arteko sumindurek dirautela, erakusten du ezin maltzurkiago jokatzeko badakiela. Guziek salatzen dute jakabide hori.

Euskal Batasuna ere, oihuminez, frantses intelektualei ari zaie zer pasatzen den bada; ea gehiagoko harrabotsik egin gabe egonen diren holako zuzengabekeriaren aurrean. Egia da isiltasun handi batzuk nabari direla, hala nola Gisèle Halimi, hain ederki mintzatu zena Burgosko auziaz eta Hegoaldeko arazoak bere liburu mamitsu hura idatzi zuenean. Baina ezkerre boterean zelarik ja isilik egona zen estradizioen aurrean, doi-doi bizpahiru lerro idatzi baitzituen. Komunistak ere hola hola dira: biziki ongi mintzo dira oposizioan direlarik eta ahate mutuak dirudite botere miko bat eskutan izanez gero! Frantses ezkerre deus guti egin dezake: okerkeriak, guri buruz, berak hasiak ditu-eta! Eta berriek dira.

Ez dugu haatik gutiz utziko, adibidez, astearte eguerditan A2k egin duen azalpena hautetsien prentsaurrekoaz. Ez du atsegin ttikia egiten holako gertakari bat Paristik zabaldua ikusteak. Zorionak antolatzaileei. Arrazakeriaz arrangura direnek, haiek ere, zer diote? Joan den astean motorista bat polizia batek gibeletik hil duelarik « *racisme anti-jeune* » oihukatu dute. Ederki. Baina euskaldunak zakur errabiatuak bezala erabiliak direlarik, hitzik ere ez, dakigularik beti. Arazoa urrunagokoa eta errexago mintzatzea! Badu 25 urte Iparraldeko mugimenduak igurikatzen duela laguntza. Gutti lortu dugu, ez baita gehiago baizik preziatzen, hala nola Yann Choucq eta Denis Langlois abokatu batzuen.

Aljeriarrek, adibidez, guk baino laguntza aise gehiago ukan dute, materialki bai eta moralki. Berrikitan ikusten genuen nola Françoise Sagan-ek ere bere auto azkarra FLNari prestatzen zion « lan berezi » batzuetarako! Horiek guziak hola, nehoiz baino argiago ikus dezakegu Iparraldeko indar guzien bateratzearen beharra. Gure aterabide bakarra hor da. Hautetsiek, apezek eta bereziki alderdiek ihardespen bakar bat eman behar dugu datorren larunbatean Baionan. Batzuen eta bertzeen iritzia ezagutzen ditugu orain denek. Elkarri hurbiltzea bilatzeko partez norbait bertzalderat joka baledi, erantzukizun handia har lezake historiaren eta herriaren aitzinean.

Alderantziz, indarrak bilduz eta elkarrekin agertuz larunbat honetan, biharamun hoberik itxaron dezakegu. Gaurdanik 500 bat etxek aterbea eskaintzen diete iheslari: hautetsiak eta apezak mintzatu dira hainbat ederki. Larunbatekoa ez dugu hutsegin behar: denak Baionarat Gaztelu Zaharraren inguruan, arratsaldeko laurak alderat.

Ezin maita eta ezin hastia

1986-09-18

Badirela gertakari egunerokoak eta gertakari bereziak erran genezake. Iragan astean, bi gertakari berezik inarrosi gaituzte; batak pozez: Bizkaiko Ibilaldiaren (*) mozkinak Seaskarentzat izanen direla; bertzeak aldiz - Yoyez-en erailketak - sekulako gogoetetan sarrarazten gaituelarik. Zenbaki honetan dator, erdaraz, gai horretaz geure artean eraman dugun gogoetaldi luze bezain bortitzaren bilduma. Holaxe gabiltza abertzaleak aspaldiskoan ekintza bortitzenen ondoan bertze ekintza ezin ederragoak jarriz. Haurrei bezala naski erran dakiguke: ezin maita eta ezin hastia!

Parisen ere alta badute kezka ugari: ez dute terrorismoaz bertzerik ahoan. Gerlan garela diote! Terrorismoa ez, baina sasi-gudua, ahulenen eta lehertuen azken beltzeko mintzabidea da: azkena zinez. Estatuak eta boteretsuak beti azkartuz eta gogortuz doaz. Herrialde ttikiak, gero eta argiago sentitzen dute gainean duten aztaparra eta jasangaitzagoa zaie: zuzengosea, zuzentasuna baino lasterrago hedatzen ari baita...

Baina ere gaurko teknika eta komunikabideek, ttikienei ere zerbait « botere » eman diezaiekete; kasik nornahi, non-nahi hunkitzeraino, estatu bat inarrosteraino. Desafio izigarria azkenekotz zezen bati sudurretik lotzea. Chirac haserre bizian abiatu da izurritea bentzutu beharrez. Armaz eta mehatxuz ez dut uste, haatik, deusetarat helduko denik: ez baitute molde horiek eragin handirik gisa horretako guduan sartuak direnen baitan. Chirac-ek abisatuak gaitu: « *Terroristak atzemanen ditugu eta mintzatuko dira (...) jakiten badugu estatu batek laguntzen dituela jazarriko gatzazkio zuzen* » (Reagan Khadafi-ri bezala?) edo bertzela zerbitzu sekretuen bitartez » (Bertze GAL batekin?)

Ikusten dugu beraz zertan garen; armada ere jaukitzen dute berme. Egoera horrek, nahasketa irriskua dakarrelakotz (terrorismo hutsa eta sasi-gudu kudeatua nahasiz) ez du iheslarien eta bide berez hemengo abertzaleen bizia errextuko. Irri egingarri ez balitz guk Chirac-i aholkuak ematea, erran geniezaioke balaku edo lausenguzko bideak hobeak liratekeela. Italian holaxe gaitzeko emaitzak lortu dituzte. Han ere, gorago eman arrazoiengatik, gerla mota hori ez dago desagerturik: gaur edo bihar, arin edo bortitz, estatu azkarrek jendea nahi bezala maneiatzen dutelakotz, ezinbertzezko oldartze horiek sortuko dira handitsuak bezala.

(1) Jakinarazten dugu Bizkaiko Ibilaldia irail honen 21ean ospatuko dela Arrigorriagan. Bizkaiko ikastolen federakundeak antolatzen du, mozkin guziak Seaskari uzten dizkiolarik. Erabaki goresgarri horren arrazoia denek ezagutzen dukegu: Seaskak aurten ezagutuko duen finantza egoera guziz nekea; alabaina, azken hiru urte hauetan ukan duen diru-laguntza hartarik ez du aurten eskuratuko, sinatua zuen Hitzarmen Berezia bururatua delakotz eta Hezkuntza Ministeritzak, orainokoan, Hitzarmen berririk proposatu ez diolakotz.

Bizkaitarrek hor ematen duten urratsa, euskaltzaleetasunak baizik ez dezake esplikatu. Iparraldetik erantzun on bat eman behar diegu, Arrigorriagarat ahal duten guziak joanez. Seaskak autobusak antolatzen ditu: lehenbailehen dei egizue telefono honetarat: 05.59.59.10.53.

Ausartzia izpi bat

1986-10-09

Hauxe da atera diguna Lustiger Parisko Jaun Artxapezpikuak joan den astelehen eguerditan, A2-ko kazetari bati ihardesten ziolarik, Aita Sainduaren bisitaren karietarat: « *Ars-eko erretorea, Jean-Marie Vianney, orain intsumiso edo kontzientzi eragozle deitzen diren horietarik zen, nolabait erran, zeren, orduan, izendatze horiek ez baitziren oraino ezagutzen* ».

1786an sortua zen gure erretore guzien patroia dena eta beraz, erdiz erdi, Napoleon gerlari soraioaren denboretakoa dugu hain xuxen. Soldadu joan ginelarik, Baionako paraxutistetarat, 1962ko maiatzean, kapitainak galdatu zidan ea jauzi egingogo nuenez. Nik, ezetz, ez nuela batere gogorik. Hazparneko larreetan etxetik ikusten baintuen aste oroz jauzi egiten, salbu zu-eta, ardi kakak bezala hegazkinetik ateratzen zirela, eta gehiago dena behin ikusi nuen bat parasola ireki gabe jausten! Dohakabea... Galdaketa batzuetan ezarria nuen JACkoa nintzela eta kapitainak orroaz: « *Zer pentsatu behar du zure erretoreak ez baduzu jauzi egiten?* » Erran nahi baita erretore guziak paraxutisten sustatzaile zeuzkala... Gaizo lilia!

Jakizue, ez genuela irrik gero garai hartan: Evian-eko akordioak doi-doi izenpeturik zeuden, baina paraxutistek ez zuten amore eman nahi; Aljeria beti frantses atxikitzea zen haien xedea eta helburua. Errabia gorrian ziren eta sekulan baino heziketa bortitzagoa jasanarazi ziguten. « Formazio » denboran, zangoetako errietako behatz guziak galdu nituen bortxazko martxa zital haietan, ez nintzelarik, alta, kurriztaileetan txarrena! Iduri zuen mendekatu nahi zitzaizkigula; akordio horiek itzulezinak ziren baina haiek Aljeria frantsesean sinesten zuten oraino...

Nahi zutenak, mezarat ginderamatzen, Santizpiritako elizarat, horko erretorea baitzen gure omoniera; ez nola nahizka haatik urratsean baizik! Zer itxura genukeena, hantxe, bertze otoitzerat etorrien arterat heltzean « haun-dei »ka! (= un deux, un deux)

Dena dela eta nahiz ez den gure usaiako solasa, loriatu gaitu Ars-eko sainduaren ausartzia jakiteak. Baina zein urrun dabilzkigun edo bederen zebilzkigun erretore batzuk beren patroia eta eredutik! (Ene kapitainak ez baitzuen dena gezurra...) Gerla denborak iraganak direla erranen du baten batek, areago Napoleonenak! Eta guk diogu berriz ezetz! Hori asko gertakarik erakusten baitigute. Atzokoa da hau ere A2-n kazetari batek aipatzen zuen errusoen urpeko bat: « *Sua ezin itzaliz, hondoratu da azkenean; 16 missiles nucléaires intercontinentaux bazeramatzan. Bermudetarik 880 kilometrotan ekialderat, ez da hor irriskurik batere, barreiatuko den plutoniuma, sekulako ur handitan izanik, ez du ekologiari kalterik eginen* ». Eta guzia zein goxoki, zein lasaiki atera digun! Holako ilarrak irentsarazten eta irensten dituen jendearengandik zer itxaron daiteke?

Diote ikatzak ordezkatu zuela egurra, petrolioak ikatza eta, omen, gaur indargai atomikoak petrolioak. Guk berriz ezetz: indargai atomikoa ez dela bertze indargai bat bezalakoa. Gertatzen dena da Lorrena eskualdean zentral nuklear erraldoi bat irekitzerat doazela frantsesak egun hauetan, inguruetako erresumen kexuaren gainerik iraganez airez aire. Inguruetan haserre baitira, baina Frantzia guti (azaltzen direnen merezimendua goresgarriago baizik ez bada ere). Axolarik eza ala sokatik tinko atxikiak direlaketz?

Gure hitza: Napoleoni ezaren ematea bezain beharrezkoa dugula gaur geure agintariei politikoki ihardukitzea. Ausartzia izpi baten erakustea ez ote da zuhurtziaren seinale?

Bai, baketiarrak gara gu !

1986-10-30

Oihartzun ederra lortu du beraz Aita Sainduak duela zenbait egun zabaldua zuen deiak : 1986ko urriaren 27a izan dadila Bakearen Eguna. Oihartzunik ukan ez duen tokiak aitzinetik igargarriak ziratekeen eta ez da nehor harritu. Oso sinbolikoa bazen ere, urratsak zenbait gogoeta eginarazi duke. Geure Jaun Apezpikuak ere karia horretarat gaitzeko gutuna argitaratu digu; atsegin handienarekin irakurri baitugu doi bat durduzatuak bezala egia erran: zenbait hilabetez apezpikutegiak mende baten jauzia egin zuela baitzirudien!

Gainerat, berrikitan, Lurdes-en elkarrizketa batean, oraino garbikiago baizik ez zen mintzatua gure Artzaina, axola handitan zeuzkala behardunak, gaizki erabiliak, iheslariak eta euskal kultura. Hots, sentimendu horiek guziek iraun behar balute ondorio/aldaketa onik ikusi behar genuke ondoko egunetan. Elizaren eragina ez baita gutietsi behar eskualde hauetan bereziki.

Eta hona non - artikulua honen egiterat gindoazela - jakiten dugun frantses poliziak iheslari bat (guhauren etxetik harturik gehiago dena) Espainiarat bota zuela, briu brau. Hori guzia Bakearen Eguna kari! Zer zaizue? Pasqua, Chirac eta bertzeak hantxe ziren joan den egunean Lyon-en Aita Sainduari agurka eta gurka zein kartsuago eta gero horra nola ihardesten duten haren deiari... Eskandalagarria! Faltsuak ez bertzeak!

Horra beraz norat jautsarazten gaituzten berriz ere gu baketiarrak garelarik oroz gainetik. Beharbada hemen ikus dezakegu geure Jaun Apezpikuaren gutunak dukeen ahul guneñoa: euskaldunen gogor jokatzeari izan da beti boteretsuen zapalkuntzari ihardukitzeko eta ez alderantziz. Ez gara aingeru, baina horrela hobenen erdizkatzea ez dugu onartzen. Aldi bat gehiago ikusten baitugu, gertakari honekin, bakearen hausleak eta zuzengabekeriaren sortaileak non dauden eta zein diren.

Herrizale gibel-asmodun jukutrialariak eta abertzale bihotz zabalekoak bereizten ditu Jaun Apezpikuak. Ez gaitu hunkitzen zatiketa horrek: xixtakoa sentituko dutenek ihardets diezaiotela! Guk geure lerro xume hauetan ez dugu zinismorik erabiltzen eta guziz bat gaude geure Artzain berriarekin dioskularik bildu behar dugula geure artean eta elkarrekin bermatu herriaren alde, hainbertze egiteko dugularik. Askok eta bereziki gazteek lotsatuak dirudite gaur. Ez dakite soberarik norekin norat abia. Ezkerreko politikan ez dute gehiago sineste handirik eta eliza dinamikoa biziki marginala agertzen zaie. Ekonomia aldetik ez dakite zein bide har.

Guk, Apezpikuak bezalatsu proposatzen dugu herri honen eraikitzea helburu bezala. Ez ote da hor gazte bihotz beroenen gaindika betetzekoa? Amets handiegietarat lerrarazi gabe nehor, badugu hor, hala ere, sail eder bat landu behar duguna, zaila eta gogorra baina gure biziei norabide bat ematen diona. Norabide bat ikustea baitezpadakoa baita gizonarentzat, halaber herri batentzat.

Baketiarrak gara gu, baina ez edozein bake! Askatasuna « beheretik » dator omen beti; egun guzietako lana eta borroka eskatzen ditu. Baina holaxe segituz elizak ere lagun gaitzake bidea argitzen; bere eginkizuna baizik ez lezake bete eta denen onetan litzateke.

Poeta bai, eroa ez !

1986-11-13

Egoera zailen aipatzen ohituak gara aspaldian geure kazeta honetan: nahi bezainbat dorpea izanik ere hortzez eta haginez lotu ohi gatzazkie, ahal dena eginez gehienetan. Baina egungo gaia bezain zailik ez zaigu usu gertatu. Gertakari eta afera guzietan baduzu anitz ikusmolde eta bereziki zuhauren kasuak, batzuetan, gaitzeko eragina ukan dezake iritzia ematerakoan. Gauza bat da, adibidez, iheslarien zuzenen alde agertzea, mintzatea; bertze gauza bat delarik haiei laguntza zehatz bat ekartzea.

Larri-larria bi ikuspegi daude Sokoako gertakariei buruz abertzaleen artean: bata, merkataritza lanetan egun oroz ari direnena; bertzea berriz merkataritzaren arazoak batere ezagutzen ez dituztenena. Hots, « etxeak itxura on bat ukan dezan » axolatu behar dutenak eta bertzeak.

Erran gabe doa bigarren kategorian jende gehiago badela lehenean baino. Ez gaitu haatik horrek isilik atxikaraziko, hautemana dukezuen bezala. Zer entzun daiteke bada gure inguruetan? Poliziaren jokabidea guziz salbaia eta zuzenkontrakoa dela; iheslariak zaindu behar direla eta espultzioak goraki salatu; eta harrigarriena: Patxi Noblia, gordailuaren jakinean izan zedin edo ez, ez duela horrek halaxeko garrantziarik... Baratxe otoi! Lehen arrazoi horiek in osoki ados gabiltza baina azken horrekin ez. Zertako? Jakin behar baita enpresa batentzat baitezpadakoa dela aurpegi ona erakutsi ahal ukaitea non-nahi eta nornahiri.

Mundu ekonomikoa doi bat ezagutzen dutenek badakite zer gerla izigarria den enpresen artean, « bertzea » baino merkeago izateko baina ere zeinek duen geroari buruz jokabide hoberena erakutsi eta frogatu beharrez. Borroka horretan, frangotan, piru ttiki batek atxikitzen du afera guzia. Eta une honetan, terrorismoaren salaketa nazioartekoa bizi-bizirik dagoelarik, enpresa batek ez du jasaten ahal, alde horretarik, neholako ahulgunerik. Lehenago ere Madrilgo prentsak zikindu nahi ukan zuelarik Soko, zer lehiarekin ez zen jokatu Patxi guziak gezurtatzeko: baitezpadakoa baitzitzaien enpresa garbi baten froga eskuetan ukaitea, nornahiri erakusteko hala beharrean.

Gauza bera erran daiteke Herrikoa-z edo edozein enpresaz, publiko zabal batekin lanean ari behar duten guziez. Arazo ekonomiko bortitzak direla-eta, ez da haatik Patxi, sozial egoerak ikusi gabe egon: zenbat eta zenbat laguntza, zenbaki honetan ikusiko dugun bezala. Epaileak berak ez ote du eskapatzerat utzi « *poeta aire bat* » bazuela. Bai ez da dudarik poeta dela Patxi enpresa buruzagitasunak poeta izaterat utz dezakeen neurrian. Baina eroa izan beharko zukeen holako irriskua hartzeko hainbertze itxaropen dakarren etxean bertan!

Beharbada, hemen moderatuki gabiltzanen lanak ez ditu haintzat hartzen iraultzaileak. Nork daki ez ote duen pentsatzen berdin, haren iraultza trabatzen dugula? Egia da haiengandik taktika gehixagoren ikusten usatuak ginela. Taktika mailan, petto handia izan baita, Iparraldeko adiskideen atezabalkortasunaz holaxe baliatzea. Egitate horrek, hemen adiskide ez dituztenei laguntzen die. Patxik, noblezia handirekin, ez ditu erasiatzen iheslariak azpimarkatzen baldin badu ere egin konfiantza trahitua izan dela; baitaki arras ongi hauen egoera ezinago dorpea dela. Hargatik geure buruari ez genuke harrika lotu behar. Bertzela etxeak nola iraun dezake?

Behaztopatu dira azkenean

1986-12-12

Ez gara guti harritu ikusi dugularik ikasleen jazargoa sortzen, zabaltzen, eta askenean gogortzen, hots, biziki gora igaiten denbora laburrik barne gainerat! Euskaldun gazteak ez dira azkenak izan oldeari laguntzeko eta Baionan egin den manifestazioa gaitza izan da, bereziki gazteen kopuruari doakionez, baina ere hitzaldi batzuk euskaraz egin direlaketz. Gertakari azpimarragarria zaigu eta gure goresmenak bihoazkie hizlari eta antolatzaileei.

Joan den uztailaren 17ko zenbakian genioen ozen: «Iratzar Gazteak!» Denok ikusten genuen, alabaina, zein mantso zegozkigun - bakar batzuek kanpo, bistan dena - gertakari ezin onartuzko batzuen aurrean ere. Denok gauza bera erraten dugu: gazteak ez direla soilki Devaquet-en legegaiari oldartu baina legegai hori izan dela hauspean zegoen itxindiari su harrarazi diona. Hainbertze zuzengabekeria zabaldu da azken urte hauetan: langileria lurrean zen errateko maneran! Nahi bezala ari ziren, ehunka, milaka kanporat ezartzen zituzten. Langile sindikatuak berak lotsatuak iduri zuten.

Aitortzen dugu Devaquet legegaia ez dugula ikertua; gure susmoak dioskunez, badaiteke ez zuen gauza handi handirik aldatuko; zeren selekzioa, diplomen balio desberdinak eta abar, jadanik alha baitira eta indartuz baitoaz! Zerk ditu bada bazterrak kexarazi horrenbertze? Jadanik doi-doia bizirik zegoen amets bati erasotzeak: Anaitasuna eta Berdintasuna oraino Frantzian bizirik zeudelako usteari edo nahinari. Legegai horrek ez ote zuen nolabait ofizializatzen indarrez sartzen ari zaigun zeingeziagoka etengabearen sistema?

Gizarte bihurgune batean gaude jakina; doi bat sozializatua zen gizartetik jalgiazi nahi gintuzkete eta eraman geroari buruz lan segurtamenik eta lasaitasunik batere ez lukeen gizarte baterat. Behaztopatu egin baitira ordea! Ordu zen! Gauza bertsua gertatu zen ezkerak eskola libroak hunkitu nahi ukan zituelarik; giristino ez direnek giristinoen geroaz erabakitzea ez zen onartu eta gaur ere jendearen gehixago menean atxikitzeke legerik ez dute onartzen. Bi jazartze horiek, zenbait ez gustaturik ere, ontzat eta arras ontzat ematen ditugu. Gogo osasun zerbaiten seinale diratekeelakoan.

Agian gaurko mugimendua ez da horretan geldituko; histen hasia zen itxaropena piztu baitu bazter guzietan. Itzalik ikusi behar bagenu haxe generrake: euskaldunei buruz frantses estatua jokatzen delarik bere legeak airez aire gaindituz, zuzenbideari ostiko bat ederra ematerat uzten dutela, higitu gabe. Damurik, holako utzikeriek baitute agintarien jaurgoa hazten!

Dena den, ekonomia mailan egoera garratzen denborak hor ditugu. Orain arte kapitalismo salbaia hura doi bat eztituz gindoazen. Harrigarria bada ere ezkerak ditu liberalismoari berriz ateak ireki! Pentsa gero eskuina ez den loriatu, urratsak bikoiztuz joan baita! Liberalismoari buruz, gazte horiek zer dioten ez da oraino garbi ageri; beharbada ondoko egunetan zerbait azalduko digute. Baina guhaurk ere sail horretan bagenuke non zer argitu...

Argigune eta itzalgune

1987-01-01

Uda honetan -abuztuaren 9a zen- Baionako harresietan Frantses poliziak setiatzen gintuela, Normandiako gazte batekin ezagutzak egin nituen. Oroit manifestazio famatu hartaz iheslarien alde antolatua baina gobernariak debekatua zutena. 4 orenez, hantxe, atxiki gintuzten beren sareetan arratoiak bezala. CRSak han zeuden beren armekin, matrakak erabili nahia ezin atxikiz, noiz izanen ote zuten bertze zenbait Etxamendiren menean ukaiteko parada...(1) « Negoziaketek » ez zuten deusik ekarri; beti gure izorratzerat ari baitziren, baina, une batez, nahi zutenek « ateratzeko » baimena ukan zuten eta holaxe, hamar bat, asko arrazoiengatik, « fabore » horretaz baliatu ziren.

Normandiako gazteari erraten diot hark ere ateratzea hobe zukeela, beharbada manifestazioa gaizki bukatuko zela; CRSak guziz beldurgarriak baitziren eta zainetan. Zer mina ez nion egin ordea! Iharden dit: « *Badakit arras ongi zer ari naizen eta irriskua ikusten dut baina ikusten dut ere gazteria bat miresgarria bere bizkarreko larrua xehatzerat utziko baitu bere bideari uko egingen dion baino lehen* ». Erantsi zuen oraino: « *Gure eskualdean ez da holako bizitasunik. Hemen egun bizi dugunaz sekulan beti oroituko naiz. Zuen idealarengatik erakusten duzuen borondatea zoragarria da* ».

Iragan urteari behakño bat ematean gertakari horri pentsatu dut. Hain artoski hemengo berriak segitzen dituen normandoak zer pentsatzen ote du gaur, demagun, Hegoaldeko egoeraz : hauteskundeak airez aire irabazi dituzte abertzaleek baina beren artean gobernu baten xutik ezartzeko sekulako lanak dituzte eta beharbada otsoari makila utziko diote! Zer pentsa lezake ere irakur balitza azken asteetako aldizkari eta kazeten zerrenda luzean, Ekaitza, Ager, Punto y Hora, Egin-en, -denak guk errespetatzen ditugunak eta gehiago dena baitzepadakotzat dauzkagunak - Enbata ezin ikusiz ari direnak? Zenbait aspaldi honetan, asterik ez baitaramate, errateko maneran, gure kazeta kitzikatu gabe. (Sokoa eta Herrikoa ere berdin zarrapatzen dituztela). Abertzaleen eritasuna, gaiak eta gertakariak sanoki aipatzeko partez, bakoitzak bere gisarat, ezin egon bertzeetan zorri mian ari izan gabe...

Ez da borroka armaturik demokrata denik. Armada demokratik ez baita; nahiz demokrata izan gabe demokrazia zerbitza dezakeen armadak... Zertako gaituzte bada honen poxelu? Batasuntzaleak garelakotz eta beti zintzoki ari? Gostarik gosta herriaren zerbitzari leialak izan nahi dugulakotz, geure sinesteari jarraikiz batzuetan geure kontzientzia eta sentimenduekin borroka gorrian ari behar badugu ere? Lorietan isilduko ginake euskal arazoa holaxe antolatuko litzatekeela uste bagenu.

Egia zor dugu: geure euskarazko artikuluek ez dutela ihardespenik ukaiten. Polemika guti euskaraz; Iparraldean kasik batere ez. Erdaraz mihia luzeago dugu. Horra hor gogoetagarria; eta geure kazetetan gai eztabaidagarriak euskaraz idatz bagenitza? Baina nork daki, urte hau ez da beharbada horren bortitza izanen... Esperantza beti atxiki behar da.

(1) **Oharra 2000.** Egun hartan Eñaut Etxamendiri bastoi ukaldi batez bekaina ireki zioten CRSk.

Mende berri, bide berri

1987-02-12

Lotsagarria! Ba ote da bertze hitzik Euskal Autonomia Erkidegoko egoera politikoa aipatzerakoan? Holakorik ikusi behar genuela ere: lau alderdi abertzaleek gehiengo zabal bat egiten (lautarik hiru, larri-larria), horietarik hirurek bederen elkarrekin joan behar gobernatzeko ahala lukeen gehiengo osatzeko... baina nehondik hiru alderdi ezin elkarretara!

Egoera hau berria ote da? Ez hainbertze: EAJk zeukan gehiengo, berak, HB etxean zegoelakotz eta EA bereiztekoa. Indarrak bertsuak ziren bertzela, bai eta iritziak ere. Eskuinean (edo erdian) dauzkagu gaur bi zati: EAJ eta EA erro ber beretik jalgiak beraz, nahiz gaur elkarrengandik doi bat urruntzen ari diren xedeei eta jokabideei dagokienez. Ezkerrean, HB eta EEren artean diferentzia handiak badira aspaldian eta elkarrengandik urrun daude. Halere biak boz andana ederrez goiti doaz azken hauteskundeetan. Baina bertzeak ere goiti doazela erran dezakegu gobernatzeak dakarren zailtasuna eta beren arteko eztabaida guziengatik.

Eta herria? Moderatu ala iraultzaile, hauteskunde oroz erakusten du, aski garbiki gainerat, abertzalegoan finkatu nahi duela bere geroa: emaitzak hor ditugu lekuko. Gaurko egoera hitsa jasaten du, iduriz, sobera kezkatu gabe, guzien gainetik zerbitzetan - bere aberrian, dudarik gabe - sineste osoa balu bezala. Baina noiz arte iraun dezake komedia honek?

Lehen, euskaldunak, « basurdetasunak » salbatu ditu, gure mendi eta oihanetan zebiltzan trebe eta zorrotz « beheretako » « zerri gizenen » beldurrik, ez kutsurik gabe. Ordea, mendiak bidezatu dira eta oihanak argaldu. Bizimolde europarra karraskan sartu zaigu denetan lehenago helezinak zeuden zoko galduenetaraino. « Basurde » garateke baina ongisko setiatuak! Gure hazkurria ez da gehiago ezkurra eta lehengo gerri lerdenak guritu egin dira. Ez dugu gehiago iheslekurik; munduan sartu behar dugu eta sartu heraberik gabe. Mundu hori bortitza da, ez du fisik errespetatzen; gu bezalako buruzkinak ez ditu maite, plega errexagoak nahiago lituzke.

Lehengoez bertze jokabiderik aurkitu behar dugu beraz. Etsaiak ere elkartzen dira noizbait Frantzia eta Alemania bezala, adibidez. Ez ahal da gehiagokoa Hegoaldeko anaien elkar ezin ikusia? Iparraldean maiz erraten dugu, berdin idazten ere kazeta honetan berean bertzetan bezala, « eskuina » dela hemen nagusi eta jabe. Ez ote litzateke xuxenago erratea « kontserbadoreak » direla funtsez Iparraldeko euskaldunak? Kontserbadore amorratuak ere beharbada... Hobe oraino aitor bageneza kontserbadoretasunak gaituela euskaldun atxiki gaur arte: ni hemen idazten eta zu hor irakurtzen ez ginela beharbada ariko geure arbasoak ez balira horren kontserbadoreak izan...

Euskaldunen kontserbadoretasuna eskuindarrek errekuiperatu dute emeki emeki, euskal gizartea, ahultzen ziguten arau, lerratu da eskuinerat. Kontserbadoretasunak, berez ere, horrat baituke bere isuria. Bagenuke hor naski zenbait gogoetaren gaia aiantzi gabe kristautasunaren eragina ere, guziz garrantzizkoa izan baita bilakaera horretan.

Hegoaldean ala Iparraldean zailtasun ugari. Zuhurtasun gehiagorekin begira bageneza geure buruei? « Ahalak » hautematen dira non-nahi: Hegoaldean nabari, baina Iparraldean ere ez litzateke beharbada deus gabe... Maiz arrangura gara kanpotarrek ez gaituztela laguntzen. Ez ote da, ikusten dutelakotz, « ahal » horiek nola xahutzen ditugun alderdikierietan?

Urak bezala...

1987-03-05

Joan den astean aipatu du, kazeta honek, EAJ eta PSOEn elkartzea lehen bezala, geroztik bertze lagungairik agertu ez balitz bezala. Ez bide da maitasunezkoa eta noiz arte iraunen duen, nork daki? Arazo pertsonalek toki handia hartzea politikan ez da berria, egundainokoa baizik: baina horrenbertzekorik ikusi behar genuela geure herrian...

Gure elasturia zertarako, berdin gaur, guzia obratua da. NATOri buruzko eza ala hauteskundeen ondorio arras onak eman ondoan, hona buruzagiek nola hondatu, apurtu duten herriaren nahia eta beharra. Estatutu murriz baten pean izanik ere, ez ote zen hor parada bat gaitza zituenak eta ez zituenak emanarazteko Estatutu herbail horri? Egundaino munduan gu bezalako herri menperatu batek ukan ote du holako aukerarik bere eskuetan askatasunerat heldu aitzin? Ez dugu uste.

Beharbada ederregia zen eta EAJ abertzale dagoenez oraino, zenbaitek aspaldian baitote ezetz, guk ere, naski, iritzi bererat erori beharko dugu. Erranen digute beharbada ez zegoela bertze biderik gaurkoan? Baina EAJk, arazo pertsonalak ideologikoak baino lehen ezarritik, desbaloratzen du alderdi politikoa. HBz kanpo, PSOEekin solasetan ibili diren bertze alderdiez ez dugu gaur bertze deusik erranen.

Juan Karlos Yoldi-ren balentria ederra gogoan geundela, jakin dugu Txomin Iturberen heriotza. Galtze handia gure ustez. Antenne 2k, gaitzeko aipaldia egin dio astelehenean berean: Txominen oroitzapena ez dela ahantzirik Euskal Herrian eta abar. Oroitzen gara Aita Lafitteri egin zitzaion omenaldi batez Herria-ren 20. urteburu kari, 1964ean. Denen laudorioei ihardesterakoan haxe atera zuen: «... *Hoinbertze lore ukaitearekin, uste nuen hila nintzela!*». Alabaina, hura ere, ez zuten beti, denek, loreztaturik erabilia ordu arte. Dena den, egia zioen: omendatzen dira gehienbat, hilak edo bertzela xahartuak edo erdi ezinduak (salbuespenak albuespen). Zer nahi duzue horrela da, horrela izan da eta naski izanen.

Urak bezala geure bidea egin beharko dugu, eragozpen guzien gainetik, azpitik edo saihestetik iraganez itsaso zabalerat heldu arte...

Haxe dugu frantses justiziaren osasuna! Abdallah-ren kasuan, Jorajuria Senperekoarenean bai eta atzo Dunlop-eko langile baten alde, hiruretan, erakutsi du ezin garbikiago bere burujabetasuna erran nahi dugu gobernuaren eragintzatik kanpo ibiltzeko gogoia. Justizia Penala eta Zibila honen ongi ibiltzea, biziki gauza ona zaigu, Administratibo sailarentzat ez badezakegu ere horrenbertzerik erran (gure iheslariak badakite zer bait). Jadanik, Giscard sartu zenean, halako « hautsaldi » bat hartu zuten botere politikoaren eta justiziaren harremanek. Ezkerrarekin areagotu egin da haustura hori eta iduri luke, gustu hartu duela justiziak burujabetza horretan. Oxala, iraun dakiola!

Gaitzetik ona sortzen ?

1987-03-26

1887ko martxoaren 15ean, argitaratu zuen Louis Etcheverry jaunak « Escualduna » izeneko kazetaren lehen zenbakia. Heldu den martxoaren 29an, igandekari, Euskaltzaindiak ospatu nahi du euskal kazetaritzaren mendeurren hori. Ikus beherean egitaraua. Ezin ahantzia da kazeta horren omena eta oroitzapena euskaldunon artean: oraino ere askok diote « Eskualdunian » ikusia edo irakurria « Herria » izendatzeko partez. Beharbada, « Herria » izena ez delakotz hain adierazkorra? Badaiteke; badaiteke ere, « Escualdunaren » marka oraino bizi dagoelakotz...

Dena den, preseski gaurko gazte sutsuei oharpen bat egin behar bagenie haxe litzateke: ez dutela aski ezagutzen eta ikertzen euskaldunen historia hurbila. Bereziki, « Escualduna » bezalakoak - alemanen laguntzaile bururatu baitzuen - tu bat ez dituzte estimatzen, pikotarot botatzen dituzte! Egia da, eiki, bonapartista, erregetiar, eskuindar eta kontserbadore zaharkitu asko hor lehiatu dela beren ideien alde euskararen laguntzeko bezainbat. Ahantzi gabe errepublikanoak eta ezkertiar bakar batzuk ere beren ideia berezien alde jokatu direnak.

Baina zer egin, historia hurbil horren lekuko handirik ez izanez, ezin baztertua da. Gure ustez anitz gauzaren erakarle dugu, halarik ere, geure kazeta zaharra, urte miaztailearen gisa ari izan behar badugu ere « lurra utz eta urte pikorrak bil ». Bertzalde, baztertzen dugun « lur » horren aztertzea ez genukeelarik kalte gaurko euskaldunen jokabideak hobekixeago ulertu nahi baditugu bederen. Hots, politikan sartu gogo duen nornahik historia urruna eta areago historia hurbila ezagutu behar lituzke.

Oroitarazten dugu politika gatazkek eta zeingehiagokek sortarazi zutela « Escualduna ». Hala halaxe sortu zen bigarren euskal liburu guziz famatua ere « Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria » 1571an. Orduan, katoliko eta protestantak gerla gorrian baitzebiltzan elkarren artean eta naski zeinek hobeki egin beharrez (ala profetikotasunez?) protestantak hasi ziren herri mintzairen erabiltzen beren erakaspene eta elizkizunaren ospatzeko. Garai lazgarri horien ondorioz ditugu beraz Joanes Leizarraga beskoiztarraren idazlanak, gaur, euskara zahararen erakusle miresgarri bezain euskara batuaren kezka eta behararen lehen aldikotz adierazle daudenak.

Gerlek eta nahasmenduek ez omen dute sekulan deus onik. Ori, ez dakigu bada, orain aipatu ditugun bi gertakariak (eta balitzateke bertzerik) alderantzizkoa darakutsate. Gaurko Euskal Herriaren gatazka eta ezinbertze guziek araberrako loreak erakarri behar badituzte, zer baratzeak datozkigun!

Baionan, « Euskalduna »ren mendeurrena (1887-1987), egitaraua:

- 10:30 San Andres-eko elizan, meza nagusia, Jaun Apezpikuaren euskal predikuarekin.
- 11:45 Baionako erakustokian, Euskal kazetaritzaren erakusketa.
- 12: Baionako erakustokian, Euskaltzaindiaren biltzar idekia :
- Aita Villasante-ren hitza.
- Piarres Charritton: « Eskualdunaren historia ».
- Martin Ugalde: kazetari euskaldun baten esperientziak.
- Amatiño: Euskal prentsaren ofizioa eta agerpena.
- J.M. Iriondo: irrati eta telebistariaren lekukotasuna.
- Oren batean, bazkaria Baionako Balichon Gaztetxean.

Bilkura irekia da euskaldun guzietan eta bazkarian ere nahi duenak parte har dezake; igor izena eta bazkal sariarentzat 100 liberako txeketa martxoaren 26a baino lehen helbide honetarat: Musée Basque Euskal Erakustokia, 2 rue Marengo 64100 Baiona/Bayonne.

Ikurrina Eguna

1987-04-16

Zenbaki honetan kausituko duzue gure ikurrinaz zenbait argitasun. Ez dugu gordeko loriatu garela jakin dugunean « ikurrina » lemapean ospatu beharra dugula aurtengo Aberri Eguna, Azkainen.

Askotan sentitu dugu, alabaina, halako ezinbertze bat ikusiz nola, frangok, nahasten dituzten Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena. Aspaldiko (ala betiko ?) auziari datxekiola: aberriaren askatzeari eman lehentasuna ala langileen bizimoldeen hobetzeari? Ala bi borrokak batera eraman? (Sozialismoari lehentasuna ematen dutenak ere badira). Zer auziak gure artean!

Nehoren iritzirik baztertu, are gutiago gaitzetsi gabe, guk geureari eusten diogu: guretzat lehentasuna aberriaren askatzeak dauka dudarik batere gabe; erran nahi dugu askatasunerat daramaten borroka eta urratsak daudela gure kezka nagusi. Adibidez, Euskal Departamendu, autonomia eta abar, gai horiek, guziz premiatsutat dauzkagu Iparraldean; Hegoaldean burujabetasuna lortzeko eta asumitzeko gai direla diogun bezala.

Aberria! Zer oihartzun dauka hitz horrek gaurko bizi mundializatu honetan? Bihar Tokyo, Mosku, New-York edo Rio zenbait orenen bidetan dituzkegu; zer derasat, gaurko komunikabide miresgarrien bidez, jadanik segundo bat edo biez solasean edo aferetan jar gaitezke munduaren bertzaldeko norbaitekin! Bertzalde asko arazo ekonomikok antolamendu nazioarteko bat eskatuko lukete bereziki jendalde aitzinatu eta gilelatuen arteko harremanek. Halaber bertze sail garrantzitsu batzuek: Giza Eskubide, eta abar.

Zer deabru ari gara beraz? Mende baten gibelamendua duguia amets munduko xoko honetan kokaturik dagoen geure aberrian esperantzak emanik gabiltzalarik? Baina preseski orain aipatu ditugun arazo zabalek ez ote digute sekulan baino gehiago sentiarazten aberri baten beharra? Baina zer diot, aberria edo arbasoen herria hor da, bada, ezin ukatua.

Falta duguna da nazio batek merezi eta behar lituzkeen eskubideak: aberria dioenak, nazioa baitio, alabaina. Bitxi da baina hola da: jendeak sendi du bere baitan nonbaitekoa izan beharra. Aberririk ez dutenek ere sendi dute eta batzuetan bertzeek baino saminkiago! Hala nola frantses nazionalistak ez dira denak jatorriz frantsesak eta euskaldun abertzale frango ateratzen da atzeritik etorritakoetan...

Beharbada kulturak eragiten du behar hori eta egun batez ez da horren garbiki sentituko. Baina nork zer daki biharkoaz? Guk gaur, beren herri nortasunari atxikiak diren guziekin bat gaudela aldarrikatzen dugu: Euskal Herria da gure aberria bere zazpi lurraldeekin eta euskara gure hizkuntza. Herri honen ezaugarri nagusia: ikurriña; zola gorria, gurutze-ixa ferdea gainetik eta azkenik gurutze xuriaz hornitua (1). Goazen Azkainerat datorren igandez, Pazkoz, gai horietaz guzietaz gogoetatzerat.

(1) **Oharra 2000.** Nafarroako armarren lekua? Arrano Beltzarena? Lurraldeen artean ikusi beharko.

Dantzari Eguna

1987-05-28

Gaitza izan da aurtengoa ere, joan den igandean, Baionan. Bezperatik ongi hasiak ziren ospakizunak, Donibane Lohizunen, ikusgarri ezin ederrago batekin: tokian tokiko dantza bereziak, bertako taldeek eskaini baitizkigute: ilun-ondo xoragarri bat, gehixago ikusliar ere mereziko zuena. Beharrik igande arratsaldean ez da ikuslerik falta izan San Leon-eko kirol zelaian, ikusi, entzun eta bizi izan dugun dantzari elkartze miresgarrian.

Goizean eragozpen handiegirik gabe muga iraganik, Hegoaldeko taldeak errezebituak izan dira Iparraldean Euskal Dantzarien Biltzarreko taldeak dauden herrietan; haurrideen arteko lokarrien sendotzeko gisa den bezala. Denek badakigu Dantzari Egunetan, lurralde bakoitzak bere dantzak erakusten dituela bakarrik eta aurren zerbaitek hunki gaitu biziki: lapurtarren sailak. Zertako ote? 1978az geroz 7 lurraldeek batean eskaini dituzten saioetan ez baita beti izan Lapurdiko dantzarik.

Zergatik? Lapurdiko dantzak kasik desagertuak bezala ziren; beharrik Tafernaberry bidartarrak utzi ondorea bildu zuen Pierre Betelu dantza irakasle bikainak eta horren inguruan dira gero lanean ariko adineko eta gazte ez baitute barkatuko dantza horiek berriz piztu arte! Bai jauntzietan, bai eta koregrafian, ez zuen igandean, Lapurdiko lurraldeak ahalketzekorik bere anaiei artean. Goresmenekin, gure eskerrik bizienak bihoazkie lapurtarrei: horra hor zer etsenplua, fede eta lanaren fruitia; Ahurtiko Makil-Jokoa, Makeako Soka eta Lapurdiko Fandango Zaharra - Uztaritzeko eta Donibane Lohizuneko Makil-Jokoak baztertu gabe - doazela guziak aitzina!

Zorionen ondotik aipatu behar ere zuberotarren parte-hartze xuhurra: honen atxikiak garelarik lurralde horri! Müskildiko multxoa da bakarrik azaldu zelai erdi hartarat. Ikusleek haatik, txaloekin erakutsi diete folklore iturri den lurralde maite horren ordezkari beren ezagutza ezin garbikiago.

Hitz bat oraino, bukatzeko dantzariak, berdin beren taldeak utzirik eta edozeinekin uztarturik, eman diguten Larrain Dantza miresgarriaz. Aspergarria gertatzen da batzuetan dantza hori ikusleentzat, ez baita batere « ikusteko » egina, denek « parte-hartzeko » baizik, funtsean euskal dantza anitz bezala, ez baita hori abantaila ttikia, bertze gisa batez.

Baina, igandean ez zen enoatzerik gazteria hari begira! Zer besta, zer gozoa bertalde, Iparraldekoentzat, beti Hegoaldekoak baino gutiago gara, errepikatzen dutenentzat, ikusiz honaindiko Dantzari Egunak haindikoak bezain ederrak edo ederragoak direla! Oroit, 1980an Baionan ospatu genuenaz: 142 talde, 4.200 dantzari eta 12.000 ikusliar! Eiki bada, igandeko publikoak ere ez zuen nehongoari zorrik: beroa, abertzalea hauteman dugu. Ez da guti. Gora Euskal Dantzarien Biltzarra!

Ohargarriena HBren gorakada

1987-06-18

Ezin sinetsizkoa ari da bihurtzen Hegoaldeko egoera politikoa; ez guretzat, aspaldian horko gorabeherak ahal bezain hurbildanik segitzen ditugunentzat, baina behere horietakoentzat: Frantzian ala Espainian nehondik ezin konprenituz dabilta, bereziki Herri Batasunak lortzen dituen boz kopuru harrigarriak guziz ulertezinak baitzaizkie. HBkoak ez ote dira bada ETAko «faxista» horien lagunak? Aitortu behar dugu, zuzenak izateko, euskaldun asko ere badagoela harriturik: nolaz bada Espainiaren «etsaiek» horrenbertze boz bil dezakete Espainian, boz-paperak heldu ere ez direlarik (dakigunez) asko tokitarat? Hamaika mila bozez goiti Madrilen berean, ez zaizue hori poxi bat? HB izorratu nahiz baitzebiltzan...

Funtsean gauza harrigari frango gertatu da hauteskunde hauetan, bereziki Europako parlamenturakoetan. EAJk, aspaldiko europazaleak, ez du ordezkariarik lortu ahal ukan: zeinen boz guti bildu duen hiru lurraldeetarik kanpo! PSOErekin soilik uztartuz etxean, baina honek ez baitio ordainik ekarri estatu mailan! Bazuen-eta berak ere aski lan! Non ez digun EAJk haxe ihardesten: Euskadiko Ezkerra dela denetarik espainolistena, hark duenaz geroz bildu, azterrian, boz kopururik handiena eta bera dela euskaldun garbiena, lau alderdi abertzaleetarik bozik gutiena bildu duelakotz Espainian...

Zer erran oraino? EAJko zenbaitentzat begirunerik balin bagenuen Erramun Labayen-entzat genukeen. Garaikoetxearen lehen jaurlaritzan lan gaitza egin baitzuen euskal kulturaren alde, euskal telebista eta irratia bultzatuz, bertzeak bertze. Gainerat, holako euskaldun garbia ez zitzaigun batere itsusi Donostia bezalako hiri handi eta eder baten auzapez ikustea. Ai, hautu politiko batzuen ondorio bortitzak ! Eusko Alkartasunak emaitza ohargarriak lortu ditu berezki Araban, baina ere Gipuzkoan; Nafarroan ere arras ederki eta ondoko egun hobe batzuk ere itxaron ditzakeela iduri luke.

Eta orain? Azken kontaketen zain bagaude ere askixe badakikegu errateko zeinen korapilotsua agertzen zaigun hauteskunde biharamun hau: batean hau nagusi eta bertzean hura! PSOE espainolistak, mazelako batzuk hartu baditu ere oraino aski azkar dago abertzaleen nahasteko eta horien ateketan ezartzeko. EA gaztea, goiti ari karraskan, baina ahulgune zenbait nabari zaizkiolarik han edo hemen. EE: beheiti doa baina han hemenka kartarik aski badauka jokoaren zailtzeko gehixago.

HB, hauteskunde bakoitz beti goiti; gaur Euskal Herriko abertzale indarrik handiena kopuruz eta areago kemenez. Herria eta militanteak zapalduago eta boz kopuruak gorago! Bai, agur eguneroko borrokariok; agur iheslariok, selauru zokoetan arratoiak bezala gorderik bizitzerat behartuak zaretenok; agur presoak, espetxeetan fisikoki eta moralki desegin nahi zintuzketetenok; agur zuei, tortura jasan eta jasaten duzenok, herriak ez zaituzte ahortzi ez eta ahanztekotan ere! Bihoakizue gure eskerra: zuen borroka eta zuen gogortasuna guziz emankorrak baitira eta ez alferretakoak, hainbertzek sinetsarazi nahiko liguketen bezala.

Minak ugari

1987-07-09

Klaus Barbie-ren auzia zela-eta, entzun ditugu, dituzte politak! Auzi hori nahiko zuketen, soilki itzuli nazien kontra; eta horra non berenak eta asto beltxarenak sudurrerat aditu behar ukan dituzten frantsesek eta juduek... Barbie-ren abokatek gaitzak bota dituzte, aipatuz bertzeak bertze, Kongo-n treinbide baten egiteko « moldeak », Madagaskar-eko hilketak (1946), Aljer-ko gudua torturaren bidez irabazia (1957), eta Barbie-ren auzi historiko horretako partaidetza handienari - juduei - jasangaitza gertatu zaiena, Sabra eta Chatila-ko sarraskia leporatzea (israelarrek egiterat utzi duketena). Zer ziliportak!

Gu geure xokoan (Hipercor, Bartzelonakoa bizkarrean) zer domaia Barbie okaztagarriaren abokatak izatea holako egien salatzaileak! Baina lehen ere erran ukan dugu, egia non nahitik datorren, hartzen dugula. Iduriz, abokatak - doi bat ausartak izan badira ere - legeak defentsari uzten dion mugetan jokatu dira. Egiazki frantsesek (eta juduek berdin) bazuten holakoen aditzearen beharra: iduritzen baitzaie perfetak direla, Frantzia bezalako estatu demokratarik ez dela nehon. Eta guk, euskaldunek, zenbat gauza ez geniezaieke erants, atzokoak eta egungoak! Ez ote da guziz ezaguna eta denetaz onartua, adibidez, euskara bezalako mintzaira bat hiltzerat uztea krima bat dela? Ahantzi gabe iheslariekin daukaten jokabide legez kanpokoak erran nahi baita osoki gaitzesgarria.

Hauxe dugu gertakari latza berriz ere: bi abertzale gazte, bata handizki kolpatua, bertzea xehatua berak ekartzen bide zuen zartagailuaz. Balditurik gaude; zer erran, zer egin? Doi-doia Maddi Heguy-ren ehorzketak iraganak eta berriz ere abertzale odola zurrutan! Borroka armatuaren auzia gainean dugu. Ez da gauzarik hori baino aipagaitzago zaigunik. Dударik ez, egun argiz lanean ari garenentzat, traba handia dela: gure lana (jadanik xumea) kolokan ematen baitu nahi ala ez. Herrialde kristau kutsuz oratua den honentzat izigarri dorpea da jokabide hori; ezin onetsia zaie gogo zabalenei ere.

Denok arrangura dira abertzale « buruberoenen » eta botere publikoen artean ez dagoela euskal indar politiko funtsezkorik (ELB sindikatua da). Baina huts nabaria nola bete horren ttikia den herrialdean, borrokoa armatutik desmarkatzea kasik ezinezkoa delarik helburu bertsuak edo berak ditugunaz gero? Zer erran gazte horiei? Gaztetasunaren gain ematea ez du balio, ez dira eroak, arras ongi ikusten dute orain arte ere lanean, egun argiz, ari izan direla gure aitzinekoak, baina euskara beti gibelka doala (euskal gogoa atzartzen ari bada ere, goraki erran behar dena hau ere).

Jaun Apezpikua mintzatu zaigu duela hamar bat egun goersten dugun zuhurtzia eta ausartziarekin. Deitzen gaitu euskaldunak lanerat baina ere botere publikoei beren erantzukizunak oroitarazten dizkie, goraki eta garbiki. Badu merezimendu gure artzain berriak eta minak arintzen dizkigute holako solas onek. Ondorioak? Horretan da, bada, arazoa: gure Jaun Apezpikuaren dei ozena telebistan aipatu dute, ez segidan - normalki egin beharko zuketen bezala - baina bigarren ezbehar hau gertatu denean. Horretarik egitzazu, zuhaurk zeure gogoetak eta ikusiko dukezu, botere inguruetan zer axolatan gauzkaten guziok...

Demokrasiaren mugak ?

1987-07-30

Ukaiten dute aipaldi, azken denbora hauetan, Le Pen eskuin muturrekoak eta haren kideek. Azkeneko gerla denboran eskuindar anitzak deblauki Pétain edo areago Hitler-en alde jarri ziren eta beraz gerla ondoan biziki itxura txarrarekin gelditu zen eskuindar muturkaria : kasik irri egiten genion! Gainerat, zatitua hamaika puskatan, boterearen hartzeko molderik, hastapenik ere, ez genion ikusten. Lehen inarrosaldia ukan genuen Aljeriako gerla denboran dakigun putxistekin: Salan, Lagailarde eta bertze. De Gaulle bera ere nahiko eskuindarra agertu da askotan eta bereziki azkenekat, galdu zuen erreferendum hura antolatu zuelarik: senatuari indar guztiak kendu eta eskualdeetako super prefetei sekulako botereak eman nahiz ari izan baitzen, bertzeak bertze.

Pompidou eta Giscard-ek, beren SAC eta denekin, ez digute halere, eskuin muturkarien egiazko beldurrik behin ere sortarazi. Zerk eragin du, bada, Le Pen-tiarren gorapen beldurgarria? Le Pen beraren ahaleki badukete zer ikusirik, baina bi arrazoi handik ezarri dituzkete aulkitan gure ustez : lehena jadanik errana dugu, eskuin muturkariak goiti joan direla komunistak boterean edo boteretik hurbil zebiltzanean; mutur baten gorapenak bertze muturrarena ere eragiten balu bezala. Bigarren arrazoiak ez ote da izan hauteskunde sistema bera - sistema proportzionala beraz - ez ote dituzte hola bildu gaitzeko ttankoak, geroztik beti emendatuz doazkienak? Barbie epaitu, arrazakeria deitoratu nahi bezainbat, baina Le Pen eta haren lagunak beti azkar...

Zer egin beraz? Iduriz bederen abertzaleen kexuak urrundu du Le Pen Angelun egin beharra zuen bilkuratik. Baina hori ote da molderik hoberena gizon horren ideien borrokatzeko? Ala oihantzea holaxe sustraitzen diogu? Aitortzen dugu sekulako gogoetetan gaudela. Demokrazia soberakinik ez da nehoiz izaten; hala pentsatu dugu beti. Bizkitartean ez ote ditu demokrazia praktika goresgarri batek erakarri Le Pen eta haren kideak dauden aulkietarat, oraintxe aipatu ditugun bi puntuek? Alabaina komunistek Mitterrandi beren bozak ekarriz, zuzen zatekeen gobernuan sar zitezten. Areago oraino, hauteskunde sistema proportzionala, zenbat aldiz ez dugu guhaurk eskatu zuzentasunaren izenean? Bada durduzatzekoa demokrata izan nahi genukeenontzat. Ez baita aiantzi behar ere, Hitler hauteskundera heldu zela botererat; Napoleon III.a ere bai.

Jokin Apalategiri herio mehatxuak egin dizkio. Arrunt bitxiki egia erran; GALEk usaian « seriosotasun » gehiago baitarakutsa... zorigaitzez! Xehetasunak kazeta honetan. Jokinen bekatu larria: Iparraldean bizitzea. Donostian lan egiten duela ageri agerian, ezin ageriago irakaskuntzan? Berdin du: Iparraldean baldin badu bere egoitza zerbaitetarako dateke. Behialakoaren taktika: erein gezurra, beti herresto edo zalantza zerbait geldituko bide da...

Tamalgarria: kasik jendetasun zerbait kausitzekotan ginen GAL delakoari; frantsesek beren « lana » egiten badute geldirik egonen zirela iduri baitzuen. Frantses agintariak segitzen dute beretik baina GAL berriz hasi baita, itsuski, frantses boterea oraino gehiago hertsatu nahi balu bezala bere lan zikinean. Le Pen-ek ari ginen oixtian, baina Pasqua hain desberdina ote da? Eta Barrionuevo PSOEkoa zer da? Euskal Herriaren etsaiak ez dira bakarrik eskuin muturrean...

Oreka bila

1987-08-20

Abuztu honen 6an Azkaingo herri gizonak erabaki garrantzitsu bat hartu dute. Intermarché supermerkatuak nahi luke baitezpada Azkaine eta Ezpeleta arte horretan jarri eta Azkainen begiztatua zuen « Lanzelai » eremua, - toki hauta izaki - baina herriko kontseiluak eza bihurtu dio, aho batez gainerat. « Ezetz » horri publizitate guzia emanez bertzalde ahoan bilorik gabe azpimarkatuz herri ttikietan, handietan bezala, komertsanten beharra herriko bizia eta elkar gurutzatea sustatzen dituztelako bertzeak bertze. Komertzioek eta zerbitzuek ematen diete alabaina herriko karrikei bizitasun bat zeina gabe iduri bailukete arima herratuen ibilbideak! Horrekin gehienak, ez errateko denak, bat daude. Arazoa da komertzio ttikien eta supermerkatuen arteko oreka non den eta nola atxiki behar litzatekeen.

Etengabe eztabaidagarria da gai hau eta ez du etenik izanen behin segurik. Bertzela erran komertzio ttikiak zertarako? Animazio emateko? Depanatzeko? Hor da preseski guzia: komertzio ttikiek egin behar badute supermerkatuentzat errentagarri ez dena - purruxkeriez okupatzea - noiz arte uste duzue iraunen dutela? Purruxkerien, beren prezioetan pagatzeko prest balitz jendea, fitsik ez litzateke; baina purruxkeria ere merke eta purruxkeria denaz gero are merkeago naski aurkitu nahi luke jendeak. Horra zertan garen.

Merkatarien itxura ez omen da hain urrikgarria bana bertze. Kasu itxurei... komertsante anitz bizi dira SMICaz petik; bertze zenbait goraxago baldin badabiltza, lehenago eginen edo arbasoek bilduaren gainean bizi dira. Geroa biziki ilun ikusten dute komertsante ttikiek; kasik bihibatek ez dute beren haurretan segida hartu nahi duenik. Hola segituz errekarat zuzen zuzena joanen da sail hau. Gero, bistan da, denek leher egin ondoan, eta zenbait jadanik hasiak dira, Herriko Etxeak lotuko dira komertzio ttikiak berriz erakarri beharrez. Ez ote litzateke hobe hor direlarik begiratzea?

Baina itsasaldean ez gara horretan: supermerkatuak zoko guzietan dituzkegu laster. Euskaldungoaz axolatuak balira bederen... bai zera! Euskaldunak eta bereziki abertzaleak ez dira, egia erran, batere axolatu gai horietaz. Merkataritza, turismoa eta holakoak ez ote dira denak tratu/diru/izorratzeko-joko, oro euskaldun « garbiak » artoski baztertu behar dituenak? Hainbat gaizto guretzat, horrela utzi baitugu sektore oso bat herritarren eskuetan zena gehiena, atzeritarren eskuetarat. Eta gu, goxoki, aferak egiten ibilki supermerkatu erraldoi horietan. Gure sudurra baino urrunago begiratzen ez dakigu.

Hemen ere garbizalekeriak izorratu gaitu: kapitalista lotsagabe horiek ederki irri egin dukete. Iraultzailearen leloa: gehiengoaren interesak begiratzea beti; ordea Leclerc eta bertze merkatori erraldoi horiek ere gauza ber bera diote! Ordea, botere politikoaren lana ez ote da batzuetan elkarren kontra dauden interesen artean hautsi mautsiak egitea? Oreka batzuk bilatzea ororen onetan? Ahanzterat gindoazen, eta enplegu mailan? Horretaz erran dezakegu supermerkatuek ehun enplegu sortzean berrehun enplegu suntsitzen dituztela, han hemenka barreiatuak direlaket ez baita horietaz nehor kezkatzen, ez sindikaturik, ez alderdi politikorik.

Agurtzen ditugu beraz Azkaingo herri gizonak, Luberriaga buru, hartu duten erabaki sendoagatik. Baina arazoa ez dago antolatutik: orain Senpereri lotuko da Intermarché Herriko Etxeko ihardespina nolakoa izanen ote den zain gaude. Kezkatsuago izateko arrazoiak baitira. Laborariak ederki gerizatzen dituzte POS garratz batekin. Merkataritza eta zerbitzuen alde ez badute deus handirik egiten ere, kontrakorik bederen ez lukete egin behar, halere! Non ez den Intermarché Zuraiderat abiatzen...

Eztabaidagai

1987-09-08

Joan den hilabetea, « Heure de Vérité » Antenne 2ko emanaldi famatuan gaitzeko arrakasta ukan du Harlem Désir arrazakeriaren aurkari bikainak. Emanaldi denboran haren alde jarri den tele-ikusleen kopurua biziki handia izan da: ez baitu nehork orain arte holako gogo bereganatzerik lortu kasu berean. Euskal munduan ez baitugu entzun ez irakurri gauza handirik, iduritu zaigu beharrezkoa zatekeela iritzi zenbaiten harrotzea, eztabaidagai, emanaldi oroigarri horretaz.

Emanaldia bururatzean ahorat etorri zaigun lehen hitza izan da: ez da Frantzia guzian Harlem Désir baino frantses perfetagorik; Chirac, Barre, Mitterrand eta bertzeak urrun daude! 1789ko Iraultza goretsi du: Frantzia giza eskubideen ohandia; frantses batzuk gaizki baldin badabiltza (Le Pen) frantses estatuak ez omen du hor hobetik. Behar den legedia ba omen dauka-eta. Harlem Désir-en leloa: integrazioa. Ongi ulertu badugu, kanpotik etorriek behar dute frantses bilakatu; horretarako frantsesekin nahas mahas ezarri behar dira ahal bezainbatean berduratuz, lehenbailehen frantsestu daitezen guziak. Etorkinei artosi eskatu die frantses legeetat bihurtu daitezen eta ez dezaten getorik munta. Jules Ferry lehen, Harlem Désir gaur?

Guk segurik, bi akats larri altxatu dizkiogu hiltun trebe horri: lehena, deus edo kasik ez duela erran etorkinen kulturaz eta kultura horrek hartze lukeen errespetuaz frantsesengandik. Nortasun ezberdinez ez du ezer azaldu: hutsune ikaragarria baita gure ustez. Bigarrenetik Kanakia-ren burujabetasunaren alde agertu da (ez baita hori arraroa) lotsagarria izan delarik Martinika eta Guadelupa uharteez iritzi bat ematerakoan. Ez du haientzat askatasunik ikusten eta horko borrokalariak epaitu behar dira eta beharrez zigortu frantses legeen arabera, berdin Parisera erakarrit...

Badu aspaldi Harlem Désir eta horien mugimenduengan eskas handiak hautematen genituela. Hemen berean aipatu ukan ditugunak funtsean. Baina horien xedeen eskasiak ez ote dira, hain xuxen, hemen daramagun borrokaren oinarriak? Guk dioguna, alabaina, arras bertzea da: eiki, elkarrekin bizi behar dutela gizonek, jatorriz, kulturaz edo erlijioz ezberdinak izanik ere, baina denon nortasunak errespetatuz! Ahantzi gabe bakoitza herri batetako ume dela.

Nolaz egin dezake, ordea, Frantziak hori bere inperioa irriskutan ezarri gabe? Ez, Frantziak aspaldi erabakia du: denak berdin eta bat, beti beretik jokatzen duela Hexagonian ala handik kanpo, atzo ala egun, bere hegalean - zangopean, hobeki errana - dauzkan edo zeuzkan jendaketa eta herrialde desberdin guzietan. Frantses mitorik sakratuena ez ote, frantses guziak bat, frantses estatu bakar batean ?

Belokeko Komentuari eta abade berriari gure agurrik kartsuena. Poliziak brauki setiatu eta miakatu ondoan ez gaudeke geure adiskidantza bidali gabe gure herriak hainbertze zor dion eta hain maite duen fraidetxe horri. Gure agurrari betxezkio abertzale munduan miaketa bortitzak jasan dituzten guziak.

Bururatzeko, Seaskaren sartze dorpea. Hitzik ez da aski azkarrik gaurko egoera hitsaren azaltzeko. Ez dugu barkatuko alta!

Nolabait atera beharko

1987-10-01

Zer aterako da gaurko egoera ezinago hits honetarik? Seaskarenaz ari gara bistan da, nahiz erants geniezaiokeen Iparraldeko abertzale politika guzia. Batak ba ote du bertzeari zorrik? Seaskarena da neholako luzamenik onar ez dezakeena: haurrak ez ditzakegu utz karrikan luzaz, horien ikasturtea andeatu gabe. Ez ditzakegu ere ibilaraz toki batetik bertzerat buhame ibiltariak bezala. Jadanik « bigarren maila » eramatea biziki gogorra da haur horientzat gure ingurumen erdaldunduan. Beharrik hor baitira burasoak, maiteki, beren haurrez arta hartzeko, ordainduz nolabait haurrek karrikan sentitzen duten giro arrotza bai eta goragotik sumatzen dugun hil mehatxua. Nehoiz baino gehiago behar dugu haur horietaz, denok batean, arduratu.

Frantses ekonomialari batek zioen berriki ikasleei holako denbora galtzeak jasanaraztea ezin onartua zela igurikatzen dituen bizitze lehiatsu eta bortitzari buruz gaitu behar liratekeelarik. Egia; nahiz ihardets dakioken pairatzen bederen ikasiak izanen direla! Ez ditugu, bada, ahortzi behar irakasleak! Sail guziz zaila daramate, irabaziak xuhur eta gainerat segurantz soziala zalantzan! Beharrik ukan baitute, haiek ere, honetaratu aitzin, bide zakarretan oinen gogortzeko aukera. Nork goretsiko du aski horien lana holako nekeen erdian?

Zerk horretaratu gaituen? Gure arteko kalapitek badukete zer ikusirik baina ez ahortz hobendun lehena estatua dela bere ordezkariakin. Frantses inperialismoa bizi bizirik baitago, beti beretik kantitu gabe. Gero, bada, bigarren ikuspegi bat, gorago aipatu ekonomialariaren bidetik doana: ez ote da arazoirik aski gure bizkarrean zuen abertzale « historioak » gaineratu gabe? Eta emanen dizkigu lerro lerro gaurko izurriteak: langabezia mendebalde guzian helde beldurgarri bat bezala hedatuz doana, droga, armaketa, kutsadura, gosetea han, miseria hemen, arrazakeria eta oroz gainetik gerla ekonomikoa (aipatu makur gehienen iturri dena) zeinari buruz apailatu behar bailitzateke, sobera denbora galdurik ere ba omen genuke-eta jadanik!

Nola ihardets holako pentsakera bati? Bizkitartean hor dagoke gure lan handietarik bat. Inperialistak, haiek ez ditugu gureganatuko. Baina bertze ikuspegi horren aldatzeko zerbait egin behar dugu. Guri dago alabaina erakustea gaurko arazo orokor horiek guziak gogoan ditugula batto ere baztertu gabe; baina ez dezakegula uko egin geure bideari. Gizonak ogia eta libertatea behar dituela, baina berdin beharrezkoa duela bere aberria izan dadin nazio ezagutu eta askatu baten gerizapean.

Zailtasuna non da? Abertzalea ez dela beti errazionalista, gizonagandik abiatzen baita. Giza zientziak nahiago ditu ekonomialari sasi-errazionalistak baino. Eta preseski giza zientziek salatzen digute aberririk gabe edo aberri ukatu batetako jendea osasuneraino hunkia izan daitekeela berak ez badaki ere beti non duen haren gaitzak erroa. Frantsesak omen dira lasaigarri hartzaile handienak jende arau (A2k 1987-09-29). Horietan zenbatek eta zenbatek herri minaren ondorioz, jakinean edo ez jakinean? Zertako bada errazionalistek ez dituzte holako gauzak kontutan hartzen? Ekonomiaren onetan litzateke, ez, ororen buru?

Orain ihardetsi nola ?

1987-10-22

Urriaren 3an gertatuez beterik daude oraino abertzaleen gogo guziak; behin ere ez baikenuen ikusi holakorik gure oroitean. Egun guziz zerbait berri ikasten dugu. Gero eta argiago ageri dena zera da: estatu frantsesak alimaleko zanpaldi bat eman nahi ukan eta eman digula guzoi, gurekin bukatu edo bederen, urterentzat indar gabeturik ezarri nahi ukan bagintu bezala. Lortu ote du bere helburua? Ez araiz! Gurekin bukatu duenik, hori garbi dago ezetz, eta luzarat, beharbada, gure alde itzuliko da urriaren 3ko erauntsia bortitza. Epe hurbilean, ordea, nola dakusagu, epe hurbila diogunean zenbait urteri pentsatzen dugularik?

Ikuspegi zorrotzak eta iritzi landuak ugari azaldu dituzte abertzaleek urriaren 3az gero; zeinek hobeki ari izan dira bata bertzeara osatzen zutela. Jadanik arrakasta zerbait ukan dutela jakin behar da abertzale munduaz edo giza eskubideen zaintzailez haratxeago ere. Baionan, abokatuen biltzarrea bildu da eta mintzo zaigu aste honetan. Ederki. Agian bertzerik ere iratzarriko da ondorioz. Baina horiek guziek noraino eraman gaitzake? Badakigu, ahal dena egiten dela lehenik; baina ez ote da ohargarria abertzaleen iritzietan geroari buruz frango murriz gaudela? Gaurkoa ederki ikusi eta deitoratu egin da, baina geroaz zer hutsuneak!

Herri Taldeen ingurukoek abiatu dute frantses espetxetan dauden euskal presoan aldeko kanpaina, argitaratuz horien preso-bizitza guziz dorpea. Hautarik ez da alabaina: ez ditugu abandonatu behar geure haurrideak, haien egintzak ez baditugu beti gogokoak ere. Arestiko galderarat gatoz berriz ordea: zein aterabide bilatu Euskal Herriarentzat, Iparraldeaz ari garelarik gaur? Ari ginen ezatabaidan: dena berriz haste ala dena berriz hasi? Berriz haste? Horrek erran nahi luke oraindino izan dugun jarrera - gaurko egoerarat eraman gaituen bidea - ona zela, piska bat gorabehera bederen. Berriz hasi? Esku lan bat beharbada berriz has daiteke gaizki egina baldin bazen, baina politika olde bat, nola?

Aitor dezagun gauza bat: Euskal Mugimendua Iparraldean ere biziki gora igan zaigula, goregi eta lasterregi, gure ustez. Hala gertatu zen Enbata lehenaren denboran, EHASEkin jarraian berdin eta areago baizik ez, ondotik plazaratu direnekin (IZAN goizegi zenduaz kanpo). Horrek ez luke erran nahi lasterregi goratze horretan ez dugula guhaurk parterik, hobenik; egin beharrak baikaramatza batzuetan egin nahia baino urrunago... Inguruko eta kanpoko gertakariak erabili gaituzte. ETA, Francok eta estatu espainiar zapaltzaileak sortarazia dute. Baina ETAk gogortu zuen Enbata sortu berria. Nolaz izan zitekeen bertzela, zenbait aldiz hori uste ukan badugu ere? Estatu frantsesean urtuak ginatekeen gaur Hegoalderik izan ez balitz. Baina Hegoaldeak bizirik atxiki bagaitu eta iratzarrarazi ere - gu baino biziki aurreratuago baitzen askapenerako bideetan - goraxeago aipatu « gogortze » hura eragin zuen Iparraldean, Enbataren zabalkundea oztopatzen zuela.

Guk geure iritzia ematen dugu, bertzek berea eman dezala. Berriz « haste »rik edo berriz « hasi »rik ez da posible: bizia ez baita berriz hasten ahal. Guk, asumitu egin beharko dugu geure iragana, on bazaigu eta ez bazaigu. Duela 25 urteko xedeak eta helburuak onak ziren, gaur emendagarriak badira ere. Helbideak eta urratsak zirelarik eta daudelarik eztabaidagarri, gure bereizle. Frantxua Maitia jazartzen zaigu. Errex baino errexago litzaiguke ihardestea. Erdaraz egingen zaio. Baina hori ez da aski: bertze ihardespenik merezi eta behar luke gaurko egoerak. Egundainokotan, bakoitza geure alde abiatuko ote gara, ttur ttur ttur, alegia batasuntzale eta gero, azpiz, eginahalak eginez bertzeari nagusitzeko? Egiazki, gizatasunik eta kemenik gelditzen baldin bazaigu bederen zafraldi honen ondotik, bertze ihardets molde baten bilatzeko eta aurkitzeko ordua ez ote genuke?

Esperantzaren ikurrina

1987-11-12

Eni dagokit beraz, milagarren zenbaki honetan idaztea euskarazko editoriala deritzoguna geure artean. Zenbait urtez sail hau eraman zuen Piarres Larzabalek, 1980an osasun eskasez utzi behar ukan zuen arte. Orduan Roger Idiart, Mixel Lekuona eta hirurak abiatu ginen, aldizka, erdarazko artikuluen erdian batto bederen euskaraz merezi eta beharrezko zukeelakoan Enbatak. Karia honetarat behakoño eman dut nik ere egin bideari eta ohartu naiz, oro har, ehungarren artikulua nuela hain xuxen gaurkoa! Ez da une txarra beraz zenbait gogoetaren egiteko, nahiz zenbaki honetan (eta beharrez ondokoetan) bertzeak gomitatzen ditugun hitzegiterat eta gogotik uzten diegun solasa.

Ez dira txarrak gaur ukaiten ditugun goresmenak eta pozten gara ikusiz sustengua alde orotarik heldu, hain xuxen, guk, alderdikierietarik ahalaz urrun - alderdiak errespetatuz haatik - eraman nahi baikenuke geure saila. Ohartu garelarik ere, batasun gogo hori ez dela bakarrik gure nahia baina bai bertze askorena ere! Irakurtzekoak dira, idazle, hautetsi, euskalari ala politikariengandik datozkigun hitz onak - amerikar baten tesisa artean ez delarik omenaldi txarrena - edo oraino presondegitik datorrena: ez baita hura gutienik hunki gaituen lekukotasuna! Egia da sustengu zabal horren erdiesteak ez gaituela hein hori baino gehiago harritu. Diru arazoez (beti dirautenek) geldiarazi gintuztelarik zenbait astez 1984ean, orduan ere, ihardespen hoberena ukan zuen Enbataren deiak bere irakurlego jarraikiarengandik.

Holako atxikimendua zertarik datorren? Gure ustez, 1960a inguruan Enbata « haizeak » erein zuen haziak nehoiz aski preziatuko ez den uzta eman zuen, markatu baitzituen zigilu iraunkorrenaz, gazteria bat miresgarria eta ingurumen guzia ere nahi ala ez. Ideia eta xede batzuk birmolda edo egokitu daitezke baina gogo berarekin garraizkio, herri eskubideak lehen ezarriz itxaropenaren ikurrinak atxiki gaitzan helburutik nehoiz baztertu gabe, 1974an erakunde politikoa debekatu bazuten ere. Atxikimendu hori doake, esker onez, egundaino lotsatu gabe lanari jarraiki direnei. Biga bereziki, bertze guziek ere aipatzea merezi luketelarik: Jakes Abeberry, eta Mixel Burucoa. Lehena, editorialista bikaina: oroimen gaitzekoa, hiltun paregabea eta kultura zabalekoa. Bigarrena isilago baina berdin kartsua eta jarraikia, diruzaingoa pentsatzen dukezuen baldintzetan daramana...

Baina zer da gaur Enbata? Iritzi asko eta batzutan aurkariak azaltzen dira hemen: sozialistak eta sozial demokratikak, kristauak eta agnostikoak, borroka armatuaren inguruko iritzi ezberdinekoak; denak ikastolaren sustatzaileak dira baina batzuk eskola publiko bakarraren aldekoak eta bertzeak eskola giritinoari ere berdin atxikiak; deitura euskaldunak eta gaskoiak badira; nagusiak eta langileak; eta hola hola segitzen ahal genuke.

Haize izen, haize leku Enbata? Haize berriei irekia hori bai, baina ez da Enbata ardatzik gabea, denek dakigun bezala. Gizartea ez da bakuna, anitza edo plurala baizik. Iritzi ezberdinak elkarrekin joanaraztea nolabait, sortzekoa, baina sortuko den, sortzen ari den Euskadi baitan bizitzea erabakia dutenaz gero, ez ote da hor jadanik eginkizun ederra?

Euskaldungoa lehen ezar

1987-12-03

Ez ote da bada gogoetagarria joan den larunbatean Ikas-Bi elkarteari gertatu zaiona? Horra hor, hainbertzetan kritikatu dugun Hezkuntza Nazionala karraskan lanean ari euskararen alde (1). Biltzar guziz garrantzitsu eta balios baten apailatzen hasi dira, frantses estatuko eskola publikoetan mintzaira minorizatuen irakasten ari direnak bilduz eta hona non oztopo itxuragabe batzuk bidean trabes ezartzen dizkieten!

Ikas-Bi, gaurko boteretik doi bat hurbila geneukan, DEUGaren errefusa ederki gaitzetsi bazuen ere, guk bezala. Baina zer gertatu zaio hor? Sarako eskola ez ikusterat utzi nahi, larunbatean lana egin behar usaian pausuko direlarik eta abar. Hots, ageri estakuru bila zebiltzala eskola publikoko buruzagi gorenak sail berri honi hegala moztu nahiz! (Dударik gabe, politika boteredun handi zenbaiten manuz...) Ba ote da hitz egokirik jokabide horren izendatzeko?

Askotan bagaude Enbatan - ez baitugu borrokarik baizik aipu - ez ote genukeen hobe eraikitzea zerbait geure artean. Zoaz ori zu zerbaiten eraikitzerat giro honetan! Euskal kutsu zerbait duen guzia oztopatzen digute; baina oztopatzen digutena oro baino ez ote da euskararen alde egiten den guzia? Hobeki erran, zeure xokoan, zuhaur goxoki lanean ari zareno utziko zaituzte. Baina kasu urrats ttiki bat urrunago joan nahi baduzu, orduan ihurtzuri eta ximixtak berehala! Hori behar dugu garbiki ikusi gaur.

Geure esperantzak ezartzen ditugu datorren larunbatean berriz biltzerat doazen euskal kultura elkarte jardunaldietan. Nechoiz baino kartsukiago bermatu behar dugu hortik. Goazen euskal elkarte guziak Pizkundea-rat. Gure arteko iritzi ezberdinak baino lehenago ezar dezagula euskaldungoaren maitasuna, gaur, nehoiz bezainbat.

(1) **Oharra 2000.** Hemen Claudine Leralu eta Isabelle Lichau andere inspektoreak goretsi behar ditugu eskara irakasteko eskola publikoetan akuilatu duten sailagatik. Horrenbertze hoztasun eta trabaren artean tinko jarraikirik merezimendu handiak dituzte eta bihotz bihotzetik eskertzen ditugu.

Hona beraz egiaztatzen dela joan den abuztuaren 20eko zenbakian usnatzen genuena: « Intermarché » Senpererat heldu zaigula. Herriko hautetsi gehienak errotik alde dira. Modernoak dira gero gure herri-gizonak! Alabaina ez ote du jendeak aurkituko hor zerbait merkexago, musika lausengarri batez inguraturik oraino? Senpere dateke ipar Euskal Herriko bakarra, kantonamenduko herriburu izan gabe, merkataritza ttarro baten jabe dena. Ori, auzo herritar zenbaitek estima lezake balute horrenbertze beren herrian! Baina horiek guziek hertu behar lukete laster: gaur egun 70 bat pertsonen ogibidea kolokan ematen baita eta horietan 30 bat soldatarirena, sasoiariak bertzalde.

Senpere herri gaitza da baina haren karrika nagusia zer bilakatuko da etorkizunean? Turisten bisita leku soil ala herriaren erakusleihu bikain? Hemen ikusten dugu herri-gizonen garrantzia: Azkainen denak komertzio ttikiaren alde jarri dira eta Senperen berriz denak ezazol, bizpahiru salbu, hemendik agurtzen ditugunak. Frantziako Iraultzaren alde jarriz 1789an, gero lakuaren eraikitzean eta gaur doi bat piskor dabilen komertzio ttikiaren geroaz axolatu gabe, Senpereko buruzagiak, berriz ere, gehiengoaren iritzi errex hartarat lerratu dira. Ihardespenik izanen ote den? Dударik gabe izanen dela. Aski gogor joko dutenetz beharri tapatu horien irekitzeko... hori geroak erranen! (Ikus ere « Oreka bila » 123. orrialdean)

Umezurtz

1988-01-14

Usaian bezala, astearte goiza azken puntan, zenbait lerroren zirrimarratzerat gindoazelarik, jakinarazi digute Aita Larzabalen heriotza. Azaroaren 11n, Enbataren milagarren zenbakiaren karietarat izanak gintzaizkion agurño baten egiten. « Enbata » hitz soinuak berak argi bat ematen ziola begitarte adinik gabe zahartu hartan. Hantxe uneño bat egon ginen, pairatuz, halako gizon argi eta bertutetsua ikusiz, pirka pirka beheiti ari, urtetik urterat. Zorionik baldin bazen honetan zatekeen: ikustea gizon herbail hartaz okupatzen familia bat osoa, naturalki, normala balitz bezala, ospitalerik edo zahar-etxerik ez balitz bezala, zioskutela lañoki: « *Bere denboran lagundu gaitu, gu eta bertze hainbertze; zuzen da orain lagun dezagun* ». Eskerrik beroenak, denon partez, familia kartsu horri. Eta hantxe utzi genuen Piarres Larzabal, « Sartu dira sartu... » Roger Idiarten bertso berriak apuñatik abestu ondoan.

Gogorat heldu zaizkigunak: lehenik Enbataren merezimenduak mendratu nahiz ari baitira hor, jakintza eta ezagutza laburreko batzuk, ikasiko dute orain zer zor dioten, zer zor diogun Enbataren sortzaileetarik den horri. Abertzale baten izenik hedatu baldin bada Iparraldean Larzabalena izan da. Bereziki antzerki idazle bezala, ezin neurtuzkoa baita burutu duen saila. Behin galdatu genion Madalena Larralde saratarraz (frantses iraultzaileek eraila) antzerki bat idatz ziezagun. Ez duzue sinetsiko beharbada, baina 20 egun gabe « Sarako Lorea » mekanikaz idatzia eskuetarat eman zigun! Holaxe 120 bat antzerki idatzi dituzke. Euskaltzaindiak berak onartu zuen holako lan baliosa eta bere baitan hartu zuen Euskaltzain Oso bezala, Piarres Lafitte bera zeukalarik « aitatxi » (Ikus Gure Herria 1963 Abendua).

Gero Hegoaldean ere sekulako fama bilduko du Burgosko auzian eusko gudarien alde eta lekuko agertuko delarik. Zer ziliportak ez zituen jauzarazi! Herio mehatxuak eta denak...

1982ko buruilaren 26an Enbatak omenaldi bat eskaini zion. Ikus orduko zenbakia eta bereziki geroxeago argitaratu genuen Aburu (urriak 12) guziz hunkigarriak baitira hor ematen dizkiguten lekukotasunak: apez, sindikalista, gudari, idazle edo bertsolarienak. Bada hor halako dasta bat bezala Larzabalen obra guziz mamitsu eta emankorraz. Txillardegik erran zigun orduan egundaino izan den euskal idazlerik nasaiena edo oparoena izan dela Piarres Larzabal! Erantsi behar dugu ere, hala beharrean, erdararen erabiltzeari ez zegoela batere aihar abertzalegoa zabaltzeko denetarat.

Langileek ez dute ahanztziko beren laguntzailea, bereziki Hazparnen egin zuen lana; nagusiak ere kexarazi baitzituen eta handik haizatu ere baitzuten, egonaldi polita egin ondoan haatik (15 urte?). Laborariek gauza ber-bera erraten ahal lukete. Horra hor egiazki jende langileari bere ohorea bihurtu dion gizona. Alta giristinoek ere ez dute ahanztziko holako apez: Batikano II.a baino lehen sentitua baitzuen elizaren berritzearen beharra eta hor ere lan egin baitu lotsatu gabe, apezgoari bururaino atxikitzen ziolarik. Hots: jende xehe eta langileen gizona eta laguntzailea; abertzale eta berdin euskaltzale porrokatua ezin gorago igana; kristau eta apez kartsu, bide berri irekitzailea.

Telesforo Monzon eta bertze hainbertzeren ondoratua zaitezke gaur Piarres eta gozatzen dukezue hemen ezagutu ahal izan ez duzuen bakea. Lagun gaitzazue, zuek ireki sailari jarraitzen bururaino. Ikus arte!

Ongi kudeatua

1988-02-04

Iduri luke zenbait urtez gaztetu egin garena: ETAk, denbora batez alde zeukan herri-iritzia bereganatu baituke berriz. Askok diote Madril eta ETArek arteko harremanek, negoziaketen urratsa, jadanik erabakia duketela. Zaragozakoaren ondotik ere izan baita harreman bat bederen bi alderdien artean. Holaxe, bide onean genbilzke; baina nork zer daki? Horrenbertze itxaropentsu izateko arrazoirik ba ote da? ETArek gorabeherak ezagutu ditugu. Baina gaurko iritzi kausitzea ez ote da armen lorpena baino gorago? Nahiz-eta bata ezin izan bertzea gabe.

Hortik bi eragozpen ikus ditzakegu: Madrilek ez dukeela onartu nahiko armen indarren araberrako zerbait baizik. Frantses ala espainiar demokraziek (izan daitezten aspaldikoak ala berriki jarriak) nekez onartzen baitute bertzerik. Bigarren oztopoa euskal alderdietarik letorke: EEk denak egingen baititu ETArek galdaketa herrikoienentzako (bere hautetsi postuei atxikiago delakotz?) PNV-EAJk mila karkula egingen ditu, gertakari honetaz ahalaz baliatzeko bere hedamena sendotzeagatik. Eta EA? Berantetsia dugularik zer nolako jokabidea izanen duen datozen egunetan.

HBren eta ETArek aurka berriki sinatua izan den itunaren karietarat, zenbait eztabaida sano sortu da EArek baitan. Une txar bat iragan du hor eta gure ustez zenbait luma ere galdu dituzke bidenabar. Baluke gaur aukera ederra, bere ahalez lauzkatzeko herriaren eskaera sakonena bideratzen, bere zabalkuntza indartuz denbora berean.

Dena den, « hordago » ongi kudeatu honetan mantxa bat gaitza jokatzen da, partida ez bada. Kartak itzuli beharko ditu orain Madrilek eta haren jokoa ikusiko du nornahik. Ikusiko ere dira batzuen eta bertzeen oinarriak zertan diren. Berdin berantetsiak ditugu Iparraldeko iritziak. Hegoaldeko borroka armatuaren eragina handia baita Iparraldean ere.

Enbata, astekari berezia da: gutiesten eta baliatzen gaituztenei ere ateak irekitzen dizkiegu! Ez irekitzen bakarrik, toki eder bat eskaintzen ere... Masokistak ote gara ala soraiotuak? Ez, gure muinetaraino sartua zaigun ustea da, Iparraldean, ideia desberdinen batasun minimo bat gabe - bereziki hauteskunde zenbaitetarako - ez dugula gauza handirik erdietsiko Parisek ez baitu indarra baizik ezagutzen, oixtian genioena eta gure indarraren gakoa batasunean baitago eta horretarat heldu behar baitugu, beraz, gostarik gosta.

Herriak ere berdin, batasun gehiago eskatzen du; askatasunerat heltzekoak izaki-eta, nolaz ezar lezake bere geroa elkar ezin ikusiz dabilzan abertzaleen eskuetan? Gainerat batasun minimo horrek ekar liezaioke tendentzia bakoitzari bere garapenaren ahala. Begira Mitterrand eta Chirac (...) goiti ari biak! Zerk ekarri gaitu bada berriz ere solas hauetarako? Urtarrilaren 23ko manifestazioak, garbiki errateko. Han ziren hamarretarik zortziak (?) abertzaldeak ziren eta hala ere « bertzeek » nahiko zuketena ikurrinari batere ez ikusi karriketan! Horra zertan garen geure inguruko « hurbilenekin ». Ez da espantu egitekorik...

Aixtian doi doia aipatu baititugu hauteskundeak, har ditzagun herrietakoak. Ehun (?) lista abertzale muntatu behar genituzke hiru lurraldeetan barna euskal egitarau orokor bat oinarri. Horra hor ekintza bat guziz baliosa izan litekeena. Zerrendak ez badira osatzen, hobetik handiena gurea izanen da eta ez bertze nehoena...

Ilunpetan izartxo

1988-02-25

Duela hamar bat urte Hegoaldeko Estatutua finkatu zenean Madrilgo gobernuaren eta EAJren artean gehienbat, Telesforo Monzonek idatzi zuen honelatsuko zerbait: «*Antolaketa horretan, nor den irabazdun ikusteko, aski duzue begiratzea non duten xanpaina ireki, euskaldun etxeetan ala Madrilgo jauregi dotoreetan?*» Halaber Iparraldean, IKko buruzagitza poliziak bere sareetan sartu ondoan, poliz-etxe eta politikeroek xanpaina zurrutan, sari eta aipamenak ugari. Abertzaleek aldiz barneak hits, IK hastio dutenak ere! Denak ezinbertze eta gogoetetan; Bidartarren aita otoitzez; Ttote Etxebesteren ama beti bezain kuraiatsu. Askok diote hau omen zela itxaron zitekeen aterabide hoberenatarik...

Ordea, eta gu beti galdera berekin gaude, onez onean paratzen diren abertzaleak ere ez dira hobeki ikusiak eta onartuak. Ikus astelehen honetan, Parisen, Herrikoa-ri eman dioten zigorra! Alta lanbideen sortzeko xedea ez dio nehork ere ukatzen ahal: Jaun Apezpikuaren eta bertze hainbertzeren sustengua ukana baitu. Bizkitartean, lege administratibo zirtzil batekin, herrestan erabiligogo gaituzte. Ikus oraino, edo hobeki, entzun (Gure Irratian) Andde Luberriaga mintzo Goiz Argiren izenean; xedeak eta moldeak arras onak omen ditu: baina aitortzen du ez duela deusik erdiesten eta hori guziz gogoetagarria dela.

Eta hona non gure makur guzien erdian galtzen dugula gizon handi bezain balios bat: Maurice Abeberry abokatua. Enbatako irakurleek ongi ezagutzen zuten, gutartekoa baitzen dudarik gabe. Noiznahi etortzen zitzaigun geure astelehen arratsetako bilkuretarat itzuliño bat, berriekin eta... berrietarat. Haren ekarpena handia zen, oharpenak ezinago xuxenak, landu ondoan azaltzen baitzizkigun. Hona beraz abertzale jendea bortizki joa berriz ere, Piarres Larzabal doi-doia zenduaren ondotik. Huts haundia egingen du gure artean, euskal arazoaren ingurukoak, zorigaitzez, lege-gizonen beharretan baikara maizegi.

Nor ez du lagundu? Abertzaleak, Sokoa, euskal irratia azkenik, ahantzi gabe Senpereko lakuko auzian laborarien abokatua izan zela, gaulistek eta Cami-k beren alde plegaturik zeukaten justizia baten aurrean jokatu baitzuen bere ahal guziez.

Euskal abokaturik handiena galdu dugu, aipatu gabe, pilotak galdu duen buruzagi suharra: luzakiago aipatzea merezi lukeen saila. Familia guziari gure doluminik bizienak, bereziki Jakes eta Koko, haren anaiei, gure astekari honen buruzagi eta lankide kartsuei. Holako anaiak ez dira maiz ikusten familia batean. Akatsik baldin bazuen eta baldin badute, sorbalda batez askotxo baino gehiago izatea dukete! Eta hori ezin onetsia zenbaitek; denen beharra ez bagenu bezala! Gaixo gu...

Ez dugu bada utziko solasa ilunpe horietan: Hegoaldetik izartxo batek argitzen baitigu: negoziaketak beti alha, beren gorabeherekin, baina beti alha halarik ere. Bertzalde, ostiralean Sokoa-ren biltzar nagusia. Denok oroit gara 1986 hondarrean jasan zituen. Hala ere urte guziz joria bihurtu zen azkenean diru emaitzen aldetik. Aurten, egundainokotan, emaitzak are hobeak eta lantegia handitzen ari karraskan! Hauxe osasuna! Horra hor euskal mirakuluño haietarik bat. Zorionak Patxi Noblia eta langile artatsu horiei guziei. Legrand eta bertze euskaldunen izorratzaile handiak, emazue sakelan! Eta hik, Sokoa, eutsiok heure izartxoari!

Beti aurrera

1988-03-17

Otxalderen omenaldia zen Beskoitzen, 1964ko abuztuaren seia. Besta gaitza: meza nagusi, mintzaldi, aurreku, bertsolari saio eta ez baitzen txarrena izan: Robles Arangiztarak, 8 haurride baturik kantuz! Goizean, Enbatakoak manifestatzen izanak ziren muga alde horretan eta poliziarekin zenbait tira-bira ukanak ere. Bazkalondoan René Ospital kontseilari jeneral zenak, mintzaldi ozen batean, erasiatu zituen aldebat manifestatzen zebiltzalakoan... Dakigularik zer lanak ibili dituen René Ospitalek bere denbora laburrean kasik Erdi Aroko gizarte hura higiarazi eta aitzinarazi beharrez, dakigularik zendu zenean (1968an) kasik Enbatakotzat ematen zutela zenbaitek, hizlari on horren ahapaldiak erakusten digu zertan ginen 1964ean eta beraz zer bide egin dugun geroztik batzuek eta bertzeek.

Bide ikaragarria, egia erran, egin izan da. Baina askoren ustez poxi bat « hikatuak » gara Iparralde honetan. Orokorki eta gaingiroki begiratzuz: Hegoaldeko suak piztu du Iparraldean haize berri bat. Baina egoera ezberdinak, oso ezberdinak genituen han eta hemen 1960 hamarkadan, euskal kontzientzia mailan bereziki. Hegoaldeak iratzarrarazi gaitu baina hango borroka gogorra Iparraldearen « erretzaile » edo hobeki erran militanteen « erretzaile » gertatu da. Haatik, Hegoaldea ez zen egoten ahal aiduru gu haien mailarat heldu arte...

Aitortzen dugu Hegoaldeko langileria azkarrek, borroka armatu eta marxistak izitzen dituela Iparraldeko baserritar kontserbadoreen umeak, kanpainetan geldituak ala doi-doia hiritartuak; hemengo jendeak, segitzen ez baditu, sumatzen bederen baititu gure anai-arreben bideak. Han eta hemen bide ezberdinetarik ibiltzeaz ez dakigu zer pentsa, ideientzat eta berrientzat ez baita gehiago mugarik. Haientzat on izan daitekeena guretzat ez datekeela on, militanteen artean errexxi onargarria da baina nolaz adieraz hemengo jendeari, gaitzitu gabe, Iparraldean « gibelatuagoak » garela? Egun guzietz bere pean gauzkan estatu honek munduaren « argitzaile » dela sinetsarazi nahiz ari zaigularik?

Badugu bertze arazo handi bat: gaurko giro liberala Europa eta mendebalde guzian hedatzen ari da eta sozial demokratek lanak dituzte irauten. Eta giro sasi-liberal horretan bizi garelakoan inizatiba batzuk - izanik ere osoki herritarrek - inizatiba pribatutzat jotzen dituzte Iparraldeko abertzale batzuek eta beraz ez dute esker handirik zenbaitentzat. Herrikoa-rentzat berarentzat kezkatu daude, ea euskaldun egonen ote den, ala bertze asko inizatiba goresgarri bezala (Crédit Agricole, Lur Berri eta abar) enpresa kapitalista koskor bilakatuko langileez eta euskaldungoaz axola gutirekin? Hau lastima! Irrisku hori dagoela-eta, deusik egin gabe egon behar ote dugu gisa guziz enganatuak izanen garelakoan?

Eta marxismotik joangogo luketenek, haiek ez dutela irriskurik hartzen? Zer dira bada Stalin, Ceaucescu eta bertzeak marxismoaren ume baztergarriak ez badira? Guk geure sinestea ez dugu ez liberalismoan ez komunismoan ezartzen. Euskaldunek geure legeak behar ditugu. Baina gaur, zerbait egitekotan, inizatiba herritarretik abiatu behar dugu. «Lerratzek» gerta daitezke: baina irriskurik ez lukeen sistemarik nork nahi luke, nork? Erne ibili beharko da beti. Baina gaur jokatu behar dugula bai, jadanik egin den bezala eta gehiago egiten balitz hobe...

Aberri Eguna genian

1988-04-07

Jendalde polita bildu duk Itsasun Aberri Eguna ospatzeko. Hor zituan hiru alderdi dei egile eta eratzaileen kideak, baina ere alderdi bihibatetan ez diren zenbait ere, batasunaren dinamikak bultzaturik etorriak. Hiri, preso haukaten horri, pentsatu diagu egun guzian; ene ustez ez zuan han hi baino gehiago ezagun zenik, bihirik. Behin baino gehiagotan begiak bustitzen eta zintzurak korapilatzen ikusi eta hauteman ditiat, hik eta hire lagunek jasaten duzuen zigor dorpeaz mintzatzen zitzaizkigunean. Sufritzen genian guk ere eta hola errexago zuan zuei hurbil egotea.

Haize berde batek errezebitu gaitik goizean Kanboko bide hegian; hezurretaraino sartu nahi zian! Ez duk haatik nehor handik higitu! Halaber arratsaldean, « harriaren » aurrean, nola bi omenaldietan, euria tzir tzir tzir, ez zuan atertzen, haizeño hura doi bat eztitu baldin bazen ere; baina berdin, xipatuak zirenak ere, hantxe egon dituk, tente baina erne! Erne, han erraten zirenak gure egiten genituela adierazteko deneri; denbora berean jakinaraziz, gure artean ziratekeen « txakurrei », gure abertzale nahikundeak ez duela mugarik.

Piarres Charrittonek inarrosi gaitik euskararen alde bota duen garrasiarekin; astekari abertzaleok, bertzeak bertze, erasiatu gaitik euskarari ez diogulakoan aski toki ematen. Ados baino adosago nauk harekin. Mintzaldietarik gibeleratekoan euskara gehiago entzuten zuan gure artean, haratekoan baino. Egiazki gero! Bagenian holako Aberri Egun baten beharra, behar gorria Joanes Goihenetxe hautetsiak goizean erran digun bezala. O, bistan duk, hor egin dugun batasunaren « hauskortasuna » nabari zela. Esku hunkitze eta behako murriz frango. Baina hori ote da beharrena? Ez ote zen beharrena han izatea? Ez ote zen beharrena bat egiten gaituzten arrangura eta xedeak bat eginik aldarrikatzea?

Besta giro goxo hura ez diagu Aberri Egunetan aurkituko behingoan bederen. Aberri Eguna borroka eguna izanen baita oraino luzaz guretzat. Anitz jende gehiago bildu beharko genikek, halere, ondoko urteetan. Behar dena eta aski goiz eginik horretarako. Noiz ikasiko dugu euskaldunek elkarretaratzeko, ostean, gustatzen ez zaizkigun molde zenbaiten gainetik iraganez, beharrenari eusteko?

Aberri Eguna geninan arreba gaztea. Euskara maite dun, baxoa ere iragan huen euskara harturik lehen mintzaira biziduntzat espainola bigarren utzirik. Hain maite dun euskal dantza: uraren gainean ere ari hinteke! Pazkoz, Arnegin kabalkada zitenan: han hintzen bistan dena. Ez huen itzuliño bat egiten ahal lehenik Itsasuraino? « *Ez ditiat jasaten ahal zuen mintzaldiak. Nik behar diat parte hartu nolabait. Ez nagokek mintzaldiei begira. Bertzalde, Gora IK! Gora ETA! eta holakoek nardatzen naitek. Militanteen mundu garratz bat zarete, hertsiegiak, gogorregiak* » (1)

Baratxe, hi, ez dun ikusten zer nolako zapalkuntzak jotzen duen herria? Ez bakarrik gogorrenak, beha iezaion Herrikoa-ri ere nola jarri zaizkion? Estakuru guziak on gure oztopatzeko. Ikusi dun azkena, Pantxoa Angevin-i eman dioten zigorra? Egiazki bi justizia mota baditinagu Frantzian: bata frantsesentzat, bertzea menpean dauzkanentzat. Uste dun horren errex dela ihardukitzea fermuki batetik eta zabaltzea orori bertzetik? Bazakinat haatik aspaldian, hori dela gure arazo handia: gure helburuak nehoiz begietarik galdu gabe, orotarar hedatzea eta horretarako Aberri Egunak ez lukeela izan behar alderdien eguna, are gutiago alderdiaren eguna; baina, ontsalaz izan behar lukeela euskaldun guzien bestaburu nagusia.

(1) **Oharra 2000.** Ihardespen hau ez da asmakizun bat, Aberri Egun biharamunean entzuna baizik.

Boz-ondo gogoetagarriak

1988-04-24

Frantses hauteskundeek lehen itzulia iragan da eta bigarrena ere naski iraganen, abertzaleon markarik guti baizik, edo batere ez, utzi gabe. Zerbaiten egiteko nahikundea ez zatekeen falta, Juquin-en inguruan bildu zen jendeak erakutsi zigun bezalaxe. Ekologistak eta MPTTkoak, haiek ere, zenbait boz merezi zuketelarik guregandik. Baina hiru talde horiek bildu dituzten portzentaiak Frantzian ala Euskal Herrian bertsuak izan dira. Etxean egon diren abertzaleon kopurua ere, alta, ez dagoelarik nabariago. Mitterrand-ek bildu dituela gure bozak lehen alditik beretik? Harritzeko litzateke eta azterketa xeheago baten zain gaude; begira, ez daiteke gauza handirik erran.

Segur, ez direla gureak hauteskunde hauek, baina gure markarik batere gabe iragaiten badira guziak ba ote da hor lortatzekorik? Kanakiarrek eta kortzikarrek ez dute ori aukera pasatzerat utzi... Chirac-en gobernuak okaztagarria izan da, ezin erranezko heineraino, herri eskubideei buruz eta boz bezperan bi herrialde horiek eman dioten uztar dorpeak ez du nehor harritu. Beharbada, hor galdu ditu hauteskundeak Chirac-ek... Nork daki?

Baitezpada Hexagoniako norbait behar genuke aurkeztu goi mailako hauteskunde guziz garrantzitsu hauetarak. Eta euskaldun bat zertako ez? Ordea, Aberri Eguntto baten doi-doi egiteko gai gara elkarrekin: nola galda guri holako sail bati lotzerik? Horrek erakusten baitigu, bertzeak bertze, zer heinetan ezariak gaituzten batzuk eta bertzeak. Eta Hegoaldeko anai-arrebok zer diozue gure egoeraz? Frantses hauteskunde sistema ez ote liteke izan aukera bat gure borrokaren jakinarazteko eta zabaltzeko, euro hauteskundeek gisarat eta beharbada hobea oraino?

Horiek hola, zer bertze erakaspen igandeko ondorioetarik? De Gaulle-k asmatua da frantses presidentearen hautesmoldea. Orduan, alderdi komunista biziki azkar zebilen eta nehorik ez zuen asmatzen ahal ere holako beherakadarik egin zezakeela horren denbora laburrez gainerat. De Gaulle-n ustea zen, komunisten beldurrez, haiek zeudekeen aliantzak beti galduko zuela eskuinaren faboretan. Enganatu da De Gaulle - Jainkoak bere lorian duela - komunistak zeuden alderdiak irabazi baitzuen 1981ean eta hauek gobernuraino ere igan baitziren!

Mitterrand, azeri zaharrak, ari du alderantzizkoa entseatzeko: eskuin muturra lauzkatu (?) eskuindarren nardatzeko, Fronte Nazional beldugarria legokeen eskualdeak partida gal zezakeelakoan! De Gaulle-n gisa, jokabide maltzur horri esker, lortuko bide du bere bigarren aulkia, maiatzaren zortzian. Baina, doi bat mantsotu ondoan bederen, ez da ezinezkoa, gure ustez, Fronte Nazionale boteretat heldzea egun batez...

Bertze erakaspenik ere badaiteke: denbora neketsuetan, demagogiak irabazten duela. 1981ean Mitterrand-ek « ogi baino txokolate gehiago » hitzeman zuen eta aski hitzimatearen bortxaz garaipena eskuratu zuen bi aldiz huts egin ondoren (1965ean eta 1974an) Le Pen ere demagogia dario badabil. Eta hori ez ote da gogoetagarria: mende bihurtu zail honetan, jendea honen sineskorra, aldakorra edo berdina ozarra bilakatzea? Ba da hor, egiazki, bi hausnarketa serioen gaia, bere iraultzaren bigarren mendeurrena ospatzerat doan estatu honetan...

Gizarte aldaketak

1988-05-19

Gizartearen ikertzea ez da gauza errexia; soziologoa izan behar litzateke horretarako eta haiek ere lanak dituzte zerbait argi ateratzen! Azken denbora hauetan denak ari dira ikerka norat goazen zilatu nahiz: sendi baita orotan aldakuntza handietan barna abiatuak garela berriz ere egundainokotan. Aldakuntzen etapak piska bat gorabehera mugatzen dira. Askotan aipu da 1960etik 1980rat arteko denbora: teknika mailan ikaragarriko jauzia egin baita hor eta gogo iraultza ez baita ttikiagoa izan. 1980etik honat, bertze aldakuntza bat, abiatu zaigula diote « baloreak » bertzeak bertze, maiz aipu dituen. Bereziki azken frantses hauteskundeetan, gizarte ikertzaileek ikusi omen dituzte aldakuntza horren seinaleak, argi eta garbi.

Hona bertze gizarte aldaketa zenbait. Lehen lehenik ezartzen da giristinoen beherakada, 60etik 80rat kraskako handia jasan baitzuen; baina aldi honetan Eliza instituzioaren beraren eraginak gibelamendu handia egiten ari omen du. Apez kopuruaren ttikitzea dagoelarik indar galtze horren lekuko argiena. Bertze aldaketa handia, langileria soila urtu dela hogeitaz urte horietan eta urtuko ere oraino hemendik aitzina. Alderdi komunistaren beherakada lotua bide da langileriaren murrizte horri, bertzeak bertze. Hirugarren aldaketa handia, familia: ezkondu gabe bizitze, familien « birmoldaketa » eta holakoak. Baina aitortu behar dugu gaurko gazteak egundaino baino atxikiago direla beren burasoei! Gaurko etorkizun goibelak baduke zer ikusirik hor, baina beharbada burasoei ere lehen baino hobeki haurren ulertzen badakite; haur gutiago izatea bera, familietan, ez datekeelarik lagungarri txarra eginkizun horretan.

Bada bertze aldakuntza bat: liberalismoaren garapena (ala kapitalismoarena?) Sozialistek lagundu dutela daukagu, harrigarria bada ere, Fabius-en garaian bereziki, gerizabide sozial batzuk hautsi eta berregituratzeak akuilatu zituztelarik. Chirac-ek bikoiztu egin duela joera hori denok badakigu. Gaurko egoerak bi jende mota, larri-larria, ari ditu sortzen:

- « Performanteak »: eskolatuak dira, osoki gaituak teknika berrietan, aferetan atrebituak; norat nahi joateko gai dira, Europaren eta munduaren desafioei aurre egiteko prest daude. Ausartzia dario, balentriak ez dituzte hastio.
- « Arkaikoak » deituak: hor daude, batzuetan formakuntza eskas batekin, geroa iluntzen ari zaien ofizioetakoak, lanik gabeak, uzkurak, kultura eta sozial langileak, biziak kolpatuak, herrian bizitzeari errotik atxikiak. Elkartasuna bilatzen dute.

Performante asko bazegokeen Chirac-ekin. Arkaikoak gehiago Mitterrand-ekin, Chirac-en lasterkadak lotsatuak edo pausu baten eskez bederen (Aipatu gabe bertze arrazoiak). Performante zenbaitek, halarik ere, Mitterrand bozkatu dute, baitakite arras ontsa egun hoberenak baldin badira, bihar bertze batzuek aitzinduko dituztela berdin, nehoentzat urrikirik ez duen zeingehiagoka honetan, eta bertzalde, elkartasunik gabeko gizarteak ez dezakeela luzaz iraun.

Goiti ari

1988-06-09

Dudarik gabe goiti ari garela erran dezakegu hauteskunde hauen ondotik. Abertzale boz kopurua emendatu da, baina, eta hau da garrantzitsuena, bildu portzentaia ere goiti joan da ehunarentzat 40ez nonbait han! Abertzaleen batasunak eragin du gorapen hori eta loriaturik gaude: hori baikenuen nahi, hori bilatu baitugu, hemen eta geure euskarazko sailean bertze nehon baino gehiago. Hiru alderdirentzat hiru boz-eremu izateak errexu egin duke hautagaien izendatzea, aldizkatuz hautagaiburuak eta ordainak. Joko ximen horretan bi akats lerratu diratekeelarik alta, gure ustez: emazterik eta zuberotar ordezkariak eza. Bertzalde bistan da, ageri zela antolakuntza eskasa; baina non zen denbora, batasuna egin behar lehenik eta denetarako ere horren epe laburra?

Gorapen ederrak ikusi dira zenbait herritan, Aiherran, Uztaritzen, Hazparnen. Iholdiko kantonamenduan. Senpere, Azkaine eta Sara ere ederki ateratzen dira; baina hor lehenagokoa da hauteskundeetan ongi dabilatzala. Dena den, gorakadak ez dira onddoak bezala sortzen; tokian tokiko militanteek egin lan jarraikiaren ondorioak dira beti. Euskal armak isilik egotea, kanpaina denboran bederen, hori ere erakarle zatekeen.

Kontra genukeena zen, betiko frantses giro paristarra: sozialistei botere osoa ez eman behar eta holako leloak. Kontra genuena ere, hauteskundeez aspertuak zirela bazterrak. Sozialistek jasan dute kexu horren zatirik handiena baina ez da errana abertzaleok ere ez dugula deusik pairatu alde horretarik... Baina horiek denak ez ote dira xehetasun batzuk? Orain geroari so egin behar dugu. Departamenduko kontseilariak larrazkenean ditugu, kantonamenduen erdiak berritzeko dira eta daukagu bide bertsutik joan behar genukeela. Hiru alderdiak bil daitezela berriz ere, eta aski goiz egin dezatela hautagaien izendatzea, lekuko militanteak ikusi eta mintzatu ondoan haatik! Ez baikara zentralismo demokratikozaleak, ez dugu bertze biderik ikusten.

Abertzaleen kanpainak ez luke erdizka plazaratu behar. Ez ote da lehenik ikusi behar mugimenduaren aitzinamendu orokorra? Ez gara halere hertsikerietan lotuko gaurdanik, baina sail horri bai lotu behar dugula oraindanik.

Ikusi duzue Euskal Telebistan, astelehen arrats honetan, Alain Lamassoure, eta Jean Grenet, biak, Piarres Charritton-en ateari joka? Ezin sinetsia baina egia. Eta biharamunean berean Sud Ouest-a, euskal kazetei aitzinka, banalizatzen, goxoki aipatuz gertakaria! Aitor dezagun halere, duela 20 urteko Sud Ouest-ak ez zuela holakorik utziko bere zetabeetarik iragaiterat! Ikus hor aldaketa nabaria.

Baina gatozen gertakariaren muinerat. Destrade etortzea, denok zain geunden. Baina Lamassoure, bazaizue! Ez dugu hemen aipatuko eskuinekoek erabili duten politika euskal herriari buruz: hitz batean bildu behar bagenu guzia erran genezake euskaldungoari urkabilurra deblauki ezarri diotela. Destrade-k eta alderdi sozialistak eutanasia pratikatzen dutelarik. Begira, bertzela, zer hautua dugun!

Ez ditugu halere denak zaku berean sartuko, ñabardurak ikusi behar baitira. Adibidez, seigarren boz-eremuan, asko abertzalek Lassalette-ri emangogo diote boza. Ez gaitezen samurtu, ez bagara denak iritzi bereko, hor. Dena den, Destrade, Lamassoure eta bertzeek gure bozen ondotik ibili ondoan erraten ahalko ote dute, hemendik goiti, abertzale guziak terroristak garela? Aldaketa zerbait ekar lezakete berdin gertakari horiek...

Sara maitagarria

1988-06-30

Errotik antolaturik ezarriak dituzte Sarako harpeak. Oraingo tresneria berrienak baliatuz, ordenagailuak eta denak. Nor ez da loriatuko? Sara, herri guziz maitagarria dugu; Axular handia oroitarazten baitigu lehenik (sortzez urdazubiarra bazen ere) eta gero Lapurdiko herri ederrena ere ez ote da, gehienontzat bederen? Sara dateke, inguruko herriei batera, Lapurdik luzaz ezagutu duen bizi molde hein bat aberatsaren lekuko paregabea. Aski da ikustea hor Frantziako iraultza aitzineko etxe miresgarriak: hainbertze eta hain usu! Harrigarria egiazki, asma dezakegularik etxe horietan zegoen bizia: jende kopurua batetik eta egiten ziren lanak bertetik. Ahantzi gabe, etxea izan dela, mendez mende, euskararen eta euskal arimaren tenploa.

Bai, Sara dago, doi bat ikertu nahi duenarentzat, Lapurdiko herriek beregaintasun zerbait zeukatelarik eraman ahal ukan duten bizitza aitzinatuen ezaugarri. Frantsesek badituzte gaztelu eta jauregi ugari; arta eta urgulu handiz inguratzen dituzte. Guk, geure etxe zaharrak genituzke estimutan gora ezarri eta atxiki behar. Gazteluak, jaun handiek beren menekoei eginaraziak dira. Gure etxeak aldiz auzolanaren bidez eraikiak izan dira gehienak. Zer lastima azken urte hauetan gertatu diren etxe antolaketa itxuragabeak, jakin ezean, ahalik ezean baino maizago! Galarazi diguten nortasunaren lekuko dira, horiek ere! Zeren haxe baita ohargarriena: berrehun urte baino gehiago duten etxe hauek, gaurko bizitegi on bihurtzen ahal direla oraino ere!

Hemen behar dugu salatu, saminki, Baionako FPA ⁽¹⁾ bezalako ikastetxea. Milaka euskaldun ofiziale formatu dituzte hor, euskal eraz edo estiloaz deusik irakatsi gabe! Eskandala ezin jasana. Berrikeriak eta kulturarik ezak eragina, euskaldungoaren aihergoak bezainbat. Zer tetelekeriak ez dira ikusten gaur: euskal era garbia eta estilo arrunta (rustique) nahas-mahas! Bada ere alderantzizkoa « *Commission des Sites* » delakoarekin. Imitazioa edo hobeki erran eskarniatze dudazkoetarat hertsatzen dutelarik eraikitzerat doana. Aipatu gabe, debeku ezin onetsiak hala nola gaztelu erdi lurreratu bati hurbil gertatzea aski den debeku gaindiezinezko batzuen jasaiteko.

Harpeetarat berriz itzultzeko ez dezakegu solasa utz denok gogoan duguna azaldu gabe: 5 milioi berri hurbil xahutu dituztela hor barne itsu horien biziarazteko, langabezia eta gure euskaldun izatea dakigun kinkan direlarik. Eta gogorat datorkigu Piarres Lafitteren kexaldia, Herria-n zeraman sailean, Konseilu Jeneralak 300.000 libera berri bozkatu zituelarik Ahuñamendietako hartzaren gerizatzeko, pilik -errateko maneran - ez zuelarik ematen euskararentzat...

Hartzez eta harpeez arta hartzea ederki da, dudarik gabe. Baina ez ote dugu ederragorik, beharragorik eta presatuagorik miletan, ondorioz, ekonomikoki ere emankorrangoak liratekeenak? Baina Sarak ez du hor hobenik, hitz dizuet, gogoan dugularik Frantziako Iraultza haren denboran horkoei jasanarazi guziengatik nola iraun duen bere hartan! Mikoño bat lagundu ukan balute hor euskaldungoa askiko baitzen erdal erauntsia bortitzenei ere ihardukitzeko!

(1) Formation Professionnelle des Adultes.

Gogoetatxo batzuk

1988-07-21

Zoko guzietan herrietako bestak eta zein ederragoak! Eta gure gazteriak badakiela hautatzen... Bidarra hasi zen lehenik eta zer hedadura ez zuen hartu! Kasik sobera, zenbait aldiz, ziotenez bederen... Herri ttikiak dira gehienik agertzen, bestakari, euskal giro ezarle. Ulergarria: herri tarroetan elkarte ugarik lan egiten du urte osoan eta batzuetan goi mailetan gaindi herriko indarrentzat nahiko lanak direlarik jarraikitzen. Dena den, besta horietan rock-a karraskan ari zaigu sartzen. Lehen txistean, arrotz giro euskaldundu hori gustagarria zaigu, baina norat eramanen gaituen, nork daki? Euskal arimak nola irentsiko, bereganatuko ote du erauntsia berri hori? Ala zahar gazteen arteko haustura hain da handia non ez baita gehiago lotura egiterik?

Bidarraik lortu zuen arrakasta handia bezain moldagaitzak ala rock-aren arrakastak berak, betiko punpe bererat erakartzen gaituzte: sortzen ditugun sail zenbaiten kudeatzeko euskal botere publiko baten faltarat. Industriarentzat ala turismoarentzat are gehiago: biak euskaldungoarentzat itogariak gerta baitaitezke, alor horiek, gure kulturaz axolarik ez dutenen eskuetan izanen ez direno.

Bertzela, bazterrak laño, Iparraldean bederen. Turismoak ez gaituela itoko ohartuak garateke; horren erasoak bigundu baita ahal (diru) eskasez... Euskal Mugimenduak ere ez du harrabotsik egiten. Egoera jabaldu hau ez ote zuten eskatzen aspaldian boteredun handi eta ttiki horiek? Hori gabe ez omen zen-eta deusik egiten ahal euskaldungoarentzat. Ori, hor duzue orain zuen bake famatu hura! Ea euskal DEUGa bideratzen diguzuen? Ea euskara eta Euskaltzaindia ofizializatzen dizkiguzuen? Ea Euskal Departamendu bat... Ea Seaska... Ea euskal presoak bakartasunetik jalgitzen...

Baina non nabil hor? Preseski euskal presoen kasuan gobernu berriaren jokabidea lotsagarria izan baita egiazki. Alabaina ahalketurik gaude Arpaillange bezalako batengandik holako amore emateak ikustean. Eta « giza eskubideen » nazioa dela Franzia... Eta hain zuzen horien aldarrikapenaren 200garren urtemugarat bagoazela, eta, eta... Ori, polita da demokrazia hori, bere legeak berak ere ez ditu errespetatzen-eta!

Nondik eta nola jarraiki beraz? Hauteskundeak datoz; ez ditugu nehoiz borrokabide bakartzat hartu orain arte. Ez behar ere! Ez da erran nahi ere hauteskunde guzietan parte hartuko dugunik hemendik goiti. Baina azken diputatu hauteskundeez geroztik, halako oldetxo bat badago parte-hartzearen alde, abertzaleen artean, kantonalak eta herrietakoak iragan arte bederen iraun behar lukeena gure ustez eta nahiz. Gerokoak gero... Baitugu nahiko lana hor behingo.

Basamortu ala oihan ?

1988-08-11

Geroago eta gehiago aipu dute - bereziki Brusela-tik - milaka edo milioika hektarea lur, landu gabe utzi beharko direla. Horrelako mehatxuak serioski hartu behar ditugu. Jadanik esne « quota » delakoak jarri dituzte. Beraz lurren larre uztea ere datorkiguke, bide beretik. Mende guziek beren nahasketekin iragan dira baina hau bezalakorik ba ote? Lehenik lur berri egiten karraskan ari izan gara. Oroit Jean Errecart senatari zenak zein artoski bultzatu zuen sail hori dozena bat urtez, ipar Euskal Herrian berean 20 bat mila hektarea irauliz. Berak zioskun, harro, Lacq-eko industriak bezainbat ematen zutela lur berri horiek!

Lur berrien egiteko baliatu gara frantses legeak ematen zizkigun diru laguntzez eta ez ziren gutiestekoak %35etaraino heltzen zirenaz gero! Errecart-en zuzendaritzapean, guhaurk ere lan egin dugu, su eta ke! Sekulan ez dugu ahantziko zer atsegina genuen hantxe ikusten genituelarik, zilo, pentoka eta sasiak leunduak eta garbituak, geroxago berde berde, pentze eginak! Negarrez ere ikusi dugu behin gizon bat, hantxe bi orenez bulldozer batek ordokitu baitzion orgabide kaskar bat hainbertze ikusarazia ziona bere bizi guzian...

Lur berri egiteko laguntzen sail berean ezar genezake « Zone Montagne »ko laborariek eta zenbait ofizialek ukaiten duten dirulaguntza. Horiek guziak jendea ahal bezainbat kanpainen atxikitze eginak dira. Eta orain lehen galdera: zein dira galtzerat utzigogo lituzketen lurak, hoberenak ala txarrenak? Bigarrena: kanpainak hustu dira itsuski azkeneko hamarkada hauetan eta askotan aipatu eta deitoratu dugu izurrite hori; baina lurren larre uzteak ez ote du emendatuko, egundainokotan, odol hustea?

Gogorat heldu zaigu Etienne Salaberry kalonje zena, hainbertze aldiz lur berrien ondoan, eta garrantzia bera emanik, zuhaiztazeak aholkatzen zituelarik. Eta hor balitz arazo handi horren aterabideetarik bat? Zertako ez oihan landatu alfer utzigogo lituzketen lurak? Harritzeko da nola ez duen nehork aipatzen sail hori. Oihanek ez dute onik baizik egiten ahal, dela osasunarentzat, dela ekonomikoki. Gero, bistan da, ez duela oihanak, behingoan bederen, lur ongi landuak bezainbat ekarriko eta beraz aukera hori aterabideetarik bat bezala legokeela eta ez aterabide bakar.

« **Agosti Xaho** » pastoralak ikusteko zoriona ukan dugu larunbat arratsean, Urdiñarben. Errotik apailatuak zituzten denak berriz ere. Xoraturik gaude hola ikusiz herri ttiki bat elkartzen eta pastorallean muinetaraino sartzen. Gaur biziki modan ditugu lehengo bizitzaren erakusketak: « Lehengo Hazparne », joan den igandeko « Donaixti » eta nola ez aipa Bidaxuneko ikusgarri handiosa! Nehori deus merezimendurik kendu gabe, guk, pastoralak, horiek guziak baino gorago daukagu aise. Euskarari (eüskarari?) ematen dion tokiagatik bereziki.

Baina iduritu zaigu urdiñarbetarren pastoral honek gehiago agertzen ahalko zuela Chaho-ren, abertzaletasuna. Preseski holako herritarra da guri gustatzen zaiguna: bere ezkertzaletasuna ukatu gabe, aberriaren onerako alderdien ginetik ikusten dakiena.

Bertzalde, baina hau xehetasun ttiki ttiki batzuk dira, süjetaren jauntzia ez zaigu gustatu; Zumalakarregiren burukoa ere, alta, ez zaigu egokia iduritu. Baina « manex » batek nola uler ditzake pastoralen berezitasun batzuk, aspaldidanik haiei errotik jarraikia izanik ere? Gisa guziz Jean Mixel Bedaxagar-ek ukan du gainezka plaza gizon jeinu, guri eskas iduritu zaizkigun guzien estaltzeko! Azken oharpena: gauaz dirdira gehiago dutela jauntziek. Baina pastoralak ez ote da hor amiñi bat urruntzen eguneroko bizitzatik eta ikusgarri bilakatzen? Luzeegi dateke lau oren, bereziki liburuan pastoralak segitzen ahal ez delarik argi faltaz.

Dena den, irakurle, ez baduzu oraino ikusia, beharbada berriz emanen dute (Atharratzen?). Agian bai! Eta eskerrik hanitx Urdiñaberi!

Bozka abertzale !

1988-09-22

Joan den asteko « Buru-beharri » titulupean, geure idazle kideak agerian eman dizkigu hauteskunde hauei buruz zenbait arrangura, abertzaleen batasun eskasaz. Alabaina, egia da, diputatu bozetan hobekiago iragan zirela harremanak eta hartu erabakiak orekatsuagoak izan zirela alderdientzat. Guk, geure aldetik, pentsatzen dugu, abertzaleak aurkezten diren kantonamenduetan, duda izpirik gabe, « abertzale » bozkatu behar dugula denok, ez baitezakegu bertzela egin neholara ere!

Bertzela egin bageneza - adibidez, Donibane Lohizunen - ez ote genezake batasun hondar guzia zalantzan ezar? Guretzat, aurren berritu behar diren Iparraldeko kantonamenduek **bat** egiten dute, bertze hiru urteren buruan berrituko direnekin **batera**. Ez da horien artean, deus ere zatika dezakegunik. Hemen batasunean, han bereiz, denok elkar ezagutzen eta elkarrekin lan egin behar dugularik? Gastuak banatzeko ere, zer lana!

Bertze oharpen bat: Bidaxunen nehor ez ematea erabaki dute tokian tokikorik baizik ez aurkezteagatik. Guk, geure partetik, teorikoki bederen, erabaki horrek ez duela itxurarik diogu. Lehenik, anitz jende, atzo han eta egun hemen, bizi delakotz eta hori, geroago eta gehiago ikusiko baitugu. Bertzalde, non behar da aurkeztu: egoitzaren arabera ala lan tokiaren arabera? Ez ote da beharrena kantonamendua **ezagutzea**, lokarriak ukaitea hangoekin, berez hangoa izan edo ez izan? Orain, ez balin badugu hautagai mailako abertzalerik Bidaxuneko eskualdea ezagutzen duenik, hori bertzerik da...

Hegoaldean lurralde batetik bertzerat dabilta aspaldian eta gauza ona zaigu, indarra ausarkixeago dagoen eskualdeek lagun eta harro ditzaten uzkurrago dauden guneak, maizenik guti edo aski, deseuskaldundurik daudenak. Dutarik gabe, haatik, kanpotik etorriek kasu gehiago egin behar dutela, bertako abertzaleak ez gaitzitzeko. Hautagaiak eta haren ingurukoak erakutsi beharko dute hor beren jendetasuna.

Berrikitan, Manex Goihenetxek zioskun ez zela Iparraldekoa Euskal Herrikoa baizik. Hori urrunago doa haatik! Hauteskunde mailan bereziki guk erran genezake Iparralde bat badela eta beharrezko zaigula gure nortasuna zaintzea. Egun batez Iparraldekoatasun hori ere ttikituko bide da, ezeztatuko ere beharbada, baina bitartean horretaz kondu atxikitzea dela hoberena daukagu.

Bertzetik, Bidaxune - halaber, Baiona, Angelu, Miarritze - eskualdeetako gaskoiek jakin behar dute abertzaleongandik, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa oso osorik Euskal Lurralde Historikoak direla eta horien baitan lan egiterat deitzen ditugula haiek ere bertzeak bezala...

Botereak usteltzen du

1988-10-13

Sekulako gatazka bortitzak piztu dira Aljerian gazteen eta boterearen artean. 200 hil segurik ba omen dira jadanik guk lerro hauek idazterakoan. 200 gorputz zerbait baino gehiago da. Nondik edo zertarik sortu den holako sukarra, nork daki, gaur, xuxen? Arazo seriosak badirateke haatik zeren odol beroa ukanagatik ez baita populua hola asaldatzen deus arrazoirik gabe. Eta bakoitzak bere ikuspegia dakar. Petrolioaren ekarpenak ttikitu zaizkiela, bereziki dolarra behekitu delakotz eta honenbertzez estatu aljeriarraren diru sartzeak urtu egin direla eta abar. Bertzalde, eta jadanik aipatua genuen sail honetan berean (ikus 1985-12-26ko Enbata) gutiengoen arazoak bizi bizirik daudela, Kabiliarena batez ere. Biziki kexu dira hor, kabiliarrak, egina zaien kasu eskasaz, Aljeriaren askatzeko hainbertze egin zutelarik alta! Frantses zapalkuntzatik atera bezain laster estatu aljeriarra nolabait zapaltzaile bilakatu da barneko gutiengoei buruz.

Aljeria herri deskolonizatuen eredutzat zeukaten askok. Bere kolonizatzaileari eman zion haizaldiaz den bezainbatean, eredu bat dago dudarik gabe. Baina badu anitz egiteko demokrazia mailan; adibidez, ikus hangoak hemengoekin ezkontzen direnean, maiz gertatzen diren eztabaida latzak... Herri askatuen sinboloa ez ote zaigu urrunegi joan? Adibidez, palestinarrek judu menperatzaileen kontra daramaten borroka, Aljeriako telebistan ikus zitekeen noiznahi. Hots, nola jazar erakutsi diete eta orain altxatzen bide dute erein dutena...

Ohargarria da, hain zuzen, FLN deitzen dela gerla irabazi eta 26 urteren buruan oraino horko alderdi bakarra! Hori bera ez zaigu gauza sana. Beregaintasunerat helduz gero ez ote zuten bertze izen egokiagoko bat hartzen ahal? Askapenerako guduak ez dira ahanzterat utzi behar, gazteek jakin dezaten, herria oroit dadin. Baina kasu soberakinari: jendearen eta jendairen loakarrarazteko lelo bihur baitaiteke errexki jokabide hori. Holako zerbait gertatu zen Frantzian 1968-1969an: De Gaulle-k ez zuen onik 4. Errepublikaren jorran baizik. Ase baitziren, ordea, bazterrak, azkenean!

Ez dugu guk ukatuko, horiek hola, nazioarte mailan Aljeriak eraman duen politika; txalotu ere baitugu frangotan. Sail horretan zer omena ez du bildu populu erromes eta menderatuen begitan! Baina jakin dugu ere Maroko-ri hurbildu dela azken denbora hauetan Aljeria, babesten zuen Polisario erakundearen kaltetan, nahitaez. Ez ote da hor ere askatzaile eredutik doi bat baztertu? Ez dugu ahanzti behar Aljeriak egin duena euskal guduarentzat. Baina, luzaz lagundu ondoan, Madrilen eta ETaren ararteko jartzeraino, harreman horiek makurtu egin dira, Madrilek galdaturik bistan da.

Jakin bedi, halere, Aljeriak bizi duen zorigaitzak inarosten gaituela, zeren, loriaturik daudenak kolonialistak baitira, eta jakina, ez dugula horiekin guk deus ere partekatzen dugunik. Agian laster, botereak usteldu horiek bazterturik eta musulmano fanatiko horien eskuetarat erori gabe, bertze urrats bat aitzinerat egingen dute, bertako jendaira eta giza eskubideen onetan.

Aljerian gaizki eta Frantzian ez hobeki euskal borroka! Gose grebalaria, zerbait higiarazteko kinkarat heltzearekin, presoak oraino beren dretxoak ezin erdietsiz, dena zalaparta! Nahasten baitute afera ez guti. Gobernamentua hartuago baita presoak eta erizainek ematen dizkioten buru hausteez gure gose grebalariez baino. Ea, atzarriko diren bazterrak piska bat loeriatik, gazte horiek eskatzen dutena, minimo bat baizik ez baita. Aupa euskaldunok!

Ez da goizegi !

1988-11-03

Fedea eta Kultura lemapean, bi egun iraun duten jardunaldiak ospatu dira joan den asteen, Baionan. Gure irakurleak ez dira denak, urrun da, kristauak; aurkakoak ere badauzkagunaz gero geure artean! Baina ez da abertzalerik egoten ahal kasurik egin gabe gure eliz gizonen lanei, eliz kargudun horien eragina ttikitu bada ere, aski ohargarria baita oraino Euskal Herrian. Eta areago kasu egitea merezi dute euskal kulturaren inguruan ari direnean! Beraz, Molères Jaun Apezpikuak gain gainetik bultzaturik, berrehun bat apez eta laiko bildu dira, otoitz eta gogoeta sakonak ez zirelarik falta mintzaldien artetik.

Setien Donostiako gotzaina ekarrarazirik lehen mintzaldirako, ezin hobeki adierazi da hor kristau euskaldunok elkarrekin lan egin behar genukeela gehiago mugaren bi aldeetarik. Batzuek erran dute erdara gehiegi erabili duela; baina Donostiako Apezpikuaren presentzia aktiboak erran nahi handia dauka guretzat. Arratsaldean ere gauza biziki interesgarriak ikasteko parada bazen. Gure elizetako erretaula aberatsak aipatu baitira. Sorkuntza mailan, Garaztarrak aldeak ere erakutsi du zer lanak egin dituen dantza alorrean.

Ortzegun goizean Haritschelhar jaunak euskararen aberastasun eta berezitateaz zenbait xeheki eta garbiki azaldu dizkigu gure inguruko mintzairekin konparaketak egingez bertzeak bertze. Ez zuen lan errexa, zeren hizkuntzalarien mintzaira, batzuek ezagutzen badute, bertzeentzat osoki arrotza baita, zenbaitek egundaino gramatikarik ez baitute egin euskaraz, nahiz eta euskaldun garbiak izan eta idatzi ere euskaraz.

Arratsaldean, Marcel Etxehandi aita beneditanoa genuen irakasle eta zer gaiarekin: sinbolika! Sinbolika orokorraren erdian Euskal Herrikoa, bereziki hil harri biribilen inguruan. Guziak xoraturik utzi gaitu: hainbertze xehetasun, denak zetabe xehean iraziak, denak lerrokatuak, ildoan sartzea baizik ez baitzaizu gelditzen azkenean eta ildoan sartzen zarela bai diotsut! Zoriontsu gainerat! Hainbertze bilakuntza eta gogoetaren bilduma, diapositiboz lagundurik duzularik aurrean, hainbertze euskaldunek bi sosen baliorik ikusten ez duten harriez, halako erran nahi zabal eta aberatsak badauzkatelarik alta, gehixago ezin jasana bihurtzen zaizu, ikustea, zer heinetaraino geure kulturatik mozturik hazi eta atxiki gaituzten...

Euskal gramatikan ikasten ari izan direnak emendatuz doaz; euskara baita gure aberastasunik handiena. Ez litzateke gaizki, bertze sail horietan ere gehixago sar bagintez! A zer gogo hazkurriak dauzkanak gure kulturak! Dena den, goresmenak, zinez holako sail baliosa abiatu dutenei eta milesker irakasle guziei. Damurik, holako biltzarrerik ez baitugu ikusi lehenago!

Ernal indarra

1988-11-24

Herriko bozak hurbiltzen ari zaizkigula-eta, goazen zenbait lerro, iraganari so bat eman ez lehenik. Gure herri eta herrixketan, hauteskunde horiek ukan duten eragina ez da maiz aipatzen. Daniel Landartek eta Aita Larzabal zenak beren idazki eta antzerkiekin, zerbaiti oharrarazterat entseatu ziren. Bertzerik ere balitz gogotik hartzaile ginateke. Alabaina, azkeneko bi mende hauetan ez da gertakaririk herriko bozek baino gehiago markatu dituenik gure herriak. Askotan aipatzen dira gure ohitura zaharrak, gerlak eta gatazkak; baina gauza guti erran izan da herriko boz batzuen ondorio deitoragarriez, gai hori poxi bat tabu balitz bezala.

Herri batzuk bertzeak baino gehiago hunkiak izan dira; baina gehienek, noiz edo noiz, sukar hori ezagutu dute eta gaur irri egiteko gairik atera badaiteke ere hortik, badakigu denok zer estatu lotsagarrietan jarri diren batzuk, egungo egunean oraino baitiraute, belaunaldiz belaunaldi, bizirik atxikiak izan diren herra gaiztoak ezin ahantziz. Filosofoak erran liezaguke beharbada, gauza hoberena jalgitzen dela berdin zalaparta itsusienetarik! Frantziako demokrazia bera ere ez ote du terroreak erdia? (Hau ez dakit, haatik, etsenplu ona denetz...)

Dudarik gabe, herrietako hauteskunde sistema da lehen hobenduna. Hoberik asma zitekeela uste dugu. Halarik ere, gauzak aldatuz doaz. Ez zaio jendeari lehen bezala nola bozka agintzen. Jakitatea zabaltzeko da eta jaunttoen nagusigoa ttikitu. Hain zuzen ez ote dugu hor aukera bat gaitza, guk abertzaleok, bereizkeria horien gainetik batasun bide berri batzuen proposatzeko? Proposamen gaiak ez ditugu falta, gure kultura eta ekonomiaren azkartzea, nahiko sail ederrak ditugularik hor berean. Batasuna egitea euskaldungoaren inguruan... zer egitaraua!

Abertzaleak, asko herritan, lanean hasiak dira karraskan datorren martxoko hauteskunde horiei buruz. Ez dugu aski erranen zein baitezpadakotzat daukagun karia horretarat urrats bat markatzea. Ez da lehen aldia, duela 6 urte ere zerbait eginik izan baitzen han hemenka. Abertzaleen arrakasta goiti doan une honetan, balia gaitzen pausu berri baten finkatzeko herrian herriko gisa, baina ahal den guzietz euskal zerrendak ahal bezain osoak plazaratuz. Ez dugu aski erranen ere, horretarako, zenbatetaraino euskal indar guzien biltzearen beharra badugun.

Aitor dezagun euskaldunak bortitzak garelako. Baina gure arbasoak elkarri oldartuz ibili badira (edo erabili badituzte) ez ote genituzke indar horiek guziak eman behar herriaren alde, herri hau menpean atxiki eta xurgatu nahi luketenei ihardesteko? Aste honetan Enbatak badakargu Berria kooperatibaz artikulu mamitsu bat. Aipatzen zaizkigun lorpen horiek ez dira berez saretarat erori; lan jarraiki eta indarrak biltzearen ondorio dira.

Jokabide berri bat behar dugu sarrarazi geure herriko etxeetan, guziz positiboa: euskara, lanbideak, Hegoaldearekiko harremanak Europa lagun, giza eta herri eskubideak. Iniziatiba pertsonalak arbuia gabe, eman dezagun lehentasuna elkarlanari edo partzuergoari. Jendea bildu edo bilarazi arazoak aztertzeko eta aterabideak bilatzeko. Lan taldeak sustatu. Euskal Herri mailan ari direnekin lotu gure lana ahal den guzietz. Abertzale saila herriaren ernal indarra da. Baina lurra landu behar da lehenik ereintzak har dezan.

Gaixo armeniarak

1988-12-15

Harrigarria da herri batzuen zortea edo zoria. Horra hor populu dohakabea, jadanik hainbatetan menperatua mendeetan zehar, inguruko estatuek zatitua, Turkoek sarraskitua 1915ean, aurtan hain xuxen, berriz ere sekulakoak jasanak Azeri-Turkoengandik eta hona non, egundainokotan, lurrikara bortitz batek errausten duen herrialdea! Euskal Herrian ere pairatu eta pairatzen dugu ederrik, zapalkuntza edo uholde, baina ez dut uste hein horretarainokorik.

Badugu segur anitz egiteko etxean berean, baina ez ote genuke, euskaldun guziek bateraturik xutik ezarri behar erakunde bat, munduan zehar gertatzen direlarik destorbu handiak, laguntza bat ekartzeagatik? Bereziki gu bezala askatasun bila dabilen herri menperatu bat delarik beharrean... Euskaldunen bihotz onaz segur gara eta ez litzateke txarra, guziak terroristatzat gauzkaten zenbait erakustea, gisa horretako laguntza baten ekartzeko gai eta on garela! Bitartean, herrialde horren oinazeek, ezinbertzez beterik uzten gaituzte.

Abenduaren 10a honetan genuen Giza Eskubideen 40garren urtebetetzea; berraldarrikatzea egia erran, lehen deklarazioa Frantziako Iraultza denborakoa baita. Ikusi dituzue gure agintari handi horiek, Mitterrand eta bertze, Lech Walesa eta Zakharov errezebitzen, Txekoslovakian izanik lehenik « askatasun eskubide kurtsoak » ematen? Alabaina, euskaldunontzat, ahalke egingarriak dira holako aldarrikapen barne hutsak, Iparraldeko presoak heritik urrun eta mespretxurik handienean atxikiak direlarik, Hegoaldeko gose grebalariek 35garren eguna dutelarik eta abar.

A, demokrazia eskasak, bertzetan, ikusteko on dira: urrunago eta errexago baita, Europa ekialdean, Txilen eta abar. Baina Frantzian berean gertatzen diren eskubide ukatzeak, haiek gutik ditu aipatzen botere inguru horietan! Lech Walesak izigarria bota die joan den igande goizean: « *Paris hiri ederra eta aberatsa da baina aberastasun material horretaz gainerat ez dut bertze gauza handirik hautematen* ». Ez zuten ebatsia!

Herri eskubideak zehazkiago aldarrikatu zituzten 1976ean, Aljer-tik. Alabaina, askotan, zertako dituzu giza eskubideak, herriarenak ukatuak baldin bazaizkizu? Funtsean, hor da gure arazo handia. Herri eskubideek giza eskubideak osatzen dituzte eta ez trabatzen. Giza eskubide soilekin nahi gintuzkete, zenbaitek, loakarrarazi, herririk gabeko bilakaraziz: gizona, zenbaki libre, munduko hiritar, lurraren lau hegaletan! Ergelkeria, gaurko arazoetarik ihes egiteko!

Gertatzen da Sovietar Batasuneko bertze herrialde batzuk ere irazartzen ari direla Mikhaïl Gorbaxev-ek sortu giro berriaz balia. Guk uste baikenuen, geure zenbait manifestaziotako 200.000 lagunekin, jende arau, munduko axolatuenak ginela herri eskubide mailan, nagusi ditugu aise estoniarrak: milioi bat eta erdi biztanlerentzat 300.000 manifestari! Iduri luke, sistema komunistak - bere estakuru guziekin - Mendebaldeko sistemek baino hobeki begiratu duela herrialdetasuna. Herri mintzairak lagundu baititu guti edo aski, adibidez, Ipar Ameriketan baino gehiago, ez baita anitz behar...

Bagenuke zer erran Frantses agintari, kazetari, eta intelektual zenbaitez: Sovietar Batasunean horrenbertze herri arazo eta eskasia dakusatelarik, beren estatuan herri eskubide zerbait eskatzen denean ez baitute ikusten terrorismoaren mamua baizik!

Aski zinkurina gaurko. Eguberriak heldu-eta ingura ditzagun, euskal elkartasunez, beharretan diren gure anai-arrebak.

Euskara maitez

1989-01-05

Hona beraz, lehen aldikotz, Iparraldeko bat, 7 lurraldeak besarkatzen dituen Euskaltzaindiaren buru. Goresmenak zuri Haritschelhar jauna, zure lan eta ahalei esker igan baitzara maila horretaraino. Ez zaigu itsusi ohoretan ikustea gure kazeta honi askotan atxikimendu erakutsi dion gizona. Iparralde guziak halako « ofizialtasun » bat hartzen du gaur: Euskaltzaindia baita Euskal Herriko erakunderik ospetsuena, ofizialki ezagutua Hegoaldean bertako gobernu bai eta Madrilgoarengandik ere. Iparraldean ez du haatik holako ezagutzarik, ez Baionatik, ez Pauetik, ez Paristik. Ahalkatuko ote dira, azkenean, beren Iraultza haren 200garren urtemuga ospatzerat doazen honetan? Iragan urtea arras nekea eta dorpea izatu da bereziki Iparraldearentzat. Bagenuen berri on baten beharra; izanen ahal du aipamen eta oihartzun merezi lukeen bezala.

Izanen duzu zer egin Euskaltzainburu jauna; ohoreak erantzukizuna eta karguak karga baitute beren ifrentzu arabera. Pentsatzen dugu errexki, oixtian aipatu dugun ofizialtasun eskasaz arduratuko zarela, zuzen den bezala. Ez ahantz haatik otoi, eginkizun eta ikerketa handi horien artetik, maila xumeagoetan lehiatzen direnok euskara maitez, « hortzak izerdi » (1) baitute sustengatzearen beharra...

Noiztenka kexaldi batzuk ere eskapatzen zaizkigu euskararen gaizki erabiltzeak ikustean edo entzutean, dakigularik alta, zer merezimendu duten gaur, Iparraldekoek, euskaraz bermatzen direlarik, xuxen edo makur! Hona etsenplu batzuk. Berrikitan Emile Larre-k bipilki aipatzen zizkigun ahoskera ez euskaldun batzuk (Herria 1988-06-09). Axaleko hutsak (idazkera /ahoskera) dira lehenik xuxendu behar; baina « erran nahien » eremuan ere ez ote da zerbaite egiteko?

Adibidez, joan den udan irakurri genuen « *M. de la Palisse et nous* » titulupean (Herria 1988-06-06) « *gizona gizon* » erranaldiak ez duela gizona emaztetik nehoiz bereizten eta gizatasunezko sentimendurik baizik ez daukala. Harrigarria egiazki, zeren-eta guziz alderantzizkoa erran nahi duela baitaukagu. « *Gizona gizon, saskipetik ere* » horra betidanik entzun duguna, gure ustez, horren, erran nahia delarik: asko sailetarako emaztea gizona baino gehiago datekeelarik, bertze eginkizun batzuetarako (lan bortitzak, eta...) gizona emaztea baino gehiago dela, xehetasunetan sobera sartu gabe errateko. « *Gizonak gizona balio du* » hori dukegu bertze errankizun eder bat gorago aipatu horrekin nehoiz nahasi behar ez genukeena. (E.Salaberry-k bakarretan erabili du bere idazkietan).

Baionako bestetako « Patxa »k atera zuen idazki bikainak ere (Enbata 1988-08-04) « *Aski da!* » zekarren titulutzat. Errexki ulertzen dugu « *ça suffit* »-ren itzulpena erraten digula. Bizkitartean hor ere, « *Aski!* » soilik utzi behar litzateke, zeren « *Aski da* »k erran nahi bailuke: « *Il suffit de...* » Ez dugu bada utziko aipatu gabe « *Korrika* » famatua, Gipuzkoan lasterka erran nahi duena eta hemen berriz, harat eta honat ibiltzea, nolabait errateko. Hau damugarriagoa zaigu aise, publiko zabal bati buruz joan nahi lukeenaz gero zazpi lurraldeetan barna. Aitortzen dugu haatik, gaineko horietan xuxenketa bat egin badugu hemen ez dugula deusik ordaintzat eskaintzen. Horrek ez baitu erran nahi hoberik ez zatekeela aurki, elkarlanaren bidez.

(1) **Oharra 2000.** Senperen entzun daitekeena. « **(H)ari gare karraskan?** »; ihardespena: « **Bai, hortzak izerdi!** » Galderan bada jadanik zirika izpi bat eta ihardespenean are gehiago! Ez eskulan bortitzean, baina garrantzizkoa izan daitekeen eginbeharrean ari denak eman dezake arrapostu hori. Lagunartekoa da: apaltasun zerbaitekin batera omere ona ere adierazi nahi luke, itxura guzien arabera.

Eguneroko eskandalak

1989-01-26

Zertan beharko da sinetsi hemendik goiti? Orain zahar paga ederra gozatzen duen Administrazioako komis handi batek ⁽¹⁾ aski ederki aipatzen zizkigun, berriki, ezkerraren eta eskuinaren arteko diferentziak. Politikaz ari gara bistan da. Eskuinaren jaidura tzarra omen da « dirua », ezkerraren isuria delarik « demagogia ». Baduke itxura, bereizketa horrek... edo bazuen erran behar, zeren *Péchiney* eta *Société Générale* eta holako batzuen inguruan entzuten direnekin, ez da dudarik ezkerrak ere eskuak zikindu dituela diruan, nork eta noraino ez baldin badakigu ere oraino xuxen.

Artetik errateko ez da harritzeko ezkertiar eta eskuindar izatearen auzia baztertu gabe, abertzale askok autogestioaren bidea hobesten badugu...

COB ⁽²⁾ famatuaren ezagutza ere egingen du orain jendeak; guk haatik, euskaldunek ongisko ezagutzen genuen. Nor ez da oroit, alabaina, Herrikoa-ri zein zorrozki jazarri zitzaion joan den urtean? Ori, arabera jokatzek bada gaurko jukutrialari atrebitu horiekin, ziliporta politik ikusi behar genuke... Behar bai, baina izanen ez, mirakuiluz. Gorenetik Beregovoy-k joan beharko. Green Peace-n ontzia hondatzearen ondorioz Charles Hernu-k urrundu behar ukan zuen bezalaxe...

Gure ustez, haatik, hor betiko arazo bera da: boterearena. « *Botereak usteltzen du* » hala genioen, ez hain aspaldi, hemendik beretik. Duela berrehun urte erdi zuten demokraziak ez du aurkitu, boterea eta dirua bereiziko lituzkeen sistemarik. Posible ote da? Entseatzeko nahikunderik ere ba ote da? Geroak erranen. Ezkor izateko arrazoiak baditugu. Alderdi politiko batek halako diru beharrak ditu bere kanpainak eramateko-eta, non, heroikoa izan behar bailuke ez « erortzeko »!

Eskandalaz ihaurri joaki zaigu mende hau. Baina mandilak betikoak dira eta guri onartezinagoak zaizkigu eguneroko eskandala haiek: handien aztaparra, Administrazioaren nagusigo hotza menekoekin, langabezia, pobrezia, heren munduaren xurgatzea, ingurumenaren hondatzea... Kalte horiek ondorio neurtezinak ukan baititzakete gizonaren baitan.

(1) Gabriel Delaunay.

(2) Contrôle des Opérations Boursières.

Euskara hiltzorian

1989-02-16

Zertaz mintza gintezke gaur SIADECOK plazaratu duen ikerlanaz ez bada? Alabaina, « euskararen geroa », zer gai sakratua ez da hor guretzat, abertzaleontzat? Lehenik, denek bezala erranen dugu domaia dela Iparralde guzia ez baita sartu ikerketa horretan... Baina orduan ez ote zen makurragoko zerbait entzunen? Itsasaldea du bazterrerat utzi ikerketa horrek eta, jakina, hiritartzen ari garen honetan arrangura handiak baditugula hor geroari buruz.

Gauzak garbi daude bederen eta kostaldea hartu balitz garbiago liriteke oraino: euskara hiltzorian dugu Iparraldean eta haren alderako atxikimendua ez bada emendatzen, 25 urte barne desagertzeko kinkan dateke. Egia da ere, eta berriz erran behar da, holako auhenak entzuten direla aspaldian handik eta hemendik; SIADECOK erran duela ofizialki, guk aspaldian bagenekiena. Zenbaki zientifikoak eskuetan izatea ez da, haatik, guretzat gauza txarra; bertzela, gauzak guhaurk beti iluntzen ditugula baiterasate...

Oraindanik denek onartu behar luteke, abertzaleek betitik erran dutena: egiazko politika euskaldun batek duela bakarrik salbatuko gure mintzaira. Gaurko berriek finkatzen gaituzte geure betiko usteetan, finkatzen muinetaraino! Borondate on guzien beharra bada, baina politika berri bat bideratu behar dugu: oraindinoko usaia txarrak irauliko dituen eta deblauki euskararen alderako bide naturalean ezarriko gaituena. Zaila izanen dela? Hori denek badakigu. Nahigabe anitz jasanen dugu eta jasanaraziko ere zenbait, nahitaez: ez baita egundaino Pazkorik ikusi Galbariotik iragan gabe.

Baina sinestea badugu geure herria baitan. Ez du sekulan barkatu eta gaur ez da batere barkatzekotan. Esperantzazko seinaleak ugaltzen ari zaizkigu: ELBren azkeneko uzta ez ote da zerbait? Hor dugu ere herrietako hauteskundeei buruz nabaritzen den mugimendu behin ere izan den zabalena : abertzaleak, kostaldean bereziki, abiatuak dira eta beharbada, han edo hemen, ondorio zenbaitek harrituko gaituzte... Duela sei urte - zenbait eztabada goiti beheiti - ireki saila, hedatzen ari da sua bezala. Ordu zen.

Berriz SIADECOn lanerat itzultzeko, zer parada ederra ez dugu hor euskararen egoera kezkagarri hori plazaratzeko eta debatea pizteko hauteskunde hauen karietarat? Beransko ote den? Doi-doi halaxe dateke. Baina denborarik galdu gabe jokatu behar dugu halere aipatuz eta denetarat hedatuz euskararen grina salbagarria.

Bururatzear dut aipatu gabe botere publikoen hobena gaurko euskararen egoerari buruz. Joxe eta bertzeak dabilta hemen gaindi, baina ondorio guti. Ahanztar baldin badugu, begira zer heinetaraino galdua dugun Paris baitan konfiantza! Sekulan baino gehiago beraz guharen baitan baizik ez dugula kontatu behar uste dugu... horrek ez baitu erran nahi Paris-en jarrera - lehengoa eta oraingoa - ez dugula zorrozki salatu behar.

Abertzaletasuna plazaratua

1989-03-09

Bernat Etxepare gure idazle lehenak, hor izan balitz, ukanen zukeen oihu berri baten botatzeko parada: « *Abertzale, jalgi hadi plazara!* » Abertzale « zaharrek » ez dezatela gaizki har; badakigu aspaldi hasia dela plazaratze hori eta gaur anitz baldin badira ez da ustegabetarik: orain arte egin izan den lan ikaragarriaren ondorioa baizik ez baita. Zer atsegina hala ere ikustea sator buhakinak bezala hautagai abertzaleak agertzen! Zenbat ote? Milaz goiti hain segur. Azpimarratzen dugu « agertze », lehenik abiatu diren taldeetan, hori zelakotz eztabaidagai nagusia: nola izendatu geure zerrendak: euskaltzale ala abertzale? Zer debateak! Baina laster abertzale izendapena nagusitu zen, etenik gabeko irrintzi batek herria zeharkatu balu bezala!

Egia da han hemenka - baina arras gutitan - ez dela garbiki azaldu izendatze hori eta naski, Baigorriin-edo, abertzale bezain ezkertiar ere azaldu direla batzuk. Baina begira dezagun orokorki, oroitzuz zertan ginen ez hain aspaldi. Ikus urratsa, hor egin dena; ondorioak, haiek arrasitsuak baldin badagozkigu ere, gibelatzerik ez da izanen, iduriz bederen.

Gatozen berriz ere geure « agertze » hitzerat. Zerrenda abertzaleek ez baldin bazekiten beti zer izenburu har, bada ere jadanik hautetsi parrasta bat beren buruak guti edo aski abertzaletzat dauzkatenak, baina, hain zuzen ere, ez dutenak « agertu » nahi zenbait boz gal beldurrez... Guretzat aldiz, baitezpadakoa zaigu izen egokiarekin plazaratzea. Zaldiak ez du errate beharrik zaldia dela, ez daiteke izan bertzerik-eta! Euskalduna ez da berdin: zorigaitzez noiz-nahi uka dezake euskalduntasuna edo sakelan ezar.

Horretarako zaigu beharrezkoa izena eta izana batera eramatea. Izenak atxikiko gaitu leial izanari. Hots, abertzale izena da gure bidaria. Hautetsien lehenbiziko eta betiko lana ez ote da hautuak egitea? Hautagaien lehen hautua ez ote da beren izenburua hautatzea? Gero, jendeakin, ez du balio prediku handitan lotzea etxez-etxe gabiltzalarik, deus guti alda dezakegu zenbait egunez: jendeak zer nolakoak gauzkan eta halakoa izanen da emaitza. Jendeak gutaz duen iritzia ez baita beti gure gustukoa, aspaldiko errepresioari ihardesteak bere lertzoak utzi ditu gure gainean. Xuxentzeak egitea beharrezkoa da haatik eta argi zenbait ekartzea ere. Oroz gainetik euskaldungoaren eta lanetik bizi den jendearen alde eta zerbitzari izan gaitezen.

Goazela beraz orokorki; aipa beti gure mugimendu orokortzen eta emendatzen ari dena karraskan. Gutarik bakoitzaren indarretan baino fida gaitezen elkarrekin egiten dugun oldean. Gero, herri bakoitzaren baitan egoera bereziak aurki ditzakegu. Batzuetan bertze lista batekin alde handiak dituzkegu: adibidez Urruñan. Bertze batzuetan hurbildanik dabilzkiguke, hala nola Hazparnen. Egoera bakoitzari jarri behar gatzazkio eta araberan jokatu. Horra gure uste xumeak, gogoeta bezala azaltzen ditugunak, bertzerenik gutietsi gabe.

Alderdi egunak

1989-03-30

Joan zaizkigu beraz aurtengo « Alderdi Egunak ». Pazkoz, Aberri Eguna ospatu behar genuke baina aurten ez dezakegu holako izenik eman, nehon, nehoi; zeren, denetan, alderdi egun soilak izatu baitira. Hegoaldean usatuak gara baina han - hainbatetan errana - bada jendea orotako. Adibidez, Iruñean bildu garenek ez genuen, kopuru aldetik, gehiagoren beharrik biltzar guziz miresgarria bilakatzeko. Herri Batasunaren deia ihardetsi diogu, garai honetan sekulako partida jokatzen baita Aljer hirian eta baitezpadako baitzizaigun Euskal Mugimenduaren zutabe hoberenari gure laguntza ekartzea kinka honetan, ondoriek izanen baitukete eragin handia Iparraldean ere.

Bera baino ttikiagoko baten beharra ba omen dela beti, diosku La Fontaine-k. Iparraldean, Aberri Egun batuak ospatu ahal ukan ditugu. Geure ttikitasunean batasunzale bederen azaltzen bagina ez litzateke gure urratsa debaldetako, Hegoaldekoen bereizkuntzak eskarniatzeko partez... Ez ote dugu urte guzia hor bakoitzak geure arteko ñabarduren agertzeko eta jakinarazteko Aberri Egunari bere funtsa hondatzeko orde? Eta oharpen hau bali da Hegoaldeko ere, kopuruak, egia erran, ez baitu deusik aldatzen afera honetan.

Gehienik damugarri izan dena da, herrietako hauteskundeak, gutiz gehienak, batasunean iragan bezain laster, Aberri Egunerako alde guzietarat hegaldakatzeko, etxexoriak, iziturik, airatzen diren bezala! Holako haurkeriekin segitzen badugu ez da harritzeko izanen geure herriak ez badigu lasterrago konfiantzarik egiten!

Alabaina! Herrietako hauteskundeak erakutsi dute orori kontutan hartu beharreko indarra bihurtu garelako abertzaleak oraindik. Gure indarra goiti doala eta goiti joateko bideetan sartua dela. Maila horretaraino helduak garelarik, geure garapenaren gakoa guhauren baitan dagoke, etsaiek ezar diezazkiguketen oztopoak igurikatzeko partez elkargatzeko... Iritzi eztabaidagarria, baina guk horrela ikusten dugu.

Halarik ere ez genuke Iparraldeko alderdien arteko giroa ilundu nahi sobera. Indar berri bat azkartuz doakiguke: hautetsi abertzaleen elkarteak. Itxaropenekin begiratzen diogu eta hiru mugimenduak berriz biltzeko, ararteko egokia izan daitekeela uste dugu. Herrietako bozen ondotik denbora gehiago gelditu balitz beharbada aurtengo Aberri Eguna ere salbatuko zuten iazkoa bezala?

Dena den, Euskal Mugimendua zohitzen ari da beti eta beti, zenbait petto kozkor gorabehera. Hauteskundeak ez dauzkagu gehiago herriaren enganabide, baina ematen diegu merezi duketen lekua, bertze borrokei segida zuzena emanaz. Ez da gogo aitzinamendu txarra! Datorren Aberri Eguna, batua izanen delako esperantza uzten digu...

Komunikazio eta heldutasun

1989-04-20

Hatsaren hartzeko denborarik ez dukegu azken hilabete hauetan. Lehenik herrietako hauteskundeak eta geroztik ekintza ekintzaren gainean! Joan den igandean, hautetsi abertzaleak Angelun, Haurren Eguna Kanbon, Lurra GFA erakundea Makean, Donostia eta Donibane Lohizune elkarri hurbiltzen ari, eta Korrika ere hor, lasterka, ez baitu egunik ez gauik ezagutzen are gutiago estatal mugarik! Aste honetan ere, eiki bada, ez da oldarra eztituko: ekonomia eta enpleguen aldeko aste handia dugu alabaina; igandean, Dantzari Tiki Senperen, bertsulariak Baigorriin, ezagutuenak baizik ez aipatzeko; hor hurbilduak ditugularik ere, Nafarroaren Eguna eta Herri Urrats.

Anitz da hori guzia. Abertzaleek, baratu gabe daramatzagun sailek, gero eta gehiago jende hunkitzen dute, gero eta gehiago onartuak eta sustengatuak dira herri gizonen ala herri iritziagandik. Hainbertze sufriarazi digun « Sud Ouest » kazetak ere, ematen dizkiogun guziak, edo gehienak, zabaltzen dizkigu gaur. Komunikazio mailan ez dugu oraino, behar genukeen guzia egiten. sail garrantzitsua bilakatua baita hori egungo egunean. Baitezpada arduratu behar dugu ideien zabaltzeaz.

Komunikazioak izan behar luke beraz gure kezka nagusietarik bat. Ekintza hoberenak, ongi hedatua eta jakinarazia ez bada, galtzen du erdia. Hau da gaurko merkatuzale adituek dioskutena. Errankizun zaharrak gaitzesten zituen « *etxeko leihotik oihuka* » lotzen zirenak. Baina gaur, guhauri dagoke, guharen lanak aipatzea behar den bezala. Paris aldekoak uzten baditugu bakarrik gutaz mintzatzerat, gure arteko kalapitak aipatuko dituzte eta haiek gure artean atxikitze hobeak dira.

Zein gogoetagarria, Britainia Handiko gertakari ezin sinestia! Ehun bat hil, hantxe, kiroltzaletasun edo, hobeki erran, kirol errabiagatik. Zein bitxi, zein ezin onetsia eta bizkitartean ez da lehen aldia sarraski izigarriak deitoratzen direla, hau bezain funsgabeak, munduan zehar. Hooliganismoaren desmasiak ezagutzen ditugu. Kirol zuzendari batzuen diru gosea ere bai: jendea nolanahika baitarabilte. Harrigarria zaiguna da ingelesak, odol hotzekoak dauzkagularik alta, hola erotzea. Ez beharbada kasu honetan, baina bertze batzuetan, alkoholaren eragina sendi da: lana hurritzearen ondorioz horrelako jaidurak hedatzen baitira biziaren zentzua bera azkarki hunkia delarik.

Ez gara geure buruaz espantuka hasiko, baina gauza batzuk heldu zaizkigu gogorat. Adibidez, Herri Urrats: milaka eta milaka Hegoaldetik datozkigu, mugan oztopo mota guziak jasanik batzuetan, eta jende hori guzia iragaiten zaigu, nehon nehoi neholako hondamenik egin gabe! « Gazte burubero » batzuentzat, ez da hain gaizki! Senpereko jendea harriturik dago, noiz zer gertatuko den eta sekulan ez fitsik gertatzen!

Joan den Pazkotan, Herri Batasunakoen artean ere heldutasun handia hauteman genuen. Zintzo, begitartea arrai, asko beren familiekin. Ez datoz, hantxe berehala zerbait lortuko dutelakoan-edo. Ageri da badakitela arras ongi, bidea nekea eta luzea izanen dela. Baina bide bat hartua dute eta hari darraizkio « Alai eta Kementsu ». Eta guk, Iparraldekoak, zer heldutasun erakusten dugu geure urrats politikoetan?

Izigarrikeria

1989-05-11

Zein nekeak eta luzeak bakerako bideak! Dakigunez, eta itxura guzien arabera hala dateke, Jean-Marie Tjibaou eta Yeiwene Yeiwene, beren arteko batzuek hil dituzte. Zer izigarrikeria! Ez dute onartzen - hiltzaileek - Matignon-eko akordioa, Tjibaou eta Lafleur-ek, Michel Rocard-en aurrean finkatu hitzarmen hura; « *Esklaboak bere jabeari* » eskua hunki diola diote goraki!

Joan den Aberri Egunean, xantza ukan nuen hemen gaindi zebilen kanakiar batekin Iruñeko itzulia egiteko. Kanakiar hori FLNKSkoa zen. Harekin egin solasetarik hauxe, larri-larria, atxiki dut: lan handiak dituztela kanakiarrek, nazio bat eraikitzeke, uharte guzien artean. Uharte nagusian berean badaude leinu parrasta bat, zein bere dialektoeekin. Hain zuzen, hizkuntzaren auzia guziz korapilotsua gertatzen zaie. Sentitzen dute hizkuntza nazional baten beharra. Iduriz, protestantek beren fedegintzarako erabili duten hizkera hartzerat doaz, hizkuntza nazionalizat. Ez baitaude, ordea, denak bat bide horrekin ere!

Bertzalde, hizkuntzaren auzia ez da arazo bakarra; are zailagoa dakieke kanakiar gizartearen garapena bideratzea. Haien ohiko bizimoldeak, nekez, biziki nekez akomoda baitaitezke orotan nagusitzen ari zaigun gaurko eredu liberalarekin (nolabait deitzeko). Sekulako duda mudetan daude asko. Zein errexki ulertzen ditugun, guk euskaldunek, arazo eta egoera horiek guziak! Iparraldean, haatik ez gaude kinka berean; Kaledonian hainbat ederki jokatu bada frantses gobernu sozialista, guri ez digute neholako biderik eskaini! Munduaren aurrean deskolonizatzaile agertu nahi dute baina, horretarako, hexagonian zapaldurik dauzkan herrialdeei, ez dute neholako nortasunik ezagutzearen beharrik ikusten, beren burua edertzeko ere... « *Kanpoan uso, etxean otso* » jarraitzen dute, beti beretik.

Dena den, beti « batasuna » hegiaraka ari baikara hemendik, nork ez du asmatu kanakiarrei gertatzen zaiena gerta dakigukeela, guri ere, haien mailaraino hel gaitezenean. Polonian ere, Walesa arazo bertsuekin dabil; gazte batzuk itsuski jazarri zaizkio baizik-eta herria trahitu duela sindikatu ofizialarekin eta gobernuarekin akordioak izenpetuz... Zein luzeak bakerako bideak! Bakea ez da sekulan osoa, are gutiago betikoa. Bakea, eguneroko borrokaren bidez bilatu behar da. Baina luzaz menperaturik egona den populuak urteak eta urteak behar ditu ildo hobe batetarik berriz abiatu aitzin. Kasu egin dezagun beraz eta ez utz geure arteko eztabaidak usteltzerat. Haurrideen arteko herra baino galgarriagorik ez baitaiteke izan guretzat.

Elebitasuna. Guziz probetxuzkoa izan dela daukagu, joanden maiatzaren lehenean, Baionako Merkataritza Ganberan, egin izan den biltzarra. Txalogarria, zinez, hartua izan den erabakia: maiatz hau guzia, bazterrak harrotzeko balia dadila, bereziki botere publiko soraio horiei, behin eta berriz oroitarazteko gure beharrak, mobilizazio horren gailurra dukegularik hilabete honetako 27a. AEK, Pizkundea eta Seaska uztarturik, ezin hobeki bultzatu da oldea, gure arrangurez parte emana zelarik, gure usaiako euskal mundu hartarik haratxago ere. Hori da hori, gure kezka buru hauslea: zabaltzea euskal mundua! Zein liteke, horretarako, gure leloa? Ez ote elebitasunaren eskubidea, zuzena, beharra eta ona? Ez dukegu lema hoberik. Artetik errateko ez dezagun nahas Ikas-Bi eta elebitasuna; adibidez, Seaska elebitasuna baita Ikas-Bi baino. Ikas-Bi-ren entseguak arras ontzat dauzkagularik bertzalde, hoberik eskuratu artean...

Hegoaldean diote: « Euskaraz eta Kito! » Baina Iparraldean, helduak ote gara horretaraino? Elebitasuna orotan proposatzen dugu epe batentzat. Euskara hutsezko deusik ez dugu hemen gutiesten; Jainkoak begira gaitzala! Behar beharrezkoak baitira denak eta gehiago ere. Baina euskarak eskatzen duke ere, ordea, tresna eroale bat, denetarat hedatzeko eta sail guzietan sartzeko kapilaritatez bezala. Lan ikaragarria eskatzen duela bide horrek, ez da dudarik. Baina guk egin beharra, guretzat geldituko da gisa guziz.

Ondorioen zain

1989-06-01

Elkarretaratze ederra larunbatean, Baionan, euskal kultura eskubideen alde. Hiru milako bat biltzea ez da gaizki; gehixago, igurika zitekeela baldin badiote ere zenbaitek. Ohargarriena hautetsien multzoa; onartu dute elkarrekin paratzea eta aurrean ibiltzea. Horrela, erakutsi dute, askori, beren nahikundea publikoki. Gero, botere ordezkari zenbaitekin izan diren bilkuretan, Jean Louis Maitia-ri jarraiki zaizkio, laguntza handia ekartzen ziotela holaxe. Denek azpimarratzen eta goستن dute hautetsien jokamolde hori, zuzen den bezala.

Zerk ekarri ditu bada, horretaraino? Dudarik gabe IKren baretzeak baduela ikustekorik hor, zeren gaur IK, gaiztagintzatik baino martiriatik hurbilago baitabilke... Bada ere, gure ustez, hautetsien jarrera horretan bertze bi arazoi bederen: azkeneko hauteskundeetan abertzaleen agerraldi ondoriotsua batetik eta bertzetik Hazparneko kontseiluak ireki duen bidea. Goresmenak merezi dituzte hauek, egiazki. Hazparneko herri gizonak estimutan geneuzkan aspaldian eta badirudi abertzale zerrendak ez duela kalterik ekarri, alderantziz baizik! Horra hor gizon batzuk, zintzoki eta fermuki jokutzen direnak, abertzaleek izan duten arrakastak gaitzitu ez dituenak, baina bai akuilatu izatekotz! Horiek guziek ondorio on zerbait ekarri behar liokete gure kulturari, bereziki euskararen irakaskuntzari. Laster ageriko.

Larunbateko elkarretaratzerat itzultzeko berriz, gogorat datorkigu bertze manifestazio bat, Baionan iragan zena, Bokaleko « Aturriko Aroztegiak » hestearen kontra. 1963ko Salbatorez zen. Bildu ziren hor 5.000 langilez goiti, ongi oroit baldin banaiz, eta gu ere han gertatu, haien erdian, soldadutzatik eskapaturik... Kiosko nagusiaren inguruan (gaur Parking Ch. De Gaulle) mintzaldi batzuk entzun genituen, Gouyon Jaun Apezpikuarena barne: baitzuen merezimendu, hainbertze komunisten erdian! Baina oroit naizena, atzo balitz bezala, gure diputatu eta senatari euskaldunen mintzaldiak! Labéguerie-k, oihukatu zuen Bilbo-Lacq-Bokale ardatzaren inguruan behar zela finkatu gure ekonomiaren garapena. Mintzaldiaren erditsua eskuaraz. Errecart-ek ere beretik, hitzaldi luze eta sakon bat, hirutarik biga euskaraz! Eta arrakasta gaitza ukan zuten biek!

Zer harridura, hainbertze (erdiak baino aise gehiago) erdaldunen erdian! Zer kopeta, zer nortasuna! Hori ez baita boz biltzeko jokorik hoberena, alabaina... hautetsi batentzat! Hitzaldi luze horietarik landa barrandatu nituen xoko batetarik eta hantxe ikusi nituen Baiona udaletxeko ostatuan, kanpoan, denak anaitasunik baikorrenean, edaten ari Enbata-koak eta hautetsi zentristak (gaulistak ez baitziren han, bistan dena): iduri zuten parabisuan! Gaurko abertzaleen eta herri gizonen hurbiltzeak oroitarazi dit gertakari hori, gogoetatze bat jauzarazten zidala: mende laurdena pasatu dugula, hurbilketa hori berriz ikusi aitzin...

Ondotik datozen galderak eratxikitzen ditugularik: gazteak berriz bortitzetik abiatzen badira, herri gizonak etxerat sartuko ote dira? Ala gogoak eta borondateak aski finkaturik daude gaur egun, bakoitzak bere bideetan segitzeko euli batek bere gontzetarik joanarazi gabe? Agian laster ageriko da, mende laurden luzeegi hori ez dela alferretakoa izan osoki. Egoera larritu baldin bada geroztik, euskal oinarriak ere sendoagoak baitituzkegu gaur, orduan baino.

« Ametsa lagun nezak... »

1989-06-22

Zer erran eurohauteskunde hauen ondotik? Has gaitezen bada, Hegoaldetik. Han, lau alderdi abertzaleek eurodiputatu aulki bedera lortu digute. Estatu mailan jokatu behar izanik ere, Herri Batasuna bereber ibili da; bertzeak aldiz, bertze alderdi batzuei uztarturik. Gure bereizkuntzek, behingoan, katalanek baino aulki gehiago erdietsarazi digute! Baina orain, abertzaleak ongi atera badira, zer erran espainiar PSOEz, gure « etsai » handienaz, % 40etarat abantxu heldu baita? Ori, frantses sozialistak gutixagorekin egon beharko dute... Beldur izateko da borroka gogorrak biziko dituela oraino Euskal Mugimenduak eta herstura ederrik jasan beharko. Alta, ez da ageri euskal alderdien arteko hurbilketarik ere. Bakoitza bere hartan dago, kantitu gabe. Noiz arte?

Egia da lan anitz egiten dela gaur Euskal Herri guzian baina gelditzen da non zer egin: 11 diputatu ditugu orotarot eta horietan ez omen dugu bat baizik euskara ongi dakienik... Zer mila sorgin, abertzale zerrendaburuak bederen ez ote zizkiguten euskaradunak ezartzen ahal? Ahalkez gaude egiazki. Euskara debekatzen baligute bederen osoki, beharbada atzar gintezke piska bat, ihiztariak bezala... Daukagu, Iparraldean ere - gure ahulean - hobeki gabiltzala abertzaleak ateratzen garenean...

Eurohauteskunde hauetan haatik ez genezakeen naski bertzerik egin Iparraldekoek: bertzeekin joan. Eta Max Simeoniren alki eskuratzea txalotzen dugu. Taktika ona zen; Berdeen gorapenaz baliatu da ederki. Damurik, Iparraldeko bat ez baita hautetsia izateko herronkan sartu ahal izan. Ramuntxo Camblong-ek eurodiputatu on bat egin ziezagukeen. Agian orain Europako erakunde garrantzitsu horietan, herrialde menperatuen ordezkari horiek guziak, bermatuko dira gure alde, oiher ozen batzuk adieraziz noiztenka eta ahal bezain usu, hobe...

Frantziako emaitzei begiratzean, zer dakusagu? Sozialistak eta komunistak aski behera gelditu direla, Giscard kukurruka eta eskuin muturra ere beti hor ehunetarik hamarrez goiti eskuraturik... Gure eskualde honetan deus berezirik. Abertzale gehienek Berdeen listari boza eman diogu. Berdeen baitan ez dugu konfiantza berezirik. Ez hain aspaldiko sozialistekilakoez oroitzuz, badakigu frantses alderdi batean zenbat kontatzen ahal den, den hoberenetik ere. Berdeak urrun baitira boteretik, izorratua izateko irriskua ttikiago dugu, horrenbertzez...

Hemengo berri harrigarriena? Ihiztariak lortu emaitzak. Ezin sinetsia. Zerri hazleak ere presentatu baitziren, haiek bederen bizipidea edo lanbidea zaindu nahi zuten. Baina ihiztariak, haiek baino aise arrakasta gehiago ukan dute, ihizia ez delarik lanbide, lanarte soil baizik, gaur. Lanarteak lanbideak baino beharragoak ote ditugu? Zerbait badateke. Geroa arrunt itsua dugularik, eta gizarteak sudurretik eramaki - lehertzen ez gaituenean - ez ote dugu, amets goxo batzuen bizirik atxiki beharra sendi, nornahi izan gaitezen?

Hazparneko biltzarrerat

1989-08-03

Abuztuaren 4a hautatu du Herria kazetak bere irakurleak biltzeko, bertan idazten dutenekin. Denbora berean elkarretaratzen ditu ere - oturuntzaño baten inguruan - kazetan beren publizitatea egiten dutenak; hori guzia Hazparnen, Berria trinketean. Lehen aldia da gisa horretako biltzar bat egiten duela Herriak eta gustatzen zaigu biziki. Nahiz euskal astekarietan Iparraldeko irakurtuena izan, diru arazo seriosekin gertatu zen Herria duela zenbait urte. Baina jakin ukan zuen egoerak eskatzen zituen erabakiak hartzen eta bereziki beharren arabera gizonak atzematen.

Lehenik Beñat Mendisco-k kontuak xuxen eta argi ezarri zituen; ondotik Lahargou jaunak publizitate eta abonamenduak metatu zituen dakigun arrakastarekin. Eta horrela Herriak hartu ahal ukan du hats berri bat. Publizitate horiek jan diote - nahitaez - idazki eremu horretarik pixka bat; baina orain ateratzen du, hilabeteen behin, orrialde oso bat gai berezi bat aipatuz: osoki interesgarria eta dokumentu bihurtzen duena delako zenbakia.

Ez ditugu aipatuko Herria-rekin Enbatako batzuek izan zituzten gorabeherak. Ez gara hasiko - are gutiago - Herria-ren edukia jorratzen : errexegi baita bertzeren hutsak edo eskasak aurkitzea. Ikusiko dugu bakarrik hor, zenbaitek astero astero egiten duten lana euskararen amodioz. Hain xuxen euskararik ederrenean ari dela Herria baitiote denek, hori bera nahikoa zaigu astekari horri gure agurra eta zorionak helarazteko karia honetarat. Bakoitzak ez ote du bere gustura idazteko dretxoa alde batetik eta bere gogoko gauzen irakurtzekoa bertzetik?

Herriak erakutsi du beraz bazekiela bide berrien hartzen behar den ausartzia neurtuarekin. Jakinen bide du ere - edukiari dagokionez - oraingotzeen egiten, bere urratsaren jabe dagoelarik osoki. Funtsean, nork ez du hobetzearen beharrik? Bagenuke, ori, geure ate aitzinean berean nahiko lana... Iparraldean ez dugu gaur astekari eskasik. Bakoitzak bere saila eraman dezala beraz, bere ikuspegitik, irakurlea argituz gero eta osokiago.

Bertzalde, abuztuaren 4a, egun egokia dateke, euskaldunek zerbait adierazteko. Denok dakigu, alabaina - aurten hain xuxen berrehun urte - gau horretan zutela « *Abolition des privilèges* » delako lege famatua erabaki. Ordea, oraino gelditzen zitzaizkigun biltzarren botereak ere suntsitu baitzizkiguten, bide berez! Eredutik bakar bat baizik ez zen behar eta hura Paristik baizik ez zetorkeen. Iraultza ez zen bakarrik frantsesentzat, bai zera! mundu guziaren argigarri nahi zuten izan, eta, egia erran, iraultza gehienek geroztik, ildo beretik, unibertsalak nahiko dute izan; baina unibertsala izateko amets harroputz hori gibelka doake munduan zehar eta urrats handiz azkeneko denbora hauetan. Hainbat hobe!

Iraultzari bai, eredu bakarrari ez! Herrialde bakoitzari baitagokio bere bidearen asmatzea eta burutzea, aldatzea edo segitzea. Dena den, doala Herria-ren keinuñoa abuztuaren 4 honetan. Parisko jauntxo handiak, estatu hitsean, ezarri gaituzue, baina oraino hor gara. Zuen handioskeriak sartzen ari zaizkizue haatik: zeren-eta, zuek ere, zuen mintzaira eta kulturak irriskutan baitituzke zue gaur...!

Ekialdetik eki ?

1989-08-24

Uda sapa eta idor hau ez bide da gogoeta sakon batzuen eragilerik hoberena. Sakon ez bada, goazen zabal, begiak luzatuz munduan barna, aurtengo urte oroigarri honek erakusten dizkigun aurpegi zenbait ikus. Duda izpirik gabe ekialdetik datozkigu berri ohargarrienak edo hobeki erran komunismoan bizi diren eremuetarik : Txinatik, Errusiatik eta honen peko diren estatuetarik. Txinako jazaraldi handia nehork ez zuen igurikatzen. Iraultzak, gehienki, ez dira populua gaizkienean delarik gertatzen. Iraultza ez da bakarrik jazartzea, jazartze horri legezko segida bat eman nahia ere berekin dauka. Eta horretarako gizon argituen beharra du ideia berrien arauditan finkatzeko.

Txinan gertatu denak - gazteen elkarretaratzeaz mintzo gara - ondorioak izanen ditu. Txinatar herriak sekulan ez baitu ahantziko. Hango buruzagiek bazterrak isilarazi badituzte ere aldi honetan, guziengatik, noizbait dena berriz pitz daiteke...

Zer erran Gorbatxev-ez eta Errusian daraman eraberritze harrigarriaz? Hitzik ez da holako aldaketaren izendatzeko. Bistan da urteak eta urteak beharko direla gauzak funski hobetu aitzin. Baina haxe inarrosaldia! Nork asma zezakeen holakorik ez hain aspaldiko Brejnev, Txarnenko eta Andropov-en garaietan? Zorigaitzez badakigu, Gorbatxev-en xedeek oztoporik aurki dezaketela bera boteretik baztertua izaterainokoak barne. Baina ez da deus egitekorik, Mendebaldeko aitzinamendu ekonomikoek (japonesak eta bertze zenbait barne) zapartarazi dituzte komunismoaren bide eta mugaketa betikotzat eginak izan nahiko zuketenak.

Badakigu zenbat gostaia zaion (eta gostatzen!) mendebaldeko langileari holako « aitzinamendua »: langabezia eta bertze. Aitzinamendu hori ez baitugu begiak hetsirik ontzat ematen, urrun da; lorpen tekniko batzuek burtzoroa ematen digute eta horiek denak daude beldurgarriak, hauskorak direlaket azkenean (ikus Burtsako gorabeherak) eta gizonarentzat ez baitute neholako proiekturik, materialismo hutsaz bertzerik. Baina daukagu, arazo ekonomikoek dutela gehienbat komunisten blokea higiarazi eta berritzapen bideetan sarrarazi.

Aldaketa horien guzien erdian, Poloniak digu naski gaur, itxurarik miresgarriena eskaintzen. O, ez ekonomia mailan - aspaldia izan den kinkarik txarrean baitagoke - baina lortu dituen eskubide politiko eta sindikalengatik. Hastapena: Solidarnosc-en ateratzea, duela hamar bat urte, debekatu bazuten ere gero, berriz jalgitzerat utzi behar ukan zuten arte... Polonian bada haatik bertze indar bat, Walesa eta bertze gizon goresgarriak mendratu gabe, eta Walesa bera ere hortik datorrelarik xuxen xuxena, hau da: eliza katolikoa. Elizaren eragina nork ukatuko du hemen? Ateismoak ez du fedea suntsitu ahal ukan. Jasan nahigabeek erlijioa indartu dukete... Hemen, alderantziz, dirua eta materialismoa jainko egiten ari garen honetan, goraxago genioena...

Balitzateke zer erran oraino bertze hainbertze herrialdez. Baina guk, erranen du irakurle euskaldunak, zer probetxu dukegu urrungo aldaketa horietarik? Geure egoera konpara ote dezakegu ekialdeko populu horietarik zenbaitekin? Herrialde bakoitzak bere egoera berezia dauka, dudarik gabe. Baina ez ote dugu zerbait ikasteko eta hartzeko populuaren zuzenak ere, bertzeak bertze, irakitan daudelarik, han hemen bezala? Eta Iparralde honentzat ere, arrunt ezkor egonik luzaz eta luzaz, halako « hodei arteka » ttiki batzuk ikus ditzakegu aurtan. Nork daki iguzki izpi bat ere ez ote den hortik pasako egun batez... atxikitzen badiogu geureari!

Hobearen nahikundez

1989-09-14

Berriz ere ez gaudeke ekialdeko gertakariari so bat eman gabe. Joan den asteleheneko gauean, milaka Alemania Ekialdekoak etorri dira Alemania Mendebalderat Hungarian gaindi iraganik. Hungariak, Autrixiatik bereizteko - eta denbora berean Mendebalde guzitik - eraikia zuen mugahesia desegin du eta handik utzi dituzte iragaiterat delako aleman iheslariak. Itxuren arabera segurik, Moskuk begiak hetsi ditu holako gertakariaren aurrean; erran nahi bailuke horrek, onartzen duela...

Badaiteke ere Gorbatxev-ek, hola jakinarazi diola haren berritzapen bideetan sartu behar duela Alemania Ekialdeak ere. Alabaina, Alemania Ekialdea, bloke komunisteko herrialderik aitzinatuen bide da ekonomia mailan, baina jendeari uzten zaion askatasun mailan arrunt idorki dabil, uste baitu, beharbada, ontsazia ekonomiko doi batek ordaindu egin dezakeela gizonak duen askatasun egarria!

Dena den, batean dela ezinbizia, bertzean libertate eskasa, zerbait arrailtzen ari da ekialde horretan. Nork daki zer ikusiko den ondoko egunetan? Itxaropenez betetzen gaitu ikusteak, bi blokeak, Ekialdea eta Mendebaldea, elkarri hurbitzen ari. Halako hersturetan atxiki gaituzte zenbait aldiz, Kuba-ko blokus hartan eta abar, non poztu behar baitugu urrats handi hauek ikustearekin. Buruzagi handi horiek beren gibel-asmoak beti hor dauzkate. Baina, bata bertzera (eta gu haiekin) lehertzeko mehatxuatarik urruntzea, zer atsegina!

Erran nahi duguna da, orain arte ere ikusi dela askatze zoragarriak: Portugalen (Kapitainen Iraultza), Espainian (Francoren joatea), Argentinan eta abar, eta aitortu behar askatasun biharamunak ere hor direla eta mendebalde hau ez dela parabisua, astean ortzirale bat badela hemen ere (biga ere, erran liezaguke euskaldun batek). Baina ametsaren lana ezin itzalia da gizonaren baitan eta hainbat gaizto amets hori kendu nahi lukeen sistema politikoarentzat!

Mendebaldean ez dugu, haatik, amets eskaintzaile eskasik; soberakina izatekotz! Bere lilura guziekin denak andeatzen baitituzte droga eta bertzerekin. Eta badira, gutartean, Ekialdeko sistema politikoa nahiago luketenak, teorikoki bederen. Beraz, hangoe hemengoa nahi, hemengo batzuek hangoa. Gizona ez dagoke eskuan duenarekin, beharrik! Hobearen nahikunde horrek baitu mundua aitzinarazten...

Kasik ber-bera, gelditzen zaigu, ordea, ilunpe osoan, Errumania dohakabea. Han gaindi ibiliak ginen, hain xuxen duela 22 urte. Orduan, bloke komunistean bakarra zen Moskuri ihardukitzen zuena eta jokabide horrek gustaturik, hautatu genuen herrialde hori ikustea 15 egunez. Ez genuen sekulan erranen gaur azkena izanen zenik (Albaniarekin?) giro hobe bat dastatzerakoan. Orduan hainbait gustatu zitzaizkigun aurpegiak zertan daude ote gaur egun ?

Iharduki nolabait

1989-10-05

Lerro hauek idazterakoan, Ardanza lehendakariaren itzulia dugu gertakari nagusi. Bordelen eta Baionan gaindi abiatu aitzin, Sud Ouest egunkariari bere gogo eta asmoak zabaldu dizkio. Denak ohartuak dira, goitirik, gure batasunzaletasunari, pertsonen merezimenduak zein gogotik aitortzen ditugun, jokabide ahulak (guk hala deritzogunak) azken beltzean baizik ez ditugularik jorratzen. Jokabide guziek baitukete beti zerbait onik, gai gara, ustez segurik, puntu onen ikusteko, orokorki bertze bide bat hobetsirik ere.

Dударик ez da, Iparralde honetako bai eta Akitaniako buruzagiekin harremanak abiatzeko ez dela Ardanza baino gisagokorik: bortizkeria guziei aihar, denekin lokarriak sortu nahi, modernizatzearaz axolatua eta abar. Bertzalde ez dugu ahanzten, ez hain aspaldi, Duboscq-ek ez ziola bortzekoa ere eman nahi ukan, pilota partida batean, biak betan gertatu ziren batez; harentzat aise sobera euskalduna baitateke!

Ardanzak, ETAz eta HBz erran dituenak ez ditugu aipatuko: politika hutsezko solasak dira eta errex litzaiguke horiei ihardestea. Ez, hartuko dugu bakarrik pasaia labur bat zeinetan erraten baitigu Jaurilaritzak Madrilgo gobernuarekin eztabaidak dituelarik espainol auzitegietan xuritzen direla aferak baina auzitegi horietako epaileak espainol nazionalistak direla... Bertzalde garbiki dio, Tejeroren jazarraldiak, 1981ean, autonomien garapena hautsi egin zuela. Bururatzeko kapitulu garrantzitsu honekin, Ardanzak dio Madrilgo Administrazioari adierazi behar dela, euskaldunekin ez dela jostatu behar eta Estatutua errespetatu behar dutela.

Politikan borroka psikologikoak nekeak dira ulertzeko eta aztertzeko; uste gabeko ondorioak noiznahi hor ditugu lekuko. Bainan zer derasa Lehendakariak: berak dioskunez, egunero arazoak ditu Madrilgo boterearekin eta botere horren jabe den alderdiarekin - PSOErekin beraz - gobernatzen du Gasteizen? Gehiago dena, bertze euskal alderdiekin koalizio bat lortzeko ez du deus egiten, egiten ahal eta behar lukeelarik alta! Horra hor jokabide harrigarria!

Noiz eta nola ateragogo duen ateka gaizto horretarik... ez digu deus salatzen. Iparraldeko zenbaiti kausitzeko balitz bederen holako isilunea, barkatzeko prest geundeke. Zorigaitzez, EAJren usaiako jokabidea da hori, giderrak berak edo PSOErekin hartu dituenetik. Horrela jartzea, defentsa legítimoari uko egitea da eta horrenbertzerik nehork nehorri ez diezaioke eska. Bortizki ez duela jokatu nahi? Arras ongi: sar daitezela beraz ihardukitze pasiboan! Bada leku...

Urraska eta pausuka joan behar dela, guk ere hala uste dugu. Baina geure funtsezko solasetan, argiago eta fermuago izan behar genuke. Mendeak ditu Euskal Herria lehertu, urtu edo bereganatu nahiz badabiltzala eta horien aurrean ez dago, nehola ere, lege unibertsalari uko egiterik, hau da, defentsa legítimoari.

Aldaketa giroa

1989-10-26

Ezin gehiago interesgarria badoakigu urte hau politika aldaketei dagokienez, Ekialde horretarik segurik; baina gure ustea da, urrungo « haizeak » guganatuko direla eta guganatzea nahi badugu, guri dagoela ideia horien sustatzea gure kasu bereziari egokiturik. Begira, bertzeak bertze, Hungariari: nork asma zezakeen estatu komunista bat bihur zitekeela, egunetik biharrerat, errepublika pluralista bat Mendebaldekoen idurikoa? Aldaketa ezin sinetsia! Funtsean, dakigularik, lehen aldia da sistema komunista batek uko egiten duela bereari bertze bati lotzeko!

Ikusiz komunisten sistema kordokan, badira jadanik diotenak laster aspertuko garela eztabaida ideologikorik gabe Mendebaldearen eta Ekialdearen artean. Lur honetan geldituko litzatekeen arazo handia: Ipar aberatsaren eta Hego erromesaren arteko harremanak. Baina ba ote da, gure alde aberatsarentzat, dialektika baten hazteko gairik aski? Iduritzen zaigu herrialde menperatuen kasuak bilakatu behar lukeela eztabaidagai orokor, munduan zehar.

Gure ustea da Euskal Herriak lagundu behar duela aldaketa giro hori; berak ere, beretzat zenbait ttanto bil litzakeelarik ondorioz. Bada hor sekulako gaia, gizonaren eta herriaren oinarritzko zuzenen inguruan. Frantzian ere debate bat sortu da, musulmanoek eraginik, laikotasunaz. Interesgarria biziki hau ere. Ikuspegiak desberdinak daude: Danièle Mitterrand-ek erran du, berrehun urte iraultza iragan ondoan ez bagara gai erlijione guzien onartzeko, horrek erran nahi lukeela gibelamendu bat izan dela nonbait. Arras aitzitik, Yvette Roudy bertze sozialista batek dio, « txador » hori emazte menperatuaren ezaugarri arbuigarriena dela!

Eskola libroen auzi-kari ere entzun zen holatsukorik. Erlijioneak ez duela deus egitekorik eskolan, gauza zaharkitu bat dela, bakoitzak berak edo toki batzuetan bakarrik pratikatzeak dela eta holako. Hauxe ikusteko molde faltsua: denek dakitelarik ongisko eta gure fedearen etsaiek ere, erlijione gehienetakoek, eginbide hertsia dugula geure fedea hedatzeko, ez « gaitzurupean » uzteko, baina munduari parte emateko!

Bertzalde mundu ekonomikoaren eraginaz, Mendebaldea beti aitzindari, erlijione ez hain berri batean sartuak gara, nahi ala ez: zeingehiagoka deitzen da. Artetik errateko, harrigarritzko gauzak ikusten ditugu gaur egun, adibidez: eskoletan haurrek ikasi behar dute elkar jasaten, elkarrekin bizitzen eta abar, pertsona nagusien bizia, geroxago, arras bertzea izanen delarik: lehiaketa aldebatekoa, gerla ekonomikoa eta soziala!

Zer faltsukeriak inguruko « demokrazietan » ere, hala nola « berdintasuna » aurten hain ardura errepikatzen dutena, zer erran nahi du horrek biziko zatirik nagusienak zeingehiagoka barkamenik gabekoaren peko direlarik? Ingurukoekin zein gorago, zein lasterrago, zein merkeago ibili beharko baitute, hil edo biziko lehia lege bakar...

Bertzalde « Zazpiak Bat » egitearen bilatzea inperialismoa litzatekeela erran du Ardanzak. Horrek erran nahi ote luke Euskal Herria hiru zatitan bereizi ondoan, hala hala uztea demokrazia garbia dela? Ez, ez dugu segur aspertzetik, hemen gure herrian... Delako « zeingehiagokak » zertaratuko du euskal gizona? Euskal kultura non eta nola begiratuko da hor?

Berlin-etik Bidasoa-rat

1989-11-16

Denok so gaude Berlineko muga harresiaren errausteari. Duela doi doia zenbait aste oraino, ezinezkoa zatekeena, bat-batean, egingarri bihurtu da. Hain xuxen Alemania Ekialdea geneukan, oro baino, ezin higiarazia eta beharbada han da, azkenean, urratsik garrantzikoena ez bada sinbolikoena gertatu. Baita hor berean, bakoitzarentzat, bi gogoetaren gaia. Jacques Delors, izpiritutsua, ez dago halere kezkarik gabe, berari erraten ikusi dugunez: arras ongi eta loriagarri dela dio Ekialde horretan eta Berlinen gertatzen dena; baina « herrialdetasun » horien iratzartze hori kezkarria zaio eta mugak, estatal mugak, hola hola atxiki nahi lituzke, bertzela sekulako egoera dilinda eta finkatu gabeetan sar gintezkeelakoan, omen... Horra hor garbiki aitordua non duen hatz gure Delors-ek.

Eta guk euskaldunek, giro historiko hau utziko ote dugu iragaiterat higitu gabe, geure egunerokoetan ari garela, ttur ttur ttur? Ez ote dugu aurrean, beharbada egundaino ukan dugun girorik bikainena nazioarteko iritzari dagokionez bederen? Herrialdeek beren buruen gobernatzeko duten eskubidea, autodeterminazioa eta abar, ez da bertzerik aipu! Eta guk hortik ez dugula probetxu zerbait aterako? Segur ezagutzen ditugu geure arteko zatiketak, alderdikeriak eta bertze. Eta lehenik Iparralde honetan bil bagintez? Zertako ez litzateke gure eginkizuna Hegoaldeko anaia azkar baina kasko gogorren hurbiltzaile edo ararteko izatea, eginkizun hori ez lihoakiguke ongi?

Euskaria elkarteak baluke gaur bere xedeen azaltzeko parada ederra. Ez dakigu zenbat iraunen duen giro berri honek eta horrengatik ez genuke denborarik galdu behar. Hastean erran dugu « so » geundela eta hala da; nork zer kontrola dezake olde ikaragarri honetan? Salbu Errusiak beharbada. Handik etorri da « irekitzearen » baimena eta handik ere letorkiguke - agian ez, baina - « hestearena » ere. Badirudi, Gorbatxev-ek, orainokoa bederen, eskuan dituela giderrak eta abilezia harrigarri batekin gidatzen duela oldea, han hemenka, errepublika tiki batzuk nahi baino lasterrago joaki bazaizkio ere.

Zinez gizon horrek harritzen gaitu eta ohartarazten politikan ez direla bakarrik eraikidurak konta, baina gizonen eragina handia dagoela: adibidez, Hitler txarrerako edo Gorbatxev onerako daukagun bezala. Ezin uka haatik, bi gizon horien kasuan segurik, ingurumena, ohantzea. Alemania galtzailea humiliatu zutelarik 1918tik landa, guhaurk eman baikenizkion Hitler-i bere jazartze oiesaren sustraiak.

Halaber Ekialdeko jazartze eta mugimendu askok eta bereziki Walesa-renak, anitz lagundu dute Gorbatxev, gero, usna miresgarri batekin, onartu eta zabaltu duen berrikuntza sailean. Guk geure ingurumena eta herri iritziak aski berotuak ote ditugu autodeterminazioa burutzeko, Hegoaldean bederen? Uste izateko da azken hilabete hauetan bide handia egin duela xede horrek denetan bezala hemen ere. Burdina bero deno jo behar da; ea bada ideia on hori aitzinarazten dugun...

Baina, Berlinen mugak erortzen ziren une berean, hemen, nehoiz bezain zakarki zebiltzan gure muga zatitzaile nardagarri horretan. Iheslarien sustengu zetozkigun Hegoaldekoak, itsuski trabatuak eta erabiliak izan dira, berriz ere. Ezin jasana, Parisen eta Madrilen, Europa eta Giza Eskubideak baizik ahoan ez dituzten honetan! Oi gure demokrazien ordezkari kaxkarrak! Ez dira ahalkatzen ere...

Xingilika

1989-12-07

Nola egon berriz ere eskualde urrun eta ez hain urrun batzuei behako bat eman gabe? Baina ez kexa irakurle, euskal gaiak ez ditugu ahanzten, are gutiago baztertzen. Baina ez ote genuke ikusi behar gero eta zabalago doakigun giro mundializatu batean pulunpatuak garela, guk nahi ala ez? Eta beharbada, abertzaleek, ez dugu aski kasu egiten, preseski, nazioarteko ingurumen horri, iduri-eta geure xokoan bakar bakarrik bizitzen ahalko garela burujabetasun zerbait erdietsiz gero. Ala debatearen beldur gara jadanik aski zatituak garelakotz? Ideologia mailan gehiago landu beharko genituzke iritziak hemendik goiti.

Goazen lehenik Dreux-ko eskualderat. Han, andere Stirbois Fronte Nazionalekoak, diputatu alki bat eskuratu du bertze alderdi guziak kontra zituelarik alta; eta gehiago dena eskuratu, airez aire, bozen % 60 ez goiti bildurik! Marseillan ere arras gora ibili da FNkoa. Bertze Kantonala batean ere FNko bat guzien aitzinean jarri da lehen alditik. Bada hor, nahikoa, zenbait gogoetaren pizteko. Aldi bat gehiago frantsesek erakusten dute zertarako kapable diren; erran nahi baita munstro bat bilakatzen ahal direla eta jestu gutiz, historian askotan gertatu den bezala. Holako urrats gogetagarriak zerk eragin ditu bada gaur?

Gure ustez asko gauzek baina lehenik alderdi klasikoen jokatzeko moldeek. Zertako horrenbertze sustatzen ditu alderdi komunistak delako etorkinak? Bere alderdi interesengatik oroz gainetik; horra gure ihardespren bat. Erraten dute langabezia ttikitzeke lana behar dela partekatu; ideia ona eta txalogarria bihirik baldin bada. Baina hori egia izanik ere nornahik erranen dizu halere lan eskaintza berarentzat lan galdatzaile gutiago izatea hobe dela eta etorkinen gutiagotzeak lanpostu zenbait libra lezakeela. Zer zaie, alabaina, frantses askori, etorkin horiek nola biziko diren beren sorterrian, askotan guhaurk bilpildu sorterresuman? Eta bertzalde langile soilak eta bereziki langabeak pekatu behar ote ditu gure buruzagien egintza desohore egingarriak?

Miterrandek zerbaitxka abiatu du herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak sanotu nahiz. Baina urrun gara heldu behar genukeen mailatik. Orok, egoera bakarkari eta berekoi baterat garamatzate, historiak deusik erakutsi ez baligu bezalatsu. Gero eta gehiago mozkinak eta diruak manatzen du mundua eta jabeek/dirudunek erabaki okerrenak har ditzakete, jendeaz axolatu gabe, beren abantaila soilez.

Astelehenean ikasi dugu NATOk kideek ez dutela Varsoviako Itunaren desegiterik eskatzen, demokratizatzen den ber; alderantziz, xutik egonez « oreka baten » ekarle litzateke, diotenez... Hauxe aitormena! Holakorik entzun behar genuela ere! Berek beren izatea justifikatzeko arerioaren beharra aitortzea! Lehen erran izan dugu ezkerak eskuina behar zuela ezkertiar irauteko; horra gaur Mendebalde gaudezka Ekialdeari, otoi xutik egon dakion!

Aitor dezagun, guk ere, ez dakigula soberarik gaur, zein sainduri fida. Bazuen komunismoak eraberritze baten beharra. Baina aurten egin duen itzulipurdiaekin ez ote du mundua eskuinerat lerrarazten, lurrikara batek lurrazala eramaki duen bezala? Eta komunismoak nola hautsi ditu zangoak? Lehenik Europa eraikitzea asmatu eta bilatu zen Ekialdeko komunistei, Errusia eta Txinari ihardukitzeko. Gertatu bide da, ekonomikoki, mendebaldeko sistema, sortzen dituen miseria guziengatik, emankorra goa izan dela kontsumoaren garapenerako bederen.

Baina horren gainerat, ikus dezakegu hemen, askatasun egarria eta elizaren indarra ere.1978an, Polones bat hautatu zutelarik Aita Saindu, sekulako kuraia eta kemena eman zizkieten alde haietako jendeei eta bereziki poloniar urrikgarri. Gaur ikusten dugularik Gorbaxev Erroman, nori ez zaio gogoratzen Stalinen ahapaldi trufantea: « *Zenbat armada-talde ditu Aita Sainduak?* » Sinestunentzat badateke hor gozamenik. Haatik, Eliza baldin bada mundua xingilika abiarazi duten indar eragileetarik, ez ote luke goraxago mintzatu behar, diruaren zoradurak orain hartzen ari dituen.

« Libertatea ! »

1989-12-28

Hauxe da, berriz ere, gertakariak ematen diguten inarrosaldia! Errumaniako sarraskiek ezin erranezko hersturetan ezartzen gaituzte; naziek ere ez baitziguten piesagorik erakutsi, naski. Orain arte Hitler geneukan sarraskitzaileetan handiena. Oraindanik sorbaldetaraino bederen heltzen zaio Ceaucescu. Staline, hura berriz, non ezarri behar den ez dakigula. Halaber Den Xiaoping. Nehork ez dezala uste ukan Franco ahanzten dugunik; Gernikaz oroitzea aski baitzaigu.

1967ko udan, izan genuen 15 egunez Errumania bisitatzeke zoriona. MRJC mugimenduak ordaindurik han ibili ginen gazte merezidun (?) zenbait. Mugimendu guziak ordezkatuak ziren, « Francs et Franches Camarades » ezkerrekoekin hasirik, « Scouts » delakoetaraino! Orotarat 90 bat, Frantzia guzitik. Banuen hautatzeko ahala 20 bat erresumen artean: eta hautatu nuen Errumania. Bi urte lehenago Ceaucescu boterean jarria zen eta azkarki mintzatzen ziren hartaz, Errusiari, nolabait, iharduki beharrez ari zelakotz. Mendebaletik eskatzen zuen laguntza eta turistak ere gomitutzen zituen indar oroz.

Fiertasun ikaragarria dute errumaniarrek. Latinak direla eta ez eslavoak errepikatzen dute aldebat. Errusia ez dute batere maite. Denbora haietan 19 hizkuntza desberdin irakasten zituzten estatuan barna. Eskola denetarat hedatu zuten, « pioner » talde famatuak nola formatzen zituzten eta zenbat holako ez ziguten erakutsi! Libertate eskasa sendi zen, baina iduri zuen, hein batean bederen, onartzen zutela « gero hobe » baten esperantzan. Baina, niri, gehienik gustatu zitzaidana, zera izan zen: hango herri nortasuna. Ikusten genuen, hantxe populu kozkor bat, Errusiaren « makoez » inguratua baina bere izateari atxikia zegoena. Nazionalismo horretan finkatu duke Ceaucescu-k bere diktaturaren hastapena. Errusiari, gostarik gosta iharduki beharrez eta hark baino hobeki egin beharrez, sekulako indarrak galdegiten hasi zen jendeari. Azkenean, manamendu molde bortitzenetarat lerratu zen, lerratu baldin bazen lerratu, leporaino ere sartu baita, dohakabea!

Ceaucescu-ren neholako defentsarik hartu gabe, lerraketa horren lehen hobenduna lehengo Soviet Batasuna dela daukagu. Hitler-en arrakasta, ingurumenak lagundu bazuen, Ceaucescu-ren bilakaera ere, ingurumen batek eragin du gure ustez eta, berriz ere diogu, Ceaucescu beraren neholako defentsarik hartu gabe. Funtsean zer dakigu? Stalinek ere, xede onik atera zuen, hala nola nazio arazoei buruz. Baina gero...

Zer behar dugun horietarik guzietarik atxiki? Goizegi da beharbada horretarako baina dudarik gabe erran daitekeena da komunismoak leher eta zapart egin duela aldi honetan eta haren sortzaile den marxismoa pentsamolde guziz irriskutsua dela. Eragintzaz den bezainbatean, marxismoari esker langileriak lortu ditu aitzinamendu handiak, guziz garrantzizkoak. Hor, ez dago neholako dudarik. Kapitalismo idorraren borrokatzeke, hari kontra egiteko, ideia guziz emankorra izan da. Baina ez zaie, komunistei, neholak ere, guzia utzi behar eskuetan. Hain xuxen, xedeak onak dituztela badakite eta ordutik denak haizu zaizkie; orain arte bederen hola izan da.

Joan den azaroko azken zenbakian, astekari batek handizki ezartzen zuen « bortizkeriarik gabe » komunistak baztertzen ari zituztela Ekialdean. Zain gaude, gaur zer titulu jarriko duen... Bertze baztuek armada, edozein izan dadin, arbuigarria baitzaie beti, zer diote gaur, ikusiz herri bat armadaren beharretan eta biek bat eginik elkar askatzen ari, « libertatea » oihukatuz? Ideia guziek errespetua merezi dute. Baina haiek zabaltzerakoan, larga-bista batzuek ez lukete, batzuetan, kalterik egingen...

Korapiloa osorik

1990-01-18

Historiaren urratsa, noiztenka gertatzen ohi den bezalaxe, zalutu egin zaigu joan den urte horretan eta ez da zenbait denboraz baratuko itxura guzien arabera. « Iguzki haizeak » jo du Euskal Herriraino eta, bertzeak bertze, autodeterminazioaren ideia hedatzen ari da karraskan, Madrilen izitzen ere hasiak baitira! Egia da, Iparralde honetan gauzak hurrikiago doazkigula; urrunagotik abiatu ginelakotz beharbada? Baina, Ekialdeko gertakariak xixtatuko gaituzte gero eta gehiago. Gaur arte, gehienbat, askatasun orokorra eta indibidualak ziren aipu. Hemendik goiti herri arazoez dukete lehentasuna hartuko; arazo horiek plazaratu baitira eta guretzat hor baitago, beharrena ez bada, duda mikorik gabe, zailena: korapiloa osorik

Herrialde puskatu eta barreiatu andana bat dago Europa Ekialde horretan ere eta horietarik zenbaitek eskura balezate bateratze bat, mugak hautsiz nolazpait, orduan, egiazki, Euskadirentzat, ezin estimatuzko laguntza morala genuke hor. Horrek erran nahi ote du, Euskal Herrian, ahoa xabalik zain egon behar dugula? Ez eiki. Lehenik ez gaude deus egin gabe. Eta bertzetik, Iparralde honetan ez ote dugu edozein herrik bezainbat merezimendu? Nik uste baietz. Libertate indibiduala eskas duzunean errexago da jazartzea, libertate eskas horrek zuzenean, zehazkiago hunkitzen baitzaitu eta batzuetan bortizki gainerat. Libertate indibidual hori hurbileko erresuma batzuek gozatzen dutela badakizunean bereziki.

Ordea, arras bertzelakoa da herri askatasuna. « Zaharrek » gogoan dugu duela doi-doia 30 urteko egoera Iparralde honetan. Gerla ondoan adibidez, Marc Legasse bat, Euskadiren askatasunaz ari zelarik, ez ote zen gizon berezi edo marginal huts batentzat hartua? Libertate indibidualaren mailan eskasiarik sentitzen ez duenari, ez da hain errex ulertaraztea herri askatasun bat falta duela. Ikusiko dugu, funtsean, noraino joanen diren Ekialdean orain eta nolako bideetarik. Erran behar dugu berriz ere, bana bertze, komunisten peko egon diren herriek guk baino hobeki begiratu dituztela beren mintzaira, kultura eta berezitasunak eta gaur badutela hor, gure aldean, abantaila handia. Ikusiko dugu ere orain zer lortuko duten eta zer ez.

Bertzalde nola jarriko dira Errusiako buruzagi handiak beregaintasun eta lurralde arazo horien aitzinean? Jakizue sail horretan ez duela Gorbatxev-ek laguntza handirik aurkituko: batzuetan uzkur bat sentitzen bada Mitterrand edo Gonzalez batzuen baitan, zer uste duzue-eta dutela? Beldur dira Gorbatxev urrunegi joanen den, nahitarat edo ez nahitarat, eta bide horrek ideia « txarrik » sor edo akuila dezan beren inperioetan...

Eta gertakariak beti heldu: ezin segitua dugu... Errusoek armada igorri dute Kaukasia alderat bi jendalde bereizi beharrez: Azeri « turkoak » eta Armeniarrak. Aitzakia ona izan dute egia errateko... Gogoetagarria, geroari buruz... Korsikan, berriz hasiak dira armekin. Iparraldean, turismoaren aurkako borrokak baretu dira baina baretze horrek indarrak eman dizkie turismozaleei. Ikus Arrangoitzen, Basusarrin edo Senpereko Lakuan. Ohartzen gara, guhaurk gaitzetsi ditugun jokamolde batzuk, eraginkorrak zirela bederen. Turismoa, euskal nortasunarentzat, galbide bat izan baitaiteke guhaurk kudeatuko ez duguno.

Tinka hortzak !

1990-02-08

Bide hertsia dela abertzaleen bidea, errate beharrik ba ote da? Gaude, haatik, ez ote den ozka batez hertsitzen ari oraino? Errientak haserre gorrian ditugu, astotuak, hortxe zenbait lanpostu kendu dizkietelakotz (?) Seaska-ri sekulako faboreak (???) egiten zizkieten une berean! Ikus joan den asteko Enbatan Monique Gipoulou-ren artikulua eta aste honetan Baiona Handiko errient laikoen gutuna burasoei. Laikotasunaren izenean kondenatzan dute euskararen irakaskuntza: buraso euskaldunen nahia omen baita beren haurrak bertzerengandik bereiztea; helburu nagusia, politikoa, luketelarik bertzalde. Berek, bistan dena ez dutela, ez gaur, ez lehen, politikarik nehoiz egin, frantsesa sakatu zigutelarik eta euskara lurra baino beherago ezarri...

Holako gertakarien aurrean, gogorat heldu zaizun lehen gauza da: emazteki ozar horren iritzikoak zenbat dira, guti ala anitz? Beldur izateko da anitz direla eta horrek gaitu hersturetan ezartzen, odola irakitan. Horrenbertze lan, SIADECOn azterketa azkenik, hainbertze aldaketa, Ekialdean bereziki baina Hegoafrikan ere; denetan herrialdeak xutitzen ari beren nortasunak begiratzeko, baina guk euskaldunek ez dugu holako begirunerik merezi laikoza horiengandik. Gu ez gaitu komunismo idor batek menpean atxiki; gu ez gaituzte bertzerengandik bereizi beltzak Hegoafrikan bezala; gu, mendeetan zehar, frantsestu (nahi izan) gaituzte bakarrik, baina hori gure onetan zen, bistan dena!

Bertzalde, Libertate, Berdintasun eta Anaitasun goxoenezko demokrazian troxatu, hazi, eta hezi gaituzte. Hots, euskaldunek ez badugu demokrazia perfeta dastatu, nork egin du? Gure ironiak ordea, ez dezake itzal gure goibela: gehiegia baita. Kointxoren kointxo, zaindu egizkizue zuen lanpostuak nahi bezainbat baina utzazkiguzue baketan horrenbertze borrokaren bidez eskuratu purruxkak! Zer mila sorgin!

Purruxkak baitira eta bertzerik ez, erdietsi ditugunak eta purruxkak diogunean ez da hor neholako gaitzespenik Seaska-ri buruz, erran gabe doa. Gogoetak bai haatik sortzen zaizkigula hartu bide horrek norat eraman gaitzakeen holako mundu etsai baten erdian... Gure elkartasuna erakuts dezagun Seaska-koei, gure haur maiteen euskal irakaskuntza ez dugu utzi behar otsoek irensterat. Bide hertsia baita, gaudela atzarririk!

Hori aski ez balitz bezala, Bordeleko telebistaren emanaldi euskaldunak, jadanik hain eskasak, oraino laburtu egin dizkigute. Ezin onetsia! Nor ohartu da ere euskal kulturaz hitzegiteko etortzen zaigula Joxe, poliziaren ministroa oroz gainetik? Non dago Jack Lang kulturazalea, bere burua ezin aski erakutsiz badabilena baina Euskal Herrirat biziki hurbiltzen ez dena? Zer bi «apostoluak» horiek! Jakin dugu ere euskal presoek ez dutela Enbata errezebitzen. Dirudienetz eta zenbakiak gibelerat etortzen ez direnez, zikinetarat botatzen dituzkete!

Ez genuke ahanzi behar HEMENen biltzarra ortziraletan honetan eta Euskal Hitz erakusketa. Jotzen gaituzten erauntsien erdian aterpe xuhurrak direla hor? Itxuraz bai; baina beharbada iduri baino gehiagokoak dira gure lanak. Hasteko eta bat herrialde menperatuaren aldeko giro mundiala bat dago, gure xedeekin bat egiten duena eta bide onean garela erakusten diguna. Bide txarretan sartu eta hikatu direnak, zernahitarako prest dira; ukaldi latzak emanen dizkigute; baina uste dugu, luzarat, zuzenak makurrari gaina hartuko diola! Tinka hortzak eta jo aitzina... ihauteriak lagun!

Odolaren margoak

1990-03-01

Hona beraz Ekialdeko giroa hegaldatu zaigula Nikaraguarat, Euskal Herrian eta bertze batzuetan, ufalditxo batzuk emanik. Bata bertzearen ondotik, gobernu marxistak lurrerat doaz, karta-jauregi batzuen pare! Asko euskaldunek begi onez ikusi genuen sandinistak botererat heltzen Managuan; nolaz ez txalotu Somoza diktatorearen baztertzea! Baina sandinisten ausartzia, desafio izigarria bilakatuko da Estatu Batuentzat Kubaren ondotik eta bereziki Reagan «cow-boy»aren begietan. Daniel Ortegak nahiko zukeen Fidel Castroren aldaxka Amerikaren sabelean xertatu. Yankee-ak ez ote dira atxikitzen ahal direnak Vietnamekoaz geroztik?

Baina amets horiek oro porroskaturik daude gaur! Estatu Batuen laguntzaz, «kontra»koek gertapean atxiki dute Nikaragua; ekonomiaren garapenerako beharko zen dirua, gertarako erabili bide da. Egoera honek gogortzerat behartu du sandinisten jokabidea eta gorpil zoroan sartu eta lehertu da guzia. Igandeko hauteskunde demokratikoek ez dute deus aldatu ahal ukan: sandinisten alderako konfiantza galdua baitzatekeen. Erran behar dugu luzatu gabe, Ortegak solas gogorak erabili zituela, ez hain aspaldi, Madrildik, euskal mugimendu iraultzailearen aurka. Okaztagarria da «La Raison d'Etat»... Gogoan duguna ere Aita Sainduaren erasia ohargarria, sandinisten artean ministro zen apez bati buruz.

Zer diogun, oro har, igandekoaz? Lehenik oharpen ttiki bat: Cori Akino (horia) Filipinetan, Benhazir Buto (xuria) Pakistanen, hona orain bertze emazte bat kargu handitan; hirurek, senarrak edo aita, omen handikoak, politikagatik erailak ikusi dituzte. Arrabantxa harrigarria lortu du bakoitzak. Odolean loratu dira: Horia, Xuria eta Violeta! Bertzela, Violeta Chamorroren garaipenaz zer oraino? Demokraziak irabazi badu, ez da gaizki. Orain, bere inguruan duen jende desberdinarekin nola antolatuko den ikusi behar. Ikusi beharko ere Estatu Batuen jokabidea. Estatu Batuetan diruaren demokrazia dugu. Ekonomikoki, eremu aitzinatua da, milaka eta milaka zubi azpitan bizi diren jendeak ahantziz gero. Eta kanpoko herrialde menekoetan sartzen delarik ere, bere diru-jokoarekin, jende xumea, ehorzten, turrintzen du.

Elizaz zer erran? Ez da hain errexia. Iduri luke, kontserbadoretzen ari dela, bere hegalek eraberritzaileak lanak baititu ihardukitzen. Brazilen, Don Jose Cardoso Apezpikua, Don Helder Camararen ordaina, ez da batere bere aitzinekoaren ildotik ibilki: 1985az geroztik, pirka pirka, desegiten ari du osoki «errromesen apezpiku» aipagarriak hasi saila; eta hori guzia Erromaren baimenarekin. Joan den abuztuaren 26an polizia deitu du, bere jauregitik haizatzeko, beren nekeen azaltzerat etorriak zitzaizkion jende dohakabeak! (cf. «Fondations» Février 1990).

Eta Euskal Herrikoak non dabilzkigu? Frango mottel gobernariei buruz, jende xehearen erasitzeko trebeago baitira. Zer gertatzen da bada? Ekialdean, Poloniatik haste, elizaburuak deblauki jarri dira herritarren laguntzen. Gaitzetsi egin dezakegu horietarik zenbaiten kontserbadoretasuna, ez haatik horien herri maitasuna! Hemen, autodeterminazio eztabaidaren karietarat arrunt uzkur egon zaizkigu denak. A! marxistak bagenitu Madrilgo eta Parisko gobernuetan, zer artzain herrizaleak genituzkeen Euskal Herrian...

Frantses estatuko presondegietan jasan daitezkeen pairamenak salatzeke, kanpaina bat bultzaten du Ahaideak elkarteak. Bertzeak bertze salatzen du Filipe Bidart-i egina zaion tratamendu oiesa: bakartasun osoa horrenbertze denbora honetan! Abereei ere ez da holakorik egiten. Osoki bat egiten dugu salaketa horrekin.

Egiazko hobendunak

1990-04-12

Azkenean, Euskal Kultur Erakundea xutik eman dute Baionan joan den larunbatean, apirilak zazpi. Uztaritzen izanen du bere egoitza. Karia horretarat, Iparraldeko Herriko Etxe gehienek eztabaidatu behar ukan dute. Herri bakar batzuk dira, oraino, erabakirik hartu ez dutenak. Orokorki, erran daiteke, eztabaidatze zabal hori gauza berria izan dela: euskal gaiez, Herriko Etxeetan, gehienki, ez baita hitzegiten non ez den Euskal Mugimenduaren jorratzeko...

Horra beraz puntu baliosa: Herriko Etxeak positiboki ari euskaldungoari buruz; erakunde berriari ekarrigogo dioten diru laguntza (2 libera jendekal) oso murrizta edo hobeki erran, irri egingarria baldin bada ere. Agurtu behar dugu beraz, artetik, Azkaingo herri gizonen egitatea, Luberriaga auzapeza aitzindari: 10 libera jendekal ematea bozkatu baitute; zorigaitzez segitzaile gutisko izan bada ere.

Larunbatean aipatu diren gaietan minberena izan da, berriz ere, euskararen tokia erakunde berri honetan. Mozio bat aurkeztua izan da zeinak eskatzen baitzuen zuzendaria euskaraduna izan zedin beti. Alabaina, aitzineko Euskal Kultur Etxearen zuzendaria erdalduna izatea biziki gaizki hartu genuen. Euskaldungoaz arduratzeko euskaradun izatea ez ote baitezpadakoa? Ez, jaunak eta andereak, holako gauzarik ez daiteke eska estatu frantsesari. Prefetak erran du ez litzatekeela hori legezkoa, diskriminazioa baizik! Harrigarria eta hain segur gezurra legearen arabera ere! Dretxoan adituek, argitu behar gaituzue, lehenbailehen: hau soberakina baita...

Eta gero harrituko dira gazte batzuk oldartzen badira bortizki! Bortizki jazartzea ez da gure bidea baina ulergarria da ikusiz geure agintarien jokabide lotsagarriak. Frantses botere zentralista batetik eta espainol estatu menperatzailea bertzetik, horra hor gure gaitzen egiazko hobendunak! Horiek dira gure min eta ezinbertzeen sortzaile nagusiak. Beharrik Aberri Eguna hor baitugu, igandean, geure garrasiaren bederen botatzeko... Denok Hendaiarat eta batasunean!

Betiko eztabaidak

1990-05-03

Harrotzen bezala hasiak ginen Iparralde honetan, gure hiru talde politiko nagusiak (EA, EMA eta EB) batasunean zebiltzala-eta. Ohargarriak eta sinbolikoak ziren geure alderdi elkartuek ematen zizkiguten urratsak. Hegoaldean ere izanak ginen autodeterminazioari buruz geure harritxoak ekarri nahiz Euskadiren eraikuntzan. Eta hona non Aberri Egunak iratzarrarazi gaituen geure batasunezko ametsetarik! (1) Zer uharrak geroztik! Denek arrazoiak badituzkete: bakoitza egia zati baten jabe baita. Baina politikan hautuak egin behar dira beti eta hor hasten dira auziak. Hautuak baitira beti, nahi ala ez, haustura batzuk harekin edo honekin.

Har dezagun Hemen elkarteak. « Ongi heldu Euskal Herrian » kanpaina arras ederki eramane du berriz ere. Sisteman (kapitalistan) sartzen dela eta erdaldunegia dela bertzalde, egia handiak horiek denak. Baina bertzetik, zer inarrosaldia ez du ematen talde horrek Iparralde honetan? Korsikarrak berak ere heldu zaizkigu jakin nahiz! (Ikus horien solasak zenbaki honetan). Horiek guziek bertze oroitzapen batzuk ere gogoratzen dizkigute, iduri bailuke Historia beti toki bererat itzultzen dela, ferietako bira-biretan zurezko zalditxoak, itzuli bakoitz, leku ber beretik iragaiten diren bezala.

Adineko guziek gogoan dugu Arbotiko (?) Euskaltzaleen Biltzarrean Labéguerie-ren jazaritzea Louis Dassance presidenteari, jakintsua baina jabalduegia zitzaionari. Bere aldian, Labéguerie-k jasanen ditu eraso gogorak Mauleko eta Heletako Euskaltzaleen Biltzarretan: lehenean Enbatarengandik, bigarrenean Piarres Charritton berarengandik. Talde politikoetan gauza bera. Has gaitezen Aintzina-rekin: biziki lasterrago eta urrunago joan nahi Enbatak; ondotik dator EHAS aise gogorrago eta ezkerrago; gero berriz Herri Taldeak oraino saminkiago! Eta azken hauek, doi-doieko bat eztitu bezain laster, horra hor jalgitzen direla Patxa, Oldartzen, IEGA eta bertzeak, mantsotu batzuentzat gauzkatela oro! Goitirik, gurpilaren jokoa ikusia dukegu.

Gizonaren eta erakundeen sasoiak urtearenak bezala datoz eta doaz. Ez dugu uste, horrenbertzez, gauzak hein berean daudenik. Batzuetan « bidean galduak » iduri badugu ere, gure itzuli mitzuli guziekin, daukagu, « oreak hartzen ari duela ». Abertzaleek, oro har, beren altxagarri lana egin eta egiten dutela, oihi, zalaparta, min, izerdi eta, zertako ez, otoitzen bidez.

Biziki gustatu zaizkigu aurtengo Maiatzaren lehenari buruz egin izan diren indarrak. Gu beti beretik ari baikara: Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena ez direla nahasi behar. Askok harritzen dira, alabaina, sindikalismoaren beherakadaz; gu ez. Gure ustez behehitze horren kausa handiena baita sobera nahasirik dabilzala politika eta sindikalismoa. Bertze batzuek kultura eta politika soberasko nahasten dituzten bezalaxe.

Harritzeko da nola ziztukatzen ditugun politikari kargudun-anitzak, guhaur geure mailan, okerkeria beretarat erortzen garelarik. Noiz onartuko dugu politikaren esku dagoela gizartearen kudeantza orokorra eta sindikalismoaren gain dagoela langileen bizipidearen hobekuntzaren bilatzea? Bada denentzat non zer egin; ttikien eta handien arteko diferentziak handitu baitira azken hamarkada honetan...

(1) Oharra 2000. Aberri Egunezko azken hitzaldia Piarres Charritton EAkoak egin zuen baina « Borroka » taldeko gazteek, txistu eta orroz, estali zuten haren solasa...

Juduak bai, juduak ez...

1990-05-24

Berriz ere gertakari hitsak Palestina aldetik. Carpentras-eko laidoa mendekatu nahi izan balitz bezala, horra non judu batek tirokatzen eta hiltzen dituela, odol hotzean, palestinar andana bat armarik gabeak. Mentsa omen zen delako judua; baina zer erran nahi du horrek? Ez ditu juduak tirokatu, halarik ere, tronpaturik... Bistan da ez dakigula ea lokarririk baduten Carpentras-eko eta atzoko gertakariek, biak berdin hitsek. Harrigarria litzateke, hala ere, Carpentras-eko profanatzaileak arabeak izatea... Dena den, iduri luke herrazko zirimola batean sartuak garela. Juduen alderako herra handitzen ari da eta denbora berean, juduak Israel « Handia » eraiki nahiz ari, baztertuz poxelu dituzten guziak!

Dohakabeak, egiazki, hango herriak. Hainbertze jasan ondoan, mendeetan zehar, juduek eskuratu zuten eremu bat berentzat. Baina lorpen zoragarri batzuek burtzoraturik-edo neurririk ez dute beren lur harrapaketan, erlijioaren izenean gainerat, bertako jendea zapalduko badute ere. Hori kolonialismoa deitzen dugu. Beren demokrazia eta lorpen guziak nahi bezain txalogarriak izanik ere, ez dute eskubiderik bertzerenaz jabetzeko. Beren segurtasunaren ondotik dabilta, diotenez. Inperialistak bezala jokatzten dira bitartean. Gaizki, bazterrak eta antolamendurik ez ageri nehondik...

« **Ipar Buru Batzar** ». Hona beraz, EAJren Iparraldeko adarra, ofizialtasun osoz, hemengo alderdien dantzarat agertzen zaigula. Ordu zen, alabaina, Euskal tendentziak (EE salbu) gisa bat edo bertze euskal herri osorat zabaltzen baitira. EAJ, alderdi zaharra ez ote zen lehena izan beharko Iparraldearekilakoetan? Egia da ikusi izan dugula Eugène Goyhenetche zena « Lapurdi Buru Batzar » iragarkipean Alderdi Egunakari. Ofizialtasuna, haatik gaurdanik dateke eta hiru lurraldeak ematen dituzte hor batean, gisa batez bitxi baita, Hegoaldean lurralde bakoitzari horren atxikia den alderdiarengandik.

Kazetariei, Ximun Haranek zenbait ikuspegi azaldu dizkie zenbaki honetan berean ikusiko duzuenek. Bertzalde Iparraldeko EA gutiesten du: 30 bat pertsona baizik ez lituzkelakoan! EMA aldiz, behar beharrezkoa zaio... anitz direlakotz! Lausenguka, Aberri Egunean toki bat ukaiteko EMAREN ondoan? Paso. Aspaldi du, J.L. Davant-ek deitzen ziela zentristei euskal alderdi bat osa zezaten. Horra hor, abiadura bederen. EAJk Hegoaldean daukan hedadura lagun, xuxenez, hemengo kargudun asko hurbildu bederen behar litzaizkioke...

Ximun Haranek merezimendu handiak dauzka, Enbataren hastapenean egin zuen lanagatik. Azkeneko hamar urte hauetan haatik Enbata kazeta eta honen idazkari nagusia jorraztetik ez da baratzen. Egia da Jakes Abeberry-k sekulako maila hartu duela, bere ahal paregabeekin, bai mintzatzeko, bai idazteko, abertzale lanari etengabe jarraitzen zaiolarik. Zertako ez onar ez ditugula denek dohain berak? Bada segur toki eta alhapide, denentzat, euskal alorrean! Ximun Haran eta bere lagunak, zenbait hautetsi ken balitzate Inschausepe-ren menetik eta EAJrenganat bil, ez ginateke batere samurtuko. Joka hor!

Norat doa gure gizartea?

1990-06-05

Ez dugu hemen gai horren itzulia egiteko ez ahalik ez tokirik. Nork ez du ikusten hala ere, Frantzian zer egoera politikoa den? Ezkerrekoak boterean dira eta badakigu nola dabilzan: amnistia diruzaleentzat, beren alderdiari laguntza ekartzen dioten ber. Bertzalde azken hamarkada honetan, irabazi ttikien eta handien arteko diferentziak emendatu dira. Botere sozialista (?) batengandik, harrigarria, baina egia. Eskuinari behatzen badiogu: saltsa ikaragarria alderdien eta pertsonen artean, denek batasuna nahi, datozen presidentzialak irabaztekotan; baina alderdiburu guziek hautagai izan nahi! Nehondik ezin antola beraz.

Eskuinaz ari ginen hor. Baina hor dugu eskuin muturra ere! Hegoaldeko anaiek uste zuten batzuetan, eskuin muturra bakarrik Espainian zela... Gaude ez ote den, Le Pen eta honen Fronte Nationala, Europa guziko eskuin muturraren aitzindari jartzen ari? Dena den, joan den igandean oraino, talde horretako batek arras boz andana ederra bildu du: orain arteko diputatu hauteskunde ez-orokorretan gertatu dena egiaztatzen baitu. Hemen berean errana dugu lehenago: FNa goiti ari da eta bagenuke hor bortz gogoetaren gaia orok.

Berriz ere bildu dira « SOS Racisme »ko kide eta lagunak Paris alde horretan. Elkarretaratze ederra, erran digutenez. Bizkitartean ez zaizkigu gustatzen erakunde horren helburu batzuk. Integrazioa, ez dute bertzerik ahoan! Frantsestu edo Europartu, berdin zaie, baina integratu behar omen dute, erran nahi baita ez dutela deus eskatzen beren nortasunaren alde, baina hemengoak bezala bilakatzeko ahalak nahi dituztela bakarrik... Beren kulturarik ez dute aipatzen, badenetz ere!

Europa Ekialdean zabaltzen ari diren « nazionalismoek » kezkatuak dauzkate Harlem Désir eta haren lagunak. Jadanik badugu zerbait erranik horien jokabide batzuen ahuleziaz; ahal dutena egiten dukete horiek ere gure gisa, hain segur, baina bere nortasuna ukatzea Frantziari kaustitzeko edo atsegin egiteko: hori ezin onetsia zaigu. Ez dugu abertzaleok jokabide horretarik deus nahi. Ez uste ukan ez dugula kezkarik Ekialde horretan nola itzulikatuko diren gauzak. Baina gure kezka nagusia ez da, noiz jabalduko diren bazterrak: beren zuzenetan noiz jarriko diren baizik, horrenbertze jendalde.

Etorkinen beharretan omen da Frantzia... egin dezala beraz behar dena. Aitortzen dugu, haatik frango zaila izanen litzaiokeela etorkin guzien nortasunak errespetatzea. Ezinezkoa? Hala balitz onartu behar dugu inmigrazioa zorigaitz handi handi bat dela bere herriaren eta nortasunaren uzterat/ukatzerat behartua denarentzat. Hoberena litzateke bakoitzak bere sorterrian bizipidea aurkitzea. Urrun gara!

Euskararen hautua

1990-06-14

AEKren besta biziki ontsa iragan da, larunbatean, Donibane Lohizunen. Jendea bildu da ederki. Baina zer egoera larrian duguna, diru mailan, geure AEK! Botere publikoek ez dute batere lagundu nahi. Seaska baino gutiago oraino! Burasoek beren haurrentzat euskarazko eskolak galdatzen dituztenean zail da « ez » arrunt bat ematea.

Aldiz gizartearen berreuskalduntzea bertzerik da: nahikunde politiko bat eskatzen du garbiki finkatua. Zer faltsuak direnak, bertzenaz, Seaska lagundu bai (azkenean, piska bat bederen) eta AEK ez. Hurrek, ingurumen euskaldun baten beharrik ez balute bezala!

Ez ote da diruaren urerat botatzea haurren euskaraz eskolatzea gizarte erdaldundu baterako baldin bada? Horrelaxe hurrei egin litekeen kaltea bertzalde. Euskararen hautua, hori da egin behar dena eta gure agintariak egingen ez dutena, abertzaleak, herriko gehiengoan izan arte.

Gure iritzi soila eman beharrez ari gara hemen eta ez puntu onak eman batzuetan eta puntu txarrak bertzeetan, irakasleak ikasleari bezala... Gertakariak eta gizonak aipatzen ditugu geure ikuspegiz, bertzerenak ere aipatuz, nolabait euskal debateari gure ekarpena egin nahiz. Horrek behartu ukan gaitu Ardanza Lehendakiaren jokabide batzuk kritikatzera.

Gaur berriz gogotik aitortzen dugu atseginekin entzun ditugula, adibidez, Irunberriko ETAkoen aferari buruz erabili dituen solasak. Badakigu kuraia handia behar dela, gaur, zintzo eta argi ibiltzeko holako karguetan. Jokabide horri jarraitzen bazaio, geure geroaz baikorrago izateko arrazoiak bagenituzke.

Zorionak ere Québec-eko jendeari. Hor ere biziki arrangura geunden, duela zenbait urte autodeterminaziorako hauteskundeak galdurik, ari baikinenez ote zituzten galduko beren askatasun asmoak... Loriau gara berriz kaleratzen ikusiz lehengo ametsak. Horra hor oraino, gure uste soilez, Europa Ekialdeko gertakarien ondoriak hedatzen ari. Bertzekoan gure aldi?

« Abadia Ürrüstoi »

1990-07-26

Behar zen kuraia, joan den igandean Maule behera abiatzeko kostalde honetarik halako beroarekin... Nola hutsegin, ordea, pastoral bat, holako ohitura berezia, Erdi Arotik zuzen zuzena datorkiguna? Hori bera nahikoa izanen zen gure lotsa guzien gainditzeko. Baina bazen ere bertzerik. Idazlea, lehenik: Jean Louis Davant adiskidearen lehen pastoral baikenuen! Ez dugu Jean Louis aurkeztuko, gure irakurle guziek ezagutzen baitute: euskaltzaina, abertzale kartsua, perla bezain fina eta gaur idazle hoberenetarik dena, zuberotarrez ala batuaz.

Bertzalde, gaia ere nahiko aberatsa eta jakingarria zen, funtsean, idazleak berak, nehork baino gehiago, ximenki ezagutarazia bere lanen bidez. Gero, antolatzaile eta antzezleak: ikastoletako buraso eta haurrak ziren, gertakari berria, egiazki. Azkenik Maule, Pettarreko eta Zuberoako hiri nagusi, hain erdaldunduan, kirol zelai nortasun izpirik gabeko hartan gainerat, kurios ginen zer eman zezakeen pastoral batek...

Deblauki erran behar dugu ez zaigula dolutu geure ausartzia: berriz ere xoraturik itzuli baikara, orain, beila bat bezala hartzen eta bizitzen dugun ikusgarritik. Publikoarekilako harremana biziki ona kausitu dugu ororen artetik; eta hori lagundu duke jendea itzalean izateak batetik eta bertzetik jarlekuen konfigurazioak berak. Jendearen parte-hartu-nahi horri begiratu behar genioke beharbada. Publikoa hain jakina denaz gero eta aitzinetik begirunez betea, ez ote da hor zerbait lantzeko? Parte-hartze hori mugatua legokeelarik bistan da.

Bidenabar, Ipar Irlandari eta hango gudariei egin agurra guziz hunkigarria izan zaigu abertzaleoi, txalok aski garbiki erakutsi duten bezala; arratsaldeko gailurra izan da hori dudarik gabe. Baina gure idazle trebeak badaki gauzen ongi neurtzen: denetarik izarian erakarriz taula gainerat: ohiturak eta berrikuntzak. Jauntziak ere biziki ederrak iduritu zaizkigu gaiaren aberastasunari zihoakion bezalaxe. Emazteek, bipilki atxiki dute beren lekua, kasik gizonak baino gorago iganez batzuetan. Haurrak, sanoki azaldu dira beren sailetan: ikastolako irakaskuntzaren eragina dario.

Ez ahal zaio nehoi gaitzituko aipatzen baditugu textu ahantzaldi haiek; arratsaldeko puntu ahulena hori kausitu baitugu. Ez dugu sobera erran behar: ikusi ez dutenek ere zerbait deskubritzeko atsegina ukan dezaten agorrilaren 5ean, toki berean. Badirudi, geroari buruz bide arras onean garela sail honetan.

Bi asterentzat oporretan ginelarik ikaragarriko atsegabe batek jo du euskal mundu guzia: **Jean Louis Caussade** 31 urtetako gizon gaztea, bideko istripu batean galdu baitugu. Hori aski ez balitz bezala, bere bi urtetako alabatxoa ere, bi egun barne, kolpeen ondorioz, zendu da. Emaztea, aldiz, bizirik ateratzen zelarik, deus kolperik gabe: harrigarria, kasik ezin sinetsia... Alarguntsari, berant bada berant, bihoazkio gure doluminik bizienak. Gure agurra ere bidaltzen diogu Gure Irratiako taldeari, zeinetako partaide guziz ezaguna eta estimatua baitzen Jean Louis.

Egoera kezkagarria

1990-08-16

Europa Ekialdeko aldaketak ikustearekin, bertzeak bertze NATO eta Varsoviako Itunaren harreman onak, hasiak ginen « *ez da gehiago gerlarik izanen, han hemenka, muduan zehar, beti izanen diren baina oso mugatu haïetaz kanpo* ». Eta horra non, nehork asmatuko ez zuena, sekulako gerlabidea sortzen digutela Golkoan! Abuztuaren 2an, Irak-ek menperatzen du eta beretzen Kuwait lurralde ttikia baina aberats okitua. Hain xuxen Irak-ek behar bezalakoa: tturindua baita Iran bertze auzoari, bederatziz urtez egin dion gerlaren ondorioz...

Gerla luze horrek ez die, gauza handirik ekarri, ez Irak irabazleari eta are gutiago Irani. Lehen bezain asto gelditu dira, elkarri egin desmasia deitoragarriak bertzalde. Baina Iranen furfurua irriskutsuak eztitu badira, Irak, bere armada azkar izanez oraino, beroan bero, baliatzen da ttikiago baten irensteko, hurrup eta klik!

Saudi Arabiako erresuma izitzen hasi da segidan; hura ere biziki aberatsa baita, baina armada ez araberakoa. Estatu Batuek adierazi dute, bertan, ez dutela nehoiz holako egoerarik onartuko eta, arabiarren sustengatzeko, hasi dira soldaduak igortzen, gerlako tresnez kargaturik mukurru. Hemen ikusten dugu, aski garbiki, Estatu Batuen jokabide alderdikaria: Israel beren adiskidea utzi baitute arabeen zanpatzerat (Libano-n eginak ahortzi gabe) doi-doia alegiazko erasia batzuz eginik!

Horrek ez du erran nahi ontzat ematen dugunik Saddam Hussein diktadorearen jokabidea. Ez dugu ahortziko, bertzeak bertze, kurdu herriaren zati bat errautsirik daukala, arma kimikoak bizkarrerat botatzerainokoa! Bitxi da, halere, nola Aljeria eta Palestinarrek alde jarri zaizkion. Ez ote da hor, nolabait, Saddam Hussein tiranoaz gorago, Heren Mundu erromesa eta Ipar aberatsaren arteko gudu zerbait bezala sendi? Bertzalde, ez bide du auzi honek Europarat etorri arabeen onarpena lagunduko. Eta Palestinaren arazoa?

Frantziak ez omen du arras Estatu Batuen idotik ibili nahi; alabaina, gaur arte Irak-i, karraskan arma saltzen ari izana zaio eta gerlako gizonak formatzen... Khomeiny fanatikoaren gudukatzen ari zeno, pentsa ez zenez baliosa Irak! Frantzia tristea! Berriki oraino zioskun: « *Arma saltzen ditugu bai baina ez da irriskurik arma horiek guri buruz nehoiz bihur daitezen...* » Eta gaur bortxatua da amerikarrei salatzea Irak-i saldu tresnen xehetasun guziak...

Dena den, Saddam Husseinek ederki nardatzen ditu bazterrak. Lehenik, nehork ez du urrikari Kuwait aberatsa, handik ez hain urrun goseteak dirauelakotz. Bertzetik dioelarik: « *Eremu beretuak utz ditzatela Israel, Siria-k eta bertzeek eta nik ere egingen dut halaber* », horrelako proposamen ozarrak, ezin onetsia bada ere, oroitarazten du, ozenki, berdintsu oker dabiltzanak badirela Ekialde Hurbil horretan! Egia handia baita.

Oharra 2000. Bortz urtez hatsa harturik (...) berriz hasi nintzen gai politikoez idazten hilabeteen behin. Baina arte horretan ez nintzen halere arras idatzi gabe egon: Hasian Hasi (1993) eta Euskal Aditz Batua (1996) burutu baintuen.

Handia bezain maltzurra

1996-01-11

Mitterrand Presidentearen hil berria jakin bezain laster idazten hasi behar dugu. Gure gogoetaren sakontzeko denborarik gabe, baina ez da probetxurik, beroan bero bada ere, ez gaudeke zerbait erran gabe horrenbertze urtez Frantziako politika markatu duen gizonaz.

Orokorki erran dezagun goi mailako agintaritzat zeukatela, bere jukutrietarako jaidura denek ezagutzen bazioten ere. Bere anbizio handiarekin bazukeen Faraon aire bat: aurpegi hotza, eraikuntza erraldoiak (denak ere Parisen eginak, artetik errateko), eta abar. Bertzetik berriz Makiaveletik ere ez zitzaion falta ikusiz zein abilki enganatu dituen bere bozkatzailleak berak asko lege eta berregituratze bideratuz ezkerraren ideietarik alderantzizkoak izanagatik. Gizon aldakorra ere izan dela erran behar: bertzeak bertze, 1958an, 5. Errepublikaren konstituzioaren alde txarrak gogor salatu ondoan, botererat heldu-eta, ez baitu deus hobetu, eskuan zituen indarrak osoki baliatu bakarrik.

4. Errepublika denboran bertzeak bezala ibili zen, herri eskubideak ukatuz osoki: Mugerreko irratia, Aljeria, eta abar. 1981ean boterean sartu zen eta 14 urtez presidente egon da (Frantziako errepublikak ezagutu duen lehendakaritza aldirik luzeena) eta hor anitz gauza balitzateke errateko. Aipa ditzagun onak lehenik: hil zigorraren kentzea, botere gehixago eskualdeei uztea, eta bereziki - anitz estimatua izan zena gure artean - komunikazio bideetan estatu monopolioaren haustea: horrela sortu baitziren gure irrati libroak. Ez dugu ahanzten Seaskarekilako hitzarmena, borroka luze eta gogor baten ondotik erdietsi bazen ere.

Lerro hauetan ez litzateke lekurik aski Mitterrand-en denboran Euskal Herriak jasan dituenak aipatzeko. Kaledonia Berriarentzat eta Korsikarentzat zerbaiten egiterat entseatu baziren ere, Euskal Herriari hitzemanak laster zokoratu baitzituzten: Euskararen Legea eta Euskal Departamendua; egia bada ere abertzaleek ez genuela beharko zen batasunik erakutsi aldakuntza horiek eskuratzeko, bereziki Euskal Departamenduaren kasuan.

Areago, sozialistak gure etsaien laguntzaile bihurtu ziren: oroit, estradadizioak, GAL, eta bertze. 1981an, 40 abertzalek dei egin zuten Mitterrand-en alde bozkatzeko. Batzuk ez ginen sartu, haatik, talde horretan, gogoan baikenuen behin batez Jean Errecart senatari zenak errana: « *Mitterrand ongi ezagutzen dut eta aldakuntza handiak egiteko ahala baluke baina berenaz ez da batere gizon fidagarria* ». Guziengatik, sortuko du itxaropen ederrik askoren baitan, gehienak laster ilaunduko eta bihozmin handi bilakatuko direnak.

Nola ez aipa hemen Mitterrand-en lagun handi batzuk bera baino makurrago oraino jokatu direnak. Entzun, Robert Badinter, denboraz euskal iheslarien aldeko abokatu izana, haxe zioen berrikitan: « *Frantzian ez da korsikar populurik izaten ahal frantses populu bat bakarra baizik. Hori da Conseil Constitutionnel horren buru egon naizen denboran lortu dudana erabakirik garrantzitsuena* ». (...) Beha ere J.-P. Destrade diputatu ohiari: komertsante tiki batzuen umea izaki-eta, supermekatuek eskaini diruarekin saltsa nahasienetan ibili dena, merkataritza tikiaren geroaz axola izpirik gabe... Badakigu ez dela botere osoki garbirik. Halere ez ote da hor okaztatzekoa ere?

Garaian garaikoa

1996-02-08

Egoera ekonomikoari begiratzerakoan ezin erranezko destorbua dakusagu: langabezia denetan izurritea bezala hedatzen ari (orokorki bizkitartean, aberasten ari garelarik) eta behartsuak gure ateei joka hasiak lehengo denboretan bezala! Lana dutenak berriz, baldintza geroago eta hertsatuagoetan ari behar dute, biharamunekoaz ikaran, sektore pribatuan, bereziki; beti eta gehiago egin behar, beti eta zaluago ibiliz « bertzeari » nagusitzeko!

Abertzaleek aspaldian jakinarazia dute gizatasun gehiago lukeen gizarte bat eraiki behar dela eta ez dugula gaurko bidetik segitzen ahal. Eta ez gara elasturietan gelditu: lanbideak sortzeko gaitzeko indarrak egin baititu Euskal Mugimenduak; gehixago ere egin zitekeelarik, gure ustez, ezker muturreko batzuen teoria hutsek ez bagintuzte kutsatu sobera luzaz. Lan baldintzez den bezenbatean ez da haatik hain errexia izanen: ez baikaitezke hor geure inguruetako jokamoldeetarik osoki desberdinki ibil.

Politikari gagozkiola, Bosniako etnien arteko gerla higuin horrek oztopatu du azkarki herrien askatasun gogoaren garapena. Halaber Korsikako anaien elkar hilketa deitoragarriek. Bertzaldetik, haatik, ez da itxaropenezko urratsik falta izan azken urte horretan. Ipar Irlandan bake bideetan sartuak dira karraskan. Hinki hanka badabiltzala? Bistan dena: nolaz izan daiteke bertzela? Zer atsegina halere holako urratsak ematen ikustea!

Gauza ber-bera erran dezakegu Palestinan gertatzen denaz, ez baikaitu gutiago hunkitzen. Zergatik? Beharbada sentitzen dugulakotz gure erro batzuk hor daudela: hainbertze eta hainbertze eragin ukan duten eta oraino daukaten sinesteen ohantzeak hor baitaude. Palestinarrak itsuski jazarri ziren Israelek gainean ezarria zien uztarri dorpearen desegiteko. Baina, garaian garaikoa, gaur bertze bide batzuetarik abiatuak dira eta gain gainetik goستن dugu, beraz, urraskako aitzinatze hori. Araberan gaitzesten dugu « dena batean » lortu edo « deus ez » nahi luketenen jokabidea.

Québec-en doi-doiatarik ez dute kausitu burujabetasuna. Baina zer urrats erraldoia ez dute egin aitzinerat zenbait urtez! Hastapen hartan, haserre gorrian jazarri ziren hor ere; baina, garaian garaikoa, bide zabalagoko batzuetarik abiatu dira geroztik: baita denbora bat denetako eta hola segitzen badute laster eskuratuko dituzkete eskatzen dituztenak... Haatik, artamendatzen diegu ez dezaten ahantz bertako indianoen eskubideak errespetatzea: ezin onetsia bailitzateke berentzat on den askatasuna bertzei uka balieziaiete...

Eta gu euskaldunak, zertan gara? Betiko galdea. Azken herrestak izanen ote gara burujabetasun eta bakerako bideetan? Segituko ote dugu geure zatiketa ezin gaindituzkoetan, Hegoaldean ala Iparraldean? Iparraldearen autonomia eskatzen tematuko ote gara departamendu bat ere ezin eskura dezakegunean? Liburuetan utz bagenitza garaipen osoen ametsak, ez baitira beti hoberenak gertatu... Gure haserrea jakinarazia dateke munduaren bazterreraino. Gudu horretan parte hartu dutenak gora eta tinko dauzkagu bihotzetan. Baina, garaian garaikoa, eta lekuan lekuko gisa, ez ote da gaur bertze bide batzuen zabaltzeko ordua etorria?

Aupa Elkarri !

1996-03-07

Ez dira egun guziak berdinak idazlearentzat: batzuetan ideiak burrustan, idatzi ahala; bertze batzuetan ez jakin nondik has eta isilik egoteko gogoak barnea betea: bila eta bila argi izpi batek ilunpea nondik zilatuko ote duen. Halaxe goiz honetan. Alabaina, nola egon igandeko hauteskundeak aipatu gabe, nolabait? Diogu nolabait zeren-eta zaila baita ikustea, bai egiazko ondorioak bai eta, areago, gu euskaldunak orain norat goazkeen.

Aznar-ek irabazi ditu beraz hauteskundeak, gutitarik, egia erran: lanak ukan baititu Gonzalez zimino handia ezin bentzutuz; honek, azken uneraino atxiki du, hainbertzetaraino non gibeletik berriz harrapatzeaz baitu biboteduna... Zein ziren horien xedeak? Lelo batzuk oroz gaineratik. Batak: « *Kontuz, eskuin gogorra dator!* ». Bertzeak: « *Sozialista ustelez aseak gara!* » Anartean, adibidez, langabezia arduratzeko...

Eta Euskal Herrian zer? Berriz ere EAJk lortu dituzke bere helburuak. Horra hor alderdi zaharra, Europako zaharrenetarik, botere zerbaiten jabe hogeitaz urte honetan, (guti gorabehera) botere higadurak batere jotzen ez duena! Galdera bakar bat datorkigu bururat: edo biziki kapableak dira edo arerioak txarrak dituzte. Hauteskunde estatalak genituen hauek eta aitortzen dugu kasu honetan biziki zaila zela euskaldunentzat ttanttoak lortzea. Ttanttoak lortzea? Urrun gara: ttanttoak galdu egin baititu gure Herri Batasunak.

Ez da haratik ez honatik, bide txarretik gabiltza. Ertzaintzak deitoragarria egin du Joan Idigoras-i lotuz. ETak lotsagarria egin du goiz honetan, ordainez, ertzain bat garbituz. Noiz aterako ote gara hondamendirat baizik ez garamazkeen lehia honetarik? Nork edo zein erakundek zabalduko ote digu euskal nazio baterako bidea, naziotasuna sendotuko lukeen bidea? Gure iritzi sozial, ekonomiko eta linguistiko desberdinak hor daudeke biziak diraueno, eztabaidagarri. Baina gaurko bideetarik ez dugu naziotasunik indartuko orain arte antolatu dena deseginen baizik.

Jadanik, Hegoaldeko gazteen erdiek ez omen dute bozkatu igandean. Alderdikeriaz lotsatuak dabilzke. Bizkitartean, gazteria gureganatu gabe, nola eraiki Euskadi? Anoetako biltzarra miresgarria izan da: tinko gaude gure presoekin. Baina ez genuke horretan gelditu behar. Gaurko egoerak eskatuko lituzke bide berrien irekitzaileak. Bertzearen aldarrikapen ozen guzien gibelean ba ote den zerbait onik aztertzeke ausartzia luketenak. Aupa **Elkarri** ! Anaiak elkarren artean etsai daudeno herrigintzak pairatuko du. Eta Espainiak (eta Frantziak) gure herri eskubideak zagopilatzen segituko dute.

Etsaia gizontzeko partez

1996-04-04

Abertzale mundua harriturik dago frantses auzitegiak joan den astean eman zigor neurrigabeen ondotik. «Ekaitza» da bakarrik ongi ateratzen dena eta ez du deus ordaintzerik baina ederretarik eskapatua da! Suerteak egin du haren dozierean huts bat bazela eta hark duela Ekaitzaren kontrako auzi guzia deuseztatu. Gure Enbata hau ez dute, haatik, hutsegin: orotar 20 milioi ordaindu behar ditu, xaharrak izanik ere ez baita guti, irauteko jadanik denen beharra duen astekari honentzat. Ikusiko orain zer ihardespen ekar dezakegun; gisa guziz, jakin bezate ez gaituztela isilaraziko, hori ez! Eta zer erran «Herriaren Alde»ri bota dioten gaztiguaz... 20 milioi, hiru aldiz... etsaia gizontzeko! Soberakina da, egiazki.

Ez da oraingoa, debeku, zigor eta bertze erortzen zaizkigula burutik behera; gure denborako lehenetarik izan zen (Iparraldean) Enbata oldearen debekatzera 1974an. Gure ondotik sortu direnek ere bakarrik jasan dituzte eta ez du iduri gauzak batere goxatuz doazenik. Ihardespen bat behar da orain baina, gure ustez, galdera batzuen egiteko garaia ere bada. Gertakari horiek guziek zertan daukate gure abertzale mugimendua, gure ideien zabalkundea, herri eraikuntza? Egiazko galderak horiek baitira. Jokabide baten ondorioak dira alabaina gaur gertatzen zaizkigunak oro. Jokabide horrek ez ote du bere muga jo? Bazterrak inarrosi behar ziren; eta inarrosiak dira. Baina ez ote da orain bertze maila batean jokatzeko ordua etorria?

Gure sumindura guzien artetik aski bertute behar dugu ukan gu baino azkarragoko horiekin ez dugula segitu behar indar jokoetan. Indarrez egin zitekeena egin dateke: bide horretarik ez dugu deus handirik gehiago lortuko gutartekoak iziaraziko izatekotz. Har dezagun etsenplu bat. Beha nola botatzen dituzten zeruan gora sateliteak. «Fusée» delako batek altxatzen du lehenik lurretik, indarrez, su eta ke, harrabots ikaragarritz bazter guziak inarrosiz. Baina, bere eginkizuna bete-eta, lehen zati horrek, bigarren zati edo estai egokiagoko bati utziko dio lanaren segida, eraman dezan urrunago, gorago, lasterrago; lehen zatiak egin ez dezakeena. Eta holaxe satelitea orbitean ezarri arte.

Enbatan denak abertzaleak dira baina bada «buru bezainbat aburu». Uste dut Enbatako jendea jende libre dela, ez dela kapera hertsia bateko «godillot»a nehondik ere. Horra zertako, librokari eta elkarren errespetu osoan gure iritzitxoak botatzen ditugun euskal debatea zintzoki hazi beharrez. Bertze maila batean lan egin behar delako ideia hori zertarik datorkigu bada?

Greba, gose greba, manifestazio, denek ukan dituzte ondorioak eta batzuetan arras onak. Baina hauteskundeetan inguruan ere ikusi dugu aitzinamendu politik. Abertzaleek %5 biltzen genuenean irri egiten zuten gutaz, mandil batzuk bezala ginderabiltzaten. Baina Jakes Aurnague adiskide zenak - etsenplu bat hartzeko - %10 gaintu zituelarik Garazin, gogoak hasi ziren aldatzen eta ez guti, mespretxioaren ondotik gure errespetatzen hasi baitziren! Areago ondoko aldiak Koxe Larrek %30 hunkiturik, Inchauspe bera ere jokabidez aldatzen hasi baita... Elkartasun osoa doakie zigortuei baina gaur, Euskal Mugimenduarentzat, hauteskunde bide hori hobea dela daukagu. Etsaia maitatu behar zela erran bazuen Jesukristok, haren gizontzerik ez baitzuen nehoiz aipatu...

Lana denentzat

1996-05-02

Ekonomia mailan egoera zinez kezkarrian sartuak garelako ote du erratea? Alabaina, hitz berek, horrenbertze aldiz errepikatuek, oihartzunik ukan dezaketenetz ere baikaude... Aldi honetakoa bada haatik zerbait: iduri luke ekonomia paralezia kolpe batek jo duela. Erostea dirua balitzateke beharbada baina jendea hain da geroaren beldur non ahal dituenak oro aurrezten baititu. Ondorioz, beha dezagun enpresa ttikiei; anitz dira oraino gure inguruetan mota guzietakoak, laborari eta arrantzaleenak barne ematen ditugularik. Barnealdeko auzo bizitza guziaren zurkaitzak (izan) dira. Bizkitartean, gaurko egoerak segi badeza eta hitzemanak zaizkigun purruxkengatik, horietarik anitzek leherregin behar dute, isil isila, nehor ohartu gabe kasik!

Herri ttikietan ez da gehiago komertziorik gelditzen ja aspaldian. Bakarren ofizioak desagertu dira eta sortu diren berriek lanak dituzte irauten. Frantzia behere horietan badira eskualdeak zeinetan ehun kilometrotaraino egin behar baita ezantategi bat aurkitzeko! Zerbitzu publikoak ere hurrituz doaz mendialdeetan. Eta jendea beti eta beti metatzen ari hiri handi horietan, hiri horietako auzo txarrenetan hobeki errateko. Gauzak makurtuz doazkigu beraz, bereziki gazteen langabezia lotsagarritzko heinean baitago.

Herri baten hustea beti da deitoragarri; baina gure zortea ere ez da hobe: lekuko gazteez husten ari eta atzeritarrez betetzen! Jadanik horrenbertze mendratua den herri honen nortasuna ahulduz horrela! Bertzela orokorki, Iparralde ez dezakegu lurralde pobreen lerroan ezar. Ardanzak berak oroitarazi digu berrikitan Iparraldeko jende bakarrak Hegoaldekoak baino diru gehiago daukala, bana bertze. Gazteen langabezia horrek du beldurtzekoa ematen, abertzaleen hainbertze lan eta buruhauste debalde izateko zorian ezartzen baititu. Guk, gazteen behar gorria dugu geure herria eraikitzeko. Gazterik gabe, etorkizunik ez! Eta gure gazte hoberenek deabruetan barna joan behar badute lan bila, nola behar dugu geure xedeetarat heldu? Gaurko bidetik segituz, garbiki diogu, gureak egin duela denbora guti barne.

Egungo egunean ez da indarra, diru kontuak, performantzia eta mundializazioa baizik aipu. Guk, ordea, bertze hauei ematen diegu lehentasuna: bakoitzari zor zaiola lana eta errespetua bai eta nork bere aberriaren gerizapean bizitzeko eskubidea. Haize kontra gabiltza, jakina, eta ez bakarrik gure agintariei buruz baina iritzi publikoari buruz ere. Nahiz-eta joan den larrazkeneko greba handiek jendea iratzartzen hasia dela erakusten diguten. Ordea, jazarriko ote dira berriz, joan den urte hondarrean hasiari jarraipen bat emateko?

Lanaren inguruan iraultza baten beharra bagenuke egiazki - gaur bezala ez baitezakegu iraun - baina Frantziako langileriak eta funtzionarioek (azken hauek ez dira gure adiskide bereziak baina horiek dirateke gaur gobernu bati amore emanarazten ahal luketen bakarrak) izanen ote dute aski kemen, kasik mundu guziaren aitzinean, bide zuzenago baten irekitzeko? Duela berrehun urte Giza Eskubideen sortzaile izan direnen umeak (nolabait bederen...) lana **deneri** segurtatu behar delako gogoarekin ba ote dabilta? Horra hor maiatzaren lehenari buruz egin gogoetatxo batzuk.

Galindo preso

1996-05-30

Ezin sinetsia baina egia: Rodriguez Galindo jenerala preso ezarri dutela Espainian! Astekari honen irakurleek badakite aspaldian Galindo nortsu den: Guardia Zibilaren buruetarik, Donostia ondoko Intxaurren, hamabortz bat urtez, gogorki jokatu dena ETaren aurkako guduan. Gainerat, gobernu sozialistak gradu gorenerat, ohore handienekin altxatua zuen berrikitan, hain zuzen azkeneko hauteskundeetan boteretik baztertua izan baino zenbait egun lehenago.

Hauxe da inarrosaldia Gaztelako jauregietan bai eta zenbait agintariren inguruetan! Iparraldetik ez da beti errex gauzen xuxen ikustea, kultura espainiarra ez baitugu aski barnatik ezagutzen. Hala ere barnatik ezagutzen dutenak ere harritu dira. Ez zena aski aldiz errepikatzen Espainian justizia eta legeen gainetik iragan zitekeela ETaren borrokatzeko baldin bazen? Berrikitan Aznar-ek ere errana zuen, «*bake demokratikoaren*» izenean, GALen aferra ez zuela argitzen lagunduko edo holako zerbait.

Berri handia zinez. Frogak baziren - bereziki CESID erakundearen arabera - jeneral horrek ekintza higuinagarrienak burutu zituela, bertzeak bertze, Josean Lasa eta Josi Zabala iheslariak bahituz eta hiltzeraino torturatuz. Baina sinestea ere bazen ez zela bere burutarik ari, goragotik ukaiten zituela aginduak, erran nahi baita gobernutik eta menturaz gobernuburutik beretik! Eta Felipe Gonzalez sareen artetik eskapatu zenaz gero (noiz arte?) iduriko zukeen, horrenbertze ikustatez inguratua izana zen jenerala ere gerizatzen ahalko zutela...

Orain ikusiko Galindo nola ibiliko den. Ez da dudarik hura preso sartu duten epaileek sekulako presioak jasanen dituztela berriz libro utz dezaten. Baina gure gustuko zailena egina dukete eta prest daudeke ihardukitzeko. Nork dakike, ordea, zer gertatuko den? Eta Galindo bera mintzatzen hasten bada? Hori ere ez da ezin asmatua gaurtik. Horren gorako kargudun bat justiziapean epaigarri eginez, demokrazia espainiarra indarturik ateratzen da nolabait. Baina Galindok dakiena erraten badu, edo dakienaren parte bat, orduan orduan lurrikara Espainian, eta beharbada mendiz honaindian ere!

Dakigularik, gertakari honetaz, frantses telebistak ez du deus zabaldu, gaur arte bederen. Beti prest dira bertze estatuetan gertatu demokrazia eskasen salatzeke (eta Frantziarenak isiltzeko, bistan da...) Galindoren ekintzak ez ote ziren salagarriak? Zer dira ziliporta zenbaiten beldur? Gaizo liliak ez bertzeak!

Euskal alderdien adierazpenak asma zitezkeen bezalatsukoak izan dira gehienak: atseginezko solasak. Ardanza eta Atuxaren hitzak, haatik, epelak atzeman ditugu, biziki epelak: asmatu ere nahi ez ditugun susmo txarrenak pizterainokoan! Lotsatzekoa ematen digute, hain beharrezkoa genukeen euskaldunen arteko gutienezko batasun hartarik urruntzen baikaituzte.

Dena den, batzuen ahuleziek ez ahal dituzte bertzeak bultzatuko ekintza beltz haietarat, hainbertze gostarik irabazi gaurko ttanttoak, suntsiturik, ketan igorriko bailituzkete...

Isilarazi nahi gintuzkete

1996-06-27

Berriz ere Enbata ateketan dugu. Auzitegiatarat jauki dute Cathala komisarioaren fama kolpatu duelakoan. Egia da, Enbatak goraki salatu dituela PAFeko gizon horren jukutriak bereziki Hegoaldetik etorri iheslariak barrandatu baititu espainiar poliziaren laguntzeko. Halaber gure kazetak aipatu ditu zelatari lan horrengatik Cathalak sakelaratu dituzkeen dirutza ezin sinetsiak.

Baina salaketa horiek ez ditu Enbatak bere burutarik egin. Bera baino anitzez hedadura handiagoko hedabide eta kazeta batzuek (AFP agentzia, El Mundo, eta abar.) jadanik zabaldu berriak ditu bakarrik publikatu. Hau da bitxikeria: kazeta handi horiei baino zigor aise handiagoa ezarri diotela Enbatari, hedaduraren arabera biziki gutiagokoa ukan beharko zukeelarik! Pentsa dezakegu beraz, oroz gainetik, gure agerkari hau zutela zigortu nahi. Horrenbertzez, ez ditugu ahanzten, neholaz ere, kasu berean diren « Herriaren Alde »koak, guk baino hiru aldiz gehiagoko isuna pagatzerat behartu nahi lituzketenak!

Ekainaren 26an, Paueko dei auzitegian ikusiko da zer erabakiko duten. Ez dugu sinetsi nahi holako zuzengabekeria bat baieztatu nahiko dutenik. Handiegia da. Libertatearen etsaiak (eskuin muturrekoak) goiti ari diren garai honetan batetik eta bertzetik diruan ihauska dabiltzalarik bertze batzuk, ez ahal dute urkatu nahiko kazeta ttiki hau? Norat gindoazke orduan... Gure gazteen haserre arrazoiak piztuko luketela ez da dudarik. Haserre bortitza (beharbada hori dute bilatzen...); baina, berriz ere diogu, Euskal Mugimendua indartuko baino segurago polizia gizenduko lukeena.

Joan den asteko zenbakian oroitarazi da gure kazeta honek lehen ere jasan dituen batzuk, auzitegiatan eta bertze. Horrengatik ez du behin ere amore eman eta azkenean auzi horietarik zenbait irabazi ere egin ditu. Legezko kazeta baita gurea: seriosa, argia, zorrozki ari dena baina behargabeko gaiztakeriarik gabe. Mamari atxikiago gaude azalari baino. Hainbatez, bistan dena, poxeluago gaituzkete. Ausartzia horrek eta idazleei utzia zaigun askatasunak petto zenbait ere eragin dituzte, baina kazetaren bizitasuna zaintzeko ez dateke bertze biderik. Enbataren betiko akatsa, euskararen toki xuhurra, langile eskasez edo hobeki errateko euskaldunek geure indarren barreiatzeko dugun jaidura gaiztoagatik.

Gure kazeta hedatu da, ez bakarrik Euskal Herrian baina ere gu bezalako populu ttiki menperatuen artean. Jakes Abeberry zuzendari eta idazle nagusiak eman dio arrakasta zabala bere luma paregabearekin: jakintsua, ernea bihirik baldin bada, esperientzia luze baten jabea bertzalde, iritziak azaltzen ditu, goratik bezain barnatik, beren ñabardura guziekin, bazterrak argitzen eta higiarazten dituela. Urteak joan eta urteak jin, beti beretik dabil: gogor helburuetan, eskuzabal eta pragmatiko ekintzetan. Ez da ele hutsetan mugatu Enbataren sortzaileetarik dena: sail guziz ohargarria eta emankorra baitarama, bertzeak bertze, Miarritzeko herri gizon hautetsien artean.

Zuri gaude, beraz, Jakes eta zuri ere bai bertze Jakes (Bortayrou) Euskal Herriko abertzaleak zuen ondoan gauzkazue, tinko. Herriaren oihua ez dute isilaraziko!

Ohiturak eztabaidan

1996-09-19

Zer zalapartak Hondarribian beren Alarde famatuaren inguruan! Aspaldiko ohitura dute Alarde hori eta, karia horretarat, bertzeak bertze, 1638. urtean frantsesek egin setioagatik hil zirenak gogoratzen dituzte. Ospakizunaren ezaugarri nagusia ibilaldia da, militar gisa egiten dutena, egiazko armekin eta kanoiekin, tiroka eta denak! Partaidetza gizonezko hutsez osatua da, doi-doia kantiniertsak batzuk onartzen dituzte beren artean. Hots, aspaldiko militar ohiturei darraizkie.

Berrikitan emazte talde bat sortu da Alardean armadun bezala parte-hartzeko xedearekin. Sekulako liskarrak piztu ere, ondorioz Hondarribia bitan zatiturik baitago gaur egun! Emaztekiek ez dute arrazoi eskasik hola agertzeko: alabaina, kantiniertsak soilak, haientzat - egin eta pairatu duketen guziaren ondotik - oroitgarri guziz eskasak diratekeela errexki ulergarria baita.

Artikulu honen egilea ohituragintzan jokatu da luzaz baina, egia errateko, ez zaizkio hainbat gustatzen militar kutsuko ospakizunak eta behin ere ez da izan, Hondarribiko Alardearen ikusten! Beraz, lehenik eta bat, argi eta garbi diogu ohitura guziak ez zaizkigula gustatzen, baina batzuen jasaten badakigula...

Zuberotar kazetari batek « *faxistak* » deritze, Hondarribian, emazteen parte-hartzea onartu nahi ez duten kexatu batzuei (Egunkaria 1996ko irailaren 13a). *Hi, adiskidea, badakikek arras ongi badirela ohitura batzuk gizonei dagozkienak eta bertze batzuk emazteei. Adibidez, neskak zamaltzain ikusten ditiagu orain, baina hori beharraren eragina duk eta ez dukek gomendatzekoa. Diok Zuberoako pastoraletan emazteek parte hartzen dutela azken urte hauetan. Bai, eta biziki ederki duk hola; ordea beren ohiko rola, emazte rola, betetzen ditek, gizonen mailari deus zorrik gabe. Otoi ez dezagun konpara pastorala alarde bati, bertze ahalik eta aberastasunik baitauka.*

Bazakiagu, *faxista* hazia badela gizonaren bihotzean; baina halere, ez ahal duk kexaldi bat, den saminen ere, *faxisten* bortizkeria odol hotzekoari konparatuko? Ohituretan gaudela, *Baztango Mutil Dantzetan*, neska bat tartean sartzen bada, musikariak gelditzen dituk jotzetik, neska ateratu arte. *Faxistak* haiek ere? Euskal gizarteak toki handia eman ohi zioke emazteari « *etxeakoandre* » gisa, gizonari « *nagusi* » zioelarik, baina hemen « *etxeakoandre* » izena ez duk « *nagusi* » hitza baino gutiago: « *nagusi-etxeakoandreek* » osatu izan ohi baitute familiako edo etxalde batetako kudeantza. Haatik, herriko plazetan, joko eta ohiturei dagokienez, gizonak hartu izan ditek maiz leku gehiena, gure inguruko herrialdeetan bezalatsu; ez gaituk hor eredu.

Ene ustez, ohiturekin ez dik jostatu behar indarka gauzak aldatzen: gogoak dituk tai gabe aitzinarazi behar. Ohituretan baduk zerbait axala baino barnago, partaidearentzat sakratua dena eta ez duena deus ikustekorik dagien jestu zehatzarekin. Gai sakona duk hori eta ez diagu hemen lekuri ingurua egiteko. Haatik, labur bilduz bederen zenbait galdera egin nitzakek: lehenik Alardea ohitura sailekoa da ala bertze ikusgarri zerbait da? Ohitura baldin bada nola azaldu, trahitu gabe, gizon emazteen arteko berdintasun osoz, ohitura hori desberdintasun egoeran sortua bada?

Gerla, alabaina, gizonen erokeria izan da, salbuespenak salbuespen; berek erabakia edo jasana. Bertzalde ohitura batzuk ez ote genituzke uzten ahal, beren libertatean, gehiagoko garrantzirik eman gabe? Gure ustez sorkuntza eta ohituragintza ez dira nahasi behar. Ohituragintzak ere berritzapen batzuk onar ditzake baina bere gogoari hertsiki jarraikiz, zeren-eta bere legeak baitauzka, batzuetan gaurko ikuspegi modernoetarik kanpo gelditzen direnak...

Rufino Jauregi ohoratua

1996-10-16

Urriaren 5ean arratsalde goxo bat iragan dugu Ezpeletan. Seiak alderat, jauneria eta adiskide andana baten aitzinean, Rufino Jauregui jaunari eman izan zaio « Légion d'Honneur » ohorezko medaila famatua. Ez du ebatsia gizon horrek, Frantziak erakutsi dion ezagutza, azkenean, 50 urteren buruan! 1913an sortua da Rufino, Gipuzkoako Gabirian. Soldado zelarik piztu zen 1936ko gerla zibila eta, zuzentasunaren alde hitzegiten zuelakotz, harrapatzeaz zuten baina Iparralderat ihes egitea lortu zuen. Eta holaxe hasiko du iheslari bizi bat harrigarria.

Kontrabando pixka bat egin zuen lehenik, bizitzeko zerbait egin behar baitzen! Geroxago Herran-tarren etxerat bilduko da, Kanborat, hauek ere Hegoaldetik ihes etorriak baitira eta hor « Uraldearen » jabe paratuak. Gure Rufinok laster erakutsiko ditu bere ahal paregabeak, gauazko lan horretan, bere ohiko zuzentasun gogo hari eutsiz, haatik! Holaxe, atzematen du bigarren gerla mundialak eta, naturalki, hasiko da Frantzia behere horietarik etorri gizon eta emazte iheslari batzuen bidaltzen ere mugaz bertzalderat.

Gordeka dabiltzanen artean laster hedatu zen Rufinoren fama; hitza neurriz, begi beharri erneak, mendiko ezagutza fina, osasun gaitza bertzalde eta horra zertako galdatu zioten pasatzaile « Réseau » edo Sare batean sartzea. Onartu ere baitzuen. Ahurtiko garan hartu behar zituen iheslari multxoak (dozena bat pertsonakoak) eta lehenbiziko etapa Beskoitze « Lekuederrean » zuten, indarren berritzeko, Robles-Arangiztarren etxean; hauek ere, orduan, Hegoaldetik ihes etorri berriak. Bigarren etapa Herran familian, Kanbon beraz, eta gero handik mugaz bertzalderat. Horra, larri-larria, zer nolako egoeran jokatu izan duen Rufinok: Hegoaldean ala Iparraldean, bietan herio mehatxupear eta, halarik ere, beti zuzenki eta denen zerbitzari; horrek ere egin baituke hemen aurkitu duela beti behar zuen laguntza berak dioenaz.

Horrela, delako Sarearentzat seiehun bat pertsona pasatu ditu; bertze laurehun bat ere bidaltzen zituela bertze bide batzuetarik etorriak. Ez du nehoiz berekin hartu pertsonarik bidean galdu: gustarik gusta, bere biziaren irriskuan, denak eraman ditu Bertzalderat, Sarearekin hitzartu lekuraino. Pasatu dituen horien artean bazen denetarik: judu, armadako gizon, presoner eskapatuak, STOari ihes zihoazenak, hots, jende xehe eta handiki, iheslari soil ala gudua segitzeko asmoz zebiltzanak. Multxoko gorabehera guziak berak kudeatzen zituen; janaria, sendagailuak eta bertze. Gastuak ere bazituela ikusten da eta beraz dirupizar bat eskatzen zitzaiola iheslariari, nolaz egin bertzela? Baina pilik ez zuena, edo bidean denak utzi behar ukan zituen, berdin eramaten zuen bertzeekin, bertzeak bezala. Erresistentzian ere sartzen da eta Miarritzen Alemanen gerizategi bat zapartarazi zutelarik Rufino han zen lanik zailenak eta irriskutsuenak beregain hartzen zituela.

Gero « bakea » etorriko delarik Rufino familiatuko da Ezpeletan, « Erreka » etxaldean eta isil isila laborantzari lotuko. Eta hantxe, kasik ahantziko dute denek. Berak beretzat ez du deus galdatu behin ere. Erresistentziako « handi » horien artean ez da sartu: gogo askeegia zukeen... Dena den, urrats asko ibilirik, Maryse Ospital beskoiztarrak erdietsi dio gaurko medaila, omenaldi ofiziala Darraidou auzapezaren eta Lamassoure-ren gain baldin bazen ere. Bi hautetsi hauek jakin dute behar zirenak erraten; ministroak gogoz eman ditu xehetasun guziak! Ederki gaurkoan. Gu, gerokoak geroko « hoberena gogoan »...

Bi anaiak

1996-11-14

Gauza jakina zen zenbait urte haietan Nazio Batuen Erakunde bat bazegoela eta New-Yorken, herri burujabeen ordezkariak biltzen zirela, munduko arazo larrienak zuzentzerat entseatzeko. Bertze populu tiki askoren ildotik eta bereziki mugaz Bertzaldekoen urratsek sustaturik, gure bi anaiak - Manex eta Ganix - ohartu ziren Euskal Herria ere, bere zazpi lurraldeekin, nazio bat dela eta balukeela batzar ospetsu horretan parte-hartzeko eskubidea. Baina nola eraman euskaldunak beren nortasun osoan ezagutuak lirakeen maila goren horretaraino?

Bi anaiak ados jarri ziren: « *Autobus bat apailatu behar diagu eta bideari lotu!* » Segidan jendea biltzen dute poliki, gaztea bereziki. Giroa berotzen da eta aspaldian hasi sailen gainerat horra hor, Aberri Egunak, ikastolak, kantaldiak, Dantzari Egunak, Nafarroaren Egunak, irratigintza eta, zailena beharbada, gazteei lan bat eskaintzeko ahaleginak! Autobusean anaitasun handia sentitzen da eta bihotzak itxaropenez beterik daude.

Baina hemen, bi anaiak hasiko dute gizakia bezain aspaldikoa den eztabaida, hau da: helburu urrunetan berdintsu izanik ere harat heltzeko bideak ez berdin ikusten. Batak bide laburrena hartu nahi, den bortitzena izanik ere; bertzeak berriz pentsatzen duelarik, bide zelaia goa harturik ere, izanen dela aski lan jendearen biltzeko: mendeak baititu, alabaina, Frantzia « handi eta dirdiratsuari » itzuliak direla euskaldunak. Eta iduritzen baitzaio ere ez dutela hala-holaka utziko eskuan dutena, abertzaleen autobus hori guziz fidagarria sentituko ez duteno bederen.

Dena den, badakite biek hartu bidea dorpea izanen dela: estatu menperatzailearen malezia gogorra batetik eta euskaldun askoren axolagabekeria bertzetik jasan beharko baitira. Eta futxo, bide handiz edo laburzka patarra igan behar! Ganixek nahi luke galdu denbora harrapatu eta deblauki botatzen du: « *Motorra aski bero dezagun eta bigarrenen abiatuko gaituk!* » Manexek ihardesten dio: « *Eroa ote haiz ala... denak zapartaraziko dizkiguk; lehenean ere abiatzen bagara ez duk txarra izanen!* » Eztabaida luzatzen da eta holakoetan gertatzen dena egiazko etsaia ahantzirik jo zeingehiagoka anaiarekin. Batzuk, asperturik, hasi dira autobusetik jaisten.

Manexek, egia erran, errexki ulertzen du Ganixen iritzia: milaka eta gehiago arrazoi ikusiko bailituzke, hark ere, indarka jazartzeko; oroitzen baita menperaturik daukaten ama Euskal Herriaz edo euskal presoei nola mendekatzen diren. Baina ere badaki denborari epe bat utzi behar zaiola bere lana egin dezan, ideia berriek beren bidea egin dezaten.

Alderdiak sortzearekin eztabaida hedatu da autobusean: batzuek diote Euskal Departamendua onartu behar dela abiapuntu bezala, hori gabe ez daitekeela urratsik egin eta jendearen onespén politiko zabala gabe, gaurko egunean, ez dela deus onik aterako. Bertzeek berriz madarikatzen dute departamendua, frantses zentralismoaren ezaugarri nagusia! Autonomia nahi lukete berehala.

Eztabaidak dirauela, auzapez zintzo batzuk lotu dira gaiari eta, Inchausperen laguntza ederki baliatuz, iritzi argia plazaratu berri dute. Jean Grenet Baionako auzapeza kontra jarri zaie, haatik: izitua dateke, beharbada lotsa, bihar Euskal Herriari buruz ukan litzakeen erantzukizun handien aurrean! Anartean, bi anaiak elkarri hurbildu dira, azken adierazpenen arabera segurik; aitzina hortik lehia balitez bigarren urratsa lehen hau baino lasterrago eginaraz lezakete...

Euskaldunak lanean ari

1996-12-12

Euskal Mugimenduari orokorki behatzen delarik harrigarri da ikustea zer lanak daramatzaten euskaltzaleek. Eta, maiz hizpide ditugun arrangurak utzirik, ohar gaitzen, gaurkoan, gure urratsen emaitza zenbaiti. Denak ezin aipa, nehondik ere, hona lehenik gogorat heldu zaiguna: « Euskaldunon Egunkaria ». Seigarren urteburua zuen joan den abenduaren 6an. Egunero 12.500 ale inguru ateratzen ditu. Euskal Herriko eta mundu zabaleko berriak bildurik, denak euskara hutsean eta euskara ederrean oraturik, heltzen da gure zazpi lurraldeetarat. Lan ikaragarria: funts eta iraupen handia eskatzen dituen. « Egunkaria » urtetik urterat erroak barnatuz doakigu eta gaur egun euskal munduko egintza ohargarrienetarik bat bilakatua da. Ez da laguntza ttikia, Iparraldekoentzat ere, holako argibide iturria, elkarren lokarri dagoela muga guzien gainetik. Zorionak!

Euskal Laborarien Batasuna ere ez dago bada lo. Laborari ttikien alde bermatzea, geroa doi bat bederen segurta lezaketen bideak bilatzea, ahalaz laborantza garbiagoko bat sustatuz gainerat, horra hor sindikatu horren jokabidea eta, bistan dena, gain gainetik goستن duguna! ELBkoek, lerro hauek idazten ditugunean, DDAko bulegoak okupatzen dituzte Baionan, esnearen inguruan hitzemanak zizkietenak ezin errespetaraziz ari baitira. Jokabide gogorra baina duintasuna kolpatzen ez duena; beharrezkoa ere, bertze bideak antzu gelditu direnaz gero. Eutsi gogortasun horri!

Euskal Departamenduaren aldeko hautetsiek ere, Jean Aniotzbehere buru, tinko jarraitzen dute beren bidean, geroago eta indartsuago sentitzen ditugularik. « Atxuriatik Larrunerat » Kultur Hilabetea, mendiaren inguruko egitarau eder batekin badabil eta agian merezi lukeen arrakastarekin joanen da bururaino. Atsegin handirekin irakurri dugu ere, Maulen, ikastola berri baten eraikitzerat doazela, Zuberoako herri andana baten laguntzarik gabe, haatik. Horretaz, irakurri baitugu berrikitan, herri gizon anitzek kiroldegi batentzat aise diru gehiago badaukatela ikastolarentzat baino! Etsigarria, baina zuberotar zintzoak etsiaraziko ez dituen, baitute holako bat gaingiturik. Segi eta atxiki!

Beti atsegingarri da, « Urtats-afari goxo » baterako gomita eskuratzea. Gaurkoa, « Oxtikenea » Senpereko taldetik etorria zaigu. Joan den ekainean, ehun bat lagunek osatu sozietate horrek erosi du etxe bat, karrikan berean, euskal kultura bilgune baten sortzeko xedearekin, Urdazuri ibaiaren hegian. Proiektu honetan, herriko abertzale zenbaiten ez parte-hartzea deitoratzen bada ere, badirudi gauzak aitzinatuz joaki direla, poliki poliki. Jadanik berritze lanak hasiak dira eta laguntza dator urrundik ere: uda honetan bi taldek beren eskukaldi baliosa eskaini baitute: batzuk Arrasatetik etorririk, bertzeak Flandriatik. Aupa « Oxtikenea », oztopo guzien artetik!

Kultura bideetan oraino, asteburu honetan jakiten dugu Otxalde taldea berriz agertu zaigula disko berri batekin. « Pottoka Mendian » betiko ohoratu zutenak, aldi honetan haurrekin eta hurrei buruzko lanarekin datozkigu. Berrehun baten parte-hartzea erdietsirik moldatua, « Eguzki Lore » fedegintzaren inguruko bertze lan bat gogoratzen digute. Jo beraz bide guzietarik! Gu loriatuak, ikusiz hutsune nabariak betetzen ari. Emak hor, Otxalde!

Bego gizona bere herrian

1997-01-16

Joan den abenduan Jacques Chirac-ek erasiatu ditu frantsesak baizik-eta eraberritzerik ez dutela onartu nahi: kontserbadoreak direla bota die aurpegirat! Denek dakigu nortsu zituzkeen gogoan. Begietan, lehenik, oraino ihardukitzen duten sindikatuak, bertzeak bertze, burdinbideetakoak, 1995eko abendu luze hartan, buruhauste gogorrik eman baitzioten! Ez zukeen ere ahantzia, bistan dena, berrikitako kamioilarien greba. Artetik errateko, mugimendu hau guziz emankorra bihurtu da jendearengandik onartua izan delakotz, zekarzkion traba eta neke guziengatik.

Lege zaharra itzulipurdikatu digu Chirac-ek: lehenago nagusi eta jabe handiak ziren kontserbadore ez baitzuten onartu nahi langileen aldeko hobekuntzarik. Baina gaur ez: jende xehea, langileak lirakeke kontserbadoreak! Behar du kopeta, Presidenteak, holakoa botatzeko... Alabaina, dugun ikus zer den Chirac-en (eta haren lagunen) delako erreforma, aho beteka darabilgutena eta gure gaitz guzien sendagailu litzatekeena omen.

Labur bilduz erran genezake dela, langileak nahi bezala erabiltzeko ahala nagusi eta jabe handiei berriz ematea, emeki emeki; edo/eta ekonomiaren, diruaren eta zifren diktadura onartzea. Bertzela erran, bi mendeetako borrokaren bidez langileek lortu lan-sari, opor-egun, laneko-lege, erretreta, aseguru eta bertze, denak murriztea ozkaz ozka, lanaren prezioa apaltzeagatik herrialde erromesek bezain merke produzitzeko! Eta gero harritzen dira (edo alegia egiten) langileak laharra bezala lotzen badira hainbertze gostarik erdietsi zuzenei...

Gaur « indar baten egitea » galdatua zaigu denei langabezia ttikitzea dela helburu, omen. Zer dakusagu, ordea? Lehenik, frantsesen aberastasuna bikoiztu egin dela azken 20 urteetan (1975-1995) enplegu baten eskuratzea beti eta nekeagotuz doalarik. Bertzaldetik, batzuk sekulako irabaziekin ikusten ditugu edo berdin sakelak betetzen ari, ustelkerian. Beha ere nola lantegiak burrustan badoazen lana merkeago den erresuma eta kontinenteetarat! Geroa hola apailatzen duten politikeroekin, nola nahi duzue jendeak onar dezan sakrifizio egiterik?

Ez aspaldi indar handi bat egin behar genuen « formazioari » buruz. Guk ez dugu formatzearen beharra ukatuko, baina, hor ere, nork ez ditu ikusten horrenbertze gazte tituluz oratuak eta halere lanik gabe? Edo oraino 50 urteko gizon esperientziadunak zaharregiz (ala karioegiz?) lanetik baztertuak?

Langileen « mobilitatea » ere lortu nahi lukete. Hura ere langabeziaren gainditzeko bide bat, omen. Baina nola onar dezakegu, egun hemen eta bihar berdin mila kilometrotan lan egitea? Langileak berak, baina ere bizikideak eta hurrek nola jasanen dituzte holako desterrualdiak? Eta horien ondorioak? Dohakabeak ez ote, gizonak eta emazteak, bizi guzian ezker eta eskuin, erro guzietarik urrun, ar eta eme soil, diru irabazteko tresna bilakaturik bizi behar balute hemendik aitzina?

« Atzerri otserri »: garbiki diogu EZ mundializazioaren lege itsu eta oiesari. EZ, diruaren diktadurari. Iduritzen zaigu geure beharrik larrienak produzitzen ahal ditugula guhaurk, soberakinak sal eta eskas ditugunak eros genitzakeelarik. BAI berrikuntzari eta herrien arteko harremani. Baina « *ekonomia zaindu* » behar dela ere diosku Herri Batasunak. Osoki bat gaude hor. Indar guziez jokatu lana herrian sortzeko, elkartasuna eta euskal kultura sustatu, horra zeri eman genezakeen guk lehentasuna. Horretarako estatu boteretsu baten beharra badukegu. Euskadi izan liteke...

Zinez deitoragarria

1997-02-13

Denek gogoan genuen Europako hizkuntza minorizatuen aldeko Ituna edo Xarta Frantziak ez zuela sinatua. Gaia aski aldiz aipatua izana baitzen, han eta hemen, anitz garelakotz Hexagonian Itun horren galdez gaudenak. Ez itun batek Euskara salbatuko lukeelakoan, ez ez: bertzerik ere beharko du gure hizkuntzak iraungo badu jaikitzerat doan 21. mende horretan! Baina laguntza guziz baliosa ekar diezaiokeelakoan geunden; hots, urrats bat, ezagutza osorako bide luzean.

Gure inguruko estatu gehienek izenpetua dute Itun hori; Frantzia zegoen mutur, bertzeak bertze, Zipre, Grezia eta Turkiaren multxo ahalkegarrian. Halere, iazko maiatzean, Britainiako hitzaldiaren karietarat, Jacques Chirac-ek berak itxaropen zerbait piztua zigun, frantses politikari handi baten hitzetan konfiantzarik izan daitekeen neurrian, haatik! Eta ez ziren apalago mintzo « gure » bi ministro handiak, Bayrou eta Lamassoure, bata ala bertzea, kasik zeingehiagoka, gure hizkuntzaren alde ahoa irekitzen zuten aldi bakoitzean...

Joan den ortziraleko prentsaren bitartez jakin dugu beraz berri hitsa: Estatu kontseiluaren iritziz, Europako hizkuntza minorizatuen aldeko Ituna onar baledi frantses konstituzioaren aurka lihoakeela. Aholku hori emana izan da konstituzioaren 2. artikuluan erraten denari begiratu, hau da: « Errepublikaren hizkuntza frantsesa da ». Lelo berria baitugu hau, balio du hurbiltxagotik beha diezaiogun.

Alabaina, 1992.a inguruan Lamassoure Baionako diputatuak proposatua izana da aldarrikapen hori, geroxago « *Amendement Toubon-Lamassoure* » izendatu badute ere. Lehenago, 2. artikulua horrek, frantses bandera bakarra aipu zuen, halaber himno bakarra, baina ez zuen erabakitzen hizkuntza baten nagusigorik. Emendakin hori ingelesari ihardukitzeko ezarri omen dute. Estakuru ederra! Lamassoure-k, Euskararen alde mintzatzeko xedetan zelakotz, « euskaldunegitza » ez zedin hartua izan, nahi ukan dituzke lehenik gauzak argiki eman. Hala baitira jauntxoak: lehenik « eskuak garbi », urrats garrantzitsu bat eman aitzin... Orain dastatuko ditugu emendakin horren ondorioak: ez du ingelesaren nagusigoa ttikituko baina bai gure bidea oztopatuko; ez genuen bertze beharrik!

Zuzen den bezala euskaltzainburua eta Euskal Konfederazioko lehendakaria mintzatu dira, gogorki salatzeke aholku deitoragarria. Dei egin nahi diete, beren indar guziez, bi ministroei konstituzioa aldatzeko bideari lot daitezen berehala, Itun hori onartzeko gai izan dadin. Pentsatzeko da euskaltzale guziak, bide beretik eta denak batera ibiliko direla eta elkarturik, ahalaz, bertze Hexagoniako gure kasuan gertatzen direnekin.

Ordea, ez dugu gordeko oztopo guziz bihurriaren aurrean garela orain eta ez dugu ikusten nola gaindi genezakeen, gaurko indarrekin bederen. Ez baita ahanzi behar emendakin higuin hori sartu zutenean diputatu batzuk entseatu zirela (Jean Briane bereziki) lege hori ez zedin gerta hizkuntza minorizatuen kaltetan. Baina gizon zintzo horien deia **baztertua** izan zen (ikus Enbata 1992-7-2koa). Nork uste du, behin indarturik, aulkirik gorenean ezarri ondoan eta bortz urteren buruko, jakobino amorratuek (eskuinekoek ala ezkerrekoek) frantsesaren nagusigoari uko egin nahiko dutela?

Zer egin beraz? Euskaltzale buruen urratsak erroitik lagundu bistan da; baina ere euskararen alde jokatu Iparraldeko gehiengoak onartu arte. Oroit iaz auzapezek eman urratsaz. Katalunia, Flandria edo-eta, hein batean bederen, Hegoaldea ere, hor ditugu erakusle.

Fruitu harjoa

1997-03-13

Bi gertakarik hunkitu gaituzte aste honetan. Biak Belgikatik datozkigu eta, jakina, estatu horretako aberrien gorabeherei (Flandriar adiskideenei bereziki) hurbildik eta begirunez jarraikitzen gatzaizkiela... Gisa guziz, ez dezala nehork pentsa urrun dela Belgika: egungo egunean, gutarik bi urratsetan baitugu! Lehen gertakaria, beraz, Renault enpresa handia (orotarik 100.000 lanpostu) lantegi bat hesterat doala: lantegi hori (3.000 lanpostu) arras performantea delarik alta. Bigarrena, pedofilia edo haur maitekeria uste baino barnago sartua dela gure Europa mendebaldeko gizartean: bat-batean, ezinbertze jasangaitz bat hedatzen duela gutaraino. Baina bigarren gai hau, bertzaldi batetako utziko dugu, lehen horren jorratzen ere baitukegu aski lan emana zaigun orrialde erdi honetan.

Ezin onetsia zaigu Vilvorde-ko lantegi guziz modernoaren hestea. Alabaina, lantegi horretan langileek onartuak zituzten, nagusien gogoko guziak, bertzeak bertze, « flexibilité » edo lan orduen antolaketa malgua, produktibitate handiena lortzeagatik. Horrela, langileek uste zuten beren geroa segurtatzen zutela. Iratzartze gogorra izan da bazter guzietan. Bagenekiena frogatua dago hemendik goiti: langilea, performantea izan ala ez, gutien ustean langabeziaren aztaparrak harrapa dezakeela.

Liberalismoak ba omen du ikustekorik libertatearekin. Itxura bederen baluke. Gaurkoan, haatik, erran dezakegu liberalismoak hegala mozten ari dizkiola libertateari. Gizona gero eta gutiago errespetatzen baitu, ekonomiaren legeetarako bihurturik eta ongi xurgatu ondoren, zakartegirat bota baitezake, diru kontu handietan eskualde txarrean gertatzeko zorigaitza baldin badu. Orduan, langile zintzoenak ere berdin langabezia dasta dezake, bere ondorio hits guziekin. Horra hor beraz liberalismoaren fruitu harjoa, eta halere mahaian, ahalkerik batere gabe.

Hola hola segitzen ahal genuke diruzale eta manatarien jorran eta ez arrazoirik gabe. Baina egun bertze zerbait ere behatu nahi genuke. Libertate osoa nahi dugu gure erosketentzat, ahalik eta merkeenik bilduz gainerat, karkulatu gabe gure jokabideak zer ondorio dukeen enplegu mailan, lanbideez arduratzea soilik **bertzeren** egitekoa balitz bezala. Ez aipa neholako diziplinarik, xintximariak ikusiko baikenituzke: Pétain, Poujade, moralistak, hots, gureak eta asto beltarenak entzunen! Bizkitartean, kasik irri egingarri da eskatzea guk geure diruarekin nahi duguna egiteko ahala, diruzale puxantei oroitaraziz gure lana segurtatu behar dutela. Lekutan gara...

Zer erran nahi dugu hor? Gure erosketen ondorioez arduratu behar genukeela gehixago. Erostekeo libertate oso hori ederregia dela eta horrek izorratzen ari gaituela. Adibidez, nahi genuke jakin zenbat auto japonesez erosten den European, geuretan hautarik aski ez bagenu bezala... Buru handiak, alabaina! Ekonomia elkarri josiago eta performanteago baina hauskorrago ere ari da bilakatzen: bakoitzaren erantzunkizunari dei egin behar zaio, gure eskakizunei indarrak ematekotan.

Bertzalde, European aldeko sutsuak izatu gara baina gaurko Europak trahitu ditu gure esperantzak. Europa nahi genuen gure aberastasunen banatzeko lehen urrats bezala. Eta hona non Europa, sortu orduko, ireki diguten, kasik zabal zabala, mundializazioari. Europa baita gutienik gerizatua den kontinentea. Ez gaude sor eta gor munduko miseriari, baina ez ditugu etapak jauzi egin behar, zentzu izpi batek berak hori gomendatzen digu.

Euskara eta Iparraldea

1997-04-10

Joan den ortziralean, Donibane Lohizunen, ukan dugu hitzaldi garrantzitsu baten entzuteko parada. Gaia zen: Euskara Batua eta Euskalkiak; hizlaria berriz: Jean Haritschelhar euskaltzainburua. Ikusiz gaia bera ala hizlaria, ez genezakeen hutsegín...

Mintzaldi bizi eta sarkor batean entzun ditugu hor euskara batuari buruz egin izan diren urratsak, gainditzén zituztela eztabaida eta oztopo guziak. Kartsuki ari izan da gure hizlari jakintsua euskara batuaren alde, gure inguruetako hizkuntza handien batasunerako bideak aipatzén zituela, bereziki gaztelania, italiera edo frantsesarenak. Azpimarratu du ere, batasunerat heldu ondoan erdietsi dituztén emaitza handiak.

Gaia hain zabala izanik, ez zezakeen itzuli osorik egin arrats batez. Baina, puntu bat bederen, gure ustez oinarritzkoa, itzalean utzia izan da, hau da: Hegoaldean eta Iparraldean euskararen egoera sozio-politikoa desberdina dugula. Artetik errateko, politika alorrean ere maiz huts berean erortzen gara. Hegoaldean euskara goiti ari da, guti bada guti, hemen aldiz buruz beheiti. Han, euskal instituzioak badituzte, unibertsitateak, botere politiko zerbait ere bai, ahanzi gabe euskara hizkuntza ofiziala dutela. Hemen aldiz, Iparraldean, horietarik deus ere ez dugu eta, bizkitartean, badirudi euskarari heltzeko orduan Euskaltzaindiak ez duela guretzat jokabide berezirik gomendatzén.

Badakigu izigarri zaila dela gure kasua, batasunik gabe euskarak ez baitezake iraun. Baina zoritxarreko Iparralde honetan ez dugu gaur ikusten nola frantsesen edo espainolen bideei jarraituzén ahal garen lauhun urte geroago, mendea arras desberdina baitugu batetik eta bertzetik haiek berén hizkuntzaren batasuna egin zutenean botere politikoak sustaturik ari baitziren! Guk boterea errotik kontra dugu, hitzak hiztegi eta purruxkak purruxkategi. Bertzela erran, ito nahi gaituen boterearen azpitik gure hizkuntzaren batasunerat nola hel Iparralde honetan? Beharbada aipatu beharko ziren gure egoera bertsuko herrialde batzuen urratsak...

Baina euskaltzainburuak atseginez bete gaitu goraki adierazi duelarik haurrek berén herriko hizkuntzan irakatsiak izan behar luketela 10 - 12 urte arte bederen, gero emeki emeki iraganarazteko euskara baturantz. Dakidalarik, lehen aldia da hori entzuten dela, horren garbiki eta maila horretako batengandik. Baina urrunago joan behar litzateke gure ustez. Euskaltzaleen artean euskara batuaz komunikatzea biziki ontsa da. Ordea, militante horiek gero ahanzten dute publikoari buruz mintzo direnean eginahalako guzia egitea jendeari hurbiltzeko, hitzez, joskeraz, bai eta ahoskera mailan ere. Funtserat-eta botere politikoak alde bagenu ere ez ote genuke holaxe abiatu behar? Areago beraz gure kasuan, gaur egun egin dezakegun gauza bakarra baitateke euskararen maitasuna piztea edo emendatzea...

Bide beretik, gaitzesten dugu berriki Kostaldeko autobidean agertu zaigun « irteera » hitza, euskaltzaleen artean salbu, hitz hori osoki ezezaguna baita hemen, eta, jakina, euskaldunak biziki kilikak direla euskarari doakionez. Euskaltzaleak batzuetan hodeietan ametsez bagabiltza ohartu gabe ere edo errealitateari ihes eta beharbada on baino kalte gehiago eraginez. Geure erroak ez ditzagun gal! Eta, gehiago dena, eremuz, jendez ala ahalez gutiago izanik ere Iparraldeko nortasunak zaintzea merezi du, Hegoaldearekin bat egiteko bideetan urraska goazelarik.

Ideiak eta gizonak

1997-05-08

Hemen ere hauteskundeak hurbiltzen ari zaizkigula-eta ez geundekeen Britainia Handikoak aipatu gabe, joan den astean, Laboristek garaipen historikoa lortu baitute, zangoz gora igorritz, 18 urte honetan, boterean zeuden Kontserbadoreak! Ez da hau berri txarra, Tony Blair garaile handiak orain zer funtsezko egingen duen ez badakigu ere. Alabaina ez ote ziguten, eskuinekoek eta liberalek, eredutzat ematen erresuma horretako « thatcherismoa », langabeziaren beheitiazalea eta aberastasunen emendarazalea, omen?

Bagenekien haatik, aspaldian, fruitu hori barne ustela zela. Alabaina, gaur egun hamalau milioi britainiar bizi dira pobrezian edo pobreziaren atarian. Irakaskuntza estatu txarrean dute eta asegurantza soziala beherenean. Enpleguak berriz anitz dira irabazi ttikikoak eta epe mugatukoak. Eta horra zerekin nahi gintuzketen liluratu politikari batzuek! Amerikarrez gauza bera erran genezake. Han ere aferak hobetuz joan omen dira « reaganismoari » esker. Aberastasun orokorra bai goiti joan da baina ez denen onetan: gehitu irabaziaren %60 jendetzaren %1ek sakelan sartu baitu! (Ikus PANORAMA Janvier 1997). Ezin sinetsia da, egiazki, liberalismoaren ondorio horiek balentria goresgarri batzuk bezala aipatzen dizkigutela...

« *Gezurra handiago eta sinesgarriago* » balitz bezala jokutzen dute zenbaitek. Irauten duena iraun? Ordea, luze bada luze, iratzartzeak ere gertatzen baitira, beharrik! Erresuma Batuko hauteskundeak argiak izan dira jendeak garbiki erran baitu bere egoera ekonomikoaz eta sozialaz zer pentsatzen duen. Politikoki ere itxaropentsuak dituzkegu hauteskunde horiek, ikusiz bereziki, Eskoziako herrizaleek lortu dituzten emaitza ederrak bai eta ipar Irlandan Sinn Fein-ekoek ere erdietsi dituzten bi alki ohargarriak. Hurbildanik jarraikiko gatzazkie orori...

Argi dena hau dateke: ideiak eta gizonak biak berdin beharrezkoak direla gauzak aldatu nahi badira. Iratzartze honetan, Tony Blair-ek berak hartu duen partea erabakigarria izan da. Abertzaleek badugu hor zerbait ikasteko, notabilismoaren beldurrez uzkur gaudelarik: jainkoak begira batek bere burua erakusten badu soberasko bere lekuan ezarria izanen da zalu-eta bat! Bizkitartean, gaurko borrokak, gero eta gehiago, psikologikoki irabazten dira edo galtzen. Eledun baten betekizuna handia izan liteke.

Baina lehenik gure hizkera politikoa xuxendu behar dugu, ez baita beti sinesgarria. Batasuna diogu batasunik ez dagoen lekuan. Demokrazia eskatzen dugu botereagandik, eta arrazoinekin, baina demokrazia « gurek » zangopilatzen dutelarik begiak hesten ditugu, helburu onez dabiltzalakoan! Marxisten jokabide mainguak horiek denak. 1917az geroztik mendea aldatu egin da. Gaurko gizartea guk nahi baino motelagoa da, baina dena badaki, ohartuki ez bada barneko oldez. Tony Blair-ek ez du anitz hitzeman: doi bat aldatuko dituela gauzak erran du bakarrik. Gure ustez, aldakuntza bat egingarriago izan eta indartsuago da ; gaur egun utopietan nehork gutik sinesten baitu. Eta atsegin goxoenez bete gaitu Iparraldeko jendeak eman duen iritziak Euskal Departamenduaren alde. Eskerrak « La Semaine du Pays Basque » astekariari.

Argiak eta itzalak

1997-06-05

Balitzateke zer erran igandeko frantses legebiltzarrerako bozen ondotik. Lehen lehen oharpena: hauek dira bada Frantziako instituzio itxuragabeak! Batetik errepublikako presidentea hautesten da 7 urterentzat eta bertetik diputatuak 5 urterentzat. Bitxikeria hau da: konstituzioaren arabera, botere handien jabe dela frantses lehendakaria: hark du-eta, xuxenez, politika bat asmatzen eta finkatzen, politika horren kudeatzeko lehen ministro bat berak hautaturik. Baina lehen ministro hori diputatuen ganberako maioriatik hartu behar du, legeak, maioria batek bozkatzen baititu. Ikusten dugu beraz zer saltsaren erdian gerta daitezkeen bazterrak lehendakaria eta diputatuen gehiengoak elkarren aurkariak baldin badira, gaur gertatzen den bezala!

Jadanik holako bi « elkarrekin bizitze » ikusiak genituen Mitterrand-en denboran: presidentea ezkerrekoa eta diputatu ganbera eskuinekoa. Orain, alderantziz, Jacques Chirac eskuinekoak gobernatu behar du ezkerreko ganbera batekin! Bitxiena hau da: media eta klase politikoek hori onartzen dutela, saltsa handiago eta nahiago balute bezala; ez dugu ahantzi behar saltsa horretarik bizi direla batzuk! Beraz, bi botere-zatiak orain nola joanen diren ikusi beharko. Ez dira beharbada elkarrengandik hain urrunak. Sozialisten eta komunisten beren artean ere alde handiak badaude...

Bertzalde, bi itzulitako hauteskunde sistema hori ez zaigu ona. De Gaulle-k finkatua zuen, bai lehendakari, bai diputatu bozontzat: bigarren itzulian, alderdi komunist « beldurgarria » bere baitan lukeen multzoak beti galtzeko gisan... Eta beharbada sistema horrek duela bizirik atxikitzen alderdi komunista, Frantzian, bertze inguruko estatu gehienetan baino azkarrago!

Diputatuentzat, sistema « proportzionala » ezarri zuen Mitterrand-ek, bere alderdiaren faboratzeko baina ere, denbora berean, eskuin muturra indartuz, eskuineko demokratikak trabatuko zituelakoan. Bat-batean deseginik ganbera, Chirac-ek ere uste ukan du Lionel Jospin izorratuko zuela, bozei buruz ongi apailatzeko denborarik ez utziz. Enganatu da ederki Chirac... Joko maltzur hori salatua izan baita eta hauteslea kexatu baita ikusiz, jasaten duen egoera sozial dorpearen gainerat, trufa baino musika handiago, zozo batentzat hartzen zutela...

Zorionez ikusten dugu beraz, politikari handi horien jukutriak, gehienetan gaindituak direla, eta batzuetan beren kontra itzultzen zaizkiela. Zuhurtzia gehixagoren aroak berantetsiak ditugu. Alderdi guziak beren egia zatiaren jabe badabiltza: ezker muturra, ezkerra, erdia, eskuina bai eta eskuin muturra ere; « muturrak » bertze alderdien okerkeriez hazten baitira gehienbat. Bizi hau ez du alderdi bihibatek osoki besarkatzen ahal. Bertzalde, politika alorra biziki bortitza da eta korapilatsua. Asko dohain eskatzen ditu gizon eta emazteengandik: gogo zuzena, bihotza, kementa, apaltasuna, denak berdin beharrezkoak dira.

Moralki, demokrazia hutsaren mailan, hauteskunde hauek ontzat eman badaitezke ere ez dezakegu ahantz Hexagonian menperaturik dauden populu ttikiek ez dutela beren burua aiparazi eta haien marka deusezaren heinekoa izan dela. Salbuespen bat haatik, Martinikan diputatu independentista bat, Alfred Marie-Jeanne izenekoa, hautetsia izan baita. Hau berri ona! Guk abertzaleek, uste baino boz gehixago bildu dugu baina ez gaude horretaraino heldurik...

Gizarte ohitura berriez

1997-07-03

Gaitzeko arrakasta ukan zuen, Beskoitzen, Otxalde bertsolari handiari eskaini genion omenaldiak (1964-09-06). Goiz hartan Enbatakoak izanak ziren manifestatzen Hendaian, bertzeak bertze, Francoren diktadura salatzeke eta, poliziarekin sokatiran ari izanik, manifestari horietarik batzuk etorri ziren gero Urgazietarat bazkariteko. Mintzaldien ordua jin zelarik René Ospital-ek honelatsukoa bota zuen manifestariei buruz: « *Eskualdunhoa zaindu nahi duzue eskualduna desohoratzen duten moldekin* ».

Hor ikusten dugu beraz, osoki legezkoa izanagatik, manifestatzea bera ere gaizki ikusia zela garai hartan! Alta bada René Ospital ez zen batere kontserbadore zaharkitu haietarik: orduko kontseilari jeneraletan irekienetarik bat zen: Pauen, hain suharki zaintzen zituen Bastidako bere kantonamenduko eta Euskal Herriko zuzenak non, 1968an supituki hil zelarik, « kasik Enbatako batentzat har zitekeela » errana izan baitzen! ⁽¹⁾

Gure dretxoan zaintzeko manifestazioak ohituretan sartu dira bereziki 1968ko Iraultzaz geroztik eta hori aitzinamendu handia izan da. Ordu zen, hertsiki erakutsi zizkiguten « eginbideen » ondotik gure « eskubideak » ere errespetaraz genitzan. Haatik, adineko euskalduna, gisa hartarat altxatua izana delakotz, ez da aise bihurtzen « haize » berrietarat. Intelektualen iritzi espantagarriez mesfidatzen da.

Baina 1968tik hona ezagutu dugun gogo iraultza handiena ez ote da izan sexuaren inguruko gauzetan? Zinema/telebistako tetelekieria eta lizunkeriek bultzaturik, normahirekin etzatea normala, biluzi ausartenak egun argiz berdin eta zenbat holako molde ozar ez dira gureganatu azken hamarkada hauetan, jendearen burtzoragarri, enganagarri? Aitzinamendu onak ere izan dira, hala nola, kontrazepzioa. Baina zer pentsa joan den igandean, Parisen, homosexualitatea ozenki goretsiz 200 mila lagunek egin duten agerraldiaz? Artetik errateko, Parisen sexualitatez desberdina izateko eskubidea onetsia da euskaldun izatea baino hobeki. Ikus berriki euskaldunei eman presondegi gaztigu dorpeez edo oraino Gauchon Hezkuntza Nazionalekoaren mehatxuez...

Morala publiko baten finkatzea zaila dateke eta ez gabiltza gaztigu galdez, ez eiki! eta soberakinak zaizkigu etxean video tzar bat izateagatik batzuei egin dizkietenak. Gaurko mendeari doakion heziera dugu eskatzen bakarrik, duintasun gehixagorekin batean, iduritzen baitzaigu, zenbaitek sakelak ongi betetzen dituztela gizarteko ahulenen gogo osasunaz axola mikorik gabe. Bagaude, musulmano integristen jokabide salbaiak ere ez ote datozen, parte bederen, mendebalde munduko barreiadura galgarriei ihardespenez...

Eta zer erran pedofiloen ekintza ezin jasanezko horietaz? Bagenuen zerbait irakurrik maitasun desbideratuez (ikus « Les Voleurs d'Innocence » 1992 Patrick Meney) baina ez genituen denak sinetsi nahi ere. Hau izurritea, betidanik izan dena baina azken denbora hauetan azkarki hedatuz doana. Nehon mugarik ez, denak haizu, « *debekatzea debekatua dela* » oihukatzerainokoa: ez da harritzeko, zenbaitek jendetasuna galdurik ere...

Gaurko erasia bururatzeko, zer lastima dakusagularik « Haur Besoetakoa » bezalako eleberria, nehoiz euskaraz idatzi den nobela hoberenetarik dena, baina pedofilian oinarritua, deblauki. Jon Mirande euskal idazle miresgarriak nahiko zituen bazterrak harrotu Euskal Herri puritano honetan. Baina gogorregi jo zuen, bertze batzuk, politika mailan, lasterregi joanen diren bezalaxe, euskal arimaz eta gogoen bilakaera urratsaz aski arduratu gabe.

(1) **Oharra 2000.** Mixel Labéguerie-k errana.

Kristau gazteen biltzarra

1997-08-28

Munduko Gazteriaren Egunak Parisen iragan dira Aita Sainduak deiturik eta haren inguruan. Sekulako jendea bildu da azkenean: milioi bat partaidez goiti igandeko mezan, anitzek ziotelarik alta fedea epeltzen ari zela bazterretan eta Aita Sainduaren ideia « zaharkitu » batzuekin anitzak ez zirela ados. Dena den, antolakuntza paregabea nabari zen: behin eta berriz, Eliza Katolikoak erakutsi ditu bere ahalak gisa horretako ospakizunen apailakuntzan. « Libres Penseurs » delakoen iritziak ere entzun ditugu, baina, nola erran, pixka bat « hegal-motzak » iduritu zaizkigu...

Beilari gazteek, badirudi, ezin ahantzizko giro sanoan bizi izan dutela Parisko egonaldi hori, hitzik ez baitzezaketen asma aski indartsurik hango anaitasuna goreszteko. Inguruan ari izan diren hainbertze langile, sendagile, kazetari edo so egileek ere, denek aipu zuten gazte horien kartsutasuna batetik eta lañotasuna bertzetik. Erizain batek zioen iduri zutela adiskidetasunez hordituak! Bereziki harritzeko da nola akomodatzten diren gazteak Aita Saindu horrekin: elkar aditzen dute beren aita txirekin balira bezala!

Dozena bat gazte bataiatuak izan dira larunbat arratseko otoitzaldiaren karietarat, lurraren lau hegaletarik zetozenak. Batzuk beren herriko jauntzietan, biziki eder egiten zutela. Bataiatu horietarik bat frantsesa, soldadu dena: bere « aitatxi » aitzindariarekin, biak armada jauntzitan agertu dira! Hau gure harritzea! Horrela, ez ditugu hemen, nehondik ere, bi pertsona horiek mendratuko, munduko hoberenak izan baitaitezke berdin, baina bai hautu bitxi hori egin dutenak. Bai bitxia egiazki militar horien presentzia « bake » hitza baizik ahoan ez duen elkarretaratze horren baitan. Egia erran ez gara osoki harritu ere: Frantziako Elizak baitu holako bat eginik. Hautu txar honek ez gaitu, ordea, dena ilun ikusterat lerraraziko.

Hainbertze banderaren artean euskal ikurrina eder baten hautemateko zoriona ere ukan dugu. Arrakasta ere lortu omen baitu gure ezaugarri nagusiak: asko hurbildu dira euskaldunei galdezka zer zerabilten hor. Alabaina, ez zuen eder baizik egiten ahal, dakigularik Sabino Aranek kristau ikurretan oinarritua zuela! Euskaldun gazte horiek sentitu dukete hor, nehon baino hobeki, beren nortasuna, kultura desberdinen erdian gertatzean ez baita deus ere atseingarriagorik Norbait eta Nonbaitekoa izatea baino.

Bistan da Aita Sainduak erabili dituela bere usaiako mintzairak: frantsesa, espainola, ingelesa, munduan zehar hainbertze mintzairaren zapaltzaile direnak. Bistan da, beti bezala, estatuak izendatu direla eta ez herrialdeak. Baina egun horietan, munduko ekonomiaren kudeantzarari buruz ez badugu gauza handirik aditu ere, sozial mailan bederen Aita Sainduaren gutunak eta hitzaldiak ontzat eman ditzakegu, egintzez haatik anitz errateko bagenukeelarik. Elizaren betiko ahulezia: hitzen eta obren arteko leizea.

Euskadi laiko bat nahi dugula ez da dudarik. Baina edozein gisaz gizona dago gorputz eta arima. Gaurko modernitate guziengatik ere sentitzen du bere baitan sinestearen beharra; badaki ideal bati lotu behar duela. Nahiz-eta, oraino ere, bere « interesak » zaintzeagatik-edo, eliz instituzioa, boteredun zenbaitekin motelegi agertzen den, begirunez ikus dezakegu katolikoan mezua: maitasuna, bakea, zuzentasuna edo giza eskubideen errespetua aldarrikatzen dituenean. Zapalkuntza gogorrek dirauten mende honetan, hitz dizuet badela horiek baino gomendio makurragorik, bigabortz...

Erramuna Bazterretxekoari

1997-09-25

Nola zira ene auzo maitea? Joan den egunean arras polliki hatxeman zitut, eritasunaren markaño batzu oraino ageri bazinituen ere. Egun, orhoitzapen baten kondatzerat heldu nitzaitzu: lehenagoko ixtorio, haurrak etxean sortzen ziren denborakoa! Aspaldikoa beraz (40 bat urte?) bainan xehetasun batzu ahantziak izanik ere, beharrenaz bederen orhoit niz.

Gure etxeko sukaldean zen, ama kondan ari eta, erran dena, haur-ukaite ixtorio, zerbait baitaki, harek ere, afera horietaz! Mayi Laharragakoa zuen aipatzen, nola gertatu zen bere lehen haurra ezin ukanez eta han denak grinatuak zaudelarik, ez jakin zer egin, huna nun bet-betan, Lafitte medikuak manatzen duen inguruan zitueneri: « *Zoazte Bihotz Handiko emazte baten xeka!* »

Banakien zer zen « bihotz oneko » jendea; ezagutzen ere nituen horietarik frango. Bainan Bihotz Handikoa zer zen ez nakien oraino. Beti ikasten ari baita eta adin hartan banuen ainitz ikasteko biziko urrats handien horietaz! Funtsean, ohartua niz gauza batzuen konprenitzeko bizi guzia behar dela eta oraino ez ditugula denak sekulan konprenituko...

Xalbador bertsulari bihotz hain sendikorra zuenak, eta untsa ezagutu duzunak, erran zaukun behin batez, Legategian baso baten hartzen ari ginelarik: « *Emaztea Norbait delarik, Zerbait da; gizona, hura, den handiena ere deus ez da.* » Horra hor bigarren gauza bat adin bertsuan aditu nuena eta ez nornahirenganik! Geroztik, haatik, mundua azkarki kanbiatu dela daukat eta egungo egunean nago ez ote diren emazte asko, gizonak bezala egin beharrez, hek bezain behera jausten ari...

Erran dezagun horrengatik, Euskal Herriko ama gehienek biziki maite dituztela beren haurrak. Bainan Bihotz Handiko emaztea ez ote da, bere haurrez bertzalde, bertzeen haurrak ere maitatzeko kapable dena, haurren haurrak, haurriden haurrak, halaber auzokoenak? Hura da ere, gehiago dena, haurra egin behar duen ama lagun dezakeena memento bortitz batzuetan: orduan medikua bezain beharrezkoa baita holako presuna, beharragokoa ez bada...

Bizia maitez bizia maitarazten duena bere gorabehera guziengatik! Holako jite aberatsa, ikaslea eta jendekilakoa gain gainetik: hoinbertze dohain, ez dela deneri emana... Ez duzu ahantzia, bistan dena, zure xeka jin zirela Laharragakoak, xuxen xuxena, Bazterretxerat... lasterka, ez baitzen orduan ez telefonarik, ez errebidetik bi etxe horien artean! Eta ez zirela tronpatu, ez etxez, ez jendez!

Nehor ez dela perfetik; bainan zerbait dela holako presuna baten ezagutzeko xantza ukaitea eta bertzalde kontent niz, gure herriko euskararen ikertzen laguntzeko, Euskaltzaindikoeri ere ezagutarazirik zure hizkuntza jeinu eta memoria paregabeak. Politika mailean ere baginuke, bada, Bihotz Handiko baten beharra, erran baititake alde batetik hain artoski eginga bertzaldetik deseginez bagabiltzala! Hor gira leporaino sartuak, gure zatiketetan hikatuak, nehork ez egin nahi urrats bat elgarri hurbiltzeko... Jelosiak jana bertzalde ikusiz Eskozia autonomia nasaia eskuratzen, nahasmendurik gabe, hango herrizale laboristek deputatu bozak airez aire irabazi ondoan.

Senda zite lehenbailehen Erramuna. Bizi hau kasik ezin jasana zaiku frangotan; bainan sinesten dut, Amodioaren indarra lagun gaina hartuko duzula, zerbait gisaz. Barkatu Erramuna ene ausartzia: ez nindagokeen zerbait idatzi gabe; ikusmolde ergelenak nun nahi hedatzen dituzten mende huntan behar ote ditugu sendimendu onak gorderik atxiki?

Oharra 2000. Artikulu hau egiazko gutun batetarik ateraita da, hortakotz da bertako euskalkian; pertsona eta etxe izen batzuk aldaturik bistan da. Egiazko pertsona zen Beronika Hirigoyen, Leizarretxekoa eta gutuna XU-ka idatzia izan zen..

ELAren harroaldi bikaina

1997-10-23

Gazte horiek aspertzen dira ixtorio xaharretan hasten garelarik; bizkitartean ez da eskapurik, historian doi bat argitua behar du izan politikan sartzerat doanak. Historia, badakigu, anitz gisetarat erabil daitekeela eta historialariak berak ere ez direla beti ados gertakarien aipatzeko edo sentitzeko manerekin. Anitz gauza ikasten da historian, hala nola, nazio bat zein behera eror daitekeen gisa hartako egoera eta gizonen pean gertatzen bada. Beha alemanak, kasik denak, Hitler-i emanak zeudelarik eta frantsesak halaber Pétain-ekin. Bertze hainbertze erran litekeelarik Franco-ren edo Stalin-en jarraitzaileez. Eta, artetik errateko, gutaz zer pentsatuko dute, egunero 20 mila haurño gosek hiltzerat uzten baititugu munduan zehar?

Gaurkoaren ulertzeko eta geroaren usnatzeko iraganari anitz kasu ematen diogunek badugu egun hauetan hazkurri, Papon hau dela eta hura dela. Lehen oharpena, frantsesak zer hisiarekin jarriak diren gizon horri buruz, alta bada berak bezalakoa edo beren aitzinekoen idurikoa delarik, karguek eman dioten berezitasuna kenduz gero. Media horien jokoa da hori: gizon bakar batzuen gainean dena fokalizatzen dute, hobendun bat atzeman beharrez bertze guzien xuritzeko. Hots, neholako erantzukizun kolektiborik ez balitz bezala! Errotik Erresistentziaren aldekoen etxean sortua izanik errexago zaigu hemen mintzatzea. Zenbat aldiz ez dugu entzun, Frantzian ere, Pétain-en alde zirela memento batez, %90ak!

Gure ustez, ederrena Olivier Guichard gaulistak atera du: « *De Gaulle-ren ministro gehienak Vichy-ren zerbitzariak izanak zirela.* » Eta Mitterrand bera ere ez ote? Erresistentziaren miresle garelarik ez gara nehoiz gaulista izan, Aljeriari burujabetasuna utzi zitzaielarik salbu. Halere De Gaulle-ren eskuzabaltasun hori ontzat eman genezake. Papon-en eta hura idurikoen krimak epaitu behar dira, baina ere holako gerla sarraskitzailatik landa gizonak eta indarrak berriz bildu behar zirela ez da dudarik, kalte material eta psikologiko ikaragarriak gainditzen entseatzeko. Justizia eta barkamena...

Eta euskaldunak? Azken denbora hauetan sekulako artikulu ederrak irakurtzen ditugu zein bere proiektu eta iritziz politikoen alde. Baina xede eder horiek **nola** gauzatzen ahal liratekeen ez dugu sinesgarriarik deus aditu eledunengandik. Joan den larunbatean, haatik, ELAren oihuak zorionez bete gaitu. Hau harroaldia! eta itxaropentsua ikusiz harat hurbildu zaion jendea. Horra hor gure herriaren aurpegi ederra, bere indar guziak bildurik. Agian urrats garrantzitsu hori ez da bide-erdi geldituko. Estatutua « hila », bertze etapa baten bideratzeko ordua dateke. Baina ba ote da nehor sinetsiko duenik autodeterminaziorat hel gaitezkeela indar abertzale guziak lotu gabe, erran nahi baita EAJ, EA, HB eta bertzeak?

Amildegia batek bereizten dituela EAJ eta HB? Bai, baina ikusi behar genuke ere geure eskuina eta ezkerreko elkarren etsai amorratu dabiltzalarik herritarrak ditugula hozten, denen beharra bagenukeelarik herria eraikitzeko. Ezkerrak daramala zamarik dorpeena? Baietz hor ere; baina ondoko belaunaldiak ez ligukete barkatuko, Euskal Herriko zurkaitz handiek ez balezate jakin, on deno, behin bederen elkarrekin jokatzeko, kinka historiko honetan. Alderdi bakoitzak urrats bat egin behar du, gostarik gosta, hurbilketa hori ahalbidetzeko. Orduan bai amets ederrenak haizu izanen zaizkigu.

Emaizta itxaropentsuak

1997-11-20

Frantzia guzian bezala, Baionako Industria eta Merkataritza Ganberarako bozak iragan dira joan den astelehenean. Emaizta ofizialak ez badira oraino agertuak ere, badugu zenbakirik aski oharpen batzuen egiteko. Berri onekin hasteko, denetarik hoberena dateke emaitza orokorra bera: %35 gure alde! Ez ahal da nehor zenbaki hori guttizat hartuko duenik. Oroit gaitezen afera hau guzia bi hilabetez apailatua izan dela. Alabaina proposamen bat egina genuen geure arteko enplegu sortzaile ezagun horietarik batzuk talde « ofizialeko » zerrendan sartzeko. Baina, ezezkoa zelakotz, ihardespeneren zain azken uneraino atxiki gaituzte: horrela, guhauren zerrenda baten osatzeko denborarik ez genuela ukanen. Hor, behaztopatu dira haatik.

Emaizta hori bezain ontzat eman dezakeguna zera da: ekonomiarentzat eta enpleguntzat guziz garrantzizkoa den erakunde horren baitako hauteskundeetan guk parte-hartzea. Hona beraz industrialari, merkatarari eta zerbitzuetako jendea ere iratzartzen ari, lehenago abiatu ziren ELBko laborariak eta Ofizialeak-en ildotik. Gure plazaratze hau ausarta bezain bat-batekoa izan da: epe horretan zerbaiten muntatzea kasik ezin sinetsia baita. Horrek erakusten digu, bertzeak bertze, badirela gure artean gizonak eta emazteak beti prest daudenak herriaren alde jokatzeko. Hor burutu dena ez da balentria txarra.

Xehetasuna bada ere, jakin behar da gure hautagaiek beren izenak eman dituztela ofizialki programa eraiki aitzin, elkarri konfiantza eginez, pertsonen fidatuz soilik! Azpimarragarria, gure euskal mundu punttalakuilu honetan. Irrisku bat hartu dela bistan da baina ez zitekeen bertzeala egin, ez baitzen astirik. Bistan da ere epe labur horrek ez duela denborarik aski utzi gauzen behar bezala barnatzeko, programa hobe baten egiteko.

Puntu ontzat ematekoa da ere prentsa zabalean ukan dugun oihartzuna. Urrun dirudite lehengo bazterketa, laido eta ttikikeriek. Ez da parabisurik oraino, ez eta beharbada berdintasun osorik ere, baina ohar gaitzke aitzinamendurik badagoela. Ez da gutiestekoa hori ere.

Erran dezagun oraino Euskal Herri barnealdean boz gehiago bildu dugula itsasaldeko hirietan baino eta preseski itsasaldean bozkatzaille gehiago izate horrek hautsi gaituela. Barnealdean bertze zerrendarekin kasik elkarren bete bezala gabiltzalarik, kostaldean nagusi handien eragina nabaritzen da gordinki, jende arrotzaren hoztasunaren gainerat. Bada hor gotorleku bat hartzeko zaila izanen dena. Bertze maila batzuetan, halere, hauteman ditzakegu gauzak aldatzen ahal direlako seinale batzuk, hats luzeko lan bati esker. Adibide bat hartzeko, merkatarari ttikien zerrendak, Uztaritzeko eta Ezpeletako boz eremuetan %70 lortu du!

Ttikien eta artekoen sailean gaudela, gehienik eskastu zaiguna da bozkatzailleekin mintzatzeko ahala. Bozkatzaille kopuru handiena hor dago, baina aski goiz hasiz gero, denak edo gehienak ikusten ahalko ziren. Erranen ziguten, menturaz, abertzaleek ez dutela haien axola berezirik egundaino erakutsi, eta badukegula hor huts bat ederra harrapatzeko. Eiki, ez liguke kalterik eginen langile mota horien hobeki ezagutzeak eta sustatzeak. Lanbideak sortzea biziki ontsa da, baina ez da gutiago beharrezkoa **direnen** atxikitzea! Horrela herriaren aldeko xedeak zabalduz denbora berean, bozkatzeko gogoia ere emendatuko genuke beharbada pixka bat. Bailuke beharra, gauzak funtsez aldatzekotan...

Lurrari zor dizkiogunak 1997-12-18

Berriki Kyoton bildu dira estatu ordezkari batzuk ingurumenaz hitzegiteko eta ahalaz erabaki zenbait hartzeko kutsadurak ez gaitzan denak hondamendirat eraman. Batzuen hitzetan haatik kalteen iturburuak ez omen dira zientifikoki frogatuak: hala nola lurraren beroketa behin betikoa den ala ez, ez omen daiteke oraino erran; halaber ozonoaren ziloaz.

« Handien » topaketa horretan Ameriketako estatu batuarrak dira epelenak agertu zerbait aldakuntza bideratzeari buruz eta berak izaki munduko hondakin botatzaile handienak. Ozarrak ez bertzeak! Ariko dira gero, kopeta gora, demokrazia irakasle, berak dabiltzalarik batzuk aberastuz baina gehiengoari jasanaraziz liberalismorik salbaiena, ekonomia herritarraren, ekologiaren eta bertako kulturen kaltetan.

Ez ditugu, bada, salatu gabe utziko komunistak ere; Soviet Batasunekoek bederen beren aginte denboran egin dituzten desmasiak kasik ezin sinetsiak baitira eta beraz hauek ere zaku berean sartzen baititugu. Arazoa da hauek leherregin dutela (?) baina amerikarrak indarrean daudela herrialde komunista ohiak berak gaur liluraturik baitagozkie...

Aitortuko dugu denak garela hondatzaile eta lurraz baliatzaile. Aski lan bizitzen-eta gure geroaz soilik kezkatuik baikbiltza batzuetan eta beharrak hertsatzen gaituenean ez baitugu urrunago begiratzen. Ez ote ditugu merezi ditugun buruzagiak? Ez ote dugu errexxiegi, kutsaduraren gai horretan bereziki, bertze kutsatzaile handiago haien gain ezartzen hobena, guk egiten duguna ez delakotz konparagarria?

Has gaitezke beraz geure etxe aitzina garbitzen. Adibidez, Urdazuri ibarrean 200 urtez edo gehiagoz ari izan gara oihanak kentzen, pentze eta alor emankorragoak egiteko. Eritasunak eta ekaitzek errautsiak batere ahanzi gabe, oihan suntsitzaileetan salbaienak haatik gudari frantsesak eta ingelesak izan dira. Oroit Bidasoa eta Urdazuriko guduetan, 1813an, Wellington eta bertzeek egin desmasiez. Bertzaldetik, botere publikoen axolarik eza, berriki arte bederen, guziz deitoragarria daukagu.

Orain, datorrela eurite bat eta urpean gaude guti edo aski. 1983ko uholde izigarri hura denen gogoetan dago eta aipu dute ur-geldiarazle handi baten eraikitzea, Senpereko lurretan, Dantxarineatik honatxago, uraren jaustea ezititzeko gisan. Gizonak egin desmasiak estaltzeko bertze desmasia bat egin behar! Gure ustez, lehen lehenik behar lirateke berriz oihan landatu egin daitezkeenak oro isurbidea Urdazurirat duten ber; Urdazubi herritik haste Azkaineraino bederen. Bertzalde, hiri ametsetan ez litzateke jendea sobera pulunpatu behar.

Gero, badakigu ez ditugula lehengo oihan eta hesi haiek guziak berriz piztuko baina ur-geldiarazlearen inguruan argitasun batzuk falta ditugu. Beldur izateko baita eraikuntza horren gerizan (?) eta gerorako egiazko lege babesle baten faltan, egundainokotan etxegintza ezin menperatu batean berriz eroriko garela laster. Gozatzen baizik ez dakien gizarte honek, zerbait eraikitzen badu, bere saria berehala eskatzen baitu.

Alta bada beharko dugu noizbait ikasi lurrari zor dizkiogunak ordaintzen. Lehenbailehen hastea hobe, zorra handiegitzerat utzi gabe. Baina nola egin, mugaren gainetik, Iparraldean euskal botere mikorik ez duguno?

Ezin onartuzkoa

1998-01-15

Euskaldunak kasko gogorak garela errepikatzen dugu errexki zeren-eta akats hori kasik kalitate bat bezala baitaukagu bereziki geure euskaldungoaren biziraupenaz ari garelarik. Nekezago aitortzen dugu jite bortitzekoak ere garela. Bertzeak gu bezain bortitzak direlakoan ote edo beharbada bortitzago? Badaiteke. Gu beti hala garela ez dezakegu uka. Horrek ez du erran nahi ez dugula jendetasunik: ez eiki! Senpereko jaunen armarriek dioscute « Bortitz eta On ». Arras ongi doakigu gisa batez, euskaraz ezarria delakotz, ohargarria ere baita. Baina « bortitz » horrek gaur ez ote du halako botere idor baten kutsu zerbait?

Duela 50 bat urte, ontsa ezagutzen dugun barnealdeko herri batean zazpi edo zortzi haurren ama bat joan zen konfesatzerat. Hartako doia ezagutu ere dugun erretore zaharrari aitortu zion ortziralekari gizen eman zuela jaterat bere haurñoei. Konfessorrak brauki bota zion: « *Zakur batek ere ez zuen bertzerik eginen* ». Apez ozarra, Jainkoak bere lorian duela, nahiz ez zen bakarra eta holako ahapaldi bortitzak ez ziren arraro denbora haietan. Dena den, delako ama familiako gaixoak, gure amari erran zionez, handik goiti ez zuen nehoiz jakirik hurrei eman ahal ukan ortziraletan...

Gure apezak bortizki jo zuen eta lortu ere beraz bere helburua. Haatik, holako laidorik ez genezake onar egungo egunean, ez behar ere. Eta ez gaitezela has espantuka gu lehengoak baino zibilizatuagoak garela: Zarautzko hautetsiaren erailketa aberekeria hutsa baitzaigu, ezin onetsia! Egintza hori oraino gaitzestekoa duten HB eta Abertzaleen Batasunarentzat bada hor bi gogoetaren gaia...

Gehienetan diogu menperatzaileak berak eragin digula jazar gogoia eta ez da dudarik egia dela. Baina onartu beharrean gaude, asko populu menperatuk, nortasun handiz, burua guk baino hotzago atxikitzen jakin dutela eta ez direla erori ahuleziaren seinaleak baizik ez diren hilketa desohore egingarri horietarat. Beha Katalanak, zer urrats garrantzitsuak ez dituzte eman oraino berriki hizkuntza sailean. Flandriarrak ere eredugarri ditugu: arras behera jautsiak zirelarik beren hizkuntza eta kulturak salbatzea eta indartzea lortu baitute odol xortarik isuri gabe...

Herri bakoitzak bere azkatasunerako bideak hautatu behar ditu. Gure kasuan, eskas duguna zera da, batasuna, proiektu nazional baten inguruan. Horrek bakarrik sor dezake iritzi publiko bat gure alde, herrian eta atzerrian. Zarautzko gertakari lotsagarriak eta lehenagoko bertze askok, kanpoan genituen laguntzaile hondarrak ere galarazten dizkigute eta barnean luzarako zikindurik gelditzen gara, aspaldian boterean izan beharko genukeenak. ELA edo Elkarri bezalako erakunde zintzoen ahaleginak nahitarat suntsituz, etsipena hedatzen dute gure artean eta dena berriz hastea beti eta zailago bihurtzen.

ETAk denbora batez bazterrak ederki atzarrarazi zituen. Baina gaur gure herria martxan da, ez dago lo. Herri osoari dagokio bere bideak, urratsak eta helburuak finkatzea. Gehiengoaren demokrazia ez da hainbatekoa, baina hoberik ez da nehondik ageri. Gaurko bideak, lortu nahi denaren (?) alderantzizkoa erdiesten du: etsaia indartzen, presoen hurbilketa urruntzen eta gure sail guziak oztopatzen dituelakotz.

Goazen beti aitzina

1998-02-12

Aste honetan baikor izateko arrazoiak heldu zitzaizkigun gogorat, ikusiz Iparraldeko abertzaleak berriz bateratzen ari hauteskundeei buruz. Itxaropen zerbait eta lanerako gogo bizia ere senti zitekeen batzuen eta bertzeen solas eta idazkietan. Hasteko eta bat ageri zen bakoitzak indar egiten zuela bertzeari hurbiltzeko edo bederen bertzearengandik urruntzen duen hura baztertzeko. Nola ez izan atseginez betea ikusiz EA ere Abertzaleen Batasunari lotzen, EAJ erasiatuz ez zuelakotz bertze hainbertze egiten?

Nazio bat eraikitzerakoan iritzi ezberdinak bildu behar dira elkar osatzen baitute sintesi lana zailtzen badute ere. Ezin uka, haatik, bakoitzaren jokabidea doi bat markatua gelditzen dela: batasuna ezinezko bihur lezakeen urratsik ez baita egin behar, batasuna ez haustekotan. Halarik ere ez da probetxurik, politikan sartzan denak, interes kontrajarrien artean ere lan egin beharko du maiz, eta herriaren egiazko nahia hautematea lantsua izanen da beti.

Baikor genbiltzan beraz joan den ortziraleko berria gutaratu arte: Korsikako prefetaren hilketa. Hango gertakariak hurbiletik hunkitzen gaituzte, Hegoaldetik datozenek bezainbat kasik funtsean. Prefetaren hiltzeak herrialde menperatuen auzia pizten du auzi hori alha den eremuetan baina onerako ala txarrerako den ezin erran. Gaitzesten dugu ekintza hori nornahi izan dadin egilea edo eragilea. Ez prefet karguaren begirunez, bistan dena, baina hilketa horrek Frantzia desafiitzen baitu eta hori irriskuz betea dela baitaukagu.

Zertako? Ez iduririk ere eta bere botere guziengatik, Frantzia estatu hauskor bat da azkenean. Nazio artifiziuala baita, erregeek eta Frantziako Iraultzak, eskolak, telebistak, gerlek eta abarrek bateratua baina halere bere sasi-naziotasuna ez duena osoki bururatua. Sekulako nortasunaren jabe ziren herrialdeak kasik irentsiak bezala ditu, ez ordea osoki irentsiak eta beldur da oraino ere iratzar dakizkion eta horrela « libertatearen izenean » (...) egin genizidiodi kulturala salatua izan dadin; « libertatearen erresumak » gal bailezake orduan bere distira, bere berezitasuna eta bere gogo sortzailea bera ere kolokan bailegoke. Eta estatu hauskorra bada, bortitza ere izan daiteke: indarkeria eta Le Pen bezalako putarrak bota ditzake. Ez da batere irri egiteko.

Egundainotik gizonak leinuka, arrazaka edo herrialdeka bildu dira baina Frantzian, erregeek hasi lana Iraultzak zehaztu du: Frantziak ez du onartzen estatuaren eta gizabanakoaren artean bertze herritasunik. Ez aspaldi, korsikar populurik ez dagoela (...) garbiki errana du Estatu kontseiluak. Gezurrean tematua dabil Frantzia, errexki frogar baitaiteke korsikar populu bat badela. Orain korsikarrek berek eta beren artean batasun zerbait eginik beharko dute erakutsi zer nahi duten eta norat joan gogo duten. Bertzela, gaurko hilketa, nazionalistena balitz, ezintasun baten seinalea baizik ez litzateke.

Horra zertako diogun, denik ere eta nekez bada nekez, Frantziak onar lezakeen gauza bakarra datekeela hauteskunde bidez plazara genezakeen nahikunde garbia. Aho beteka sufragio unibertsala goraiatzan digute: hitzean hartu behar ditugu guk ala korsikarrek mundu guziaren aitzinean. Ez dugu bertze biderik ikusten. Goazen beraz beti aitzina, mainguka bada ere, xedeetan tinko, jendearekilakoa landuz eta ez sobera presatua izanez: emaitzak etorriko dira bere orduan. Aupa Abertzaleen Batasuna!

Hautetsi abertzalea Bordelen ? 1997-03-12

Hamalaueko gerlan euskaldunak ongi ezagutu zituen kolonel batek errana da: « *Euskaldunak, senegaldarrak bezala dabilta: ez dira Frantziarentzat ari, aitzindariari dioten estimuaren arabera gudukatzen dute* ». Euskaldunetan bada mota frango baina iritzi hori biziki jakingarri izan zaigu. Ez da dudarik gure historia guzian leku handia izan dutela gure buruzagiek; ideiek baino anitzez gehiagokoa beti. Guhaurk ere zenbatetan ez dugu entzun sail berri bat abiatzen zenean: « *Nor duzue buru?* » Ez da harritzeko beraz eztabaida gogorrenak ere pertsonen buruzkoak izanik; orrialde ederrik betez jarraitzen dugu...

Ondorioz bezala, ikustekoa omen zen denbora batez Ybarnegaray-tiarren sua! Geroxago, Labéguerie-ren ingurukoen karra ere ontsa ezagutu izan dugu, hor baikinen... Eta zer erran ETArekin aldeko jarraitzaile batzuek, ez ote da oraino hori areagokoa? Gure aspaldiko alienazioak eragiten duke norbaiti edo talde bati itsutuki segitzeko jaidura hori. Eta, erran behar, adinean joanago eta gutiago gustatzen zaigula. Marxismoaren eraginez-edo, moda berri bat ere sartu zen Euskal Herrian: taldea da lehen eta pertsonak taldearen barnean lan egin behar du. Talde-lana da bultzatu behar, aterabide partikularrak arbuizatu. Che Guevara batek ere holatsuko zerbait zioen.

Hala da, deus ere ez da talde-lana baino baliosagorik, politikan, kulturen, ekologian, eta abar. Gero eta gehiago denen beharra bada, arazoak hain dira zabalak eta korapilotsuak gaurko egunean. Horiek hola eta halere, ez ditugu guk ukatuko partikularrek eraman ditzaketen sailak; adibidez, lanbideak sortzeko, edo oraino literatura alorrean. Bertzalde, hauteskundeak datozenean taldeari bezainbat edo gehiago behatzen zaio hautagaiari eta hori ere ez guke sekulan ahortzi behar. Notablerik ez dugu nahi baina buruzagiak behar ditugu, guhaurk hautatuak beren karismoaren eta ahalen arabera. Bide hertsia berriz ere hor.

Abertzaleen Batasuna bidean da. 500 bat lagunek beren sustengua ekartzen diote Eskualde hauteskunde hauetan. Nekoiz ez dugu holako laguntzarik osatu. Miresgarria da. Gure astakeriei (...) nagusitzen ari zaizkie gure urrats emankorrak, anitz eta anitz indar egin izan baita azkeneko urteetan. EAJ, batasunetik kanpo dago oraino; bizkitartean hura gabe puska handi bat eskas dugu, alderdi horrek erdiko eta eskuineko jendea bil baitezake Hegoaldean egiten duen bezalaxe eta hori egin behar bailitzateke Iparraldean ere.

Bertzalde, nola salatuko dugu aski indarrez ABren programa Euskal Herrirako euskaraz eta Biarnorako biarnesez ezin igorria? Horra zertan garen Frantzian, Libertatearen, Berdintasunaren eta Anaitasunaren erresuma xoragarrian... EAJren eskas izateak agian ez du hautetsi abertzale baten Bordaleraino heltzea eragotziko. Are, ez dezagun aipa ere holakorik: aupa Jakes! Zeren-eta bihar lanari berriz lotu behar baitugu batasuna bururaino eramateko.

Argi eta garbi geldi bedi haatik, helburua ez dela « batasuna eta kito ». Helburua da, batasunaren bidez, dinamika bat piztea, esperantza berritzea. Hemendik goitiko borroka ez baita abiatze hura bezain erromantikoa izanen. Hemendik goitikoak lan sakonak eskatuko dizkigu. Bide hori ulertuko duke euskaldunak: egundainotik sineste gehiago ukan baitu bere laneko ahaletan teolesia handietan baino.

Bide berri bila

1998-04-09

Baionako manifestazioak arrakasta ederra ukan du. Kultura mundutik ala hizkuntz alorretik **Deiadar** 4.ari jendeak ihardetsi dio arras poliki: hiru milaz goiti ba omen ginen irakurri dugunez, ez baita gaizki bazterrak gure kalapitez aseak dauden honetan... Bidean « akitu » zenbaiten eskasa ageri izanagatik, bazen hor, haur, gazte eta adineko, taldeka, herrika edo bakarka baina denak, gisa bat edo bertze, gure Euskal Herri bizidunaren animatzaileak.

Bertzalde, Britainia, Okzitania, Alsazia eta Kataluniako ordezkariak ere hor genituen, etxean bezala zebiltzala beren banderak gora. Funtsean beren herrietan ere, eta batzuek egun berean, manifestazioak antolatuak zituzten. Iduri luke hizkuntza minorizatuen arteko elkartasun bati buruz goazela emeki bada emeki. Frantsesak leherturik gauzka denak, eta nahiz bakoitza kasu berezia izan, beharrezkotzat jotzen dugu elkarturik burua altxatzea lehen lehenik frantses konstituzioaren 2. artikuluko zoritxarreko hura aldatzea nahi badugu segurik.

Orain ageriko botere nagusiek eta Administrazioak nola « *Beteko duten hitza eta Euskara gerizatuko* ». Lehenik eta bat Euskararen ofizialtasuna, baitezpadakotzat daukagu, hura bezain beharra dugularik Antolakuntza Eskemaren bidez Hizkuntza kontseiluaren martxan ematea. Ikusiko dugu ere « gure » hautetsi handiek zer egin nahiko duten euskaltzaleen eginahalak lauzkatzeko. Ez da errega izanen: igande honetan oraino azkenik Ségolène Royal ministroak laudatu baitu Hezkuntza Nazionala oroz gainetik duela 50 urte Frantzian « patois » zahar bat baizik ez zekitenei frantses hizkuntza (miresgarri hura...) irakatsi zielakotz!!!

Baina orokorki begiratuz gero, nola ez ikus berriz ere bidegurutze batean gaudela, dabilena, bide puska bat eginik, aitzinka, gibelka edo saiheska, bertze bidegurutze batean gertatzen den bezalaxe? Azkeneko hauteskundeetan gutitarik huts egin dugu ordezkari bat ezin hobia (Jakes Abeberry) Bordeleraino igortzea. Iparralde honetan ohituak gara « gutitarik hutsegite » horiekin: Mixel Labéguerie Euskadiko lehendakari izan omen zitekeen; baina hura hoberenean zelarik Franco oraino hor zen. Apezpiku euskaldun bat ukaitea ere doi-doiatarik huts egin genuen, bietan (Narbaitz-ekin lehenik eta Hiriart Urruty-rekin gero). Eta ederki harri gintezke gure ezpeletar aitasaindugarriak hausten baligu « gutitarik hutsegite » horien usaia luzeegia...

Lagungarri guziak on dira baina badakigu aspaldian gure sailaren aitzinarazteko biderik hoberena dela herritarren indarrak biltzea eta lanari jarraitzea su eta ke. Gure lan guziek behar lukete, ordea, gogo bati eta jokabide finkatu bati jarraiki, urrats egingarriak helburutzat harturik. Iduritzen zaigu joan den asteko Mixel Berhocoirigoin-en analisiak, kazeta honetan berean agertuak, lagun gaitzakeela bide berri baten ikusten. Osoki ados gaude harekin, sail honetan berean aipatu ukan ditugun iritzien ildotik baitoa. Puntu bat beharbada azpimarratuko genuen gehixago, hau da: euskal arazoaren aterabidea euskaldunen artean bilatu beharra dagoela lehenik. Gero, Madrili (edo Parisi) buruz ahalik eta gehienak bildurik, batean, bihurtzeko. (Bertzeak bertze, holatsuko zer bait zioen baztertua izan den Ardanzaren proposamen berantiarrak ere)

Oldartzeko ordua dukegula ere oihukatu izan da larunbatean. Elkartzeko ordua dukegula beti bai! Bide zaila eta hurria, egia erran, Hegoaldeko egoera hobetuko ez deno bederen. Hango gorabeheren peko baikaude, nahi ala ez. Eta horretaz hemengo jendearen gehiengoa isilik baldin badago, abertzaleen jokabideez nardatua delakotz dateke, kenduak baikaituzke bere burutik, aipatzea ere ez balio. Eta hori da txarra! Aldiz, oso segurtzat eman dezakeguna hauxe da: gizon eta emazte, funtsez bide berri bilarien beharretan dagoela euskal gizartea.

Iraultza isilaren aldia ?

1998-05-07

Maiatz honetan ospatzen da Frantzian iragan den azken iraultzaren 30. urteburua. Eta, behakoño bat bederen eman nahi genioke hemendik ere. Bat-batean piztu zen beraz nehork, bakar batzuez kanpo, igurikatzen ez zuten 1968ko jazarraldia. Oroit gaitezen bada: gaitzeko aberastasunak sortzen ari ziren orduan alor guzietan. Egundaino ezagutu ez den urratsean gauzak aldatuz zihoazen eta, gazteei, gauzak oraino lasterrago ere alda genitzakeela iduritzen zitzaigun, gaur ez bezalako ahalak eta aukerak ikusten baikenituen geure inguruetan. Gertatzen zena hauxe zen, adineko jendeak eskutan zeuzkala gider guziak eta gazteek, presatuak bezain bihotz zabalekoak izanez, holako fruitu nasai eta gozoak dastatu eta banatu nahiko genituela!

Bertzalde, garai hartan, gaulistak jaun eta jabe zebiltzan, ekonomia mailan eta gehiago oraino informazioa sailean. Orduan hedatzen eta indartzen ari zen telebista osoki berek kudeatzen zuten. « Frantziaren mintzoa » zuten hedatu behar xoilik ORTF delakoan lan zegiten hamar mila langileek! Baina aberastasun materialak sortzen du ere askatasun gehiagoren egarria. Emazteek ere bazuten gibelamendu handia berdintasunerako bidean. Hots, gaulistek, media berriekin denak kontrolatu beharrez hedatua zuten aztaparra ezin jasana gertatu zen azkenean eta hola abiatu ziren gazteak, denak zapartarazi nahi zituztela.

Halere, hilabetetsu bat iraun zuten nahasmendu bortitzengatik gaulistek atxiki zuten galtzear zuten boterea. De Gaulle-k bere azken indarrak bildurik nolabait berriz ere gaina hartu zuen baina ez luzarako: iraultza horrek, ez iduririk ere, aldaketa handiak ekarriko baititu. Halako anaitasunak eta hainbertze aldarrikatu ziren oihuek, bandera gorri eta beltzen artetik, barna hunkitu baitzuten gizartea, 1981ean ezkerra ere, komunistak barne, botererat helarazterainokoan...

Iraultza horrek modan jarri zuen autogestioa; damurik ez baitu nehork kasik aipatzen ere gehiago. Ezkerrari hazkurria ahotik kentzen diolakotz ote? Libertate mailan ere izan du onik iraultza horrek. Aire fresko bat sartu zen asko tokitarat. Bazen beharra. Halere iduritzen zaigu, biziko erregela guziak hautsi nahiz edo, urrunegi joan zirela puntu batzuetan. Denak haizu, denak dretxo, gogoak errexkeriarat lerratu ziren ustez-eta aberastasunetan ihaurri biziko ginela hemendik aitzina.

Gaur iratzartze gogorak hor ditugu. Orain lanerat heltzen diren gazteek nehoiz gozatu den gaztetasunik ederrena ukan dute eta jelosten genituen; baina gaur lanbidea eskuratzeko oztoporik lotsagarrienak gaintu behar dituzte eta ez ditu gehiago nehork bekaizti, urrikari izatekotz... Buraso eta haurren arteko lokarriak sendotu dira; baina hor dugu ere eskuineko faxisten indartzea, aitzinerat egin den bide soberakina (?) berriz kendu nahiz balitz bezala, ahal balute, bertze oinarritzko libertate batzuk ere kenduko bailizkigukete, merke... Hau dela hau historiaren bihurtzea, eta zein laster!

Bitartean, Frantzia oro berdintzaile amorratuan, badirudi aldaketa bati buruz goazela, iraultza tiki bat izan daitekeena guretzat, kasik isilka bezala, (jakobinorik sobera iratzarrarazi gabe?) Kaledonia Berriarekilako antolamenduaren karietarat. Ikus joan den asteko Enbataren zenbaki argigarria. Hau berri ona dukegu. konstituzioaren aldaketa bati buruz goazke eta 2. artikulua hura aldatzeko aukera ere ezin hobea datorkiguke, orain arte Lege Nagusiak ezagutzen ez zituen hitzak onartzerat baitoaz: etnia, ohiko eskubide herrikoien errespetua, eta abar. Ez gara zalaparta gose, adimenduzko ekintzak gogokoago ditugu eta iraultza isilaren edo leunaren bidez gauzak aitzinarazten badira, hobe. Eta gaurkotz, bihotzaren erditik, agur eta ohore zuei kanakiarrak!

Ama beraren umeak

1998-06-04

GALen auzia bero beroan dugu Madrilen. Hemendik senti dezakegun heinean bederen, gauzak ez direla hain gaizki joaki erran daiteke eta estatu espainiarraren eskuhartzea ez badute ere kondenatuko (ez da amets handiegirik egin behar) normahik ikusiko du eskuhartze hori, agerikoa baita. Halarik ere ez gaudeke pentsatu gabe zer oihartzuna ukan zezakeen auzi horrek gertatu izan balitz ETAre su-eten luze baten kari... Gaurko auzi honen ekarpena geldituko da beraz, gure ustez, deus gutikoa iritzi publiko zabalarari dagokionez. Iritzi horrek, jakina, GALen erailketak ETAre bortizkerien ondoritzat baitauzka.

ETA eta IRA askotan konparatzen dira. Bizkitartean, gure ustez, Euskal Herriaren eta Ipar Irlandaren egoerak desberdinak dira. Puntu bat baizik ez aipatzeko, demokrazia batean baldin bada lege bat guziz garrantzizkoa, bozkatzeko ahal da eta gehiago naski bozen kontatzeko sistema; hauek, alabaina, sekulako garrantzia ukan dezakete ondorioei dagokienez. Ipar-Irlandan ezarria zuten hauteskunde legea ezin sinetsia zaigu Britainia Handia bezalako demokrazia batengandik. Jukutria hutsezko sistema muntatua baitzuten, ezinago zuzengabea, britaniartzale « unionistek » beti irabazteko gisan itzulikatua, bozkatzaileen kopurua nahi bezainbat « errepublikanoen » aldekoa izanik ere.

Funtsean gu, Iparraldekoak, ez gara sobera harritzen jokabide horiek ikustean. Pette, munduko demokraziarik eredugarrienean (?) bizi da eta halere holako zuzengabekeriak jasaten ohitua da. Nor ez da oroit Pasqua-k 1987an finkatu boz-eremuaz, zati bat Eskual Herritik hartuz eta bertze zati bat Biarnotik? Funtsean Frantziarentzat ez da hor ez Euskal Herririk ez Biarnorik, *Pyrénées Atlantiques* departamenduko eremu menditsu bat baizik! Duda izpirik gabe bagenuke guk Hegoaldean baino arrazoi gehiago jazartzeko: gure bozkatzeko moldea hangoa baino anitzez makurragoa baita! Ez dugu oldartzerik gomendiatzen hemen: diogu bakarrik gure oldartzea ulergarria litzatekeela bihirik izatekotz, ez bada ere konbenigarria gaurko egoeran.

Diputatu bozak aipatu ditugu baina aipatzen ahalko genituen Eskualdeko hauteskundeak ere berriki iraganak hain zuzen. Ez dugu sekulan ahantzi behar hautetsirik ez badugu erdietsi, oro baino lehen, boz-eremu zuzengabe batengatik dela. Euskal Herri mailan bozkatu ahal ukan bagenu ordezkariak izanen genituzkeen Bordelen...

Hegoaldean, Estatutu batek eman zezakeen larriena lortua dukete; bide horretarik ez dira biziki urrunago joaten ahal, ikusiz duela 20 urte erabaki eta bozkatu botere batzuk oraino ere ez direla Gasteizera bidaliak izan! Eskas dutena, han, Nafarroarekin harremanak sendotzea eta azkenik autodeterminatzeko eskubidea. Horretarako alderdi abertzaleek beharko lukete lehenik elkarri hurbildu eta nazio proiektu bat eraiki. Argi dateke, batzuek uko egin beharko luketela Madrilekin daramaten joko nardagarriari eta bertzeek armen bortxaketari.

Batzuek eta bertzeek urrats ttikitto batzuk eman nahiz ari direla iduri luke, baina hurriegi dabilta. Ausartzia gehiagorekin beharko lukete higitu zauriak gaiztatzerat utzi gabe. Alderdi bakoitzak nahiko zukeen gerla hau berak irabazi. EAJk abertzaletasunaren sortzaile eta mende batez egin lan ohargarriaren izenean. ETAk berriz Francoren denboran piztu eta Estatutua lortu arte bederen mundu guzian txalotua izan zen ihardukitzearen izenean. Argi eta garbi dago gaur, gure eskuina eta ezkerre elkartu gabe ez dela holako partidarik irabaziko...

Gaurko munduan, gatazkabide dira etnien arteko ezin ikusiak, hizkuntza, lurralde edo erlijio gorabeherak. Guk, geure artean, ez dugu arazo horietarik bihirik. Batean demokristauak badaudela eta bertzean marxistak? Eta gero zer da? Ez ahal dute gai horiek lehentasuna hartuko Euskadiren askatasunaz ari garelarik! Gerla gorrian dabiltzanak biltzen dira. Gu, anai-arrebak, ama beraren umeak ez garela bilduko? Bertze abertzalerik neholaz ere baztertu gabe - denek beren tokia baitute - bi zati nagusi horien uztartzea behar beharrezkotzat daukagu geure ildoan eramateko; bien merezimenduak eta ekarpenak gure aberriaren historiako garrantzizkoenak baitirateke. Gero, Madrili buruz. Baina hori bertzerik da.

Bide onean sartu gara

1998-07-02

Gure artean anitz erabiltzen dugu « eskatu » hitza. Ez ote gara eske bizi euskaltzaleak azkeneko aspaldi honetan? Edozein sail abia dezagun, ikastola, gau-eskola, antzerki, irrati, bertso, dantza, kantu, lanpostu-sortze, eske joan behar dugu errones batzuk bezala. Hautetsien ondotik batean eta bertzean botere zerbait dutenen bulegoetan. Azkeneko 30 urte hauetan eske edo galdezka daramatzagun urratsak kontatu nahiko dituenak ukanen du lan! Ori, Berri Onak gomendatzen diguna ederki betetzen dugu hemen, sinestez edo ezinbertzez gabiltzalarik « *Galda ezazue eta ukanen duzue* »...

Gure beharren adierazteko hor dira ere grebak, manifestazioak, eta abar. Baina bada bertze bide bat oraino, hau da: alderdi politikoen bidez lan egitea, gero alderdi batzuk elkarturik maioria bat osatzea. Orduan, « hogeita hamaika eta esku », hitzartu programa obratzen da gehiengoaren izenean. Jokabide horiek guziak, bata bertzearen ondotik datozke elkar lagun eta osa dezaketela. Bistan dena, gauzak ez direla sekulan horren argi. Bertzalde, maioria mota frango bada: ezkertiarrena edo eskuindarrena, adibidez Frantzia edo Espainia bezalako estatu zaharretan dakusagun bezala; baina badira ere krisialdietan biltzen diren gobernu orokorrak zeinetan ezkerrekoak eta eskuinekoak batzen baitira estatu edo nazioaren interes nagusiak salbatu behar direlakoan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ekainaren 11an, lau alderdik behin behineko gehiengo bat osatu dute ESAIT elkarteak bultzatu legegai baten bozkatzeko: EAJ, EA, HB eta IUk. Laukote horrek, bat egin du, kirol sailean, Euskal Ordezkaritza bat antola ledin nazioarteko neurketetan parte hartu ahal izateko. Aspaldian igurikatzen genuen holako erabaki bat, kirolaren eragina handia izan daitekeelakotz herrigintzan. Baina holako batasunaren zain gaude euskal eskuin eta ezkerreangandik bertze asko eta asko sailetarako ere. Ez ote genuen hori eskatzen, hemendik beretik, duela hilabetea, eta aski garbiki? Funtsean baditu urteak gauza bertsuak errepikatuz goazela eta loriatu gara bozkatzeko horren berri ukan dugunean. Bagenekien harremanetan zebiltzala baina ez genuen uste holako ekintza baten bezperan ginenik eta tupusteko batasun horrek, hauskorra dela jakinik ere, atseginez bete gaitu.

Euskal ezkerre eta eskuina duintasunez jokatu dira, beren arteko lehiaketari jarraikirik ere, jakin dute bateratzen aberriaren alde urrats batzuk emateko. Joan den astelehenean, ekainaren 29an, egundainokotan berriz hiru talde abertzaleek batean bozkatu dute, EAJ, EA eta HBk, Espainiako konstituzioari zin egitea baztertzeko. Alderdi horiek oroz gainera abertzale daudela erakutsi dutenetik, entzun ote dituzue espainol inperialistak, zeinek gorago, otsoak bezala orrobiaka, beldurra sarrarazi nahiz? Bide xuxenean garenetz jakiteko ez da horien entzutea baino froga hoberik.

Zorionak beraz eta mila esker, elkar hiltzerainoko herrak dirauelarik, elkarriketari eutsi nahi diotenei. Bide zail horretan goazela, lagungarri dituzkegu irlandarrek baketzeari buruz ematen dituzten urrats bikainak. Ikus joan den igandeko hauteskundearen emaitzak. Hor ditugu ere gogoetarazle kabiliar populu dohakabearen joan den asteleko intziriak. Aljer-ko botere arabezaleak, frantsesa baztertzeko aitzakian (?) itotzen ditu gutiengoaren hizkuntzak. Ikus dezakegu hor alderdi bakarreko iraultzaileen naugusigo bortitza. Kabiliarrek anitz egin dute frantsesen menetik askatzeko baina bistan da beharko zuketela, haste hastetik, beren berezitasuna onartarazi FLNaren baitan. Hori guzia irakaspenbide izan bekigu.

Hegoaldean, bide onean sartu zaizkigu beraz: Elkarri, ELA, LAB, elizgizonek eta herritarren deiek bide berri bat irekarazi dute azkenean, Mendekoste haizea lagun. Eta gure bihotz zaurtuak goxatu dira, haurrideak elkarri hurbiltzean. Gogorat datorkigu Gernikako Haritza, hantxe zegoena, zaharraren gogortasun eztiarekin bere haurren bilkuraren zain, aspertu gabe. Orain bere ume guziak ondoan elkarrekin ikusirik, indartuko da, izerdia joanen zaiolarik zainetan goiti, hosto ederrenez jauntziko baita berriz. Hostaturik fruitu emanen du, Hegoaldean nola Iparraldean; eta euskaldun guzien onerako bada ingurukoek ere ez dute deus galduko...

Buruz jokatzeko ordua

1998-07-30

Ezker abertzalearen adierazpen bideak bahitzea berri ona den ala txarra galdera egiteak harrituko du gure irakurlea. Alabaina, HBko Mahai Nazionala atxilotzearen ondotik, presoen hurbilketarik eza ahanzi gabe, sekulako ukaldi gaiztoa da berez « Egin » eta « Egin Irratiaren » hestea. Badugu zerbait ikusirik orain arte ere espainiar inperialistengandik baina ez ote da hau denetarik harrigarriena? Gisa guziz, edozein alderditakoa izan dadin, demokrata batek ezin onartuzkoa. Eta askok diote urrunago ere joan litezkeela... Baina ohartzen ote dira zer den jadanik egunkari bat osoan hetsaraztea, ez bakarrik zuzendaria edo arduradun batzuk inkulpatzea hartaz edo honetaz, ez, enpresa guzia hestea?

Behin eta berriz frogaturik dago hor demokrazia eri handi dugula Ezpainiako erreinuan. Hitzik ez da aski azkarrik holako egitate baten salatzeke eta deitoratzeko. Aznarrek ez omen du batere gordetzen erabaki horren helburua politikoa dela. Faxismoak bere aurpegia erakusten du hor eta zer ausartziarekin! Nahiz frantses demokrazia argituak (?) ere berdin berdina egin zuen Enbata mugimendu guziz legezkoa debekatu zuelarik. Beharrik badituztela Hegoaldean gaur, guk ez bezalako indarrak ihardesteko!

Gaineko galderarat itzuliz, bistan da ados garela zurekin, Eginen hestea neholaz ere ez daitekeela izan berri ona. Baina gure bihotz xokoan halako zorion zerbaitek kilikatzen bezala gaitu halere. Zer da bada hau? Gertakari honek, berez ezinago kezagarria delarik, bere soberakinean-edo sentiarazten diguke zerbait antolatu delakotz **hemen**, zerbait hautsi dela **han**. Bai, dudarik gabe, alderdi abertzaleek, batasunerako bidea hartu dutenean, ihurtzuria lehertu da Madrilgo agintarien baratzean. Eta, maiz gertatzen den bezala, beren erresumaren murriztea iragarri dezaketen berriak datozenean, gobernariak zokoratzen dituzte beren legeak eta estatuaren osotasuna salbatu beharrez zernahitarako gai bilakatzen dira.

Gainerat, afera horietan inguruko « demokraziek », eta iritzigileek berek ere, begiak hesten dituzte, estatu baten osotasuna zaintzeko edozein jokabide haizu balitz bezala. Ez igurika beraz laguntza ofizialik, den mendrenik ere, adibidez, Frantzia aldetik, alderantziz baizik. Horra beraz bakarrik gaudela, neholako laguntzarik gabe erdi behar lukeen ama baten pare. Eta hobe ez hastera bakartasun horren hobendunak nor diren bilatzen; badugu presatuagorik.

Hegoaldean zerbait aldatzen ari zaigu beraz. Nohoiz aditu ez ditugun solas eta ikuspide zuhurrak plazaratzen dizkigute. Iduri du kasik bertze mundu batean sartu garela! 20 urtez bederen ari izanik elkarren arteko desberdintasunak xorrosten, orain, elkartu egin gaitzaketen bideak aipatzen hasi gara; ez da goizegi! Batzuek doi bat galduak iduri dute, zinezko bihurtzea baita hau.

Heldutasun handiz jokatzeko garaia dukegu. Gure urratsak zintzoki landu eta baturik bideratu behar ditugu. Iduritzen zaigu nahiko indar badugula demokrazia bidez geure helburak lortzeko. Elkar adituz gehiengoa eskumenean dukegu. Hemendik goiti gure armarik hoberena dateke gure arteko batasuna. Beren burua eskuinago edo ezkerrago sentituko dutenak beti izanen bide dira. Baina aberriari lehentasuna zor diogu. Gure herriak sekulakoak pairatzen ditu aspaldi honetan eta iduritzen zaigu, bertzalde, olde berri hau Iparraldetik ere lauzkatu behar genukeela geure ahal guziez: uspel batzuekin baina burua gora eta aske herria atera dadin etsaiaren ostikoen azpitik.

Apokalipsia liburutik ?

1998-08-13

Aitortzen dugu Baionako beste bazterretik begiratu diegula eta, agian, barnetik zerbaiten egiterat entseatu direnek emanen digute bertze xehetasunik. Guk ikusi ditugu bakarrik gazteak eta adinekoak xuriz bezti eta gerrikoekin, Baionarat abian! Horko bestak aspaldian utziak ditugunei ere, berriz abiatzeko gogoa piztu digute! Baionako bestetarat jauntzi berezitan joateko mugimendu hori badu jadanik zenbait urte sortu zela, baina iduri luke orain arras gaina hartu duela. Urrats ñimiño bat dela euskalduntzearen bidean? Ez hain ttikia menturaz, sail horretan onak izateaz gainerat, besta, gure kulturaren zati handitzat baitaukagu. Beti eta barnago joan beharko da beraz besta horien egitaraua finkatzean eta geure hiri nagusi arrotzuan euskal giro bat sortzen badugu lagungarri izan dakiguke bertze edozein sailentzat...

Horiek hola, zertan dugu gaur geure Baiona? Nornahi ohartuko da hiri barneko bizia ahulduz doala eta hori aspaldidanik. Saltegiak, lehen jori zeudenak, zenbat ote dira gaur ongi doazenak? Gehienek ez dute espanturik eta anitzek hesten dituzte beren ateak bertze zerbaiti lotzeko, berriz hetsi artean... Zerbitzuen saila hedatu da baina hiri aberatsa izan bada garai batean - merkataritza batzuk baseritarrez baliatzeko ez baitziren lotsa - orain aldatu da musika: inguruko supermerkatu handiek uzten dizkioten purruxketarik (erosketen %20) bizi behar baitu!

Donibane Lohizunen ere ez omen dira goiti ari, astearte eta ortziraletako merkatuak segurik, halako arrakasta ukan dutelarik alta luzaz! Gauza bada tole baina erosleak gero eta xuhurrago. Hor ere saltegi handiek biltzen dute erosleen diru gehiena. Aldaketa hori, ez da haatik hemengoa bakarrik, Frantzia behe horietarik etorria baitzaigu izurrite hori ere: halako hiri ederrak, halako herriko plaza maitagarriak, gutiz gehienak beheiti ari dira merkataritza mailan. Supermerkatu erraldoi horiek, hiriak setiatuak dauzkate eta salerosketa hoberen guziaz xurgatuz urkatzen ari dituzte ttiki guziaz.

Komertsantek berek ez dutela aski indar egiten? Segur faltak badituzketela eta beharbada falta handiak. Baina ez erran otoi supermerkatu handi horiek utzi hondarkinekin ongi bizitzen ahal direla! Doi bat aietasun ez badu merkataritzak ez du ateratzerik. Iduri luke gobernuko eta hirietako buruzagiak enpresa ttikia desagertarazi nahiz ari direla, hainbertze lanbide sortzen ahal lukeelarik alta eta auzo bizia handizki lagun lezakeelarik, behar den bezala sustatua balitz.

Supermerkatuak emendatu dira sekulako oldarrean azken hamarraldietan; inflazioa menean atxikitzeak aitzakian, ezkerrekoek ala eskuinekoek sustatu dituzte, zenbaitek sakelak ongi betez bitartean! Denbora berean langabezia emendatu da arabera, iduri ezean sekulako langileria baitzen saltegi ttiki haietan. Orain aldiz jendea bera zerbitzatzen da eta hiru edo lau aldiz langile gutiagorekin egiten da lana. Komertzio ttikiak baldin bazuen iratzartzearen beharra, izarian atxikitzen ahalko zuten supermerkatu horien hedapen lotsagabea! (langabeziak bertze iturririk ere baduela bistan dena, nahiz gehienak logika beraren ondorioak diren)

Gizarte lausoa eta zentzugabea, gurea! Aitzinamendu tekniko miresgarriak ere izan direla bistan da, baina beha otoi desmasiei: hiriak ahulduak, airea kutsatua eta bertzalde auzotegi batzuk gaiztagin zilo bilakatzen ari! Beha Frantziako eskualde batzuetako baserriek, jendea beti eta beti husten ari, eta gainerat neurriak gabe ustiatuak lurra eta ura kutsatuak; « behi eroaren » eritasuna, eta abar. Egoera iluntzen dugula? Ekologista integristak garela? Edo oraino bi milagarren urteari hurbiltzean sortu zorigaitz igarle haietarik? Ez, alafede ezetz. Baina ez da dudarik neurriak hartu beharko zirela gauzak horrenbertze makurtzerat utzi gabe.

Bide txarra hartua dugu, ederrak gostako baitzaizkigu hortik ateratzea eta oreka berri baten atzematea. Politikari bista laburreko horien lanak kario ordaindu beharko ditugu. Baina gizartearen ere zenbat eta zenbat ez da, ez baitute beren xilkoa baino haratago ikusi nahi? Ederrena duela urtetsua entzun genuen, Parisko JMJ famatuaren antolatzaile batengandik: « *Geure pegatineria guzia Asia hego-ekialdean eginarazia dugu, merkeago heldu zitzaigulakotz.* » Hori da hori lagun hurkoaren maitasuna, jaun andreak...

Udazkenean udaberri

1998-09-24

Zorionez beterik daude Hegoaldeko anai-arrebak. Gehienak bederen. Hainbertzetaraino non baikorkerian ez litzatekeela erori behar ohartarazten hasiak baitira batzuk... Lizarrako Adierazpena eta, haren ondorio bezala, ETArek su-etena, bada hor nasaiki alaitzekoa. Alabaina, akordioaren bi zurkaitz nagusiak, EAJ eta ETA, aski zohituak direla daukagu, uste ukaiteko, bertze etapa batzuk ere elkarren artean hitzartuak dituzketela, bertze ez genituzke ezagutuko, ez bata ez bertzea. Horrek ez du erran nahi oztoporik ez dakiekeela bide bazterretik jalgi, ez bakarrik espainiar boterearen aldetik - hori bistakoa baita - baina ere ingurukoengandik. Badakite denek, bistan dena, bide luze zakarra gelditzen zaiela egiteko.

Egun historikoak bizi ditugula horretan ez da dudarik. Hauteskunde autonomikoak datoz eta Euskal Autonomia Erkidegoan abertzaleek airez aire erdietsi behar lukete gehiengoa; jadanik %60 eskuetan zituzten (Ezker Batuarekin) eta ez da beraz zorakeria asmatzea batasun giro berri honek marka guziak hautsarazten ahal liezkeela. Agian ez zaio nehor jazarriko akordioari eta denek lagunduko dute, hasia den bezala bururaino joaten, eskuinak ala ezkerak, bakoitzak bere ikuspegiak landuz eta azalduz, zuzen den eta beharrezko zaigun bezala, baina gaurko egoera berezian lehen ezarritik herrigintza orokorra eta askatasunerat eraman dezaketen bideak.

Gain ginetik parte hartzen dugu beraz Hegoaldekoen itxaropen berrian. Ez da berez etorria, zerbait zerbait gostaia da. Haien egoera politikoa hobetzen bada, eta hobetu behar luke itxura guzien arabera, guk ere Iparraldean sentituko ditugu ondorioak dudarik gabe, laguntza zuzenak aipatu gabe, euskal giroa indartuko bailuke honaraino ere. Baionako auzapeza ez ote da hasia doi bat gogoetatzeko? Eta zer erran Hazparneko auzapezak eta kontseilu osoak aho batez bozkatu duten mozio ohargarriak? Ez ote da hori jadaneko zerbaixka aldatzen hasia delako seinalea? Herritarren artean ere ukanen du eragin handia.

Abertzaleei dagokigu beti aitzindari jarraitzea nehoiz etsitu gabe, Iparraldeko egoerak lotsatzekoa emanagatik: departamendu koxkor bat ere ezin erdietsi! Eta ez du balio gaur gehiagorik eskatzea gure estatu mutu, jakobino, erdirakoi, madarikatu honetan. Departamendu baten beraren eskuratzea ere ez bide da, beharbada, errextuz joanen, jadanik, Hegoaldekoen bide bera har dezagun beldur zirenak, areago uzkituko baitirateke. Beharrik piztu dinamika ere hor izanen dela. Bitartean, etxegabeko arrote batzuei konpara gaitzkieke. Duela 50 urte Hegoaldean bezain euskaradunak ginen, gehiago ez bada, barneko herri gehienetan kasik denak euskaraz ari baikienean. Zertan gara orain?

Nafarroarekilako lotura Hegoaldean eta instituziorik eza Iparraldean, horra hor bi arazo larri herrestan gelditzen direnak, gure arazoa anitzez zailena delarik. Bertzalde han abertzaleek gehiengoa daukate eta hemen hoberenetik ere %20 bat ginateke; nahiz uste dugun zenbaki hori goitituz joanen dela, baldin eta egoera honek irauten badu. Horra zertako, atxiki egin behar dugun, aitzina berriz jokatu lanean, sortzen ari den aro berri hau errotik baliatuz, herrietako abertzale taldeetan, Departamenduaren alde, presoen alde, sindikatuetan, ekonomia, hizkuntza edo kultura alorretan, haizea gure alde itzul dadin arte. Munduan zehar ez ote ditugu ikusi aldaketa ikaragarriak, ezin sinetsiak, azken urte hauetan? Eta gainerat bat-batean gertatu direnak: goizetan, gau luzearen ondotik, argia zabaltzen den bezain zalu...

Pinochet harrapatua

1998-10-22

Hauxe da berria: Pinochet diktadore ohia arrastatu dutela eta justizia kontrolpean ezarri Londresen! Eta noren aginduz? Madrilgo bi epailek eskaturik. Hauek nahi lizkiokete orain kontuak eskatu Txile bere aztaparretan zeukan denboran desagertu diren espainiarrez. Zernahi ikusteko sortuak ginela, hori bai; hau ere ez da bada, ttikiena! Gizon higuina, lasai etorria zatekeen Britainia Handirat, ebakuntza baten egiterat, ustez eta beti Thatcher-en denboran bezala onetsia izanen zela!

Diktadoreen artean, Hego Ameriketako elkargo bat ere muntatua zuten, *Condor* deitua, (zer izena, hau, Euskal Lur gainean...) Txile, Argentina, Brasil, Paraguai, Uruguai eta Boliviako estatuetan ihardukitzaileak zanpatzeko. Hilarazi dituzte holaxe ehunka eta milaka gizon eta emazte. Pinocheti bi aldetarik jokatzeko zaizkio gaur Madrilgo Entzutegi Nazionalako epaileak: batetik Garcia Castellon epailearekin Txilen berean desagertu diren espainiarrez eta bertetik Baltasar Garzon famatuaren bidez *Condor* delakoaren ekintzei buruz.

Paria genezake espainiarren balentria honek baduela ikustekorik euskal arazoarekin. Aznarren ondoan ez dabilta harro, eta errexki ulertzen ditugu, Francoren segidakoak... Bertzaldetik datorke guzia, PSOEtik naski. Abertzaleak, Espainiari zuzentasuna eskatzeko bidean sartuak direlarik eta hauteskundeetan haien oztopatzeko, nazioarteko demokrata guziek txalotuko duten ekintza mediatikoa antolatu dukete. Ikusten ditugu hemendik Gonzalez eta bertze espainiar burgoiak kukurrukuta: «*Beha gu demokratak nola jokatzeko garen hego amerikar diktadoreekin. Sinets gaitzazue, euskaldunen arrangurek (GAL eta bertze) ez dute itxurarik. Libertate mailan ez dugu nehoi zorrik, aitzitik Europako bertze asko baino liberalagoak gara*».

Badakigu euskaldunek zer gezurra den hori. Barnean, itsuskeria anitz egin edo estali baitituzte eta orain horra hor non agertu nahi luketen, nazioartean, demokraten eredu, frogatua delarik alta, PSOEkoak izan direla GALen sortzaileak eta tortura erabili dutela, euskal presoak sakabanatu estatu guzian zehar espainiar legeak berak dioelarik presoak bere etxetik ahalik eta hurbilena egon behar lukeela. Halaber bertze batzuk giltzapean atxiki dituzte beren osasun txarragatik aske utzi beharko zituztenak, xuxenez. Eta hola hola segitzen ahal genuke PSOEtiarren lege zangopilatzeen zerrenda boterean zeudelarik. (Jakina, zapalkuntza horrek jarraitzen duela beretik Aznarrekin).

Egia errateko Hegoaldeko presoak itxaropentsu daude azken denbora hauetan. Datozen hauteskundeetan gauzak ongi ateratzen badira - eta hala atera behar lukete, gaurko espainolisten ekintza arrakastatsu honengatik ere - badakite hurbilketa hori erdietsiko dutela, geroxago amnistiarat heldu artean. Eta horrek erakartzen gaitu beti gogoan dauzkagun Frantziako preso ditugunenganat. Zer esperantzarekin daude gaur? Segur bozkariatuko direla Pinochet arrastatua ikustean edo Hegoaldeko anai-arreben egoera hobetzean. Baina beren egoera noiz argituko da?

Badakigu moral ikaragarri batekin daudela gehienak. Horra hor Gabi Mouesca-ren kasua. Lehenik estatu frantsesa kondenarazi du bere legeak ez dituelakotz errespetatzen. Bertzalde presoner lagunaren zuzenen alde jokatu da eta gaztiguz etxekoan eta sustengatzaileengandik urrundu dute, Lannemezan-etik Perpignan alderat. Frantziako erre preso politikoak arras gogorki erabiltzen dituzte. Dena egingo da haien gogoari suntsitzeko. Baina ihardukitzean dute kemen eta kuraia ikaragarri batekin. Segitzaile psikologoak harrituak dagozkie: «*Ezin sinetsia da, zuen osasun ona, horrenbertze denboraz espetxea jasan ondoan...*»

Orain presoek berek egin beharko dute keinu azkar bat, badakite berek zein den keinu hori. Keinua hori gabe, hemen ere, ez da hasten ahal egiatzeko hurbilketa lanik. Zinez uste dugu Iparraldean, Hegoaldearen laguntzarekin, gai izanen dela bere seme alaba guzien biltzeko, gostarik gosta, zuzenbidez. Pinochet diktadoreari kontuen eskatzeak lortzen gaitu denak baina itzul gaitezen, lehenbailehen, etxeko arazoetarak.

Euskaldunak bildu lehenik

1998-11-19

Hamalauko gerlak badu oraino ere aipamen: haren bukatzearen 80garren urtebetetzea ospatzen delakotz lehenik eta gero, 1917an, desobeditzeagatik fusilatu zituzten soldaduak ez direla baztertu behar erran baitu Lionel Jospin frantses ministro lehenak. Hain zuzen, adierazpen horrek sortu duen eztabaidatxoarekin ikusi dugu orduan sortu minak ez direla oraino sendoak Frantzian! Eta hemen, Ipar Euskal Herrian are gutiago, gerla horren ondorioz « frantsestu » baikinena ozka handi batez!

Bizkitartean ez zituen euskaldun guziak bereganatu gerla horrek. Hegoalderat ihes egin zutenak aipatu gabe, Senperen berean bi etsenplu ohargarriak aurkitu ditugu. Bata, Molerestarren aitarena. Gerlarat ez joateko erhi-erakuslea (l'index) aizkorarekin, erditsutarik moztu zuen. Mediku militarren aitzinerat agertu zelarik, honek - oharturik berdin zer gertatua zen - irri-trufa batekin erran zion: « *Gaizo hi, ez duk aski laburtu; legearen arabera, erhia hire heinean dutenak zerbitzuko on dituk eta hi ere hala ekartzen haut* ». Ez zen haatik gizona horrekin lotsatu: handik laster aizkora berriz hartu zuen eta erhia ondotik moztu... eta erreformatu zuten!!!

Bertze kasua Matxin Irabola zenaren bertsoak (1879-1935), bere ahaide batek Itsasutik berriki bidali dizkigunak. Iparraldeko bertsolari hoberena izana zen Matxin eta haren bertsoek aski garbiki erakusten digute herritar xeheak zertsu pentsatzen zuen sarraski horietaz. Bertzalde, orduko giroari jazarri zirenen lekukotasun eskasia baitugu bertso horiek guziz jakingarriak gertatzen dira eta Maiatz aldizkariak argitaratu beharrak ditu. Harrigarria da herri berean genuela ere erretor, 1913az geroztik, Jean Barbier Euskal Herriaren maitale eta euskaltzale handienetarik izan dena baina ere Frantziaren goreslea. Behar da ikusi zer leizea dagoen horien bien bertsuen artean!

Gerla gaitzetsi behar dugula, hor ez da dudarik. Baina gerlariak? Gutietsi behar ote ditugu surat joateko orde bertze biderik har zezaketelakoan, ihesi joanez-edo? Juduentzat ere entzun izan da, ez ote zirenez bada bihurtzen ahal, horrela, bildotsak bezala, milioika, beren buruak suntsitzerat uzteko orde... Badakigu gisa horretako jazartzeak kasik ezinezkoak direla, bakar batzuen kemen miresgarriaz kanpo. Baina oroz gainetik, juduei ala guhauri gertatu zaiguna da aberri baten eskasa, baitezpadakoa baitzaio hura gizakiari eta Iparralde honetan euskaldunen aberria bakarño batzuen ametsa baizik ez zen orduan. Bihurtzekotan, nori buruz itzuli, zertan finkatu beharko ziren gure arbaso urrikgarriak?

Horrengatik iduritzen zaigu gogorregiak izan garela batzuetan gerlari ohiei buruz. Gerlak arbuia bai baina haien ondorio pisuei ihardesteko hobeko zatekeen gauzak diren bezala hartu ahal ukan bagenitu, zikinontzirat botatzeko orde horrenbertze pairatu zutenak. Errankizunak dio: « *Ez da eulirik biltzen ozipinarekin* ». Gure nortasunari horrenbertze kalte ekarri dioten gertakariak baztertu nahi ukaitea ulergarria da gisa batez. Baina aberri baten eraikitzea eginkizun berogarria bezain dorpea da eta gure kasuan lehen eginkizuna dateke, edozein ideiatako euskaldun gehienek elkarri hurbilaraztea lehenik, bateratzea gero.

Bertze bideek beren mugak erakutsiak dituzte aspaldian: gaur gutaz kasik nahi dutena egiten dute. Agian, Hegoalderat, espero dugun abertzale guzien arteko lehen gobernuak sustatuko gaitu Iparraldean geure multxoak zabaltzen eta abertzaleen jokabideez asperturik urrundu zaizkigun hainbertze euskalduni buruz joaten. Badugu non zer egokitu, non zer egin...

Aro berriko lanak

1998-12-17

Hegoaldean dugun aro berriaren usainona heldu zaigu honaraino. Urteetan eskatua eta itxarotua baina, egia aitortzeko, oraino igurikatzen ez genuena, usnatzen eta gozatzen ere dugu nolabait hemen ere. Gudu denbora luze(egi) baten ondotik lasaiago sentitzen gara, dena posible dela iduri bailuke. Irekidura bat nabari da asko militanteren artean bai eta ere gizon politiko kargudun zenbaiten egintzetan. Bistan da ez direla oraino ate guziak ireki, gaur arte beren hartan tematuak zeudenak ez baitira egunetik biharrerat gurekin dantzan hasiko!

Ahalke egingarri da frantses eta espainol botereek ez dutela oraino deus ihardespenik eman eskaini zaien bakeari. Deitoragarriena da Giza Eskubideen 50. urteurrena handizki ospatzen den honetan, gure bi estatu menperatzaileek aldarrikatzen dituzten dretxo horiek ez dituztela berek errespetatzen, bereziki gure presoei buruz. Hori ezin onartua da; jokabide horren helburua dateke gure gontzetarik jalgia raztea berriz eror gaitezen indarkerian. Eta egitate hori salatu behar dugu goraki, etengabe, baina soraio egonez estatu horien bortizkeriari. Boteredun batzuk hasiak dira halere kezkatzen, ez baitute gehiago borroka armatuaren aitzakia errepikatzen ahalko edozein eskakizuni ihardesteko orduan! Beha gaude, zer estakuru aterako diguten orain...

Gure artean ere beraz horma hura gesaltzen ari da baina guretzat egiazko aro berria hasiko da bertze hauteskundeetan geure usaiako mailatik igaiten baldin bagara ozka ontto batez. Hori izanen litzateke gure lan eta kanpaina guzien artean eraginkorrena. Baina badakigu aro berri hau ez dela tanpez denetarat hedatuko. Epe bat utzi beharko dela aldakuntza finka dadin. Behar dugu aitortu bertze alderdientzat onartzen diren barne zatiketa saminak eta anbizio pertsonalak ez zaizkigula haizu, guri, abertzaleei. Hola da, ideia berriei datorrenak behar du osoki hobea (?) izan. Gogorra da baina ulergarria gisa batez: zertako itzuliko dira gugarat, gu bertzeak bezalakoak baldin bagara? Oroitarazi behar dugu hemen geure lana ez dela alderdi batetik bertze alderdi baterat iragaitea baina « etxez » aldatzea eta hori ez da xitxuketa bat gero!!!

Bertzalde ez ote zen sobera galdatzen herritarrei? Bat-batean kasik bilakatu behar genuen, ezkertiar, borroka armatuzale, intsumiso, ekologista, abortuaren aldeko, ohiko apezten jorratzaile eta bertzetik behar genuen ere izan Hegotar anaiekilako, zorigaitzez hain guti ezagutzen genituen eta gainerat kalapita gorrian zebiltzan anaiekilako! Gaur helburuak finkaturik gelditzen dira baina, argi badago ere Hegoaldea gabe deus ez dezakegula, eta menturaz ez genuela hautarik, hango egoera gogorregiak hemengo aitzinamendua oztopatu du. Iparraldekoek ez zuten nehondik ere segitzen ahal holako iraultzarik. Aldiz ikusi dugu ikastolak sortzean edo ekonomia alorrean, jendea errexkiago hurbiltzen dela abertzaleen sailetarat. Gure sinestea da jokabide *parte hartzailearen* bidez jarraitu behar dugula. Edozein sailetan izan dadin, beti parte harrarazi. Jendeak parte hartzea lehenik eta lanen kalitatea gero, horra jarrera premiazkotzat dauzkagunak.

Kanpaina kanpainaren gainean gabiltza. **Bai Euskarari**, jadanik abiatua eta heldu den abenduaren 26eko, Agileran, elkarretaratze erraldoia izan behar lukeenaren apailatzen ari dena. Ez dadila euskaltzalerik egon harat hurbiltzeko indar bat egin gabe. Hor dugu ere **Udalekuren** deia gure atxikimendua eta laguntza osoa merezi dituen. Eta, hatsaren hartzeko denborarik gabe, hor oraino, urtarril hondarrean, **Euskal Departamendua** eta **Euskararen Ofizialtasuna** eskatzeko manifestazioa Baionan. Nechoiz baino gehiago ukanen dugu denen beharra. Erakutsi beharko dugu ikaragarriko beranta ukanagatik, urraska joan nahi dugula. Urrats horietarik lehen a Euskal Departamendua, euskaldunentzat ala erdaldunentzat behar beharrezko egitura baita. Herritarrek errexki uler dezaketen urratsa bertzalde.

1999-01-14

Euskararen oihartzun batzuk saltegi ttiki batetarik

« Bai Euskarari » kanpainaren karietarat Senpereko saltegi eta zerbitzuetan euskara zertan den behakoño baten emateko parada ukan dugu. Gure ikerketa ñimiñoa Senpereko karrika nagusian mugatuz 30 bat saltegiatarik erditsuek darabilte euskara guti edo anitz. Eta zerbitzuetan lanean ari diren 60 bat pertsonatarik ez arras erdiek egiten dute euskaraz.

Orokorki ez dugu bertze xehetasunik emateko eta jakingarritzat dauzkagun etxean gertatu edo entzun batzuk aipatuko ditugu. Ez da gure burua edertzeko eta bertzalde hedatu behar ez den berririk ere ez da gure etxetik ateratzen: lasai dagoela gure eroslego maitagarria ez baitugu izenik salatuko! Soilki euskararen inguruko ausnarketa laguntzeko asmoz dator guzia, deblauki, nekeziarik gorde gabe. Eta abiatuko gara 1968tik, orduan hasi bainintzen enetzat berria zen merkataritza lanean baina ehun urte hartan arras ezaguna zen kinkailarian.

1970 inguruan gure salgaiak erosten genituen 60 bat etxe fornitzailietan eta horien ordezkari-saltzailietarik egun guziz bazen gure etxean. Ez zen euskaldunik bihibat. Orain erosketa gehiena minitelaz eta faxez egiten dugu. Beraz erran dezagun orduan erosketa lana erdaraz eta salketaren parte handi bat euskaraz egiten genuela, orain bezala funtsean; saltzailleak salgaiez egin behar duen aipamena itzuliz euskararat, errexxi, salbu hiztegi teknikoak, geroxago aipatuko dugun bezala.

Beraz lehen gure eroslego gehientsua euskalduna genuen eta, nahiz jadanik zenbait frantsesari lotuak ziren euskara ongi jakinik ere, gure hizkuntza erabiltzen genuen orain baino gehiago. Udan haatik, sekulako erdal erauntsipean bizi ginen lekuko jendea gure saltegiatarik ez baitzen kasik menturatzen ere. Orain udatiarren mugimendu hori eztitu da. Baina Senpererat bizitzeko heldu den jendea emendatzen ari da eta datozenetan erdaldunen lerroa anitzez luzeagoa da euskaldunena baino. Kanpotik etorri horietarik badabil gure saltegian herritarrek bezainbat edo gehiago eta frantseserak lerrarazten gaituzte. Udatiarekin aldiz, elkarren ondoan gertaturik ere, euskaldunarekin euskaraz ariko gara lorietan eta arrotzarekin erdaraz.

Euskarari behatzeko leku paregabea

Ez dateke gure ofizioa baino hoberik euskararen eta gizarte gorabeheren segitzeko. Ohartu gara jendeak askotan, gauza teknikoak erdaraz nahi dituela aipatu eta aldiz familiako gorabeherak, osasun arazo eta bertze, goxoan, euskaraz ematea nahiago baizik ez duela. Halaber hiltzearen inguruko solasetan. Ikus dezagun hor euskaldun « zaharrenekin », gauza sakontzat, euskarak balio handia daukala oraino.

Euskaltzaleekin euskara komunikazio tresna normala bada euskaltzale ez denarekin euskara gauza intimista bat bezala bilakatzen da. Baina horretarako behar da aitzinean duzunari ahal bezainbat hurbildu, hiztegiz eta ahoskeraz. Jakin behar da egun guzietako euskara xehe hartaz gozatzeko ez dela gure lanbidea baino laketagarrik. Euskaldun « zaharra » baino irakasle baliosagarik ez baita, ez bistan dena fisika nuklearraz hitzegiteko, baina hain beharrezkoa dugun etxeko eta lagunarteko hizkuntzaz jabetzeko.

Euskaraz jakitea beharrezkoa ere dela erran dezakegu zeren eta baitira oraino erdaraz nekez ari direnak eta atsegin dutenak saltzaille euskaldunarekin gertatzea. Erantsiz haatik hau ere: bakar batzuei ez zaiela gustatzen euskaraz hasten gatzazkienean: frantsesik ez dakiten euskaldun gibelatu batzuentzat hartzen ditugula uste baitute... Hots, azpimarra daiteke herritarren eta euskararen aldeko engaiamendua (Gure Lurrak, iheslariak, Gure Herria...) gogorra izan dela eta ez diola onik egin gure etxeko salmentari: beharrik erroak barna zituela Aranategiak! Baina bertzetik berriz euskaraz jakitea biziki lagungarri izan daitekeela gauza saltzeko konfiantzazko giro bat sortzen baitu.

(ikus segida ondoko orrialdean)

(segida)

Hiztegi teknikoaren arazoa

Kinkailerian zaila da askotan euskaraz egitea, hiztegi teknikoan sartu behar delakotz. Hiztegi hori ez dugu erabili nahi ere nehor ez dezagun lotsaraz gure etxean euskaraz mintzatzetik. Jadantik, hiztegi teknikoan sartu gabe ere, izigarriak entzun baitaitezke: « *Ahalketzen naiz zurekin eskuaraz aritzeko, ez dakit aski ongi mintzatzeko* ». Holakoak ere badirelakoan, nahiago dugu euskara xehea erabili, bastarta izanik ere, alabaina nolabait bereizi behar dira: *tête bombée/tête ronde ; loquet poussier/loquet à olive; équerre assemblage/équerre renfort; papier verré/toile (d')émeri; espagnolette/crémone; charnière/paumelle; drisse/torsadé...*

Bertzalde nola izendatu behar dira: *entretoise, pas de vis, trusquin, écrou, filetage, clé à molette, soudure à âme décapante, boîte à onglets, antidérapante, préencolleur, pinceau à rechampir*, eta milaka holako hitzak? Guk erdaratik hartzen dugu hitza gero ahal bezala euskaraz beztitzeko... Holako hizkuntza ahal bezalakoa erabiltzean behin baino gehiagotan entzun ukan dut, bat-batean, euskararen gorabehereaz batere ari ez ginelarik: « *Hori ez da haatik euskara garbia* ». Holakoen erraileak dira euskara arras ongi dakitenak baina haientzat *kafea* edo *telefonoa* ere ez dira euskarazko hitzak.

Noiz nahi entzuten duguna ere: « *Ez dakit nola erraten den eskuaraz bainan nahi nuke...* » halako edo holako gauza. Holakoetan, baldin badakigu, ematen dugu euskarazko hitz garbia, apalik haatik, guhauri ere gertatzen baitzaigu berdin behaztopatzea, presa batean edo: « *Zoin hilabetez zen hori, Août ala Septembre?* » Baita nahastekoa ere, egia erran, hilabete izen horiekin: *abuztua/agoztua/agorrrila, iraila/buruila*, eta abar. Bertzalde erosle bakoitzaren arabera, goiz arrats hizkuntza batetik bertzerat jauzika ibiltzea eta saltzaile on izatea, ez da zenbaitek uste duten bezain gauza errexoa...

Ez dugu euskararen zuzenketarik egiten makur dioenari edo zuzentzen badugu, alegia deus ez egiten dugu. Saltegia eta euskaltegia ez dira nahasi behar. Euskara maite dutenen etxea nahi dugu izan, baina ere denbora berean orori zabalik dagoen saltegia. Zerbait galdatzen digunari haatik gogotik baino gogotikago xehetasunak ematen dizkiogu, galdatauak eta gehiago berdin, ohartu gabe ere batzuetan entzulea aspertua dugula gure « katiximarekin ».

Alde batetik beheiti, bertzetik goiti...

Halaxe dabil euskara. Kanpotar erdaldunen emendatzea dateke kaltegarriena. Ikusi ditugu ere familietan lehen haurrari euskaraz karraskan ari, bigarrenari doi bat oraino eta hirugarrenari batere ez. Buraso batzuk ere ikus daitezke karrikan erdaraz ari haurrari eta gure etxean sartzean euskaraz hasten. Beharrik hor ditugula « arrastak » euskararen beheitirako hori hein batean atxikitzen dutenak: ikastola, eskoletako euskarazko irakaskuntza, euskal prentsa, gau eskolak, euskal irrati-telebistak, eta abar.

Ondorioz euskararen estimua goiti doa eta frangotan entzuten dugu gure saltegian: « *Nahi nuke, ori, zuek bezala banaki euskaraz* ». Ikusi dugu ere bat baino gehiago gure etxerat heldu, harro, erakusteko berak ez jakinik ere bere haurrak euskaraz badakiela!

Garbiki ikus daitekeena da **beharra** heldu denean nola loratzen den euskara. Hori frogatu ahal ukan dugu gure langileekin. Beharra, horra hor hedatu behar litzatekeen baldintza. Beharrarekin ikasi genuen frantsesa. Beharrak pitz lezake euskara. Atxikimenduak eta maitasunak lagun dezakete anitz gure hizkuntza zaharra; baina beharrak duke indartuko. Adibidez, edozein lanbide eskuratzeko euskara beharrezkoa izanen denean urrats erabakigarria eginen dugu aitzinerat.

Hortakotz bakoitzaren eta taldeen sustengu osoaren gainerat baitezpadakoa zaigu botere publikoaren geriza eta beraz euskarak ofiziala izan behar du Iparraldean ere Hegoaldean duten bezala. Baina lege hori erdiesteko lehenik eremu bat ere finkatu behar litzaiokie gure hizkuntzari Euskal Departamendu bat eraikiz Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdirekin.

Euskal Departamenduari bai !

1999-02-11

Joan den larunbatean Iruñean hautetsi abertzaleen biltzarrak ukan du merezi zuen arrakasta bai herritarrengandik, kazeta honetan irakurriko dugun bezala, bai eta ere kanpotik « Arte »k segurik igorria baitzituen harat kazetari batzuk, arratsean berean emanaldi eder bat eskaintzen zigutela telebistaz. Hona beraz, zenbait hilabete barne, Euskal Mugimenduak hitzordu bat gehiago errotik kausitzen duela bertze zenbaiten ondotik, denak bat bertzea bezain herri altxagarriak. Iparraldetik aritzeko horra hor Lizarrako hitzarmena Garaziraino heldua lehenik, Agilerako « Bai Euskarari » ozena gero eta azkenik urtarilaren 30eko manifestazio ezin ahantzizkoa.

Orain ikusi beharko ondorioak. Gure ahaleginek, lehenagokoek eta gaurkoek, eraginik badutenetz neurtzeko entzun ditzagun bada ihardespen batzuk. Lehenik, nor ez da oroit Mitterrandek berak, Euskaldunei eman hitza jan ondoan, Baionarat etortzeko kopeta ukan zuela, « *ez dut utziko Frantzia urratzerat* » aldarrikatzeko! Ohargarri da De Gaulle-k ere, 1958an, gauza bertsua erran zuela Aljeriakotzat...

Gure eraginari ohartzeko aski da behatzea nola jokutzen den frantses justizia euskal militanteen aurka. Nornahik ikus dezake, Parisen ez direla lege hausleen epaitzeko ari, baina guzia egiten dutela abertzaleen kemena suntsitzeko, « Zazpiak Bat »-ik nehoiz egin ahal izan ez dadin. Eta Aljeriaren burujabetasuna onartzea zaila izan bazitzaion Frantziari, zer itxaron dezakegu bere barne muga sakratuei hunkitu nahi izanez gero?

Baionako elkarretaratze jendetsua doi-doia iragan orduko, ihardespen bat badugu ere otsailaren 3ko Sud Ouestean, Georges Peyronne Akitaniako prefetarengandik. Aski da ikustea zertarik hasi duen solasa: Euskaldunek jakin behar dugula lehenik eta bat: « *Que le Pays Basque français est en Aquitaine* » eta gure aterabidea eta garapena hortik etorriko direla bakarrik! Dudarik ez da sabelean min dutela herri honek, oztopo guzien artetik, ematen dituen pausu bikainak ikustean eta Mitterrand-ek, Guigou-k, Parisko bi epailesa garratzek ala Akitaniako prefetak beren ezinbertzea ezin dezaketela gorde.

Departamenduaz ari garenean pentsa daiteke ukana izanen genuela ja aspaldian ez balitz euskal arazorik izan: geografiak, ekonomiak ala sozial beharrek berek, bertzerik aipatu gabe, dei egiten baitukete departamendu horren alde. Baina agintari handi horiek ikusten dute ere, bistan dena, mugimendu abertzalea eta bereziki Hegoaldeko oldea, eta, nahitarat, nahasten dizkigute hango egoera eta hemengoa. Adibidez, departamendua gehigarri batekin galdatzen dugunean, autonomia entzuten dute, gehiago ez bada. Eta holaxe dirau, elkorren elkarriketak, azkeneko 30 urte hauetan bederen.

Ikusiak ikusi, daukagu mugaren bi aldeetako egoerak maltzurki nahasten eta nahasiko dizkigutenei ihardukitzeko urrats guziz gardenak erabaki beharko genituzkeela. Iparralde honetan bada jende bat Euskal Herriaren etorkizunean sinesten duena. Jende hori hor zen Agileran, hor zen ere Baionan eta uste izateko da geroan ere herritar hauetan finkatzen ahalko garela. Baina sentitzen dugu ere geure xedeen aitzinarazteko oraino zabalduz joan behar dugula eta geure Departamenduaren alde jokutzen direnei jarraiki behar genukeela soilki, deus gehitu gabe, gehigarria nahi bezain premiazkoa izanik ere. Eta, legezkoa bezain beharrezkoa den egitura hori ez badigute eraiki nahi, orduan ager litekeen zuzengabekeria jasangaitzak bati baino gehiagori begiak ideki behar lizkioke...

« Zubien » beharra

1999-03-11

Garrasia bat gaitza bota zuen behin Etienne Salaberry heletar idazle zenak Herria astekariaren bidez. Barkatuko diguke irakurleak ez baditugu gogoan ez urtea ez eta ere gehiago dena euskarazko artikuluan zen ala erdarazkoan: bi hizkuntzetan idazten baitzuen aste oroz. Gertakariak badituzke hogeitaz bat urte hurbil, Aita Saindu hau Pariserat lehen edo bigarren aldikotz etorri zenekoa dateke eta hantxe, katolikoen buruzagiari, Frantziako eskualdeen berezitasun-ezaugarriak erakusteko, bata bertzearen ondotik zihoazkiola Britainiakoak, Alsaziakoak eta bertze herrialde andana batetakoak, baina Euskaldunak ez, hatzik ere! Orduantxe atera zitzaion gure « So egile » ezin ahantzizkoari honelatsuko oihu samina: « *Nun hintzen euskal gaztea: ez hintzena bada agertzen ahal harat elizaburu ospetsu haren aitzinerat, bertze herrialdeekin batean, mundu guzia behari, aurreku bat bederen emateko gure nortasunaren eta bizinahia seinala?* »

Auhena, muinetaraino sentitu genuen dantza munduan genbiltzanek. Artetik errateko, hutsunea ez zen batere dantzarien faltaz: ez baikinuen guk neholako gomitarik ukan nehondik. Beharbada orduko eliz artzain zenbaitek ez zuten uste ukan erakusteko on zenik bagenuela guk, laster desagertu beharrak (omen) ginen euskaldun hauek! Ez dira, ori, horretarik ari gure gazteak: hain zuzen, martxoaren hiruan zer atseginarekin ez dugu ikusi Kukumiku euskal rock taldearen balentria! Ezin sinetsia kasik, Parisen, hirugarren katean eta zuzenean gainerat, Kantu frantsesaren ordezkaria hautatzeko hamabi talde lehian eta haietarik bat euskalduna eta euskaraz kantuz ari! Aldi honetan euskaldunek ez dutela huts egin hitzordua eta gure ustez, beti gazteriaren sustatzen ari izan zen heletarrak ere begirunez ikusiko zuen horien kementa, rocka maite ukan edo ez ukan.

Bertzetik berriz, aitor dezagun, bitxikeriak ikusteko ere sortuak garela. Alabaina euskarazko kantu batek ba ote du ikustekorik « Kantu Frantsesaren » ordezkaria hautatzerakoan? Harritzekoa ere bada: « Frantziako Kantuak » izan balira arras ongi izanen zen, baina « Kantu Frantsesarekin » ginen hor! Hortakotz dugu Kukumikuren agerraldia balentriatzat hartzen baina balentria goresgarritzat, erran gabe doa! Aipagarriena zaigu, euskaldunek ez zezaketelarik neholaz ere eskura Kantu Frantsesaren ordezkatzetik, halere aurkeztu direla, heraberik gabe. Gehiegitan, ez duelakoan balio edo, ez gara agertzen bertzeen erdirat, nahiago dugu geureenganat ihes egin, bertzeek ez gaituztelakotz ulertuko. Gure idazle zaharrenaren oihuaz oroitu bagintez: « *...Jalgi hadi plazara, mundura, dantzara* »?

Euskal rocka ez dute denek gustukoa eta bertze batzuek berriz bitxi atzeman dute « Irradaka »n ohiko aire eder batekin rocka uztarturik aurkitzea... Buru bezainbat aburu. Baina nork uka dezake telebista bezalako tresna indartsu batean horrelako agerraldi batek ukan dezakeen oihartzuna? Ez bakarrik frantsesen artean baina ere gure kulturaren balioari oraino oharatuak ez direnen baitan? Nork ez du ikusten bertzalde rockaren bidez bere adinari doazkion gorabeherak adierazten dituela nolabait oraingo gazteak, guk lehenago bertze gisa batez azaldu dituzkegun bezala, ez baitziren gure moldeak ere beti denen gustukoak?

Ez gaudeke ohartarazi gabe, gaurko Kukumiku gora igan baldin bazaigu, bertze batzuek lantzen hasi saila dutela hartu, hartu eta aitzina eramanez. Aipatzea mereziko zuketenez bertze anitzek barka diezagutela baina nola utz isilik, adibidez, Juan Antonio Urbeltz eta Claude Iruretagoyenak berriki ohituragintzan egin lan ohargarriak? Halaber, rockaren bultzatzaileetan, gogoan dauzkagu Errobi taldeak eta Niko Etchartek hedatu zizkiguten kantu gatz eta piperdunak! Ereileak ez dira beti uztaren biltzaileak, gauza jakina. Baina, gu hor baldin bagara bertze batzuek guk baino lehen zer bait egin dutelakotz gara hor. Frantsesetik euskaldungoratu helteko errekak eta batzuetan ibaiak ere iragan behar dira eta horretarako baitezpadakoak zaizkigu « zubiak » eraikitzea, handi eta tiki. Zubigile guzien behar handia dugu.

Dirua nagusi bakar

1999-04-08

Duela 40 urte herri guzian elektrizitatea ezarririk bere lanaz harro zebilen Beskoitzeko auzapeza, eta hona non laborari zahar batek, gusturik ederrenean, botatzen dion: « *Horrek langabezia ekarriko du!* » Gizon deabrua, ez bertzea, urkatuko genuen! Gu, begiak zurutuak argindarraren beha egonak, hartaz ederki gozatzen hasiak ere eta hark holako ahapaldia ateratzeko... Elektrizitateak, alabaina, hainbertze errextasun eta aitzinamendu ekarri behar zituen gure bizimoldeetarat. Eta gaur, gure beskoiztarrek zer erran lezake ikusten balitu, gutarteko atrebituenak, interneten bidez karraskan aferak egiten ari, Londresen edo Singaporen?

Gure haur denboratik honat lantegi koxkor anitz, saltegi ttiki elementia bat, laborari etxalde asko eta ofizio mota frango, desagertzerat kondenatu dituzte ez zutelakotz, omen, gehiago bererik ematen ahal. Gehienek onartu dute ikuspegi hori eta ondorioz milaka eta milioika lan bila abiatu dira, batzuk hurbil egonez, bertzeak urrun joanez. Oroit hiri horietan metatu direnez. Eta ohargarri da langabezia itsuski emendatu dela aldakuntzak handiagotu arau.

Egungo egunean, haatik, ozka berri batez makurtu zaigu afera: orain, lantegi batek berea ematea ez da aski, **diru gehiago irabazteagatik** igortzen dituzte langileak kanporat! Enpresa berregituratzeetan langile gehiago kanporatu eta enpresaren akzioak, burtsan, arabera goiti joaki dira, akzio jabearen probetxuak joriturako direla iragartzen baitu jokabide horrek! Ikus egun hauetako ELF-Aquitaine puxantaren etsenplua. Asma dezakegu errexxi zer zuzengabekeria gero eta handiagoen bidetik abiatuak garen... Enpresa ttikiagoetan ere, « handitzen » ez badira, bertze batek irentsiko edo ehortziko dituelako beldurrarekin dabilta. Beti hola izan dela? Egia da hori ere, baina ez ote da noiztenka gertatzen zena egunerokoa bilakatzen ari?

Senpereko Yplon-Delphia lantegia ere hetsi nahi lukete bere 59 langileez axolarik batere gabe... Nagusi handien gain ezartzen dute xede hori batzuek. Baina nagusi handiak ere ez ote dira, ororen buru, enpresa jabearen edo akziodunen zerbitzariak? Bertzela errateko ez ote da enpresaburua, handia izanik ere, ordaindua lehen lehenik akziodunei ahalik eta diru gehiena erakartzeko? Preseski, Senperen, lehengo zuzendaria baztertu dute beldurrez naski ez zela aski ustela izanen lan zikinaren egiteko eta, itxuren arabera, enpresa « likidatzaile » batez ordezkatu dute...

Esperantza handiak ezarriak ditugu Europa baitan, Europa indartzearekin, herrialdeak menperatzen dituzten estatuek beren aztaparra irekiz joan beharko duketelakoan! Europaren eraikuntza guziz lagungarri gerta dakiguke instituzio politikoen mailan baina finantza eta ekonomia sailetan, mundializazioari sobera irekia delakotz, langabezia eta beraz miseria zabaltzerat uzten dituela oraingo Erkidego Ekonomiko horrek.

Gaurko espantua da, gero eta merkeago erosiz edo kontsumituz, bizi-maila bikoiztu dela belaunaldi batez. Ordea, zer balio dute holako balentriek geure gazteei, geroa « *langabezia, prekaritatea, sasoineko lana, droga, alkohola, hiesa* » eta holakoez troxaturik eskaintzen bazaie, « *Gazte Egunak* »eko mahai ingurugai batek zorrozki oroitarazten digun bezalaxe? Ez gara lehengo haren adoratzaile ez eta ere diru irabazte ororen etsai. Baina zertarako da botere politikoa gizarteko oker larrienen zuzentzeko ez bada? Noizko ote gure lur maitean instituzio politiko ahaltsu bat ekonomia liberal salbaia horri muga batzuk erakusteko? Ez uzteko dirua nagusi bakar...

Kosovoko gerla harrigarria

1999-05-06

Harrigarria izateaz gainerat zer erran daiteke gerla horretaz bereziki Kosovo barnean zer pasatzen den xuxen jakin gabe? Vietnam-ekoaz geroztik, Milosevic diktadoreak badaki gerla bat ez daitekeela aireko tresna soilez irabaz eta badaki ere, zernahitarako gai denak, psikologikoki kartak nahas ditzakeela. Hor, argi eta garbi dakusaguna da bakarrik kosovar dohakabeak beren etxeetarik bortizki haizatuak direla, batzuk mendian abereak bezala bizitzera behartuak eta bertzeak metatuak ahal bezala atzerritako zelaietan. Baina kontuz ibili behar da erakuts diezaguketenarekin ere: Timisoara-koaz geroztik, kazetariak berak ere ikaran dabilta manipulazio baten zepoan eror beldurrez...

Gure ustez harrigarriena: Frantziaren jokabidea. Serbiaren adiskide xaharra da alabaina eta serbiarrak berak ere harritu dira ikusi dutelarik gure estatu inperialista beren inperialismoaren barneko aferetan sartzen! Bertzela ohituak gaitu Frantziak aspaldi honetan; Euskal Herrian egiten dituen zirtzilkeriez gainerat, denen aho-mihitan dira: Rainbow Warrior ontziaren hondoratzea Zeelanda Berrian; Afrikan berriz, « hutu » eta « tutsi » etnien artean ibili dituen nahaskeriak eta azkenik Korsikan jendarmek - baina dudarik gabe goragokoen aginduz - burutu nahi ukan duten petralkeria. Hots, erran daiteke usaian egiten duenaren alderantzizkoa daramala gaur Frantziak Kosovo-n.

Eta ez ote da ezin sinetsia estatu lagun baten kontra tiroka lotu direla frantsesak legebiltzarrean deus eztabaidatu gabe? Ez genuen uste holakorik izan zitekeela ere: gerla egiazkoa bilaka daitekeen ekintza bat abia dezaketela frantses agintariek, odol hotzean, diputatu eta senatarien neholako baimenik gabe! Lehenago ere ohartuak ginen haatik prefetek, adibidez, bazituztela hautetsien « gainetik » iragaiteko ahal batzuk. Baina nahi bezainbat izanik ere xehetasun batzuk ziren haiek gaurkoaren aldean. Zenbat gostako zaigun ere afera hau nehork ez daki xuxen Frantzian. Amerikarrek, bere gisan, hori bederen hautetsien artean eztabaidatzen dute. Frantzian errege boteretsuenen denboretan bezala gabiltza oraino!

Amerikarren partetik ere harrigarria da gerla hau, soilik Giza Eskubideen aldekoa dela baitirudi. Alabaina, maiz haien ekintzen gaineko dirdiraren azpian, interes ekonomiko handiak nabari baitzeuden. Hala nola Golkoko gerlan Saddam Hussein-en aurka baina Kuwait aberatsaren alde. Gaur ordea herri erromes baten alde jokutzen dira eta jakin behar da bertzalde europarrek galdaturik sartu direla afera korapilatsu honetan. Rambouillet-eko bilkuraren xederat berant etorriak ziren, baina, sartuan sartu, gaur denen aitzindari jarriak dira. Europeanren ahaleginak eta amerikarrenak ez baitira araberakoak nehondik ere.

Serbiarrak harrigarriak bezain beldurgarriak dira judu integristak bezala dabiltzalarik beren erro zaharrak « garbitzen »! Eta beren herria xirtxikatzerat utziko dute lur eremu poxi batean jaurgu osoari uko eginen dioten baino lehen! Nazio Batuen Erakundearen jokabidea tamalgarria zaigu eta NATOrena osoki bitxia: horrenbertze ahale jabe den erakundeak nolaz ez ditu aitzinetik ikusi, lurreko engaiamendua baztertuz (noiz arte?), Milosevic-ek kosovarrei jasanaraz ziezazkiekeenak gisa bat edo bertze bere « garbiketa » lanak aspaldian hasiak zituenaz gero? Ez da dudarik zerbait aldatuko dela gerla honen ondorioz ere. Bertze aldian kurduen alde? Zoritarrez ez da fidatu behar, ez baitute logikarik agintari handi horien jokabideek.

Hodei guzien gainetik

1999- 06 -03

- Non hintzen sorgin zantzaila, zenbait akelarre berri muntatzeko lanetan bistan dena?
- Errak hi, ez hadila has matxista tzar horiek bezala, niri! Nahi baduk jakin Ezpeletan ninduan; erakusketa polit bat antolatua zitean hor eskualdeko filatelistek, aurten postak 150 urte betetzen baititu eta ospakizunak horrela hasi nahi ukan baitituzte eskualde honetan. Eta ez duk sekulan asmatuko nortzuk elkarturik ohoratu dituzten: Saint-Exupéry, Mermoz eta Xalbador!
- Hori hirukote berezia...
- Liburu ttiki bat ere argitaratu ditek interesgarria karia horretarat « Hiru Printzeak » izenburuarekin; hiru gizon ospetsu horien biziak xehetasun asko azalduz. Egia errateko ez nauk sobera harritu bi zigante horien artean ikusirik Xalbador.
- Alabaina zertako harritu: Xalbador ez ote dugu gora dirdiratzten duen izarra euskal lur gainean?
- Hala duk eta nik ere lehen txisteko bitxitasun hura gaingituz gero biziki ontsa kausitu diat. Gehiago ere erran nezakek, filatelisten mundu erdaldun horretan ere Xalbador beretzen badute seinale ona dukek...
- Zer solas xintxoak ditunan gaur...
- Ez zakiat zer pasatu den baina hegazkinlari amorratu horien balentrien aipamenek piztu zidatek berriz airetan ibiltzeko gogo; erratza hartu diat eta brist hesi guzien azpitik eta hodei (beltz) guzien gainetik abiatu nauk Larrun gainerat. Beharbada ez dakik: aeropostaleko gizon horientzat gutunen atlantikoaren haraindirat eramatea hil edo biziko lana zuan eta anitzek beren biziak utzi ditiztek gauzak aitzinarazi beharrez! Beren bizia baino lehen ezartzen zitean beren lana!
- Ezin sinetsia dun kasik. Poeta guziak ez baitira horren eroak... Gaurko gizon politiko batzuek baliketen hor non zer ikas!
- Igande goiz honetan bertzalde Larrunetik bazuan bista bat paregabea eta jendea zinaurria bezala bazetorrean alde guzietarik! Euskal Herriaz gogoeta batzuk egiteko ere ez duk batere toki txarra Lapurdiko gailur hori...
- Egia hori ere; ez ahal dun nahaskeria zerbait hausnartu bederen, gero gure artean bideratzeko?
- Ezetz mutikoa; saltsa nahasle historio horiek asmakizunak dituk; gu sorginak deitzen gaitiztek baina azken batean egiaren erraile, mihi xorrotx haietarik gaituk bakarrik. Askatasun egarriz gabiltzak, noiztenka batzuk lerratu badira ere ergelkeria zenbaitetarar. Eta hik badakik nik bezain ontsa, egiak duela min egiten eta preseski horretakotz gaituztela poxelu, begietako zikina baino ere.
- Gisa guziz partida galdua dun. Hegoaldean batasun bideetan sartzen ari ditun gero eta barnago; legegintzaldirako ituna finkatua diten eta trein hori ez diketean hala holaka uzkailiko ez Madrilgo agintari inperialistek ez eta ere Euskal Herrian bertan, goiz arrats, abertzaleek bide okerra hartu dutela sinetsarazi nahi liguketen PPko eta PSOEko jaunttoek...
- Ahanzten duk Europako bozaldi honentzat batasunik ez dutela egin ahal ukan...
- Zinezko santsana haiz ba haatik hi, horrelako zeru argian beti bilatu behar joaki ez den tita beltz hura...
- Ez duk hangoa bakarrik, Iparraldean makurrago gabiltzak. Ez duka ikusi Angelun bi hautagai abertzale ukanen ditugula, departamenduko kontseilurako hauteskunde bereizi hauetan? Irri egingarri ere duk. Ez ote genian Hegoaldean bezain beharrezkoa hemen batasuna edo gehiago? Hau doi bat eskuinago, hura doi bat ezkerago, uste duka ñabardura horietan sartzeko garaia etorria dela, Angelun bertzenaz ere? Herriak guk baino hobeki ikusten dik, zaku berean ezartzen gaituelarik guziak.
- Eta herriak din arrazoi, dudarik gabe, bereizten gaituena baino anitzez garrantzitsuagoa baita elkartzen gaituena.
- Egia handia erran duk, baina ahanzten duk politika teorikoki herriaren zerbitzatzea baldin bada, zehazki, gizonen eta alderdien gudu-leku bortitz bat dela. Amets ederrak geroxagoko utzirik beharko duk arno mindu horretarik edan oraino xorta bat, on bazaik eta ez bazaik...

Garbiketa linguistikoa

1999-07-01

Biziki gustatzen zitzaizkigun Jean-Claude Guillebaud idazlearen artikulu batzuk. « *La tyrannie du plaisir* » deitu liburua ere atsegin handirekin irakurri genuen (Seuil, 1998ko urtarrila). Gustagarria egiazki gizon horren askatasuna, gauzen hein bat goratik haztatzeko gogo eta egia erran frantses munduan bakan aurkitzen diren zuhur haïetarik batentzat geneukan akitandar hau. Aldi honetan haatik, joan den igandeko Sud Ouestean (1999-06-27), ikaragarria atera digu: hizkuntza gutxituak, euskara, okzitaniera, bretoiera ala alsaziera ohitura batzuk direla guziz errespetagarriak, ihiziaren, arrantzaren edo korrida baten maila berean!

Badugu anitz entzunik baina horrenbertzerik ba ote? Bidenabar Jean-Pierre Chevènementen defentsa hartzen du erranez haren iritzia jakobino eta errepublikanoak ez direla hain funsgabeak; lerraketa komunitaristak guziz gertagarriak zaizkiola Frantzian ere; batasun nazionala kolokan ezartzea ere ez omen da ezinezkoa hizkuntza gutxituen laguntzen hasiz gero eta kezka horiek, berdeen xedeak bezain bidezkoak dauzka. Arinak eta kulturagabeak atzematen ditu oraingo idazle zenbait, oroitaraziz batzuei Charles Maurras frantses ultrasukuindar famatua ere eskualdeetako hizkuntzen alde zela errotik!

Idazlerik ba ote da nehoiz lerratu ez denik? Kexaldi bat nehoiz eskapatzerat utzi ez duenik? Baina hau ez da holako zerbaiten oihartzuna, bizi bizia egin hausnarketa baten ondorioa baizik. Ez baitugu ahanzia, 1992an jadanik, Maastricht-eko hitzarmenari « eza » eman ziola Jean-Claude Guillebaud-k, bertzeak bertze, Frantziak burujabetasunetik gal beldurrez. Gaurko solasek argi eta garbi egiaztatzen dute beraz idazle horren jarrera jakobinoa, bertze gaietan nahiko irakurgarria gelditzen bada ere.

Ez dezala nehork pentsa delako Maastricht-eko hitzarmenaren aldeko sutsuak garenik, liberalismoari atea sobera irekitzen baitizkio. Baina grabea dena, guziz grabea horrelako idazle « zintzo » batek gure eskubideetan sakratuena - gure hizkuntza nazionala - ihiziaren heineko ohitura baten mailan ezartzea! Hori ezin sinetsia bezain ezin onetsia zaigu. Eta beharbada bertzei kultura eskasak leporatzeko orde irakurtzen ahal luke berak ere, bere mintzairan bailuke, Victor Hugo handiak dioena: « *La langue basque est une Patrie* » edo oraino: « *Les Basques ne sont ni Espagnols, ni Français ils sont Basques!* »

Guillebaud-ek airoski nahasten ditu Charente bere departamenduko hizkuntza eta gurea. Historia poxi bat ere ikasi beharko luke naski gizon horrek, ikus bailezake orduan, bere eskualdean ez bezala, mendeak dituela hemen hizkuntzaren eta gure nazioaren alde borrokatzen garena euskaldunak. Milaka direla beren odola isuri dutenak Euskal Herriaren alde. Ehunka direla gaur oraino, bai Guillebaud jauna!, preso daudenak beren herriaren alderako engaiamenduagatik, baldintzarik txarrenetan, milaka kilometrotan, urrunduak, berduratuak, beren herritarrengandik bazter atxikiak horrela bigarren gaztigu bat erantsiz lehenari, giza eskubide guzien mespretxurik handienarekin. Ehunka eta milaka direla gure herriaren alde jokatzeko direnak, egun guziz, ekonomia mailan, hizkuntza alorrean, alderdi politikoetan, sindikatuetan, eta Jaurlaritzan, eta bertze mila sailetan.

Eta ez dugu ahanzten bistan dena, Espainian, euskara, okzitaniera eta katalana koofizialak direla Frantzian aldiz garbiketa linguistikoa dela martxan, Chirac presidentearen azken pokerra lekuko; dena doala frantses hizkuntza soilaren faboretan, herrialdeen zurgatzaile, desjabetzaile den frantses inperialismo arkaikoaren izenean, sasi-askatasun lilurakorrenez jantzirik. Zorigaitzez haatik aitortu behar dugu, Frantzian, gutiengoan alde ez dugula ihiztariek bezainbat boz biltzen eta hori ez dela, soilik deitoragarria baina etsigarria kasik...

Oharra 2000. Azken 30 urte hauetan **Herria** astekari euskaldunarentzat ere artikulu parrasta bat idatzi ukan dut: gehienak dira, besta, dantzaldi eta elkarretaratze batzuen berri emateko edo lurren aferaz. Gainerat, gazte denboran idatzi haiek ere hor dira biltzekoak; baina horiek guziak lotuta liburu hau aise lodiagia gertatuko zen; jadanik hola hola ere badu nahikoa...

Horra zertako artikulu haietarik bizpahiru hautatu ditudan, iritzidunak eta **Herriaren** lehen orrialdean agertzeko ohorea ukana dutenetarik, gure historiaren zati batzuk aipatzen dituzketelakotz.

Lur berri, gogo berri

1968-06-20

Duela hamar bat urte, abiatu zen lur berrien egiteko asmoa. Laborari bakar batzuk ziren, orduan, lan horri lotu. Geroztik, izpiritu hertxi eta beti gibeletik herrestan dabilzanengatik, gero eta gehiago zabalduz doa sail hau, lan-molde eta pentsa-moldeak karraskan kanbiatzen eta kanbiarazten dituela denbora berean! 50 bulldozer segurik badira ipar Euskal Herrian barna, emeki emeki, gure etxaldeen aurpegiak aldatzen ari dituztenak.

Errecart jaun senatariak, asmo handi horren sustatzaile eta kudeatzaile atrebituenak dioen bezala, lur berrien egitea izan da gure etxaldeetan egin zitekeen kanbiatze on eta segurrenetarik bat. Zenbat etxalde itotzetik begiratuak, 3, 5, edo 10 hektareaz emendaturik lur erabiliak! Zenbat gazte berriz kuraia hartu dutenak ikustearekin lana nekatzen duten bide hertsia zabalduak, deusetako ez diren sasiak errotik garbituak eta pentzetuak. Badira ere diotenak, sobera patar edo maldan diren tokien lantzea, irrisku handien emendatzea dela. Badaiteke; eta iduri luke, zorigaitzez, ixtripu deitoragarri batzuek arrazoi ematen dietela eta egungo egunean ez litzatekeela traktoreez erreki erabiltzen ahal ez den lurrik landu behar.

Baldin badira soberasko irriskatzen direnak patarren lantzerat, badira ere, nehork uste baino gehiago, lur ederrak larre eta zitzuri, alfer debalde dauzkatenak. Ardurenik hauen arrazoinamenduak hain dira ahulak eta atzokoak non ez baitu balio hemen aipatzea ere. Denboran ez ote ziren horiek berak, elektrizitate, bideberri, ur ezartze, heia (barruki) sanotze edo oraino laborarien kooperatibak onartu nahi ez zituztenak? Eta gaur egun lurren elkarretaratzeari aihar daudenak?

Baina gehienik otar eta iratze mazela ederrez oroitzean herri-lur edo komunak heldu zaizkigu gogorat. Herri gehientsuek badituzte. Batzuek jadanik landuak, hala nola, Arbotik 50 hektarea; Aiherra 30; Gamu 55; Ilharre 50; Labetze 25; Gabadi 80; Escos 75 (azken bortz herri hauen lurak elkarren ondoan dira: 274 hektarea lur berri beraz; aise asmatzen dukezue ikustekoa dela holako lur zafla!) Labastide Villefranche 80; Behauze 30; eta Zuraiden ez dakit zenbat... Lantzen hasiak direnak: Arrangoitze 100 hektarea; Charre 50. Lantzerat abian: Izura, Martxuta, Lukuze, Beskoitze, Bidaxune, Bardoze eta Sara.

Bertzeak bertze, badira ere herri-lur ederrak Uztaritzen, Milafrangan, Larresoron, Lohitzunen eta partikulazki Hazparnen 800 edo 1.000 hektarea eta Senperen bertze hainbertze! Laborariak bere aski fermuki galdatzen ote dute eremu horien lantzea? Ala iduritzen zaie oraino hobe dela otarretan pottoken haztea, behi eta ardiak pentze berrietan baino? Aitzinatzeko bidea edo hautua noiz egingen dute bada? Laborantzako eta herriko buruek badute hor non joka...

Zenbait herritan, hala nola Senperen, duela biziki aspaldi, zatituz, eman zuten etxalde bakoitzari honenbertze eremuren gozamen osoa, lur zergak pagarazterainokoan. Baina orain tira-biran daude lurraren jabetasuna ezin finkatuz: Herriko Etxeak denak beretuko litzuke eta partikularrek berriz berenak atxiki nahi! (1) Nehork ez onartu, ez pekatu nahi lehenagokoek utzi egoera nahasia.

Noiz ohartuko dira bada antolamendu bat gabe, hautsi-mautsi bat egin gabe, santa sekulan ez direla deusetarat helduko? Bertze herri batek berriz, 37 hektarea komunetarik, urtean 5 libera ateratzen ditu! Mendeak izan behar badira, egoera bitxi eta itxuragabeko horien ondorio gaiztoak sentitzeko, orain, hamar urte gabe agertuko dira gaurkoen hutsak, eta gazteak jazarriko zaizkie, frangotan buruzkinkeriaz, herri osoaren kaltea egiten dutenei.

Laborari ttiki batentzat 4 - 5 hektareaz edo gehiagoz emendatzea bere etxaldea, 10 bat mila libera zaharretan hektarearen alokairua urtekal gauza ona dela, dudarik ez da. Herriarentzat berriz gustuan erran daiteke alokairu horrekin, banabertze, 5-6 urtez estaliko dituela lur berritze eta partikatze lanak. Handik goiti mozkin ederra etorriko zaio. Horrela Gabadiko herriak, hirutarik batez (?) emendatu du bere aurrekontua (butxeta) eta diru berri horrekin denek baliatuko duten zerbaite egiten ahalko du.

Denen ona bilatzea da oraino etxalde ttikienei eta gazteei lehentasuna ematea herri lur horiek partikatzera. Euskal baserriak husten ari direla denek ikusten dute eta parte etxaldeak ttikiegiak direlaketz. Zertako beraz eskumenean ditugun larreak utzi baliatu gabe lehenbailehen?

Gobernamenduak ematen ditu 100 mila libera gostatzen den lanarentzat, 35 mila libera (= 35%). Baina laguntza horren erdiesteko, behar dira lanak elkarretaratu eta inkantean ezarri. Hola jokutzen da Donapaleun « Lur Berri »n kokatua den sindikatua (2) eta molde horretan Eskual Herri guzian barna baditu etxe-lur edo herri-lur 10.000 hektarea landurik eta antolatutik 6 urtez!

Lana errexa delarik bereziki eta segidan egin nahi, laborariak mailegatzeko ahal dute 100.000 libera zahar hektarea bakoitzarentzat, intresik pagatu gabe: kontseilu jeneralak bere gain hartzen baitu intresen ordaintzea. Molde horretan ez da gobernamenduaren emaitzarik. Halere arras gauza ona da: lehen bi urteetan ez da deusik itzultzen ; hiru, lau eta bosgarren urtean da itzuli behar mailegatu diruaren heren bat aldian.

Komunentzat Herriko Etxeak mailegatzeko ahal du gastu guziaren %80, intresak %3tan, eta 15 urtez gibelera itzultzeko.

Lur berri = diru berri. Erran daiteke jadanik 15 mila hektarea segurik badatekeela landurik gure ipar Euskal Herrian azken urte hauetan: ez da guti. Eta beraz erran daiteke ere, urte bakoitz sartzen dela laborarien sakeletarat miliar bat eta erdi diru fresko: Lacq-eko industriak ematen duen bezainbat!

Horiek hola, bertze horrenbertze eremu hurbil gelditzen da oraino lantzeko. Denen gomendio dauden gizon eta laguntzak baliatuz, ez da gauza errexagorik !

(1) **Oharra 2000.** Gaur egun auzia ez da trenkatua. Partikularrek aspaldian erakutsia dute antolamendu orokor baten nahikundea. Baina Herriko Etxetik, 30 urte honetan, beti luzatzerat ari dira, azkenean asperturik, etsituko dugulako esperantzan! Xehetasun gehiago nahi lukeenak, Senpereko bizi publikoa baldintzatu duen borroka luze horretaz, hona hemen, artikulua batzuk, noiz eta non agertu diren:

— **Enbata :** 1969-11-20 ♦ 1970-06-24 ♦ 1983-12-01 ♦ 1984-01-12 ♦ 1985-03-21 ♦ 1987-02-05
— **Herria :** 1969-10-16 ♦ 1969-10-23 ♦ 1969-11-06 ♦ 1969-11-20 ♦ 1970-10-09 ♦ 1970-11-19
1975-03-20 ♦ 1983-12-01 ♦ 1985-03-21 ♦ 1987-02-05

(2) **Oharra 2000.** Erantsi behar da Garazi Baigorri eta Bidaxunen ere bazirela lur berri egiteko bi sindikatu; baina guzien kudeantza Donapaleutik egiten zen.

Oharra 2000. Euskal dantzaz **Herrian** idatzi artikuluen artean hemengo hau bereizi dut: Dantzari Egun hori historikoa izan baitzen. Egun horretaz bertze xehetasun batzuk ere aurki daitezke 18. orrialdean.

Dantzari Eguna

1980-06-12

Ezin hobeki iraganik goraipatua izan da jaialdi hori, hemen berean eta bertze asko kazeta eta irratitan. Dirudienez luzaz aipatuko ere da oraino herritarren aho mihitan eta bereziki dantzarien artean. Gure aldetik zenbait gogoeta egin nahi genituzke; hasteko, zerk egin du egun hori horren ederra?

Lehenik muga errexki iragaiteak; 25 lekutan, goizean egitekoak ziren dantzaldi ttikiak egin ahal izan dira baldintza hobereenetan. Iparraldeko taldeek eta hauen inguruan dabiltzanek ongi etorri beroa egin diete Hegoaldeko dantzari lagunei eta hauek prezatu ere! Ongi etorri hori lekuko taldeen gain utzia zen osoki, gastuak barne.

Gero denbora ederra horrenbertze eguraldi txarren ondotik atsegin baitzuen etxetik ateratzea!

Baionarat etortzeko Hegoaldekoek erakutsi duten tirria ez daiteke utz aipatu gabe: bizkaitarrak, iaz beren etxean Bilbon, bildu ziren baino gehiago etorri dira Baionarat eta bertze lurraldeetarik halaber! Muga beharbada ez zutelakotz iragaiten ahalko, makarron eta pegatineria horietarik saltzen ari izanak ziren beren inguruetan bidesaria ordaintzegatik, parte bederen...

Nola ez gorets omen handiko taldeek ere onartu dutela bertze talde koskor batzuen ondoan ibiltzea hauen artean « urtzea » beren izen ozenak etxean utzirik etorriak baitziren soilik dantza ospatzeko eta honen bitartez herria! Ez baitzen hor zeingehiagokarik, taldeen izenak berak ez baitira agertu, are gutiago dantzarienak! Gipuzkoarrek, adibidez, beren dantza saioarentzat, talde hobereenak erdian edo giblean zituzten eta ttikienak aitzinean! Goresgarria egiazki. Euskaldunen norbaitasuna norkeriatzat hartzen dutenek, ikus bezate hor...

Aitzineko bi Dantzari Egunak (Iruñekoa eta Bilbokoa) biziki ederrak izan ziren baina ingurumena politagoa zen naski Baionan. Oturuntza Remparts edo Harresietan zoragarria bilakatu zen eta dantzarien saioarentzat kirol pentzea oso egokia gertatu da.

Azkenik herriak ongi ihardetsi du dantzarien deiari; arratsaldean jendea etorri da ostean, ⁽¹⁾ nahiz, izan omen diren, uzurtasunez naski, etxean egon direnak ere... Iparraldetik kargudun guti haatik Baionako auzapezaren inguruan. Kasketadunik ere ez, nahiz hauen eskasirik ez dugun batere sufritu! Zer pentsatzen dute gaur gure elkarretaratzea debekatu nahiko zutenek, nahasmenduen beldurrez, omen? (2)

Bainan egun hori ongi joan baldin bada honengatik da gure ustez: bakoitzak egin duela egin behar zuena, hitzartua zen bezala. Baionako hiriak lehenik, kazetari irratilariak gero; Ahuñnamendi elkarteak jendearen bidaltzea bere gain zuelarik.

Eta iduritzen zaigu Euskal Dantzarien Biltzarrak ere bere eraikidura maila guzietan bere egitekoa bete duela. Eraikidura horiek bi hitzetan sar genitzake: beregaintasuna eta batasuna. Talde bakoitza beregain dabil osoki; gero beren lurraldearen baitan biltzen dira, lurraldea bera ere beregain dagoelarik. Azkenik 7 lurraldeak biltzen dira elkarrekin EDB deritzon erakundea osatzen dutela.

Bigarren gogoeta: iduri baitzuen, kirol pentzearen erdian gure dantzariak zebiltzala telebidalduak balira bezala, berez ohituragintza horren sail errega ote da? Gure ihardespena, ez eta ez! Lan ikaragarri baten uzta ikusi da Baionan eta bertzerik ez. Baziren taldeak arrats guziz trebatzen ari direnak lanetik lekora...

Talde baten sortzeak lanak ditu, gehiago oraino xutik atxikitzeak! Mutiko horien biltzeko zer ez da ikusi behar, batean kirol zerbait dutela, bertzean futbol jokaldi bat telebistan... Burasoen ere, berriki arte bederen, neskak gogotik igortzen zituzten dantzarat, mutikoak aldiz kiroletarat. « *Zangoz arin, buruz berdin* » errankizun oker hori bizi izan da, denbora batez gizaldi baten gogoan, lana eta otoitzaz kanpo ez baitzuten galbiderik baizik ikusten...

Gaur lanarteak emendatuz doazkigu eta euskal gogoa indartu nahi badugu baitezpadakoa da euskal giroa sustatzea hor ere. Bide horretan ohituragintza sail baliosa gerta dakiguke, bakoitzak kausi baitezake hor bere neurriko saila, hasteko eta bat anaitasunean, bere euskal izatea finkatzeko eta agertzeko parada bat, bereizkuntzarik gabe, diruaren, adinarean, sexuaren edo mintzairaren aldetik. Egoera horrek bere mugak ere ukan baditzake indar gaitza ere badauka nonbait... Baina horra dantzarako lehia emeki pizten da bereziki mutikoen baitan. Hara zertako, 14 bat urte arte bederen, burasoen azkarki lagundu behar lituzketen beren haurrak, mutikoak bereziki: hauek gabe ez baitaiteke izan euskal dantzarik!

Baionan bildu dira beraz 4.200 dantzari, 142 taldeetan. Eta talde horiek guziak nola dabilta? Gehienak nekez, erroak aspaldi eginak dituztenak salbu, ohartu gabe pixka bat gehiago erdalduntzen gaituzten sailen erdian; edergailu huts edo diru biltzeko tresnatzat hartzen ez gaituztenean oraino!

Horrengatik karra ukan behar da, soil soilik herriaren zerbitzari irauteko eta ez dugu bertze biderik ikusten nahi badugu honek lagun gaitzan! Ez dugu zeren lotsa, urrats handiak eman izan baitira azken urte hauetan. Dantzari Egun honek finkatuko ahal ditu horiek guziak eta urrats berriak ematen lagunduko. Itxaropen horrekin gaude bereziki herri guziak eman behar lituzkeen dantzen mailan: berriz Dantzari Eguna Iparraldean ospatuko denean, Lapurdi, Baxenabarre edo Zuberoako dantza jauzi irekientzat agian ikusiko ditugu milaka gazteak! Zergatik ez?

Bitartean, dantzariak mintzatu dira Baionan, beren mintzairan, batean alai eta arin, bertzean ostiko zorrotzez. Herria goretsi eta honen batasuna aldarrikatu dute. Hitzaldi ederrenek egin zezaketen bezain ongi edo hobeki!

(1) **Oharra 2000.** Ikusliarrak: 12.000 inguru! Ohargarrria zinez.

(2) **Oharra 2000.** Orduko Baionako suprefetak Dantzari Egun hau debekatu nahi ukan zuen nahasmenduak izaten ahal zirelako aitzakian! Ordea, Henri Grenet Baionako auzapezak bere baimena emana zuen eta bere hartan tinko egon zen.

Oharra 2000. Urtea gure idazle handi, euskaltzain eta apez kartsua zendua zela, karia horretarat **Herria** kazetak galdegin zidan artikulu bat haren omenez. Ohore handi horrek, haatik, bere ifrentzua ere bazeukan: denak jadanik erranak eta denetaz ezagutuak direlarik, inguruetan « brodatzea » baizik ez baitzaizu gelditzen... Dena den, hainbertze zor diot apez horri non ez bainezakeen nehondik ere errefusa.

Jean Baptiste Oxanbabaratz-en ehorts mezan (hau ere Eskualdun Gazteriaren omonier izana eta 50 urtetan zendua) JHUk bere predikua bururatu zuen hitz hauekin : "**Handik** (Aitaren Etxetik) **lagunt gaitzala orai, hemen gelditzen girenak, gu ere egun batez hel gaiten Jainko Aitak bere haurrentzat zabalik daukan bere etxerat**" (Herria 1979-06-21).

Hitz horiek berak, geure eginez, JHUri berari itzultzen dizkiogu orain. Ikus arte!

Jean Hiriart-Urruty zena gogoan

1991-05-16

Duela urtea itzali zitzaigun Jean Hiriart-Urruty Jaun bikario jenerala. Bertzeak bertze, Herria astekari honetan bi urtez zuzendari egona zen eta gero, aste guziz, Eliza-Berri saila ber berak eramana zuen 17 urtez! Bere azken artikulua hasia zuen baina ez bururatu, bihotz antisia sentiturik, klinikarat abiatu behar ukan zuenean.

Bere azken idazki ezin bururatu izan duen horretan, duela 30 urteko gazteen biltzarrak eta bilkurak aipatzerat abian zen eta hori arras hunkigarria izan da guretzat, orduan hain xuxen, haren inguruan baikenbiltzan, Eskualdun Gazteriaren omonier izendatu zutenetik. Gertakariak zerbait erran nahi dutela sinesten dugunentzat, ukan dugu hor 30 urte horiei behako baten emateko mezua.

Osoki bat gaude harekin zioelarik honelatsu: « *Ez dela beti gibelerat so egon behar, baina gazteak beti aitzinerat baitaude, on dela jakin dezaten nondik heldu garen eta zer nolako bideetan ibilirik* ».

Agertzen dugun argazkian hor gaude Eskualdun Gazteriaren orduko ordezkari batzuk, JHU gure omonier berriaren inguruan, Lurden. Ez ginen bakarrik: lurraren lau hegaletarik, 61 erresumetarik, hor bilduak baikin 25.000 baserritar gazte, laborariak gehienak (MIJARC-en lehen biltzarra 1960ko maiatzak 27, 28 eta 29; « Gosetea Munduan » lemapean) Eta zer biltzarra, hango anaitasuna! Ni segurik behin betikotz markatu behar ninduen elkarretaratze horrek.

Ez ditugu ahanztekoak, alabaina, orduko kristau gazteen biltzar ziganteak. (1) Itxaropen handi batekin genbiltzan: teknika eta tresna berrien bidez sekulako aitzinamenduak eginaraz zitezkeela gizonari, segur baino segurrago ginen. Kristo lagun, gure buruak formatuz, lagunekin bermatuz gure inguruak higiarazi nahi genituen, laneko moldeak berritu.

Zer fedea! Gazteek berdin urteak pasatuko zituzten bertzeen zerbitzuko, elkartasun hutsez; Afrikaraino joateko ez ziren latsa hangoen argitzerat eta laguntzerat: pentsatzen baikenuen, formakuntza bat bideratu behar zela han ere eta teknika berriak lagun, lurraren idorkeriak ere bentzu genitzakeela! Ez ote zaigu hori manatua Bibliatik ere: « *Jainkoak kreatu mundua, gizonak landu egin beza gizon guzien onerako* »!

Azken hamarkada hauetan, ez da errate beharrik zer aldaketak izan diren bazterretan. Deneri ohartzeak ere lanak ditu! Beha laborantzari: ez da lanbide sailik hark bezalako jauzia egin duenik! Akulatzaille lehenak hor, gure kristau mugimenduetakoak. Irakurgarri da, horretaz, Michel Debatisse-ren liburua « *La Révolution Silencieuse* ».

Aitzinamendu handi horiek ordea, gizon guziek berdin gozatu ote dituzte? Gure ihardespena garbia da: ez, ez dituzte denek berdin gozatu, urrundik ere. Ipar amerikarrek eta europarrek orokorki biziki hobetu badugu geure bizi-maila, bertze leku batzuetan gibelerat ari baitira! Herrialde aberatsenen eta pobreenen arteko diferentziak handituz baitoaz ttikituz joanen zirela usteko genuelarik! Erresuma pobreen lerroa luzatuz doa, doi bat partikatuz geroz, denen ontsa haztekoa balitzatekeelarik bizkitartean.

Aurkikuntza material batzuk miresgarriak, baina ondoan zer kalteak! Zintzoenек diotenez gu « aberastu » gara, ez bakarrik guharen lanaren bidez baina ere herrialde pobreagoak xurgatu ditugulakotz.

Bertzalde jendeak metatzen ari dira arimagabeko hiri handi horien « auzo etzandegietan », eskualde penatu batzuk basamortu bilakatzen ari direlarik. Beha oraino zorren azpian lehertuak direnei eta lurrari, urari edo aireari egin kutsadurei; hainbertze herri hizkuntzen suntsitzea ahortzi gabe.

Ez zen hori gure nahikundea, erran gabe doa: gizona lehen eman nahi izan baita, beti, gure nazioarteko mugimenduan. Nahikundea zen kapitalismoaren eta komunismoaren artean hirugarren bide bat irekitzea, giristino gogoaz oratua, gizona eta lurraldeak hobeki errespetatuko zituen zibilizazioa. Ameslari hutsak ote ginen bada?

Ez dut uste; baina liberalismoaren legeek denetarat zabaldu duten lehiaketak ez du xede on hori ontzerat utzi. Ateratzekotan, zeinek merkeago zeingehiagoka hasi behar ukan dugu, hil edo bizi; zernahi lan mota eginez batzuetan, ohitura eta lege hoberenak itzulipurdikatuz berdin. Sistema ekonomiko hauskor baten pean gainerat.

Jean Hiriart-Urruty apez zena ez da behin ere politikan sartu, erraten den bezala. Gizona bere osotasunean lagundu nahi zuen. Baina zein ederki ez zituen salatzen oraingo neurrigabekeriak! Ikus horretaz haren gogoaren berri hain garbiki erakusten digun artikulua bat, « Arroilatik arroilarat » titulupean (1980-09-04). (2)

Egia erran ez dakit amesten genuen mundu hobe hartarat heltzerik bazegoenetz delako bienarteko politika harekin... Esperantza moteldu, durduzatu ote zaigu? Ez, izatekotz bertzelakatu: gure baitan baino gehiago fidatu behar dugula bertze Norbaitengan. Gizon zenbaiten borondate ona, behar beharrezkoa bada ere, gauza guti dateke. Baina ez gara bakarrik!

Nola egon ohartu gabe, adibidez, estatu komunistetan gertatu harroaldiari? (Orain ikusi behar, haatik, nola bururatuko diren horiek guziak!) Ekialdeko aldakuntza handi bezain ustegabeko horiek umiltasunezko konfiantza goxo batez betetzen gaituzte: egoera etsigarrienak ere noizbait aldatzen direlako itxaropena sortzen baitigute. Hats luzeko lanak ematen du goiz edo berant fruitua. Segi dezagun beraz aitzina, guk ere, fedean hartuz indar eta iraupen.

(1) **Oharra 2000.** Gure denborako handienak baizik ez aipatzeko: Atharratzen, 1964ko maiatzaren 3an 4.000 gazte; Donibane Garazin 1966ko maiatzaren 22an berriz ere 4.000 gazte!

(2) **Oharra 2000.** JHUren artikulua gehienak 5 liburutan bilduak dira: I eta II **Jauna dut argi** ; III **Fedea gidari** ; IV **Artzain solas** ; V **Izar alde** ; VI **Aitaren Etxerat**. Orotarat zazpi ehun bat artikulua!

Oharra 2000. Dokumentu honek oroitarazi nahi luke, abertzaleek hain garrantzizkotzat zeukatela, Senpereko Lakuan, laborariek zeramaten borroka non Burgosko Auziari loturik salatu baitzuten! Ikus nihaurk azpimarratu lerroa.

6 hiltzerat kondena ! 700 urte presondegi !

HORRA, BURGOSKO ARMADAKO TRIBUNALAK GALDATZEN DITUEN GAZTIGU IZIGARRIAK, Izko, Gorostidi, Larena, Dorronsoro, Uriarte, Onaindia ETA BERTZE HAMAR ABERTZALERENTZAT. Bi apez badira bertze hamar horietan.

Faxismoaren basakeria beti bizi da !

Faxismoaren basakeriak, Izko eta bere bortz lagunak garbitu nahi ditu ! Eta bertze hamar eskual abertzaleak bizi guziko preso ezarri !

Orai arte, langileak jazartzen zirenean, arrastatuak, torturatuak eta armaz zapalduak ziren. Bainan orai, faxismoaren «justizia» delakoak, odol hotzez GARBITU nahi ditu.

Langileek pairatzen dituzten injustizia eta basakerien kontra, ttipiak miserian leher eginaraziz aberasten diren nagusi haundiek muntatu Estadoaren basakerien kontra OLDARTZERAT MENTURATU direlaketz, faxismoak hil nahi ditu ! Zeren populuak haundi horien hundarren dretxoa baizik ez baitu ! Zeren populua bortxatua baita, onartzen ahal ez den moldean bizitzerat eta lan egiterat ! Eta horiek oro, zombait aberats, oraino gehiago aberats ditene ! Eta langileak jazartzen direnean, armekin zapalduak dira !

Horra Espainiako gobernamendu faxistaren egin moldeak. Ez ahantz, joan den urtean, ERANDION, Bilboko ondoan gertatua : 8 hilabetez, usinetako keak pozoindatu eta hilarazi ditu 50 jende ! Nagusiak futitzen dira : ke horien ezeztatzeko maxinak ez dituzte erosi nahi, zombait irabaziz gabetuak bailitazke ; eta bertzalde ez dute berek irriskurik, beren etxe ederrak urrunago dira, itsas hegian ! Lepotik goiti aserik, 3.000 jende jausten dira karrikarat ; Espainiako gobernamenduak bere poliza igorri du eta jendea tiroka barrearazi ; bi gizon hor berean egon dira TIROZ HILAK ! ETA SORHAIO HORIEK DIOTE Izko ETA BERE LAGUNAK MANDIL BATZU DIRELA !!! BAINAN NOR DIRA MANDILAK ?

- Izko eta bere lagunak ala Arantxa Arruti haur beharretan zelarik TORTURATU eta haurra galarazi dakoten zakurrak ? Geroztik Arantxa arras eri dago : burua galdua du, 30 kiloz mehatua, eta hain segur hilen da.

- Izko eta bere lagunak ala 30 urte hauetan jendea ikaran atxikitzen dutenak ? Joan den urteaz geroz, 6 presuna (3 Euskal Herrian eta 3 Grenade hirian) tiroz hilarazi dituztenak ? 2.000 jende baino gehiago presondegietan eman dituztenak Euskal Herrian ? 800 urtez goiti presondegi eman dituztenak auzi faltsu batzuetan ? Ehunka eta ehunka gizon eta emazte torturatzen dituztenak Euskal Herrian ?

BAI, NOR DIRA MANDILAK ? ETA UTZIKO OTE DITUGU MANDIL HORIEK APAILATUAK DITUZTEN KRIMEN EGITERAT ?

Atzar gaiten! Oihu egin dezagun Espainiako eta Frantziako poliziek elgar lagunduz egiten duten lanaren kontra! (Lopez Bravo eta Marcellin ez hain aspaldi Parisen elekatu dira). Egiaren jakiterat debekatzen gaituen ixiltasuna bortxa dezagun. Ixil nagusien faltsukeria ! Burgosko militanteen delako mandilkeriaren gainean erranak izan diren gezurrak bota ditzagun ! Zeren :

- mandilkeria da lehenik, langileri eta populuari faxismoak egiten duen bizia;**
- mandilkeria da lehenik, langilea lanetik kanpo ematea (Baionako inguruan, bi hilabetez, 800 badira kanporat igorriak bastimendu sailean);**
- mandilkeria da lehenik, sobera gosta direlaketz, nagusiek hartu nahi ukan ez dituzten prekozionen gatik gertatzen diren akzidentak ;**
- mandilkeria da lehenik, gazte baten bere herritik kanpo joaiterat bortxatzea ;**
- mandilkeria da lehenik, laborarier beren lurren kentzea (Iraty, Senpere)**

Guk, langilek, behar dugu jakin, Burgosen jukatua izan den guduka, gure guduka dela ! Gure egun guzietako guduka ! Dorronsoro, Burgosen kondenatua izan denak dio : « Ene hiltzerat deliberatzen badira, badakigu populua gurekin murraren kontra izan den dela »...

ZERBAIT EGIN DEZAGUN ! GURE AHAL GUZIAK BALIA DITZAGUN !

Comité de défense des prisonniers de Burgos.

(1970eko azaroa)

Oharra 2000. Ene artikulu koskorren bilduma argitaratu behar nuen ala ez, sekulako dudak ukan ditut (zalantza teknikoak aipatu gabe). Lehenik, hogeietik edo hilabetetik eginak direlaketz, bortz urte eta erdiko isilaldia artean, gertakari handi anitz bada hor kausitzen ez denik. Bertzalde, doi bat antolatu behar nituen, liburu batean paratzeko gisan: aktualitateari josirik egon beharrez anitzak azken puntan, tarrapatan eginak baitziren. Eta nola egin ideiak hunkitu gabe?

Baina ene beldurrik handiena zen, izenik agertu gabe jokatzek - Enbatan agertuez ari naiz hor - uzten duen askatasun soberakin hark eragin lerro batzuk ez ote ziren gogorregiak gertatuko eta delako helburu den « batasunarentzat » kaltegarri...

Horra zertako liburu honen publikagarritasunaz erabakitzerakoan Jean Louis Davant-i galdatu diodan bere iritzia eta honek galdatu bezain laster igorri ere! Liburuaren azalean aurkituko duzue haren hitza. Larrabletik, Euskal Herriaren ekialdetik, etorri zaidan laguntza hori ez dakit nola eskertu: goizeko eguzki suspertzailearen parekoa izan baita.

Manex Erdozaincy-Etchart zenak ere igorriak zizkidan 8 gutun begiratuak nituen artoski eta haietarik bat publikatzen dut hemen azkarki bultzatu bainau, honek ere, argitaratzeko bidean; ikus beherean nihaurk azpimarratu lerroak.

Ene eskasak eta mugak ere ageri-agerian ezartzen ditudala horrelaxe publikatuz? Zer munta du, berdin jadanik denek ezagutzen dituzte... Bere ahulezien aitortzeko ere ez omen da lotsa izan behar...

Donapaleutik 1983ko martxoaren 22an

Henri,

Tolosatik sartzean harrapatzen diat « *Gauaren Atzekaldean* » liburuari Ekaina-rentzat egin dukan presentatzea. Eni, den bezala gustatzen zaitak, bainan beste xehetasun labur hauk ere behar litazkek eman : editorialaren izena (Elkar) ; joan den azaroan argitaratua dela ; 22 liberetan salgai dela ; non aurki litakeen (Euskal Herriko liburutegietan, batez ere Zabal-en, Baionan) ; liburuaren neurria ere, laburra dela erranez.

2.000 ateratu ditie eta orain inportateena duk sal dadin : ene ustez langileek eta laborariek irakurtzeko eta konprenitzeko gisan idatzia baitut. Liburu saltzaileek propaganda poxi bat egiten badute ezagutzen duten jendearen inguruan, ene ustez aise saltzen ahal litakek ez baita luzea eta hain kario. Agian Senperen berean ere ainitzek erosiko die... Senpere : hainbeste aldiz ibili nauk hor predikatzen duela hogoi bat urte eta hain gustukoa dutan herri hortaz oraino oroitzapen goxoena atxikitzen diat.

Besterik gabe uzten haut Henri. Aste huntan Etxarri-n ari nauk lanean : bestela autoa harturik xistez Senpereraino jinen nindukan gauza hauetaz eta beste askotaz hirekin elekatzeko, batez ere biziki gustatzen zaizkidak irratia-rentzat egin hituen hitzaldiak eta Ekaina-n plazerrekin irakurtzen dituztanak : hauek ere balio likeie egun batez liburu batean argitaratzea ; ene ustez euskaraz ez diagu aski publikatzen eta euskal jendeak galdua dik euskaraz irakurtzeko trebetasuna ; hortan ere behar diagu publiko bat sortu.

Marie-Hélène eta horgo ezaguneri ene partez goraintzi haundi bat. Izan untsa eta jo aintzina Euskal kultura egiten. Besarkada bero eta tinko bat deneri.

Manex Erdozaincy-Etchart

P.S. Heldu den igandean, martxoaren 27an, Ibarlan, ene etxondoko sabaian gaztek emaiten die De Monzon-en antzerkia "*Behorrraren Ostikoa*" aratsaldeko 3ak et'erditan : ikustekoa duk eta nik ere joan gei diat ; etortzen bazinezte elkar ikus ginezakek. Arren, igande arte beharbada ?

Lan eta lan ? Hortzak izerdi ! ⁽¹⁾



Henri DUHAU (2)

- 1942 : Beskoitzen sortua urriaren 9an.
- 1956-1962 : Laborantzan ; gero soldadutza Baionan eta Laval-en.
- 1964-1968 : Luberrigile teknikari Donapaleutik, Jean ERRECART senatariaren zuzendaritzapean.
- 1968- : Ezkondu Marie-Hélène ARANArekin ; geroztik Senperen, merkataritzan.

FEDEGINTZA

- 1959-1968 : Eskualdun Gazteria (JAC/MRJC)
: 1963-1964 idazkari ibiltari ; 1965-1967 arduradun orokor.
- 1968-1975 : Fededunak.
- 1969- : Herri Ekintza (CMR)

KULTURA

- 1959-1967 : Herriko besten antolatzaile, antzerki eta bertze.
- 1964-1967 : Oinak Arin dantzari taldea (sortzaileetarik)
- 1972-1989 : Zirikolatz dantzari taldea (lehendakari)
- 1973-1989 : Euskal Dantzarien Biltzarra :
1976-1980 lehendakari-orde ; 1980-1981 lehendakari.
- 1996- : Oxtikenea (sortzaileetarik)

EUSKARA

- 1961- : Artikuluak (lehena, 1961eko urtarrilean): Gazte, Herria, Otoizlari, Dantzariak, Enbata, Ekaina, Denak Argian, eta abar.
- 1964-1990 : Euskaltzaleen Biltzarra (administrazio batzordean)
- 1971-1974 : Senpereko Ikastola (sortzaileetarik)
- 1979 : D mailako Euskal Irakasle Titulua.
- 1980-1981 : FR 3 Pays Basque.
- 1980-1993 : Hasian Hasi (lehen liburua)
- 1985-1988 : AEK, gau eskolan irakasle (alfabetatze maila).
- 1986-1996 : Euskal Aditz Batua (liburugaia)
- 1983-1991 : Herria astekaria (administrazio batzordean)
- 1990-1992 : Egunkaria Sortzen taldekoa.
- 1997-1999 : Herritartzen (Gure Irratian, euskal kurtsoen emaile)

EKONOMIA

1973-1978 : CIDUNATI.
1979- : SOKOA Hendaia ; 1986-1995 administrazio batzordean.
1997 : Industria eta Merkataritza Ganberako hauteskundeetan.

POLITIKA

1965-1974 : Euskal Herriko Zentro Demokratikoa (3)
1970-1975 : Senperen Aro Berri (sortzaileetarik)
1979-1983 : IZAN erakundea (sortzaileetarik)
1987- : Gure Herria abertzale taldea (sortzaileetarik)
1989 & 1995 : Abertzaleekin herriko hauteskundeetan.

DEFENTSA

1969- : Senpereko Gure Lurrak (sortzaileetarik) ; lehendakari 1979az geroztik.

SUSTENGU

1970- : Komertzio ttikiaren alde, Gure Irratia, iheslariak, Hemen, Herrikoa, GFA, Elkarri eta abar.

(1) « Hortzak izerdi ! » : ikus horren erran nahia 145. orrialdean. Bi hosto hauek erakutsi nahi dute ez naizela ez idazle, ez kazetari, komunikazio saila biziki gustatzen bazait ere. Askok alorretan entseatu den militantea naiz, gogoeta batzuk idazteko eta plazaratzeko parada ukan duena...

(2) « Henrike » euskara batuaz; jatorrizko atzizkia (-rik) oroitaraztea biziki ontsa da, indartsua edo holako zerbait seinalatzen baitu gainerat. Baina erran nezake, **irri egiteko poxi bat**, izenaren « ke » ztatzen hasi banintz orain eginen zuketela zenbaitek: « zer ditu espainolkeria horiek: azken tianttoa galdu dik! » Aditz jokabidean berriz « ke » ahultzailea dugu « egiazkoa » « menturazko » bihurtzen baitu (du > duke). Batean indartzaile, bertzean ahultzaile... doala gabe!

(3) Haste hastetik Enbatak osoki interesatu ninduen: kazetaren erosteko espresuki joaten nintzen Baionarat! 1964tik goiti mugimendu berri honen lan zenbaitetan ere parte hartu nuen: bilkura, afitxatze, bide tindatze, Aberri Egun eta abar, kazeta beti irakurtzen nuen baina ez nintzen behin ere osoki Enbatan sartu 1981an idazten hasi arte. Hastapen hartan, ideia berrien plazaratzeko biziki ontsa atzematen nuen baina jokabideetan, hitz batez errateko, Enbatakoak doi bat lasterregi eta pertsonekin gogorsko zebiltzala iduritzen zitzaidan...

(Hemen eransten dugu, oraino ez lekiketenentzat, Enbata **mugimendua** debekatua izan zela 1974an baina 1975ean **kazeta** berriz abiatu zela eta geroztik segitzen duela lanean, aldizkari politiko soil, hastapeneko gogoia oroitaraziz, ondok sortuko diren mugimendu eta taldeen artean.

Bertzalde, aitortu behar, ene familia politiko naturala « zentroa » deitzen den hartan zela aita zenaren ildotik : errotik Jean ERRECART laborarien laguntzaile porrokatu eta hautetsi zintzoaren jarraikitzailea baitzen. Kasik denbora berean haren adiskide mina zen Mixel LABÉGUERIE politika gizon eta euskaltzale handiaren kemenak hurbildik ezagutu eta miretsi ahal ukan nituen ; honek, egundainokotan, laguntza bikaina ekarri zidan: bertzeak bertze, Senpereko Gure Lurrak sortu genuelarik (1969), Sud Ouest-ean, erdarazko artikulua guziak haren bidez pasarazi bainituen eta bertzalde ikastolarentzat prefabrikatua hari esker bildu baikenuen (1973). Azkenik anitz markatu naute Jakes ABEBERRYren ahal zinez paregabeek, 1973an, Euskal Dantzarien Biltzarrean, haren hobeki ezagutzen hasi nintzenetik.

Aspaldian hor nabil beraz, euskaltzaleen eta abertzaleen erdian, pentsamendu bakarrari aihar batetik eta bertzetik batasunaren beharra ene gisan errepikatuz; nehor guti menturatzen den bide harritsuetarik: ene hiru idazlanak (Hasian Hasi, Euskal Aditz Batua eta Aupa Batasuna !) guziz eztabaidagarriak baitira; beti ahalik eta hobekiena egiterat entseatuz halere: Euskal Herri honentzat maitasunez, nortasun eta askatasun beilari...

Senpere, 2000.eko urtarirlean

HIZTEGITXOA

abestu : chanter
aburu : opinion, avis
agintari : chef d'une autorité
aitzinka : devançant // de l'avant
aitzitik : au contraire
adierazi : exprimer, indiquer
adierazpen : déclaration
aditu : entendre // spécialiste
aditz : verbe
ahoskera : prononciation
aitoren seme : homme noble
akats : défaut
alabaina ≈ izan ere
aldaketa : mutation, changement
aldarrikatu : proclamer
alderantziz : inversement
aldizkari : revue, périodique
altxor : trésor
altzari : meuble
amaitu : achever, finir
amildegi : abîme, gouffre
andeatu : bousiller, esquinter
antolatuta : organiser
antzezle : acteur (théâtre)
araudi : règlement, statuts
arazo : problème, difficulté
arduradun : responsable
arerio : adversaire
aritzen = artzen
argitaratu : publier
arrakasta = arrakesta
arraro = arrado
arrazoi = arrazoin
askatu : libérer, émanciper
aske : libre
atari : seuil, porche
ateketan : en difficulté
atxilotu : arrêter, détenu
atzerakoi : arriéré
atzerri : pays étranger
auhen : lamentation
aulki = alki
aukera : occasion // choix
aupa = haupa
aurka ≈ kontra
aurkeztu : présenter
aurrera : en avant
aurreztu : épargner
azaldu : exposer, expliquer
aztertu : analyser, examiner
azoka : foire
auzotegi : quartier, voisinage
babes : abri, protection
baikor : optimiste
bakoitza = bakotxa
baldintza : condition
bateratu = batetartu

begirune : regard positif
behingoan : pour le moment
behintzat : au moins ça (?)
beltzuri : regard négatif
berdin : égal // très probablement
berduratu : éparpiller
beregaintasun : indépendance
bereizi = behexi
berregituratze : restructuration
bertan ≈ han berean
bibote : moustache
bikain : excellent
bilakaera : évolution
birazkatu = **binazkatu** : jumeler
bizikide : conjoint, compagnon
bizi-maila : niveau de vie
biziraupen : survie
buhakin : taupinière (monticule)
bultzatu : inciter, promouvoir
buraso = burhaso = guraso
burgoi : orgueilleux
burujabetasun : indépendance
dasta = jasta
deblauki = deplauki
deitoragarri : déplorable
derrigorrez : absolument
desmasia : dégat, ravage
destorbu : désastre
diputatu = deputatu
dotore : chic
duintasun : dignité
ea = hea = eian
ebakuntza : opération (chirurgie)
egitura : structure
egitarau : programme
egoera : situation
egokitu : adapter
eguneroko : quotidien
egutegi : calendrier
eguraldi : temps (météo)
eiki bada ≈ alta bada
ekialde : iguzkialde (Est)
ekintza : action, activité
elasturi : bavard(age), bagou
eldarnio : délire
eledun : porte-parole
elkar = elgar
elkartasun : solidarité, union
elkarte : association
elkarriketa : interview,
emanaldi : émission
-ei = **-eri** :
 lagunei = laguneri
-en = **-go** :
 eginen = egingo
enduritu : dépérir
enpresa : entreprise

epaile : juge
era = ara : façon, manière
erabaki : délibérer
eraberritu : rénover
eragin : influence/r, susciter
eragotzi : entraver, gêner
eraiki : construire
erail : tuer, assassiner
erakunde : institution
erakusleiho : vitrine
erantsi : ajouter
erantzukizun : responsabilité
eraso : attaque
eratu : moldatu
erdietsi = ardietsi
eredu : modèle
ero = erho
eroale : vecteur
erraldi : énorme, géant
errex = erraz
erreximenta : confiture
eskema : schéma
eskubideak : dretxoak
eskuin muturra :
 l'extrême droite
Estatutu : Statut d'Autonomie
estatu : état // État
eta abar : etc...
etengabe : sans arrêt
etorkizun : avenir
euli = uli
Euskal Autonomia Erkidegoa :
 Communauté Autonome Basque
euskalari : bascologue
euskalki : dialecte basque
euskara batua :
 langue basque unifiée
eutsi : tenir, s'en tenir à
ezabatu : effacer, disparaître
ezker muturra :
 l'extrême gauche
ezkor : pessimiste
gailur : sommet
gaitzetsi : désapprouver
gaizto = gaixto
galdera : question
-gandik = -ganik
gantzutu : embaumer, oindre
garai : époque // hauteur (endroit)
garaitu : gagner, triompher
garaipen : victoire
garapen : développement
garden : limpide, transparent
garraio = karraio
garrantzitsu : important
gaskoi = gaskoin = kaskoin
 gaskoiera = gaskoinen hizkuntza

gazitu : saler // faire payer cher
gehiagi : trop
gehiengo : majorité
gehigarri : additif
gesaldu : dégeler, déglacer
gibelamendu : retard, recul
gibelka : à reculons
giro : ambiance
Giza Eskubideak :
 les Droits de l'Homme
gizarte : société (humaine)
goitirik ≈ engoitik
gotorleku : bastion, forteresse
gurpil : roue
gurutze = kurutze
gustu = gostu
guti = gutxi = gutti
gutienago = gutxiengo (minorité)
gutun : lettre
guzia = guztia
harrera : accueil
harroputz : présomptueux
hausnartu : ruminer // réfléchir
hauteman : discerner
hauteskunde : élection
heldutasun : maturité
herratu : errant
herrizale ≈ abertzale
herstura : angoisse
hertu : dégonfler
heziketa : formation
Hezkuntza Nazionala : Education
 Nationale
hikatu : s'embourber
hilaurlu : avorter
hinki-hanka : clopin-clopant
hitzarmen : convention
hitzordu : rendez-vous
hiztegitxo : glossaire (?)
hizpide : sujet, matière à...
hobetsi : préférer
hodei = hedoi
horditu : s'énivrer
hots : bref // grande vitesse
iaz = jaz = xaz
iduri ≈ irudi
igarle : prophète
ihauska : se vautrant
ilar : haricot // bourde
iltzea = itzea
ibiltari : itinérant
idazle : écrivain
iharduki = ihardoki
iheslari : fugitif, réfugié
ikertu : rechercher, explorer
ikur : signe, symbole
ikurrin : drapeau basque
ilaun : évanescent (?)
infernu = ifernu
ingurumen : environnement

iragarki : affiche, panneau
irain : affront
iraultza : révolution
iraungi : éteindre
ireki = ideki
irentsi = iretsi = ihetsi
iritzi : opinion, avis
irradi : radio (ondes)
isil = ixil
itun : pacte, charte
itxaropen ≈ esperantza
itxindi : tison, braise
izurrite : peste // surabondance
jai : fête
jakinduria : savoir, sagesse
jardunaldi : journées, session
jariatu : s'écouler (dario)
jarrera : attitude
jator : authentique, vrai
jaukitu : appeler impérativement
jaunpan : jo harat, jo hunat
jauntzi = jantzi
jautsi = jaitsi
jite = izaera : caractère (naturel)
jokabide : manière d'agir
joera : tendance, inclination
joritu : prospérer, thésauriser
kemena = jemenen = gemena
kezka : préoccupation
kirolak : les sports
kolokan : chancelant
kontatu = kondatu
kontu = kondu
kontsumitzaile : consommateur
kontsumo : consommation
kopuru : nombre
kordokatu : ébranler pour casser
-kotz ≈ -ko :
 érosi du ikusi duelakotz
 ≈ érosi du ikusi duelako
kudeatu : gérer // diriger
kurubilkatu : (se) recroqueviller
kutsadura : pollution
larri : gros // grave, urgent
larri-larria : en gros, en résumé
laburzka : raccourci
lauhazka = lauoinka
legegintzaldi : législature
lehiatu : insister, se battre
leinu : tribu
lema : thème
leporatu : accuser, imputer
lili : fleur // nigaud
limar : brin, miette
loakartu = lokartu
lortu : réussir, obtenir
lurralde : province // région
malgu : souple
margo : couleur, peinture

mazelako : gifle
menperatu : dominer, coloniser
merkataritza : commerce
milioi = miliun
moneta = moneda
morroi : domestique
motel : bégue // mou
mozkinak : les bénéfices
muga : limite, frontière
munstro = mustro
murgildu : se mouvoir
murtxatu : (re)mâcher
muturreko : coup au visage
nabari : évident
narrío : défaut
 NATO = OTAN
ñabardura : nuance
ñaurtu : rabougri
nazio = nazione
negar = nigar
neurketa : compétition
nolabait = nolazpait
non = nun
norabide : direction
ohitura = ohidura
oies : sauvage, brutal
oinarri : base, fondation
oixtian = arestian
oker : borgne // défaut
olde : élan, mouvement
olerkari : poète
ondarea : patrimoine
ondikotz : malurusi
oñoñak : bonbons
ordezkari : délégué
ordezkatu : représenter
oreka : équilibre
oroimen : mémoire
oroitu = orhoitu
orrialde : page
ospatu : célébrer
oturuntza = otruntza : repas
ozar : insolent, éhonté
oztopo : obstacle
patroi = patroin
pegatina : macarron, autocollant
pegeseria : bagatelle
petentakeria : imbécilité
pentoka : butte, bosse
petral : vaurien, voyou
pirka pirka : un peu à la fois
pozoi = pozoin
poztu : alaitu, aлегeratu
-rantz : -rat buruz :
 etxerantz ≈ etxerat buruz
-rat = -ra :
 etxerat = etxera
pulunpatu : plonger, balloter
saihets = sahets, sehets

saihesbide : déviation (route)
sakabanatu : disséminer
sakondu : approfondir
salbuespen : exception
salmenta : vente (chiffres d'affaires)
samats : tas de fumier
sasijakintsu : pseudo-savant
sentitzen = senditzen
soraio = sorhaio
sorkuntza : création
sorta : recueil
sotil : élégant, fin, agile
suspertu : tonifier
tai gabe ≈ etengabe: sans arrêt
-tarik = tatik :
 hartarik = hartatik
tetele : sot, niais
teolesia : théorie (subjective)
tirria : désir vif
titulu : titre
tole : en très grande quantité
topaketa : rencontre
tturrindu : ruiner
tutatu : klaxonner // assourdir
txalaparta : instrument de communication (folklore)
txalotu : applaudir
txosten : rapport, exposé
udaletxe : mairie
ugari : abondant, beaucoup
ulertu : comprendre
une : moment
urkabilur : neud coulant
usnatu : flairer, sentir
uso = urtzo
ustelkeria : pourriture/corruption
ustiatu : exploiter
ximen : soigneux
xipatu : (être) trempé
xirtxikatu : mettre en lambeau
xitxuketan : en activité futile
-z gero = -z geroz :
 ikusiz gero = ikusiz geroz
zainarta : énergétique
zafla : morceau, tranche
zalantza : doute, incertitude
zapalkuntza : oppression
zehar = à travers
zehatz : concret, précis
zeinen = zoinen // zoin
zepo : piège
zerrenda : liste
zigor : châtiment
ziliportak : éclaboussures
zital : scélérat, ignoble
zitzuri : ajonc trop agé, inapte pour litère
zohi : mûr
zurkaitz : tuteur (plantes)

zutabe : colonne, pilier
zuzendu : diriger // rectifier

Erranaldi batzuk (zentzu itxuratuan)

azen ontzeko : par-dessus le marché teinté d'ironie
azken beltzean : en dernière extrémité
azken ttanttoa galdu : hondarra burua galdu
bazterrak airean : ambiance agitée
berba : discours insistant
bortzekoa : poignée de main
burutik behera : en coup de massue
burutziarik ezin eginez : ne pouvant (plus) faire face
eskerrik ez ukan : ne pas (savoir) apprécier
hoberena gogoan : bertz zerbaït "txarragoa" gogoan
hortzez eta haginez : d'arrache-pied
ipurdia lastoz : kontzientzia lasai ez dutenei erraten zaie
jestu gutiz : rapidement, brusquement
kopeta : (avoir du) culot
mutur saltsa : bouderie, fâcherie
on deno : avant qu'il ne soit trop tard; tant qu'il en est encore capable
urak : les (mauvais) penchants
zer apostolua hori : bere ustez zernahi denari erraten zaio
ziria sartu : entuber
ziriko piltzarra bezala : comme le dernier des gueux

Erakusle batzuk

haietaz = haiez = hetaz
honen = hunen // hoin
honetan = huntan
honetaz = honez = huntaz
horietaz = horiez = hoitaz
horrela = hola
horren = horren // hoin
horrenbertze = hoinbertze
horretan = hortan
horretarik = hortarik
horretarako = hortako

Adizki jokatu zenbait

badirudi ≈ iduri du ≈ iduri luke
bagina = bagine
bazina = bazine
bagenekien = baginakien
bagenihardtso ≈
 ihardets baginezo
baikara = baigare = baigira
baikinen = baiginen
baikenuen = baiginuen
baitigu = baitauku
balerrate ≈ erraten balute
dagokionez ≈ doakionez
dakar ≈ ekartzen du
dakusat ≈ ikusten dut
darabil = derabilia
darakutsate ≈ erakusten dute
daramate = deramate
darraizkio ≈ jarraitzen zaizkio
dator ≈ heldu da
datoz ≈ heldu dira
datozela = datortzila
dateke ≈ izanen (bide) da
datxekio ≈ atxikitzen + zaio
datza : ci-gît // ça consiste
dautza : ci-gisent
derasate : ils jasent, ergotent
derauntso : il (lui) frappe fort
deritzot : (hola dela) daukat
didate = dautate
digu = dauku
diegu = diotegu = dakotegu
diete = diote(te) = deete
diezaïen = dezoten
diezaïoke = dezoke
diguzu = daukuzu
diosku ≈ erraten dauku
dirateke ≈ dira + menturaz
dizkiot = dazkot = diozkat
dizugu = dautzugu
dizute = dautzute
doaz = doatzi
gara = gare = gira = gire
gatoz ≈ heldu gara
genbiltzan = ginabiltzan
geneukan = ginaukan
genezake = ginezake
geniezaïeke = ginezokete
genituzke = ginituzke
genuen = ginuen
geunden = ginauden = ginautzin
ginateke = gintazke
gindoazen = ginoatzin
lerioke ≈ jario + litake
liezaïoke = lezoke
lihoake ≈ joan + litake
lirateke = litazke
litzateke = litake
lizkiguke = lauzkiguke
zatekeen = zitaken
zebiltzan = zabiltzan
zegoen = zagon
zekien = zakien
zeniotson ≈ erraten zinion
zenion = zinion = zinakon
zenuen = zinuen
zeukan = zaukan
zihoan = zoan
zioskun ≈ erraten zaukan
zizkion = ziozkan = zazkon

ACHEVÉ D'IMPRIMER
SUR LES PRESSES DE
L'IMPRIMERIE DU LABPOURD À BAYONNE

1^{ER} TRIMESTRE 2000

Henri DUHAU jaunari

Adiskidea,

Zure lana begiztatu dut frango xeheki, beti hitzez-hitzez irakurri gabe haatik, eta ez dut ikusten zeren uzkur egon behar zenukeen horren agertzeko.

Euskara zabala duzu, luma zinez ona eta sotila. Aldian aldiko gertakizunak oroitarazten dituzu laburki, zentzuzkoak diren oharrek eginez, baita kritika orekatuak. 1980-90 eta 1996-99 urteetan barna, lekuko baliosa dabil artikulu sorta hori, zure sentimendu, ikuspegi, aburu, iritziez aberastua. Denbora horretako historia gordearen idazteko balia daiteke, hor funtsezko gauzak agertzen baitira zentsurarik gabe, kasu honetan autozentsurarik gabe, euskarari esker. Euskara, hara gure babesa, harresia, gotorlekua, geriza !

Gai mota guziak aipatzen dituzu ahoan bilorik gabe, baina beti gizonki eta neurri bat atxikiz, euskararen auzitik hasirik puntako euskal politikaraino, Senpereko lurren afera baztertu gabe ! Ahalik eta lasterren plazara jalgi dadila beraz, Zuberoako txererroa bezala bere jatsaz bide zabaltzaile. Bai, espiritu gaiztoak aitzinetik haizatuz, "Aupa batasuna !"

Goresmenak eta zorionak Adiskidea, agur hoberekin.

J.L. Davant

Aupa batasuna !



GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)

**AUPA BATASUNA !
liburua atera ondoan
prentsan agertu ziren zenbait lerro**

Milesker guzieri ! H.D.

Aupa batasuna! Henri Duhau abertzale bikainaren liburu bikaina

Aupa batasuna !



Henri Duhau

■ Hainbeste urtez Enbata astekarian sar-hitza idatzi duen Henri Duhau-k bere lan mamitsua bilduma batean aurkezten dauku, gainerat ezarriz han edo hemen publikatu dituen artikulua batzu. 228 orrialde ditu obra gotor hunek. Bere esaldi ederrean agertzen den ikurriak argi ta garbi salat-

zen du zer «koloreta-koa» den. Guziz gaitetik azpimarratzekoak dira, liburu hastape-nean aukeztuak diren hiru puntu (aurkibideaz bertalde): aurkibide alfabetikoa, aipatu gai nagusien taula eta aipatu pertsonen zerrenda. Eta nola ez aipa azken orrialdetan ezarria den hiztegitxoa?

Horietan da zinez ageri Henri Duhau-k irakurlearentzat zer heinetako errespetua daukan, zinez goxo baita hainbeste xehetasun errexi kausitzea, hain ongi klasifikatuak diren ber! Nehork ez du Jean-Louis Davant gure adiskideak baino hobeki erranen zer den liburu balios horren gaia: «Gai mota gu-ziak aipatzen dituzu, ahoan bilorik gabe, baina beti gizonki eta neurri bat atxikiz, euskararen auzitik hasirik puntako euskal politikaraino, Senpereko lurren afera baztertut gabe!... Goresmenak eta zorionak adiskidea, agur hoberenekin». Enbata-kideak hortan ados girela erraite beharrik ez!

Enbata 2000-04-13

EGUN ETA BIHAR

HENRI DUHAU MINTZO : “AUPA BATASUNA !”

Sarako Biltzarrari buruz, Henri Duhau senper-tarrak atera du beraz liburu eder gotor bat “Aupa Batasuna !”.

Bai, liburu gotorra da, 228 orrialde baitauzka, bainan oroz gainetik liburu sanoa eta mamitsua. Leku-kotasun bat nasaia bezen argia. Izan ados edo ez ar-ras ados, irakurleak badu hor pazka ederra eta ainitz gogoetaren egiteko mol-dea.


Historialari batek ere kausi dezake hor azken ho-goi urte huntako gertaka-riez zenbait eta zenbait ar-gitasun balios.

Zer da bada liburu gina-rritsu hortan ? Alde bate-tik, FR3-Pays Basque irra-ti-etxetik zabaldu zituen hogoi emanaldiak, konda-tuz ere nola baimenik e-tzuen ardietsi sail horren aintzina segitzeko. Ondo-tik, gaitzeko artikulu anda-na aberatsa, **ENBATA as-tekarian** agertuak 1981-ean hasirik eta joanden uda arte. Azkenik, beste bospasei idazlan, horietar-rik hiru **HERRIA** asteka-rian argitaratuak.

Liburua oraino argiago izaiteko gisan, bai eta e-rrexki baliagarriago, hor sartuak dira hiztegitxo bat, aipatu gai nagusien taula eta izendatu jendeen ze-rrenda. Laguntza handia hori hartaz edo huntaz ikerketa berezi zerbaiz aku-latu nahi duen nornahi-rentzat.

EUSKAL-HERRIA MAITEZ

Zerk derabilan Henri Du-hau holako lana plazaratuz jadanik egin guzien gaine-rat ? Berak erraiten dauku



orrialde baten zola-zolan, holaxe mintzo delarik : “Aspaldian hor nabil be-raz, abertzaleen erdian, pentsamendu bakarrari ai-her batetik eta bertzetik **batasunaren beharra ene gisan errepikatuz** ; nehor guti menturatzen den bide harritsuetarik : ene hiru idazlanak (Hasian hasi, Euskal Aditz Batua eta Aupa Batasuna !) guziz ez-tabaidagarriak baitira ; beti ahalik eta hobekiena egiterat entseatuz halere, **Euskal-Herri honentzat maitasunez**, nortasun eta askatasun beilari”.

Bai, beilari, lekuko eta mezulari agertzen zauku Henri Duhau. Mintzo dela euskal departamenduaz,

Aberri-Egunaz, Sarako Biltzarraz, ikastolez, Jean Hiriart-Urruty zenaz, San Frantses Jatsukoaz, arra-zakeriaz, euskal dantza eta ohidurez, diruaren eragi-naz, laborarien arrangurez ala zernahitaz, behako xo-rrotx eta barnakorra emai-ten diote deneri, bere si-nestea berme, berak ikusi eta entzunak jakituz.

Zorionak holako liburu aberatsa eginik, agian ai-nitzek eta ainitzek, bereziki gazteen artean, irakurtuko dute eta baliatuko ere. Euskal-Herriaren alderate-ko suak hazten du liburu guzia, su horrek argi eta bero ditzala irakurlearen gogo-bihotzak...

J.-B. D.

HERRIA 2000-04-27

2000ko ekainaren 3a

• LIBURUAK

1

1980tik idatziriko artikulurik maiteenak bildu ditu lan honetan **Henri Duhauk**



Kazetaritza: **Aupa batasuna!**
Henri Duhau
Henri Duhau, 2000
228 orrialde

ALDIAN-ALDIKO

gertakizunak, kritika eta
gogoeta zenbait. Henri
Duhau iritzigile eta

idazleak duela hogeit hamar urtetik hona zenbait komunikabidetan eman dituen lanak bildu ditu liburu honetan. Berak argitaratu du lana, eta hirurehun aleko edizioa prestatu du. Lau multzotan dago banatuta liburua. Lehena *FR 3 Pays Basque* edo *Euskal Herriko Irrati Etxetik* egin hitzaldiak izenekoak da; 1980ko irailetik 1981eko urtarrila arte idatziriko hogeita bat artikulua biltzen dira bertan. Bigarrenak 'Enbata' astekari politikoarentzat egin artikulua izena du, eta iazko uztaile arte bertan argitaratutako lan mordoa biltzen du. Azkenik, 'Herria' astekarian agertu batzuk eta Denetarik datoz. Unean-uneke giro politikoa, nazioartea, kultura, gizartea, euskararen egoera... Ez dira gutxi Henri Duhauk artikuluetan jorratzen dituen gaiak, urteetan zehar aletu dituenak.